

Sakelako ametsak

Inoren kargura ez dauden adingabe
migratzaileak Euskal Autonomia Erkidegoan

Violeta Quiroga
Ariadna Alonso
Montserrat Sòria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES

Sakelako ametsak

Inoren Kargura ez dauden Adingabe
Migratzaileak Euskal Autonomia Erkidegoan

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

Pere Tarrés-Universidad Ramón Llull Fundazioko IFAM Ikerketa Taldea (Haurrak eta familia giro kulturantzatzen):

Violeta Quiroga, Antropologian Doktorea
Ariadna Alonso, Antropologoa
Montserrat Sòria, Soziologoa

Laguntza-taldea:

Carlos Sagadoy, Pedagogoa
Aurora Gastiasoro, Gizarte-Hezitzailea
Maite Pastor, Gizarte-Hezitzailea
Néus Albèrich, Antropologoa
Carme Guasch, Antropologoa
M.ª Antònia Capó, Soziologoa
Ariadna Casas, Soziologoa
Francina Mas, Soziologia-Ikaslea
Carlos Díaz, Politika Zientzietako Ikaslea
Isabel Grabulosa, Soziologia-Ikaslea

Argitaraldia: 1.a, 2009ko abendua

Ale-kopurua: 200

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila

Internet www.euskadi.net

Argiraratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
c/ Donostia-San Sebastián, 1 (01010 Vitoria-Gasteiz)

Fotokonposaketa: Ipar, S. Coop.
Zurbaran, 2-4 (48007 Bilbao)

Inprimatzea: Gráficas Varona, S.A.
Polígono Industrial «El Montalvo» (Salamanca)

ISBN: 978-84-457-2943-4

L.G. VI-698-2009

Ezker onak

Ikerlan honetan, beste askotan bezalaxe, ageriko talde bat dago, landa-lana, azterketa eta txostena egin dituen. Ez dugu ahaztu behar, ordea, atzean pertsona eta erakunde asko daudela, eta horien laguntzari, elkarlanari eta presentziari esker bide egokia aukeratzeaz gain, ikerlan hau dagokion helmugara iritsi ahal izan dela.

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren Immigrazio Zuzendaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak, Arabako Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako babesak eta laguntza eskertu nahi dugu; izan ere, erakunde horiek ekonomikoki laguntzeaz gain, ikerlanaren alderdi asko erraztea lortu dute (esate baterako, estatistika-datuak lortzea, lan zaila baitzen), gure eskaerei egokitasunez erantzunez eta etengabeko konfiantza emanez.

Bigarrenik, eskerrak eman nahi dizkiogu Arartekoaren erakundeari; alde batetik, haurren eta nerabeen eskubideak etengabe zaintzeagatik helarazi dizkigun interes-adierazpenak direla eta; eta beste alde batetik, ikerlanean emandako laguntzagatik.

Hirugarrenik, bereziki eskerrak eman nahi dizkiogu Carlos Sagardoy jaunari, proiektu honetan izandako presentzia motibatuagatik eta Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileek (IKEDAM) Euskal Autonomia Erkidegoan bizi duten errealitatean sartzeko ikertzaile gisa bete duen funtsezko zereginagatik, arreta eta harrera zoragarria eta nekaezina eskainiz. Bestalde, aukera hau aprobe txatu nahi dugu azterlan honetan gurekin harremanetan jardun duten profesional guztiek emandako laguntza ordainezina dela aitortzeko, eta eskerrak emateko, zeren nahiz eta horietako askok beren eguneroko lanean baldintza oso gogorretan jardun, uste izan baitute ikerlan honetan parte hartzea baliagarria izango zaiela beren esku-hartzeak hobetzeko.

Laugarrenik, eskerrak eman nahi dizkiegu uneren batean lagundu diguten pertsona anonimo guztiei.

Eta azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu elkarriketak egin dizkiegun, beren denbora preziatua gurekin partekatu duten eta beren historiak, beren familienak eta beren herrialdeenak azaltzen utzi diguten 53 gazteei. Gazte horiek gaur egun oraindik adingabeak dira edo handitu egin dira prozesuak iraun duen bitartean. Bihotz-bihotzez espero dugu txosten hau irakurtzeko aukera izan dezatela egunen batean, eta horri esker, aukera izan dezatela beren orainaren eta etorkizunaren kalitatea axola zaigula sentitzeko.

AURKIBIDEA

1	Sarrera	9
2	Metodologia	13
	2.1. Teknika kuantitatiboak.....	14
	2.2. Teknika kualitatiboak	18
	2.3. Partaidetza-tailerra	21
3	Esparru teorikoa.....	23
	3.1. Atzerriko emigrazioari buruzko oharra.....	23
	3.2. Inoren kargura ez dauden adingabeen migrazioa	30
	Kapituluaren azalpena.....	45
4	Fenomenoaren garrantzi soziodemografikoa	47
	4.1. Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileak (IKEDAM): gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan bizi duten egoera	48
	4.2. Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen (IKEDAM) fe- nomenoaren bilakaera.....	59
	4.3. Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen (IKEDAM) ezaugarriak	67
	Kapituluaren azalpena.....	86
5	Jatorrizko testuinguruak.....	89
	5.1. Jatorrizko toki eta herrialdeei buruzko datu orokorrak.....	89
	5.2. Abiapuntuko testuingurua	105
	Kapituluaren azalpena.....	141
6	Migrazio-proiektua	143
	6.1. Migrazio-aurrekariak European	143
	6.2. Irteeraren kausak eta eragileak	153
	6.3. Emigratzeko erabakia eta erabilitako estrategiak.....	160
	Kapituluaren azalpena.....	171

7	Ibilbidea. Bideak eta bidaiako kondizioak	173
	7.1. Jatorrizko herrialdetik Espainiako mugaraino	173
	7.2. Espainiatik EAeraino	180
	7.3. Sentimenduak eta bizipenak ibilbidean.....	190
	Kapituluaren azalpena.....	193
8	Iristea eta integratzea	197
	8.1. Erakunde-sarea	198
	8.1.1. Arabako Lurralde Historikoa.....	201
	8.1.2. Gipuzkoako Lurralde Historikoa	226
	8.1.3. Bizkaiko Lurralde Historikoa.....	268
	8.2. Heziketa-proiektua	304
	8.3. Adingabe ikusezinak	311
	Kapituluaren azalpena.....	315
9	Ondorioak eta gomendioak	319
	9.1. Ondorioak.....	319
	9.2. Gomendioak.....	329
10	Bibliografia	335
11	Eranskinak.....	339
	I. Elkarriketatutako funtsezko informatzaileak.....	339
	II. Egoitza-baliabideen (OP) sarea Gipuzkoan	340

1 Sarrera

Migrazioak fenomeno dinamikoak eta oso aldakorrek dira, eta beraz, migrazioaren berezitasunen berri etengabe izatea eskatzen du horrek. Esku artean duzuen txostena *inoren kargura ez dauden adingabeen migrazioari dagokionez* autonomia-erkidegoetako, kasu honetan *Euskal Autonomia Erkidegoko*, errealitateak ezagutu, aztertu eta azaldu nahi izanaren emaitza da, populazio hori hobeto artatzeko behar diren tresna analitikoak edukitzeke.

Txosten honetako ikerlanaren helburu nagusia *Euskal Autonomia Erkidegoan inoren kargura ez dauden adingabe migratzaileen (IKEDAM) fenomeno*a ezagutzeko elementuak ematea da, bereziki kolektibo horretan garatzeko bidean dauden talde berriak aintzat hartuta, eta horrela, *adingabe horiei atxikitako programak eta proiektuak hobetzen laguntzea* arriskuan dauden haurrak eta nerabeak babesteko mekanismoen, baliabideen eta jardunen bitartez.

Helburu espezifikoenak honako hauek dira:

- a) Inoren kargura ez dauden adingabe migratzaileen fenomenoaren *ezaugarri berriak* ikuskatzea eta aztertzea: aldaketak nazionalitateetan (Saharaz azpiko Afrika, Ekialdeko Europa, Asia, eta abar), ibilbideak, migrazio-jarraibideak, eta adingabe horiek Euskal Autonomia Erkidegoan egokitzeke eta integratzeko dinamikak.
- b) Fenomeno horretan gertatzen ari den *feminizazio* hasiberria ikertzea, baita haurrak babesteko sistemek atzeman ez duten inoren kargura ez dauden eta, beharbada, gizarte-arriskuaren egoeran bizi diren nesken eta neskatxen kopurua ez jakitea ere.

Txosten honetako emaitzen hasiera, neurri batean, garai bateko Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren I+G+B Programa Nazionalaren (2006-08) aldetik, Pere Tarrés-Universidad Ramón Llull Fundazioko IFAM Ikerketa Taldearen (Haurrak eta familia giro kulturantzetan) *Menores Migrantes No Acompañados en España. Situación actual y nuevas tendencias* izeneko ikerketa-proiektuaren zati baten finantziazioan bilatu behar dugu.

Hasierako proiektu horretan, landa-lana Kataluniako Erkidegoan¹ eta Madrileko Erkidegoan soilik egin zen. Baina, azkenean, Valentziako Erkidegoan eta Euskal Autonomia Erkidegoan ere egin da. Era berean, Autonomia Erkidego horietako datuak eta emaitzak estatuko txostenaren azterketan ere bilduko dira. Azken batean, zabaldua dagoen eta bi txostenekin atzeralikatzeko den informazioa da; txosten horietako bat tokikoagoa da, eta bestea, berriz, estatukoa.

Txostenak honako gai hau aztertuko du sakonki: *Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migrazioaile kopuruari dagokionez Euskal Autonomia Erkidegoa hirugarren autonomia-erkidegoa dela* —Andaluzia eta Kanariak erkidegoen ondoren— adierazten duen datua. Nolanahi ere, kontuan hartuta bi erkidego horiek Espainiako lurraldera sartzeko eta lurralde horretatik ateratzeko lekuak direla, Euskal Autonomia Erkidegoa *adingabe horien kokapenerako lehenengo erkidegoa da*. Fenomeno hori gutxiago aztertu diren beste erkidego batzuetan ulertzeko asmoz, erabaki zen ahalegin handia egitea arlo horretan eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko *administrazioen konplizitatea bilatzeko*, eta Eusko Jaurlaritzaren Immigrazio Zuzendaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza logistikoa eta ekonomikoa lortu zen².

Aldi berean, populazio hori *artatzen duten eta esku-hartzeak gauzatzen dituzten erakundeekiko lankidetzat* bilatu zen lurraldean, erakunde horiek testuingurua ezagutzera eman ziezaguten eta laguntza logistikoa landa-lanean. Zeregin horri Zabaloetxe Zentroak ekin zion. Zentro horrek, gainera, landa-lanaren zati bat hartu zuen bere gain.

Txosten hau *bederatzi kapitulutan zatituta* dago; horien artetik, lehenengo biak sarrerari eta metodologiari dagozkio. Hirugarren kapituluan (teorikoagoa da), inoren kargura ez dauden adingabeen migrazioaren fenomenoak ulertzeko funtsezkoak diren zenbait kontzeptu analitiko biltzen dira: migrazio-mugimenduak, adingabeen migrazioa, haur eta gazte horiei buruz hitz egiteko erabiltzen den izendapenen aniztasuna, fenomenoaren arrakari historikoak, eta abar; horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko errealitatea eta Espainiako Estatuko errealitatea alderatu dira.

¹ Ekonomikoki babesten eta laguntzen duten Kataluniako erakundeak honako hauek dira: Emakumeen Kataluniako Erakundea, Haurrak eta Nerabeak Laguntzeko Zuzendaritza Nagusia, Kataluniako Generalitateko Immigrazio Idazkaritza, eta Jaume Bofill Fundazioa.

² Prozesu bera egin zuten Valentziako Erkidegoan, Valentziako Generalitateko Familiaren, Adingabearen eta Adopzioen Zuzendaritza Nagusiaren laguntzarekin.

Laugarren kapituluaren egoera horri buruzko estatistika-datuak azaltzen dira, Euskal Autonomia Erkidegokoak eta Espainiako Estatuko gainerako erkidegoetakoak. Lehenengo zatian fenomenoaren bilakaera lantzen da, 1994tik 2006ra bitarte, eta bigarren zatian oraingo egoera hartzen da oinarritzat, 2007an eskuragarri zeuden azkeneko datuekin. Aztertzen diren aldagaietako batzuk honako hauek dira: adingabe kopurua, probintzia, nazionalitatea, sexua eta adina.

Bosgarren kapituluaren jatorrizko testuinguruari buruzko alderdiak lantzen dira, hala nola, nazionalitatea, familia-tipologia, adingabearen egoera sozioekonomikoa, eskola- eta/edo lan-arloko ibilbidea, baita dauzkaten aisia-harremanak ere. Kapitulu honetan nazioz gaindiko ikuspegia sartzen da, migrazioei buruzko azterlanean alde batera utzi ezin dena.

Seigarren kapituluaren adingabearen migrazio-proiektua lantzen da: familiako eta gizarteko aurrekariak, lehenengo ideiak, emigrazioaren arrazoiak eta eragilea, familiaren inplikazioa eta bidaia prestatzeko erabilitako estrategiak, migrazio-erakundearen erabilera, bidaia-kostua eta abar.

Zazpigarren kapituluaren erabilitako ibilbideen aniztasuna azaltzen da, baita adingabeak beren jatorrizko herrialdeetatik ateratzen direnetik Euskal Autonomia Erkidegora iristea lortzen duten arte egiten duten ibilbideari buruzko alderdiak ere, erabilitako garraioak, igaro dituzten herrialdeak eta hiriak, igaro dituzten erkidegoak, beste laguntza-zirkuitu batzuetan aurretik izandako esperientziak, eta migrazio-prozesuetan abian jartzen diren laguntza-sareak aipatuz.

Zortzigarren kapituluaren, eduki handiena duenetako bat, laguntza- eta harrera-zirkuituari buruzko deskribapen zehatza egiten da, hiru foru-aldundietako bakoitzaren berezitasuna oinarri hartuta; horretarako, laburpen historiko bat egiten da Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen lehenengo kasutik hasita gaur egun arte, hots, 2008ko irailera bitarte. Dauden baliabide guztiak erregistratu eta zerrendatu dira, hala nola, urgentziazko zentroak, egoitza-zentroak, emantzipazio-etxebizitzak eta adin nagusikoentzako etxebizitzak. Era berean, babes-zirkuituan atzeman diren eta maiz azaltzen diren gabezia batzuk aipatzen dira, eta hobetzeko proposamen batzuk egiten dira. Proposamen horiek Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileekin lan egiten duten profesionalen funtsezko lankidetzarekin garatu dira.

Azkenik, bederatzigarren kapituluak azterlan honetako ondorio nagusiak biltzen ditu, eta hainbat gomendio ematen dira.

Ikerketa aplikatuaren gure planteamenduak, azterlan honetatik ondorioztatzen den jakintza eta gai horri buruz egiten den erradiografia oinarri hartuta, espero dugu txosten hau askok irakurtzea eta askotan erabiltzea. Lehenik eta behin, administrazio publikoak, arazoa diagnostikatzeko eta atzemateko, babesteko eta laguntzeko politika eta neurri eraginkorragoak diseinatzeko. Eta, bigarrenik, esku-hartzeko erakundeek eta erakundeetako profesionalek; erakunde horiek borrokatu beharko baitute egunero errealitate horrekin, eta, aldi berean, funtsezkoak direlako adingabe horien harrerari eta integrazioari dago-kionez hobetzeko proposamenak ezartzeko bai orain baita etorkizunean ere.

2

Metodologia

Txosten honetan erabilitako metodologiaren abiapuntua honako hau da: Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen (IKEDAM) kolektiboak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi duen errealitatea aztertzeo interesa, kolektibo horien ezaugarri eta berezitasun zehatzak kontuan hartuta.

Ikerketa-taldeak gaiari buruz dagoeneko bilduta daukan jakintzari eta *expertisament-ari* esker, metodologia ahalik eta gehien egokitu ahal izan da ikerlanaren helburuetara eta landutako errealitatera, bai ikerketa-prozesuaren hasieran, bai prozesuan zehar.

Proiektu hau deskripziozko, azalpenezko eta iragarpenezko ikerlan-diseinua duen azterlan gisa definitzen da, fenomeno orokorrean azertu nahi baitzen, baina horretaz gain, epe luzerako etorkizuneko joerak zein izango ziren iragarri nahi baitzen.

Denboraren aldagaiaren arabera, *fenomenoaren luzetasuna* nabarmendu da; izan ere, Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileak Euskal Autonomia Erkidegora eta Espainiako Estatuko gainerako erkidegoetara etortzen hasi ziren garaia eta etorrera horren bilakaera hartu dira aintzat. Hala eta guztiz ere, azterlanaren zati handi batek fenomenoaren garai berrienetik (2006-2007) aurrera jasotako informazioa du oinarri.

Erabilitako teknikei dagokienez, triangulaketaren aldeko apustua egin da, hots, *teknika kuantitatiboen eta kualitatiboen* konbinazioaren aldekoa; izan ere, horri esker, fenomeno aztertzeo hainbat ikuspegi eta ikuspuntu eduki ahal izan ditugu, eta, hortaz, azterketa egiteko ahalmen osatuagoa. Metodologia irekita egon da ikerketa osoak iraun duen bitartean, prozesu ireki eta dinamiko gisa proposatzen zelako.

Landa-lana da ikerlan honen estrategia nagusia, eta elkarriketak egiteko, parte-hartzaila behatzeko eta inkesta egiteko erabili da. Era berean, fenomenoari buruzko estatistika-datuak eta dokumentu-iturriak berrikusi dira.

2.1. Teknika kuantitatiboak

Honako bi teknika kuantitatibo hauek erabili dira:

- a) *Estatistika-datuak* biltzea, horiek lantzea eta ustiatzea.
- b) Inoren kargura ez dauden adingabe migratzaileei bideratutako baliabideetako zuzendariei *inkesta* bat egin zaie.

2.1.1. Estatistika-datuak

Estatistika-datuei dagokienez, esan behar da batez ere lehen mailako iturriak erabili direla. Iturri horiek hainbat erakunde publikok eta pribatuk eman dituzte, eta ondoren, iturri horiek erabili eta landu egin dira proposatutako helburuak lortzeko. Nolanahi ere, zenbait ataletan bigarren mailako iturriak ere aipatu dira.

Datuak 2007. eta 2008. urteetan bildu dira, eta 2000. urtean (lantaldeko batzuek lantzen zuten gai hori urte horretan) lortutako datu batzuk berreskuratu dira. Datuak 2006. eta 2007. urteetakoak dira batez ere, baina aurreko datu batzuk ere eman dira, fenomeno horrek Euskal Autonomia Erkidegoan eta Espainiako Estatuan izan duen bilakaera osoa hartzen dutenak.

Datu horiek honako hauek eman dituzte batez ere:

- Arabako Foru Aldundiak.
- Bizkaiko Foru Aldundiak.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak.
- Arartekoak (Herriaren defendatzailea).
- Adingabeen zentroak kudeatzen dituzten elkarteek edo erakundeek.
- Barne Arazoetako Ministerioak.
- Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioak.

Estatistika-arloko informazioa lortzea lan zaila eta oso neketsua izan da; izan ere, instituzio guztiek ez dituzte datuak irizpide berarekin biltzen eta adingabeen kontabilizazioan

akats asko atzeman dira (akats horiek konpontzen ahalegindu gara, ahal den neurrian, erakunde horien laguntzarekin).

Honako gutxieneko aldagai hauek hartu dira kontuan:

- Sexua.
- Adina.
- Nazionalitatea.

Aldagai horiei esker, Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen kolektiboaren ezaugarriak ikus daitezke. Horretaz gain, aldagai horiek denboran zehar izan duten bilakaerak laguntzen du etorkizuneko joerak ikusten, esate baterako, adingabeen adinak jaitsi edo igo ote diren, Inoren Kargura ez dauden emakumezko Adingabe Migratzaileen presentzia hazi ote den edo ez, eta jatorrien dibertsifikazioa, eta, hortaz, nazionalitateena.

Era berean, aldagaiak gurutzatzen ahalegindu gara informazio zehatzagoa eta aberatsagoa lortzeko, baina datuak eman diren bezala, hori ezinezkoa izan da³. Nahiz eta orokorrean lortu den espero zen informazioa (salbuespen batzuk egon arren), uste dugu garrantzizkoa dela txosten hau egiteko prozesu osoan izandako zailtasunak azaltzea:

- Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileei bideratutako eta eskuragarri dauden baliabideak mugatuak dira, eta beti ez dago behar adina denbora eta langile datuak biltzeko eta erregistroak kudeatzeko. Datu-bilketa eta -kudeaketa erantsitako zeregintzat hartzen direnez gero, beti ez dira gauzatzen.
- Datu-bilketa ez dute sistematikoki egiten baliabide guztiek, eta datuak biltzen direnean, horretarako erabiltzen diren eremuak ez dira argiak izaten, ez dira partekatzen eta ez dira homogeneoak izaten; horregatik, informazioa ez da fidagarria izaten.
- Kasu batzuetan, atzerriko adingabeak erregistratzerakoan ez da bereizketarik egiten «inoren kargura ez daudenen» eta «norbaiten kargura daudenen» artean; horregatik, zaila da inoren kargura ez dauden adingabe migratzaileek dituzten berezitasunak ateratzea, bai talde gisa aztertzeko, bai Administrazio Publikoek esku hartzeko.

³ Horrenbestez, estatistika-datuaren bitartez alderdi orokorrak ikusiko dira, ez, ordea, azpimultzoetako berezitasunak. Hau da, kasu askotan, Erakundeek informazioa jasotzeko erabiltzen duten modua dela medio ezin da jakin etortzen direnak aurretik etorri zirenak baino gazteagoak ote diren edo emakumeen presentzia handiagoa duten nazionalitatearik ote dagoen.

- Azterlanaren xede den kolektiboa deskribatzeko funtsezkoak diren beste aldagai batzuk badaude, baina batzuetan, horiek ere ez dira kontuan hartzen. Zehazki, ez lirateke oinarrizko aldagai hauek alde batera utzi behar: sexua, adina edo nazionalitatea.

Oro har, emandako datuetan dagoen aniztasunari esker, lurraldeak alderatu ahal izan ditugu kasu guztietan.

2.1.2. Inkesta

Erabili den bigarren teknika kuantitatiboa *Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileei arreta ematen dieten adingabeen baliabideetako* zuzendariei egindako inkesta da. Inkesta hori honako *helburu* hauekin egin da: inoren kargura ez dauden adingabeei eskaintzen zaien gizarte- eta hezkuntza-arretari dagokionez, baliabideei buruzko iritzia jasotzeko, teknika kualitatiboen bitartez bildutako informazioa berresteko, eta hobetzeko proposamenak lantze aldera ikerlanari informazio erabilgarria eta beharrezkoa emateko.

Inkestak osatzen duen *aztertu beharreko unibertsoa* Euskal Autonomia Erkidegoko hiru Foru Aldundietako adingabeen baliabideek osatzen dute; nolana ere, baliabide horiek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Baliabide hori soilik Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileena (IKEDAM) izatea.
- Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileentzako plazak dituen baliabidea izatea.

Aztertu beharreko unibertso horrek, halaber, baliabideen tipologia guztiak biltzen ditu, bai administrazio-mendekotasunarengatik, bai baliabide modalitatearengatik. Administrazio-mendekotasuna oinarri hartuta, baliabideak *propioak*, *kudeaketa delegatukoak* edota *laguntzaileak* izan daitezke⁴. Eta tipologiaren arabera, adingabeen zentroetara (eguneko

⁴ Baliabide propioa Administrazio publikoko partaide dena da, Administrazio hori, gainera, haren kudeaketaz arduratzen da; kudeaketa delegatuko baliabide bat Administrazio publikoko partaide da, baina irabazi-asmoa duen ekimen sozialeko edo pribatuko erakunde batek kudeatzen du; azkenik, baliabide laguntzaile bat Administrazio publikoko partaide ez dena da, Administrazioa ez da haren kudeaketaz arduratzen irabazi-asmoa duen ekimen sozialeko edo pribatuko erakunde bateko partaide da, eta erakunde horrek kudeatzen du.

zentroak, urgentziazko zentroa, larrialdi-zentroa, egoitza-zentroak edo beste zentro modalitate batzuk) eta adingabeentzako etxebizitza-sareetara (etxebizitzak) mugatzen dira.

Inkesta hau *baliabideetako zuzendarientzat* denez gero⁵, etxebizitza-sarea zentrotzat hartu da, baina etxebizitza ez da zentrotzat hartu⁶.

Inkestaren *lagina aztertu beharreko unibertsoaren berdina* da, eta 2007ko abenduaren 1a arte martxan egon ziren eta hiru Foru Aldundiek eman dituzten baliabideen zerrenden birtatez berritu da.

Aztertu beharreko unibertsoa eta lagina 29 baliabidek osatzen bazuten ere, 26k erantzun diote inkestari, erantzun ez duten hiru baliabidek ez dute egin denborarekin lotutako zailtasunak izan dituztelako.

Arestian esan denez, *lagin-unitateak* bat datoz unibertsoko unitateekin: Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen zentroak eta etxebizitza-sareak.

Ikerlan hau Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileei buruzko I+G+B proiektuan kokatzen da. Proiektu horrek, halaber, Espainiako Estatu osoa biltzen du eta Kataluniatik koordinatzen da. Ikerketa-taldea deneko Autonomia Erkidegoan, galdesorta baliabideetako zuzendariei elkarriketa pertsonalak eginez pasa zen; horretarako, galdesortari buruz egindako oharra bildu ziren eta akatsak aurkitu ziren. Euskal Autonomia Erkidegoan egindako elkarriketetan bildutako informazio kualitatiboa eta lurralde honetan Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileekin lan egiten duten profesionalen informazio zehatzak izan genituen, galdesortako hainbat galdera baliozkotzeko.

Sarrerari adierazi denez, proiektu hau estatu-eremukoa da, baina Euskal Autonomia Erkidegoko inkestaren emaitzak ere kontuan izango dira azterketa globala egiteko. Hortaz, galdesortaren ezaugarria da tresna konplexua izatea, Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileei bideratutako baliabideen arloan Espainiako Estatuan dauden errealitate

⁵ Galdesortan azaltzen den galdera-aniztasuna dela medio, ahalbidetu da taldeko beste profil batzuek ere (zuzendaritza-taldekoak izan nahiz hezkuntza-taldekoak izan) galdesortari erantzutea.

⁶ Hori gorabehera, ezein saretakoak ez diren etxebizitzak ere sartu dira, sarea osatzeko Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaile (orokorrean edo ezaugarri jakin batekoak) nahikoa ez dagoelako, edo kudeaketaz arduratzen diren erakunde-aniztasun handia dagoelako.

guztien berri eman behar baitu, eta antzekotasun handiak dauden arren, prozedura desberdinak daude kontuan hartu nahi izan diren baliabideetan.

Inkesta *modu autoadministratuan* egin da, SNAP Survey aplikazio informatikoaren bitartez. Hortaz, oso jarraipen estua egin behar izan zaie baliabideei, inkesta ez baitzen bertan egonda egiten. Gertakari hori honela konpentsatu da: alde batetik, galdesortak helarazteko eta erantzuteko erabilitako aplikazio informatikoaren bitartez inkestan azaltzen diren ohar zehatz batzuk erabiliz; eta beste alde batetik, landa-lanean egindako ikuskapenari esker.

Landa-lana 2007ko abenduaren 1etik 2008ko martxoaren 6ra bitarte egin da. Prozesu horren iraupena baliabide gehienek zirkunstantziek mugatu dute; izan ere, baliabide horiek zailtasunak izan dituzte galdesortari erantzuteko, denborarik izan ez dutelako eta langileek gehiegizko saturazioa izan dutelako.

Datuak aztertzeko metodologiari dagokionez, metodologia horien ardatza aldagaiak (azterketa deskriptiboa oinarri hartuta) eta teknika kualitatiboak oinarri hartuta lortutako emaitzen kontrastea dira.

2.2. Teknika kualitatiboak

Honako hiru teknika kualitatibo hauek erabili dira:

- a) Bigarren mailako dokumentu-iturriak berrikustea.
- b) Funtsezko informatzaileei eta Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileei egindako elkarrizketa sakonak.
- c) Behaketa parte-hartzailea.

2.2.1. Bigarren mailako dokumentu-iturriak berrikustea

Gaiari buruzko adituen eta funtsezko agenteen *bigarren mailako hainbat dokumentu-iturri* berrikusi dira, baita Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen kolektiboaren inguruan sentsibilizatzeko lanak edo horiekin esku-hartzeak egiten jarduten duten erakundeek eta elkarteek hainbat iturri ere.

Esan behar da gai honi buruzko bigarren mailako iturri asko ez dagoela, bereziak direlako eta fenomeno oso berria eta oso gutxi ezagutzen dena delako. Berrikusi den bibliografiak Euskal Autonomia Erkidegoari buruzko erreferentzia espezifikoak hartu ditu aintzat bereziki (Arartekoaren, hots, Herriaren Defendatzailearen argitalpenak bereziki), baina informazio gutxi dagoenez eskuragarri, estatu-eremuko argitalpenez eta beste autonomia-erkidego batzuk ardatz dituzten azterlanez ere baliatu gara.

2.2.2. Elkarrizketak

Landa-lan kualitatiboa Euskal Autonomia Erkidegoko koordinazio-taldeak eta ikerketa-taldeak egin dute. Bi taldeek elkarrekin lan egin dute. Landa-lanaren zati bat koordinazio-taldeko ikertzaileek soilik egin dute (38 elkarrizketa eta partaidetza-tailerra). Gainerakoa (39 elkarrizketa) Euskal Autonomia Erkidegoko ikerketa-taldeak gauzatu du. Talde horrek azterlanaren helburuei eta egin beharreko elkarrizketen gidoiei buruzko prestakuntza-prozesu bat izan zuen aurretik.

Landa-lana 2007ko otsailetik urte horretako irailera bitarte egin zen, nahiz eta Foru Aldundietako ordezkariak elkarrizketa batzuk egin zaizkien 2008ko apirilean eta 2008ko irailean, Aldundi bakoitzaren babes-zirkuituei buruzko datu batzuk eguneratzeko. Hortaz, babes-zirkuituei buruz 9. kapituluaz azaltzen den informazioa 2008ko irailean eguneratu zen.

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen kolektiboarekin lan egiten duten *fun-tseko informatzaileei elkarrizketa sakonak* egin zaizkie. Guztira, 24 elkarrizketa egin dira. Horien artean honako hauek daude: polizia-kidegoak (bi elkarrizketa), Administrazioako profesionalak (10 elkarrizketa), zuzeneko arretarako profesionalak (11 elkarrizketa) eta adituak (bat elkarrizketa). Babes-zirkuituei buruz informazio gehiago antolatu eta zehaztu behar zenez gero, beste elkarrizketa bat egin zitzaion Gipuzkoako Haurren, Nerabeen eta Gazteen zerbitzuburuari, Bizkaiko Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen koordinatzaileari eta Arabako Haurren eta Familiaren Arlo Teknikoko zuzendariordeari.

Adingabeei ere egin zaizkie *elkarrizketa sakonak* Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeetan, zentroen bitartez; betiere Hiru Foru Aldundien baimenarekin. Kolektibo honekin lan egiten duten elkarteak, sare informalaren eta harreman pertsonalen bitartez ere egin dira elkarrizketa batzuk. Hau da, elur-bolaren teknika ere erabili da⁷.

⁷ Elur-bolaren teknika elkarrizketak egiteko harreman berriak lortzea da, dagoeneko egindako harremanak oinarri hartuta.

Hasiera batean, Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileei egiteko 25 elkarrizketa sakon programatu ziren, baina, azkenean, 53 *elkarrizketa egin dira*, eta horien artetik hiru baztertu egin dira, ez baitira inoren kargura ez dauden adingabe migratzaileen profilerak egokitzen.

Adingabeei egindako elkarrizketa kopurua igo da *landa-lanaren lagina estrategikoa izan delako* eta ez ordezkatzeko duen lagina, *nazionalitatearen eta «lurraldearen» irizpidea oinarri hartuta*. Erabaki hori hartu da azterlan honen helburuetako bat egoera berriak atzemateak zelako; egoera berri horien artean nazionalitate berrien etorrera eta adingabe gazteagoen etorrera zeuden. Beraz, 50 elkarrizketa horiek bermatzen zuten landa-lan kualitatiboan atzeman diren lurraldeetako Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen ezaugarrien eta profilen aniztasunaren berri emango zela. Azken batean, horrek esan nahi du kasuren batean gerta litekeela foru-aldundi guztietan ez azaltzea Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileekin lotutako ezaugarri kualitatiboren bati buruzko emaitzetako bat; hori gertatzen denean idatzita jasoko da testuan.

Guztira, 29 elkarrizketa egin zaizkie Magreb-eko adingabeei (horien artetik, 24 Marokokoak dira), 18 elkarrizketa Saharaz hegoaldeko Afrikako adingabeei, elkarrizketa bat Hegoamerikako adingabe bati (zehazki, Ekuadorkoa), elkarrizketa bat Europa Ekialdeko adingabe bati (Errumaniakoa), eta elkarrizketa bat Asiatik etorritako adingabe bati (India).

Soilik hiru neskari egin zaie elkarrizketa, neskengana hurbiltzeko zailtasunak izan baitira. Inoren Kargura ez dauden Neska Adingabe Migratzaileen garrantzia txikiagoa da, kuantitatiboki gutxiago direlako, baina esan behar da horiengana hurbiltzea are zailagoa dela, gizarte-arriskuaren, marjinalitatearen eta ikusezintasun handiaren egoeretan daudelako, eta egoera horiek eragiten dute zaila izatea neska horiek atzematea. Txosten honetan ikusiko dugunez, jakinarazi nahi dizuegu administrazioak atzeman gabeko Inoren Kargura ez dauden Neska Adingabe Migratzaileak daudela. Informazio hori IFAM Taldearen bi argitalpenetan⁸ bildu da, eta Katalunian eta Valentziako Erkidegoan egindako landa-lanean berretsi da. Landa-lan hori, gainera, beste erkidego batzuetakoa baino zehatzagoa izan da.

⁸ QUIROGA, V.; BERGA, A.; ALONSO, A.; SÒRIA, M. (2007): *Nenes i adolescents invisibles a Catalunya*, 2007. Universitat Ramon Llull, Bartzelona.; ALONSO, A.. *En terra de ningú. Una aproximació a la prostitució en els projectes migratoris de menors no acompanyades de l'Europa de l'Est a Catalunya*, 2008. Masterreko ikerketa-lana. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, Bartzelona.

Azkenik, esan behar da anonimatuari eutsi zaiola; horretarako, adingabe guztien izenak aldatu dira, baita benetako izena azaltzeko baimena eman zutenena ere, guztiekin irizpide berari jarraitzeko helburuarekin. Halaber, adierazi nahi dugu adingabe batzuen berbaldietan zuzenketa ortografikoak egin direla, testuaren ulermena eta irakurketa errazteko. Testuan azaltzen diren hitzez hitzeko aipamenetan ohar batzuk jarri dira parentesi artean, informazioa hobeto ulertzeko (izena, nazionalitatea eta elkarriketa egin zen eguna).

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen (IKEDAM) kolektiboaren *partaidetza-behaketa* egin da Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat zentrotan. Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileei elkarriketak egiteaz gain, ikerketa-taldea bertan egon da Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen gune informaletan, eta zentro batzuetan hezkuntza-taldearekin eta adingabeekin ere egon da.

2.3. Partaidetza-tailerra

Partaidetza-tailer bat ere egin da hiru Foru Aldundietako funtsezko informatzaileekin, profil desberdinak dituztenekin. Tailerrak honako helburu hauek ditu:

- a) 53 adingaberen lagina oinarri hartuta landa-lanean, funtsezko informatzaileei egindako 24 elkarriketetan eta adingabeen zentroetako zuzendariei egindako inkestan lortutako *emaitzak alderatzea*.
- b) Azterlanaren aurretiazko emaitzen berri ematea parte-hartzaileei, elkarriketatutako funtsezko informatzaileei eta adingabe horien harrera kudeatzen duten eta kudeaketa horretan parte hartzen duten profesionali.
- c) *Elkarrekin egitea* arreta-zirkuituaren gabezia nagusiak, baita populazio hori —bere berezitasunak kontuan hartuta— atzemateari, artatzeari eta hartzeari dagokionez egiten diren hobekuntza-proposamenak ere.

Tailer horren bitartez, parte hartu duten eragile guztiak dinamizatu nahi izan dira, ikerlan honen xede den errealitatea eraldatzeari dagokionez, tartean sartuz. Horrela jardunda, lortu da Euskadiko lurralde osoko funtsezko agente guztiak gune honetan elkartzea antzeko egoerak trukatzeko eta partekatzeke ez ezik harreman-loturak ere ezartzeko.

Gertakari hori oso positiboa da, ikuspegiak handitu eta lan egiteko moduak hobetu egiten dituelako. Horretaz gain, parte-hartzaileek aukera izan dute Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen egoera hobetzeko neurriak proposatzeko, eskaintzen duten esperientzia eta tailerrean aurkeztutako lan-dokumentua oinarri hartuta.

Tailerra 21 parte-hartzailek osatu zuten, eta Eusko Jaurlaritzak Gasteizen dituen instalazioetan egin zen, Immigrazio Zuzendaritzaren laguntza teknikoarekin. Eranskinean taula bat erantsi da, parte-hartzaileen izenekin. Parte-hartzaileek Euskadiko administrazio-ko teknikarien, adingabeen baliabideetako zuzendarien, eta Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileekin lan egiten duten elkarteetako eta beste erakunde batzuetako ordezkarien profilei jarraitzen zieten.

Partaidetza-tailerra hiru zatitan banatu zen. Lehendabiziko zatian, ikerlanaren eta aurretiazko emaitzen aurkezpena egin zen. Bigarren zatian, parte-hartzaileak bi taldetan bereizi ziren, lanbide-profilen eta zentroaren tipologiaren arabera, hainbat azpigai lantzeko. A taldeak honako gai hauek landu zituen: arazoa atzematea, administrazio-prozedura eta premiazko baliabideak eta harrera-baliabideak; B taldeak, aldiz, honako hauek landu zituen: egoitza-baliabideak, emantzipazioa, adin-nagusitasuna eta zirkuitutik kanpoko Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileak. Eta azkeneko zatian bi taldeak elkartu ziren gaiei buruz egindako proposamenak adosteko; eta horrekin amaiera eman zitzaion tailerrari.

3

Esparru teorikoa

3.1. Atzerriko emigrazioari buruzko oharrak

3.1.1. Espainiako Estatuan

Espainiako Estaturik emigranteen herrialde izatetik etorkinen herrialde izatera aldatu da. Herrialde honek hirurogeiko hamarkadaren amaieraz geroztik izan dituen aldaketekin batera, migrazio-helburu bilakatu da, hots, atzerriko populazioa jaso du etengabe. *Horien presentzia urria izatetik, esanguratsua izatera aldatu da*, eta horrek Europako parametroetara hurbiltzen gaitu. Etorkinen jatorria Europako Erkidegoz kanpoko delako nabarmendu behar da, garraioen eta teknologia berrien aurrerabidea dela-eta, eta desberdintasunak sustatzen dituen merkatu-ekonomiaren ondorioz. Beraz, alor guztiak biltzen dituen prozesu globala dugu.

1973tik aurrera, hainbat fenomenok finkatu zuten aldaketa hori: Erdialdeko Europako herrialdeek immigrazio-politika gordindu zuten, eta horren eraginez, Iparraldeko Afrikatik zetozen kolektiboen migrazio-ohiturak aldatu egin ziren; gauza bera gertatu zen Filipinetatik eta Latinoamerikatik zetozen pertsonekin ere, Ipar Amerikako politika murriztaileari aurre egiteko Espainiako Estaturik beste lan-helmuga gisa hautatzen hasi baitziren. Horretaz gain, Uruguain, Txilen, Argentinan eta Ekuatore Ginean nagusitu ziren diktadurek populazio-exodo masiboak eragin zituzten, ez soilik arrazoi politikoengatik, baita arrazoi ekonomikoengatik ere.

Aldi berean, gure herrialdea irekiera sozial, politiko eta ekonomikoko egoeran sartu zen, eta horri esker, landatik hirirako populazio-fluxuak eten ziren; horren eraginez, lan-merkatu estigmatizatuenaren gaineko presio txikiagoa dago gaur egun (esate baterako, etxeko langileak); horrelako lanak zituen kolektiboa landa-inguruneetatik zetorren gehienbat. Espainiako bizi-kalitate altuak erakarrita Europako beste herrialdeetatik datorren populazioaz gain, Erkidegoz kanpoko populazioa ere bizi da Espainiako lurraldean; Europako gainerako herrialdeekin alderatuz, Espainiako muga-politika oso zehaztuta ez dagoenez, bertan zailtasun handirik gabe koka daitezke atzerritarrak, eta hori erakargarria da erkidegoz kanpoko pertsona askorentzat. 1985era arte iraun zuen politika lauso horrek, hots, Europar Batasuneko arauak jarraiki, Espainian sartzeko baldintzak murrizten hasi ziren arte.

Oro har, Erkidegoz kanpoko etorkinen helburua ez zen Espainiako Estatuan gertatzea, horren ordez, Europara sartzeko zubi-herrialde soiltzat hartzen baitzuten. Hala ere guztiz ere, helmuga-herrialdeetan nagusi ziren politika murriztaileek «tapoi» efektua eragin zuten Espainiako iparraldeko mugetan (Frantziarekiko muga Pirinioetan), aurrerago ikusiko dugun bezala, eta horrek Espainiako iparraldean (batez ere, Katalunian) geratzera behartu zituen migratzaileak, beste hainbat herrialdetara sartzeko aukera noiz izango zain; alabaina, denboraldi jakin bat igaro ondoren, Espainiako lurraldean kokatu ziren behin betiko.

Espainiako Estatuko immigrazioak *inflexio-puntua* izan zuen *2000. urtean*, legezko bizilekua zuten atzerriko populazioa 99.122 pertsona izatetik 330.881 pertsona izatera aldatu zenean, hain zuzen ere⁹. Urte horretatik aurrera, *hazkundeak gainezka egin zuen, eta urtetik urtera mailaz mailako hazkundera izan du harrez geroztik*. Etorkinen jatorriei dagokienez, hainbat aldaketa esanguratsu gertatu badira ere, Maroko da ibilbide finkatuena eta koak dituzten nazionalitateetako bat, ondoren adierazitako taulak erakusten digun bezala.

1. taula

Atzeritik datozen immigrazioak, jatorrizko herrialdeen arabera sailkatuak. 1997-2006 hamar urteak

Jatorrizko herrialdea	Urtea									
	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Maroko	6.899	10.534	14.843	38.178	39.256	39.930	40.865	58.839	69.288	60.830
Argentina	892	1.291	2.163	7.401	18.086	40.628	24.759	23.237	23.664	23.044
Bolivia	79	147	500	3.318	4.835	10.562	18.119	35.339	38.349	69.467
Brasil	629	879	1.598	4.113	4.283	4.582	7.349	13.017	20.771	28.249
Colombia	955	2.298	7.451	45.868	71.014	34.042	10.888	16.610	20.541	27.864
Ekuador	579	1.954	8.973	91.120	82.571	88.732	72.581	11.936	11.588	14.292
Peru	1.207	2.054	2.898	5.893	7.057	7.884	13.310	12.968	17.095	18.884
Errumania	168	503	1.773	17.435	23.276	48.292	54.998	49.487	93.976	111.920
Dominikar Errepublika	1.349	2.145	2.868	5.552	5.383	5.458	6.558	8.167	10.506	12.291
Gainerako herrialdeak	22.859	35.390	56.055	112.003	138.287	162.975	180.097	416.244	376.933	436.130
Atzeritarrak guztira	35.616	57.195	99.122	330.881	394.048	443.085	429.524	645.844	682.711	802.971

Iturria: Bizileku Aldakuntzen Estatistika. EIN. Egileak egina.

⁹ Iturria: Bizileku Aldakuntzen Estatistika, EIN.

Taulan ikus dezakegunez, 1999. urtera arte, Espainiako Estatuan presentzia handiena zuten etorkin atzerritarren nazionalitatea Marokokoa zen, eta horren ondoren, alde handiarekin, Kubakoa eta Dominikar Errepublikakoa. 2000. urtean, bestalde, aldaketa erabakigarria gertatu zen —2001ean ere aldaketa horri eutsi zitzaion—, Hegoamerikatik zetozen nazionalitateek Marokoren lehen postua hartu zuten, eta Maroko hirugarren postura aldatu zen, Ekuador eta Kolonbiaren atzetik, eta Errumaniaren aurretik (laugarren postuan kokatu zen Errumania). 2002. urtean, Ekuadorrek lehen postuari eutsi zion, eta horren ondoren, Errumania, Argentina, Maroko eta Kolonbia kokatu ziren. 2003. urtea aurrekoaren oso antzekoa izan zen; nobedade gisa, Maroko hirugarren postura itzuli zen, eta horren ondoren, Argentina eta Bolivia kokatu ziren. 2004a, berriz, urte arraroa izan zen, joerak erabat aldatu baitziren berriz ere: Maroko berriz ere hirugarren nazionalitate bilakatu zen, eta horren ondoren, Errumania (jaitsiera izan zuen urte horretan), Bolivia, Argentina, Brasil eta Kolonbia kokatu ziren. 2005. urteak 2004aren aurreko joerekiko lotura berreskuratu zuen, eta Errumaniak lehen postua lortu zuen, Marokoren, Boliviaren, Argentinaren eta Brasilen aurretik. 2006an, *Errumaniak neurrigabeko hazkundea izan zuen, Bolivia bigarren postuan kokatu zen, Marokoren, Brasilen, Kolonbiaren eta Argentinaren aurretik.*

Espainiako Estatuaren kasuan, IKEDAM gehienak Marokotik datoz; *1. taulan* ikusi dugunez, migrazio-tradizio handia duen herrialdea dugu Maroko. Populazio migratzailearen (adinez nagusiak zein adingabeak) jatorrizko herrialde gisa Marokok garrantzi handia duenez, xehetasun handiagoz aztertuko dugu gure herrialdean Marokoko herritarrek izan dituzten migrazio-prozesuen bilakaera.

Espainia eta Maroko hurbil badaude ere, gure herrialdean oso marokoar gutxi izan ziren joan den mendearen erdialdera arte. Hala eta guztiz ere, garai hartan Espainia ez zen migrazio-helburuetako bat, Alemania eta Frantzia ez bezala, igarobidetzat hartzen baitzen, eta egoera hori adierazitako herrialde horien politika murriztaileak ezarri zirenean aldatu zen; etorkinak Espainian geratzera behartzen zituzten politika horiek. IOÉ Kolektiboak (1994) hiru immigrazio-etapa nabarmentzen ditu Marokoko kolektiboaren barruan:

- *1960-1975:* Gure herrialdea Europara ireki zen garaiarekin bat dator denbora-tarte hori. Garapen ekonomikoaren aldeko etapa hori petrolioaren krisialdiarekin eta Pirinioetako mugak ixtearekin amaitu zen; azken gertakari horrek Marokoko kolektiboaren Europaranzko igoera (batik bat, Frantziara, Alemaniara, Herbeheretara eta Belgikara) geldiarazi zuen, kolektibo horren migrazio-prozesua Penintsularantz aldatu zuen, eta Penintsula behin-behineko toki bilakatu zuen; horrela, Europako herrialde horietara joan edota Marokora itzuli baino lehen plataforma gisa erabil-

tzeko helburutzat hartzen zuten Penintsula, eta aldi berean, herrialdeak eskaintzen zituen lan-aukerez baliatzen ziren. Garai hartako migrazio-profila bakarrik zeuden eta industriako eta eraikuntza publikoko lanpostuak zituzten gizonena zen funtsean, baina meatzaritza edo nekazaritzako lanpostuak betetzen zuen migratzailerik ere bazegoen (Bartzelonako metropoli-area). Urte gutxiren buruan, berriz elkartzeko prozesua gertatu zen, iraupen luzeko bizi-proiektua ezarriz. Bizileku- edo lan-dokumentaziorik izapidetu beharrik gabe Espainian bizitzea ahalbidetzen zuen garai horretako lege-esparruak.

- *1975-1986*: Etapa horretan lehen murriztapenak agertu ziren Frantzia eta Alemanian, eta horretaz gain, Espainiako Estatuan Atzeritarren Eskubideei eta Askatasunei buruzko Legea eta Lege hori sorburu zuten neurriak aldarrikatu ziren, ordena juridiko berria ezarriz. Espainiatik Frantziara eta Europako iparraldeko herrialdeetara (Afrikako iparraldeko herriarren jomuga ziren oraindik ere) igarotzeko mugak itxi izanak Europara sartu nahi zuten etorkinen kolapsoa eragin zuen, batez ere Katalunian, eta etorkin horiek, zailtasunen aurrean, Katalunian kokatu ziren. Etapa horretan ere etorkinen profila gizon bakarrena zen, baina kasu horretan, kokatu ondoren, emaztearekin eta seme-alabekin berriz elkartzen ziren.
- *1986-1991*: Garai horren adierazgarri gisa, immigrazioaren alorreko politika murriztailea apurka-apurka eta progresiboki ezarri zen, ez bakarrik Espainiako Estatuan, Europako herrialde guztietan baizik, eta politika murriztaile hori Schenguen Itunarekin bat dator. Herrialdean sartzeko zailtasunak bazeuden ere, sarrera-indize handiagoa gertatu zen garai horretan. Garai horretako profila migrazio-proiektuari bakarrik ekiten zioten gizon gazteena bazen ere (geroago, enplegua eta etxebizitza lortu ondoren, familiarekin berriz elkartzen ziren), migrazio-erreleboa hartu zuten emakumeak (emakume ezkongabeak, alarguntsak edota bananduak) agertu ziren lehen aldiz (Ramírez, 1996).

López García (2004)¹⁰ jaunaren lanak kontuan hartuz, laugarren etapa adieraziko genuke:

- *1991-2003*: Bisatuek sartzeko murriztapenak ezartzen bazituzten ere, garai horretan Marokoko etorkinen kopuruak oso hazkunde handia izan zuen, ez soilik migrazio-prozesuagatik, baita herrialdean gertatutako jaiotzengatik ere (kontsul-inskripzioek frogatzen duten bezala), eta batik bat, hainbat familia berriz elkartu zirelako. Horre-

¹⁰ Atlas de la Inmigración Marroquí en España.

taz gain, beste jatorrietako marokoarrak etortzen hasi ziren; ordura arte, Marokoko iparraldetik zetozen, eta 2002. urtetik aurrera, hegoaldeko etorkinak ere iristen hasi ziren. 2000. urtean, beste hainbat tokitatik —batez ere Hegoamerikatik— etorritako etorkinen kopuruak gora egin zuen, eta Marokori nolabait tokia kendu zioten. *1. taulan* ikusi dugun bezala, garai horretako etorkinak hainbat jatorritakoak ziren, ez soilik Marokokoak. Horretaz gain, *Marokoko IKEDAMen migrazioa hasi zen etapa horretan*; zehazki, 1994tik aurrera hasi zen, 1998an edo 1999an atzeman zen eta 2002tik aurrera izan zuen goieneko unea.

Lehen adierazi dugun bezala, IOÉ Kolektiboak eta Bernabé López jaunak hainbat etapa bereizten dituzte Marokoko immigrazioaren esparruan. IOÉ Kolektiboak Katalunian hiru migrazio-etapa kronologiko ezartzen baditu ere, etapa horiek gainerako autonomia-er-kidegoetara estrapola daitezke, eta baita Bernabé López jaunak adierazitako laugarren etapa ere. Etapa kronologiko guztietan migrazio-profil bereizgarriak atzeman ditzakegu. Hasierako etapan bakarrik iristen ziren gizonak ditugu. Hurrengo etapan, berriz, gizon horiek familiarekin berriz elkartzen ziren, eta hirugarren etaparen bereizgarria, aldiz, Marokoko migrazioaren feminizazioa da. Azken etapan, azkenik, Marokoko kolektiboak hazkunde handia izan zuen gure herrialdean, eta horretaz gain, nabarmentzekoa da garai horretan etorkinen seme-alaba asko jaio zirela, Espainiako Estatura emakumeak bakarrik iristearekin batera familia asko berriz elkartu zirelako eta ezkontza asko izan zirelako.

Adin nagusiko etorkinak Marokotik iristearekin batera, inoren kargura ez zeuden nazio-nalitate horretako adingabeak etortzearen fenomenoak garatu zen. Profil berri hori laugarren etapa kronologikoan agertu zen, edota etapa berri batean, profilez ari bagara (Jiménez, 2004). Adingabeei dagokie eskusiboki profil hori, batez ere mutileri, nahiz eta, gutxiago bada ere, neskek ere badauden; esan bezala, kuantitatiboki neska gutxiago daude, baina kuantitatiboki nesken babesgabetasuna handiagoa da, ikusezin bihurtu ohi den kolektiboa baita.

3.1.2. Euskal Autonomia Erkidegoan


Euskal Autonomia Erkidegoko migrazio-historia modu paraleloan iragan da Espainiako Estatuko gainerako lurraldeekin. Hasieran, emigranteen gizartea zen gurea, baina 1987tik aurrera, egoera hori lehengoratu egin zen, eta immigrazioari zegokionez saldo negatiboa izatetik saldo positiboa izatera aldatu zen. Etorkinak jasotzen zituzten beste hainbat autonomia-erkidegorekin alderatuz, migrazio-kokatze hori nolabaiteko atzerapenez eta askoz ere zifra txikiagoekin agertu zen EAEn, zenbateko absolutu zein erlatiboetan, Immigra-

zioko II. Euskal Planaren arabera (2007-2009), eta ondorengo grafikoan egiazta daitekeen bezala.

Oro har, *atzerriko populazioa iritsi zenean, Euskal Autonomia Erkidegoan izandako hazkundera ez zen hain bat-batekoa izan, beste hainbat autonomia-erkidegorekin alderatuz*. Izan ere, erkidego hori posizioak galtzen ari dela esan dezakegu. 1997an, legezko bizilekua zuten atzerritarrak zituen seigarren erkidegoa zen EAE, 2001ean, berriz, zortzigarrena, eta 2006an, *aldiz, hamaikagarren postuan zegoen*, guztira 21.668 etorkinekin, ondoren adieraziko dugun grafikoan ikus dezakegunez.

1. grafikoa


Atzerritarrak Autonomia Erkidegoetan, 2006



Iturria: Bizileku Aldakuntzen Estatistika. EIN, 2008. Egileak egina.

2. grafikoa

Atzeritar kopuruaren bilakaera EAEn, 1997-2006



Iturria: Bizileku Aldakuntzen Estatistika. EIN. Egileak egina.

Alabaina, urtetik urtera hazkunderako joera du EAEk, eta horren eraginez, badirudi gure erkidegoa etorkinak jasotzen dituen toki gisa finkatu dela. EAE bizitzeko toki gisa aukeratzen duten etorkinen ehunekoa oraindik txikia bada ere, azken urteotan atzerritar-oldeen guztizkoaren % 3ri (gutxi gorabehera) eutsi zaiola ere egia da. Datu horrek garrantzi berezia du, kontuan hartuz eraldaketa handiak gertatzen ari direla etorkinek Espainiako Estatuan kokatzeko oro har nahiago dituzten tokiei dagokienez. Ildo horretatik, atzerritarren kokatzeak hainbat autonomia-erkidegotan sakabanatzeak gora egin duela egiaztatu da, duela hogeitau urte nagusi zen espazio-kontzentrazioaren kalterako.

Estatu-bolumenarekin alderatuz, igoera hori baxua bada ere, Eusko Jaurlaritzaren Immigrazioko II. Euskal Planaren (2007-2009) adierazten denez, *hiru foru-aldundietako etorkin kopuruak gora egin du*: Araban sei aldiz, Bizkaian bost aldiz, eta Gipuzkoan, berriz, lau aldiz, ondorengo koadroan ikus dezakegunez.

2. taula

Atzerritarren kanpoko migrazio-saldoak lurralde eta denboraldien arabera.
1991-2006 hamar urteak

Lurraldea	Urtea											
	1991-1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	Guztira
Araba	806	398	476	895	1.620	2.596	2.517	2.401	3.188	3.308	3.271	21.476
Bizkaia	1.609	612	1.061	1.533	3.993	5.933	6.012	6.947	8.108	9.601	8.021	53.470
Gipuzkoa	1.551	414	375	734	939	1.612	1.723	1.861	2.154	3.388	3.166	17.917
Guztira	4.006	1.424	1.912	3.162	6.552	10.141	10.252	11.209	13.450	16.297	14.458	92.863

Iturria: Euskal Estatistika Institutuko datuak, 2007. Egileak egina.

EAEra datozen atzerritar-oldeek hazkunde iraunkorrerako bilakaera-joera dute. Atzerritarren immigrazio-bolumenaren hazkundera nabarmena izan da 1993az geroz, baina batez ere, 1997az geroz; izan ere, urte horretatik aurrera, IKEDAMak atzematen hasi ziren, hurrengo kapituluan ikusiko dugun bezala.

Eusko Jaurlaritzaren Immigrazioko II. Euskal Planaren (2007-2009) arabera, 2006ko urtarilaren 1ean, Euskal Autonomia Erkidegoan 85.542 etorkin atzerritar erroldatu zeuden, horietako 64.000 administrazio-erregulartasun egoeran zeuden, eta beraz, *EAEen erroldatutako atzerritarren % 70 (gutxi gorabehera) erregularizatuta dago*.

3. taula

Atzeritik datozen immigrazioak, jatorrizko herrialdeen arabera sailkatuak, 2006

Jatorrizko herrialdea	Guztira	Nazionalitatea (%)	Metatua (%)	Gizonak (%)	Emakumeak (%)
Colonia	11.041	12,9	–	39,7	60,3
Ekuador	7.604	8,9	21,8	44,9	55,1
Maroko	7.604	8,3	30,1	70,3	29,7
Errumania	6.045	7,1	37,2	50,8	49,2
Bolivia	5.922	6,9	44,1	36,4	63,6
Brasil	3.805	4,4	55,0	28,9	71,1
Argentina	3.472	4,1	59,1	51,2	48,8

Iturria: Errolda. Egileak egina.

Taulan ikus daitekeenez, atzeritarren sailkapeneko lehen postuan Kolonia dugu, ondoren, Ekuador, eta azkenik, Maroko. Ondoren ikusiko dugunez, IKEDAM gehienen jatorrizko herrialdea Maroko da.

3.2. Inoren kargura ez dauden adingabeen migrazioa

Europako panoraman, Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileak izenez ezagutzen den *migrazio-fenomenoa 1980-1990ean agertu zen*. Adingabeen migrazioak Europako eta munduko historian lehenago gertatu baziren ere, 1989. urtera arte, hots, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa berretsi zen urtera arte, ez zen planteamenduen aldaketarik gertatu, eta ezta *ikuspegi protekzionistarik gauzatu* ere. Urte horretan, beraz, adingabe guztiak babestea eta adingabeak babesteko eskumena duten erakundeek zaintzapean jartzea beharrezkoa zela aitortu zen.

3.2.1. Inoren Kargura ez dagoen Adingabe Migratzailearen kontzeptua

Aurrerago ikusiko dugun bezala, inoren kargura ez dauden adingabeen migrazioak *migrazio-eredu berri bat dakar*, eta helduen ereduarekin parekatu ezin diren berezko *berezitasunak ditu eredu berri horrek*. Migrazio horrek nazioarteko migrazioen oinarritzko suposizioetako batzuk zalantzan jartzen dituen modu berean, *hari izena emateak ere arazoak sortzen ditu*.

Erreferentziazko heldurik gabeko adingabe ugari Europara iristearekin batera, Europar Batasuneko Kontseiluak adingabeko atzerritarrei *Inoren Kargura ez dauden Adingabeak* izena jarri zien 1997an. Urte horretan Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioak (ACNUR) honako esanahi hau eman zien:

Jatorrizko herrialdetik kanpo dauden eta bi gurasoekin edota legez edo ohituraz ardurapean dituen pertsonarekin ez dauden 18 urtetik beherako haur eta nerabeak. Adingabe horietako zenbaitzuk bakarrik daude erabat, eta beste batzuk, berriz, senitartekoren batekin bizi dira. Zenbait kasutan, inoren kargura ez dauden adingabeek asiloa eskatu dute, jatorrizko herrialdean jasan lezaketen jazarpenaren, giza eskubideak urratzearen aurrean babesik ezaren, gatazka armatuaren edota istilu larrien beldur direlako. Beste zenbait kasutan, horietako zenbaitzuk trafikoaren edo beste esplotazio motaren baten biktimak izan dira, edo pobrezia latzeko egoeretatik ihes eginez joan dira Europara. Adingabe horietako askok esperientzia beldurgarriak jasan dituzte eta berealdiko gogortasuneko egoeretatik bizirik irten dira¹¹.

Egoera berri horri aurre egiteko, Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioak eta *Save The Children* erakundeak kontzeptu hori berriz definitu behar zela proposatu zuten. *Inoren Kargura ez dagoen Adingabe* terminoaren irismen semantikoa *Adingabe Banandu* termino berria sartuz gainditzeko saiatu ziren. Bi erakunde horien aburuz, termino horrek zehaztasun handiagoz adierazten du adingabe horien egoera, beren familiengandik «bananduta» egoteaz gain, beren jatorri edo kulturatik ere bananduta baitaude, nahiz eta zenbait kasutan, jatorrizko herrialdean familia handi baten kargura egon.

Europar, horrelako adingabeei deitzeko gehien erabilitako terminoa *inoren kargura ez dagoen adingabe* (IKEDA) da, Suitzan, Irlandan, Frantzia eta Espainian, izan ere, termino horren erabilera oso zabalduta dago. Danimarkan, bestalde, *inoren kargura ez dagoen adingabe errefuxiatua* edota *adingabe banandua* terminoak erabili ohi dituzte; azken hori Portugalen eta Ingalaterran ere indarrean dago. Italian, berriz, *Inoren Kargura ez dagoen Adingabe Atzerritarra* eta *Abandonu Egoeran dagoen Adingabe* terminoak bereizten dituzte. Kolektibo hori definitzeko termino ugari erabiltzen badira ere, Europako esparruan gehien erabili ohi den kontzeptua *Inoren Kargura ez dagoen Adingabe* dugu, nahiz eta termino horren lege- eta gizarte-konnotazioak desberdinak diren herrialde bakoitzean. Funtsean, bat datoz horrelako adingabeak 18 urtetik beherako adingabe atzerritarrek direla esatean, nahiz eta herrialdearen arabera, *inoren kargura ez dauden* terminoan doinua alda daitekeen.

¹¹ Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa (ENBGK) (1997): Guía y procesos en la atención a niños sin acompañantes solicitantes de asilo.

Lehen adierazi dugunez, Espainian ere erabili ohi da *inoren kargura ez dagoen adingabe* terminoa, eta beste hainbat izenen osagarri da. *Kolektibo horri deitzeko kontzeptu ohi-koenetakoa* «*inoren kargura ez dagoen adingabe atzerritar*» dugu («*menor extranjero no acompañado edo MENA*»); izan ere, termino hori Madrilgo Erkidegoan, Valentziako Erkidegoan eta *EAEn* erabili ohi da. Katalunian, Kataluniako Generalitat-aren DGAIA¹² zuzendaritzak «dokumenturik ez duen» terminoa erabiltzen du, eta *inoren kargura ez dagoen eta dokumenturik ez duen adingabe atzerritar* terminoa erabili ohi du.

Quiroga-k, Alonso-k eta Armengol-ek (2005) *Europako CON RED proiektuan*, Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioak eta Save The Children erakundeak egindako definizioa abiapuntu hartuta, «*Inoren Kargura ez dagoen Adingabe Migratzaile*» (*IKEDAM*) terminoa proposatu zuten, lehendik zegoena berriz definituz; *Inoren Kargura ez dagoen Adingabe* (*IKEDA*) terminoaren kasuistika guztia kontuan hartzen du termino horrek, ikusmolde nazional guztiak biltzeko xedea du (adingabeak harrera-herrialdera asilo-eskabide bidez sartu diren kasuak zein bide irregularren bitartez sartu diren kasuak) eta haratago doa:

«*Adingabea*, 18 urtetik beherako haur eta nerabeak direlako».

«*Migratzaile*, haur eta gazte horiek migrazio-proiektu jakin bat dutela (nahi dutelako edota familiak eta/edo gerrak inposatu diotelako) nabarmendu nahi delako»¹³.

«*Inoren kargura ez dagoena*, adingabe horiek harrera-herrialdean daudela, hasiera-hasieratik edota prozesu osoan «inoren kargura ez daudelako».

Europako CON RED proiektuaren xedea terminoaren murriztapenak baztertzea da, *inoren kargura ez dagoen* egoeretan jasotzen diren aukeren aniztasuna sartuz, eta beharrezko arreta emango ez dion erreferentziazko heldurik ez izateak adingabea babesgabetasun- eta kalteberatasun-egoeran jartzen duela kontuan hartuz:

- 18 urtetik beherako adingabe atzerritarra, gurasorik edota legezko tutorerik gabe iristen dena, edota legezko tutorea ez den senitartekoren batekin iristen dena edo harekin dagoena.

¹² Direcció General d'Atenció a la Infància i a l'Adolescència.

¹³ Gure ustez, migrazio-fenomenoa terminoan bertan nabarmentzea funtsezkoa da, adingabe horien errealitatea nazioarteko migrazioaren prozesuen barruan kokatuta baitago. Bestela, adingabe horiek eta jatorrizko herrialdean gabezia moral eta fisikoko egoeretan (banatze-egoerak, abandonu-egoerak, babesgabetasun-egoerak eta abar) dauden beste adingabeak bereizteko lehen elementua alde batera uzten dugu.

- 18 urtetik beherako adingabe atzerritarra, gurasorik edota legezko tutorerik gabe iristen dena, edota behar bezalako arreta eman ezin dion senitartekoren batekin iristen dena edo harekin dagoena.
- 18 urtetik beherako adingabe atzerritarra, gurasorik edota legezko tutorerik gabe iristen dena, behar bezalako arreta eman ezin dion familia handiko senitartekoren batekin iristen dena edo harekin dagoena, edota helduarekin duen harremanak zalantzak sortzen dituenen.

Inoren Kargura ez dagoen Adingabe Migratzaile (IKEDAM) terminoaren definizioa honako hau da:

18 urtetik beherako haur eta nerabeak, *jatorrizko herrialdetik kanpo emigratu dutenak*, bakarrik eta/edo bi gurasoetatik edota *legezko tutoretik* edo legez edo ohituraz ardurapean dituen pertsonengandik bananduta, *edota familia handiko senitartekoren baten edota legezko tutoreak legez edo jatorrizko herrialdeko ohituraz adingabearen ardura emandako pertsonaren kargura daudenak, eta zirkunstantziaren bategatik bakarrik geratu direnak, behar bezalako arreta jasotzen ez dutenak, edo bestela, adingabearen eta helduaren arteko harremanak zalantzak sortzen dituenen*. Haur gisa, haur bananduak dira guztiak, eta beraz, nazioarteko babesak jasotzeko eskubidea dute, nazioarteko eta eskualdeko tresna-gama zabal baten bitartez. Asiloa eskatu ondoren edota modu irregularrean sartu ohi dira Europan adingabe horiek. Asiloa eskatzen dutenek jatorrizko herrialdean jasan lezaketen jazarpenaren, giza eskubideak urratzearen aurrean babesik ezaren, gatazka armatuen edota istilu larrien beldur direlako eskatu ohi dute. *Modu erregularrean sartu direnak*, berriz, zenbait kasutan trafikoaren edo beste esplotazio motaren baten biktimak izan dira, edo *pobrezia* latzeko *egoeretatik*, gabezia larrietatik edota *gizarte-sustapenerako itxaropenik* ezetik ihes eginez joan dira Europara. Adingabe horietako askok esperientzia beldurgarriak jasan dituzte eta berealdiko gogortasuneko egoeretatik bizirik irten dira¹⁴.

Hainbat autonomia-erkidegotan egin zen «Menores Migrantes No acompañados en España» izeneko I+Gko proiektuaren (2007an gauzatu zen, eta hitzaurrean egin ditugu proiektu horren aipamenak) landa-lanean egiaztatu zenez, behar bezalako arreta eman ezin dien edota zalantza zko senidetan harremana duen senitartekoren batekin bizi diren eta «inoren kargura ez dauden» adingabeen egoera ez da uste bezain salbuespenezkoa

¹⁴ QUIROGA, ALONSO eta ARMENGOL (2005). *Rutas de pequeños sueños. Los menores migrantes no acompañados en Europa*. CON RED proiektua. Fundació Pere Tarrés, Bartzelona, 2005.

edo ezohikoa¹⁵. «Laguntza txarra duten» adingabe migratzaileen kasuak ere gertatzen ari dira Espainian, eta kasu askotan, «inoren kargura ez dauden» adingabeen eta «laguntza txarra duten» adingabeen arteko muga banantzea zaila da.

Laburbilduz, inoren kargura ez dauden adingabeen migrazioa aztertzeko, ezinbestean zabaldu behar dira mugak, eta baita kontzeptuari esanahi gehiago emango dizkioten egoera berri horiek sartu ere.

3.2.2. Inoren kargura ez dauden adingabeen migrazioari buruzko ikerlanak

Inoren kargura ez dauden adingabeen migrazioaren fenomeno hori horrelako mutilak eta neskak atzematen hasi zirenez geroztik igaro diren urteetan ikertu da, eta errealitate hori azaltzen saiatu diren hainbat ikerlan daude.

Europari dagokionez, inoren kargura ez dauden adingabeei buruzko hainbat ikerlan ditugu. Lehenik eta behin, *Save The Children* erakundeak egindako *Separated Children in Europe* deritzon programaren ondorio diren txostenak nabarmendu behar dira¹⁶; programa hori 27 herrialdetan egin zen, eta banandutako adingabeek bizitako egoerak eta horien premietara egokitzeko aldatu beharko liratekeen politikak aztertzen dira bertan; era berean, erakunde horrek eta Errefuxiatuentzako Nazio batuen Goi Komisarioak 1999an batera egindako *Manual de Buenas Prácticas* deritzon gidaliburuan, adierazitako premia horiek jasotzen dira. Ildo horretatik, Berlin Institute of Comparative Social Research erakundeak eta Florentziako Unibertsitateak garatutako *MINMIG* proiektuan Batasuneko kide diren hamabost estatuen txostenak egin ziren 1999-2003an. Azken fasean, 2004az gero Europar Batasunean sartu diren azken hamar herrialdeetako egoera aztertu zen. Espainiari dagokionez, 2000-2004an Ramon Llull Unibertsitatearen Fundación Pere Tarrés fundazioak *CON RED*¹⁷ proiektua garatu zuen Europa mailan; proiektu horrek Europako zortzi herrialdetan adingabeek bizi dituzten egoerak alderatzen ditu abiapuntu gisa, eta adingabe horie-

¹⁵ Horrelako egoerak ohikoagoak dira iparraldeko herrialdeetan, esate baterako, Danimarkan edo Finlandian, edota beste hainbat herrialdetan, adibidez, Italian.

¹⁶ 2001-2003an eguneratuak.

¹⁷ Proiektuaren izen teknikoa honako hau zen: «Comunidad virtual contra la violencia ejercida sobre los niños y adolescentes inmigrantes SIN RED de apoyo social». Honako herrialde hauek osatzen zuten: Belgika, Danimarka, Frantzia, Italia, Irlanda, Portugal, Suitza eta Espainia, Maroko eta Algeria.

kin gizarte-mailan esku hartzen duten profesionalek egindako galderei erantzutea du xede. Horretaz gain, *Seeking asylum alone* proiektuak Erresuma Batuko egoera eta adingabeak hartzen dituzten Europatik kanpoko hainbat herrialdetakoa (Australia eta AEB) alderatzen ditu. Azkenik, Gazte Justiziaren Nazioarteko Behatokiak 2007an egindako lanak adingabeen egoera jasotzen du, Europako sei herrialderen konparazio-azterlan baten bitartez.

Espainiako Estatuan, bestalde, *autonomia-erkidego bakoitzari buruzko ikerlanak* dira nabarmentzekoak batez ere. Izan ere, estatu-mailako ikuspegia duten argitalpen urrietako bat Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren Gizarte Ekintzaren, Adingabearen eta Familiaren Zuzendaritza Nagusiak babestutako proiektua dugu, *Menores extranjeros no acompañados* izenekoa, hain zuzen ere (Giménez eta Suárez, 2000); proiektu horretan bost autonomia-erkidego alderatzen dira, Andaluzia, Katalunia, Ceuta, Madril eta Melilla. Proiektu horrek jarraipena izan zuen 2002an, *Integración de los menores de origen extranjero de la Comunidad de Madrid. Necesidades, derechos y actuaciones* izeneko argitalpenarekin; Madrilgo Erkidegoko Adingabeen Defendatzailearen Bulegoak babestu zuen argitapen hori. Andaluzian, bestalde, helduera horien eraginaren gainean egin diren azterlanak Arce-k (1999) eta Jiménez-ek (2003) egin zituzten; horretaz gain, ezinbestean aipatu behar dugu Andaluziako Adingabeen Defendatzaileak egindako *Informe Especial sobre los Menores Inmigrantes* deritzon txostena (2004), IKEDAMek Andaluziako babes-zentroetan jasotako arretari buruzkoa. Kataluniari dagokionez, Capdevila-ren eta Ferrer-en (2003) lana, Quiroga-ren doktorego-tesia (2003) eta Jaume Bofill Fundazioaren, Comas-en eta Quiroga-ren argitalpenak dira nabarmentzekoak. Madrilgo Erkidegoan, berriz, Monteros-en doktorego-tesia azpimarratu behar da (2007); horretan, fenomenoari buruzko datu berriak ematen ditu «agency» deritzonaren ikuspegitik. Azkenik, *Menores tras la frontera: otra inmigración que aguarda* izeneko talde-lanean (ZENBAITEN ARTEAN, 2006) egindako ekarpenak ere interesgarriak dira; inoren kargura ez dauden adingabeen arazoan aurre egin beharreko erronkak jasotzen dira talde-lan horretan.

Zehazki, EAeri dagokionez, *Arartekoak* 2005ean argitaratutako *Bakarrik dauden Adin Txikiko Atzeritarren Egoera EAEn* izeneko Txosten Berezia nabarmendu behar da lehenik eta behin. Hautzaroari eta nerabezaroari buruzko 2003ko txostenean inoren kargura ez dauden adingabeei buruzko kapitulu bat agertzen da *Hurrengo Ezohiko Txostena* epigrafean; epigrafe horretan, adingabe horiei buruzko txosten espezifikoa egiteko asmoa zuela adierazi zuen Ararteko Erakundeak, gero eta horrelako adingabe gehiago heltzen ari baitziren EAEko zerbitzuetara,¹⁸ eta beste hainbat autonomia-erkidegok, hala nola, Anda-

¹⁸ 1996ra arte, EAEan ia ez zegoen Inoren Kargura ez zeuden Adingaberik. Urte horretatik aurrera, 2000ra arte, igoera txikia izan zen, eta 2001az geroz, hazkundera nabarmena izan da.

luziak eta Kataluniak, hasitako ildo berari jarraiki. Ildo horretan, funtsezkoa da adieraztea *Arartekoek* (Euskal Autonomia Erkidegoan) eta *hainbat autonomia-erkidegotako Adingabeen Defendatzaileek* (Andaluzian, Madrilen eta Katalunian) *askotan aitzindariak izan direla*, horrelako herritarrei buruzko eta horiei harrera egiteko eta egokitzeko prozesuari buruzko *ezagutza sustatzeari dagokionez*, betiere haurren eskubideak aldarrikatuz. Txosten horren xedea zera zen, egoera eguneratzea eta zorroztasun handiagoz aztertzea, adingabe horiei arreta emateari buruzko ikuspegi orokorra eskaintzea, eta batez ere, gomendio moduan, erakunde horrek beharrezko deritzen hobekuntzak planteatzea. Izan ere, populazio horren eta EAEko hiru foru-aldundiek emandako babes- eta harrera-sistemaren gaineko oso erradiografia eguneratu eta xehatua egiten duelako da garrantzitsua argitalpen hori. Horretaz gain, interesgarria da Immigrazioari buruzko II. Planak (2007-09) gai horri buruz emandako datuak aipatzea, eta baita Arartekoak 2007an emandako Eusko Legebiltzarrarentzako Txostenean populazio horri zuzendutako idatz-zatiak ere.

Ikusi dugunez, gai horiei buruzko azterlan gehienak erkidego-ikuspegi batetik egin dira, eta gaur egunean, *fenomeno horri buruzko estatu-mailako konparazio-azterketa egiten duen erreferentziazko azterlanik ez dugu ia*. Ildo horretatik, Ramón Llull Unibertsitateko IFAM (Infancia y Familia en Ambientes Multiculturales) deritzon ikerketa-taldearen lehentasunezko azterketa-ildoetako bat inoren kargura ez dauden adingabeen migrazioak aztertzea da fenomeno gisa. Antzinako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak 2006an I+G programaren bitartez finantzaturako proiektu horri esker (beste hainbat finantzazio-iturri ere baditu), teknika kualitatibo eta kuantitatiboan triangelaketaren bitartez estatu-ikuspegi batetik heldu ahal izango zaio fenomenoari, eta horretaz gain, inoren kargura ez dauden adingabeek, bizi diren autonomia-erkidegoaren arabera dituzten berdintasunak eta aldeak ezarri ahal izango dira.

3.2.3. Lege-esparrua

Bakarrik edota aginterik gabeko helduekin emigratzen duten adingabe atzerritarrak hona iristea migrazio-estrategia berri bihurtu da, eta estrategia horri atzerritarrei buruzko jurisprudentzian eta adingabeak babesteko eskubideko jurisprudentzian bateragarriak diren erantzunak ematen saiatzen ari da zuzenbidea. Era berean, ezin dugu ahaztu adingabe horien egoera juridikoan hainbat botere publikok parte hartzen dutela, erabakiak hartzeari, herrialdearen aniztasun autonomikoari erantzuteko kontuan hartu beharreko babes-arauen pluraltasunari eta abarri dagokienez. Berrikuspen historiko labur bat egin dezagun. Haurren Eskubideei buruzko Genevako Deklarazioaren (1924) esparruan agertu zen, lehen aldiz, haurren eta gazteen interesak helduen aurrean babesteko interesa. 1959an, Nazio

Batuen Batzar Nagusiak Haurren Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartu zuen, heldutasun fisiko eta mentalik ez duenez, haurrak zainketa bereziak eta arreta behar baititu, baita lege-babesa ere. Denbora-tarte horretan guztian, eta Haurren Eskubideei buruzko 1989ko Konbentziora arte (Espainiako Estatuan 1990ean berretsi zuten), haurrak babes-teko nazioarteko zuzenbideak bilakaera nabarmena izan du, batez ere laurogeita hamarreko hamarkadaz geroztik.

Azken konbentzio horretara jo behar dugu adingabetasunaren mugaketa aurkitzeko; horrela, 0-18 urtetan kokatu zen pertsonen adingabetasuna (haurtzaroaren eta nerabezaroaren gizarte-eraikuntza); horretaz gain, adingabea *maila goreneko interesekotzat* hartu zen. Konbentzio hori berretsi zuten herrialdeek bakoitzaren leislazioetan sartu dute, baita Espainiak ere, Espainiako Konstituzioaren 39.4 artikulua honako hau jasotzen baitu: *Umeei nazioarteko itunetan ezarritako babesa izango dute, itunok haien eskubideak zaintzen dituzten neurrian*. Beraz, Europar Batasunaren Kontseiluak 1997ko ekainaren 26an emandako ebazpen horren (97/C221/03) bitartez zedarrituta geratu zen hirugarren herrialdeetatik Estatu kideen lurraldera iristen diren 18 urtetik beherako adingabeen babesa, horien ardura —legezkoa nahiz erabileren eta ohituren arabera— duen helduren batekin iristen ez diren adingabeen babesa, hain zuzen ere, betiere horien ardura duen helduren baten zaintzapean benetan ez badaude. Norbaiten kargura zeudela gure lurraldean sartu diren baina abandonatu dituzten hirugarren herrialdeetako adingabeei ere aplikatuko zaie adierazitako ebazpen hori.

Adingabearen Babes Juridikoari buruzko 1/1996 Lege Organikoak, NBEren Konbentzioa betez, Espainian dauden adingabeen gainerako eskumena aitortzen dio Espainiako Estatuari (1. artikulua). *Baina beren etorkizunerako erabakigarriak izango diren bi kondizio juridiko hartuko dituzte horiek: etorkinak dira, eta aldi berean, baita adingabeak ere. Nazioarteko zuzenbidearen arabera, adingabe-estatusa nagusitu beharko litzateke etorkin-estatusaren aurrean*, haurrak babesteari buruzko legediak atzeritarrei buruzko edozein legedik baino garrantzi handiagoa izan beharko bailuke. Eta, izan ere, *Espainiako Estatuan hori horrela izan zen lehen urteetan*, baina estatuak berak nahiz autonomia-erkidegoek (azken horiek dituzte adingabeei buruzko eskumenak) immigrazioari buruzko hainbat lege espezifiko garatzearekin batera, *babes hori mugatzen duten hainbat neurri ezarri dituzte*, eta gauza berbera gertatzen da Europako gainerako herrialdeetan.

Atzeritarrei buruzko 7/1985 Legearekin batera, Espainian bizi diren atzeritarren eskubide eta askatasun publikoei buruzko lehen arau organikoa sortu zen; lege horrek ez zituen modu egokian babesten eta aitortzen Espainiako Estatuan bizi ziren atzeritarren es-

kubideak¹⁹. Lege hori atera zenean eta haren erregelamendua 1986an abian jarri zenean, herrialdean sartu ahal izateko beharrezko bihurtu zen bisatua eta alde zureko lan-kontratua eskatzea, beste hainbat neurri zuzen.

Atzeritarrei buruzko politika 1992an Maastrichteko ituna sinatu zenean eta 1995ean Schenguen-eko Akordioa indarrean hasi zenean finkatu zen, Espainiako Estatua erkidego osoko kanpo-mugetako bat bilakatu baitzen horiekin batera. Adierazitako akordio horrek estatu kideetako pertsonen eta merkantzien zirkulazio askea ahalbidetu zuen, baina Europar Batasunean sartzea baimentzen zuten kanpo-puntuak indartu zituen, eragozpenak jarri eta hirugarrenen sarrera geldituz, estatu kideek immigrazioari buruz zituzten araudi guztiak homogeneizatu baitzituzten. Erregelamendu horrek hainbat kritika jaso zituen, eta hortaz, erregelamendua aplikatu eta sei urte geroago, lege horren zenbait erreforma ahalbidetzen zituen dekretu berri bat onartu zen 155/1996 *Errege Dekretuaren* bitartez; atzeritarrek osasunerako, hezkuntzarako, laguntza juridikorako eta abarrerako sarbidea izateko eskubideari buruzkoak ziren erreforma horiek. *Dekretu horren bitartez, adingabeen eskubideak ezarri ziren lehen aldiz* (12.-15. artikulua), nahiz eta dekretu horren 13. artikulua hasiera batean ez zegoen IKEDAMei zuzenduta, etorkin erregular edo irregularren seme-alabei —babesgabezia-egoeran zeudenei— baizik.

Erregelamendu horietan hainbat aldaketa sartu baziren ere, 7/1985 Legea ez zen eragin-korra, batez ere Estatuan ezartzeko asmoz etorritako atzeritar kopuruak gora egin baitzuten, eta beraz, erreforma bat gertatu zen, 4/2000 Lege Organikoa sortuz; zenbait hilabete geroago, Alderdi Popularraren Gobernuak Lege Organiko hori aldatu zuen, eta 8/2000 *Lege Organikoa* deitu zion. Kanpoko langileak beharrezkoak zirela eta langile horiek eskubideak zituztela onartzen zuen 4/2000 Lege Organikoak, eta 8/2000 Lege Organikoak, berriz, Gobernuaren aburuz 4/2000 Lege Organikoak beharbada bere baitan zekarren «dei-efektua» saihestu behar zela jasotzen zuen. Hori zela-eta, zehapenen eta arau-hausteen sistema baten bitartez (kanporaketak eta presako prozedurak aplikatzea eragiten zuten arau-hauste horiek), sarrerak murrizten zituen lege berriak, sarrera-fluxuak arautzeaz gain. Ez dugu ahaztu behar 8/2000 Legea (864/2001 *Errege Dekretua*) proposatutako helburu guztiak lortzen lagunduko zuen arautegi multzo batez hornitu zela.

Horren guztiaren eraginez, *atzeritarren eskubideak murriztu ziren*, aurreko legeetan irabazi zituzten eskubideak, hain zuzen ere, eta *etorkinengan zuzeneko eragina izan zuen murriztapen horrek* (35. eta 40. artikulua).

¹⁹ Beraz, 1987ko uztailaren 7an, lege hori nabarmen aldatzen zuen epai bat eman zuen Konstituzio Auzitegiak, atzeritarrek biltzeko eta elkartzeko eskubidea izan zezaten.

Adingabe horien presentzia ikusirik, Atzerritarren Legearen erantzuna *aberriratze-neurriak indartzea* izan zen, lehentasunezko neurri gisa²⁰, *Esparru Juridikoaren Idatz Zatian* adierazten zen bezala. *Aberriratze hori ezinezkoa bada, horren orde zizarteratze- eta erregularizazio-mekanismoak erabili behar dira* (62. artikulua), eta adingabeen zentroetan sartuko dira adingabeak, derrigorrezko agindu fiskala eman ondoren. Inoren kargura ez dagoen adingabe atzerritarren bat Espainian atzematen den kasuetan, familiarekin berriz elkartzeko da lehen aukera; hala eta guztiz ere, elkartzeko hori praktikan gauzatzeak hainbat zailtasun dakartza, eta zailtasun horien eraginez, familiarekin elkartzeko prozesua ez da bideragarria kasu gehienetan, eta beraz, ez da gauzatzen²¹. Legediak ezartzen duenez, soilik familiarekin elkartzeko badira edo estatuko babes-zentro batean egon badira itzul daitezke adingabe atzerritarrek jatorrizko herrialdera. Espainiako Legeak ezartzen duenez, *Estatuko Administrazio Orokorrek, adingabea berriz elkartzeko printzipioaren arabera, adingabeari entzun ondoren eta Adingabeak Babesteko Zerbitzuek txostena eman ondoren, dagokiona ebazteko dute, adingabea jatorrizko herrialdera edota senitatekoak dauden herrialdera itzultzeari edota Espainian geratzeari dagokionez, hori izan ezean. Adingabearen interes gorenaren printzipioari jarraiki, aberriratzea erabakiko da baldin eta adingabearen familia egiaz berriz elkartzeko baldintzak edo adingabeak babesteko jatorrizko herrialdean dauden zerbitzuen aldetik behar bezalako tutoretza emateko baldintzak badaude. Atzerritarrei buruzko Legearen arabera, Estatuko Fiskaltza Nagusiak du kontsulatuarekin eta adingabeen familiekin harremanetan jartzeko eginkizuna, bakoitza bere herrialdera itzul dadin. Hala eta guztiz ere, familiak adingabea hartu nahi ez badu, Fiskalak haren aberriratzea ukatu beharko du. Aberriratze-neurri hori 8/2000 Legearekin sendotu zen, balizko *dei-efektua* txikiagotzeko. 35. artikuluan heltzen zaio adingabeen fenomenoari; adierazitako artikulua horretan ezartzen denez, dokumenturik gabeko adingabe bat badago, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek haren adingabetasuna ezarri behar dute, behar duen arreta emanez eta bere familiarekin itzul dadin lortzen saiatuz; Espainiako Estatuan geratzen bada, Administrazioak adingabea zaindu eta ba-*

²⁰ «Familiak berriz elkartzeko» gisa ezagunak dira, eta beste aldetze-neurrien aplikazioa ahalbidetzen duten berariazko nahasteak eragiten ditu horrek. Helduen kasuan, «berriz elkartzeko» terminoak honako hau esan nahi du: legez Espainian urtebetetik gora daraman edozein pertsona zuzeneko familia elkartzeko hasitako administrazio-prozesua. Adingabeen kasuan, osteratzen, adingabeak jatorrizko herrialdera itzultzen direnean aplikatzen da neurri hori, adingabearen interes gorenaren printzipioari (familiarrekin egoteko eskubidea) jarraiki.

²¹ Lan eta Immigrazio Ministerioi datuen arabera, 2007ko urtarilaren 1etik abenduaren 31ra arte 1.138 aberriratze-proposamen egin ziren, eta horietako 18 baino ez ziren egikaritu (hala ere, autonomia-erikidego guztiek ez dituzte datuak egun berean ixten).

bestu beharko du, eta dokumentuak eman beharko dizkio. Araudi hori gorabehera, adingabeekin lan egiten duten zenbait erakundek (CEAR eta Save The Children) adingabeari entzututen ez zaion kasurik salatu dute; salatutako beste kasu batzuetan, berriz, horien aberriatzea behar beste bermerekin gauzatuko delako ziurtasunik ez dago. *Lege horren barruan, adingabeak babesteko oinarritzko arau batzuetan hainbat kontraesan daudela begien bistakoa da*, batez ere segregazio-arriskuari eta adingabeak harrera-zentro ireki batean gehienez hogeita hamar egunez atxikitzeko gaitasunari dagokienez.

Oraintxe ikusi dugun bezala, atzeritarrei buruzko eskumenak estatuaren eskuetan badaude, *adingabeei buruzko eskumenak Autonomia Erkidegoen eskuetan egon ohi dira*.

Autonomia Estatuaren 10. artikulua aurreikusten duenez, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen esklusiboak ditu honako hauetan: adingabeak babesteko eta zaintzeko erakunde eta establezimenduen gizarte-laguntza, antolakuntza, erregimena eta funtzionamendua, gizarteratzea eta haur- eta gazte-politika, oro har etorkin guztien eta zehazki, haurren eta nerabeen ongizatea eta garapena sustatzera bideratutako baliabide, jarduera, prestazio eta ekipamendu guztiak barnean hartuta. Horrela, Eusko Jaurlaritzak, Aldundiek eta Udalek eskumenak dituzte haurren eta nerabeen eskubideak defendatzearen gainean iritzi publikoa sentsibilizatzeari dagokionez. Eusko Jaurlaritzak, Gizarte Gaietako Sailaren bitartez, legegintza-ekimena eta erregelamendu-ahala gauzatzen ditu, eta horretarako, hainbat eginkizun gauzatzen ditu, hala nola, hurrekin eta nerabeekin lotutako jardunen eta gizarte-zerbitzuen plangintza orokorra, edota administrazio publikoen organo guztien eta gizarte zibilaren jardunen koordinazioa. *Foru-aldundiek, bestalde, babesgabetasun larriko edo babesgabeziako egoeretan haurrak eta nerabeak babesteko eginkizuna dute, eta horretaz gain, arreta-zerbitzu eta -zentroak zuzenean edo zeharka kudeatzen dituzte*.

Erkidego horretan bizi diren edo bertan dauden adingabeek funtsezko eskubideak —banakoak zein kolektiboak— aitortuta dituzte. Adingabe atzeritarren kasuan, hezkuntzarako, babeserako eta osasunaren sustapenerako eskubideak nabarmendu behar dira, eta baita Estatuak eskaintzen dien edozein zerbitzu publikoren onuradun izateko eta nortasuna eta nazionalitatea gordetzeko eskubideak ere.

2005eko otsailaren 18an Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko 3/2005 *Euskal legea* onartu zen; Lege horretan, *beste hainbat baliabidetan* (nazioartekoak, estatukoak edota erkidegoetakoak) *haurrei eta nerabeei aitortutako eskubide guztiak biltzen dira*, eta pertsona horiek (beren eskubideak benetan baliatuz) sutatu eta babestearen esparruan Euskal Administrazioak gauzatu beharreko jarduna zuzendu behar duten printzipioak ezartzen dira.

Gizarte Babesik gabeko Haur eta Nerabeentzako Egoitza Harrerako Baliabideak Arautuko dituen 131/2008 Dekretua 2008an onartzearekin batera are gehiago zehaztu zen adierazitako lege hori. Dekretu horrek aurrerabidea ekarri zuen, egoitza-egiturak (egoitza-zentroak, harrera-etxebizitzak, emantzipaziorako prestatzeko zentroak eta emantzipazio-etxebizitzak) eta esku-hartzeen pluraltasuna zehazteko jarraibideak eta irizpideak aurkeztu baitzituen. Horretaz gain, baldintza materialak, funtzionalak eta langileei buruzko baldintzak arautzeko jarraibide eta irizpideak ere aurkeztu zituen. Xedapen horiek babeserako egoitza-harrerarako baliabide guztiei aplikatuko zaizkie, oinarritzko programei zein programa espezializatuiei, publikoei nahiz pribatuei.

3.2.4. Fenomenoaren erradiografia laburra

Giza mugimenduak etengabe gertatu dira historian, baina adingabeen mugimenduak helduen lekualdatzeen esparruaren barruan geratu dira beti, adinari lotutako kategoriak XX. mendearen amaierara arte ez baitziren sortzen hasi gizartean. Inoren kargura ez dauden adingabe etorkinen fenomeno ez da Europan bakarrik gertatzen, gizarte-desberdintasun handiak dituen tokietan gertatu ohi baita (Quiroga, 2003; Suárez, 2006).

Lehen esan dugun bezala, *fenomeno horren nobedadea* ez da adingabeak lekuz aldatzea edo adingabeen zirkulazioa, *kolektibo hori bistaratzea eta erakundeek kolektibo hori tratatzen duen modua* baizik, adingabeak babesteko legeak agertu zirenez geroztik. IKEDAMak laurogeita hamarreko hamarkadan hasi ziren iristen²² (Danimarkan 1986tik aurrera atzeman ziren), eta 2000. urtera arte, bilakaera hazkorra izan zuen fenomeno horrek, beti helduen migrazioaren indizeak baino baxuagoa izan bada ere. Fenomeno horri buruz dagoen pertzepzioa eta adingabe horiek ordena publikoan sor ditzaketen balizko arazoak dira bistaratze horren epizentroa. Hasieran, IKEDAMak oso ezaguna ez zen kolektiboa ziren; izan ere, ez zen ezagutzen horien ezaugarri nagusia, handitasuna, hain zuzen ere. Atzerriko populazioa etortzea Espainian fenomeno berri samarra bada, are berriagoa da inoren kargura ez dauden adingabe etorkinak iristea, eta, gainera, horien kopurua gure herrialdean nahiko handia izaten hasi zen 1998tik edo 1999tik aurrera, gutxi gorabehera.

Immigrazioaren abenturari bakarrik edota tutoretza ez duen helduren batekin ekiten dioten adingabeak gure herrialdera iristea *immigrazio-estrategia berri gisa finkatu da, eta helduen fenomenotik bananduta heldu behar zaio* adingabeen fenomeno horri; horrela,

²² Lehen arautegi juridikoak agertu ziren urtea.

bakarrik emigratzen duten adingabeak *migrazio-eragile berritza* hartzen has gaitzek, migrazio-fluxuetan esku hartzen duten *gainerako eragileetatik bereizten dituzten migrazio-eredu espezifiko bat baitute: adingabeak direla eta migrazioa familiako erreferentzia*zko heldurik gabe gauzatzen dela.

Gero eta adingabe gehiagok ekiten diote bide horri, ilusioz eta gogoz beteta hasten duten bide bati, hain zuzen ere. Bidaia amaitu ondoren, adingabe horietako askok hasiera batean sortutako ametsetara arrakastaz hurbiltzea lortu ohi dute. Beste batzuek, aldiz, ibilbide horretan hasierako gogoak galdu ohi dituzte, eta apurka-apurka, galeraz eta desgainuz bete ohi dira, adingabeak izateaz gain, etorkinak ere badirelako, eta kondizio horrek garrantzi handia duelako. Horietako lehen kondizioak, hots, inoren kardura ez dagoen edo «laguntza txarra duen» adingabearen kondizioak Administrazio «babeslearen» zaintza berezia merezi izatea eragin beharko balu ere (oro har, giza eskubideak, eta zehazki, haurren eskubideak errespetatzeko eta betetzeko bermatzaile gisa jokatu luke Administrazio horrek), askotan, etorkin-estatusaren errealitatea nagusitu ohi da, bi logika horiek kontraesankorrak baitira, geroago ikusiko dugun bezala.

Kausa anitzeko fenomenoetan bilatu behar ditugu *immigrazio horren kausak*: politikarekin lotutako arrazoiak, arrazoi ekonomikoak edota gizarte- eta kultura-itxaropenak hobetzekoak, eta nesken kasuan, jatorrizko herrialdeko familia-harreman hertsatzaileetatik ihes egiteko nahia. *Xede-herrialdea hautatzeko erabakigarriak diren faktoreak* askotariakoak izan daitezke, hala nola, hurbiltasuna eta garraio-erraztasuna, harreman historikoak, edota ekonomiarekin edo hizkuntzarekin lotutakoak, familia-nukleoko migrazio-aurrekariak, edota xede-herrialdean faboragarriak diren harrera-legediak.

Espainian, *adingabe gehienak ere Marokokoak dira*, herrialde horretako heldu askorekin gertatzen den bezala, nahiz eta *azken urteotan etorkinen jatorriak aldatu egin diren*. Adingabe gehienek *modu irregularrean* zeharkatu ohi dituzte mugak, eta jatorrizko tokiaren arabera, kamioi edo autokarren azpian, edota ontzietako, pateretako edo hegazkinetako ezkutuko bidaiari gisa egin ohi dute bidaia, 7. kapitulu

Jiménez-en arabera (2004), Marokotik datozen adingabeen kasuan (adibide gisa), hiru faktorek baldintzatuko dute horien migrazio-grina:

- Haurrak babesteko sistemaren eze

- Hiri handietako metropoli-areetan eta landagune isolatueta bizi diren familia askoren gizarte-egoera.
- Immigrazioaren imajinario kolektiboaren eginkizun garrantzitsua: gizarte-sustapenerako aukera ikusten du immigrazioan.

Aurreko ataletan deskribatu dugun bezala, erreferentziazko heldurik ez duten adingabeen migrazioa duela ia 15 urtez geroztik gertatzen ari da Espainiako Estatuan²³. Gaur egun, migrazioen fenomenoaren ezaugarrietako bat murriztapenak dira, gizabanakoek zirkulazio askerako duten eskubideari dagokionez, eta zuzeneko eragina du haur eta nerabeengan. Heldu baten tutoretzarik gabe Espainian dauden adingabe etorkinek oso kolektibo kaltebera osatzen dute, azken 10 urteetan etengabe handitu dena, eta gaur egun Administrazioentzat eta gizarte-erakundeentzat kezka larri bihurtu da.

Monteros-ek (2007) adierazten duenez, hasiera batetik juridikoki eraikita eta indartuta zegoen fenomeno du hura, eta berezko ezaugarriak baitu ere, talde horrek babes-sistemekin izan dituen harremanekin nabarmendutakoak ere baditu. Hala eta guztiz ere, fenomeno horren ezaugarri espezifiko batzuk nabarmen daitezke, gaur egunean homogeneotasunik ezak markatutako kolektibo baten problematika berezi eta ez-berezko jakin batzuk sortzen baititu.

Estatu-mailan sexuen arabera bereizitako daturik ez badago ere²⁴, erreferentziazko heldurik gabe migrazio-prozesuari ekiten dioten IKEDAM detektatu gehienak mutilak dira batez ere. Erabil daitezkeen estatistiketan jasota ez badaude ere, eta oraindik populazio horri buruzko argitalpenak oso urriak badira ere (Morente eta Trujillo, 2006; Quiroga, Berga, Alonso eta Sòria, 2007; Alonso, 2008), *neskek ere emigratzen dutela frogatzen duten datu fidagarriak badaude, nahiz eta horien proportzioa mutilena baino txikiagoa den*: Europa Ekialdeko eta Nigeriako neskak, sexu-arloan lan egiten dutenak, Marokoko eta Latinoamerikako IKEDAMak (neskak), familia-gatazketatik ihes egin dutenak²⁵,

²³ Gogoan izan behar da lehen IKEDAMak 1994an iristen hasi zirela.

²⁴ 4. kapituluari ikusiko dugunez, IKEDAMei dagokionez, datuak biltzeko prozesuan autonomia-erkidegoek ez dute irizpide homogeneo eta partekaturik aplikatzen. Autonomia-erkidego bakoitzak egokitzat jotako aldagaiak erabili ohi ditu.

²⁵ Profil hori Dolores Juliano-k (2004) «genero-errefuxiatuak» (*refugiadas de género*) kategoriarekin taldekatutako emakume taldearekin bat dator erabat; horrelako adingabeek jatorrizko familia- edo gizarte-egoera gatazkatutik ihes egiteko eta jatorrizko herrialdean emakumei ezarritako eredu zurruntetik askatzeko emigratu ohi dute.

Errumaniako IKEDAMak (neskak), eskekotasuna edota indarkeriarik gabeko lapurreta gauzatzen dituztenak, besteak beste.

Inoren Kargura ez dauden Emakume Adingabe Migratzaileen migrazioak hainbat dimentsio izan ohi ditu. Adingabeen migrazioa eta helduena parekatu ezin diren modu berean, eta emakumezkoen eta gizonezkoen migrazioak berdinak ez diren bezala, *Inoren Kargura ez dauden Emakume Adingabe Migratzaileen migrazioak desberdintasunak ditu mutilenarekin alderatuz, eta genero-posizio eta -kondizioak zeregin erabakigarria du horien migrazio-prozesuan* (Alonso, 2008).

Lehenik eta behin, *nesken migrazioa ulertzeko arrasto asko ematen dizkigute emakume helduek gauzatutako migrazio-proiektuek*, eta azterketarako esparru baliodun gisa eratzten dira. *Emakumeen migrazioaren aniztasuna* oso zabala da, baita adingabeen kasuan ere. Jarraibide orokor gisa, *ikusezintasuna da migrazio horren ezaugarrietako bat*, eta *ezkutuko ibilbideetan eta erregularizatu gabeko zirkuituetan* hirugarrenei egindako lanekin lotutako gizarteratze motarekin zerikusia du, esate baterako, pertsonen zaintzarekin, etxeko lanekin, ebasketarekin edota sexu-laneekin, besteak beste²⁶.

Bigarrenik, nabarmendu beharrekoa da *neska horiek babes-sistemarako duten sarbidea oso mugatua eta ezohikoa dela*. Erakundeen hezkuntza-neurriak ez datoz profil horiekin bat, eta harreraren eta arretaren arrakasta-maila oso baxua izan ohi da: zirkuitu horietan amaitzen duten neska adingabeak, gainera, normalean horietan ez dira luzaroan egoten, jatorrizko herrialdean berriz elkartzen baitira, ihes egiten baitute edota adin-nagusitasuna bete ohi baitute, eta beraz, Administrazioak ezin baitu alor horretan esku hartzeko eta sakontzeko behar adina informazio lortu.

Sexuaren aldagaia nabarmentzeko eta neskak ikusezintasunetik ateratzeko oso ahalegin esplizitua egin da ikerlan honetan. Ildo horretan, migrazioei buruzko azterlan askotan maiztasun handiegiz ahaztu den aldagaia izan da sexua, baita gazteei buruzko azterlanetan ere (Berga, 2006). *Inoren kargura ez dauden adingabeen migrazioari buruzko azterlanetan neskak sartu behar dira derrigorrean, eta erronka eta desafio teoriko garrantzitsua dugu hori*, ustez oro har adingabeen migrazioaren ezaugarriak ziren hipotesietako zenbaitzuk kolokan jar baititzake (Alonso, 2008). Orain arte bezala horien existentzia

²⁶ Emakumeek emigratzen dutenean, Espainiako emakumeek utzitako lan-nitxoak hartu ohi dituzte, tipikoki emakumeenak izan diren jarduerak gauzatuz.

saihesteak adingabe horiek gizarte-bazterketa eta kalteberatasun handiagoko egoeretara kondenatzea baino ez du eragiten. Horrelako adingabeak nolabait azaleratzen baditugu, ezagutzeko aukera izango dugu, eta beraz, arretarako eta harrerarako babes-neurri erreal eta errealistak diseinatzeko eta abian jartzeko lan egin ahal izango dugu.

EAE ez dago IKEDAMen harreratik kanpo: horrelako adingabeen harrera oso altua duten beste hainbat autonomia-erkidegorekin alderatuz —esate baterako, Kataluniarekin, Andaluziarekin, Kanariekin edota Valentziako Erkidegoarekin—, EAEn horrelako adingabe gehiago daude. Horien presentziaren ezaugarriei dagokienez, *nabarmenezkoa da harrera-sisteman IKEDAM kopuruak gora egin duela etengabe*, hurrengo kapituluaren xehetasunez deskribatuko dugun bezala.

Kapituluaren azalpena

- Espainiako Estatua emigranteen herrialde izatetik etorkinen herrialde izatera aldatu da, eta presentzia urria izatetik, esanguratsua izatera aldatu izanagatik nabarmen-tzen da, Europako parametroen antzera.
- Espainiako Estatuko immigrazioak 2000. urtean izan zuen inflexio-puntua; urte ho-rretatik aurrera, hazkundeak gainezka egin zuen, eta urtetik urtera mailaz mailako hazkundera izan du harrez geroztik.
- Maroko da ibilbide finkatuenetakoak dituzten nazionalitateetako bat, baina 2002. urtetik aurrera, Errumaniak neurrigabeko hazkundera izan du.
- Etorkinak jasotzen zituzten beste hainbat autonomia-erkidegorekin alderatuz, popu-lazio migratzailea nolabaiteko atzerapenez eta askoz ere zifra txikiagoekin agertu zen EAEn.
- EAE posizioak galtzen ari da, eta 2006. urtean dagoeneko hamaikagarren postu-raino jaitsi zen.
- Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, 2006an atzerriko 85.542 etorkin erroldatu zeu-den, eta horien artean, % 70 inguru erregularizatuta zegoen.
- Atzerriko populazioa duen lehen herrialdea Kolonbia da, eta horren ondoren, Ekua-dor eta Maroko. Ondoren ikusiko dugunez, Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaile gehienen jatorrizko herrialdea Maroko da.

- Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen migrazio-fenomenoa 1980-1990ean agertu zen Europan.
- 1989an planteamenduak aldatu ziren, eta ikuspegi protekzionista bat gauzatu zen, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa berretsi zenetik aurrera (1989).
- Inoren Kargura ez dauden Adingabeen migrazioak migrazio-eredu berri bat ekarri zuen, helduen ereduarekin parekatu ezin diren berezko berezitasunekin.
- Adingabe horiek beren etorkizunerako erabakigarriak izango diren bi kondizio juridiko hartuko dituzte: etorkinak dira, eta aldi berean, baita adingabeak ere. Bi kondizio horiek etengabeko kontraesanak eragiten dituzte.
- Adingabe horien presentzia ikusirik, Atzerritarrei buruzko Legearen erantzuna aberriratzeko neurriak indartzea izan zen, lehentasunezko neurri gisa.
- Atzerritarrei buruzko eskumenak estatuaren eskuetan daude, eta adingabeei buruzko eskumenak, berriz, Autonomia Erkidegoen eskuetan. EAEren kasuan, foru-aldundiak.
- Bakarrik emigratzen duten adingabeak migrazio-eragile berriak dira, migrazio-fluxuetan esku hartzen duten gainerako eragileetatik bereizten dituzten migrazio-eredu espezifiko bat baitute: adingabeak direla eta migrazioa familiako erreferentziazko heldurik gabe gauzatzen dela.
- Espainian, adingabe gehienak Marokoko mutilak dira, herrialde horretako heldu askorekin gertatzen den bezala, nahiz eta azken urteotan (2003tik aurrera) etorkinen jatorriak aldatu egin diren.
- Espainiako Estatuan fenomeno horrek izandako bilakaeraren lehen proposamen bat sor daiteke, lau etapa bereizitan banatua.
- Neskek ere emigratzen dutela frogatzen duten datu fidagarriak badaude, nahiz eta horien proportzioa mutilena baino txikiagoa den.
- Inoren Kargura ez dauden Emakume Adingabe Migratzaileen migrazioak desberdintasunak ditu mutilenarekin alderatuz, eta genero-posizio eta -kondizioak zeregin erabakigarria du horien migrazio-prozesuan.

4

Fenomenoaren garrantzi soziodemografikoa

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen (IKEDAM) fenomenoak Euskal Autonomia Erkidegoan gero eta garrantzi handiagoa duen errealitatea da. Hori erakusten dute estatistika-datuak eta landa-lanaren bitartez bildutako informazio kualitatiboak.

Kapitulu honen ardatza adingabe horiek gaur egun bizi duten egoera eta adingabe horien ezaugarri garrantzitsuenak aztertzea da; horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Foru Aldundiek, horien adingabeentzako zentroek eta Arartekoak (Herriaren Defendatzailea) emandako estatistika-datuak erabiliko dira.

Hortaz, gaiari buruzko datu objektiboak biltzeko aukera dagoenez gero, fenomenoari buruzko gogoeta egin daiteke ikuspegi analitikotik, eta adingabeen ingurune hurbiletik haratago doan errealitatean koka daiteke.

Ondoren emango diren datuak Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen, baina erkidego horren mugetatik kanpo kokatzen eta azaltzen den errealitatearen erreferentzia gisa balioko behar dute. Horrenbestez, estatuko datuak eta autonomia-erkidegoen arabera bereizita dauden datuak ematen dira Euskal Autonomia Erkidegoa estatu-esparruan eta gainerrako autonomia-erkidegoekiko harremanetan kokatu ahal izateko. Baina hori ezinezkoa da beti, zeren estatuko datuak oso nekez aldera baitaitezke, termino formalei dagokienez aniztasun handia dagoelako²⁷.

Hori guztia kontuan izanda, gogorarazi behar da zenbakizko terminoei dagokienez, fenomenoak gero eta garrantzi handiagoa duela, eta gertakari horrek zailtasunak eragiten dizkiola Administrazio Publikoari eta administrazio horrek kudeatzeko duen ahalmenari.

²⁷ Barne Arazoetako Ministerioak eta Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak emandako datuen arabera, urte batzuetan aldeak daude Autonomia Erkidegoen artean datuak bildu zireneko datei eta datuak biltzeko moduei (sarrerak, harrera guztiak edo data jakin bateko harrerak) dagokienez. Horretaz gain, Autonomia Erkidego guztiek ez dute berdin ulertu Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen kontzeptua, batez ere fenomenoaren hasieran. Gertakari horiek direla medio, zaila da datuak Autonomia Erkidegoen arabera alderatzea. Datuak azterlanaren xede den errealitatearen hurbilketa gisa hartu behar dira.

Jarraian, honako gai hauei buruzko datuak aurkeztuko dira:

- Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileek (IKEDAM) Euskal Autonomia Erkidegoan gaur egun bizi duten egoerari buruzkoak
- Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileek (IKEDAM) Espainiako Estatuan bizi duten egoerari buruzkoak
- Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen fenomenoak Euskal Autonomia Erkidegoan eta Espainiako Estatuan izan duen bilakaerari buruzkoak.
- Euskal Autonomia Erkidegoan egonik Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen ezaugarriei buruzkoak: datua, adina eta nazionalitatea

4.1. Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileak (IKEDAM): gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan bizi duten egoera

Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean gaur egun bizi den fenomeno hainbat atale-tan azalduko da. Lehenik eta behin, landuko dugun gaiari buruzko azken bi urteetako argazkia egin behar da, eta hasteko adingabe horiek Euskadiko lurraldeko baliabideetara egindako etorrera azalduko da.

4.1.1. Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen (IKEDAM) etorrera

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen (IKEDAM) etorrera Euskal Autonomia Erkidegora eta komunitate horren garrantzia bost alderdi kontuan hartuta azaltzen dira:

- Gaiari dagokionez, autonomia-erkidegoetako gobernuak dituzten jarrerak eta sentsibiltate politikoak.
- Indarreko araudia interpretatzeko modu desberdinak eta zenbait alderdi araututa ez egotea estatuan.
- Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileek lurraldean zehar mugikortasun nabarmena izateko duten joera; adingabe horien erreferentzia diren heldu migratzaileek ere joera bera dute aukerak bilatze aldera.

- Beste Autonomia Erkidego batzuetatik ihes egindako adingabeak hartzea.
- Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen kasu gutxi daude babes-zirkuitutik kanpo orokorrean, batez ere adin-nagusitasunera iristen direnean.

Fenomenoa zenbaterainokoa den ikusteko, 2006. eta 2007. urteetan hiru Foru Aldundietan izan den sarrera kopurua aipatu behar da.

Azken bi urte hauetako kopuruak oso antzekoak dira. *Bizkaia da sarrera kopuru handiena duen Aldundia*; Euskal Autonomia Erkidegoko sarrera horien % 71 lurralde horretan izan baitziren 2006an, eta % 68 2008an.

Gipuzkoan Euskal Autonomia Erkidegoko Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen sarreraren % 23 zegoen bai 2006an, bai 2007an.

Araba nabarmentzen da Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen sarrerak igo egin zirelako 2006. eta 2007. urteetan, azken urte horretan 15 sarrera gehiago izan baitziren. Eta nahiz eta sarrera kopuru txikiena duen Aldundia izan, aipagarria da Aldundi horretako biztanle kopurua orokorrean gainerako Aldundietakoa baino txikiagoa delako²⁸.

Guztira, 677 adingabe etorri ziren *Euskal Autonomia Erkidegora 2007an*. Kopuru hori oso handia da, eta are gehiago baliabideak sortzearen ikuspegia kontuan hartzen badugu. Aurreko urtean, hau da, 2006an, 667 adingabe iritsi ziren; hortaz, dagoeneko kontua ez da harrera-zentroetan behar adina plaza edukitzea, baizik eta egoitza-baliabideak prestatuta edukitzea. Gainera, ez da soilik espazio fisikoaren arazoa, adingabe horiei arreta egokia emateko babes- eta hezkuntza-baliabideen arazoa ere bada.

Ondorengo taulan Aldundi bakoitzaren 2006. eta 2007. urteetako datu zehatzak azaltzen dira.

²⁸ Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) egindako azken udal-eroldaren arabera, 2006ko urtarilaren 1ean Araban 301.926 biztanle zeuden, Bizkaian 1.139.863 eta Gipuzkoan 691.895.

4. taula

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen (IKEDAM) sarrerak, 2006-07²⁹

	Urtea			
	2006		2007	
	Kop	(%)	Kop	(%)
Araba	40	6,0	55	8,1
Bizkaia	474	71,1	466	68,8
Gipuzkoa	153	22,9	156	23,0
Guztira	667	100	677	100

Iturria: Arabako Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Arartekoaren 2007ko txostena, eta Argileku Etxea, 2007. Egileak egina.

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen kopuruari dagokionez³⁰, *estatuaren esparruan*, *Euskal Autonomia Erkidegoa* hirugarren postuan zegoen 2006an³¹ eta laugarrenean 2007an, kokapen historikoa izan duten Autonomia Erkidegoen aurretik, hots, Kataluniaren eta Madrilén aurretik³². Segur aski 2007an ere hirugarren lekuan egongo zen, baina hori ezin da ziurtasunez jakin Valentziako Erkidegoari buruzko datuak nahasgarriak direlako; izan ere, norbaiten kargura dauden adingabe migratzaileak ere barnean sartuta daude erkidego horretan³³.

²⁹ Zenbait datu ez dator bat datu horien jatorri den iturriaren arabera. Kasu horietan, Foru Aldundiak emandako datuak azaltzen dira; hori baita iturri ofiziala.

³⁰ Datuak harreraren hartutako Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileei buruzkoak dira, kontsultatutako lehenengo mailako iturrien arabera, baina datu horiek bat datoz sarrerekin, bai gertakari kausal bat dagoelako, bai datuak izendatzean akats bat egon delako.

³¹ Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak emandako datuak osatu gabe daude. Madriléko Erkidegoak ez dizkio datuak eman Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioari. Hortaz, ez dakigu lurralde horretan, 2006an, zein izan zen Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen kopurua, baina uste dugu kopurua handia izan zela, aurreko estatistika-datuaren arabera (*ikus 13. taula*). Nafarroako daturik ere ez dago.

³² Madrilén hartzen da adingabe kopuru handia, hiri horretako biztanleriarekin alderatuta. Horregatik, Autonomia Erkidego hori oso garrantzizkoa da..

³³ Soilik 2006an daude Valentziako Erkidegoko Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileei (IKEDAM) buruzko datuak bakarrik. Hori horrela da proiektuaren ikerketa-taldeak Autonomia Erkidego horretako lehenengo harrerako zentroetako espediente guztiak hustu zituelako.

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen kopuruari dagokionez, *lehenengo hiru autonomia-erkidegoak* honako hauek dira: *Andaluzia*, Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen % 29 baitzuen 2006an eta % 23 2007an; *Kanariak* % 16 baitzuen 2006an eta % 12 2007an, eta *Euskal Autonomia Erkidegoa*, 2006an eta 2007an % 11 baitzuen; eta *Valentziako Erkidegoa* % 22 baitzuen 2007an. Andaluzia eta Kanariak sartzeko eta igarotzeko lekuak dira. Espainiako estatura sartzen diren Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileak erkidego horietatik sartzen dira, eta, ondoren beste erkidego batzuetan kokatzen dira (aukerarik izanez gero, zeren Kanarien kasuan, adingabe batzuk hango zentroetan egoten baitira beste Autonomia Erkidego batzuetara igaro gabe). Valentziako kokapen-lurraldea da Erkidegoa Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileentzat, baina kopuruak hain handiak dira Erkidego honetan ez direlako bereizten norbaiten kargura dauden migratzaileak eta inoren kargura ez dauden migratzaileak. Hortaz, zalantzan jarri behar da Autonomia Erkidego horren bigarren postua³⁴.

Arestian esan denez, *Euskal Autonomia Erkidegoa* dago *hirugarren postuan*, guztizkoaren % 11ekin bai 2006an, bai 2007an, Kataluniaren aurretik dago (2006an % 10, eta 2007an % 7), nahiz eta erkidego hori Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen ohiko iriste-erkidegoa izan fenomeno hasi zenetik.

Murtzia gorakada garrantzitsuena izan duen Erkidegoa da (210 adingabe gehiago). 2006an Espainiako Estatuko Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaile guztien % 2 zeukan, 2007an, ordea, gainditu egin zuen kopuru hori eta sarrearen % 5 izatera iritsi zen.

Euskal Autonomia Erkidegoaren postu hori garrantzizkoa da iriste- eta kokapen-leku bat den neurrian. Bestalde, Andaluzia eta Kanariak sarrera- eta igarotze-lekuak dira, baina ez kokapen-lekuak, orokorrean³⁵. Horrek eragiten du Euskal Autonomia Erkidegoaren babes-sisteman uzte gutxiago izatea (zentroak uzten dituzten adingabeak), eta, hortaz, Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaile gehiago denbora gehiagoan.

Emandako aurreko datuak aztertu ahal izateko, Autonomia Erkidego bakoitzean urtean zehar izaten diren IKEDAMen uzteen kopuruaren berri izan beharko genuke, baina ez daukagu informazio hori.

Jarraian, hainbat Autonomia Erkidegotan 2006. eta 2007. urteetan hartutako IKEDAMak azaltzen diren taula dago.

³⁴ Era berean, Autonomia Erkidego horretako funtsezko informatzaileei egindako elkarrizketen arabera, esan genezake erkidego horretan ere kopurua handia dela, eta Valentziako Erkidegoa lehenengo postuetan dagoela Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaile gehien dituzten Autonomia Erkidegoei dagokionez.

³⁵ Nahiz eta bigarren postuan egon Valentziako Erkidegoa ez da kontuan hartu, erkidego horretako zenbatekoak norbaiten kargura dauden eta inoren kargura ez dauden adingabe atzeritarrei buruzkoak direlako; hortaz, litekeena da bigarren postu hori benetakoa ez izatea.

5. taula

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen (IKEDAM) sarrerak Espainiako Estatuan, Autonomia Erkidegoaren arabera, 2006. eta 2007. urteetan³⁶

	2006		2007	
	Kop	(%)	Kop	(%)
Andaluzia	1.732	29,1	1.436	22,6
Valentziako Erkidegoa	333	5,6	1.368 ³⁷	21,5
Kanariak	947	15,9	734	11,6
Euskal Autonomia Erkidegoa	667	11,2	677	10,7
Katalunia	580	9,8	466	7,3
Ceuta	446	7,5	408	6,4
Murtzia	89	1,5	299	4,8
Melilla	269	4,5	258	4,1
Gaztela eta Leon	225	3,8	201	3,2
Gaztela-Mantxa	172	2,9	125	2,0
Aragoia	96	1,6	114	1,8
Galizia	70	1,2	85	1,3
Asturias	101	1,8	67	1,1
Kantabria	105	1,8	47	0,7
Balearrak	37	0,6	28	0,4
Extremadura	67	1,1	23	0,4
Madril ³⁸	—	0,0	10	0,2
Errioxa	7	0,1	5	0,1
Nafarroa	—	0,0	—	0,0
Guztira	5.943	100,0	6.351	100,0

Iturria: Etorkinak Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusia. Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa, Kataluniako Generalitatea, Valentziako Generalitatea, Gaztela eta Leongo Junta, Valentziako Erkidegoko eta Galiziako Xuntako Lehen Harrerako Zentroetako Espedienteei buruz proiektu honetako ikerketa-taldeak egindako Hustuketa (2007-2008). Egileak egina..

³⁶ Euskal Autonomia Erkidegoko hiru Foru Aldundiek emandako datuak ez datoz bat Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak emandako datuekin. Horixe bera gertatzen da aztertutako beste Autonomia Erkidegoetan ere. Hiru Aldundien arabera, sarrera gehiago daude guztira. 74 sarreraren aldea dago. Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren datuak autonomia-erkidegoek ematen duten informaziotik abiatuta lortzen dira. Eta Autonomia Erkidego guztiek ez diete irizpide berdinei jarraitzen datuak biltzerakoan edo ez dituzte datu guztiak ematen. Lagindutako datuak gertakari horren arabera ulertu behar dira beti. Hainbat Autonomia Erkidegok ez dituzte beren datuak ematen, eta kasu horietan marratxo bat azaltzen da.

³⁷ Gogoan izan zenbateko hori Inoren Kargura ez dauden eta Norbaiten Kargura dauden Adingabe Migratzaileei buruzkoa dela, zeren ez baita bi talde horien arteko bereizketarik egiten Autonomia Erkidego horretan eskumena duen Administrazioetik datuak biltzerakoan.

³⁸ Ez dago Madrili buruzko daturik, baina Madrileko Erkidegoko Madrileko Adingabearen eta Familiaren Institutuko (IMMF) zuzendariorde Juan José Blázquez jaunak, egindako elkarrizketan, adierazi zuen 2006an 204 IKEDAM zeudela, batez beste, Autonomia Erkidego horretako babes-sisteman. Kopuru hori ez da Taulan sartu babez besteko bat delako.

Errealitatea da Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileak arlo ekonomikoko im-migrazioaren fenomenoaren zati txiki bat direla; horregatik, litekeena da politika-arloan hain garrantzizkoa ez izatea orokorrean fenomenoaren esparruan duen garrantziaren or-denaren arabera. Baina aldi berean adingabeak dira, eta planteamendu bikoitz horrek zail-tzen du Administrazioen kudeaketa inoren kargura ez dauden edo «laguntza txarra duten» adingabeei arreta emateko (kontzeptu hori 3. kapituluan «Esparru teorikoa» azaldu da).

Baliabideak sortzeko honako gertakari hau hartzen da kontuan: gaiari heltzeko aukeratu-tako ikuspegiaren eta gaiari emandako garrantzi politikoaren arabera, kalitatezko bali-a-bide jakin batzuk sortuko dira adingabe horiei arreta emateko.

Etorrerari dagokionez, sortu diren baliabideak harrera-zentroak dira, kasu batzuetan, eta zenbaitetan, gainsaturatuta daude sarrera kopurua asko hazi delako.

Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileen hiru harrera-zentroak ho-nako hauek dira: Zabaltzen Araban, Zornotza Bizkaian eta Tolosa Gipuzkoan. Zentro ho-rien ezaugarriak aurrerago azalduko ditugu (*Ikus 8. kapitulua*).

Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileentzako zentroetako sarrera kopurua eta guztizko sarrera kopurua antzekoak dira (Inoren Kargura ez dauden Adin-gabe Migratzaileak, mutilak zein neskak)³⁹. *Zornotzan* dago harrera berrien kopuru han-diena bai 2006an (Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen sarreraren % 71), bai 2007an (Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen sarreraren % 70).

Tolosan (bigarren postuan dago) adingabe horien % 23 dago 2006an eta % 22 2007an. *Zornotzan* eta *Tolosan* kopurua zertxobait jaitsi egin zen 2006an eta 2007an (% 1). Jai-tsiera hori ez da esanguratsua, baina nabarmendu behar da sarrera kopurua handi sama-rra dela oraindik. Nahiz eta elkarriketatutako funtsezko informatzaileen arabera, Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen etorrerari eutsi nahi izan zaio azken aldi ho-netan; horretarako, eskaintzen diren baliabideak ahalik eta gehien egokitu dira dauden baliabideetara.

Zabaltzenen adingabeen % 7 zeuden 2006an eta % 9 2007an. Kopuru absolututan, bi urte horietan 10 adingabe gehiago iritsi ziren. Geroago ikusiko denez, igoera hori ger-

³⁹ Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaile kopurua oso handia delako.

tatu da Saharaz azpiko Afrikako, eta zehazki Ginea Conakryko Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen etorreragatik (*Ikus 18. taula*). Izan ere, adingabeak, helduak bezalaxe, beren jatorrizko herrialdeko komunitate bat egon litekeen tokira joaten dira.

6. taula

Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileen sarrerak lehen harrerako zentroetan, 2006-07⁴⁰

Zentroak	Urtea			
	2006		2007	
	Kop	(%)	Kop	(%)
Zabaltzen	46	6,9	56	8,6
Zornotza	472	70,6	455	70,1
Tolosa	151	22,6	138	21,3
Oinarria	669	100	649	100

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Landalan Elkarte, 2007. Egileak egina.

Inoren Kargura ez dauden emakumezko Adingabe Migratzaileen hiru harrera-zentroak honako hauek dira: Bosco Etxea Araban, Argileku Bizkaian eta Zikuñaga Gipuzkoan. *Inoren Kargura ez dauden emakumezko Adingabe Migratzaileen sarrerei* dagokienez, kopurua kontuan hartzen badugu, sarrera horiek askoz ere garrantzi txikiagoa dute Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileen aldean. 2006an sei neska sartu ziren Euskal Autonomia Erkidegoan, eta 2007an 14 neska (*Ikus 7. taula*).

Hori gorabehera, zortzi kasuko igoera orokorra garrantzizkoa da, *etorkizuneko joera posible bat ikusten baita*, aztertutako beste Autonomia Erkidego batzuetan egiazta dezake-

⁴⁰ Zabaltzen zentroari buruzko datuak ez datoz bat Arabako Foru Aldundiak emandako datu orokorrek, ezta Herritarren Defendatzaile Arartekoak (Foru Aldundiek ere ematen dituzten datuekin lan egiten duen erakundea) emandakoekin ere. Horretaz gain, Zabaltzenen izandako gizonezkoen sarrera kopuruak 4. taulan azaltzen diren sarrera orokorren kopuruak baino txikiagoa izan beharko luke. Oro har, aldeak oso txikiak dira, eta gure ustez baliteke zenbaketan izandako akatsen batengatik izatea, edota errepikatutako kasuren batengatik (behin baino gehiagotan sar daitezkeen adingabeak baitaude).

gunez. Geroago azalduko dugunez, Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen artean gero eta neska gehiago atzematen dira Espainiako Estatuan, eta, gainera, neska horietako asko arrisku handieneko egoeran eta gizarte-kalteberatasuneko egoeran daude. Izan ere, zenbatutako neskak dira zirkuituan daudenak, baina Araban⁴¹ eta beste Autonomia Erkidego batzuetan (Katalunia, Madril eta Valentiako Erkidegoa) egindako landalanean lortutako informazioa oinarri hartuta egindako hipotesi bat honako hau da: zirkuitutik kanpo dauden neskak ere badaude. Neska adingabe horiek lan- edo ekonomia-arloko baldintza oso txarretan (prostituzioa, etxe-zerbitzua, ebasketa eta lapurreta batez ere) daude askotan.

Bizkaiko Foru Aldundian Inoren Kargura ez dauden emakumezko Adingabe Migratzaileen sarrerren % 29 zeuden 2006an. Baina 2007an, lurralde horretan dago Inoren Kargura ez dauden emakumezko Adingabe Migratzaile kopuru handiena. Urte horretan, Inoren Kargura ez dauden emakumezko Adingabe Migratzaileei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoan izaten diren sarrerren % 79 *Argileku Etxean* sartu ziren, zehazki. Bederatzi kasu gehiago sartu ziren 2007an. Bederatzi kasu ziren, eta horien artetik asko ez ziren zentro horretan geratu, eta sartu eta handik gutxira ihes egin zuten.

2006an, Inoren Kargura ez dauden emakumezko Adingabe Migratzaileen sarrerren % 57 *Zikuñaga* Larrialdietarako Harrera Zentroan (Gipuzkoa) izan ziren. 2007an, zentro horrek berak sarrera horien % 21 hartu zituen. *Arabako Bosco Etxea* nerabeentzako urgentziazko harrera zentroan sarrera bat izan zen 2006an, eta bakar bat ere ez 2007an⁴². Arabako urgentziazko harrera-zentroan eta Gipuzkoako *Zikuñaga* larrialdietarako harrera-zentroan sarrera gutxiago izan dira. Bi kasu horietan, jaitsiera hori kasu bakar batean oinarritzen da.

Ondorengo taulak Inoren Kargura ez dauden emakumezko Adingabe Migratzaileen sarrerei buruz aipatu diren datuak biltzen ditu.

⁴¹ Arabaren kasuan, informazio hori Gizarterako Elkartearen presidenteari egindako elkarrizketaren bitartez lortu zen.

⁴² *Zikuñaga* Larrialdietarako Harrera Zentroa eta *Bosco Etxea* Nerabeentzako Urgentziazko Harrera Etxea zentro mistoak dira Inoren Kargura ez dauden gizonetako nahiz emakumezko Adingabe Migratzaileentzat.

7. taula

Inoren Kargura ez dauden emakumezko Adingabe Migratzaileen sarrerak lehen harrerako zentroetan, 2006-07⁴³

Zentroak	Urtea			
	2006		2007	
	Kop	(%)	Kop	(%)
Bosco Etxea	1	14,3	0	0,0
Hogar Argileku	2	28,6	11	78,6
Zikuñaga	4	57,1	3	21,4
Oinarria	6	100	14	100

Iturria: Arabako Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Argileku Etxea, 2007. Egileak egina.

4.1.2. Euskal Autonomia Erkidegoan hartutako Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileak

Adingabe horien etorrera aztertu ostean, guztizko harrerei dagokienez Aldundi bakoitzaren egoera zein den erakutsi behar da. Sarrera horiei esker jakin dezakegu Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen etorrera zer motatakoa den eta horrek zer ondorio dituen harrera-zirkuituan eta administrazio babesleeta adingabeak babesteko sistemetan. Baina sarrera horiek ez dituzte Euskadiko lurraldeko IKEDAM guztiak ordezkatzten.

Hartutako IKEDAMak urte bereko sarrerak gehi aurreko urteetan iritsi ziren eta oraindik eskumeneko administrazioaren babespean dauden adingabeak dira.

Ondoren egiaztatuko denez, benetako harrerei dagozkien kopuruek aurreko atalean landu ditugun sarreren jarraibideari jarraitzen diote.

2006an eta 2007an, Bizkaia da hartutako IKEDAM gehien duen Foru Aldundia, Euskal Autonomia Erkidegoko harrera guztien % 72 baitzegoen lehenengo urtean, eta % 74 bigarren urtean. Gipuzkoan, 2006an hartutako guztien % 21 zeuden, eta 2007an % 20; Ara-

⁴³ Inoren Kargura ez dauden emakumezko Adingabe Migratzaileen Arabako sarrerak harrera-zentro nagusiaren bitartez zenbatzen dira. Gipuzkoari dagokionez, ulertzen da emakumezko adingabe horiek Zikuñaga zentroan sartzen direla, egindako elkarrizketetan bildutako informazioaren arabera.

ban, aldiz, % 6 2006an nahiz 2007an. Zenbaki absolututan, 2007an, Bizkaian IKEDAM guztietatik 736 hartu ziren, Gipuzkoan 197 eta Araban 64.

Bizkaia asko nabarmentzen da; izan ere, urte bakar batean nabarmen igo zen hartutako adingabeen kopurua. Zehazki, 2007an, Bizkaian 122 harrera gehiago daude, Gipuzkoan, ordea, 17 gehiago daude, eta Araban 10.

Urte bakar batean 122 harrera-plaza gehiago izateak ondorio garbiak ditu adingabeen babes-sisteman. Administrazio-egitura ezaugarri horiek dituen fenomeno batera egokitzeo erritmoak handia eta etengabea izan behar du. Ondorioztatzen den zailtasuna egitura horren antolamendua bera da. Egituraren funtzionamendua malgutasun txikiko prozedura eta protokoloen eraginpean dago tradizionalaki, eta erabaki politikoek mugatutako eta data jakin batzuetan itxitako aurrekontu-partidei oso lotuta. Zorroztasun horrek zaildu egiten du adingabeei erantzun egokia eta behar den garaian eman ahal izatea; izan ere, adingabeak urte osoan zehar iristen dira eta babes-sistemak ezin du aurreikuspen-marjina handirik izan ezta behar diren baliabideak berehala eduki ere. Baldintza horiei egoera horretan modu positiboan edo negatiboan eragin dezaketen beste hainbat gizarte-faktore gehitu behar zaie.

Aurrerago, 8. kapituluaz aztertuko dugu errealitate horrek zer ondorio dituen hiru Foru Aldundietako babes-sistemetako adingabeen zentroetan.

Ondorengo taulan ikusiko da hartutako IKEDAM kopuru handia dagoela Bizkaiko zentroetan.

8. taula

2006. eta 2007. urteetan hartutako Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileak (IKEDAM)

	Urtea			
	2006		2007	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)
Araba	54	6,4	64	6,3
Bizkaia	614	72,4	747	74,1
Gipuzkoa	180	21,2	197	19,5
Guztira	846	100	1.008	100

Iturria: Arabako Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Arartekoaren 2007ko txostena, eta Argileku Etxea, 2007. Egileak egina.

Kontuan izan behar den beste datu bat honako hau da: Euskal Autonomia Erkidegoan hartutako Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen kopurua abenduaren 31n. 2007an ere Bizkaia⁴⁴ nabarmendu zen; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen % 79 zegoen 2007ko abenduaren 31n. Gipuzkoa bigarren postuan zegoen (% 13), eta Araba hirugarren eta azkenean, Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen % 9 baitzegoen data horretan. 2006an, IKEDAM guztien % 84 zeuden Bizkaian, % 12 Gipuzkoan eta % 5 Araban.

Urte batean, beste bi Foru Aldundiekin alderatuta, bere ehunekoa murrizten duen Foru Aldundi bakarra Bizkaikoa da. Baina esanguratsuen urte bakoitzeko abenduaren 31n Foru Aldundi bakoitzeko zentroetan geratzen den IKEDAM bolumena da. Eta datu hori kontuan izanda, Bizkaia adingabe kopuru handiena biltzen duen eskualdea da.

Eta nahiz eta abenduaren 31n dagoen IKEDAM kopurua urte osoan zehar hartutako IKEDAM kopuruarekin alderatuta ikusten bada kopuru hori txikiagoa dela, horrek ez du esan nahi adingabe kopurua jaitsi denik, zeren urteak igaro ahala ikusten baita adingabe horiek etortzen jarraitzen dutela.

9. taula
Hartutako Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileak (IKEDAM),
2006. eta 2007. urteetako abenduaren 31n

	Urtea			
	2006		2007	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)
Araba	16	4,9	37	8,5
Bizkaia	270	83,3	342	79,0
Gipuzkoa	38	11,7	54	12,5
Guztira	324	100	430	100

Iturria: Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Arartekoaren Txostena, 2007. Egileak egina.

⁴⁴ Bizkaian Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileak soilik hartu dira kontuan, Bizkaiko Foru Aldundiak emandako datuetan ez baitira emakumezkoen datuak azaltzen. Datua, gutxi gorabeherakoa bada ere, fidagarria da, iristen diren IKEDAM gehienak gizonezkoak baitira (*Ikus 5. grafikoa*).

4.2. Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen (IKEDAM) fenomenoaren bilakaera

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileek gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan duten egoera aztertu ondoren, fenomenoaren bilakaera ikusiko dugu. Hasieratik aztertzeak ahalbidetzen du ikuspegi osatuagoa izatea adingabe horiek gaur egun duten egoera ulertzeko. Egoera hori aurreko atalean azaldu da.

3. *kapituluan* (Esparru teorikoa) fenomeno horren jatorriak eta bilakaera azaltzen dira. Atal honetan, aldiz, Euskal Autonomia Erkidegoan izandako bilakaera eta bilakaera horrek babes-sistemetan eta adingabeek jasotzen duten arretan izan dituen ondorioak testuinguruan kokatuko dira. Nahiz eta alderdi horiek sakonago landuko diren 8. *kapituluan*, hemen bilakaera horretatik ondorioztatzen diren elementu batzuk azaltzen ahaleginduko gara.

Aldundi bakoitzak bere bilakaera zehatza du iritsitako lehenengo urtearen arabera, eta beste aldagai oso desberdinak ditu; aldagai horiek eragina izan dute Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileek lurralde batera edo bestera joateko hartu behar izan duten erabakian.

Arabari dagokionez, 1997an atzeman ziren lehenengo adingabeak. Zehazki, zortzi kasuk ezartzen dute adingabe horien etorreraren abiapuntua, ondoren, goranzko joera izan da, baina irregular samarra. Hau da, urte batzuetan sarrera kopurua igo egin da, eta beste batzuetan jaitsi. Baina, orokorrean, esan behar da Arabara iristen den IKEDAM kopurua igo egin dela.

1997. urtetik 2001. urtera bitarteko epeari dagokionez, urte horietan sartu ziren IKEDAM guztien % 3-% 5 zeuden, hau da, zortzi-14 adingabe. Gehien nabarmentzen den urtea 1999a da, 14 IKEDAM baitzeuden. 2002. urtetik aurrera, igoera nabarmenagoa izan da. Urte horretan 29 adingabe iritsi ziren, eta urte hori inflexio-puntua izan da Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen kopurua etengabe igo baita, baina 27 adingabe baino gutxiagoko kopurura jaitsi gabe eta 55 adingabe izatera lortu arte 2007an. Urte horretan daude sarrera gehien, fenomeno hasi zenetik egon diren guztien % 20.

Bizkaian, hasiera batean etorrera pixkanakakoagoa izan da. 1996.-2000. urtean batez beste 29 IKEDAM iritsi ziren urte bakoitzean. 2001.-2007. urtean, ordea, batez beste 339 adingabe iritsi ziren. Kopuru hori oso handia da.

10. taula

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen (IKEDAM)
sarrerren bilakaera Araban (1997-2007)⁴⁵

Urtea	Kop.	(%)
1997	8	2,9
1998	9	3,2
1999	14	5,0
2000	9	3,2
2001	12	4,3
2002	29	10,4
2003	42	15,1
2004	33	11,9
2005	27	9,7
2006	40	14,4
2007	55	19,8
Guztira	278	100

Iturria: Arabako Foru Aldundia, 2007. Egileak egina.

Urte guztietan ez da adingabe kopuru bera iritsi Bizkaira, baizik eta sarrera gehiago edo gutxiago izan dira urtearen arabera. *Inflexio-puntu gisa 2001. urtea* nabarmentzen da, urte horretan aurrekoan baino 303 adingabe gehiago iritsi baitziren (1996.-2007. urtean Bizkaira iritsi ziren Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaile guztien % 14 iritsi ziren guztira). Urte horretatik aurrera beste Autonomia Erkidego batzuetako IKEDAMak iritsi ziren, batez ere Kataluniatik eta Madriletik; autonomia horietako babes-sistemak oso beteta zeuden eta erregulazio-prozedurak oso motelak ziren.

Azken urteak dira garrantzizkoenak Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen etorrera kopuruari dagokionez. Bizkaian izandako sarrerren % 37 2006.-2007. urtean gertatu da.

Ondorengo taulan argi eta garbi azaltzen da Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen sarrera kopurua asko igotzen dela 2001. urtetik aurrera.

⁴⁵ Kapitulu honetan ikusiko da litekeena dela datu horiek berak bat ez etortzea beste aldagai batzuk (sexua, adina edo nazionalitatea) azaltzen direnean. Datu guztiak Arabako Foru Aldundikoak dira, aldeak oso txikiak dira eta litekeena da alde horiek adingabeak zenbatzerakoan izandako akatsengatik izatea.

11. taula

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen (IKEDAM)
sarrerren bilakaera Bizkaian (1996-2007)

Urtea	Kop.	(%)
1996	5	0,2
1997	15	0,6
1998	23	0,9
1999	48	1,9
2000	53	2,1
2001	356	14,1
2002	269	10,7
2003	199	7,9
2004	232	9,2
2005	378	15,0
2006	476	18,9
2007	466	18,5
Guztira	2.520	100

Iturria: 2005eko Arartekoak egindako «Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera EAEn» txostena, Bizkaiko Foru Aldundia, Landalan Elkartea eta Argileku Etxea, 2007. Egileak egina.

Gipuzkoan, 1994. urtean atzeman zen Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen lehen kasua, eta hurrengo urtean beste bost kasu gehiago atzeman ziren. Lehenengo adingabeak lurralde horretara iritsi ziren, baina ez ziren bertan geratu. Bere egoera geografikoa dela medio, hots, Frantziarekin muga egiten duelako, Gipuzkoa igarotzeko lekua da, baina denborak aurrera egin ahala, Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileak lurralde horretan ezarriko dira, 8. kapituluan ikusiko denez.

1996. eta 1997. urteetan, kasu gehiago zeuden, 28 eta 79, hurrenez hurren. 1999. urtean igo zen kopurua nabarmen, 138 IKEDAM baitzeuden. (1996. urtetik 2007. urtera bitarte Gipuzkoara irisi ziren IKEDAM guztien % 15)⁴⁶. Ez dago 2000-2002 aldiko daturik. 2003an 112 adingabe sartu ziren (IKEDAM guztien % 12). 2004. urtea kenduta —urte

⁴⁶ 1994. urtetik 2007. urtera bitarte Gipuzkoara iritsi ziren IKEDAM guztiei dagozkien ehunekoak ulertu behar dira 2000. urtetik 2002. urtera bitarte Gipuzkoara iritsi ziren IKEDAMen daturik ez dagoela kontuan hartuta. Hortaz, 1994. urtetik 2007. urtera bitarteko IKEDAM guztiei erreferentzia egiten denean, hiru urte horiek kendu behar dira, urte horiek aldatu egingo lituzkete ehunekoak, baldin eta aldi horretan sartzen diren IKEDAMen kopurua zein den jakingo balitz.

12. taula

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen (IKEDAM)
sarrerren bilakaera Gipuzkoan (2003-2007)

Urtea	Kop.	(%)
1994	1	0,1
1995	5	0,5
1996	17	1,8
1997	28	3,0
1998	79	8,6
1999	138	15,0
2000	—	—
2001	—	—
2002	—	—
2003	112	12,1
2004	99	10,7
2005	134	14,5
2006	153	16,6
2007	156	16,9
Guztira	922	100

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia eta «Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoera EAEn» gaiari buruz egindako Txostenak. Txosten horiek Autonomia Erkidegoek Lan eta Gizarte Gaietako Ministeriora bidali zituzten 2000ko otsailaren 29an bildutako Lan Taldeak erabiltzeko, 2007-08. Egileak egina.

horretan sarrera kopurua % 1 jaitsi zen (26 adingabe gutxiago)—, ondorengo urteetan kopuruek gora egin zuten. 2005. urtean izan zen igoerarik garrantzizkoena, aurreko urtearekin alderatuta % 4 adingabe gehiago iritsi baitziren (35 adingabe gehiago). Urte horretatik aurrera, sarrerak % 2-% 3 igo ziren, 2007. urtean 156 sarrera izan ziren.

Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileen etorrerak Foru Aldundi ba-koitzean izan duen bilakaerari (atal honetan azaldu da) esker, hobeto ulertzen da kolektibo horrek Euskal Autonomia Erkidegoan gaur egun duen egoera, eta, hortaz, 2007an lortu diren kopuruak. Urteak igaro ahala, fenomenoaren hasieratik, erregularitasun gehiagoz edo gutxiagoz, ikusten da *igotzeko joera dagoela*.

Kasu askotan, Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileak beste Autonomia Erkidego batzuetatik igaro ostean iristen ziren Euskal Autonomia Erkidegora, baina pixkanaka-pixkanaka Espainiako Estatura iritsi dira eta lehenik eta behin Euskal

Autonomia Erkidegora iritsi dira, bildutako informazio kualitatiboaren arabera. Fenomenoaren lehenengo urteetan, Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileak Madrilen edo Katalunian kokatzeko asmoz etortzen ziren, Andaluziatik eta Ceutatik igaroz, erkidego horiek igarotzeko Autonomia Erkidegotzat hartuta. Baina beren egoera erregularizatzeko zailtasunak direla medio, Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaile batzuk zentroetatik ihes egiten zuten Euskal Autonomia Erkidegora joateko, Bizkaian lehenago erregularizatuko zirela entzuten zutelako; izan ere, etorreraren lehenengo urteetan halaxe gertatzen zen.

Espainiako Estatuari dagokionez, Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen fenomenoaren bilakaera izan zen 1993. urtetik 2007. urtera bitarte, baina ez dago urte guztietako IKEDAMen daturik. Administrazioek emandako datuak (Autonomia Erkidego gehienei dagozkienak) eta Barne Arazoetako Ministerioak eta Lan eta Inmigrazio Ministerioak⁴⁷ emandako datuak oinarri hartuta, berreraikitze bat egin da.

1993. urtetik 2007. urtera bitarte, IKEDAM gehien jaso zituzten Autonomia Erkidegoak honako hauek dira: Andaluzia (% 32), Valentziako Erkidegoa (% 16), Katalunia (% 14), Euskal Autonomia Erkidegoa (% 9), Kanariak (% 8) eta Madril (% 5)⁴⁸. Baina lehenengo IKEDAMA 1993. urtean nabarmentzen da Extremaduran. 1994. urtean, Valentziako Erkidegoan zegoen adingabe guztien % 61, baina kopuru hori ez da benetakoa, norbaiten kargura dauden adingabe migratzaileak ere sartuta baitaude. Andaluzia nabarmentzen da, hemen ere % 30 baitzeuden. 1995ean, Madril eta Andaluzia, % 49rekin eta % 20rekin, dira gehien nabarmentzen diren Autonomia Erkidegoak.

⁴⁷ Emandako datuek, hasiera batean, Autonomia Erkidegoetako babes-sistemek hartutako Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileak adierazten dituzte, baina hainbat iturri eta informazio alderatu dira, eta zalantzan jartzen da hau beti horrela ote den. Batzuetan sarrerak izan daitezke. Halaber, Barne Arazoetako Ministerioaren eta Lan eta Inmigrazio Ministerioaren datuak eta Autonomia Erkidegoetako urte beretako datuak alderatu dira, eta batzuetan zenbatekoak ez datoz bat. Kasu horietan, erabaki da Autonomia Erkidegoetako datuak erakustea beti, erkidegoak baitira datuak sortzen dituztenak eta Espainiako Gobernura bidaltzen dituztenak.

⁴⁸ Landa-lan kualitatiboa eman ostean ere, Autonomia Erkidego horiek dira garrantzizkoenak IKEDAM kopuruari dagokionez, baina kontuan izan behar da litekeena dela postu horiek dagozkienak ez izatea, Valentziako Erkidegoko eta Madriliko zenbatekoak ez baitira zuzenak. Valentziako Erkidegoari dagokionez, erakusten dituen zenbatekoak benetakoak baino handiagoak dira, 2006. urtean izan ezik, ez baitu bereizketarik egiten norbaiten kargura dauden adingabe migratzaileen eta inoren kargura ez dauden adingabe migratzaileen artean. Eta Madrilak ehuneko handiagoa izan beharko luke, baina ez ditu urte guztietako datuak eman.

1996. urtetik aurrera, handitu egin zen sakabanatzea, baina Madril (% 33) eta Andaluzia (% 27) dira IKEDAM gehien biltzen dituzten Autonomia Erkidegoak. 1997an ez zegoen Madrili buruzko daturik; hortaz, Andaluzia (% 33) eta Katalunia zeuden lehenengo postuetan (% 18).

1998. urtetik 2000. urtera bitarte, Andaluzia zen lehenengo erkidegoa Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen harrerei dagokienez, % 51-% 70 baitira, Madril edo Katalunia bigarren postuan zeuden. 2001. urtetik 2007. urtera bitarte, Andaluzia lehenengo postuan zegoen, eta kasuren batean bigarren postuan (2001ean)⁴⁹. Urte horietan, Andaluziaren ondoren gehien nabarmendu zen Autonomia Erkidegoa Valentziako Erkidegoa da, arestian esanenez, nahiz eta kopuruak oso handiak izan, kopuru horiek ez dira benetakoak norbaiten kargura dauden adingabe atzerritarren kasuak ere biltzen dituelako. Urte horietan, Katalunia nabarmendu zen batez ere 2001ean, 2002an eta 2004an (% 18, % 19 eta % 25, hurrenez hurren). Eta 2004an Euskal Autonomia nabarmendu zen adingabeen % 17rekin.

Katalunian, Balearretan, Galizian, Errioxan eta Madrilen izan ezik, gainerako Autonomia Erkidegoetan zegoen adingabe kopuru handiena 2006. eta 2007. urteetan⁵⁰. Madrilen gauzatu diren aberriratzek (adingabeak beren jatorrizko herrialdeetara bidaltzea) eta Kataluniako itzulerek —agindu, gehienak agindu dira, baina ez dira gauzatu— eragin dute IKEDAM kopurua jaistea Autonomia Erkidego horietan.

Ondorengo taulan ikusiko dugu zein izan den Autonomia Erkidegoetan hartutako adingabeen bilakaera 2001. urtetik 2007. urtera bitarte. Taula horretako informazioa irakurtzerakoan honako hau gogoratu behar da:

- Hainbat urtetako eta zenbait Autonomia Erkidegotako datuak ez dira azaltzen eskuragarri ez daudelako. Marratxo bat azaltzen bada horrek esan nahi du ez dagoela

⁴⁹ 2004an ez zegoen Andaluziari buruzko daturik.

⁵⁰ Kontuan izan behar da Madrilen, Errioxan eta Nafarroan ez dagoela urte guztietako daturik; ez baitira eman. Madrili dagokionez, Madrileko Erkidegoaren Madrileko Adingabearen eta Familiaren Institutuko (IMMF) Haurren zuzendariorde Juan José Blázquez jaunari egindako elkarrizketan adierazi zuen 2000. urtean 108 adingabe zeudela batez beste, 2001ean, 112, 2002an 232, 2003an 150, 2004an 220, 2005ean 258, eta 2006an 204 IKEDAM zeudela batez beste Autonomia Erkidego honetako babes-sisteman. Zenbateko horiek ez dira taulan sartu batez bestekoak direlako.

urte horretako daturik, dagokion Autonomia Erkidegoak ez dituelako eman edo eskumena duen Ministerioak ez dituelako bildu⁵¹.

- Aurkezten diren datuak hartutako adingabeenak dira, baina hainbat iturri alderatu ondoren susmatzen dugu kasu batzuetan datuak sarreretakoak direla.
- Datuak Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileei buruzkoak dira, baina Autonomia Erkidego guztiek ez dute gauza bera hartzen Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileetat, batez ere fenomenoaren hasieran. Hortaz, litekeena da irizpide desberdinak jarraitu izana adingaberen bat zerrendan sartzeko edo ez sartzeko garaian.
- Valentziako Erkidegoko datuak, 2006koak izan ezik, Norbaiten Kargura dauden eta Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileei buruzkoak dira, arestian azaldu dugun.

⁵¹ Txosteneko gainerako tauletan marratxo bat jartzen da 0 kasu aipatzen direnean.

13. taula

Hartutako Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen (IKEDAM) bilakaera Espainiako Estatuan (1993-2007)

	Guztira (%)	Urtea														
		1993 (%)	1994 (%)	1995 (%)	1996 (%)	1997 (%)	1998 (%)	1999 (%)	2000 (%)	2001 (%)	2002 (%)	2003 (%)	2004 (%)	2005 (%)	2006 (%)	2007 (%)
Andaluzia	31,5	0,0	30,1	20,3	26,6	32,6	50,7	52,4	69,8	15,8	20,7	25,9	—	42,7	29,0	22,2
Valentziako																
Erkidegoa	15,5	0,0	61,4	12,3	8,2	9,8	5,4	4,9	8,1	18,3	17,7	15,6	48,2	23,3	5,6	21,1
Katalunia	13,5	0,0	0,0	0,0	3,3	17,9	13,1	11,8	14,6	18,2	18,9	11,5	24,5	15,5	10,1	9,1
Euskal	8,9	0,0	1,2	1,4	1,7	4,3	4,0	5,4	1,6	12,1	12,8	5,6	16,9	12,5	11,2	10,5
Autonomia																
Erkidegoa	7,6	0,0	0,0	1,2	0,9	1,4	1,8	7,1	3,7	7,2	10,7	9,4	—	—	15,9	11,3
Kanariak	5,3	0,0	0,0	49,2	32,9	—	4,6	11,6	—	7,5	3,7	12,0	—	—	—	0,2
Madril	3,1	0,0	0,0	0,0	1,2	3,7	1,6	0,0	—	0,3	3,9	4,9	—	—	7,5	6,3
Ceuta	3,0	0,0	0,0	0,0	1,1	0,3	—	4,5	—	6,1	2,9	5,9	—	—	4,5	4,0
Melilla																
Gaztela eta																
Leon	2,7	0,0	0,0	3,1	7,9	10,4	1,4	2,0	2,3	2,1	1,9	1,5	3,6	1,9	3,8	3,1
Murtzia	2,4	0,0	0,0	0,0	1,7	6,9	5,5	3,3	—	2,5	1,6	1,3	2,6	2,2	1,5	4,7
Gaztela-Mantxa	1,8	0,0	0,0	0,5	2,2	3,8	2,6	—	—	2,5	2,0	3,6	—	—	2,9	1,9
Galizia	1,2	0,0	0,0	4,6	2,4	3,7	1,3	—	—	3,6	0,6	0,2	1,4	1,1	1,2	1,3
Aragoia	1,0	0,0	0,0	0,5	1,3	2,2	1,1	1,6	0,0	0,2	0,3	0,5	2,7	1,1	1,6	1,8
Kantabria	0,7	0,0	0,0	0,2	1,8	0,7	0,2	—	—	0,3	1,0	0,9	—	—	1,8	0,7
Extremadura	0,5	100,0	2,4	2,8	5,1	0,0	0,3	—	—	0,8	0,2	0,4	—	—	1,1	0,4
Balearrak	0,5	0,0	0,0	0,0	1,6	2,0	1,0	—	—	2,1	0,4	0,3	—	—	0,6	0,4
Asturias	0,5	0,0	0,0	2,2	0,3	—	0,1	—	—	0,0	0,4	0,3	—	—	1,7	1,0
Errioxa	0,2	0,0	4,8	0,8	0,8	0,7	0,3	—	—	0,5	0,3	0,2	—	—	0,1	0,1
Nafarroa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,5	0,0	—	0,0	0,0	0,0	—	—	—	—
Oinarria	48,442	1	83	650	1.260	1.006	2.759	3.457	3.820	4.175	6.034	6.303	2.151	4.303	5.965	6.475

Iturria: 1993tik 1999ra: Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, «Bakarrik dauden administrazio txiki bakoitzaren egoerari» buruzko txostenak, Autonomia Erkidegoek Lan eta Gizarte Galetako Ministeriora bidali dizkietenak 2000ko otsailaren 29an bildutako Lan Taldearentzat, Gaztela eta Leongo Junta, Valentziako Generalitatea eta Aragoiko Gobernua. *2000tik 2007ra:* Melillako Hiri Autonomoa, Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Kataluniako Generalitatea, Valentziako Generalitatea, Aragoiko Gobernua, Gaztela eta Leongo Junta, Gaztela-Mantxako Erkidegoen Junta, Andaluziako Junta, Barne Arazoetako Ministerioa, Lan eta Immigrazio Ministerioa, Murtziako Eskualdea, Galiziako Xunta eta Valentziako Erkidegoen proiektuaren ikerketa-taldeak Erkidegoen Lehen Harreko Zentroetako espedienteetan egindako hustuketa, 2000 eta 2007-08. Egileak egin.

4.3. Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen (IKEDAM) ezaugarriak

Nahitaezkoa da jakitea Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileek zer ezaugarri demografiko dituzten kolektiboari buruzko informazio gehiago eman ahal izateko. Ezaugarri horiek Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen profilari buruzko jakintza ematen dute eta esku-hartzea hobeto bidera dezakete.

Europako beste herrialde batzuetan gertatzen den bezala, Espainiako Estatuan joera berriak nabarmentzen hasi dira sexuan, adinean eta nazionalitatean aldaketak egin ostean. *Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaile neska eta gazteen kasu kopurua igo egin da, badirudi adina jaitsi egin dela, eta jatorrizko herrialdeen aniztasuna handiago da.* Migrazio-jarraibideak aldatu egin dira eta horrek guztiak harrera-gizarteei eragiten die, eta, zehazki, babes-sistemei errealitate berrietara egokitu behar baitute.

Ondorengo ataletan, iristen diren Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaile gehienen profilak sortu nahi dira sexuaren, adinaren edo nazionalitatearen bitartez; horretaz gain, egiaztatu nahi da zer intzidentziarekin agertzen diren joera berriak Euskal Autonomia Erkidegoan.

4.3.1. Sexua

Nahiz eta oraindik Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileek osatzen duten gehiengoa, ikusten da Inoren Kargura ez dauden neska eta gazte Adingabe Migratzaileen kasu kopurua igo egin dela. Ikusiko den bezala kasu gutxi dira, baina garrantzizkoak dira atxikitako ezaugarriengatik.

Arestian esan denez, gizarte-arriskuari dagokionez (etxeko lana, sexu-lana, ebasketak eta lapurretak) Inoren Kargura ez dauden neska Adingabe Migratzaileen egoerak larriagoak eta kalteberagoak dira normalean. Egoera horiek marjinalitate-testuinguruetan gertatzen dira; horren ondorioz, neska horiek guztiz ikusezinak dira gizartearentzat. Hortaz, babes-zirkuitutik kanpo dauden adingabeak dira, eta administrazio babesleak nekez atzeman ditzake, Euskal Autonomia Erkidegoan, Katalunian⁵², Valentziako Erkidegoan eta Madrilen

⁵² QUIROGA, V.; BERGA, A.; ALONSO, A.; SÒRIA, M. (2007). *Nenes i adolescents invisibles a Catalunya. Les menors migrants no acompanyades des d'una perspectiva de gènere*. Institut Català de les Dones, BarCELONA.


egindako landa-lanean egiaztatu ahal izan dugunez. Daukan garrantzia eman behar zaio, kasuak hobeto atzemateko.

Inoren Kargura ez dauden emakumezko Adingabe Migratzaileen kopurua datuetan azaltzen den kopurua baino handiagoa izango da segur asko, baina hala eta guztiz ere Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileena baino askoz txikiagoa da.

Ondorengo grafikoan Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileek Euskal Autonomia Erkidegoan izan duten hazkunde gutxi-asko erregularra ikusiko da. Aitzitik, Inoren Kargura ez dauden emakumezko Adingabe Migratzaileei dagokienez, horien hazkundea ez da hain erregularra izan, bereziki 2002an (urte horretan jaitsiera egon zen), eta 2006an eta 2007an (urte horietan kopuruak ez ziren hain handiak). Hala-ber, garrantzizkoa da nabarmentzea 1996. urtetik 2007. urtera bitarte Euskal Autonomia Erkidegora iritsi ziren Inoren Kargura ez dauden emakumezko Adingabe Migratzaileen % 17 2007an iritsi zela. 2005ean ehunekoa handiagoa izan bazen ere (% 22) eta mailak Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileen datuekin alderatu ezin bada ere, badirudi maila horiek eusteko edo igotzeko joera izan zutela.

3. grafikoa

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen (IKEDAM) bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren arabera (1996-2007)




Iturria: Arabako Foru Aldundia, 2007. Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Argileku Etxea, 1997. Egileak egina.

Zehazki, sexua kontuan hartuta fenomenoak izan duen bilakaera eta Foru Aldundien arabera ondoren aztertuko da.

Arabán, Inoren Kargura ez dauden neska eta gazte Adingabe Migratzaileen lehenengo bi kasuak 1999an atzeman ziren. Urte horretatik aurrera, Inoren Kargura ez dauden emakumezko Adingabe Migratzaileen sarrera gehiago izan dira, baina kopuruak ez dira oso handiak. 2003. urtea nabarmendu zen lau kasu zeudelako. Kasu horiek, grafikoan egiazta daitekeenez, harrera-zirkuituan sartu ziren neska eta gazte guztien % 17 ziren. 2005ean, ez zen kasu bakar bat ere atzeman, 2006an bi adingabe sartu ziren eta 2007an berriro ere ez zen kasu bakar bat ere izan.

4. grafikoa

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen (IKEDAM)
sarreraren bilakaera Araban, sexuaren arabera (1997-2007)



Iturria: Arabako Foru Aldundia, 2007. Egileak egina.


Bizkaian, Inoren Kargura ez dauden emakumezko Adingabe Migratzaileen kopurua Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileena baino askoz txikiagoa da, baina nabarmentzen da kuantitate-mailan gainerako Foru Aldundietan baino gehiago direlako, Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileen kasuan, esaterako.

Fenomenoaren hasieran, 1996an, ez zen Inoren Kargura ez dauden neska Adingabe Migratzaileen sarrera bakar bat ere izan Bizkaian. 2000. urtean izan zen lehenengo kasua, 2001ean, aldiz, zazpi; 1996. urtetik 2007. urtera bitarte Bizkaiko babes-sisteman sartu ziren Inoren Kargura ez dauden emakumezko Adingabe Migratzaileen % 15, alegia.

Ondoren, 2005. urtera bitarte, jaitsi egin zen Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen sarrera kopurua, Bizkaian 13 neska atzeman ziren, 1996. urtetik 2007. ur.

5. grafikoa

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen (IKEDAM) bilakaera Bizkaian, sexuaren arabera (1996-2007)




Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia eta Argileku Etxea, 2007. Egileak egina.

tera bitarte zeuden Inoren Kargura ez dauden emakumezko Adingabe Migratzaile guztien % 28. 2006. urtean, ordea, soilik bi kasu sartu ziren, eta 2007an 11.

Fenomenoa 2003. urtea baino lehenagokoa den arren, Gipuzkoari buruz dauzkagun datuak urte horretatik aurrerakoak dira. Emakumezko adingabe kopurua ez da handia. 2004. urtea nabarmendu zen batez ere, urte horretan zazpi neska sartu baitziren hau da,

6. grafikoa

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen (IKEDAM) bilakaera Gipuzkoan, sexuaren arabera (2003-2007)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2007. Egileak egina.

babes-sistemak 2003. urtetik 2007. urtera bitarte Gipuzkoan atzeman zituen Inoren Kargura ez dauden emakumezko Adingabe Migratzaile guztien % 35. Urte horretan, Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen kopurua igo egin zen, mutil kopurua, ordea, jaitsi egin zen, baina mutilak dira oraindik ere gehiengoa.

2005. urtetik aurrera, Inoren Kargura ez dauden neska eta gazte Adingabe Migratzaileen sarrera kopurua jaitsi egin zen; izan ere, 2006an lau kasu zeuden eta 2007an hiru.

Inoren Kargura ez dauden emakumezko Adingabe Migratzaileen sarrera kopurua Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileen sarrera kopurua baino askoz txikiagoa da, baina urte batzuetan emakumezkoen kolektiboa gizonezkoena baino gehiago hazi da, zenbaki erlatibotan. Horretaz gain, Foru Aldundi bakoitzean sexuaren arabera izandako sarreraren bilakaerari buruzko aurreko grafikoak aztertu ondoren esan daiteke hazkunde-linea irregularragoa dagoela nesken kasuan.

4.3.2. Adina

Adina kontuan hartu behar den beste alderdi garrantzitsu bat da Euskal Autonomia Erkidegora iristen diren Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen kolektiboaren profila egiterakoan. Sexuaren aldagaiaren kasuan bezalaxe, hemen ere ikusten da Inoren Kargura ez dauden emakumezko Adingabe Migratzaileen eta Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileen jokabidea desberdina dela, iristen diren adingabeak gero eta gazteagoak baitira.

Adina zuzenean aurkeztuko da Foru Aldundien arabera, eta ez da erakutsiko Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen egoera orokorra Inoren Kargura ez dauden emakumezko eta gizonezko Adingabe Migratzaileen ezaugarri horri dagokionez, zeren datuak modu desberdinetan eman direnez gero, zaildu egiten baitute konparazioa egitea. Halaber, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko datuek gizonezko adingabeak eta emakumezko adingabeak hartzen dituzte kontuan.

2007an, *Arabán*, Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen sarreraren % 51k 17 urte zituen, % 19k 16, eta gainerako % 19ari dagokionez, ez dakigu zer adinetakoak ziren. Hortaz, gehiengoak 16-17 urte zituzten. 15 urte dituzten bi kasu zeuden (sarrera guztien % 3). Halaber, nabarmendu behar da Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen % 9k 18 urte zituela. 18 urteko emakumezko eta gizonezko gazteak ere kontuan hartu dira, zentroetan sartu zirenean ez genekielako adin nagusikoak zirela.

2007an, *Gipuzkoan*, Inoren Kargura ez dauden emakumezko eta gizonezko Adingabe Migratzaileen adinak desberdinagoak ziren. % 30ek 17 urte zituen, % 22k 15, eta % 21ek 16. Halaber, aipatu behar da % 12k 14 urte zituela, % 8k 13, eta % 4k 12 urte baino gutxiago. Termino absolututan horrek esan nahi du 2007an 14 urteko 18 adingabe sartu zirela, 13 urteko 12 eta 12 urteko sei. Adina jaitsi izana bat dator elkarriketatutako teknikariek esandakoarekin, 8. kapituluan ikus daitekeenez.

Bizkaian, adina ere dibertsifikatuago dago. Horregatik, Inoren Kargura ez dauden neska eta mutil Adingabe Migratzaileek abenduaren 31n zuten adina Aldundi hau kontuan hartuta aurkeztu da horiek direlako eskuragarri dauden datuak. Datu horiek ezin dira Gipuzkoako eta Arabako datuekin alderatu, eta Bizkaiko errealitatearekiko hurbilketa besterik ez dira (fenomenoa une jakin batean erakusten baitu).

2007ko abenduaren 31n, Bizkaian hartutako IKEDAM gehienek 17 urte (% 33), 16 urte (% 36) eta 15 urte (% 19) zituzten. Ikusten denez, joera orokorra errepikatzen da lurralde honetan ere. Halaber, nabarmentzekoa da Inoren Kargura ez dauden 14 urteko Adingabe Migratzaileak guztizkoaren % 6 zirela, eta 13 urtekoak % 4. Termino absolututan, Inoren Kargura ez dauden 14 urteko 26 Adingabe Migratzaile zeuden, eta 13 urteko 17. Horretaz gain, 12 urteko lau adingabe zeuden (% 1) eta 11 urteko hiru (%1).

14. taula

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen (IKEDAM) sarrerak adinaren arabera, Araban eta Gipuzkoan 2007an, eta Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileak adinaren arabera Bizkaian, 07-12-31n

Adina	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)	Kop.	(%)
11 urte	—	—	—	—	3	0,7
12 urte	—	—	6	3,8	4	0,9
13 urte	—	—	12	7,7	17	3,7
14 urte	—	—	18	11,5	26	5,7
15 urte	2	3,1	35	22,4	88	19,2
16 urte	12	18,5	32	20,5	165	36,0
17 urte	33	50,8	47	30,1	149	32,5
Adin-nagusitasuna	6	9,2	6	3,8	5	1,1
Ezezaguna	12	18,5	—	—	1	0,2
Guztira	65	100,0	156	100,0	458	100,0

Iturria: Arabako Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia, 2007. Egileak egina.

Oro har, Arabari dagokionez, IKEDAMen sarreren % 69k 16-17 urte zituen. Bizkaiari dagokionez, IKEDAMen % 69k ere 16-17 urte zituen 2007ko abenduaren 31n. Aitzitik, Gipuzkoan, adin-tarte horri dagokion ehunekoa jaitsi egin zen % 51 izatera iritsi arte.

Gipuzkoa da 12-15 urteko IKEDAM kopuru handiena zuen lurraldea (% 45).

4.3.2.1. Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen fenomenoaren bilakaera jatorriaren arabera

Jarraian, sarreren bilakaera aurkeztuko da, *adin-taldean arabera*. Bizkaiaren kasuan, Inoren Kargura ez dauden emakumezko Adingabe Migratzaileen sarreren bilakaera soilik aurkeztuko da, ez dagoelako Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileen daturik.

Arabak ez dago adin-talde bakoitzaren bilakaera argi eta erregularrik. 16-18 urte dituzten IKEDAMak guztizkoaren % 88 ziren 1997an. 2007an, aldiz, % 69. Bi urte horietan aldaketa asko daude. 1998., 1999. eta 2001. urteetan zegoen 13-15 urteko IKEDAMen sarreren ehunekoa handiena (1998an, IKEDAMen % 44k 13-15 zituen, 199an, % 21, eta 2001ean, % 20).

*Bizkai*an, Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen bilakaera aztertze hainbat iturri erabili dira. Horregatik, 1997. urtetik 2005. urtera bitarte⁵³ Zabaloetxe Zen-

15. taula
Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen (IKEDAM)
sarreren bilakaera Araban, adin-taldean arabera (1997-2007)

Adin-taldeak	Guztira (%)	Urtea										
		1997 (%)	1998 (%)	1999 (%)	2000 (%)	2001 (%)	2002 (%)	2003 (%)	2004 (%)	2005 (%)	2006 (%)	2007 (%)
13-15 urte	5,9	—	44,4	21,4	—	20,0	3,4	—	6,1	3,7	4,5	3,1
16-18 urte	72,1	87,5	55,6	57,1	88,9	60,0	93,1	81,0	66,7	55,6	72,7	69,2
Adin-nagusitasuna	9,0	—	—	0,0	11,1	10,0	—	2,4	6,1	18,5	22,7	9,2
Ezezaguna	13,1	12,5	—	21,4	—	10,0	3,4	16,7	21,2	22,2	—	18,5
Guztira	290	8	9	14	9	10	29	42	33	27	44	65

Iturria: Arabako Foru Aldundia, 2007. Egileak egina.

⁵³ 2005eko urritik aurrera, Berriz zen Lehen Harrerako Zentroa, baina eskuragarri dauden datuak Zabaloetxe Zentroan urte osoan izandako harrerak dira. Datuak ezin dira banakatu ezta batukaririk egin ere; hortaz, 2005eko kopurua eta ehunekoa gutxi gorabeherakoak dira.

troan⁵⁴ izandako IKEDAMen harrerak aurkeztu dira, Bizkaiko Lehen Harrerako Zentroa delako, 2006ko IKEDAMen sarrerak, Zornotza zentrokoak, 2006tik aurrera Bizkaiko Lehen Harrerako Zentroa delako, eta 2007ko abenduaren 31n Bizkaian dauden IKEDAMak. Datu-aniztasun horren ondorioz, datu horiek azterlanaren xede den errealtatearekiko hurbilpen gisa hartu behar dira⁵⁵.

Urte gehienetan, ehunekorik handienak 16-17 urteko adin-tartean daude. Lehenengo bi urteetan (1996 eta 1997) ehunekoak handiagoak ziren 12-13 urteko adin-tarteetan (% 40) eta 14-15 urtekoetan (% 40). 1999an, Inoren Kargura ez dauden gizonezko eta emakumezko Adingabe Migratzaileen % 57k 14-15 urte zituen. 2003.-2006. urtean, 16-17 urteko adin-tarteak ehuneko handiagoak zituen, % 80tik hasita % 77raino, jaisteko joera oso txikia izanik. 2007an, IKEDAMen % 70ek 16-17 urte zituen abenduaren 31n, Bizkaian.

16. taula

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen (IKEDAM) harreraren (1996-2005), sarreraren (2006) eta 07-12-31ra bitarteko harreraren bilakaera Bizkaian, adin-taldean arabera

Adin-taldeak	Guztira (%)	Urteak											
		1996 (%)	1997 (%)	1998 (%)	1999 (%)	2000 (%)	2001 (%)	2002 (%)	2003 (%)	2004 (%)	2005 (%)	2006 (%)	2007 (%)
11 urte	0,5	20,0	8,3	0,0	3,3	0,0	0,6	0,0	1,0	0,0	0,0	0,0	0,7
12-13 urte	3,5	40,0	16,7	0,0	3,3	6,9	3,7	0,0	2,1	4,8	5,1	1,9	4,6
14-15 urte	22,8	40,0	50,0	39,1	56,7	34,5	21,1	33,9	16,7	10,5	15,9	19,3	25,2
16-17 urte	72,3	0,0	25,0	60,9	36,7	58,6	72,7	66,1	80,2	84,8	79,0	76,5	69,3
Ezezaguna	0,9	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	1,9	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,2
Guztira	1.598	5	12	23	30	29	161	121	96	105	138	425	453

Iturria: Landalan Elkartea, Argileku Etxea, «Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren egoerari» buruzko Txostenak, Autonomia Erkidegoek Lan eta Gizarte Gaietako Ministeriora bidali dizkietenak 2000ko otsailaren 29an bildutako Lan Taldearentzat, Zabaloetxe Zentroaren 2007ko memoria, 2000-07-08. Egileak egina.

⁵⁴ Zabaloetxe Zentroko datuak harrerei buruzkoak dira, baina batzuetan, kontsultatutako dokumentuetan sarrerei buruz hitz egiten da; hortaz, litekeena da benetan sarrerak izatea (16. taulan azaltzen diren datuak alderatuta ikusten da hori).

⁵⁵ Guztizko datuak ere hurbilketa gisa hartu behar dira, hainbat iturritatik eratorritako datuen batukaririk sortzen direlako.

17. taula

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen (IKEDAM) sarrerren bilakaera Gipuzkoan, adin-taldean arabera (2004-2007)

Adin-taldeak	Guztira (%)	Urteak			
		2004 (%)	2005 (%)	2006 (%)	2007 (%)
7-9 urte	0,2	—	0,7	—	—
10-12 urte	2,8	1,0	3,7	2,0	3,8
13-15 urte	31,2	13,5	24,6	37,3	41,7
16-18 urte	61,8	69,8	68,7	58,8	53,8
Adin-nagusitasuna	2,6	11,5	0,7	0,7	0,6
Ezezaguna	1,5	4,2	1,5	1,3	—
Guztira	539	96	134	153	156

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2007. Egileak egina.

Gipuzkoan, argi eta garbi eta etengabe hazi da 13-15 urteko adin-tartea. 2003an, IKEDAMen sarrerren % 14k 13-15 zituen, eta 2007an, adin-tarte hori bera IKEDAMen sarrera guztien % 42 zen.

10-12 urteko adin-tarteak ez du etengabeko hazkunde-bilakaerarik, baina 2003an, bilakaera hori sarrera guztien % 1 zen (kasu bat), eta 2007an, % 4 zen (sei kasu). Oro har, 13-15 urteko adingabe kopurua hazi zenez gero, 16 urte ez dituzten eta Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen kopuruari dagokionez hazkundera izan zen, Gipuzkoako Haur Atalaren Zuzendaritzak adierazi duenaren arabera.

4.3.3. Nazionalitatea

Kontuan izan behar den beste alderdi bat nazionalitatea da. Ildo horretan ere izan dira aldaketak, eta Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen jatorriak dibertsifikatu dira; horren ondorioz, Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen profil berriak daude zentroetan.

Lehenik eta behin, Foru Aldundi bakoitzeko Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileen zentroetan dauden nazionalitate desberdinak aztertu dira; izan ere,

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen ia kolektibo osoa sartzeko bideak dira. Baina aurretik grafiko orokor bat erakutsiko da. Grafiko horretan ikusten da marokoar jatorrizko Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen ehunekoa handia zela Euskal Autonomia Erkidegoan (aipatutako dibertsifikazioa gorabehera).

Araba nabarmentzen da joera orokorarekin eta Bizkaiko eta Gipuzkoako joerarekin alderatuta, joera oso desberdina izan duelako. *Gainerako Aldundiek ez bezala, Aldundi horrek IKEDAM gehiago dauzka Saharaz azpiko Afrikatik etorriak (% 52) Marokotik etorriak baino (% 47).*


2007an, *Zabaltzenen* (Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileen Arabako lehen harrerako zentroa) ikusten da zentro horretan sartu ziren adingabeen % 32 Ginea Conakrykoak zirela, eta % 30 Marokokoak. Bi jatorri nagusien artean dagoen alde oso txikia da, kasu bat soilik. Araban sartu ziren Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileen sarreraren 56tik, 18 adingabe Ginea Conakrykoak ziren eta 17 Marokokoak.

% 14 Aljeriakoa zen, % 9 Gambiakoa eta % 5 Angolakoa. Gainerako jatorrien ehunekoak txikiak ziren. Hauexek dira: Mali (% 4), Sahara (% 2), Benin (% 2) eta Errumania (% 2).

Araba jatorrien dibertsifikazioaren adibide da. Marokokoak soilik % 30 ziren, hori datu aipagarria da normalean herrialde horretatik etortzen baitziren adingabe gehienak Inoren

7. grafikoa


Inoren Kargura ez dauden Agindabe Migratzaileen (IKEDAM) sarrerak Euskal Autonomia Erkidegoko lehen harrerako zentro nagusietan, jatorrizko herrialdearen arabera, 2007



Iturria: Landalan Elkarte, Arabako Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia, 2007. Egileak egina.

8. grafikoa

Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileen (IKEDAM) sarrerak Zabaltzen lehen harrerako zentroan, jatorrizko herrialdearen arabera, 2007



Iturria: Arabako Foru Aldundia, 2007. Egileak egina.

Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileen % 85 baino gehiago horkoa baitzen. Orokorrean, Magreb ingurukoa zen Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileen sarreraren % 39.

Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileentzako *Zornotzako (Bizkaia)* Lehen Harrerako Zentroan izandako sarrera gehienak Marokokoak ziren (% 88). % 12 beste herrialde batzuetakoa zen.

18. taula


Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileen (IKEDAM) sarrerak Zabaltzen lehen harrerako zentroan, jatorrizko herrialdearen arabera, 2007

	Kop.	(%)
Maroko	17	30,4
Guinea Conakry	18	32,1
Aljeria	8	14,3
Gambia	5	8,9
Angola	3	5,4
Mali	2	3,6
Benin	1	1,8
Errumania	1	1,8
Sahara	1	1,8
Guztira	56	100

Iturria: Arabako Foru Aldundia, 2007. Egileak egina.

9. grafikoa

Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileen (IKEDAM) sarrerak Zornotzako lehen harrerako zentroan, jatorrizko herrialdearen arabera, 2007



Iturria: Landalan Elkartea, 2007. Egileak egina.

Arestian esan denez, Marokotik etorritako adingabeak ez ziren herrialdearen iparraldek soilik etortzen, baita hegoaldetik ere. Eta, hortaz, adingabearen profila ere aldatu egin zen, Gipuzkoako kasuan aipatzen zenez.

19. taula

Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileen (IKEDAM) sarrerak Zornotzako lehen harrerako zentroan, jatorrizko herrialdearen arabera, 2007

	Kop.	(%)
Maroko	401	88,1
Errumania	16	3,5
Aljeria	13	2,9
Ghana	11	2,4
Senegal	5	1,1
Palestina	2	0,4
Mali	1	0,2
Txina	1	0,2
Bolivia	1	0,2
Pakistan	1	0,2
Kamerun	1	0,2
Ekvador	1	0,2
Espainia	1	0,2
Guztira	455	100

Iturria: Landalan Elkartea, 2007. Egileak egina.

Jatorrizko gainerako herrialdeen artetik, Errumania nabarmentzen da, sarrera guztien % 4 herrialde horretakoak baitziren, ondoren Aljeria zegoen (% 3), Ghana (% 2), eta, azkenik Senegal (% 1). Zenbaki absolututan, Errumaniakoak 16 kasu zeuden, Aljeriakoak 13, Ghanakoak 11 eta Senegalekoak bost.

Pakistan, Txina, Palestina edo Bolivia dira gainerako jatorrizko herrialdeak, baina ordezkaritza oso txikia zuten % 1etik beherakoa baitzen.


Zenbaki absolututan, bi kasutik kasu batera bitartekoak ziren jatorri horietako bat zutenak (*Ikus 9. taula*).

Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileentzako *Tolosako (Gipuzkoa)* Lehen Harrerako Zentroak Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileek Espainiako Estatuan zuten fenomenoaren joera orokorrari jarraitu zion, sarrera gehien-gehienak (% 91) Marokokoak baitziren. Soilik % 9 zen beste jatorri batzuetakoa, 20. taulan ikus daitekeenez; eta jatorri horien artetik garrantzitsuena Aljeria zen, Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileen sarreraren % 3 hangoak baitziren. % 3 hori sei kasu ziren zenbaki absolututan.

Jatorrizko gainerako herrialdeak sarreraren % 1 ziren, hots, bat edo bi kasu. Herrialde horiek honako hauek dira: Aljeria, Frantzia, Palestina, Sahara, Brasil, Gambia eta Errumania (*Ikus 20. taula*).

10. grafikoa

Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileen (IKEDAM) sarrerak Tolosako lehen harrerako zentroan, jatorrizko herrialdearen arabera, 2007



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2007. Egileak egina.

20. taula

Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileen (IKEDAM)
sarrerak Tolosan, jatorrizko herrialdearen arabera, 2007

	Kop.	(%)
Maroko	124	91,0
Aljeria	6	3,4
Francia	2	1,1
Palestina	2	1,1
Sahara	1	1,1
Brasil	1	0,6
Gambia	1	0,6
Errumania	1	0,6
Guztira	138	100,0

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2007. Egileak egina.


Maila kualitatiboan, funtsezko informatzaileei egindako elkarrizketen bitartez, gainerako Foru Aldundietan bezalaxe, Gipuzkoan ere atzeman zen Marokotik etorritako adingabeak orain dela urte batzuetan etortzen ziren tokiez gain, beste toki batzuetatik etortzen zirela. Orain ez baitira Marokoko iparraldetik soilik etortzen, hegoaldetik ere etortzen dira. Eta hegoaldetik etortzen diren Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileek profil desberdina dute, eta, hortaz, esku-hartze desberdina behar dute babes-sistemako zentroetan.

Inoren Kargura ez dauden emakumezko Adingabe Migratzaileen jatorrizko herrialdeei dagokienez, Bizkaiko Argileku Etxea harrera-zentroari buruzko datuak soilik erakusten dira, zeren Araban ez baitzen sarrera bakar bat ere izan 2007an, eta Gipuzkoan hiru kasu izan ziren, baina ez dago horien jatorriari buruzko daturik.

Bizkaian, 2007an, Inoren Kargura ez dauden emakumezko Adingabe Migratzaileen sarrera guztien % 55 Errumaniakoa zen. % 19 Marokotik etorri ziren, eta % 9 Kamerunetik, Iranetik eta Kongoko Errepublika Demokratikotik, hurrenez hurren. Termino absolututan, 2007an sartu ziren 11 emakumezko adingabeen artetik, sei Errumaniakoak ziren, eta bi Marokokoak. Gainerako jatorrizko herrialdeei dagokienez, ez zegoen kasu bakar bat ere.

11. grafikoa

Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileen (IKEDAM) sarrerak Argileku Etxea lehen harrerako zentroan, jatorrizko herrialdearen arabera, 2007



Iturria: Argileku Etxea, 2007. Egileak egina.

Ez dago Inoren Kargura ez dauden emakumezkoen sarrera askorik, baina Errumaniako sei kasuak aipatu behar dira. Jatorri hori duten emakumezko adingabe horiek lapurretekin, ebasketetik edo prostituzioarekin lotzen dira, landa-lan kualitatiboaren bitartez, eta zehazki funtsezko informatzaileei egindako elkarrizketen bitartez, eta aztertu diren beste Autonomia Erkidego batzuetan ere (Katalunia eta Valentziako Erkidegoa) egiaztatu denaren arabera. Hemen «laguntza txarra duten» emakumezko adingabeak sartuta daude, Esparru Teorikoko 3. kapituluan azaldu denez. Emakumezko adingabe horiek Errumaniako jatorria dute batez ere, baina nahiz eta heldu baten kargura egon zalantzan jartzen da laguntza mota hori. Adingabe horiek ez dute denbora asko ematen zentroan, iritsi eta handik ordu batzuetara ihes egiten baitute.

21. taula

Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileen (IKEDAM) sarrerak Argileku Etxea lehen harrerako zentroan, jatorrizko herrialdearen arabera, 2007

	Kop.	(%)
Errumania	6	54,5
Maroko	2	18,2
Kamerun	1	9,1
Irán	1	9,1
Kongoko Errep. Dem.	1	9,1
Guztira	11	100

Iturria: Argileku Etxea, 2007. Egileak egina.

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileek jatorrizko herrialdea kontuan hartuta 2007an duten profila aztertu ondoren, jatorri horiek izan duten bilakaera aztertuko da fenomenoak iraun duen urteetan jatorri horiek Euskal Autonomia Erkidegoan aldatu ote diren egiaztatzeko.

4.3.3.1. Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen fenomenoaren bilakaera jatorriaren arabera

Fenomenoren bilakaera aztertzeko jatorria kontuan hartuta, urteetan zehar Euskal Autonomia Erkidegoan sartu diren Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen jatorrizko herrialde nagusiak hartu dira erreferentzia gisa.

Arabari dagokionez, argi eta garbi ikusten da Marokotik etorritako Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen sarrera kopurua jaitsi egin dela. 1997an, zentroetan sartu ziren Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen % 86 Marokokoak ziren. Hainbat urtetan, 1999an eta 2000n, esaterako, zentroetan sartu zirenen % 100 herrialde horretakoak ziren.

2001. urtea da Inoren Kargura ez dauden Marokoko Adingabe Migratzaileen sarrearen ehunekoak nabarmen jaisten den lehenengo urtea, % 42rekin. Urte horretan bertan Kamerun nabarmendu zen, % 33rekin. Urte horretatik aurrera, ehuneko hori % 69ra arte igo zen 2002an, baina ondorengo urteetan ez zen % 54tik gora igo, eta 2007an sarrera guztien % 26 ziren.

2001. urtetik aurrera ikusten da jatorrien dibertsifikazioa izan dela. Pixkanaka-pixkanaka, gainerako herrialdeak garrantzi handiagoa hartu dute, nahiz eta modu egonkorrean ez izan. Ginea Conakry hazkunde erregularrena duen herrialde gisa nabarmendu da, 2007an Maroko gainditu zuen % 42rekin.

Aipatu behar den beste herrialde bat Sahara da. Urte batzuetan, 2003an eta 2005ean, Saharak nolabaiteko garrantzia izan zuen, sarrearen % 16rekin eta % 19rekin, hurrenez hurren. Baina orokorrean datuek erakusten dute Saharaz azpiko Afrikako Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen presentzia nabarmen igo egin zela, baina ez modu egonkorrean.

Gainerako jatorriak igo eta jaitsi egin ziren urtearen arabera, jarraibide garbirik izan gabe. 2003an eta 2004an garrantzi handiagoa izan zuten, sarrearen % 23 eta % 21, hurrenez hurren. Eta 2007an jaitsi egin zen, 2005ean eta aurreko beste urte batzuetan bezala, % 9an kokatuz.

22. taula

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen (IKEDAM)
sarrerren bilakaera Araban, jatorrizko herrialde nagusien arabera (1997-2007)

Herrialdeak	Guztira (%)	Urtea										
		1997 (%)	1998 (%)	1999 (%)	2000 (%)	2001 (%)	2002 (%)	2003 (%)	2004 (%)	2005 (%)	2006 (%)	2007 (%)
Maroko	57,8	87,5	100,0	92,9	100,0	41,7	69,0	48,8	50,0	53,8	43,2	26,2
Aljeria	5,3	—	—	—	—	8,3	6,9	2,3	8,8	3,8	8,1	12,3
Sahara	6,1	—	—	—	—	—	3,4	16,3	—	19,2	5,4	1,5
Ginea Conakry	6,1	—	—	—	—	—	—	2,3	8,8	7,7	10,8	41,5
Kamerun	6,1	—	—	—	—	33,3	3,4	2,3	11,8	—	13,5	—
Gambia	3,7	—	—	—	—	—	—	4,7	—	7,7	5,4	9,2
Beste batzuk	14,8	12,5	—	7,1	0,0	16,7	17,2	23,3	20,6	7,7	13,5	9,2
Oinarria	244	8	9	14	9	12	29	43	34	26	37	65

Iturria: Arabako Foru Aldundia, 2007. Egileak egina.

Bizkaiari dagokionez, fenomenoaren bilakaera hainbat iturritatik lortutako datuak kontuan hartuta aztertu da. 1996tik 2005era Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen harrerak azalduko dira. Emakumezko adingabeei dagokienez, 2000. urtetik aurrera izandako harrerak ere kontuan hartuko dira. Urte horretan atzeman zen lehen emakumezko adingabea. Harrera horiek bat datoz sarrerekin; izan ere, urte bakoitzaren hasieran ez da emakumezko adingabe bakar bat ere egoten zentroan (Argileku Etxea). 2005eko datuak Zabaloetxe Zentrokoak (sarrera-zentroa 2005eko urrira bitarte) dira⁵⁶. 2006tik 2007ra bitarte, sarrerak erakutsiko dira.

1996tik 2007ra bitarte⁵⁷, Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen % 85 Marokoa zen, % 4 Aljeriakoa eta % 3 Errumaniakoa. Neska asko herrialde horretakoak ziren.

⁵⁶ Arestian esan denez, 2005eko urritik aurrera, Lehen Harrerako Zentroa Berriz zen, baina eskuragarri ditugun datuak honako hauek dira: alde batetik, Zabaloetxe Zentroan urte osoan izandako harrerak; eta beste alde batetik, 2005eko urritik abendura bitarte Berrizen izandako sarrerak. Hortaz, ezin dira datuak banakatu, ezta batukaririk egin ere. Horregatik, Zabaloetxe Zentroko harrerak ere kontuan hartu dira, 2005eko hilabete gehiago hartzeko eta kopurua errealtatetik hurbilago egon dadin.

⁵⁷ Guztizkoak sarrerak eta harrerak hartzen ditu, fenomenoaren bilakaera aztertzeko iturri asko erabili direlako. Hortaz, ulertu behar da guztizko datuak fenomenoaren bilakaerarekiko hurbilpena direla jatorrizko herrialdeak kontuan hartuta.

23. taula

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen sarrerren (1996-1999 eta 2006-07) eta harrerren (2000-05) bilakaera Bizkaian, jatorrizko herrialde nagusien arabera

Herrialdeak	Guztira (%)	Urtea											
		1996 (%)	1997 (%)	1998 (%)	1999 (%)	2000 (%)	2001 (%)	2002 (%)	2003 (%)	2004 (%)	2005 (%)	2006 (%)	2007 (%)
Maroko	84,9	80,0	25,0	39,1	40,0	73,6	88,5	90,0	86,4	80,5	89,8	84,7	86,5
Aljeria	4,2	—	—	21,7	26,7	15,1	3,7	4,8	7,5	5,4	0,8	2,1	2,8
Errumania	2,9	—	—	—	—	3,8	1,4	0,7	3,0	4,6	1,2	4,0	4,7
Liberia	0,2	—	—	21,7	—	—	—	—	—	—	—	—	—
Ghana	1,4	—	—	—	—	—	0,6	0,0	0,0	0,4	1,2	3,6	2,4
Guinea Bissau	0,2	—	16,7	—	10,0	—	—	—	—	—	—	—	—
Moldavia	0,5	—	—	—	—	—	—	—	—	—	—	2,5	—
Palestina	0,7	—	—	—	—	—	1,7	2,6	—	0,4	0,4	—	0,4
Beste batzuk	4,8	—	58,3	17,4	16,7	7,5	4,2	1,9	3,0	8,7	6,5	3,2	3,2
Ez dago daturik	0,1	20,0	—	—	6,7	—	—	—	—	—	—	—	—
Oinarria	2.375	5	12	23	30	53	356	269	199	241	245	476	466

Iturria: Landalan Elkartea, Argileku Etxea «Bakarrik dauden adin txikiko atzeritarren egoerari» buruzko Txostenak, Autonomia Erkidegoek Lan eta Gizarte Gaietako Ministeriora bidali dizkietenak 2000ko otsailaren 29an bildutako Lan Taldearentzat, Zabaloetxe Zentroaren 2007ko memoria, 2000-07-08. Egileak egina.

Urte gehienetan Marokotik etortzen ziren adingabe gehienak, kasu batzuetan (2002an eta 2005ean) % 90 izatera ere iritsi ziren. Soilik zenbait urtetan, ehunekoa nabarmen jaitsi zen eta % 70etik behera kokatu zen. 1997an, gizonezko nahiz emakumezko adingabeen % 25 herrialde horretakoa zen; aitzitik, % 58 beste herrialde batzuetakoa zen. 1998an, % 39 Marokokoa zen, % 22 Aljeriakoa, eta % 22 Liberiakoa. 1999an, % 40 Marokokoa zen eta % 27 Aljeriakoa.

Oro har, ikusten da nabarmena dela urteetan zehar Ghanako adingabeen presentzia handitu egin izana (2007an % 5) eta Errumaniako adingabeen presentzia gutxi-asko erregularra dela, bereziki emakumezkoei dagokienez. 2006an Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen % 4 Errumaniakoa zen, eta 2007an % 5 zen herrialde horretakoa.

Dirudienez, *Gipuzkoan* ez dago beste herrialde batzuetako presentzia handirik, Marokokoa izan ezik. Izan ere, herrialde horretatik etorri ziren IKEDAMen igoera orokorra izan da urteetan zehar. 2003an, IKEDAMen sarrerren % 67 Marokotik etorri zen.

2004an ehuneko hori jaitsi egin zen, baina ondorengo urteetan igo egin zen, 2007an % 80 izanik.

Lehenengo urteetan, hots, 2003an eta 2004an, zenbait herrialdek ondorengo urteetan baino garrantzi handiagoa izan zuten. Errumania, Aljeria, Ekuador eta Sahara gehiago nabarmendu ziren lehenengo bi urte horietan, nahiz eta ehunekoak oso handiak ez izan. 2003an, Aljeria Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen sarreraren % 7 zen, eta Sahara % 3. 2004an, sarreraren % 16 Errumaniakoa zen, eta % 20 beste jatorri oso desberdinetakoa.

«Beste batzuk» atalean bildutako gainerako jatorriek ere behera egiteko joera izan dute, baina ez modu erregularrean. 2003an % 17 ziren, eta 2007an % 12.

Gipuzkoako datuak 2003tik aurrerakoak dira, baina fenomeno lehenago hasi zen; hortaz, ez da bilakaera osoa ikusten. Eta nahiz eta Inoren Kargura ez dauden Adingabeen jatorrien dibertsifikaziorik ez egon, Gipuzkoako funtsezko informatzaileei egindako elkarriketetan nabarmentzen da Maroko hegoaldetik etorritako adingabe kopurua igo egin dela. Adingabe horien etorreraren ondorioz, arestian esan denez, IKEDAMen profila desberdina izango da, Maroko iparraldeko hirietatik eratorritakoen profilarekin (orain arte ezagutzen genuena) alderatuta.

Ikusi denaren arabera, Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen ezaugarrien dibertsifikazioa dago, sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen arabera. Baina dibertsifika-

24. taula

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen (IKEDAM)
sarreraren bilakaera Gipuzkoan, jatorrizko herrialde nagusien arabera (2003-2007)

Herrialdeak	Guztira (%)	Urtea				
		2003 (%)	2004 (%)	2005 (%)	2006 (%)	2007 (%)
Maroko	71,6	67,0	52,1	67,9	81,7	80,1
Errumania	8,4	5,4	15,6	14,2	6,5	3,2
Aljeria	4,0	7,1	6,3	3,7	0,0	4,5
Ekuador	1,2	0,9	6,3	0,7	—	—
Sahara	1,1	2,7	—	—	2,0	0,6
Beste batzuk	13,7	17,0	19,8	13,4	9,8	11,5
Oinarria	651	112	96	134	153	156

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2007. Egileak egina.

zio hori oraindik txikia da arlo kuantitatiboan. Aldea da ezaugarrien dibertsifikazio horren ezaugarriak gutxi aipatzen direla, baina hori lehen ez zen gertatzen.

Hortaz, oraindik ere *gizonezkoak, 18 urtetik hurbilen dauden adinak (16 eta 17 urte) eta Marokoko nazionalitatea dira Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen kolektiboa deskribatzen duten ezaugarri nagusiak. Inoren Kargura ez dauden emakumezko Adingabe Migratzaileei dagokionez, gehiengo profila 17 urteko Errumaniako jatorrizkoa izatea da*⁵⁸.

Kapituluaren azalpena

- 2007an 677 adingabe sartu ziren Euskal Autonomia Erkidegoan; horietatik, 14 emakumezko adingabeak ziren.
- Sarrera kopuru handiena duen Aldundia Bizkaia da. Euskal Autonomia Erkidegoko sarreren % 71 lurralde horretan gertatu zen 2006an, eta % 68 2007an.
- Estatu-esparruan, IKEDAM kopuruari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoa hirugarren postuan zegoen 2006an, eta laugarrenean 2007an, kokapenari dagokionez, historikoak diren autonomia-erkidegoen aurretik, hala nola Kataluniaren eta Madrilaren aurretik.
- Murtzia izan da hazkunde nabarmenena duen Erkidegoa (210 adingabe). 2006an Espainiako Estatuko Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaile guztien % 2 zegoen erkidego horretan, eta 2007an, gainditu egin zuen kopuru hori, sarreren % 5 izatera iristen baitzen.
- 1993. urtetik 2007. urtera bitarte, IKEDAM gehien jaso zituzten Autonomia Erkidegoak honako hauek dira: Andaluzia (% 32), Valentziako Erkidegoa (% 16), Katalunia (% 14), Kanariak (% 8) eta Madril (% 5).
- Gipuzkoan, 1994. urtean atzeman zen Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen lehenengo kasua, eta 1995ean 5 kasu gehiago atzeman ziren. Lehenengo adingabeak lurralde horretara iritsi ziren, baina ez ziren bertan geratu.

⁵⁸ 2007an Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen 14 kasu atzeman ziren. Horietatik, Bizkaiko 11 kasuen ezaugarriei buruzko informazioa dago. Horietatik, % 73k 17 urte zituen eta % 55 Errumaniakoa zen.

- Nahiz eta oraindik Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileek osatzen duten gehiengoa, ikusten da Inoren Kargura ez dauden neska eta gazte Adingabe Migratzaileen kasu kopurua igo egin dela.
- Bizkaia da Inoren Kargura ez dauden emakumezko Adingabe Migratzaile kopuru handiena duen lurraldea 2007an. Euskal Autonomia Erkidegoan dauden emakumezko IKEDAMen sarreraren % 79.
- Araban, Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen sarreraren % 51k 17 urte ditu, % 19k 16, eta gainerako % 19ari dagokionez, ez dakigu zer adin duten 2007an.
- Bizkaian hartutako gizonezko IKEDAM gehienek 17 urte (% 33), 16 urte (% 36) eta 15 urte (% 19) zituzten 2007an.
- Gipuzkoan, Inoren Kargura ez dauden emakumezko eta gizonezko Adingabe Migratzaileen adinak desberdinagoak ziren. 2007an, % 30ek 17 urte zituen, % 22k 15, eta % 21ek 16.
- 2007an, Zabaltzen zentroari dagokionez (Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileen Arabako lehen harrerako zentroa), ikusi da zentro horretan sartu ziren adingabeen % 32 Ginea Conakrykoak zirela, eta % 30 Marokokoak.
- 2007an, Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileentzako Zornotzako (Bizkaia) Lehen Harrerako Zentroan izandako sarrera gehienak Marokokoak ziren (% 88). % 12 beste herrialde batzuetakoa zen.
- 2007an, Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileentzako Tolosako (Gipuzkoa) Lehen Harrerako Zentroak Inoren Kargura ez dauden gizonezko Adingabe Migratzaileek Espainiako Estatuan duten fenomenoaren joera orokorrari jarraitu zion, sarrera gehien-gehienak (% 91) Marokokoak baitziren.
- Bizkaian, 2007an, Inoren Kargura ez dauden emakumezko Adingabe Migratzaileen sarrera guztien % 55 Errumaniakoa zen.

5

Jatorrizko testuinguruak

Adingabe horien jatorrizko herrialde eta lurraldeetako ezaugarrien deskribapen laburra egingo dugu, baina horren aurretik, zera esan behar dugu, ezaugarri horiek aipatzeak ez du esan nahi, inolaz ere, ezaugarri horiek migratzen duten adingabeen ezaugarrien (kulturraren arloko, nahiz gizarte- eta ekonomia-arloko ezaugarrien) adierazle direnik zuzenean; aitzitik, jatorrizko egoera eta testuinguruen ezaugarriak dira, eta adingabe horien profila, haien migrazio-estrategiak eta -proiektuak nola edo hala baldintzatzen dituzte⁵⁹.

Horretaz gain, aipatu behar da herrialde horietako bakoitzaren barnean aniztasun handia dagoela, gizarte- eta ekonomia-arloari, kulturari, hizkuntzari eta erlijioari dagokienez, eta ezinezkoa da aniztasun hori guztia txosten honetan biltzea; hortaz, datu orokor horietako batzuk interpretatzeko garaian kontu handiz ibili behar da, errealitate horiekiko hurbilketa partzialak baitira.

Adibide bat jartzearen, Ghana aipatuko dugu: lurralde horretan 75 etnia daude eta hizkuntzaren bidez bereizten dira; biztanleriaren heren bat kristaua da, beste heren bat musulmana eta hirugarren herenak bertako erlijioak praktikatzen ditu; iparraldea landatarra da, gehienbat, eta populazio-dentsitate txikia du; aldiz, hegoaldea askoz hiritarragoa eta populatuagoa da; eta beste hainbat eta hainbat barne-aniztasun. Esandakoak esanda, kapitulu honetan adingabeen jatorrizko herrialdeetako testuinguru geografikoak, demografikoak eta sozioekonomikoak deskribatuko ditugu, eta, kasu askotan, testuinguru horien eta herrialde hartzailearen arteko konparazioa ere egingo dugu.

5.1. Jatorrizko toki eta herrialdeei buruzko datu orokorrak

5.1.1. Herrialde igorleen ezaugarri demografikoak

India izan ezik (munduko herrialde populatuenen bigarren postuan baitago), adingabeak igortzen dituzten gainerako herrialde guztiek Espainiak baino populazio txikiagoa dute:

⁵⁹ Kapitulu honetako datuak landa-lanean adingabeei egindako 50 elkarrizketetatik atera ditugu.

- 10 milioi biztanle baino gutxiagorekin, Saharaz azpiko hiru herrialde: Ginea, Kongo eta Gambia, eta azken horri mendebaldeko Saharako lurraldea gehitu behar zaio.
- 10 eta 20 milioi biztanle bitarte, Saharaz azpiko bost herrialde: Boli Kosta, Kamerun, Angola, Senegal eta Mali. Amerikako herrialde bat: Ekuador.
- 20 eta 30 milioi biztanle bitarte: Errumania eta Ghana, jatorrizko herrialde guztien artetik Saharaz azpiko herrialderik populatuena da, eta adingabe gehien herrialde horretatik ateratzen dira.
- 30 milioi biztanle baino gehiago: Magrebeko bi herrialdeak: Aljeria eta Maroko.

25. taula

Biztanleria guztira, herrialdeen arabera (milako biztanletan) 2007. urtean

Herrialdea	Guztira	Sexua	
		Gizon kop.	Emakume kop.
India	1.169.016	604.990	564.026
Espainia	44.279	21.832	22.447
Aljeria	33.858	17.091	16.767
Maroko	31.224	15.348	15.876
Ghana	23.478	11.899	11.580
Errumania	21.438	10.433	11.005
Boli Kosta	19.262	9.773	9.489
Kamerun	18.549	9.270	9.279
Angola	17.024	8.395	8.630
Ekuador	13.341	6.686	6.655
Senegal	12.379	6.161	6.217
Mali	12.337	6.008	6.329
Ginea	9.370	4.729	4.641
Kongo	3.768	1.868	1.900
Gambia	1.709	856	853
Mendebaldeko Sahara	480 ⁶⁰	254	226
Guztira	1.431.512	735.594	695.918

Iturria: United Nation Stadistical Division, 2008. Egileak egina.

⁶⁰ 175.000 baino gehiago Aljerian errefuxiatuta daude, Aljeriaren eta NBEren artean adostutako datuen arabera.

5.1.1.1. Hazkunde demografikoa

Jatorrizko herrialde ia guztietan gakoa da hazkunde demografikoa; hain zuzen ere, azken hamarkadetan izan den hazkunde demografiko naturala. *Europar hazkunde demografikoaren tasak txikiak dira*, eta hein handi batean, hazkundeari eusteko arrazoietako bat atzerriko immigrazioak dira; aldiz, adingabeen *herrialde igorleetan* populazioaren hazkunde begetatiboa *urtean % 2 baino handiagoa da*, salbuespenak salbuespen.

26. taula
1975-2005 bitarteko hazkunde-tasa,
eta biztanleria herrialdearen arabera 1975., 2005. eta 2015. urteetan⁶¹ milioietan

Herrialdea	1975-2005 bitarteko hazkunde-tasa (%)	Biztanleria guztira		
		1975	2005	2015 ⁶²
Errumania	0,1	21,2	21,6	20,6
Espainia	0,7	35,7	43,4	46
Maroko	1,9	17,3	30,5	34,3
India	2,0	613,8	1.134,4	1.302,5
Ekuador	2,1	6,9	13,1	14,6
Aljeria	2,4	16	32,9	38,1
Mali	2,5	5,4	11,6	15,7
Ghana	2,6	10,3	22,5	27,3
Kamerun	2,7	7,8	17,8	21,5
Ginea	2,7	4	9	11,4
Kongo	2,8	1,5	3,6	4,5
Senegal	2,8	5,1	11,8	14,9
Angola	2,9	6,8	16,1	21,2
Gambia	3,5	0,6	1,6	2,1
Boli Kosta	3,5	6,6	18,6	22,3

Iturria: PNUDen 2007/2008ko Giza Garapenari buruzko txostena, 2008. Egileak egina.

⁶¹ PNUD Garapenerako Nazio Batuen Programaren txostenak maiz erabili ditugu kapitulu honetan. Aukeraturako erreferentzia-datuak 2005. urtekoak dira, zeren, zenbait herrialderi buruzko datu berriagoak izan arren, ez baitago herrialde guztiei buruzko datu eguneraturik. Hori horrela, 2005eko datuekin aztergai ditugun herrialdeen arteko konparazioa egin dezakegu.

⁶² PNUD programan adierazten denez, datuak batez besteko aldaeraren proiektzioei buruzkoak dira.

Hazkunde horren eraginez, kontinenteen araberako biztanleen balantzak aldatzen ari dira. Lehengo mendeko laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdean, Europan eta Afrikan biztanleen milioi kopurua antzekoa zen: 728 milioi Europan eta 719 milioi Afrikan (Smith, 2005), baina Nazio Batuen proiektzioen arabera, 2050. urtean Afrikan 1.800 milioi biztanle izango dira, eta Europan 650 milioi baino gutxiago.

Biztanleriaren hazkunde hori gorabehera, 90eko hamarkadaz geroztik, hazkunde-tasa leuntzen ari da Afrikako ia herrialde guztietan, eta Afrikako Mediterraneoaren kostaldeko herrialdeetan atzematen da, dagoeneko, desazelerazio hori, garapenari dagokionez, eskema nahiko unibertsalari jarraiki.

Herrialde igorle batek ez dio ildo horri jarraitzen; Errumaniak, alegia; azken hogeita hamar urteotan populazio-indizea oso txikia izan du eta negatiboa izatera ere irits daiteke, aurreikuspenak betez gero.

Demografia-eztanda honen arrazoietakoa bat da mendetako ugaltze-ereduei eutsi izana; izan ere, medikuntza modernoaren garapenari esker, eta gaixotasun infekziosoen prebentziorako txertatze-kanpaina masiboak nabarmen hedatu direnez, heriotza-tasak, oro har, eta, bereziki, haurren heriotza-tasak murriztu egin baitira.

Baina herrialde horietako *ekonomiak ez dira hazten populazioaren erritmo berean*; hortaz, landa-eremuetan baliabideen gainerako presioa ia jasanezina izatera iristen da, eta hiriguneetan pobrezia-poltsa handiak sortzen dira, hiriek ez baitute ahalmenik biztanle guztiei bizitzeko eta laneko baldintza duinak eskaintzeko.

5.1.1.2. Kontinente gazteak eta Europa zahartua

Hurrengo taulan ikus daitekeenez, herrialde igorleetako biztanleria hazten ari da eta horren ondorioz, lurraldearen eta baliabideen gainerako presio demografikoa areagotzen ari da; baina horretaz gain, herrialde horietan, 15 urtetik beherakoen proportzioa Europakoa baino askoz handiagoa da gaur egun.

Magrebeko herrialdeetan eta Afrikakoak ez diren gainerako herrialdeetan, 15 urtetik beherakoek biztanleria guztiaren % 29tik % 33ra bitarte osatzen dute; aldiz, Saharaz az-

27. taula

15 urtetik beherako biztanleak herrialdearen arabera, 2005

Herrialdea	< 15 urteko biztanleak (%)
Espainia	14,4
Errumania	15,7
Aljeria	29,6
Maroko	30,3
Ekuador	32,6
India	33,0
Ghana	39,0
Gambia	41,2
Boli Kosta	41,7
Kongo	41,8
Kamerun	41,8
Senegal	42,2
Ginea	43,4
Angola	46,4
Mali	47,7

Iturria: PNUDen 2007/2008ko Giza Garapenari buruzko txostena, 2008. Egileak egina.


piko herrialde guztietan % 39tik gorako tasak dituzte. Kasu askotan, ehuneko horrek gora egiten du giza garapenaren indizeak behera egiten duen heinean.

Biztanleriaren eta, bereziki, belaunaldi gazteenen hazkundeari dagokionez, gaur egungo ildoari eutsiz gero, herrialde horietatik datozen urteetan iritsiko diren etorkinen eta, bereziki, adingabe migratzaileen kopuruaren hazkundera aurreikusi ahal izango litzateke.

Iparraldeko eta hegoaldeko herrialdeen arteko aldeei buruz gauza asko esan izan da, baina horren guztiaren adierazgarri, herrialde horietako biztanleriaren piramideak aztertuko ditugu. Hartara, Europa zahartuaren adibidetzat, Espainiako biztanleriaren piramidea eta adingabeen jatorrizko herrialdeetako piramide gazteak kontrastatuko ditugu. *Europako herrialde askotan, gazteen immigrazioa ezinbestekoa da hazkunde ekonomikoa izateko eta gizarte-babeseko estatuari eusteko, langileen ekarpenetan oinarritzen baita.*


12. grafikoa

Espainiako biztanleria-piramidea, 2007




13. grafikoa

Marokoko biztanleria-piramidea, 2007




14. grafikoa

Indiako biztanleria-piramidea, 2007



15. grafikoa

Ghanako biztanleria-piramidea, 2007



Iturria: U.S. Census Bureau, International Data Base, 2008. Egileak egina.


5.1.1.3. Hiri-hazkundera

Azken hogeita hamar urteotan, hiri-hazkundera mundu osoko fenomenoa izan da, baina Afrikan beste kontinenteetan baino aldaketa azkarragoa gertatu da. 1900. urtean, Afrika zen urbanizazio-mailarik txikieneko kontinentea; biztanleriaren % 3 soilik bizi zen hirigunetan, garapen-bidean zeuden herrialdeetako % 9tik nahiko urrun (Smith, 2005). 1950ean dagoeneko 19 milioi pertsona bizi ziren hirietan, eta 2000. urtean 209 milioietara iritsi ziren; 1950-2000 aldi horretan, hiri-hazkundera urteko % 4,4 izan zen; aldiz, Latinoamerikan hazkunde hori % 3,5 eta Asian % 3,4 zen.

Afrikan, hiri-hazkundearen eragile garrantzitsuenetako bat *landa-eremuko biztanleriaren exodoa* izan da. Landa-eremuetatik hirietarako migrazio hori hainbat arrazoik eragin dute: arrazoi garrantzitsuenetako bat bizi-baldintzak hobetzeko asmoa da, lan bat bilatzeko asmoa ekonomikoki hobera egitearren, baliabide publiko garrantzitsuenetarako (hezkuntza-sistema eta osasun-sistema) sarbidea errazagoa izatea, hirigunetan, oro har, askoz garatuagoak izaten baitira. Gainera, gatazka- edo ezegonkortasun-egoeretan, segurtasun handiagoaren bila emigratzen da hirietara, landa-eremuak erasotzeko errazagoak dira-eta.

16. grafikoa

Hiri-biztanleria 1975. eta 2005. urteetan (guztirakoaren %-a)



Iturria: PNUDen 2007/2008ko Giza Garapenari buruzko txostena, 2008. Egileak egina.⁶³

⁶³ Mendebaldeko Sahara Marokon sartuta dago.

Afrikan, landa-eremuetatik hirietarako emigrazio handiena 1950etik 1980ra bitarte gertatu zen, eta orain murrizten ari den arren, hiri-hazkundera ez da amaitu, baina oraingoan ez landa-eremuko jendearen etorreragatik, baizik eta hiriko biztanleriaren hazkunde naturalagatik.

2005. urtean, Espainian hiriko biztanleriak biztanle guztien % 77 osatzen zuen; aldiz, adingabeak igortzen dituzten herrialdeetan, soilik Mendebaldeko Saharako hiri-biztanleriaren ehunekoa zen handiagoa, landa-eremuetako lurak oso elkorrak zirelako eta biztanleriaren ehuneko oso txiki batek abeltzaintza nomada baino ezin duelako praktikatatu. Lurralde hori alde batera utziz gero, adingabeak igortzen dituzten gainerako herrialdeetako hiri-biztanleriaren proportzioa Espainiakoa baino txikiagoa da. Hona hemen hiriguneetan bizi diren biztanleen ehuneko handiena duten herrialdeak: Aljeria, Ekuador, Kongo eta Maroko. Aitzitik, landa-biztanleria nagusi da oraindik ere honako hauetan: Indian, Malin eta Ginean.

28. taula
Landa-eremuetako eta hiriko biztanleria herrialdearen arabera, 2000-05


Herrialdea o lurraldea	Biztanleriaren banaketa 2005ean		Biztanleria-aldaketaren urteko tasa 2000-2005	
	Hiriguneak (%)	Landa-eremuak (%)	Hiriguneak	Landa-eremuak
Mendebaldeko Sahara	91,6	8,4	2,7	-0,3
Espainia	76,7	23,3	4,1	1,5
Aljeria	63,3	36,7	3,6	-0,1
Ekuador	62,8	37,2	3,6	2,1
Kongo	60,2	39,8	2,5	0,9
Maroko	58,7	41,3	2,3	0,2
Kamerun	54,6	45,4	4,7	0,9
Gambia	53,9	46,1	3,8	0,7
Errumania	53,7	46,3	3,4	1,6
Angola	53,3	46,7	2,3	1,3
Ghana	47,8	52,2	4,8	2,2
Boli Kosta	45,0	55,0	2,7	-0,2
Senegal	41,6	58,4	-0,7	0,0
Ginea	33,0	67,0	2,8	2,1
Mali	30,5	69,5	1,2	0,7
India	28,7	71,3	2,7	1,7

Iturria: Human Settlements Rural, 2008. Egileak egina.

5.1.2. Egoera sozioekonomikoa

5.1.2.1. Giza garapenaren maila

Herrialde hartzaileari dagokionez, herrialde igorleek badute beste ezaugarri komun bat: *alde handia izatea giza garapenaren indizeetan*⁶⁴, mapa honetan ikus daitekeenez (Ikus, baita ere, *Eranskinaren X. taula*):



Iturria: PNUDen 2007/2008ko Giza Garapenari buruzko txostena, 2008. Egileak egina.

Herrialde igorleak GGI indizearen arabera sailkatzen baditugu, hiru multzo egin ditzakegu:

1. *Garapen-indize handiko* herrialde igorleak (0,80tik aurrera): Europatik Errumaniak soilik du GGI handia eta 60. postuan dago, nahiz eta GGI txikienetakoa duen herrialde europarra den (Bosnia, Albania eta Mazedonia soilik ditu atzetik).

⁶⁴ Giza Garapenaren Indizearen (GGI) bidez bizi-itzaropena, alfabetismoa, hezkuntza eta bizitza-mailak konparatzen dira mundu osoko herrialdeetan. Unitate estandarra da eta bizi-kalitatea neurtzen da, eta, batez ere, haurren babesa. Herrialde baten garapenaren eta ongizatearen maila bereizteko erabiltzen da, baita politika ekonomikoek jendearen bizi-kalitatean duten eragina neurtzeko ere. Pakistango Mahbub ul Haq eta Indiako Amartya Sen ekonomialariek garatu zuten. 1990. urteaz geroztik, PNUD Garapenerako Nazio Batuen Programak indize hori erabiltzen du urteko txostenak konparatzeko neurritzat.

2. *Garapen-indize ertaina* (0,50etik aurrera): Ekuador, Magrebeko bi herrialdeak⁶⁵: Maroko eta Aljeria; India eta Saharaz azpiko lau herrialde: Ghana, Kongo, Kamerun eta Gambia. Herrialde horietatik datoz *adingabeen* % 84.
3. *Giza garapenaren indize txikia* dute Afrikako gainerako herrialdeek: Senegal, Guinea, Boli Kosta, Mali eta Angola. Gure lagineko *adingabeen* % 14 herrialde horietakoak dira.

GGIren arabera, Espainiaren (adierazle horren arabera, mundu osoko herrialde garatuen artean 13. postuan dago) eta Saharaz azpiko herrialdeen arteko aldea askoz handiagoa da, baina geografikoki Errumania (GGI handia duen arren 60. postuan dago, Espainiatik urrun) edo Afrikako iparraldeko herrialdeak (104. eta 126. postuetan daude) gertuago daudenez, aldea nabarmenago egiten da txikiagoa izan arren.

5.1.2.2. Desberdintasun ekonomikoak eta egiturazko pobrezia

Herrialde hartzailean, Espainian, alegia, azken urteotan, ekonomiaren hazkunde-indizeak handiak izan dira eta hazkunde hori gertatzeko eskulanak ere handitu egin behar izan du; alabaina, jatorrizko herrialdeetako ekonomiak ez dira berdin hazi eta ezin dute hobekuntza ekonomikorik eskaini biztanle guztientzat, zerren, ikusi dugunez, esponentzialki hazi baita biztanle kopurua.

Ildo beretik, erreferentziako datu bat izaten da barne produktu gordina (BPG) per capita⁶⁶. Espainian, per capita BPGa 27.169 \$ da, eta herrialde igorle guztiek urtean 10.000 \$-tik beherako per capita BPGa dute; baina Saharaz azpiko bost herrialderen kasuan, per capita BPGa urteko 2.000 \$ baino txikiagoa da. Termino absolututan, esan dezakegu Maliren per capita BPGa Espainiakoaren 3,8 dela, edo muturreko kasuak alde batera utzita, Ghanaren (BPG handiena eta GGI hoberena duen Saharaz azpiko herrialdearen) per capita BPGa Espainiakoaren 9,1 da.

⁶⁵ PNUDen txostenetan, Mendebaldeko Saharako lurraldeari buruzko datuak Marokoko datuetan txertatuta daude.

⁶⁶ Barne Produktu Gordina (BPG) per capita zera da, ekonomia baten produkzio-ahalmena neurtzeko neurri makroekonomikorik garrantzitsuena, eta herrialdeen arteko garapen ekonomikoa konparatzeko erabiltzen da. Herrialde batek urtebetean egindako ondasunen eta zerbitzuen produkzioaren diru-balioa neurtzen du, biztanleriarekin zatituta. Badu gabezia garrantzitsu bat, ez dituela kontabilizatzen lan informalaren ondorio diren ondasun edo zerbitzuak; horretaz gain, neurri aritmetikoa izaki, ezin du neurtu jendearen ongizate-maila, ezta aberastasunaren banaketa ere.

Hortaz, *Mendebaldeko Europaren* (kasu honetan, Espainiaren) *eta herrialde igorleen arteko distantzia sozioekonomikoak* handiak dira eta arrazoi ekonomikoek eraginda *emigratzen duten pertsonen imaginarioetan* egoten dira, baita adingabe migratzaileen imajinarioetan ere.

Magrebeko herrialdeen edo Errumaniaren kasuan, jatorrizko herrialdearen eta xede-herrialdearen arteko distantzia ekonomikoa txikiagoa den arren, herrialde horien arteko *hurbiltasun geografikoak are gehiago nabarmen ditzake alde horiek*. Marokoko eta Andaluziako kostalde mediterraneoan artean kilometro gutxi batzuetako aldea dagoela gogoratu baino ez dugu egin behar.

Horretaz gain, herrialde igorleetako ekonomien bereizgarri izaten dira *barne desberdintasun handiak*. Zenbait herrialdetan, biztanleriaren sektore jakin batzuk baliabide natural aberatsez edo zenbait sektore ekonomikoren garapenaz baliatu eta horrekin aberastu egiten dira, baina biztanleriaren gehiengoak ez du inolako onurarik lortzen horrekin, eta *gizartearen sektore oso handiak pobrezia-egoeran bizi dira oraindik ere*.

29. taula

Herrialde igorleen eta Espainiaren barne produktu gordina per capita, 2005

Pertsona bakoitzeko BPGaren tarteak \$-etan	Herrialdea	Per capita BPGA \$-etan
2.000 \$ baino gutxiago	Gambia	1.921
	Senegal	1.792
	Boli Kosta	1.648
	Kongo	1.262
2.000 y 4.000 \$ artean	India	3.452
	Ghana	2.480
	Angola	2.335
	Ginea	2.316
	Kamerun	2.299
4.000 y 10.000 \$ artean	Errumania	9.060
	Aljeria	7.062
	Maroko ⁶⁷	4.555
	Ekuador	4.341
+ 10.000	Espainia	27.169

Iturria: PNUDen 2007/2008ko Giza Garapenari buruzko txostena, 2008. Egileak egina.

⁶⁷ Mendebaleko Sahara barnean hartuta.

Biztanleriaren sektore batzuen eta besteen arteko distantzia ekonomikoak diru-sarre-
ren mailen arteko aldearekin du zerikusia, baina horretaz gain, pertsona baten bizitzaren
eremu guztietan eragiten du: elikaduran, osasun-sistamarako eta hezkuntzarako sarbi-
dean, etxebizitzaren egoeran, edo oinarritzko zerbitzuetarako (ur-saneamendua edo elek-
trizitatea, besteak beste) sarbidean.

Garatu gabeko herrialdetzat hartutakoen giza pobrezia-aren indizearen (GPI)⁶⁸ arabera,
gure lagineko IKEDAMen jatorrizko herrialde gehienetan pobrezia-indize handiak di-
tuzte, eta pobrezia-egoera bereziki larrian daude Mendebaldeko Afrikako bost herrialde
igorle (Boli Kosta, Gambia, Senegal, Ginea eta Mali) eta Afrika australeko herrialdea
(Angola); elkarriketatutako adingabeen % 18 herrialde horietakoak dira.

30. taula

Herrialde igorleen sailkapena GPI indizearen arabera, 108 herrialderen artean, 2005

Herrialdea	Postua
Ekuador	19
Aljeria	51
Kongo	57
India	62
Kamerun	64
Ghana	65
Maroko	68
Angola	89
Boli Kosta	92
Gambia	94
Senegal	97
Ginea	103
Mali	107

Iturria: PNUDen 2007/2008ko Giza Garapenari buruzko txostena, 2008. Egileak egina.

⁶⁸ Giza Pobrezia-aren Indizea (GPI) *gizarte-adierazlea* da eta giza gabeziak edo *pobrezia* neurtzen ditu. PNUDe 1997. urtetik aurrera osatzen du indize hori. Hori horrela izanik, GGI indizeak herrialde baten ga-
rapen orokorra neurtzen du giza garapenari dagokionez, eta GPIak, aldiz, garapenaren banaketa adieraz-
ten du eta oraindik ere gertatzen den gabezia-atzerapena neurtzen du. Herrialde industrializatu-
etarako eta herrialde ez-industrializatu-
etarako indize bereizia prestatu da, giza gabezia ez baita berdina komunitate-
aren baldintzen (gizarte-arlokoak eta ekonomikoak) arabera, eta gainera, horrela herrialde horiei buruzko
datuak hobeto baliatzen dira. GPI indizeak hiru alderdi neurtzen ditu: bizitza luze eta osasungarria (jaio-
tzean 40 urtera arte ez bizitzeko aukeraren arabera neurtuta); hezkuntza: *helduen analfabetismo-tasaren*
arabera neurtuta, eta bizitza-maila duina: *ur-iturri* hobeturik ez duen biztanleriaren ehunekoaren arabera
eta dagokion adinerako pisu gutxiegi duten haurren ehunekoaren arabera neurtuta.

Eskualdeen artean, eskualde beraren barruan eta herrialdeen artean diru-sarreraren arteko gorabehera handiak izaten dira, eta horrekin batera, ekonomia ez bada erabat sustertzen eta ekonomiaren hazkundeak ez badio biztanleria guztiari eragiten, horrek guztiak migrazioa eragiten du, bai barnean, bai nazioartean, eta adingabe migratzaileak fenomeno orokor horren zati bat baino ez dira. Adingabe horietako askoren ustez Europa ametsak egia bihurtzeko tokia da, gizarte-arloko hobekuntzak lortzeko tokia, euren jatorrizko herrialdeetan, ustez, ezin baitituzte lortu.

5.1.2.3. Gatazka-egoerak

Adingabeen jatorrizko herrialdeetako batzuen beste ezaugarri bat izaten da gatazka-egoeraren egotea edo egon izana azken urteotan.

Elkarriketatutako adingabeen % 20 datozen herrialde edo lurraldeetan azken urteotan gatazkak, indarkeria edo gerra bizi izan dituzte. Sei⁶⁹ herrialde dira. Saharaz azpiko bost herrialde: Angola, Kamerun, Kongo, Boli Kosta eta Ginea. Eta Mendebaldeko Sahararen lurraldea Magreben.

1. *Angolak 1975. urtean lortu zuen Portugalekiko independentzia, baina horrekin batera, mugimendu armatuen arteko gerra zibila hasi zen. Mugimendu bakoitzak etnia, eskualde eta nazioarteko herrialde jakin batzuen babesa zuen. 1991. eta 1994. urteetan bake-akordioak sinatu ziren eta gobernurako hainbat akordio-saiakera ere egin ziren, baina behin eta berriz gatazkak izaten ziren, 2002. urtean bake erlatiboa lortu zen arte. 27 urteko gatazkaren ondorioz, 500.000 hildako baino gehiago izan ziren, lau milioi pertsona lekualdatu dira, ekonomia lur jota dago eta herrialdeko eremu asko alferrikalduta daude minak direla-eta (10 milioi mina lurperatuta daudela kalkulatu da); halaber, 100.000 bat pertsonak gorputz-adarren bat galdu du mina horiek direla-eta.*

Angolako bi adingabeek gerra horren eragina jasan dute, zuzenean. Arturren aita 1992an hil zen, gerran. Miguelen aita graduazioko militarra da gaur egungo go-

⁶⁹ Beste herrialde igorle batzuetan ere izan dira edo badira oraindik gatazka-egoerak: Indian, Kaxmirreko gerra; Peru eta Ekuadorren arteko muga-gatazka; Senegalen, Cassamanceko gatazka nazionalista; edo Malin, tuaregen altxamenduak aldizka. Baina lurraldearen zonalde jakinetara mugatutako gatazkak direnez eta adingabeak ez direnez zonalde horietakoak, ez zaigu garrantzitsua iruditu txosten honetan sartzea. Aljeriako gatazkari dagokionez ere antzeko zerbait gertatu da: laurogeita hamarreko hamarkadan herrialde osora zabaltzen arren, gaur egun landa-eremuetan soilik izaten dira noizean behin indarkeria-gertakariak, gure lagineko adingabeen jatorrizko hiritik urrun.

bernuarentzat, eta familia osoa arriskuan dago aitaren jarduera dela-eta; izan ere, herrialde guztian ezegonkortasun-egoera da nagusi oraindik. Horregatik, aitzak seme-alabetako hiru atzerrira bidali ditu, babestearren.

Egoera orain honelakoa da... orain presidente dena heriotzak eraginez iritsi zen. Diktadore bat bezalakoa da; Lauren Vagó izena du. Orduan, errebeldeek, militarren erdiak ikusi zuten haiek ez zutela nahi modu horretara heltzea boterera. Horrela, bada, gure taldea osatu eta haren kontra borrokatu genuen. Hauteskunde egoiak izan daitezten, presidente bat hauta dezaten. Zeren bada gizon bat presidente izan nahi duena, beti pentsatzen dugun moduan, baina gero ez dira izaten. Norbaitek pentsa dezake presidente izan nahi duela, baina badaki hauteskundeak eginez gero irabazi egingo duela. (...) Soilik gutxiengo bati ordaintzea pentsatzen dute; horrelakoa da nire herrialdea. Gutxiengoak diru asko du, eta gehiengoa egoera tamalgarrian dago, bai horixe! Herrialde aberatsa da, diamantea, petrolioak, fosfatoak, burdina... ditu, baina horrelako jendea... (Miguel. Angola. 2007/02/23).

Angolako Miguelen eta Boli Kostako Louisen kasuak aipatuko ditugu. Lehenaren aitzak militar gisa lan egiten du gobernuarentzat, eta bigarrenarena politikaria da, oposizioan; bi kasuetan, adingabeek hein berean pairatzen dute indarkeria-egoera eta bi familiek sumatzen dute segurtasunik eza.

2. Azken urteotan, *Boli Kostan* gerra zibila izan da (2000-2007) eta biztanleria zibila hartu du eraginpean. Gobernuak hainbat neurri sustatu zituen ivorité delakoaren teoriaren oinarrituta, eta jatorri atzerritarreko biztanleriaren heren bat, iparraldeko biztanleak eta mendebaldeko biztanleak alde batera geratzen ziren. Gerran, *Forces de Libérations du Nord* eta armada aurrez aurre egon ziren. NBERen misioa zabaldu zen Boli Kostan 10.000 kasko urdinekin eta Boli Kostara bidalitako soldatu frantsesekin, bi aldeen erdian jartzeko. 2006. urtearen amaieran, ACNUR⁷⁰ erakundeak erregistratuta zuenez, 742.082 pertsonak etxetik ihes egin behar izan zuten, eta horietatik 709.228 barne-lekualdatuak ziren. 2007an, bakea lortu eta herrialdea batzea lortu zen, baina oraindik ere izaten dira indarkeria-gertakari larriak.

Boli Kostako Louisek gatazka-egoera horretaz hitz egin digu eta bere familia kalteberatasun-egoeran dagoela sumatzen duela esan du. Aita goi-mailako politikan aritzen da oposizioako talde bateko kide baita. Louis jaioteritik ateratzea ga-

⁷⁰ Errefuxiatuentzako Nazio Batuen goi-komisarioa. Nazio Batzuen Batzar Nagusiak 1950. urtean sortu zuen ACNUR eta mundu osoko errefuxiatu eta lekualdatuen premiak betetzeko lan egiten du. Urtean behin, munduan errefuxiatuta eta lekualdatuta dauden pertsonen egoerari buruzko txostenak egiten ditu.

tazka horrekin loturik dago zuzenean: estatu-kolpea izan zen egun berean atera zen adingabea herrialdetik. Elkarriketa egin genuenean, adingabea bere senitarte-koengatik kezkatuta zegoen, ez baitzuen lortu haiekin kontaktuan jartzea, eta aita-ren bizitza arriskuan egon zitekeelakoan zegoen.

Orain, nire aita politikaria da; ni handik atera nintzenetik, aspalditik ez dut haiekin hitz egin. Orduan ikusi nituen azkeneko aldiz albisteak, eta ez dakit harrapatu ote duten. Edo zer gertatu ote zaion; ez dut inolako berririk (...) Oso zaila da egoera; herrialdea zatituta dago: erdiak gobernuaren alde daude, eta beste erdiak errebel-deen alde. Nire familia orain ez dago arriskuan, baina edozein unetan egon daiteke. (Louis. Boli Kosta. 2007/02/23).

3. *Kongon*, 1993. urtetik 2003. urtera bitarte, gerra zibil luze bat izan zen gobernuaren eta gobernutik kendutako presidentearen aldeko milizien artean; miliziak boterera iritsi ziren berriz ere, baina gaur egun, ezin esan daiteke egoera erabat egonkortsu denik. Herrialdean sumatzen dira oraindik 10 urteko gerraren ondorioak; azpiegiturak suntsituta daude, ekonomia lur jota, sufrikario handia dago eta biztanle asko lekualdatuta daude⁷¹. Gerrak eragin duen narriadura orokorraren adierazgarri, 1990. urtearekin alderatuta, oinarritzko hainbat adierazlek okerrera egin dute. Gemma, Kongotik etorritako adingabea, aita eta ama gabe geratu zen gerran, eta bera eta bere ahizpa txiki-txikitatik umezurtz geratu ziren; gurasoen heriotzaren inguruko datu edo xehetasun gehiago ez dugu aurkitu.
4. 1975. urtetik 1991. urtera bitarte, *Mendebaleko Saharan* gerra izan zen Fronte Polisarioaren ⁷² (Saharako nazionalisten SEADen⁷³ mugimendu politiko-militarra) eta Marokoren artean; izan ere, deskolonizazio-prozesuan lurraldea okupatu baitzuen Marokok. Horren ondorioetako bat haxe izan zen: Aljeriako Tinduf-en errefuxiatu-esparruak sortzea; gaur egun oraindik ere bertan bizi dira 165.000 saharar⁷⁴. 1991. urtean bake-akordioa sinatu zen eta autodeterminazioari

⁷¹ ACNURen 2006ko txostenaren arabera, urte horretan oraindik ere 35.516 errefuxiatu zeuden.

⁷² Sahia el Hamra eta Río de Oro Askitzeko Fronte Popularra, Sahara askatzeko mugimendu politikoa, talde armatua ere baduela.

⁷³ 1976. urtean autoaldarrikatu zen Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa; gaur egun erbestean dago eta berrogei bat herrialdek onartu dute.

⁷⁴ ACNURen eta Aljeriako gobernuaren datuen arabera. Errefuxiatu gehienak Mendebaldeko Saharakoak dira baina Mauritaniako batzuk ere badira

buruzko erreferendum bat egitea adostu zuten, baina ez da erreferendumik egin eta aldean artean desadostasunak daude konponbide alternatibo bat bilatzeko garaian; beraz, gatazka irteerarik gabeko kale itsuan sartuta dago.

Egoera hori dela-eta, eta Marokok okupatutako Mendebaldeko Saharako lurraldeetan bizi den errepresio-egoera (politikaren eta kulturaren arloetan) kontuan izanik, 2004. eta 2005. urteetatik aurrera *intifada*⁷⁵ sahararra egiten hasi ziren, hau da, biztanleria zibilaren errebolta, autodeterminazio-eskubidea eta bestelako gizarte-eskubideak aldarrikatzeko. Mobilizazio horien kontra errepresio bortitza erabili izan da, eta gizarte zibilaren aurkako desagertzeak, heriotzak, bidezko epaiketarik gabeko espetxeratzeak eta errepresioa salatu izan dituzte. Lurraldearen estatus juridikoa eta subiranotasunaren gaia mahai gainean daude oraindik. Eremu horretan langabezia-tasa handiak daude, eta egoera gero eta larriagoa da sahararrentzat, Marokoko kolonoen mesederako diskriminazioa pairatzen baitute lan-arloan, lanpostu publiko bat, adibidez, lortzeko.

Lurralde horretatik datozen hiru gazteak elkarrizketatu ditugunean, euren burua saharartzat definitu dute, eta marokoarrak aipatzen dituztenean, beste herrialde batetakoak izango balira bezala hitz egiten dute. Bachir-ek dioenez, sorterritik abiatu aurretik, bere familia ez zen egoera onean bizi marokoarrekin harreman gatazka-tsuen ondorioz. Espainiara iritsitakoan, adingabeak jakin du Marokoko poliziak aita jo duela eta zangoan zauri larria eragin diotela; halaber, anaia txikia ere zauritu omen zuten, aita defendatzen saiatu zenean.

Marokoar putasemeak! Ez gaituzte bakean uzten. Sahararrak garelako. Eta orain nire aita gaixo dago; aita gaixo dago iazko abendutik. Zangoa gaizki dauka, Marokoko poliziak hautsi egin nahi izan ziolako. Nire aita sahararra delako, gu gerran gaude marokoarrekin (...) Bai, nire herrian polizia asko dago eta sahararra izateagatik jo egiten zaituzte. (Bachir. Mendebaldeko Sahara. 2007/06/14).

Azken urteotan *gatazkak bizi dituzten* beste herrialde batzuk era badira, *Ginea, Kongo eta Kamerun*, esaterako, baina elkarrizketatutako adingabeek esandakoa entzun ostean, ez zaigu iruditu gatazka horiek zuzenean eragin dietenik, nahiz eta euren herrialdea gerran egon⁷⁶.

⁷⁵ Matxinada.


⁷⁶ Gatazkak herrialde horietako ekonomian duen eraginaren berri zehatz-mehatz izateko, Estokolmoko Unibertsitateko *Institut for International Economic Studies* institutuaren urteko txostenak kontsultatzea komeni da.

5.2. Abiapuntuko testuingurua

5.2.1. Adingabeen jatorrizko herriak

Elkarriketatatu ditugun inoren kargura ez dauden adingabe migratzaile gehienak (% 82) hirietatik datoz; soilik % 16 dator landa-eremuetatik.

17. grafikoa
Elkarriketatutako adingabeen jatorri motak: hirikoa edo landa-eremukoa, 2007



Iturria: Egileak egina Euskal Autonomia Erkidegoko IKEDAMei egindako 50 elkarriketetan oinarrituta, 2008.

Landa-eremuetako adingabeak Marokokoak dira, gehienbat. Herrialde horri erreparatuz gero, ikusiko dugu landa-eremuetako adingabeak herrialdearen hegoaldekoak direla.

Gainerako adingabeen artetik marokotarrak ez diren bi soilik bizi dira landa-eremuetan⁷⁷: adingabe saharar batek Smara hiriaren inguruko herri batekoa dela dio, eta adingabe indiar batek dioenez, Indiaren erdialdeko herri batekoa da.

⁷⁷ Baina esan behar da agian adingabeek hiri ezagunak aipatu dituztela herri txikiak aipatu beharrean, elkarriketatzaileak herri txikiak ezagutuko ez dituelakoan.

31. taula

Elkarriketatutako adingabe marokoarren jatorrizko herri eta eskualdeak, 2007

Zonaldeak	Eskualdeak	Herria	Adingabe kopurua	Kop.	(%)
Iparraldeak	Tanger-Tetuan	Tanger Larache Ksar-el-Kbir	9 1 1	12	50
	La Oriental	Nador	1		
Erdialdea	Fez-Boulmane	Fez	1	2	8,3
	Casablanca Handia	Casablancaren inguruko hiria	1		
Hegoaldea	Marrakech-Tensift-El Haouz	El Kelaa-des-Skanha	3	10	41,7
	Marrakech-Tensift-El Haouz	Pueblo cercano Marrakechen	1		
	Tafilalet	Er-Rachidia	2		
	Tafilalet	Tijerna	1		
	Tadla-Azilal	Beni Mellal	1		
	Souss-Massa-Draa	Agadir	1		
	Souss-Massa-Draa	Tamtatux	1		
Guztira Maroko				24	100

Iturria: Egileak eginia Euskal Autonomia Erkidegoko IKEDAMEi egindako 50 elkarrizketetan oinarrituta, 2008.

Hiriguneetatik datozen adingabeei dagokienez:

- *Adingabeen % 16 dagokien herrialdearen hiriburukoak dira*, batez ere, Saharaz azpiko herrialdeetan: Luanda (Angola), Duala (Kamerun), Brazzaville (Kongo), Accra (Ghana) eta Conakry (Ginea).
- *% 6 herrialdeko hiri nagusitik datoz, biztanle kopuruari dagokionez*; kasu askotan ez da hiriburua izaten, baina de facto hiriburutzat funtzionatzen dute: Abidjan (Boli Kosta) eta Serekunda (Gambia).
- *Adingabeen % 6 hiri garrantzitsuetatik datoz, biztanle kopuruari dagokionez*; hala nola, Oran (Aljeriako bigarren hiria) eta Kumasi eta Takoradi (Ghanako bigarren eta hirugarren hiriak). Gainera, bi adingabe saharar Laâyoune-koak dira; lurraldearen hiriburutzat har daiteke eta hiririk jendetsuena da, baina gaur egun, Laâyoune-Boujdour-Sakia el Hamra izeneko departamentuaren hiriburua da, Marokoko sistema administratiboaren arabera.

- % 36 eskualdeburu diren hiriguneetatik datoz. Marokoko 11 adingabeen kasua da hori: bederatzi Tanger hirikoak dira, Tanger-Tetuan eskualdeko hiri nagusikoak, eta hiru hiri hauetako bana: Fez (Fez-Boulame-ko hiriburua), Agadir (Souss-Massa-Draa-ko hiriburua) eta Beni Mellal (Tadla-Azilal-eko hiriburua). Saharaz azpiko eremuan: Berekum (Ghanako Brong-Ahafo eskualdeko hiriburua), Tambacounda (Senegalgo izen bereko eskualdeko hiriburua), Koulikoro (Maliko Kolikoro eskualdeko hiriburua) eta Timisoara (Errumaniako Timis eskualdeko hiriburua).
- Azkenik, % 16 beste hiri batzuetakoak dira; hiri horiek ez dira hiriburuak, ez herrialdeko hiri populatuena edo garrantzitsuenak, ezta eskualdeburuak ere. Horien artean, sei marokoarrak dira, eta horietatik hiru Mediterraneoaren kostaldeko hirietakoak dira: bi Tangerren inguruko hirietakoak (Larache eta Ksar-el-Kbir), eta adingabe bat Nador-ekoa, eta beste hiru El-Keela-des-Sraghna-koak, hegoaldean. Horiei guztiei beste bi adingabe gehitu behar zaizkie, bata Ekuadorreko Imbabura eskualdeko Otavalo hirikoa, eta bestea Ghanako Erdialdeko Eskualdeko Achiasikoa.

Hortaz, badirudi emigratzen duten Saharaz azpiko adingabe gehienak hiriburuetatik edo herrialdeko hiri handietatik ateratzen direla, botere ekonomikoaren edo administratiboren guneetatik, alegia, eta, kasu askotan, komunikaziorik garrantzitsuenak izaten dira. Alabaina, Magrebeko adingabeen artean, eta hain justu, marokoarren artean, gehienak ere hirietatik datoz, baina 2002. urtetik aurrera (Comas, M. eta Quiroga, V., 2005), beste profil bat ere ikusi dugu: herrialdearen hegoaldeko landa-eremuetatik edo hiri txikiagoeetatik datozen adingabeen profila.

Herrialde horietan, hiriak hain azkar eta ordenarik gabe hazi direnez, agintariak eragozpenak izan dituzte hazkunde hori kudeatzeko eta oinarritzko zerbitzuen bidez herri-tar guztiak hornitzeko. Hiri askotan, guztientzako etxebizitzarik ez zegoenez, hiri-inguruan auzoak sortu ziren, auzo pobreak gehienetan, eta kasu askotan, norberak eraikitako etxeekin; hori horrela, txabolez osatutako auzoak ere sor zitezkeen.

Hiri-hazkundearen ondorioz sortutako auzoen eta adingabeen arteko erlazioaren adibide bat aztertu du Quirogak (2003): Tanger. Landa-eremuetako biztanleria Tanger hirira iritsi zenean, hiriaren hazkundea gertatu zen 1971-1981 aldian. Tanger hiriak biztanle horiek guztiak hartu ahal izateko, zentrotik kanpoaldera hazi behar izan zuen. Horrela, bada, inolako hirigintza-antolamendurik gabe sortu ziren auzo jendetsuak, migrazio-boladen

arabera. Tanger hiritik etorritako zenbait adingaberen senitartekoak herrialdeko beste zona batzuetakoak dira.

Adingabeak jatorrizko auzoei buruz eta, bereziki, euren etxeei buruz hitz egiten digutenean argi eta garbi agertzen da errealitate hori.

Adingabe marokoar asko, bereziki, hirietatik datozenak, etxebizitza txikietan bizi ziren, bi edo hiru gelako etxebizitzatan, eta etxe horietan, ikusi dugunez, familiako kide ugari bizitzera irits daitezke.

Guk logela bat dugu, egongela bat, sukaldea eta kitto. Eta goian, etxearen goiko aldean zera dugu.. arropa, zera... Arropa garbitzeko. (Hussein. Maroko. 2007/07/06).

Logela bakarrean egiten genuen lo (...) Eta bestean arropa eta gorde beharreko gauzak. (Tariq. Maroko. 2007/06/14).

Bai, bi logela, sukalde bat ... eta gu 10; ikusi izan bazenu nola lo egiten genuen... sardinak bezala, estu-estu. (Farid. Maroko. 2007/02/22).

Etxebizitza horietatik batzuk alokairukoak dira, baina familia askok etxea jabetzan izaten dute; izan ere, Marokon etxebizitza izateko ohitura handia dago, inguruko herrialdeetan baino gehiago.

Zenbait adingaberen etxebizitzetan, batez ere, Tanger hirian, ez dute oinarritzko zerbitzu-rik, hau da, argindarra (Mufid eta Imad-en etxeetan, Tangerren), edo ur korrontea, kaletik hartzen dutena (Hassan eta Ali-ren etxeetan, Tangerren) edo ez bata ez bestea (Ridaren etxean, Tangerren).

Gure etxeak solairu bat du, goian solairu-erdia, nire arrebak, bere semeak eta bere senarrak solairu-erdia (...). Ura badago baina gasik ez. (Mufid. Maroko. 2007/07/06).

Aldiz, *landa-eremuetatik edo hiri txikiagoetatik datozen adingabeak etxe handiagoetan bizi dira*; kasu gehienetan jabetzan izaten dituzte, baina alokairuan bizi diren familiak ere badira. Zenbait etxebizitzatan, ura putzutik ateratzen dute.

Solairu batean hamaika gela baino gehiago zeuden; etxea zentroa bezala zen, nahiko handia, patio eta guzti. Herrietako etxeetan, etxeak guk nahi dugun bezalakoak eraiki ditzakegu, nire herrian, baina hirian planoekin egin behar da. (Khaled. Maroko. 2007/02/23).

Gainerako adingabe magrebtarren etxebizitzak marokoarren batez bestekoa baino handixeagoak dira, antza. Aljeriako bi adingabeak hiru eta bost gelatako etxebizitzetan bizi dira, baina landa-eremutik datorren adingabe saharar bat etxebizitza tradizional batean bizi zen: haima bat, pezo edo adobezko eraikuntzarekin, argia bateria batetik lortuta, ura putzutik, eta orain dela gutxi arte, erregaia egurra izanik.

Saharaz azpiko adingabeen jatorrizko auzoei buruzko datu askorik ez dugu lortu, baina bai haien etxebizitzei buruzkoak. Haien bizitzaren beste zenbait alderditan sumatu dugu-nez, Saharaz azpikoen artean, etxebizitzak maila sozioekonomiko handixeagokoak dira, adingabe magrebtarrekin alderatuz gero.

Esate baterako, Paul Kamerungo gizarte-maila dirudunekoa da, bere etxeak bost gela ditu eta txikienak beretzako logela zuen; edo Jean, Kamerungoa hau ere, langile-mailako familia izan arren, bi solairuko etxebizitza dute jabetzan; edo Angolako Miguelen familia ere diruduna da eta etxebizitza ona dute, zerbitzu guztiekin, herrialdeko etxeekin konparatuz gero.

Duplexa baita, sei gela ditu (...). Begira, Angolako nire etxeaz ari garela, nik bane-kien etxe ona zela. (Miguel. Angola. 2007/02/23).

Batzuetan, etxeak xumeagoak dira, eraikuntza merkeagokoak, Nabyk Ginean zuena be-zala: zorua lurrezkoa du, hormak adreiluzkoak eta sabaia uralitazkoa, baina bost logela, egongela eta telebista badituzte. Edo handiak badira ere, beste senitarteko batzuekin ba-tera bizi dira; esate baterako, Otman-en Ghanako etxean zortzi logela dituzte baina aito-na-amonak eta osaba ere bertan bizi dira; edo Maliko Alpha-ren kasuan, etxea oso handia da baina berrogeita hamar bat lagun bizi dira.

Bai, handia... lau, bost, sei, zazpi, zortzi ez, bederatzi. Bai, zortzi mutilekin, ez da-kit nola esaten zaion... nire aita, anaia, zera... semeak eta alabak. (Otman. Ghana. 2007/02/21).

Etxe horietako zenbait jabetzakoak dira, baina familia batzuek etxeak alokatzen dituzte.

Etxe hau ez da nire familiarentzat, baina nire aitak beti ordaintzen du alokairua. (Emmanuel. Ghana. 2007/02/21).

Adingabe batzuen senitartekoak etxe xumeetan bizi dira; Angolan, Arturren etxean ez dute ur korronterik, putzutik ateratzen dute, eta argindarra baduten arren, ez dago legez-tatua.

Etxeak hiru gela eta sukaldea zituen, haiek egin zuten egurrak pilatuta. (Joseph. Ghana. 2007/02/21).

Bai, baina ez da legezkoa (argia) Ez da enpresa bat, ez dago kontraturik; jende hori gauzak bilatu eta jende askori saltzetik bizi da, baina ez dago legeztatua, ez dago paperik eta ez dago ezer ez. (Artur. Angola. 2007/08/29).

Beste nazionalitateetako adingabeei dagokienez, ez dugu testuinguru horri buruzko informaziorik.

5.2.2. Familiak eta haien egoera soziofamiliarra

5.2.2.1. Familiaren osaera eta familia-harremanak

Jatorrizko herrialdeetan, familia tradizionalak aldatu egin dira azken urteotan. Hiritartze-prozesuen eta landa-eremutik hirira emigratzearen ondorioz, aldaketa horiek azkarrago gertatu dira. Hala eta guztiz ere, familia da, oraindik ere, gizarte-bizitzaren, batasunaren eta bizilekuaren oinarria eta nukleoa; kasu askotan, familiako kideen arteko elkartasunari esker lortzen da taldeak bizirautea.

Marokoko familia-eredu tradizionallean, aita da familia-agintaria eta aginte hori gizonezkoen artean transmititzen da. Espazio publikoa gizonentzat soilik izaten da, eta gizonek egin behar dute lana familia hornitzeko. Emakumeak etxean egoten dira, eta eginkizun nagusia seme-alabak eta senarra zaintzea izaten da.

Baina ikusiko dugunez, familiaburua askotan hilik, gaixo, erretiraturik edo lana aurkitu ezinean egoten da, eta orduan, familia horiek gehiago aldatzen dira; rol zaharrak birbanatu egiten dituzte eta emakumeak lan-munduan sartzen dira.

Baina egoerak bultzatutako aldaketa horietaz gain, gizartean eta familia-ereduan aldaketa sakonagoa gertatzen ari dela esan dezakegu: familia nuklearra eta familia zabala batera egotea, emakumeek izaten duten haurren kopurua murriztea, emakumeen eskolatzeko-maila hobetzea, ezkontzeko adina atzeratzea eta emakumeak lan-munduan eta esfera publikoan sartzea.


Saharaz azpiko familia tradizional gehienetan ere (orokortze horrek zentzua baldin badu, behintzat), antzeko aldaketak gertatu dira. Familia-agintaria gizona izan ohi da,

baina emakumeak presentzia askoz handiagoa izan du esfera publikoan. Saharaz azpiko Afrikako herrialde askotan, emakumeak arduratzen dira familia zaintzeaz, baina horrekin batera, lana ere egiten dute: nekazaritza-lanetik hasi eta merkataritza txikira bitarte.

Elkarrizketatutako adingabeen familietan, *familia nuklearrak dira nagusi*: etxeko familia-unitatean aita, ama eta seme-alabak sartzen dira. Eredu nagusia hori da, baina hala ere, ez da harritzekoa noizean behin beste senitartekoren bat ere etxean bertan bizitzea: aurreko ezkontideren baten seme-alabak, aita edo ama, gurasoen anai-arrebak, seme edo alabaren ezkontidea eta seme-alabak.

18. grafikoa

Elkarrizketatutako adingabeen familia motak, 2007



Iturria: Egileak egina Euskal Autonomia Erkidegoko IKEDAMEi egindako 50 elkarrizketetan oinarrituta, 2008.

Elkarrizketatutako adingabeen artean, % 62 *familia nuklearrean bizi dira*, hau da, aita, ama eta seme-alaba ezkongabeak, etxekoen unitate berean.

Etxekoen unitateen % 16 guraso bakarrekoak dira, hau da, aitarekin edo amarekin bizi dira, baita anai-arrebekin ere, gurasoen bikotea bereizi, banandu edo dibortziatu egin delako. Adingabeen % 12ren kasuan, *gurasoetako bat edo biak hil egin d(ir)a*, eta % 8ren gurasoak *dibortziatu edo banandu egin dira*; kasu horietan, adingabeak


bietako batekin bizi dira, edo beste senitartekoren batekin (aitona-amonak, osaba-izebak).

Adingabeen % 16 familia zabal motaren batean bizi dira. Alde batetik, % 4 familia zabal poligamoan bizi dira: Koulikoro-ko (Mali) Alpha-ren aita poligamoa da eta familia-nukleoa honela osatuta dago: aita, hiru emazte seme-alabekin, eta beste hainbat senitarteko, hala nola, aitaren anaiak eta haien emazteak. Ghanako Josephen aita ere poligamoa da eta bere amarengandik dibortziatuta dago; bi emazte berri ditu eta haien seme-alabekin bizi da, baina adingabeak denboraldi luzeak igarotzen ditu aitaren aldeko aitona-amonekin.

Beste kasu batzuetan (% 12), *familia zabalak dira etxe berean senitarteko gehiago bizi direlako*: familia nuklearra gehi seme edo alaba ezkonduen bat, haren bikotekidea eta seme-alabak; edo bestela, Marokoko hegoaldeko Khaled-en kasuan bezala, etxe berean osaba-izebak eta lehengusuak ere bizi direla.

19. grafikoa

Elkarrizketatutako adingabe marokoarren familia motak, 2007




Iturria: Egileak egina Euskal Autonomia Erkidegoko IKEDAMei egindako 50 elkarrizketetan oinarrituta, 2008.

Adingabeen % 6 beste senitarteko batzuekin bizi dira (aitona-amonak, osaba-izebak, anai-arrebak): Ghanako Otman aitona-amonekin bizi da, edo Kongoko Gemma, ahizparekin bakarrik bizi da.

Elkarrizketatutako *adingabe magrehtarren* familiak, oro har, *familia nuklearretan egituratuta egoten dira; adingabeak aitarekin, amarekin eta anai-arrebekin bizi dira*. Magrehtarren % 82 kasu horretan dago. *Adingabeen % 18ren kasuan, familiaren egoera bestelakoa da banantzeak edo dibortzioak gertatu direlako, edo aita hil delako; edo Zaidaren kasuan, adibidez, aita Frantzian igarotzen du urte ia osoa eta bera Nabor-en bizi da ama eta anai-arrebekin, eta aitaren aurreneko emaztearen semearekin eta haren familiarekin batera.*

20. grafikoa

Elkarrizketatutako Saharaz azpiko adingabeen familia motak, 2007



Iturria: Egileak egin Euskal Autonomia Erkidegoko IKEDAMEi egindako 50 elkarrizketetan oinarrituta, 2008.

Proportzioan, elkarrizketatutako *Saharaz azpiko adingabeen familiak ez dira egituratzen* (ez hainbeste, behintzat) *familia nuklearraren ereduari jarraiki, alegia, aita, ama eta seme-alabak etxekoen unitate berean bizi direla; betiere beste nazionalitateetako adingabeen familiek in alderatuta. Saharaz azpiko adingabeen % 55 aitarekin eta amarekin bizi dira, baina lehen ere aipatu dugu Maliko Alpharen kasua: aitaren beste bi emazteak ere etxe berean bizi dira, seme-alabekin eta beste senitarteko batzuekin; eta Ghanako Otman, adibidez, aitona-amonekin bizi da.*

Nik bi... hiru ama ditut. (Alpha. Mali. 2007/05/23).

Saharaz azpiko adingabeen aiten % 28 hilda daude: Angolako Arturren aita 1992. urtean hil zen; Kamerungo Jeanena; Gineako Kemoko-rena; Kongoko Gemmaren aita eta

ama txikitan hil ziren; edo Gambiako Beni-ren kasu dramatikoa. Beniren ama kristaua zen eta aita musulmanarekin ezkondu zen bere familiaren borondatearen kontra; ez zenez islamera bihurtu, senarraren familiaz ere urrundu zen. Senarra 2002an hil ostean, berak ezin izan zuen bere familiarengana itzuli, baina ez zuen senarraren familiaren babesik ere jaso.

Nire ama kristaua da; beraz, nire aita nire amarekin ezkondu zenean, bere familiak ez zuen ulertu zergatik ezkondu zen gizon musulman batekin. Gero, aita hil zenean, ama ez zegoen gustura aitaren familiarekin ere, haiek ez baitzuten nahi aita amarekin ezkontzerik. Nire aitak nahi zuen ama musulman bihurtzea. Nire aitak dio ezin dela, baina nire aitak nahi luke, ulertzen duzu? Gero, aita hil zenean, amak ezin izan zuen familiarengana itzuli. (Beni. Gambia. 2007/08/29).

Saharaz azpiko adingabeen % 11ren gurasoak bananduta daude: Ghanako Josephen gurasoak banandu egin ziren berak bi urte zituela, eta aitarekin bizi izan zen, amarekin ia harremanik izan gabe; baina aita berriz ezkondu zenean, amaren aldeko aitona-amonekin bizitzera joan zen. Senegalgo Mamadu aitarekin eta anai-arrebekin bizi zen, eta badaki amak beste seme-alaba batzuk izan dituela beste gizon batzuekin, baina bere anai-arrebak izan arren, ez ditu ezagutzen.

Saharaz azpiko adingabeen % 11 beste senitarteko batzuekin bizi da familia baduten arren; Otman, adibidez, aitona-amonekin eta osaba-izebekin bizi da Accra-n, eta Ernest amaren anaiarekin bizi da.


Afrikakoak ez diren beste hiru adingabeak familia nuklearretan bizi ziren jatorrizko herrialdean: aitarekin, amarekin eta anai-arrebekin, baina ez dugu kasu berezirik ezagutzen.

Grafikoan ikus daitekeenez, *adingabeen familia gehienetan lau-zazpi anai-arreba dira*⁷⁸.

⁷⁸ Honako hauek hartu ditugu anai-arrebatzat: alde batetik, aita eta ama bereko anaiak eta arrebak, eta bestetik, aitaren edo amaren aldetik soilik senide izan arren, adingabearekin harremana badutenak, etxe berean bizi direnak, anai-arreba moduan hazi direnak... Ez ditugu anai-arrebatzat hartu aitak edo amak osterako beste harreman batean izandako seme-alabak, adingabeak ezagutzen ez dituenak, eta askotan zenbat diren ere ez dakiela.

21. grafikoa

Elkarriketatutako adingabeen anai-arreba kopurua, 2007



Iturria: Egileak eginga Euskal Autonomia Erkidegoko IKEDAMei egindako 50 elkarriketatutako oinarrituta, 2008.

Kasu bakar batean gertatu da adingabea seme bakarra izatea: Agadir-eko Nadim. Bost kasutan bi anai-arreba ziren eta horietatik lau kasutan aita hila zegoen; horregatik dira bi senide bakarrik.

Adingabe marokoarren familietan, seme bakarra den adingabearen kasuan izan ezik, *gainerakoetan lau anai-arreba baino gehiago dira*: sei familietan lau senide dira, sei senideko lau familia daude, zazpi senideko hiru, zortzi senideko hiru eta bederatzi senideko bi. Aljeriako bi familietan ere lau eta sei senide dira, eta sahararren kasuan, bi (baina gurasoak bananduta daude), sei eta bost.

Saharaz azpiko familien artean, familia-eredua antzekoa da: *seme-alaben kopurua oso handia da*. Ez dago seme edo alaba bakarrik; hiru familia daude soilik bi senidekoak, baina hain justu familia horietan aita hil egin da. Hiru seme-alabadun familien bi kasuetan, batean aita hil zen. Lau senideko bi familia daude, bost senideko sei familia, sei senideko bi familia, zazpi senideko familia bat eta zortzi senideko beste familia bat, eta lehen ere aipatu dugun Maliko adingabearen kasuan, aita poligamoa da eta adingabeak ez daki ziur zenbat anai-arreba dituen.

Afrikakoak ez diren adingabeen familiei dagokienetz: adingabe hinduaren familian bi senide dira; Ekuadorreko adingabearen familian bederatzi, eta Errumaniakoaren kasuan hiru.

Hurrengo taulan ikus daitekeenez, emakume bakoitzak izaten duen seme-alaba kopuruak behera egin du gaur egun 1970-1975 aldiarekin alderatuta, herrialde horietan guztietan.

32. taula
Ugalkortasun-tasaren bilakaera, 1970-75 eta 2000-05

Herrialdea	Ugalkortasun-tasa, guztira 1970-1975	Ugalkortasun-tasa, guztira 2000-2005
Espainia	2,9	1,3
Errumania	2,6	1,3
Aljeria	6,0	2,5
Maroko ⁷⁹	7,4	2,5
Ekuador	6,9	2,8
India	5,3	3,1
Ghana	6,7	4,4
Kongo	6,3	4,8
Kamerun	6,3	4,9
Boli Kosta	6,6	5,1
Gambia	7,0	5,2
Senegal	7,0	5,2
Ginea	7,2	5,8
Mali	7,4	6,7
Angola	7,6	6,8

Iturria: PNUDen Giza Garapenari buruzko Txostena 2007/2008, 2008. Egileak egina.

Ugalkortasuna gehiago jaitsi da Magrebeko herrialdeetan eta Afrikakoak ez diren adingabeen herrialdeetan, eta Saharaz azpiko herrialde afrikarretan ez hainbeste; emakume bakoitzak izaten duen haur kopuruaren batez bestekoa lau haur baino gehiago da, adingabeak igortzen dituzten Saharaz azpiko herrialde guztietan.

Alabaina, ugalkortasunaren jaitsiera hori ez da sumatzen, ez erabat, elkarriketatutako adingabeen familiatan. Alde batetik, adingabeen adina dela-eta: adingabeak jaio zirenean familietan ugalkortasun-eredu zaharrak ziren nagusi oraindik. Bestetik, jaitsiera horrek ez die maila berean eragiten herrialde bateko biztanle-sektore guztiei: landa-eremuko familietan haur gehiago izaten dituzte, baina baita hirietako auzoetako familiek ere, landa-eremuetatik baitatoz. Hirigune guztiek ez diote eredu berari jarraitzen, eta hiri beraren barruan hainbat eredu aurki daitezke, auzoaren arabera. Hori horrela da, esate baterako,

⁷⁹ Mendebaleko Sahara barnean hartuta.

Tangerren kasuan (Quiroga, 2003); bederatzi adingabe Tangerrekoak dira eta hiriaren kanpoaldeko auzoetan landa-eremuko ugalkortasun-ereduei eutsi zaie, familia asko landa-eremukoak direlako.

Azkenik, zera esan dezakegu, *familiak zenbat eta garapen ekonomiko eta gizarte-maila handiagoa izan, orduan eta haur gutxiago izateko joera dago*. Baina arau horiek ez dira beti betetzen; Saharaz azpiko familia askoren ustez seme-alaben kopurua aberastasunaren adierazgarri da; hortaz, egoera ekonomiko onean bizi diren familiek haur asko izan ditzakete, gizarteari maila on horren berri emateko.

Baina familiaren osaera eta senide kopurua garrantzitsuak badira adingabearen jatorrizko testuingurua ezagutzeko, ziurrenik, adingabearen migrazioarekin loturik, *familiaren jatorriari dagokion gako-alderdietako bat* haxe da: *adingabea zenbatgarren senidea den*.

- *Elkarriketatutako adingabeen % 28 lehenengo semea edo alaba dira*. Marokoarren artean, El-Keela-ko Mustafa eta Abdel, Agadir-eko Nadim eta Mohammed eta Zaida; sahararren artean: Bachir eta Brahim; Ghanako Joseph eta Joe; Angolako Miguel; Gambiako Beni; Ekuadorreko Pablo; Mukesh indiarra eta Kongoko Gemma, bi ahizpa biki direla.
- *Seme zaharrenak ez diren adingabeen % 16 lehen gizonezko senidea da anai-arreben artean*: Marokoko Mustafa eta Mufid, Mendebaldeko Saharako Bachir, Kamerungo Paul, Gineako Naby eta Kemoko, eta Boli Kostako Louis.
- *% 16 seme zaharrenak ez ziren arren, familiarekin bizi zirenean familia-etxebizitzan bizi zirenen artean seme zaharrena ziren*. Kasu gehienetan, seme zaharrenak ez ziren etxean egoten beste herrialderen batera emigratu zutelako lan egitera: Beni aljeriarraren anaia zaharrena Espainiara joan zen; marokoarren kasuan: Rahimek bi anaia zaharrago ditu Espainian, Mufidek ere beste anaia zaharrago bat du Espainian, Hassanek anaia zaharragoa du Donostian; Ghanako Emmanuelen bi anaia zaharrenak ere beste herrialde batera joan dira lanera; Gineako Kemokoren anaia zaharrena Gambiara joana da lanera, eta Errumaniako Danielen anaia zaharrena ez da herri berean bizi. Talde horretan sar dezakegu Marokoko Mariam ere; izan ere, bere anaia zaharrena Italian dago eta bera, neska izan arren, zaharrena da.

Adingabeen % 60k familiaren sostengu ekonomikoa izateko erantzukizuna har dezake bere gain, anai-arreben arteko posizioa dela-eta. Baina batzuetan, kontrako egoera gertatuta ere, hau da, senide gazteena izatea eta gurasoak jada adinekoak, gerta daiteke gura-

soek adingabeen gaineko diziplina eta kontrola lasaitzea (Quiroga, 2003) eta adingabeek libreago ikustea beren burua migrazio-proiektuari ekiteko.

- *Adingabeen % 8 senide gazteenak dira.* Marokoarren kasuan: Tariq, zazpi senideren arteko gazteena; Akran, sei senideren arteko gazteena, eta aitak hirurogei urte ditu; eta Rahim bost senideren arteko gazteena, baita Aljeriako Mufid ere, lau senideren artean gazteena.
- *Adingabeen % 32 tarteko posizioen batean daude senideen artean.*

5.2.2.2. Familia-harremanak

Euskal Autonomia Erkidegora iritsitako adingabeei dagokienez, *ez da gatazka larririk atzeman familia barruan* (adingabearekiko tratu txarrak edo genero-indarkeria, esaterako) baina bai eztabaidak eta istiluak, inolako garrantzirik gabeak. Adingabeen esanetan, *gurasoekin izandako gatazka txiki gehienak nerabezaroan berez sortzen diren gorabeherak dira*: adingabeak askatasun handiagoa nahi du eta gurasoek seme-alabak bideratu eta hezteko betebeharra dute; horren ondorioz, guraso eta seme-alaben artean desadostasunak eta tirabirak sortzen dira.

Bai, harreman ona, maitekorrak ziren, baina hona etorri aurretik ez nuen harreman ona haiekin; Ghanan nengoelarik eskolara joan nahi nuen baina nire aitak ez zuen dirurik eskola ordaintzeko eta nik dirua lortu behar nuen eskolara joateko; orduan, ni haserre nengoen haiekin lan egin behar nuelako eta ezin nuelako eskolara joan. Eskolara joateko eskubidea nuela uste nuen. (Emmanuel. Ghana. 2007/02/21).

Etiketarik atera eta oso berandu itzultzen nintzen. Ekuadorren, 10ak oso berandu da eta orduan (...) errieta egin zidaten eta bi aldiz bota ninduten. (Pablo. Ekuador. 2007/02/22).

Beste adingabe batzuen arabera, *gurasoak oso zorrotzak ziren edo gurasoekiko urruntasun handia* eta konfiantza txikia *zuten*, baina kontakizun horiek erlatibizatu egin behar dira, jatorrizko gizarte askotako *familia-ereduaren* esparruan txertatuz; izan ere, eredu horietan *aita da familia-agintaria* eta seme-alabek aitekiko izan beharreko jokabide-arau nagusia errespetua da. Askotan, ordea, *ama gertuagokoa eta amultsuagoa da*, eta adingabeek konfiantza handiagoa dute amarekin; aldiz, aita falta baldin bada, agintari-eginkizuna beren gain har dezakete eta seme-alabek arauak betetzearen erantzule izan.

Nire aita etxera etortzen zen eta agurtzen gintuen: «egin al ditugu etxeko lanak?» «Ongi!» Eseri egiten da, bazkaldu... Nire aitak ez du hitz egiten; nire aita gizon

zera bat da... nahiko motela. Nire amarekin hobeto... «egin al duzue ez-dakit-zer lan?» «Eta ez duzu atera behar bihar azterketa hau duzu-eta». Nire aita ez zen hain-beste arduratzen, ulertzen?. (Miguel. Angola. 2007/02/23).

Ez dut gogoan aitak inoiz ezer komentatu izana; gurekin egoten zen, eta gauean iris-ten zenean denak bere inguruan biltzen ginen eta kitto. Bera pozik zegoen; beretzat hori zen bere bizimodua, lan egin eta seme-alabekin eta amarekin egotea; nire aitak ez zuen lagunik... (Farid. Maroko. 2007/02/22).

Beste adingabe batzuek esan digutenez, gurasoekin harreman ona zuten: Tangerreko Rahim senide gazteena da eta denek mimatu egiten dute.

Oso harreman ona nuen, etxeko seme baten moduan. (...) Haiek zaindu egiten ninduten, etxeko txikiena nintzen-eta. Ongi zaintzen ninduten, pozik nengoen. (Rahim. Maroko. 2007/02/21).

Marokoko bi neska adingabeen kasua bestelakoa da; familiekin gatazkak zituzten (oso gatazka desberdinak) eta migrazioan erabakigarria izan zen hori. Beste azterlan batean (Alonso, 2008) atzeman dugunez, neska adingabeen kasuan, familiaren barruko gatazka-egoera nesken irteeraren eragileetako bat izan daiteke.

Nador-eko Zaida-ren kasua: amarekin eta senide gazteagoekin bizi zen Marokon eta aitak Marseillan lan egiten zuen; urtean behin joaten zen aita bisitan, hilabeteko oporraldian. Aitaren bigarren emaztea da bere ama, eta bien artean urte askotako aldea dago (hogei urte baino gehiago). Zaidak dio ez duela harreman ona aitarekin.

Nire aita izaera txarrekoa da eta jende gutxik du harreman ona berekin; agian nire amak bai, baina han gauzak ez dira hemen bezala; adibidez... nire ama ezkondu egin zuten aita ikusi ere egin gabe. Ez dakizu norekin ezkonduko zaren, hartzen zaituzte, ezkondu eta gero, senarrak jo egiten bazaitu edo dena delakoa, ezin izango duzu ezertxo ere egin. Bere emaztea zara eta kitto; eta are gehiago haurrak izaten badituzu. Amak, ezkondu zenean, ni izan ninduen aurrena, eta bera dator nire atzetik; orduan, ezin zuen alde egin guri utzita, txiki-txikiak izanik. Eta gainera, nora joan? Bere familiak ez zuen ongi hartuko, pobreak direlako. Kanean geratuko al zen? Ez zuen nahi; han geratu zen gurekin, egoera jasaten, orain arte. (Zaida. Maroko. 2007/09/24).

Nire ikaskide izandako neska guztiak, denak, ezkondu egin dira. Horregatik, nik ez nuen han geratu nahi izan, zeren ikasi, ikasi eta ikasi egiten duzu, eta 18 urte betetzen dituzunean familiak zera esaten dizu: zer lortuko duzu? Abokatua izango zara? Hemen ez duzu ezer lortuko. Ezkondu egin behar duzu eta han, ez dago ongi ikusia neskak ez ezkontzea. Ezkondu egin behar duzu. Nik horregatik egin nuen ihes. (Zaida. Maroko. 2007/09/24).

Beste kasu bat aipatuko dugu, Beni Mellal-eko Mariam-ena: familia-harremanetan zailtasun larriak izan zituela esan digu. Adingabea haurdun geratu zen Valentzian bizi zen mutil-lagunarekin izandako harremanaren ondorioz, baina mutilak ez zuen ezkondu nahi izan; amari esan zion, konfiantza handia baitzuen amarekin, eta egia esan, amak lagundu zion haurdunaldiaren proba egiten. Probaren emaitza positiboa zela ikusita, abortatu nahi izan zuen, baina haurdunaldiaren laugarren hilabetea gainditu zuen. Haurra Marokon izan beharko zuelakoan, amak emigratzera bultzatu zuen eta aitari eta Itailan bizi zen anaiari ez zien egoeraren berri eman. Neska adingabeak ez zuen alde egin nahi, baina amak arren eskatu zion, aitak alaba edo baita ama ere hilko zituen beldur, familiaren ohorea zikindu zutelako.

Nire amak gernua hartu eta botikara eraman zuen; bere lagun batena zela esan zuen. Baietz esan zuten, haurdun nengoela. Orduan, nire amak zera esan zuen, hilko zaitu, eta neu ere hilko nau. Nire amak faxa bat erosi zuen nik jartzeko. (Mariam. Maroko. 2007/02/21).

5.2.2.3. Ekonomia eta lana

Adingabe magrehtarren aiten lanari dagokionez, aiten % 48k ezin du lanik egin edo ez du familia mantentzen hainbat arrazoiengatik: edo erretiratuta daude, edo zaharregiak dira lan egiteko (bost kasu), edo ez dute lanik egiten gaixo daudelako (zazpi). Gainera, adingabe baten aita hil egin da, eta beraz, ezin du familia mantendu. Horiekin batera, beste adingabe baten gurasoak bananduta daude eta amaren anaiarekin bizi denez, osaba horrek mantentzen du.

Nire aita orain gaixo dago. Beno, gaixo ez, batzuetan lan egiten du, baina gorpuztean gauza batzuk ateratzen zaizkio, ez dakit nola izena duen. Bero handia dagoenean, ezin du lanik egin. (Nadim Maroko. 2007/07/04).

Saharaz azpiko adingabeen aiten % 33k ere ezin du familia mantendu. Horien artean, gizonetzko familiaburuak familia mantendu ahal ez izatearen arrazoi nagusia aita hila egotea da: bost kasu dira. Beste kasu batean, aita erretiratuta dagoelako.

Magrebeko nahiz Saharaz azpiko familia-eredu tradizionalan, familiaburu den heinean, aitari dagokio familia mantentzea. Arrazoiaren bat dela medio (gaixotasuna, erretiroa eta abar) aitak betebeharrak hori bete ezin duenean, familia ekonomikoki mantentzeko erantzukizuna semeek dagokie, bereziki, seme zaharrenari, baina beste anaiek ere senti dezakete betebeharrak hori betetzeko premia.

Magrebeko adingabeen kasuan, *lan egiten duten aitek kualifikazio-maila txikiko enpleguak eta enplegu prekarioak* dituzte, hirigunetan: artisauak (zapataria), langileak (peoiak, igeltsero-laguntzaileak), merkataritxiak (saltzaileak...) eta zerbitzuak (taxi-gidaria, garbiketaria, atezaina...). Enplegu horietako batzuk informalak dira (kaleko salmenta) eta beste batzuk nahiko prekarioak izaten dira, adibidez, astean egun gutxitan lan egiten duten langileak, edo denboraldi batean lan egin eta beste batean lanik egin gabe egotea. Hegoaldean, nekazaritza-lana eta merkatuetan nekazaritzako produktuen salmenta dira nagusi.

Saharaz azpiko adingabeen kasuan, lan egiten duten aiten enpleguaren profila maila handixeagokoa da, baina kualifikazio-maila txikiko lanak dira nagusi, kasu horretan ere: landa-eremuetako nekazariak, saltzaileak, garraiolariak edo paletak. Baina antza, baldintzak hobeak dira: esate baterako, denda beraiena da, Magreben ez bezala, non aitek besteren dendetako saltzaileak diren, edo kaleko salmentan aritzen diren.

Bai, nekazaria, eta batzuetan, autobusarekin ere aritzen zen. (Adel Ghana. 2007/02/22).

Aitonak lurra du lehenik. Aitona hiltzen denean, seme zaharrenari. Nire aita seme zaharrena zen. Orain, nire aita da etxeko nagusi. (Alpha. Mali. 2007/05/23).

Baina soilik *Saharaz azpiko*en artean aurkitu dugu goragoko kategoriako enpleguen profila, Magreb inguruan ez bezala: Angolan, aita bat graduazioko militarra da, edo esportatzeko produktuen merkataritzan aritzen den beste bat Kamerunen, edo Boli Kostan kargu politikoa duen bat. Aurrerago ikusiko dugunez, horrek guztiak lotura handia du migrazio-proiektuarekin, gurasoek erabakitako proiektuarekin, alegia, eta, bereziki, arrazoi politikoaren ondorioz.

Nire aitek lehen, zera..., nola esaten zaio, kokoaren elkartrukean lan egiten du. Berak kokoa erosten du Ghanako presidentearentzat. (Emmanuel. Ghana. 2007/02/21).

Bai, militarra da. Karguduna. Hirugarren Generala; hemen ez dakit nola doan hori guztia. (Miguel. Angola. 2007/02/23).

Beste nazionalitateetako hiru adingabeen hiru aitek lan egiten dute; adingabe errumaniarraren aita zenbait lan izan ditu, eta, gaur egun, burdina forjatzeko negozio batean ari da. Ekuadorreko adingabearen aita nekazaria da, eta adingabe indiarrena igeltseroa.

Nire aita lan batetik bestera ibili da, burdina forjatuarekin, trokelgintzan eta beste hainbat gauzatan. (Daniel. Rumania. 2007/02/21).

Elkarriketatutako adingabe guztien % 40ren kasuan, aita (familiaburu birtuala) gaixo, erretiratur, hila edo ezindua dago familia mantentzeko. Lehen ere aipatu dugunez, egoera horretan *adingabeak senti dezake familia artatzea bere erantzukizuna dela* eta balizko konponbidetzat emigratzeko ideia bururatzeko lagungarri izan daiteke faktore hori. Lan egiten dutenen artean, nekazaritzako eta kualifikazio-maila txiki-kiko lanak dira nagusi, baita merkataritza txikiak eta eraikuntzarekin loturiko lanak ere. Saharaz azpiko adingabeen zenbait kasutan soilik aurkitu ditugu goragoko kategoriarako enpleguak.

Amen lanari dagokionez, Afrika iparraldean gero eta emakume gehiagok egiten du lan, baina hala ere, ama magrebtarren artean, soilik lauk lan egiten dute (guk dakigula), eta lau horiek hirietan bizi dira. Horien artean, hiru garbiketara eta etxeko zerbitzuan aritzen dira, eta besteak Tangerreko portuko ehungintza-fabrika batean. Lau kasuetan, emakumeak familiaren mantenuaz arduratu behar izan du, kasu batean aita hil delako, beste bi kasutan aita gaixo edo lanerako ezindua dagoelako, eta laugarren kasuan aitak oso diru gutxi irabazten duelako eta amak ere lan egin behar izan du (aitak baino diru gehiago irabazita ere).

Marokon neskek ez dute lan egiten. (Amin. Maroko. 2007/02/23).

Nire amak etxeetan lan egiten du, garbitzen. Garbiketara. (Yusuf. Maroko. 2007/06/14).

Portuan, arropa-fabrika batean lan egiten du (...) Egunean hamabi orduz aritzen da (...) 120 euro hilero. (Talal. Maroko. 2007/06/14).

Saharaz azpiko adingabeen amen artean, lauk lan egiten dute; merkataritza da jarduerarik nagusia eta lau horietatik hiru aritzen dira horretan: Ghanako, Kamerungo eta Angolako bana. Iraupeneko produktuen merkataritzaren sektorean emakumea da nagusi Saharaz azpiko herrialdeetan. Amek lan egiten dutela dakigun hiru kasuetatik, bi kasutan senarrak hil egin ziren eta amak merkataritza txikian aritzen ziren merkatuetan; hirugarren kasuan, aldiz, senarra esportazioko merkataritzan aritzen zen eta ama produktuak saldu eta erosten (azken kasu horretan familia diruduna zen). Azkenik, laugarren emakumea Gambiakoa da, eta senarra hil ostean, senarrak produktuak saltzeko lantzen zuen lurra eraldatu eta iraupeneko nekazaritzari ekin behar izan dio, familia hornitzeko.

Adingabe afrikarrek esan digutenean haien amek lan egiten dutela⁸⁰, kasu horiek bat datoz, askotan, aital mantenuaz arduratu ezin duen kasuekin (hil delako, dibortzioagatik edo soldata txikiegia izateagatik) eta amek bereganatu behar izan dute eginkizun hori.

Beste nazionalitateetako adingabeen amei dagokienez, Errumaniako ama jostuna da eta ama indiarrek frutak eta barazkiak saltzen ditu merkatuan; Ekuadorreko adingabeak ez digu esan amak lan egiten ote duen.

Anai-arreben lanari dagokionez, adingabeen % 36k jatorrizko herrialdean lan egiten duten anai-arrebak dituzte.

Magreben, gehienetan, kualifikazio-maila txikiko enpleguetan aritzen dira anaia zaharra-goak: soldatzaile, igeltsero, lorezain, arropa-saltzaile, zerbitzari, mekanikari; landa-eremuetan, nekazaritzan edo ahuntzain aritzen dira.

Bakoitza bere gauzetan aritzen da; anaia batzuek ez dute ezer egiten, ez dago lanik, ez dago ezer, eta zer egingo duzu? Etxean. (Tariq. Maroko. 2007/06/14).

Duela bi urte, ahuntzekin ere hasi ziren. (Amin. Maroko. 2007/02/23).

Saltzailea ere bada, autoen txatarra saltzen du. (Kasib. Maroko. 2007/08/29).

Marokoarren artean, soilik bi arrebak lan egiten dute: Husseinen arrebak eta Fariden arrebak. Lehenak arropa-fabrika batean, eta familiaren euskarria da, ez aital (gaixo da-goelako), ez amak ez baitute lanik egiten. Fariden arreben kasuan, bata telebistako aurkezlea da kanal berebere batean, bestea biologoa da Frantzian, eta hirugarrena erizaina da. Gainerako arrebak edo «etxean» lan egiten dute, edo «senide txikiak zaintzen» dituzte, edo ezkonduak daude eta senarrek mantentzen dituzte.

Arropa-makina batean (...) Hilean 100, 200 euro. (Hussein. Maroko. 2007/07/06).

Bera Rabateko ospitale batean ari da; izan ere, batxilergoa ikasten ari zen eta ikasten jarraitu nahi zuen, baina kontua da lan-eskaintza bat atera zitzaiola, zeren nire arre-

⁸⁰ Alabaina, baliteke beste zenbait kasutan amek etxeko eremutik kanpo lan egitea, adibidez, nekazaritzan edo etxeko baratzetako soberakinak eguneroko merkatuan saltzen, baina adingabeen ustez, amak «lan egiten duela» esan daiteke familiaren mantenuaz arduratzen denean; bestela, amen lan horiek «laguntzatxo» bat bezala ikusten dituzte.

bak kontaktuak baititu Marokon, eta badakizu Marokon nola diren gauzak... dena entxufe bidez... bada, ospitale batean entxufatu zuten. (Farid. Maroko. 2007/02/22).

Saharaz azpiko adingabeen artean, hiruren arrebek lan egiten dute: Boli Kostako Louisen arrebak ile-apaintzaileak dira; aita hilik duen Gambiako adingabearen arreba familiaren landa-eremuan aritzen da, eta aita hilik duen Gineako adingabearen anaia Gambiara joan da, eta han elikagai-denda bat du.

Gainerako senideen artean, batzuek eskolako oporraldian aitari laguntzen diote familiako negozioan, betiere denda baldin bada.

Bi arrebak ile-apaindegian lan egiten dute. Eta besteak txirikorda-ileordeak saltzen ditu. (Louis. Boli Kosta. 2007/02/23).

Bestalde, adingabeen % 14ren anai-arrebek beste herrialderen batean lan egiten dute, bereziki Europan, baina Gineako adingabearen kasuan, haren anaiak Gambian lan egiten du eta handik bidaltzen du dirua.

Familien % 8ren kasuan, kideren bat familiarekin bizi da eta diru-sarreraren zati bat familiarentzat izaten da: Marokon, osaba bat soldatzailea da eta familiarekin bizi denez, lagundu egiten du; edo Marokoko edo Ghanako aitona-amonak nekazaritzan aritzen dira; edo Mendebaldeko Saharan, ama banandu baten aita den aitona familia mantentzen du erretiro-pentsio frantsesari esker.

Nire aitona-amonek lan egiten dute. Haiek ere bai, nekazariak, kakaoa. (Joseph. Ghana. 2007/02/21).

Nire aitona Frantziatik ekarri zuen dirua. Frantzian lan egiten zuen. Orain erretiratu dago eta ordaindu egiten diote. (Brahim. Mendebaldeko Sahara. 2007/09/17).

Elkarriketetan, adingabeei eskatu genien *familiaren egoera ekonomikoari buruz pentsatzen zutena azaltzeko*. Adingabe magrehtarren kasuan, % 38k esanbidez aipatu zuen *familiaren egoera ekonomikoa txarra zela edo diru gutxi zutela*. Batzuek gabeziak ere aipatu zituzten, baliabide ekonomikoen eskasiaren ondorioz; Tangerreko Ridaren kasuan, elektrizitaterik ez zuten, edo Yusufen kasuan, eskolara joateari utzi behar izan zion familian ez zutelako eskola ordaintzeko nahiko diru.

Ez dugulako dirurik horretarako... (Yusuf. Maroko. 2007/06/14).

Nik gauzak erosi nahi nituen, baina haiek ez zuten dirurik izaten erosteko, inoiz ez. Diruarekin ez zitzaigun iristen jateko ere, baina gutxi jaten genuen. (Talal. Maroko. 2007/06/14).

Saharaz azpiko adingabeen artean, % 33k ere esanbidez adierazi du zailtasun ekonomikoak dituztela: Ghanako Adelen kasuan, gurasoek esan zioten ez zutela dirurik eskolara joan ahal izateko; Ghanako Joeren kasuan, anaiak ezin zuen unibertsitatara joan diru faltagatik; Gambiako bi familiak pobreak dira; Kongoko ahizpek esandakoaren arabera, bizilagunen laguntzari esker bizi ziren; edo Maliko Alpharen kasuan, familian gabezialdiak izan zituzten, uztei esker bizi baitziren.

Behin eskolara joan nintzen eta denbora askoz ez zegoen dirurik eskola ordaintzeko. (Adel. Ghana. 2007/02/22).

Nekazaria, saldu ez. Beste behin erosi zuten, baina etxea oso handia da eta nekazaritzarekin ezin izan genuen elikatu, urte batean. Beste batzuek erosten dute. Nire familian, nekazaritza hiru gauzarekin eta lau lorategi, tomateekin, tipulak, platanak... (Alpha. Mali. 2007/05/23)

Hala ere, *Saharaz azpiko adingabeen artean, maila ekonomiko handiagoko familien profila* ere aurkitu dugu: Boli Kostako Louisen arabera, ongi bizi ziren; edo Kamerungo Paulen familia diruduna da, eta Angolako Miguelen familia goi-mailakotzat har daiteke.

Inoiz ez digute esan, sentitzen dut, ni saiatzen naiz galdetzen, baina diru asko irabazten du, beraz, ez. Bai, nire aitaren familian gehienek unibertsitateko ikasketak dituzte. Diputatuak dira, zera dute, mediku bat... Nazioarteko Zuzenbidea ikasten ari dira, ongi bizi dira. Beste batzuek banketxean lan egiten dute... (Miguel. Angola. 2007/02/23).

Beno, seme-alabek jan dezaten. Soldata badu. Koronela da, baina ez dute ongi irabazten; zuk soldata justua duzu, eta kitto. (Louis. Boli Kosta. 2007/02/23).

Afrikakoak ez diren adingabeen kasuan, Ekuadorreko adingabeak dioenez, bere familia ez da ez pobrea, ez aberatsa; adingabe indiarren esanetan, ia jateko ere ez zuten izaten. Adingabe errumaniarren kasuan, langile-mailako familia zen eta diru-sarrera justuekin bizi ziren.

Lan egindakoarekin, ozta-ozta jateko eta bizitzeko izaten genuen, ez gehiagorako. (Daniel. Errumania. 2007/02/21).

Oro har, zera esan dezakegu, *emigratzen duten adingabeen familiek zailtasun ekonomikoak dituztela*, baina *Saharaz azpiko adingabeen kasuan, zenbait familiak ez du inolako zailtasun ekonomikorik eta erdi-mailako edo baita goi-mailako klasekoak ere izan daitezke*. Egoera ekonomikoa txarra ez den kasuetan, adingabeek herrialdean izandako indarkeria-egoeren ondorioz abiatu behar izan zuten.

5.2.3. Familiaren heziketa-maila

5.2.3.1. Familiaren heziketa-maila

Gurasoen heziketa-mailari eta alfabetatzeari dagokionez, ez dugu informazio askorik. Magrebeko familien kasuan, gurasoen heziketa-maila oso txikia edo oinarritzkoa dela esan dezakegu. Adingabe marokoarren gurasoei dagokienez, % 60k zertxobait ikasi du: batzuk lehen hezkuntzan aritu dira, beste batzuk eskola koranikora joan dira eta irakurtzeko eta idazteko gai dira, baina % 40k dio beren gurasoak ez direla eskolara joan eta ez dakitela ez irakurtzen, ez idazten. Baina amen kasuan, proportzio hori alderantzikatu egiten da: informazioa dugun kasuetan, amen % 90 ez da eskolara joan eta analfabetoak dira (baina bi marokoarren kasuan, gaur egun ikasten ari dira gobernuak bultzatutako helduentzako alfabetatze-kanpaina bati esker). Ama marokoar batek lehen hezkuntzako ikasketak egin dituela badakigu, eta badaki irakurri eta idazten.

Nire aitak bai, badaki arabez irakurri eta idazten, eta frantsesez pixka bat ere bai... burua zera samar dauka... Esaten zidan mezkitan ikasten zutela eskolarik ez zegoe-lako, baina duela urte asko, hirurogeiko edo hirurogeita hamarreko hamarkadan. (Khaled. Maroko. 2007/02/23).


(Aita) auzoko mezkitora joan zen eta badaki pixka bat irakurtzen eta idazten, baina ez du ikasketa handirik. (...) (ama) ez; orain ari da ikasten Marokoko gobernuaren plan bati esker; analfabetismoaren kontra ari dira, jendeak zertxobait ikas dezan. (Farid. Maroko. 2007/02/22).

Nire amak ez. Nirea ama oso pobrea zen, herri batean bizi zen gurasoekin, eta ezin zuten eskolara bidali. Izan ere, garai haietan jendea oso pobrea zen eta ezin zuten libururik erosi. (Zaida. Maroko. 2007/09/24).

Saharaz azpiko gurasoei buruz dakiguna kontuan izanik, % 80k ikasi du; horietatik bi unibertsitatara iritsi dira eta bakar bat badakigu ezetz. Informazioa dugun amei dagokienez, % 57k ikasketak egin ditu, baina, oro har, maila oinarritzkoan, batek izan ezik, erdi-mailako ikasketak egitera iritsi baitzen eta horri esker, administrari-lanetan aritu zen.

22. grafikoa

Elkarriketatutako adingabeen senideen heziketa-maila, 2007



Iturria: Egileak egina Euskal Autonomia Erkidegoko IKEDAMei egindako 50 elkarriketetan oinarrituta, 2008.

Bada, hori ez dakit. Baina asko ikasi du, unibertsitatera ere iritsi da. (Louis. Boli Kosta. 2007/02/23).

Nire amak ere ikasi du, idazkaria zen, bankuko idazkaria, baina bankuak ez zuen funtzionatzen. (Paul. Kamerun. 2007/02/22).

Ez, nire amak oso gutxi ikasi zuen; eskolara joan zen baina oso gutxi ikasi zuen. (Miguel. Angola. 2007/02/23).

Afrikakoak ez diren adingabeen gurasoen eskolatz-mailari buruzko informaziorik ez dugu lortu.

Anai-arreben eskolatzeari dagokionez, elkarriketatutako adingabeen % 60ren anai-arrebei buruzko informazioa soilik eskuratu dugu; baina hala ere, esan dezakegu, oro har, gurasoen belaunaldiak baino heziketa-maila hobea duela belaunaldi horrek. Horien artean, kasuen % 66tan, adingabearen anai-arreba guztiek ikasketak egin zituzten, eta soilik % 7tan ez zuten ikasketarik egin. Azkenik, kasuen % 27tan anai-arreba batzuek ikasi zuten eta beste batzuek ez.

Ikasi duten senideei erreparatuta, *magrebtarrek*, oro har, 15 eta 16 urte bitarte ikasten dute, baina zenbait marokoarrek *lehenago uzten dio eskolara joateari*, adibidez, Er-Rachidia-ko Munir-en anaiek seigarren mailaraino (12-13 urte) ikasi zuten eta utzi egin behar izan zuten, lanean hasteko. Fez-eko Fariden senideek soilik amaitu dituzte bigarren mai-

lako ikasketak eta goi-mailako ikasketak egiten hasi dira. Magrebeko adingabeen senideen kasuan, ikasketarik egin ez dutenak familia marokoarrekoak dira, bata Marrakecheko eta bestea Tangerrekoa.

Ez, ez zen nire amaren kontua. Amak uzten zigun nahi genuena egiten, anai-arrebak ziren... nik, adibidez, nire gurasoek ez dute asko ikasi, eta ni txikienetakoan izanik, gogoan dut nik 10 urte nituela nire arrebek dagoeneko 23 zituztela eta unibertsitatean ari zirela; hainbat karrera egin dituzte: biologia, artea, kazetaritza... eta familian geundenean, gurekin hitz egiten zutenean, senideak izan dira irakasbide. Anai-arrebek esaten ziguten zein bide jarraitu, gu txikiak ginen, baina... (Farid. Maroko. 2007/02/22).

Saharaz azpiko familietako anai-arreben heziketa-maila handiagoa da. Dulee-ren arreba analfabetoaren kasua izan ezik, ez dugu ezagutzen eskola behar baino lehenago utzitako kasu bat bera ere, eta, antza, senide guztiek bigarren mailako heziketa amaitu dute. Gainera, senide batzuk goi-mailako ikasketak egiten ari dira; hala nola, Kamerunen, Joeren arreba matematikak ikasten ari da; Angolan, Miguelen arrebak erizaintza eta hegazkineko laguntzaile izateko ikasten ari dira Frantzian; Ginean, Nabyren anaiak hogeitau urte ditu eta hizkuntzak ikasten ari da: frantsesa eta gaztelania; Senegalen, Babakarren bi anaia unibertsitatean daude, bata matematikak ikasten eta bestea zientzietako karrera bat.

Nire anaia zera egiten ari da... ez dakit hemen nola esaten zaion, ingenierie informatikoa, baina ez dakit, agian nire amarena bezala, matematika kontua da. (Paul. Kamerun. 2007/02/22).

Frantzian ikasten ari da, orain erizaina izango da. (Miguel. Angola. 2007/02/23).

Elkarriketatutako adingabeen % 16ren kasuan (denak marokoar bat izan ezik), senide batzuek ikasi dute eta beste batzuek ez. Kasu guztietan ez dakigu oso argi zergatik: batzuetan, anaia zaharrenak dira eta ez dute ikasteko aukerarik izan familiari lagundu behar ziotelako; aldiz, txikienek ikasi ahal izango zuten. Baina beste kasu batzuetan, ikasketak egitearen arrazoia, edo ikasketak gehiago edo gutxiago irauteko arrazoia ekonomikoa baino ez da.

Ikasketak egin dituzten eta egin ez dituzten senideen arteko bereizketa argi eta garbi sexuarekin loturik dago kasuen % 10etan: *anaiak eskolara joaten dira eta arreba/ahizpak etxean geratzen dira familiari laguntzeko*: Ouarzazate-ko Aminen arreben kasua, edo El-Keela-ko Mustafaren arrebaren kasua (14 urte ditu eta ez da eskolara joaten;

ezkondu egin behar du), Er-Rachidia-ko Akran-en arreba zaharrena ere ez da inoiz eskolara joan, ezta Tetuango Yusufen arrebak ere, dirurik ez zutelako; aldiz, anaiak bai, joan dira. Ikus daitekeenez, azken kasua kenduta, beste hirurak hegoaldeko, landa-eremuetako familiak dira, eta familietan generoarekin loturiko gizarte-rolen banaketa tradizionalagoari eusten diote: neskek landako lanetan lagundu behar dute, eta gazte ezkontzea da egokiena, familia berria osatzeko. Azkenik, Gambiako Dulee-ren arreba zaharrenaren kasua aipatu behar dugu; ez da eskolara joan eta analfabetoa da, baina anaiek ikasi dute.

33. taula

Alfabetatzearen eta matrikulazioaren tasak, 2005⁸¹

Herrialdeak	Helduen alfabetatze-tasa	15-24 urteko gazteen alfabetatze-tasa	Lehen hezkuntzako matrikulazio-tasa garbia	Bigarren hezkuntzako matrikulazio-tasa garbia	5. mailara iritsi diren haurrak (lehen hezkuntzako 1. urteko ikasleen %-a)
Espainia	99,0	99,0	99	98	100
Errumania	97,3	97,8	93	80	—
Ekuador	91,0	96,4	98	52	76
Aljeria	69,9	90,1	97	66	96
Maroko ⁸²	52,3	70,5	86	35	79
India	61,0	76,4	89	—	73
Ghana	57,9	70,7	65	37	63
Kongo	84,7	97,4	44	—	66
Kamerun	67,9	74,0	—	—	64
Gambia	42, ⁸³	—	77	45	—
Senegal	39,3	49,1	69	17	73
Ginea	29,5	46,6	66	24	76
Angola	67,4	72,2	—	—	—
Boli Kosta	48,7	60,7	56	20	88
Mali	24,0	—	51	—	87

Iturria: PNUDen 2007/2008ko Giza Garapenari buruzko txostena, 2008. Egileak egina.

⁸¹ Tasa eta ehuneko guztietan ez da hamartar bat agertzen, baina datuak horrela ageri dira PNUDen 2007/2008ko Giza Garapenari buruzko Txostenean.

⁸² Mendebaleko Sahara barnean hartuta.

⁸³ Estimatu.


Eskura ditugun datuetan, familien alfabetatzeari eta eskolatzeari buruzko datuak jatorrizko herrialdeko estatistika orokorrekin alderatuz gero, ezer baino lehen, zera ikusiko dugu, *belaunaldi gazteen alfabetatzean hobekuntza izan dela belaunaldi zaharrekoen alboan*, eta gure laginean ere sumatu dugu hori. Zenbait herrialdetan esfortzu handia egin dute ildo horretatik, eta herrialde guztietan hobetu dira ikasleen matrikulazio-indizeak eta alfabetatze-indizeak.

Baina *hezkuntza-sistema* horietan *arazo* ugari izaten dituzte, eta askotan, *baliabide nahikorik eta behar adina irakasle ez izateagatik* gertatzen dira. Adibidez, Senegalen, hezkuntza-sistemaren egoerak okerrera egin du azken urteotan: eskoletan ez dago tokirik ikasle guztientzat, gero eta gehiago baitira, eta gainera, ez dago ikasgela guztietarako nahiko profesional. Eta konponbidea zera izan da, ikas-mailak bi txandatan banatzea: goizez eta arratsalde, eta unibertsitateko ikasketak amaitzen ari diren gazteak kontratatatu dituzte, irakasle izan daitezen. Horren ondorioz, maila, oro har, jaitsi egin da.

5.2.3.2. Adingabeen eskolatzeari

a) Eskolatzeko-urteak

Adingabeen % 98 noizbait joan dira eskolara, eta badakite irakurtzen eta idazten. Baina alde handiak daude lehen hezkuntza, gutxi gorabehera, burutu dutenen eta ikasketak maila horretan utzi dituztenen artean.



Iturria: Egileak egina Euskal Autonomia Erkidegoko IKEDAMEi egindako 50 elkarrizketetan oinarrituta, 2008.

Ikasi duten adingabeak lehen hezkuntzan *hasten dira eskolan, hau da, sei-zazpi urterekin*, baina kasuren batean *beranduago ere hasi da. Adingabe gehienek lehen hezkuntza amaitzen dute* (12 urtera bitarte) baina batzuk bost urte baino gutxiagoz joaten dira eskolara, Marokoko adingabeetako zazpiren kasuan bezala.

Txikitan, eskolan hasi nintzenean, zortzi urterekin. Eskola utzi nuenean 13 nituen. (Samir. Maroko. 2007/04/20).

Eskolan bost urte baino gutxiago igaro dituzten adingabe marokorrek zazpi dira: hiru hegoaldekoak: El Keeka-ko Mustafa, 11 urterekin eskolara joateari utzi eta familiako ahuntzak zaintzen hasi zen; Er-Rachidia-ko Akran, 11 urterekin utzi zion; eta Marra-kech inguruko herri bateko Mohammed oso berandu hasi zen eskolan, 11 urterekin, baina 16 urtera bitarte joan zen. Gainerako lau adingabeak Tangerrekoak dira eta oinarri-oinarrizko eskolatzea jaso dute; irakurtzen eta idazten badakite, baina gehienez hiru urte egon dira eskolan, eta askotan, ez modu jarraituan: Mustafak badaki irakurtzen eta idazten, baina oso gutxi joan da eskolara, Mufid zortzi urtetik 11 urtera bitarte eskolatu da, Tariq sei urtetik bederatzi urtera eta, azkenik, Yasin zortzitik 12ra.

Gainerako adingabe magrebtarren kasuan (*Aljeriakoak eta Saharakoak*), *lehen hezkuntza amaitu dute eta bigarren hezkuntza hasi ere bai*, baina batzuek handik abiatu baino lehentxeago utzi zuten, migrazioaren hasiera zela-eta.

Zenbait adingabe kexu da, ikasleek eskolan jasaten duten tratua dela-eta; izan ere, tratu txarrak jasotzen dituztenez, adingabe batzuk ez dira gustura joaten eskolara.

Eskolan ere jo egiten gintuzten, eta nik zera pentsatu nuen, tira, hau ezin da egin, eta plan bat egin genuen adierazteko guk ez genuela sartu nahi; nik ikasle guztiak konbentzitu nituen eta 30 ikasle kanpoan geratu ginen. Hartara, eskolan gertatzen zena-ren berri eman ahal izan genuen eta presio eginez, irakaslearen atean geratu ginen eta ez zen inor ere sartu. Eskolako zuzendaritzara joan nintzen eta esan nien irakasle horrek gaizki tratatzen gintuela... (Farid. Maroko. 2007/02/22).

Saharaz azpiko adingabeen artean, bakarra da analfabetoa, Gineako Kemoko, hain zu-zen; aita hil egin zen eta haren familia egoera ekonomiko larrian dago.

Eskolatze prekarioaren bi kasu topatu ditugu: Kongoko Gemma eta Boli Kostako Louis. Gemmaren kasuan, txikitan baino ez zen eskolara joan eta oso urte gutxiz; Louisen kasuan, familia erdi-mailako klasekoa izan arren eta aitak unibertsitateko ikasketak dituen arren,

modu ez-jarraituan eskolatu izan da adingabeak piper egiten zuelako eta eskolatik ihes egiten zuelako behin eta berriz, nahiz eta gurasoek askotan errepikatzen zioten joan behar zuela.

Haiek zioten ikasi egin behar nuela gure familia pobrea delako, eta ikasiz gero, aurre-
rago ministro edo horrelako zerbait izan naiteke... eta guk, etxera joatean jatekoa bage-
nuenez eta arropa ere garbi izaten genuenez, ez nuen ikasteko gogorik. Izan ere, esko-
lara eraman egiten ninduten, eta nik ihes egiten nuen. (Louis. Boli Kosta. 2007/02/23).

Saharaz azpiko gainerako adingabeek ikasi dute. Ikasketa-mailarik handienak Angolako eta Kamerungo adingabeek lortu dituzte; bigarren hezkuntza bukatu dute eta Kamerungo Paulen kasuan, esaterako, hegazkineko pilotu izateko ikasten hasia zen. Aitzitik, herrialde anglofonoetatik (Ghana eta Gambia) etorritako adingabeek utzi diote goizen eskolara joateari, bereziki, Gambiakoek: Duleek 12 urterekin utzi zion eskolara joateari, eta Benik ere goiz utzi behar izan zuen aita hil ostean sortutako arazo ekonomikoen ondorioz. Ghanakoen artean, 14 urte bete aurretik eskola alde batera utzi duten bi adingabe daude: Adel-ek 12 urterekin utzi behar izan zuen lanean hasteko, eta Emmanuelek 14 urte bete baino lau hilabete lehenago, eskola ordaintzeko arazo ekonomikoak zituztelako; Ghanako gainerako adingabeak 14-15 urtera bitarte joaten dira eskolara, hau da, derrigorrezko eskolatzea amaitu arte. Gainerako adingabeak 16 urtera bitarte edo herrialdetik alde egin arte egon ziren eskolan.

Haiek egoeraren berri ematen zidaten, ez zitzairen gustatzen, baina ez zuten dirurik ordaintzeko. Nik, lehen, ez nuen ulertzen zergatik ez zuten dirurik. (Emmanuel. Ghana. 2007/02/21).

Izan ere, lehen ezin nuen eskola ordaindu. Bai, oso garestia da, eta irakurtzeko libururik ere ezin nuen erosi. Lan egin behar nuen (...). Behin eskolara joan nintzen eta denbora askoz ez zegoen dirurik eskola ordaintzeko; beraz, ordaintzen ez bada, denbora askoz ordaintzen ez bada, eskolako irakasleak... (Adel. Ghana. 2007/02/22).

Antza, adingabe gehienek eskola publikoetan ikasi dute, Angolako Miguelek izan ezik (eskola pribatu batean ikasi baitzuen) eta Ghanako Joseph-en kasuan, barnetegi batean ikasi ez ezik, bizi ere egiten zen ikasturtean. Ikasketen eraginez etxetik kanpo bizi zen beste adingabe bat ere bada: Maliko Alpha aitaren lagun baten etxean bizi da asteen zehar, eskolara joan ahal izateko, eta trukean, landa-lanetan laguntzen dio. Gambiako Dulee-k eskola koraniko batean ikasi zuen txikitán.

...Hilean 150, bakarrik ...nik, 150, nire arrebek ere ordaindu behar zuten... 150 euro (...) Bai, han, garai haietan, jendea eskola pribatueta joateak zera esan nahi zuen, aitzak dirua zuela, eta eskola publikoetan askoz manifestazio gehiago iza-

ten ziren... eta hori guztia, ulertzen? Horregatik ez diote behar bezala ordaintzen, hau eta bestea... eta hurrek ez... (Miguel. Angola. 2007/02/23).

Beste nazionalitateetako adingabeei dagokienez: adingabe errumaniarrak lehen eta bigarren hezkuntza amaitu zituen; Ekuadorrekoak lehen hezkuntza burutu zuen baina ez dakigu ikasten jarraitu ote zuen; adingabe asiarrak denbora gutxiz joan zen eskolara, gurasoek ez baitzuten dirurik ordaintzeko.

Adingabeen eskolatzeko urteak beren herrialdeetako derrigorrezko hezkuntzarekin eta lehen eta bigarren hezkuntzaren iraupenarekin alderatuz gero, konturatu gara familia guztiek ez dutela betetzen seme-alabak eskolatzeari buruzko araudia.

34. taula

Derrigorrezko hezkuntzaren (lehen eta bigarren hezkuntza) iraupena eta jatorrizko herrialdeetako hezkuntza-sistemaren hasierako eta amaierako adinak, 2007⁸⁴

Herrialdeak	Derrigorrezko hezkuntzaren iraupena	Derrigorrezko hezkuntzan sartzeko adina	Derrigorrezko hezkuntza bukatzeko adina	Lehen hezkuntzaren iraupena	Bigarren hezkuntzako 1. zikloaren iraupena	Bigarren hezkuntzako 1. zikloan sartzeko adina
Angola	4	6	9	4	4	10
Aljeria	9	6	14	6	3	12
Kamerun	6	6	11	6	4	12
Kongo	6	6	16	6	4	12
Boli Kosta	10	6	15	6	4	12
Ekuador	10	5	14	6	3	12
Gambia	5	7	12	6	3	13
Ghana	9	6	14	6	3	12
Ginea	6	7	12	6	4	13
India	9	6	14	5	3	11
Mali	7	7	16	6	3	13
Maroko ⁸⁵	9	6	14	6	3	12
Errumania	8	7	14	4	4	11
Senegal	6	7	12	6	4	13

Iturria: UNESCO⁸⁶, 2008. Egileak egina.

⁸⁴ Lehen hezkuntzan sartzeko adina ez da agertzen, derrigorrezko hezkuntzan sartzeko adinarekin bat datorrelako.

⁸⁵ Mendebaleko Sahara barnean hartuta.

⁸⁶ BEYOND 20/20 [Sarean on line]. Montreal: UNESCO Institute for Statistics. 2008ko uztailaren 15eko kontsulta. Helbide honetan eskuragarri: <http://stats.uis.unesco.org/unesco>

Zenbait kasutan, ikus daiteke *derrigorrezko eskolatzea amaitzen denean adingabearen bizitzan beste etapa bat hasten dela*: eskola utzi eta lan-munduan sartzen da, eta kasu batzuetan, *aldaketa hori izan daiteke sorterritik alde egiteko ideia eragin duen arrazoiak*.

b) *Eskola uzteko adina eta arrazoiak*

Eskola zenbat urterekin utzi zuten badakigun *adingabe magrebtarren* kasuan, gehienek *13 urtetik 16 urtera bitarte utzi zuten*. Soilik bi kasutan jakin dugu adingabeek lehenago utzi diotela eskolara joateari, 11 eta 12 urterekin, alegia, eta bi kasuetan arrazoi ekonomikoengatik. *Saharaz azpiko adingabeen kasuan*, gehienek *14 urtetik 16 urtera bitarte* uzten dute eskola, baina Kongoko adingabeak behar baino lehen utzi zion joateari, eta Boli Kostakoak eskolatze-maila oso txikia du behin eta berriz ihes egingen zuelako eskolatik. *Beste nazionalitateetako adingabeei* dagokienez, Ekuadorreko eta Errumaniako adingabeek lehen hezkuntza amaitu zuten eta errumaniarrak bigarren hezkuntza ere ikasi zuen, baina hinduaren kasuan, lehen hezkuntza amaitu aurretik utzi zituen ikasketak.

Adingabeek esandakoaren arabera, *eskola uzteko arrazoiak* askotarikoak dira:

1. *Migrazio-proiektuaren hasiera* aipatu dute adingabeen % 25ek. Kasu horietan, adingabeek beren kabuz utzi zioten eskolara joateari, Marokoko Mariam-en kasuan izan ezik; izan ere, haurdun geratu zenez, amak bultzatu zuen handik alde egitera. Horietatik gutxietatik zortzi magrebtarrak dira eta lau Saharaz azpikoak.

15 urtera bitarte. Bai, hona etorri nintzen arte. (Miguel. Angola. 2007/02/23).

Egunero ez (nintzen eskolara joaten). Ni itsasontziak zeuden tokira jaitsi nintzen (Hussein. Maroko. 2007/06/06).

2. Lanean hasteagatik utzi zioten ikasteari adingabeen % 22k. Normalki, gazteenen artean eskola uzteko ideia familiarrena izaten da, baina adingabe zaharra goetan, al-diz, haiei burura dakieke, edo familiak bultzatuta, edo bi aldeak ados egonda. Horietatik gehienak (zazpi) magrebtarrak dira, bat Saharaz azpikoa da eta Ekuadorreko nahiz Indiako adingabeak kasu horretan sartzen dira.

Ikasketak amaitu nituen eta aitarekin lanean hasi nintzen baratzean. (Khaled. Maroko. 2007/02/23).

Marokon bizitza latza da eta nik bizimodua bilatu behar nuen. (Kasib. Maroko. 2007/08/29).

Nire aita hil zen arte. Ez nuen inor nire eskola ordaintzeko (...) Eta nire amak mekanikako garaje batean sartu ninduen mekanikari izaten ikasteko. (Beni. Gambia. 2007/08/29).

3. Adingabeen % 16k bigarren hezkuntza amaitu ostean uzten diote ikasteari, baina soilik bi adingabek adierazi dute hitzez: Saharaz azpiko batek eta erru-maniarrak. Hori horrela izanik, Saharaz azpiko beste adingabe batzuek ere (esanbidez aipatzen ez duten arren) ikasketak utzi baino gehiago, etapa bat amaitzen dute eta ez diote hurrengo etapari ekiten; adibidez, Ghanako lau adingabeak, 14-15 urterekin derrigorrezko eskolatzea amaitu dutela, edo Angolako adingabeetako bat eta Kamerungo beste bat, bigarren hezkuntza ere amaitu dutela.
4. Adingabeen familiak eskola ordaintzeko dirurik ez zuelako ikasteari utzi zioten adingabeen % 8k. Bi magrebtar eta Saharaz azpiko beste bi adingabe daude kasu horretan, baina horrek ez du esan nahi lanean hasi zirenik, beste kasu batzuetan ez bezala.

Zure familiak ez badu dirurik ezin duzu jarraitu; beti ordaindu egin behar da. (...) 14 urte betetzeko lau hilabete falta zirela, eskola amaitu zen; lehen joaten nintzen, nik jarraitu behar nuen, baina dirurik ez zegoen eta etxean geratu nintzen 14 urte, 15 urte egin arte. (Emmanuel. Ghana. 2007/02/21).

Ez genuen dirurik liburuak erosteko, gauzak erosteko... (Tariq. Maroko. 2007/06/14).

5. Adingabeetako sei gero eta gogo txarragoz joaten dira eskolara. Eskola-ibilbidearen une jakin batean, adingabeak eskolara joateari uzten dio eta ikasteko interesa galtzen du; horixe aipatu dute Saharaz azpiko adingabe batek eta Magrebeko bi adingabek.

c) *Eskolari buruzko ikuspegia adingabearen eta familiaren aldetik*

Adingabe magrebtarren artean, gehienek jarrera positiboa dute eskolarekiko, ikas-tea gustuko zutela diote, eta batzuk penatuta ere badaude eskola behar baino lehen utzi behar izan dutelako, ikasten jarraitu nahi zutelako. Akran edo Zaida dira horren adierazgarri.

Ikastea gustuko dut, baina ez Marokon. Ez delako dirurik irabazten. (Ismail. Maroko. 2007/02/21).

Zenbait adingaberen gurasoek nahi dute seme-alabek ikastea, haiek izan ez zituzten aukerak izan ditzaten, eta esfortzu handiak egitera ere irits daitezke hori lortzeko.

Nire senideak Khenifra-ko institutuan zeuden baina han ez dago unibertsitaterik; Meknes-era edo Fez-era joan behar dugu. Bai, nire aitak hitz egin zuen horretaz militarrekin, Fez-era lekualdatzeko militar-lanetarako, baina Fezen, etxe txikitxo batera eraman gintuzten; bi gela zituen eta gu hainbeste izaki... Beno, baina garrantzitsua zen nire senideak unibertsitatera joan zitezkeela. (Farid. Maroko. 2007/02/22).

Zenbait familiak behin eta berriz esan arren, *beste zenbait adingabe magrebtar ez daga gustura joaten eskolara, eta lan-munduan lor dezaketanak gehiago erakartzen ditu*. Ziurrenik, adingabe horiek ez dute aurkitzen inguruan ikasten jarraitzera bultzatuko dituen erreferente positiborik, ez baitute uste ikastea denik itxaropenak betetzeko bidea. Eta erreferenteak izanda ere (Fariden kasuan), ikasketa-maila handia izateak lan-munduan posizio hobea ez duela bermatzen ikusi du.

Beno... jendeak ateratzen dena... pobreek ez dute ezer ere, ospetsuren baten edo antzekoren baten semea edo alaba ez bazara, edo ezagunik ez baduzu, izorrai. Han izorrratu egiten zaituzte, larrutu. (...) Nik ezagutzen dudana jende askok ikasi du; karrera bat egin dute, ikasketa guztiak amaitu dituzte, eta kalean daude, auzoko gazteekin erretzen. (Rahim. Maroko. 2007/02/21).

Gustatu...ez...eta horrela dirua dut, badakizu, arropa ere eros dezaket, janaria. (Beni. Aljeria. 2007/02/22).

Saharaz azpiko adingabe guztiek (batek izan ezik) jarrera ona dute eskolarekiko. Guraso gehienek nahi dute seme-alabek aurrera egitea eta haien ustez, eskolara joatea hori lortzeko bidea izan daiteke.

Haiek (gurasoek) etxea utzi zidaten ikasteko, haiek etxean egoten ziren nik ikasteko. (Joseph. Ghana. 2007/02/21).

Nire aitak beti esaten zidan ikasi egin behar nuela, zeren bera ez baitzen inoiz joan eskolara eta bere seme-alabak joan daitezen nahi du. (Joseph. Ghana. 2007/02/21).

Nire aitak zera nahi du, mundu guztiak ikastea. (Paul. Kamerun. 2007/02/22).

Haiek esfortzu handia egiten dute lanean eta ... seme-alabei dena eman nahi diete, ulertzen? Gauza bakarra eskatzen digute: guk ikastea nahi dute, etorkizun hobea izan dezagun. (Miguel. Angola. 2007/02/23).

Saharaz azpiko Afrikako adingabeen artean ere badira ikasten jarraitu nahiko luketenak, baina familiaren egoera ekonomikoarengatik ezin dute; egoera horretan dauden adingabeak frustratuta daude ezin dutelako ikasten jarraitu.

Boli Kostako adingabearen kasua berezia da: familia dirudunekoa dela esan dezakegu, eta eskolatik ihes egiten du behin eta berriz, gurasoen esanari jaramonik egin gabe; berak ez du eskolarekiko interesik, eta familiari gezurra esaten dio eskolako asistentziari buruz.

Aste batean bi egun joan nintzen, eta zigortu egiten ninduten; ez bazara joaten ez dizut dirurik emango. Eta nik baietz esaten nuen. Eta ateratzen nintzenean lagun baten etxera joaten nintzen. Edo beste nonbaitera. (Louis. Boli Kosta. 2007/02/23).

Beste nazionalitateetako adingabeei dagokienez, indiarrek eta ekuadortarrak ikasten jarraitu nahi zuten, baina familiari lagundu behar izan zioten. Bigarren hezkuntza amaitutakoan, adingabe errumaniarrak nahiago izan du lana bilatu eta atzerrira abiatu.

Oro har, esan dezakegu *adingabe gehienek eskolarekiko jarrera positiboa dutela*, baina *gehienbat magrebtarrek uzten dituzte alde batera ikasketak beren borondatez*, eta *ikasten jarraitzea denbora galtzea dela* pentsatzen dute, edo *nahiago dute lan egin*; aldiz, *Saharaz azpiko adingabe gehienek nahiago dute ikasten jarraitu*, lan-munduan sartzea baino.


5.2.3.3. Adingabearen lan-ibilbidea

Adingabe gehienek izan dute lan-esperientziaren bat jatorrizko herrialdean: % 60k noizbait lan egin du jatorrizko herrialdean, soilik % 18k ez du inoiz lanik egin, eta % 22ri buruz ez dakigu inoiz lanik egin ote duten.

Proportzioan, *adingabe magrebtarrek lan-esperientzia handiagoa dute Saharaz azpikoekin alderatuta*. Magrebtarren % 62k lan egin du; aldiz, Saharaz azpikoen artean % 50ek. Afrikakoak ez diren hiru adingabeek ere izan dute aurretiaz lan-esperientziarik.

24. grafikoa

Elkarrizketatutako adingabeek jatorrizko herrialdean izandako lan-esperientzia, 2007



Iturria: Egileak egina Euskal Autonomia Erkidegoko IKEDAMei egindako 50 elkarrizketetan oinarrituta, 2008.

Adingabe askoren kasuan, familiari laguntzen lan egiten dute, bai gertuko familiari, bai beste senitarteko batzuei, bai familiako ezagunei. Landa-eremuetan, okupazio nagusia nekazaritza da. Marokoko bost adingaberen kasuan, Ouarzazate-ko Aminek eta Er-Rachidia-ko Ismailek ahuntzak eta ardiak zaindu dituzte, eta gainerako hirurek familiaren baratzeetan lan egin dute (El-Keela-ko Khaled eta Er-Rachidia-ko Munir), edo aitari laguntzen landako lanetan (El-Keela-ko Mustafak olibondoak kimatzen laguntzen dio aitari). Maliko Alphak aitaren lagun baten baratzeetan lan egiten du laguntzen, lagun horren etxean bizi baita ikasturtean zehar, eta oporretan dagoenean ere, familiako landa-eremuetan lan egiten du; Kamerungo Jeanek amari laguntzen dio produktuak lantzen eta merkatu saltzen. Adingabe indiarrek ere aitarekin lan egiten du landan.

Eskola amaitu nuenean, nire anaiak ezagutzen zuen enpresako buru horrengana eraman ninduten. Han lan egiten zuen eta hara eraman ninduten. (Rahim. Maroko. 2007/02/21).

Horretaz guztiaz gain, zenbait adingabek *aitari edo osabaren bati laguntzen diote lanean edo familia-negozioan*: Mendealdeko Saharako Bachir-ek aitarekin batera deskargatzen ditu kamioiak; edo Ghanako Ernest mekanikari aritzen da osabarekin batera; edo Ghanako Otman anaiei laguntzen aritzen da arotz-lanetan, bere lanetik ateratzen denean. Ekuadorreko adingabeak aitaren negozio berean lan egiten du, mahaietarako beirazko apaingarriak eginez.

Bai, erraza da. Ni behean geratzen naiz eta bera (aita) zuhaitzera igotzen da; nik lurreko adarrak jasotzen ditut. (Nadim. Maroko. 2004/07/04).

Batzuetan, nire etxean lan egiten nuen aitari laguntzen... ura hartu edo beste zer bait egiten; beste egun batzuetan beste zer baitetan lan egiten dut aitarekin batera. Hiru egunez egiten dut lan, egun batean gaueko ordu bietan etortzen den kamioi batean aritzen naiz, ekialdetik datozen 150 kaxa handi jaitsi behar baitira; jaitsi ostean, pisatu egin behar ditut eta gero apur bat urrunxeago utzi behar ditut. Lan hori egiten dudanean, goizeko seietan, beste pertsona batekin hasten naiz lanean eguerdiko ordu bata edo ordu biak arte, eta gero berriz itzultzen naiz kamioiarekin lan egiteko, kaxa hutsak jasotzen. Kaxak kamioian kargatu eta etxera joaten naiz. Goizaldeko ordu bat edo ordu bietatik gaueko zortzi edo 10ak arte lan egiten dut. (Bachir. Mendealdeko Sahara. 2007/06/14).

Beste adingabe batzuk *lanbideren bateko ikastunak* dira, gehienetan ez dute kobratzen edo konpentsazio sinboliko bat baino ez dute jasotzen; lanbide bat ikasten lan egiten dute: Er-Rachidia-ko Ismailek pladurrezko plakak jartzen zituen; Tangerreko Mufid iturgin-ikastuna zen eta Tangerreko Yasin mekanikari-ikastuna. Saharaz azpikoen kasuan, Angolako Artur mekanikari-ikastuna da hamar urte zituenetik, eta Gineako Naby mekanikari izan zen lau urtez, ikasten ari zen bitartean. Errumaniako Daniel ere ikastun aritu da hozkailuak konpontzen.

Baina ez nuen kobratzen, ikasteko zen. (Ismail. Maroko. 2007/02/21).

Beste adingabe batzuek *noizbehinkako lanak* izan dituzte: Tangerreko Imadek oinetakoak saltzen zituen udan, Agadirreko Nadimek goxokiak saltzen ditu hondartzako merkatuan, edo Orango Nasserek kafetegi batean lan egin zuen bi hilabetez.

Udan bakarrik... Beno, asteburutan, zeren ikasten ari nintzenean nire anaiarekin, nire etxean bizi ginen, El Keela-n, herrian. (Khaled. Maroko. 2007/02/23).

Ez, ikasi bakarrik. Larunbata eta igandetan lan egiten nuen nekazaritzan nire aitaren lagunarekin, eta familiarekin udan baino ez. (Alpha. Mali. 2007/05/23).

Beste adingabe batzuk *bidaia ordaintzeko hasten dira lanean*, «*bizimodua aurrera ateratzeko*», Laracheko Samirrek ez zuen inoiz lanik egin baina abiatzeko modua bilatzen zuen bitartean kalean egon zen sei hilabeteetan suertatzen zitzaizkion lanetan aritu zen; Casablancako Kasib txatarra saltzen ibiltzen da bidaia ordaindu ahal izateko; Tangerreko Tariqek gauzak erosi eta saltzen ditu, janaria lapurtzen du eta bestelako lanak egiten ditu, eta Marrakecheko Mohammedek sei hilabete igaro zituen Tangerren abiatu ezinik eta Casablancara joan zen diru gehiago lortzeko.

Ezer ez, saltzeko gauzak bilatu, saltzeko gauza asko daude, gauza ugari.(...) Gauzak erosten dituen denda batean. Aluminiozko gauzak. (Tariq. Maroko. 2007/06/14).

Adingabe gutxi batzuek jatorrizko herrialdeetan beren adinerako egokitzen hartutako lanak dituzte, normalki gazteek egiten dituzten lanak; esaterako, Orango Benik autobuse-tako kobratzaile moduan lan egin zuen zortzi urtetik 16 urtera bitarte, baina ikastun ere aritu zen; edo Ghanako Adel jendea garraiatzeko furgoneta batean laguntzaile aritzen da txartelak kobratzen eta paketeak kargatu eta deskargatzen laguntzen.

Bai, baina gero eh, nik furgonetarekin lan egin nuen denbora asko, bi edo hiru urte. (...). Ateak ireki, dirua kobratu... (Adel. Ghana. 2007/02/22).

Kamerungo bi mutikoen kasua berezia da: futbol-talde batean jokatzen dute eta dirutxo bat jasotzen dute horregatik.

Bada nik ikasi egiten nuen zortzietatik 12 eta erdietara, eta zazpizetik zortzi eta erdietara, bederatzietara, 10etara edo horrelakoren bat... hirugarren dibisioko talde batean jokatzen... nik hemen entrenatzen nuen, ordaintzen zidaten eta horrekin nik ere laguntzen nuen. (Paul. Kamerun. 2007/02/22).

Neska adingabeei dagokienez, hiruretatik batek ere ez zuen lanik egin jatorrizko herrialdean, baina Zaidak etorkizunean lan egin nahi zuela esaten zuen, ez baitzuen nahi ez-kondu eta etxean geratu, bere adineko neska asko bezala.

Adingabeek jatorrizko herrialdean lanari buruz zuten ikuspegia adingabe bakoitzaren arabera da; batzuk kexu dira ez dutelako kobratzen edo gutxi ordaintzen dietelako ordu asko sartuta. Asko ikastun direnez, askotan, lanaldi oso luzeak egiten dituzte dirurik irabazi gabe edo prezio sinboliko baten truke, ikasten ari baitira. Gainera, diotenez, lan-araudia izan badago, baina ez du inork betetzen.

Ghanan zailagoa da jendearentzat. Lana egon badago, baina asko ikasten dutenentzat, unibertsitatera joan direnentzat. Eta lan asko egiten dakitenak igeltsero, arotz izateko ikasi egin behar da, eta denbora asko da, baita zaila ere, zeren ikasten ari den bitartean ezin baita dirurik irabazi. (Adel. Ghana. 2007/02/22).

Edozein haurrek lan egitea da normalena, baina legeak ez dira betetzen... Marokon ez dago araurik lanean hasteko adinari dagokionez. Ez dago araurik. Hemen baino gauza konplikatuagoak. (Rahim. Maroko. 2007/02/21).

Familiaren barruko lanarekin edo familia-negozioarekin ere gauza bera gertatzen da: askotan, adingabeek «lagundu» egiten dute eta ez dute uste horregatik ordaindu edo konpentsatu egin behar zaienik, maiz lan oso gogorrak egin eta lanaldi oso luzeak izaten dituzten arren.

Lan-esplotazioaren adibiderik latzena Gambiako Benirena da: aita hil ostean, kobratu gabe lan egiten du garaje batean, gauez, autoak gordetzen; autoen barruan lo egiten du eta trukean nagusiak jaten ematen dio.

Nik garajea lo egiten dut. Kotxeak etortzen direnean horra, arazoak izaten dituzte eta guk hor uzten ditugu; gu etxera joaten gara, jende gaiztoa etortzen da eta gauzak lapurtzen ditu. Berak (irakasleak) beti esaten digu ez dutela dirurik gauzak ordaintzeko; beraz, zera esaten dit, bera ez dagoenean, nik beti hemen lo egin behar dudala. Autotik gauza bat ateratzen dugunean. Eta gero, gauean, zu etorri nire etxera, han afalduko duzu eta garajea lo egingo duzu. Baina ni bakarrik ez. Ni eta beste bost mutilak. (Beni. Gambia. 2007/08/29).

Kapituluaaren azalpena

- Azken urteotan, Euskal Autonomia Erkidegora iristen diren IKEDAMen jatorrizko testuinguruak dibertsifikatu egin dira: eremu igorleak areagotu egin dira baina baita profilen heterogeneotasuna ere.
- Kontinente igorle nagusia Afrika da, baina hainbat eremu geografiko bereiz ditza-kegu: Magreb, Saharaz azpiko Afrika (Mendebaldeko Afrika nagusi izanik), baina beste kontinenteetako adingabeak ere atzeman ditugu, hala nola Ekialdeko Europa-koa, Hego Amerikakoak edo Asiakoak.
- Hona hemen herrialde igorleen ezaugarri nagusiak: hazkunde demografiko handia, biztanle-piramide gazteak, hiri-hazkundearen indize handiak landa-eremutik hirietarako exodoa dela-eta, herrialde horien eta mendebaleko Europaren arteko distantzia sozioe-konomiko handiak, eta pobrezia-egoeran bizi den biztanleriaren proportzio handiak.
- IKEDAMetako batzuen jatorrizko herrialde edo lurraldean azken urteotan gataz-kak, indarkeria edo gerra bizi izan dituzte. Toki horietako IKEDAM gehienak, baita euren familiek ere, indarkeria-egoerak bizi izan dituzte edo indarkeriaren mehatxu-pean egon dira.
- IKEDAM gehienak hiriguneetatik datoz, baina, bereziki Marokotik datozen adinga-been kasuan, landa-eremuetatik datozen adingabeen profila ere atzeman dugu.
- IKEDAMen artean familia-eredu nagusia nuklearra da, baina guraso bakarreko fa-milietatik datozenak ere asko dira, gurasoak bananduta edo dibortziazuta dituztela, edo gurasoetako bat hil dela.

- Batez beste, familia bakoitzean 4-7 senide izaten dira. Adingabe gehienek erantzukizuneko postuak betetzen dituzte senideen artean: seme/alaba zaharrena, anaia zaharrena edo familia-etxean bizi diren senideetatik zaharrena dira.
- Familian egoera gatazkatsuak izatea funtsezkoa izaten da zenbait adingabek emigratzeko erabakia hartzeko garaian.
- IKEDAM gehienek familietan arazo ekonomikoak dituzte, baina Saharaz azpiko adingabeen kasuan, inolako arazo ekonomikorik ez duten familien profilak ere aurki daitezke, erdi-mailako edo goi-mailako klasekoak direnak.
- Ia IKEDAM guztiak eskolatuta egon dira noizbait, eta jakin badakite irakurtzen eta idazten, baina adingabeen bosten bat bost urtez baino gutxiagoz joan da eskolara eta ez du lehen hezkuntza bukatu.
- Adingabe gehienek izan dute lan-esperientziaren bat jatorrizko herrialdean, baina kualifikazio-maila txikiko lanak izan dira, eta kasu gehienetan, lan prekarioak.

6

Migrazio-proiektua

6.1. Migrazio-aurrekariak European

Adingabe migratzaile asko emigrazioaren fenomenoarekin bizi ziren eurek migratzea erabaki aurretik. Kasu gehienetan adingabeek emigratu duten pertsonak, helduak edo beren inguruneko beste adingabe batzuk ezagutu dituzte. Batzuetan, pertsona horiek adierazitako adingabeen familiako kide gutxi-asko hurbilak dira, beste batzuetan, ordea, bizilagunak edo lagunak besterik ez dira.

Adingabe askok emigratzeko hartzen duen erabakian eta horri buruzko lehenengo ideiak izatean eragiten duten funtsezko faktoreetako bat familia-aurrekariak eta emigratu zuten pertsonetikiko edo lagunetikiko harremana da; horrenbestez, erreferentziazko helduen migrazio-tradizioa oinarritzko elementuetako bat da Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen migrazio-jarraibideak aztertzerakoan. Askotan, migratzaile helduen eta adingabeen xede diren herrialdeak berdinak dira, baina lurralde jakin batera migratzaile helduak igortzen dituzten herrialde guztiek ez dituzte adingabeak ere igortzen.

6.1.1. Euskal Autonomia Erkidegora etorritako etorkin helduen migrazio-aurrekariak

Esparru teorikoan ikusi denez, Immigrazioaren Euskal Behatokiaren arabera, erroldatutako 98.524 atzerritar zeuden 2007an, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko guztizko biztanleriaren % 5. Nahiz eta autonomia-erkidego hau Estatuko beste lurralde eta komunitate batzuekin alderatuta, atzerritarren neurrizko indizea jasotzen duen lurraldea izan, ehuneko hori asko hazi da azken urte hauetan; izan ere, 1998. urtetik 2006. urtera bitarte erroldatutako atzerritarra % 400 hazi da⁸⁷. Probintzien arabera, nahiz eta Bizkaia izan termino absolututan probintziarik jendetsuena eta atzerritar gehien jasotzen duena, termino erlatibotan Araban dago immigrazioaren inguruko ehunekorik handiena.

⁸⁷ *Immigrazioari buruzko estatistikak* [Linean]. Bilbao: Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokia, 2008ko uztailaren 21eko kontsulta. Honako helbide honetan: <http://www.ikuspegi.org>.

35. taula

Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatutako atzerritarrak, probintziaren arabera, 2007


Probintzia	Atzerritarrak	Biztanleria, guztira	Atzerritarrak ehunekoa (%)
Araba	19.392	305.459	6,3
Bizkaia	50.092	1.141.457	4,4
Gipuzkoa	29.040	694.944	4,2
Guztira	98.524	2.141.860	4,6

Iturria: Ikuspegi. Immigrazioaren Euskal Behatokia, 2008. Egileak egina.

Baina denboraldi horretan (1999-2006) Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatutako atzerritar kopurua igotzeaz gain, osaera ere aldatu egin da populazio horren jatorrien arabera.

25. grafikoa

Atxerritarrak eremu geografikoen arabera, 1999an eta 2006an




Iturria: Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokia, Etengabeko Erroldako datuak oinarri hartuta, 2008. Egileak egina.

Eremu geografiko handien arabera, Latinoamerikako populazioa hazi da gehien, 1999an atzerritarren % 24 izatetik 2006an % 49 izatera igaro baita. Aitzitik, Europako atzerritar kopurua da gutxien hazi dena eta, gainera, jaitsi egin da termino erlatibotan. 1999an atzerritarren % 49 zen; 2006an, ordea, % 29ra jaitsi zen. Denboraldi horretan, afrikar kopurua bost aldiz handitu da; izan ere, 1999an 2.916 afrikar ziren (atzerritarren % 18);

2006an, aldiz, 14.245 ziren (% 17; % 11 marokotarrak ziren, eta % 5 Afrikako gainerako populazioa), 2006an soilik atzerritarren % 5 da asiar kopurua.

Nahiz eta eremu geografiko handien arabera atzerritarren ehunekoa ez dagoen berdin banatuta lurralde guztietan, ez da alde handirik ikusten, ondorengo grafikoa ikus daitekeenez:



Iturria: Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokia, Etengabeko Erroldako datuak oinarri hartuta, 2008. Egileak egina.

Hiru lurralde historikoetan, komunitate nagusia Latinomerikakoa da, atzerritarren % 54 da Bizkaian, % 43 Gipuzkoan eta % 40 Araban. Eremu geografiko handien arabera, atzerritarren bigarren komunitatea Europako beste herrialde batzuetatik etorritakoek osatzen dutena da; izan ere, Gipuzkoan 37 dira, Araban % 26 eta Bizkaian % 24. Magrebetik etorritakoak % 22 dira Araban, % 10 Gipuzkoan, eta soilik % 8 Bizkaian. Azkenik, Afrikako beste herrialde batzuetatik etortzen diren atzerritarrak hiru lurraldeetan daude, baina horien ehunekoak oso txikiak dira: % 7 Bizkaian, % 5 Araban eta % 3 Gipuzkoan.

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileak Euskal Autonomia Erkidegora bidaltzen dituzten herrialdeak aintzat hartzen baditugu, ikusiko dugu adingabe horien jatorrizko nazionalitate guztiak erroldatutako atzerritarren estatistiketan azaltzen direla;

hortaz, esan daiteke adingabe horien aurretik herrialde horietatik Euskal Autonomia Erkidegora emigratu zuten erreferentziazko eta aitzindari izandako helduak daudela. Eta taula honetan azaltzen diren lehenengo lau nazionalitateetako (Errumania, Maroko, Ekuador eta Aljeria) adingabeak hartzen baditugu kontuan, herrialde horietatik etorritako adingabe batzuek beren familian bertan zituzten erreferentziazko helduak, adingabe horien aurretik Euskal Autonomia Erkidegora emigratu zuten anaiak, osabak edo lehengusuak baitzituzten.

36. taula

Euskal Autonomia Erkidegoan errolatutako atzerritarrak, adingabeen nazionalitateen arabera, 2007

Herrialdeak	Kop
Errumania	8.715
Maroko ⁸⁸	8.627
Ekuador	7.436
Aljeria	2.532
Senegal	1.320
Ghana	336
Kamerun	297
Angola	291
Mali	283
Ginea	141
Kongo	109
Boli Kosta	80
India	70
Gambia	45
Guztizko atzerritarrak, adingabeen nazionalitateen arabera	30.282


Iturria: Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokia, 2007. Egileak egina.

Baina ondorengo grafikoa aztertzen badugu, ikusiko dugu lagineko adingabeak igortzen dituzten herrialdeetako errolatutako populazioa errolatutako guztizko atzerritarren % 24 soilik dela. Horrela bada, atzerritarren ehuneko handiak dituzten herrialde askok —batez ere Europako herrialdeetakoak eta Latinoamerikako beste nazionalitate batzuetakoak (bereziki Kolonia eta Bolivia)— ez dute adingaberik bidali Euskal Autonomia Erkidegora, edo litekeena da jatorri hori izan lezaketen IKEDAMak atzeman ez izana.

⁸⁸ Mendebaldeko Sahara barne.

27. grafikoa

Adingabeak igortzen dituzten herrialdeetako erroladatutako pertsonen ehunekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan erroladatutako guztizko atzerritarrekin alderatuta, 2007



Iturria: Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokia, 2008. Egileak egina.

Horrenbestez, kasu guztietan esan daiteke, *Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileek Euskal Autonomia Erkidegora migratu aurretik beste herrikide batzuek migratu zutela erkidego hartara, eta, neurri batean, bidea ireki zutela eta aitzindari gisa jardun zutela*. Herrialde horietatik Euskal Autonomia Erkidegora etorritako migratzaileen ehunekoa handitu den heinean, litekeena da adingabe horiek erreferentziazko heldu —zuzenekoak edo zeharkakoak— gehiago eduki izana beren migrazio-prozesuan.

6.1.2. Hurbileneko erreferentziazko helduen migrazio-aurrekariak

Adingabeen kontaketatik behin eta berriz aipatzen den elementua Europan bizi diren lagunen edo ahaideen erreferentzia da, baita horiek lortu duten arrakasta ere. Alde batetik, adingabeek maiz entzun dituzte (zuzenean edo zeharka) emigratu zutenen kontaketa; eta, beste alde batetik, emigratio horren ondorioz lortu dituzten onura ekonomikoak eta materialak: emigranteek beren familiei bidaltzen dizkieten bidalketa ekonomikoak, emigranteek beren jatorrizko herrialdean eraikitako etxeak, migratzaile horiek edo beren familiek erositako autoak edo beste kontsumo-ondasun batzuk. Hortaz, adingabe horien ingurunean emigranteak beren jatorrizko herrialdera itzultzen direnean, arrakastaren eta gizarte-hobekuntza lortzeko Europak eskaintzen duen aukeraren irudi bihurtzen dira.

Beraz, emigratu duten pertsonen kontakutakoaren bitartez lortutako informazio horiek guztiek eragina izan dezakete migrazio-proiektua sortzeko garaian, baina horretaz gain,

informazio horiek lagun dezakete migrazio-bidea egiten: garraiobideak, migrazio-sareak, zer egin Espainiara iristen direnean...

Nik emigratu zutenen kasu bat ikusi dut. Nire aitak esan zidan, bai, emigratu dute eta abar, autobusaren azpian sartu ziren eta nik egin zuten guztiaren berri neukan. Urtebete eta bi hilabete igaro ziren, eta emigratu zutenetako bat Espainiatik itzuli zen auto bat zuela, itzultzen zen jende guztia ondo bizi zen Espainian. Eta egun horretatik aurrera, iraultza bat sortu zen, gure adineko gazte guztiek uste dute hemen erraza dela dena. Eta mutil horrek esaten zigun hemengo bizitza hobea dela, lan egin daitekeela, eta 1.000 euroren truke lan egin zitekeela esaten zigutenean..., Marokoko ministro baten soldataz hitz egiten ari gara! Beste bat gehiago zara eta horrelako soldata baten truke lan egin dezakezu, eta orduan, emigrazioaren iraultza iritsi zen. (Farid. Maroko. 2007/02/22).

Beste emigrante batzuekin eta horien esperientziekin zuzen-zuzenean izandako harreman horretaz gain, ezin dira gutxietsi komunikabideen bitartez iristen zaizkien irudiak eta informazioak, horiek ere elika baitezakete adingabe horien *Europako ametsa* (Quiroga, 2003), bai aurrerapen ekonomikoa lortzeko, bai mundu desberdin batek erakartzeko ametsa. Mundu horretatik hainbat balio mirets ditzakete, baina batez ere: mundu horren dagoen erosteko ahalmena eta horko kontsumo-mailak.

Askotan, adingabeen kontaketek erakusten digute familiako edo berdinen taldeetako erreferente horiek adingabeek beren burua islatuta ikusi nahi duten ispilu gisa jarduten dutela eta oinarrizko zati bat direla erabakia hartzeko garaian; kasu batzuetan, gainera, erabaki hori oso gazte direnean hartzen dute.

Elkarriketatutako adingabeen artetik, % 42k Europara emigratu duten *lehen mailako ahaideak* ditu (aita, anaia edo arreba) edo bigarren mailakoak (aitona, osaba-izebak, lehengusu-lehengusinak).

Magrebeko adingabeek dituzte familiako migrazio-aurrekari gehien: Magrebeko IKEDAMen % 52k Europara emigratu duen ahaideren bat dauka, horietatik % 60k lehen mailako ahaideren bat dauka (gehienetan anaiak dituzte, eta aita bat Marokoko neska adingabe baten kasuan) eta % 40k bigarren mailako ahaide bat dauka (izeba-osabak, lehengusuak eta aitona bat). Familiako migrazio-aurrekariak dituzten Magrebeko adingabeen % 80ren kasuan, ahaide horiek Espainiara emigratu zuten. Baina Magrebeko adingabeen % 20k soilik dauka ahaideren bat Euskal Autonomia Erkidegoan.

Aitzitik, *Saharaz azpiko adingabeek familiako migrazio-erreferente askoz gutxiago dauzkate*, Saharaz azpiko % 22k soilik dauka Europara emigratu duen lehen edo bigarren mailako ahaideren bat; horri Gineako bi adingaberen kasua (Kemoko eta Naby) gehitu behar zaio; bi adingabe horien anai-arrebek (anaia bat eta arreba bat, hurrenez hurren) Afrikako beste herrialde batera, Gambiara, emigratu dute, Kemokoren anaiaren kasuan, lan egitera, eta Nabyren arrebaren kasuan, ezkontzeko. Soilik adingabe baten kasuan, Alpha-ren kasuan, erreferentea lehen mailako ahaidea da: bere anaia; gainerako erreferenteak, orde, bigarren mailako ahaideak dira (izeba-osabak, lehengusu-lehengusinak). Familiako erreferente horien erdiak Espainian daude eta beste erdiak Europako beste herrialde batzuetan, baina bakar batek ere ez dauka familiako erreferenterik Euskal Autonomia Erkidegoan. Hortaz, esan daiteke *Saharaz azpiko adingabe gehienak beren familietako lehenak direla iristen*, aitzindariak direla. Funtsezko hainbat informatzailek esan dute Ginea Conakrytik etorritakoen komunitate bat dagoela Araban. Datu hori bat dator herrialde horretatik 2007an etorritako IKEDAMen % 42rekin, Arabako Foru Aldundiak emandako datuen arabera.

Beste nazionalitate batzuetako adingabeen artean, *hiru adingabeetatik bik, hau da, Ekuadorko adingabeak eta Errumaniako adingabeak*, bigarren mailako ahaideak dauzkate *Espainian*, lehengusu batzuk eta osaba bat, hurrenez hurren; Indiako adingabeak, orde, ez du emigratu duen familiako erreferente bakar bat ere.

Baina adierazi behar da adingabeek Espainian ahaideak izateak ez duela esan nahi beren migrazio-ibilbidean erabiltzen dituztenik, batzuk beren ahaideekin harremanetan jartzen dira (helburu eta emaitza desberdinak dituztela) soilik xede-herrialdera iristen direnean edo iritsi eta handik hilabete batzuetara, ondorengo kapituluetan ikusiko dugunez.

Immigrazioarekin beren familiako kideen bitartez bizitzeaz gain, *adingabe askok migrazio-erreferenteak dauzkate beren lagunen taldean, bizilagunen eta ezagunen artean*. *Margrebe*ko IKEDAMen artean, *gehien-gehienek esaten dute Europara emigratu duen lagunen edo ezagunen bat dutela*, eta hark bizi izandako migrazio-esperientzia kontatu diela edo hari esker ikusi dituztela hark bizi izandako migrazio-prozesuari esker lortutako onurak. Nolanahi ere, kasu batek —Marraquech-eko Mohammed marokoarrak, esaterako— ez du familia-aurrekari bakar bat ere, eta esaten du Espainian ez duela ezagun bakar bat ere.

Saharaz azpiko adingabeen artean, gutxi gorabehera *heren batek esaten du lagunak edo ezagunak dituztela European*, baina *adingabe askoz gehiagok esaten dute ez dutela inor ere ezagutzen European*, eta ez dutela ezagutzen beren herriko edo inguruneke emigratu duen inor ere.

Beste nazionalitate batzuetako adingabeen artean, Ekuadorko adingabeak nahiz Errumaniako adingabeak lagunak dauzkate Espainian, baina Indiako adingabeak esaten du bere herriko mutil bat bakarrik ezagutzen duela Europara emigratu zuena eta diruarekin itzuli zena.

Khaled-en kasua (Maroko hegoaldeko marokoarra) migrazio-prozesu batean erreferenteek izan dezaketen zereginaren adierazgarri da. Lehendabizi lehengusu batek emigratu zuen, eta hori izan zen hurbileneko erreferentea Khaled-en anaiak bere herrialdetik irtekeko erabakia hartzeko, eta, ondoren, adingabea izango da anaia zaharrenari jarraituko diona, baita lehengusuak kontatutako informazioek ere bultzatuta.

Eta pentsatzen zenuen: «begira mutil hori nola zegoen eta orain nolakoa den». Nire anaia gaiari bueltak ematen hasi zen, nire anaia pentsatzen hasi zen. Ez zen eskolara normaltasunez joaten (...) Nire anaia eskolara ez joaten hasi zen, ez zuen ikasi nahi, ezta lan egin ere. Aitak galdetzen zion: «zer lortu nahi duzu horrekin guztiarekin?» Anaiak esaten zuen ez zitzaiola gustatzen nola zegoen: «begira mutilak nola dauden, nire adineko mutilek autoak dauzkate eta nik nire etorkizuna galduta daukat». (Farid. Maroko. 2007/02/23).

Ikasketak amaitu nituen eta nire aitarekin joan nintzen ortura lanera: «pateraz etorri den lehengusu bat etorri da, eta guardia zibilak geldiarazi du eta Marokora bidali dute berriro». Orduan honako hau esan du: «hor barrena joan nintzenean dena oso erraza izan zen. Dena oso erraza izaten da. Han eserita geratzen zara, eta hara iristen zarenean oso erraza da. Gainera, adingabea zara, eta beharbada hartuko zaituzte edo beharbada ez. (Farid. Maroko. 2007/02/23).

Orain Khaled bera erreferente bihurtu da bere inguruneko beste mutil batzuentzat bere herrialdera itzultzen denean. Atzean geratu dira zailtasunak eta pateraz egindako bidaia bera, hiltzeko zorian egon zen bidaia, ondorengo kapituluan ikusiko dugunez.

Ni aurtan etorri naiz hona, nire herritik iritsi den lehenengo adingabea naiz. Eta lagun asko ditut, beno, herriko jendea ezagutzen duzu, gazte guztiek elkar ezagutzen dute, eta, beno, nire adineko gazte guztiek modu berean etorri nahi dute. (Farid. Maroko. 2007/02/23).

Berdinen taldearen, anaien eta lehengusuen erreferenteen garrantzia beste lan batzuetan ere aztertu da, hala nola Comasen eta Quirogaren lanean⁸⁹. Hurbileko erreferente horiek

⁸⁹ COMAS, M. eta QUIROGA, V. (2005). *Una investigació transnacional. Menors que emigren de Marroc a Barcelona*. Mediterrànea-Fundació Jaume Bofill; Bartzelona.

guztiek lagun dezakete, askotan, adingabe horiek edukiko dituzten bizi-baldintzei buruzko berri gehiago dutela etor daitezen, eta kontuan izan dezaten baldintza horiek ez direla beren bizilagunen edo lagun autoak edo hobekuntza ekonomikoak soilik ikusita batzuek imajina ditzaketenak bezain idilikoak.

Esandako horren adibide Danielen kasua da, Errumaniako adingabea, bere lagunak Espainian bizi dira eta Errumaniara oporretan joaten direnean kontaktzen diote denbora asko egon direla lanik gabe eta kosta egin zaiela dirua irabaztea. Baita Pabloren kasua ere, Ekuadorko adingabe horren lehengusuek ere (gaur egun horiekin bizi da) eman zioten zenbait zailtasunen berri. Edo Abdel-ena, Maroko hegoaldekoa; adingabe horren lagunek emigratu dute, eta oporretan itzultzen direnean atzerrian aurkituko dituen baldintza batzuen berri ematen diote.

Nire lehengusuak hemen bizi dira, ni ere haiekin bizi naiz. Bai, hemen ditudan beste lehengusu batzuk. Lana gogor egiten zela eta abar kontaktzen zidaten. Beste ezer ez. (Pablo. Ekuador. 2007/02/22).

Pazientzia eduki, patxadaz hartu, dena oso...oso poliki baitoa. Hau da, zaila dela baina azkenean lortzen dela, pazientzia handiz, patxada handiz. (Abdel. Maroko. 2007/06/14).

Nolanahi ere, beste adingabe batzuek adierazi dute iristen zitzaizkien informazioak ez zirela hain errealistak, eta, askotan, migratzen zutenek emigrazioari buruzko irudi idilikoen ematen zietela.

Dirua dago eta zuk lan egin dezakezu eta autoa duzula jaitsi zaitezke, eta ni iristen naizenean ez dago lanik. Eta iristen zarenean zailagoa da dirua irabaztea. Ni Marokon nengoenean errazagoa zela iruditzen zitzaidan. (Rida. Maroko. 07/06/14).

Europar gogorrena paperak edukitzea da. Paperak baldin badituzu, lan egin dezakezu. (Naby. Ginea. 2007/08/28).

Berdinen *taldearen erreferenteak*, gainera, askotan balio du migrazio-tradizio handiena duten tokietatik (bereziki Magreb ingurua) etorritako adingabeak *zirkuituak hobeto ezagutzen* dituztela iristeko eta *zer eskubide dituzten* jakiteko. Esate baterako, Omar eta Beni Aljeriako bi adingabeen kasua, bi adingabe horiek aurretik emigratu zuten lagunak dituzte, eta lagun horiek honako hauen berri eman zieten: «ez joan poliziarengana, zentro batera eramango zaituzte-eta».

Edo Nadim-en kasua, autobus baten azpian iritsi zen Espainiara, bere lagunak egin zuten bezala, eta lagun horiek Marokora itzuli zirenean, bere ametsa betetzera animatzen zuten.

Nire lagunak esaten zidaten hemen diru asko ematen zutela lan egiteagatik. (Nadim. Maroko. 2007/06/04).

Magrebetik etorritako adingabeen artean, agerian geratzen da xede-herrialdea hobeto ezagutzen dutela, migrazio-tradizio txikiagoa duten beste ingurune batzuetatik etorritako adingabeen artean, ordea, askotan, herrialde horri ez-jakintasuna esanguratsua da. Sahraraz azpiko adingabeek dute migrazio-aurrekari gutxien, eta, hortaz, xede-herrialdeari buruzko lehen eskuko informazio gutxien dutenak dira.

6.1.3. Lehenengo ideiak

Migrazio-proiektua irteteko gertakariari buruzko lehenengo gogoetekin eta ideiekin hasten den prozesua da. Nahiz eta adingabe batzuek ustekabeen eta bat-batean emigratzen duten, kasu gehienetan migrazioa gogoeta-denboraldi baten, herrialdetik nola irten planifikatzen emandako denboraldi baten eta bidaiari ekiteko behar den dirua biltzen emandako denboraldi baten ondorio da.

Elkarriketatutako adingabe askok, batez ere Magreb ingurutik etorritakoek, esaten dute beren herrialdetik emigratzeko aukerari buruzko lehenengo ideiak oso goiz izan zituztela, haurtzaroan, 12 eta 13 urte zituztenean, edo baita lehenago ere; horixe gertatu zitzaion, hain zuzen ere, Farid, Khaled, Rahim marokoarrei, edo Tangerko Imad-i, edo Ghanako Joeri, txikitandik bururatu baitzitzaion immigra zezaketela.

Txikia nintzela, etorri nahi nuen Europara edo Amerikara. (Joe. Ghana. 2007/02/21).

Beste batzuk *eskola uzten dutenean* hasten dira emigrazioan pentsatzen. Arestian ikusi denez, adingabe batzuek eskola uzten dute lan-munduan sartzeko, eta une horretan hasten dira beren etorkizuna herrialdetik kanpo planteatzen; horrelakoak dira Kasib marokoarren, Daniel errumaniarraren edo Ghanako Emmanuel-en kasuak.

Batzuek beren migrazio-proiektua *migrazio-ibilbideari arrakastaz ekin dioten lagunak edo bizilagunak ezagutzean* hasten dira proiektatzen, *edo ahaideren bati jarraitzen diote;*

horien adibide dira Maliko Alpha edo Aljeriako Beni; anaia baten urratsak jarraitu baitituzte.

Hainbat adingabek ere esan dute lehenengo ideiak *telebistan* ikusitako Europari buruzko *irudiengatik* hasi zirela proiektatzen.

Baina beste kasu batzuk ere badaude, batez ere Saharaz azpiko adingabeen artean; adingabe horiei emigratzeko ideia bat-batean bururatzen zaie zirkunstantzia jakin batzuen aurrean; horren adibide Kamerungo Jean-en eta Paul-en kasuak dira; izan ere, bi adingabe horiek gazteen selekzioarekin Europan futbol-partida bat jokatzeko ari zirela bertan geratzea erabaki zuten Europan arrakastarik ba ote zuten probatzeko; edo Gambiako Dulee-ren kasua, adingabe hori Senegalera joan zen arropa saltzera, eta han zegoela, Europara irteten ziren itsasontziak ikusita, hari ere joatea bururatu zitzaion; eta Gineako Kemoko-ren kasua, horrek anaiaren urratsei jarraitzea erabaki zuen, anaiak Gambian lan egiten du, eta Gambian egonik, Europara emigratzea erabaki zuen.

Azkenik, ondorengo atalean ikusiko dugunez, adingabe batzuei *ez zitzaien inoiz bururatu emigratzea*, haien irteera *beste pertsona batek erabaki zuen*.

6.2. Irteeraren kausak eta eragileak


6.2.1. Arrazoiak

Adingabeak emigratzera bultzatzen dituzten arrazoi bat baino gehiago dago, eta, askotan, IKEDAM batek hainbat kausa eta egoera pertsonal desberdin izan ditzake bidaiari ekiteko.

Europako CON RED azterlanean (Quiroga, Alonso y Armengol, 2005) azaldu denez, *IKEDAMen artean identifikatu diren migrazio-arrazoi nagusiak hiru dira: arrazoi ekonomikoak, aukera soziokulturalak hobetzea eta arrazoi politikoak*. Baina, horretaz gain, azaltzen ari garen azterlan honetan ikusi dugu *beste arrazoi bat (laugarrena) ere bada-goela nesken artean, genero-alorreko familia-gatazkekin lotutako arrazoia*. Jarraian, gure lagineko adingabeen artean arrazoi horiek duten ehunekoen hurbilketa erakutsiko dugu eta arrazoi horietako bakoitza sakon aztertuko dugu.

28. grafikoa

Elkarrizketatutako adingabeen migrazio-arrazoiak, 2007



Iturria: Egileak egina Euskal Autonomia Erkidegoko IKEDAMi egindako 50 elkarrizketa oinarri hartuta, 2008.

1. Arrazoi ekonomikoak dira elkarrizketatutako adingabe gehienek aipatzen duten kausa nagusia. Adingabe askok bizi dituzten familia-arloko zailtasun ekonomikoak aipatzen dizkigute, baita beren familiari ekonomikoki laguntzeko premia sumatzen dutela ere, esate baterako Marokoko Yusuf-en eta Yasin-en kasuan, edo Indiako Mukesh-en kasuan edo Mendebaldeko Saharako Bachir-enean.

Nire familiari laguntzeko soilik lan egin nahi dut, eta kito. (Yusuf. Maroko. 2007/06/14).

Ondo lan egiteko, eta hobeto zeren lan egiteagatik dirua irabazten baita, norberaren familiari laguntzeko, zeure burua manten dezakezu. (Hamza. Mendebaldeko Sahara. 2007/02/23).

Han pobreak ginelako, eta nire lagunetako bat Espainiara edo Europara etorri zen eta autoak edo dirua zituela itzuli zen. Nik bizitza hobearen bila etorri nahi nuen. (Dulee. Gambia. 2007/08/28).

Nire familiak arazoak ditu, nik dirua nahi dut, lan egin nahi dut, baina nire herrialdean lan gutxi dago (...) Mutil bat Europara etorri zen, beste herrialde batera, eta diru askorekin itzuli zen. Nik ere dirua nahi dut. (Mukesh. India. 2007/05/23).

Horretaz gain, kasu askotan ikusi dugunez, aitak familia ekonomikoki ez mantentzeak edo mantentzeko aukerarik ez izateak eragiten du adingabe horiek familiaburuaren berezko erantzukizunak beren gain hartzea; izan ere, adingabeak uste du bere bitartekoen bitartez mantendu behar duela familia.

Marokon lanik ez dagoelako, ez dagoelako ezer, aitarik ez daukadalako, soilik ama daukat eta anai-arreba asko... (Rida. Maroko. 2007/06/14).

Beren herrialdean lana, eta batez ere lana baldintza jakin batzuetan aurkitzeko zailtasunen aurrean, adingabe asko Europara begira jartzen dira; izan ere, uste dute han lan hobe, baldintza hobetan eta hobeto ordaindutako lana aurkitu ahal izango dutela.

Azkenik, hainbat adingabek beren herrialdeetan nagusi den gabezia ekonomikoaren aurrean, dirua irabazi nahi dute ondasun pertsonalak (autoak, arropa «ona»...) eduki ahal izateko, beren herrialdeetan ia ezin lortu izango lituzketen ondasunak.

Oso amets xumeek ekartzen dituzte hona..., oso ideia apalak (autoa edo motoa erosi nahi izatea) dituztela etortzen dira. (Farid. Maroko. 2007/02/22).

2. Adingabeek aipatzen duten beste arrazoietakoa bat *gizarte- eta kultura-arloko aukerak hobetzea* da. Nahiz eta askotan hobekuntza horrek maila sozioekonomikoarekin zerikusia izan, adingabe horiek lana bilatzeaz eta dirua irabazteaz gain, espero dute beren migrazioak beste bizitza mota bat ezagutu ahal izateko, bidaiatzeko, beste mundu bat ezagutzeko, ikasi ahal izateko eta antzekoak egiteko aukera ematea.

Ez zitzaidan han (Maroko) bizitzea gustatzen gauzak beste modu batekoak direlako. Hona iritsi nahi nuen... Ez zen soilik diruaren gaia baita hemengo bizimodua ere. Han ez dago legea babesten duen legerik, nola esaten da?... Justizia, giza eskubiak. (Rahim. Maroko. 2007/02/21).

Batzuetan, bizi duten geldialdia edo Europarekin kontrajarririk beren herrialdeetan erraz aurreikus dezaketen etorkizuna eteteko bitartekotzat hartzen dute emigrazioa; izan ere, kontinente horri buruz irudi idilikoa proiektatzen da, hots, oparotasunaren eta aukeren lurtzat hartzen dute.

Jende guztiak daki Europako bizi-baldintzak hobeak direla, hemengo bizimodua hobe delako. Horretarako aukera zegoen eta aprobetxatu egin nahi izan nuen. (Artur. Angola. 2007/08/29).

Europa delako eta diru asko eta lana dagoelako. Afrikan ezer ez. (Joe. Ghana. 2007/02/21).

Bidaiatzea gustatzen zait, eta bizimodua pixka bat ateratzeko eta hobeto bizitzeko. (Daniel. Errumania. 2007/02/21).

Ildo horretatik, emigratzeko nahi horretan ez da gutxietsi behar, halaber, abenturarako, beste herrialdera batera bidaiatzeko nolabaiteko nahia dagoela, nerabegaroko berezko nahia, bestalde.

Arrazoi horren aldagai bat, Euskal Autonomia Erkidegoko IKEDAM batzuegan azaldu dena, honako hau da: *Europar kirol-arloan dirua lortu ahal izateko eta arlo horretan arrakasta izateko nahia*. Europakoak ez diren beste herrialde batzuetatik etorritako diziplina desberdinetako kirolari askok jokatzan dute Europako taldeetan, eta kirolari horiek modu batera edo bestera arrakasta lortu dute profesionalki. Kirolari horiek, futbolariak batez ere, benetako idoloak dira askotan eta beren jatorrizko herrialdeetako gazte askorentzat erreferente dira.

Egiten duten kirolean profesionalki jarduteko nahia eta ildo horretan Europar zortea ote duten probatzea dira Kamerungo bi adingabeek (Paul eta Jean) gazteen futboleko Munduko Txapelketan Finlandiako selekzioaren aurka jokaturako partidaren ondoren bertan geratzeko eta Bartzelonara (Eto' o futbolariak —adingabe horien herrikidea, benetako idolo nazionalak eta, gainera, auzo bereko bizilaguna Kamerunen— hor jokatzan du) iristeko ahalegina egiteko arrazoiak. Ondorengo zirkunstantziek eragingo dute beren bi-daia Euskal Autonomia Erkidegoan geldiaraztea.

Ni Espainiara etorri naiz, baina ez naiz beste batzuk bezala etorri... Begira, nik banekien egunen batean futbolean ibili beharko nuela eta Europara etorri beharko nuela, edonora. Horixe da txikia nintzenetik daukadan ametsa. (Jean. Kamerun. 2007/02/22).

Gure herrialdetik atera gara Europar sartzeko, Finlandian jokatzeko. Han jokatu dugu, bukaeraraino jokatu ere (...) Zerbait pasa zitzaidan burutik, txikia nintzenetik diruarekin egiten nuela amets. Orain Europar nago eta gure herrialdera itzuli behar dugu, azkenean, irabazi ala galdu itzuli egin behar dugu... (Paul. Kamerun. 2007/02/22).

Beste kasu bat Mamadú senegaldarrarena da; horren migrazio-arrazoiak lan egiteko nahiaren eta saskibaloian jokatzan jarraitu ahal izateko aukeraren arteko nahasketa dira.

Azkenik, Aljeriako Ridaren eta bere anaiaren kasua ere ezagutzen dugu; azken hori karateko txapelduna da Aljerian eta kirol horretan entrenatzera etorri zen Espainiara; Ridak, aldiz, bere anaiari jarraitu zion eta hori ere entrenatzen da eta horrek ere karate egiten du. Elkarritzeta egin diegunean, adingabe hori nazionalitatea lortzeko prozesuan dago txapelketa nazionaletan eta, ondoren, Europako txapelketetan parte hartu ahal izateko.

Lau kasuetan, behin Euskal Autonomia Erkidegoan daudela, adingabe horiek jarraitu dute kirol hori praktikatzen, maila desberdinetan.

Lagin honetako IKEDAMez gain, kirolari marokoarren beste bi kasu gehiago ezagutzen dira, horietako bat Euskal Autonomia Erkidegoan dago, eta bestea Katalunian, biak atletak dira. Bietako bat txapelduna da Euskal Autonomia Erkidegoan eta bestea nazionalizazioa lortzeko bidean dago.

3. Hirugarren arrazoa kausa *politikoengatik emigratzen duten adingabeena da*. Beren jatorrizko herrialdeetan hainbat gatazka-egoera bizi dituztenez gero, adingabeak berak edo bere familiak adingabearen segurtasuna bilatzen du bere herrialdetik kanpo. Ikusi dugunez, hainbat herrialde igorle gerra- edo gatazka-egoeretan daude; Euskal Autonomia Erkidegoko adingabeen artean bi kasutan garbi ikusten da adingabearen emigrazioak zuzeneko harremana duela gatazka horiekin eta gatazka horiengatik azaltzen dela. Kasu bat Angolako Miguelena da. Adingabe horren aita militarra da, eta bere familiak bidali zuen bere arrebeekin batera herrialdetik kanpo, babesteko eta, aldi berean, ikasteko aukera emateko. Eta beste kasua Boli Kostako Louisena da. Adingabe hori estatu-kolpea izan zen egun berean atera zen bere herrialdetik, bere familiak bizi zuen kalteberatasuneko egoerengatik, bere aita oposizioako politiko garrantzitsu bat delako.

4. *Emakumezko adingabeen* kasuan esan dezakegu beste arrazoi bat ere badagoela, *familia-arloko gatazka-egoera batetik ihes egitea*, hain zuzen ere. *Gatazka hori sortzen da neskak direlako eta genero-rol jakin batzuei eta gizarte-itxaropen batzuei, gizarte horretan neskengandik eta emakumeengandik espero denari buruzkoei, erantzun behar dietelako*. Arrazoi hori, emakumezko adingabeen kasuan, azaldu zen neska eta nerabe adingabe migratzaileei buruz Katalunian egin den azken azterlanean (Quiroga, V.; Berga, A.; Alonso, A.; Sòria, M., 2007) eta berriz ere lagin honetan egiaztatu da, nahiz eta elkarrizketatutako emakumezko adingabe kopurua txikia den.

Elkarrizketatutako emakumezko bi adingabe marokoarren egoerak eta historiak desberdinak diren arren, genero-zirkunstantziek zuzeneko lotura dute bi nesken migrazioarekin.

Arestian esan denez, Mariam-en (Beni Mellal-eko adingabea) migrazio-historiaren hasiera mutil batekin izandako bikote-harremana eta nerabe zela haurdun geratu izana da. Mutila Valentzian bizi zen Marokoko emigrante bat zen. Udan ezagutu zuen, bost hilabete eman zituzten elkarrekin, mutilak ezkonduko zirela hitz eman zion, baina, nahiz eta neskak bere amari lapurtu pilulak, haurdun geratu zen. Mutilak ez zuen ezkondu nahi

izan, eta amak irtenbide bat bilatu zion egoerari, sozialki onartezina bere herrialdean, bere herrialdetik kanpo bidali zuen aitak eta anaiak neskaren egoeraren berri ez izateko. Hortaz, kasu honetan migrazioa gatazka-egoera bat konpontzeko mekanismoa da.

Amak esan zidan joan egin behar nuela, bestela aitak hil egingo ninduela (...) Nik amari esan nion ez nuela joan nahi. Amak joan egin behar nuela esan zidan. (Mariam. Maroko. 2007/02/21).

Zaidak, Nador-eko adingabeak, Europara joatea erabaki zuen ikasteko eta gazte ezkontzea eta familia bat osatzea (hori da bere herrialdean emakumeek egitea espero dena) ez den beste etorkizun bat izateko ahaleginak egiteko. Emigrazioa adingabearen herrialdean eta ingurunean neska izateagatik gauzatu ezin diren nahiak lortzeko aukera bat da.

Ikasi eta zerbait lortu ahal izateko, ez dakit, etorkizun bat izateko. Ni ez naiz besteez mantentzen nazaten gustatzen zaidan neska (...), niri neure burua mantentzea gustatzen zait, nahiz eta nire senarrak lan egin, niri ere lan egitea gustatzen zait. Eta hemen nahi dudanean ateratzen eta sartzen naiz, eta ez zait gustatzen etxean eduki nazaten, gustatzen ez zaidalako, akituta ikusten dut neure burua. Ez zait gustatzen «ezin zara atera, nik esaten dizudanean atera behar duzu» inork esatea. Ez, akitu egiten bainaz, kartzelan zaudela ematen du, ez zait gustatzen, horregatik pentsatzen dut horrela, horregatik joan nahi nuen Frantziara. Nik ezkondu nahi izango banu, han gera nintekeen, eta esaten ari natzaizuna esango zidaten, etxean geratzen naiz eta etxeko andre izaten naiz. Baina ez. (Zaida. Maroko. 2007/09/24).

Zenbait emakumeren (kasu honetan adingabeak) migrazio-arrazoiak beren genero-zirkunstantziekin zuzenean lotuta egoteak eragin du Dolores Julianok (2004)⁹⁰ *genero-errefuxiatuak* kontzeptua sartzea. Kontzeptu horretan migrazio mota horretan askatasuna lortzea bilatzen duten emakumeak sartzen dira, jatorrizko gizarteetan balioa galdutako estatusa duten, edo arau tradizionalekin bateragarriak ez diren helburuak dituzten emakumeak dira; emakume horiei dei diezaiekegu, egilearen arabera, genero-arrazoiengatik errefuxiatuak: nahi ez zituzten ezkontzetako iheslariak, zapuztuak, prostitutak, ama ezkongabeak eta sexu-erasoen biktimak edo mehatxatuak.

Adingabeek emigratzeko duten arrazoi heterogeneotasun hori adingabeen jatorrietan dago, eta nahiz eta nazionalitate guztietan nagusitzen den arrazoi ekonomikoa

⁹⁰ JULIANO, D. (2004). *Excluidas y marginadas*. Cátedra-Ediciones Feminismos, Bartzelona.

izan, ikus daiteke *arrazoi ekonomiko horien nagusitasuna handiago dela Magrebeko adingabeen artean; Saharaz hegoaldeko adingabeen artean, aldiz, arrazioen aniztasuna handiagoa da.*

6.2.2. Irteeraren eragileak

Emigratzeko ideia edo ametsa askoz lehenagotik azal daitezkeen arren, baita arestian ikusi dugunez, haurtzaroan ere, askotan zirkunstantzia pertsonalak edo familia-arlokoak ez ezik pertsona jakin batzuk, edo ezusteko egoera bat ere azaltzen dira eta horietako edozeinek eragiten du adingabea herrialdetik ateratzea eta bere migrazio-ibilbideari ekitea.

Dagoeneko aipatuta dagoen zirkunstantziarik ohikoenetako bat honako hau da: *aitaren edo familiaburuaren gaixotasunak edo heriotzak familiaren egoera ekonomikoa gaizkia-gotzea* eta adingabeak bere burua behartuta ikustea familiaren mantenua bere gain hartzera. Horiek dira, esate baterako, Yusuf eta Tariq marokoarren kasuak.

Beste ohiko eragile bat eskola uztea da (*nahita edo zirkunstantziek behartuta*), eta horren ondorioz, *adingabea lan-munduan sartzen da eta bere etorkizunari buruzko hausnarketa egiten du.* Batzuetan, dagoeneko ikusi denez, eskola uzte hori ikasten jarraitzeko baliabiderik ez izatearen ondorio da, adingabearen nahiaren aurka, adingabe horrek beste itxaropen batzuk baitzituen; horiek dira, hain zuzen ere, Ghanako Emmanuelen edo Joseph-en kasuak.

Askotan kausa eragilea *ahaideen edo lagunen etorrera* izaten da, iritsi berriek *beren esperientziak kontatzen dituzte* eta *emigratzeko nahia* pizten da adingabearengan; horretaz gain, *nahi hori gauzatu ahal izateko behar duen informazioa ematen diote.* Hori esaten dute, esate baterako, Khaled eta Farid marokoarrek.

Batzuetan, *hirugarren batek erabakitzen du emigrazioa edo emigratzeko proposizioa egiten dio adingabeari.* Horixe da Gambiako Beniren kasua; izan ere, adingabe horren familiako ezagun batek pateraz egiteko bidaia bat oparitu zion ezagun horrek bai baitzekien adingabe hori baldintza gogorretan bizi zela eta familiaren egoera larria zela; edo Mariam marokoarraren kasua, neska horren amak emigratzeko agindu zion nerabe izanik haurdun geratu izanaren ondorioz sortuko zen gizarte-eskandalua eta familia-drama saihesteko; edo Gemmaren eta bere ahizparen kasua, bi adingabe horiei

emakume batek proposatu zien berarekin joateko Frantziara, oso garbiak ez ziren zirkunstantzia batzuetan; edo Miguelena, adingabe hori eta bere arrebak atzerrira bidali zituzten babesteko modu gisa, edo Boli Kostako Louis-ena, mutil horren amak alde egitea gomendatu zion.

Zu mutil ona zara esan zidan, ahal badut lagunduko dizut, bazekielako zein zen nire egoera, autoa konpontzen laguntzen badidazu, nik *opari bat egingo dizut* (...) itsasora joan ginen egun bat, bi egun, hiru egun, ez ginen iristen, eta hark esan zidan: Espainia, eta nik esan nion Espainia? Eta hark baietz esan zidan. Eta ni nire prakekin, nire zapatilekin eta elastiko honekin, ezer gehiago ez, ez dirurik, ez ezer. Bost egun eta ez dakit zenbat ordu eman genituen. Mendien antzeko zerbait ikusten genuen, eta hark esan zidan: hori da Espainia. (Beni. Gambia. 2007/08/29).

Niri amak esan zidan, hobe nuela alde egitea. Orduan hark azaldu zidan gertatzen ari zena eta nik aprobetxatu egin nuen eta hona etorri nintzen. (Louis. Boli Kosta. 2007/02/23).

Azkenik, beste batzuetan, *emigrazioa ia bat-batekoa da, aukera azaltzen da eta aprobetxatu egiten da*. Hori da, esate baterako, dagoeneko kontatu dugun Kamerungo bi adingabeen kasua. Bi adingabe horiek aprobetxatu egiten dute atzerrian daudela biak bakarrik etortzeko Espainiara, edo Gambiako Dulee-ren kasua, hura Senegalera joana zen arropa saltzera eta han ikusi zuen beste mutil batzuk pateraz alde egin Zutela, eta hark ere gauza bera egitea erabaki zuen.

6.3. Emigratzeko erabakia eta erabilitako estrategiak

6.3.1. Familiaren inplikazioa emigratzeko erabakia hartzean

Migrazio-proiektuan familiak duen inplikazioa ezin da ulertu adingabeek emigratzeko erabakia hartzera bultzatu dituzten arrazoiak kontuan izan gabe. Izan ere, IKEDAMen artean *bi oinarritzko jarrera daude proiektuari dagokionez: familiaren erabakia izatea edo norberaren erabakia izatea*. Soilik adingabeak hartutako ekimena bada, litekeena da familiak ez jakitea adingabeak Espainiara bidaia egin behar duela edo litekeena da familiak adingabearen asmoen berri izatea; batzuetan, familiak ez du nahi adingabeak bidaia egitea, eta beste batzuetan, aldiz, onartzen du adingabearen borondatea, taula honetan azaltzen denaren arabera.

37. taula

Migrazio-prozesuan familiak duen inplikazioa erabaki motaren arabera, 2007

Tokiak	Herrialdeak	Guztira	Norberaren erabakia			Familiaren erabakia	Informaziorik gabe
			Ez dakite	Badakite, baina ez dago laguntzarik	Badakite, eta badago laguntza		
Magreb	Maroko	24	6	5	4	3	6
	Aljeria	2	—	1	1	—	—
	Sahara	3	—	—	2	1	—
Saharaz azpiko Afrika	Ghana	6	4	—	—	1	1
	Angola	2	—	1	—	1	—
	Kamerun	2	—	—	—	2	—
	Kongo	1	—	—	—	—	1
	Boli Kosta	1	—	—	—	1	—
	Ginea	2	1	—	—	—	1
	Gambia	2	1	1	—	—	—
	Mali	1	1	—	—	—	—
	Senegal	1	1	—	—	—	—
Beste batzuk	Ekuador	1	—	—	—	1	—
	Errumania	1	—	1	—	—	—
	India	1	—	—	—	1	—
	Kop.	50	14	9	7	11	9
	(%)	100	28	18	14	22	18

Iturria: Egileak egin Euskal Autonomia Erkidegoko IKEDAMi egindako 50 elkarrizketa oinarri hartuta, 2008.

Termino orokorretan, esan genezake *Euskal Autonomia Erkidegoan dauden IKEDAM gehienek modu indibidualean hartu dutela emigratzeko erabakia*; hori adingabeen % 60tan gertatzen da, adingabe horiek ez baitute familiarekin kontsultatu beren jatorrizko herrialdetik ateratzeko duten asmoa. Baina bederatzi kasuak, hau da, informaziorik ez dugun kasuak kentzen baditugu, *ehunekoa % 73ra igotzen da*. Aurretik egin diren eta ondoren azalduko ditugun beste azterlan batzuetan ere ikusi da norberaren erabakiak familiak hartutako erabakien gainetik nagusitzen direla. Violeta Quiroga eta Marta Comas andreek zuzendutako azterlanerako Katalunian elkarrizketatu diren 19 kasuen artetik ehuneko hori % 84ra igotzen da (2005). Mercedes Jiménez andrearen lanetan ere (2003) egiaztatu da indibidualtasuna nagusitzen dela migrazio-prozesuan.

Adingabeek beren migrazio-proiektuaren berri gurasoei ez emateko dituzten arrazoiak lotuta daude alde batetik, gurasoak ideia horren aurka egotearekin eta, beste alde bate-

tik, gurasoek ezaugarri horiek dituen bidaia bat egiteak dituen arriskuen aurrean duten beldurrarekin. Arestian ikusi dugunez, prekariedade ekonomikoaren egoeretan, askotan adingabeak hartzen du kontrako egoera horren erantzukizuna eta bera Europara joanda lor litekeen aldagetaren protagonista izendatzen du bere burua. Horixe da Marokoko multil gehienek kasua, baita Saharaz azpiko Afrikako adingabeena ere, jatorrizko herrialdean marokoarren antzeko baldintza ekonomikoak dituzte.

Lehenik eta behin, kasuen % 28tan adingabeek *ez diete jakinarazi beren familiei* alde egiteko asmoa dutela, eta familiek ez dakite ezertxo ere adingabeen migrazio-proiektuari buruz.

Nire gurasoek ez zuten horren berri izan. (...) Nik ondo asko nekien nire gurasoei ondo iruditzen zitzaizela ni Espainiara joatea lan egitera, ondo dago ateratzea bai baitakite beste erremediorik ez dagoela. Prozesua da gustatzen ez zitzaizena: zerbait gertatuko ote zitzaizkan eta autobus batean hilko ote nintzen beldur ziren. (Farid. Maroko. 07/02/22).

Aitak ez zidan dirurik uzten urte hartan inora joateko, ikasi egin behar nuen, baina Espainiara etortzeko gogoia nuen. Hark eskolara joateko dirua eman zidan, eta ni dirua hartuta Libiara joan nintzen. (Joseph. Ghana. 07/02/21).

Horretaz gain, kasuen % 18tan ikusten da familiek *beren semeen asmoen berri dutenean migrazio-prozesuaren aurka jartzen direla eta ez dietela inolako laguntzarik ematen*.

GALD.: Esan al zenien gurasoei joan nahi zenuela?

ERAN.: Bai, baina ez zidaten utzi, horregatik ihes egin behar izan nuen. (Kasib. Maroko. 07/08/29).

Batzuetan goizean iristen nintzen haiek ezer jakin gabe, baina astebete igaro ondoren etxera itzuli ez nintzenean jakin zuten (...) Aitak ez zuen nahi joatea, eta amak ere ez. Aitak esaten zidan: «hara joan nahi baduzu, 20 urte edo gehiago eduki arte itxaron behar duzu». Nik hau esan nion: «probatu egin nahi dut bakarrik, orain, probatu egin nahi dut». (Mustafa. Maroko. 07.02.22).

Azkenik, kasuen % 14tan familiek badakite zein diren adingabearen asmoak, *eta behar dituen laguntza guztiak ematen dizkiote*, hala nola laguntza emozionala ematen diete eta dirua uzten diete.

Aitak ez zuen nahi... Aita bakar bati ere ez zaio gustatzen semea heriotzaren itsasontziak deitzen ditugunetara bidaltzea. Bakar bati ere ez, hara joaten bazara «hilda» baitzaude. Nire gurasoek bazekiten. Amak hau esaten zidan: «Zu inozoa zara, kasurik ez», baina, azkenean, amak lagundu zidan. Negarrez hasi nintzen eta hau esan zidan: «ea nola moldatzen garen, zuk joan egin nahi baituzu, itxaron datorren urtera

arte gutxienez, ea Espainian zortea dagoen, bisaren bat edo zerbait lortzen dugun». Amari pena ematen zion nik alde egiteak, baina pena handiagoa ematen zien ni han nola nengoen ikusteak. Zeren nik argi bainekuan ez nintzela berriz ere ikasten hasiko. Lortu nuen dirua eta telefono mugikor bat erosi nuen. Eta kito, nire lehengusarekin etorri nintzen. (Khaled. Maroko. 07/02/23).

Gurasoek uste zuten kalean geratzen banintzen drogatu egingo nintzela, beno, egia esan, gurasoek beti pentsatzen dute okerreana, baina konfiantza zuten niregan, nolabait ere bazekiten ondo aterako zela dena. Ulertzen zuten nire erabakia, nahiz eta oraindik adinik ez izan ateratzeko, baina bat-bateko erabakia izan zen. (Daniel. Errumania. 08/02/21).

Bestalde, *IKEDAMen % 21ek familiak hartutako erabakiaren ondorioz utzi du bere jatorrizko herrialdea; erabaki hori, gainera estrategia jakin batengatik izaten da:*

1. Emigrazioa *semea edo alaba babesteko* estrategia bat da. Familiek beren seme-alabak babestu nahi dituzte, bai gatazka politikoaren egoeratik (Boli Kostako Louis-en kasua, esaterako) bai jatorrizko herrialdean dauden arau tradizionaletatik, adingabeari kalte egin diezaioketen arauetatik (hori da Marokoko Mariam-en kasua).

Aita militarren koronela da eta presidenteak agintzen diona betetzen du (...) Ni Estatu-kolpea izan zen egunean bertan atera nintzen. Amak esan zidan hobe nuela etxetik alde egitea. Orduan amak gertatzen ari zena azaldu zidan, baina ez zen beharrezkoa ezer azaltzea nik bai bainekien zein zen Afrikako egoera. Nik banekien aita politikoa bada horren seme-alabak har ditzaketela, eta nik honaino etorri izana aprobetxatu dut. (Louis. Boli Kosta. 07/02/23).

Haurdun nengoela baieztatu zidaten. Orduan honako hau esan zuen amak: «aitak hil egingo zaitu eta ni ere hilko nau». Amak «joan egin behar duzu» esan zidan. (Mariam. Maroko. 07/02/21)..

2. Emigrazioa *hobekuntza kolektiboko* estrategia bat da, batez ere egoera ekonomiko larria dagoenean. Ezaugarri horiek dituzten oso kasu gutxi daude, hori da, esate baterako, Indiako Mukesh-en edo Mendebaldeko Saharako Brahim-en kasua.
3. Emigrazioa *adingabearen etorkizunean inbertitzeko* estrategia bat da, normalean semea Europara ikastera bidaltzearekin lotuta dagoena. Hori da Kamerungo bi mutilen eta Angolako Miguelen kasua.

Bai. (Aitak gu hemen uzteko asmoa zuen, ikas genezan) beti halako eta halako esaten baitzigun, horrela hobeto baita, beste hizkuntza bat ikasten duzu, asmoak zertxobait aldatzen dituzu eta abar. (Miguel. Angola. 07/02/23).

Ondorio gisa esan behar da datuak aztertu ondoren ikusi dugula gaur egun zaila dirudiela IKEDAMaren nazionalitatearen eta familiaren inplikazio-mailaren artean inolako loturarik ezartzea. Nolanahi ere, datuek erakusten dute familiek erabaki dituzten adingabeen migrazio-proiektuek lotura handiagoa dutela, gehienetan, arrazoi politikoeekin edo gizarte-aukerak hobetzeko ideiarekin; aitzitik, migrazio-proiektua norberak erabakitzen duenean arrazoi ekonomikoengatik izaten da batez ere.

6.3.2. Migrazio lagundua edo bakarkako migrazioa

Aurreko kapituluari esan denez, «emigrazioa Europarantz» gaiari buruz jatorrizko herrialdeetan dagoen informazioa denon ahotan dabil eta funtsezko zeregina du adingabeen emigrazioa ulertzeko. Ondoren azaltzen den taulan ikusiko dugu migrazio-prozesu horiek norekin gauzatzen diren.

38. taula
Bidaia-ko lagunkideak, 2007

Tokiak	Herrialdeak	Guztira	Bakarrak	Lagunekin	Familiarekin	Informaziorik gabe
Magreb	Maroko	24	8	11	0	5
	Aljeria	2	1	1	—	—
	Sahara	3	1		1	1
Saharaz azpiko Afrika	Ghana	6	3	3	—	—
	Angola	2	1	—	1	—
	Kamerun	2		2	—	—
	Kongo	1	—	—	—	1
	Boli Kosta	1	1	—	—	—
	Ginea	2	1	—	—	1
	Gambia	2	1	—	—	1
	Mali	1	1	—	—	—
	Senegal	1	1	—	—	—
Beste batzuk	Ekueador	1	1	—	—	—
	Errumania	1		1	—	—
	India	1	1	—	—	—
	Kop.	50	21	18	2	9
	(%)	100	42	36	4	18

Iturria: Egileak egina Euskal Autonomia Erkidegoko IKEDAMEi egindako 50 elkarrizketa oinarri hartuta, 2008.

Migrazio-bidaian izandako lagunkideei dagokienez, ez dago alde nabarmenik gizonetako eta emakumezko IKEDAMen artean. Banaketa oso orekatuta dago; izan ere, IKEDAMen % 42k berak bakarrik ekin dio bidaiari; IKEDAMen % 40k, aldiz, norbaiten laguntzarekin ekin dio; gehienek berdin taldearen laguntzarekin, eta oso ehuneko txiki batek aitarren laguntzarekin (% 4).

Bakarrik bidaiatzea erabakitzen duten neska-mutilen % 42 horretan, Saharaz azpiko Afrikako eta Magrebeko adingabeak daude.

Marokoko adingabeen artean banaketa oso parekatuta dago. 24 kasuetatik, 11k berdin taldearekin bidaiatu dute eta zortziak bakarrik egin dute (bost kasuri buruz ez daukagu informaziorik). *Bakarrik egiten dutenen* artetik, gehienak *Marokoko erdialdekoak eta hegoaldekoak dira*. Garrantzizkoa da hori nabarmentzea; izan ere, batez ere Tanger hiriko adingabeek planifikatzen dute bidaia berdin taldearekin, eta hori gertatzen da Tanger delako Europarantz ateratzeko hiri nagusietako bat. Hortaz, migrazioari buruzko informazioak eta migrazio-dinamikak erabat finkatuta daude Tangerko gazteen bizitzan, eta gazte horien astialdiaren zati handi batean, nerabezaroan astialdia asko partekatzen da berdin taldearekin, eta garai horretan emigrazioaren gaia izaten da gai nagusia; horretaz gain, hainbat jarduera egiten dituzte, hala nola portura jaitsi, kamioiak zaindu edo ferry iritsitako turistei begiratu.

Migrazioa berdin taldearekin egiten denean, irteteko estrategiak ere modu kolektiboan planifikatzen eta partekatzen dira normalean. Kasu horietan, ohikoa da bidaiaren uneren batean bidaiako lagunak edo «bidaiako lagunkideak» banantzea eta bide desberdinak hartzea; normalean banantze hori Espainiako lurraldera iritsitakoan gertatzen da. Hori ez da inolako eragozpena izaten, zeren nahiz eta bidaia taldean pentsatu eta gauzatu, adingabeek oso garbi baitaukate beren proiektua batez ere indibiduala dela.

Saharaz azpiko Afrikako 18 adingabeei dagokienez, nabarmendu behar da % 50ek berak bakarrik bidaiatu duela; gainerako % 27ak lagunekin egin du, eta soilik kasu bakar batean adingabeak bere aitarekin bidaiatu du, nahiz eta adibide hau oso salbuespenetza den; izan ere, ikasketa-aukeretan hobetzeko egindako migrazioa da (kasuen % 16,6ri dagokionez, ez daukagu informaziorik).

Ni bakarrik etorri nintzen Espainiara. Nire lagunek ez zeukaten dirurik etortzeko; nik, ordea, dirua gorde egin nuen. (Emmanuel. Ghana. 07/02/21).

Boli Kostara Akkra ezagutzen zuten bi lagunekin joan nintzen (...). Murtzian banandu egin ginen. (Adel. Ghana. 07/02/22).

6.3.3. Bitartekariak eta migrazio-erakundeak

Erkidegokoa ez den atzerritar bat Espainiako lurraldean sartzea Atzerritarrei buruzko 8/2000 Legeak arautzen du. Lege hori 8/2000 eta 14/2003 Lege Organikoei aldatu zuten, eta *Erkidegotik kanpoko* atzerritarrek Espainian sartzea eta egotea arautzen duen *Espainiako* araua da. Lege horrek neurri handi batean eragozten ditu atzerritarrek gure herrialdean modu erregularrean egon eta bizi ahal izateko dituzten aukerak. Politika murriztaile horren ondorioz, gure muga gurutzatu nahi duten atzerritar asko behartuta daude jatorrizko herrialdeetatik Espainiarainoko bidaia antolatzen eta kudeatzen duten migrazio-erakundeen inplikazioaren bitartez egitera. Adingabeek ere premia hori dute.

Elkarriketatutako 50 adingabeen artetik, % 66k ez zituen bitartekarien edo erakundearen zerbitzuak erabili Espainiako lurraldera iristeko; % 32k, ordea, erabili zituen zerbitzu horiek (kasu batean ez daukagu gai horri buruzko informazio fidagarririk).

39. taula
Migrazio-erakunde baten inplikazioa bidaian

Tokiak	Herrialdeak	Guztira	Migrazio-erakundea		
			Bai	Ez	Ez dakigu
Magreb	Maroko	24	4	20	—
	Aljeria	2	—	2	—
	Sahara	3	1	2	—
Saharaz azpiko Afrika	Ghana	6	3	3	—
	Angola	2	1	1	—
	Kamerun	2	—	2	—
	Kongo	1	—	—	1
	Boli Kosta	1	—	1	—
	Ginea	2	2	—	—
	Gambia	2	2	—	—
	Mali	1	1	—	—
	Senegal	1	1	—	—
Beste batzuk	Ekvador	1	—	1	—
	Errumania	1	—	1	—
	India	1	1	—	—
	Kop.	50	16	33	1
	(%)	100	32	66	2

Iturria: Adingabeei egindako elkarriketak, 2007. Egileak egina.

Alderdi horri dagokionez, *alde oso argia dago Magrebeko adingabeen eta Saharaz azpiko Afrikako adingabeen artean*. Gehienbat, esan daiteke Magrebeko adingabeek ez dituztela migrazio-erakundeak erabiltzen Espainiarantz gurutzatzeko; Saharaz azpiko Afrikako adingabeek bai, ordea. Horrenbestez, migrazio-erakunde baten erabilera zuzenean lotuta dago erabilitako garraiobidearekin.

Marokoarren artean, % 83k ez du migrazio-erakunderik behar ibilbidea egiteko. Modu klandestinoan bidaiatzen dute, kamioien azpian edo itsasontzietako edo ferryetako ezkutuko bidaiari gisa, eta erabiltzen duten antolamendu-azpiegitura bakarra beren pikarkeria eta trebetasuna dira, arrakasta lortzeko funtsezkoak, bestalde.

Hirugarren aldian ondo kalkulatuta neukan haiek ni ez harrapatzeko. (...) Fezera joan behar nuen eta autobusa etorri zain egon behar nuen sartu arte; bagenekien gidaria mozkorra zela eta autobusarekin etortzen zen guztietan Fezetik oso urrun zegoen hotel batera joaten zela. Hotel horretan taberna bat dago, eta gidariak han uzten du autobusa, bi atsedeen-egun ematen ditu festan berriz ere itzultzeko. Ikusi beharko zenuke zer nolako lana egin dugun! Ondo aztertutako lana da, ingeniari-tza-lana; izan ere, han geunden mutil guztiok ikastaroak egin ditugu, batzuek berokuntza-ikastaroak, beste batzuek elektrizitatekoak, eta denok laguntzen dugu (...) Burua, pentsatu egin behar baituzu. (...) Eta gaueko 12:00etan lanean ari ginen gainean, uste genuelako kutxan, goi-goian, hutsune bat zegoela, berogailua dagoen tokian. Kutxa hori ez daukate autobus guztiek, baina hori Frantziatik zetorren, adituak ginen autoetan, matrikuletan, gauza horietan... Gora eta erraz pasatuko gara, inoiz ez baitute goian miatzen. Sartu nahi nuenean, laneako arropa janzen nuen beti, eta txano bat jartzen nuen ez nuelako zikindu nahi, eta gero, beste arropa bat neukan azpitik; hortaz, autobusetik jaisten zarenean turistatzat hartzen zaituzte, ez zara emigrantea. (...) Eta aste bakoitzean bana etorri ginen, guztira zortzi. Ni Malagan jaisten nintzenean ondo uzten nuen lekua besteak berriro atera zezan, Marokon egiten genuen ilara. (Farid. Maroko. 07/02/22).

Mariam-en (Marokoko neska bat) kasuak aipamen berezia eskatzen du, neska hori Espainian sartzeko modua oso berezia izan zelako, Marokoko ustezko migrazio-erakunde batek kudeatu baitzuen. Mariam-ek Espainiako lurreko muga andre baten alaba izango balitz bezala igaro zuen, horrek eskatzen duen dokumentazioaren faltsutzearekin, jakina. Beste autonomia erkidego batzuetan bildutako datuak eta informazioaren arabera ere —Katalunian arestian aipatutako «Niñas y adolescentes invisibles» izeneko txostena, eta Valentzian, landa-lanaren lehenengo emaitzak— Marokoko emakumezko adingabeen migrazioei dagokienez, Espainiako lurraldean sartzeko estrategia desberdinak erabiltzen dira. Ondorengo ikerlanetan —horien artean estatuaren txostena dago, eta 2008ko amaie-

rarako bukatuta egongo da— kontuan hartu beharko da aldagai hori; izan ere, badirudi bidaiatzeko beste modu bat dagoela erakusten digula, arriskuak nabarmen murrizten dituen modua, gainera.

Nire amak andre batekin topo egin zuen eta alaba Espainiara eramaten lagun zeza-keela esan zion. (...) Emakume horrek mutilak eramaten ditu Italiara, Frantziara... Emakume hori jende berria jartzen ari da etengabe bere pasaportean; hortaz, pasaporte faltsuak dira. (...) Nire bila etorri zen, eta argazki bat aterako zidatela esan zidan, bere alaba izango banintz bezala... Eta haren autoan etorri nintzen, mutil txiki batekin eta haren koinatuarekin, baina pasaportean senarra duela jartzen du. (Mariam. Maroko. 07/02/21).

Aitzitik, *Saharaz azpiko Afrikako adingabeen artean, % 56 migrazio-erakunde baten laguntzarekin etortzen da*, batez ere paterak erabiltzen dituztelako Espainiako kostaldeetara iristeko, nahiz eta lurreko muga autoz gurutzatuz ere etortzen diren.

Gizon bati eman nion nire dirua, ia 100 euro garraioa, polizia eta abar ordaintzeko. Nik 50 euro neuzkan patrikan, hark ordaindu behar du, zeren nik eramaten badut diru guztia patrikan lapur baitiezadakete. 1.800 € eman nizkion Marokon bizi den Ghanako gizon hari. Pateraz etorri nahi baduzu hari ordaindu behar diozu beti, bestela ezin zara hona etorri. (Joseph. Ghana.07/02/21).

6.3.4. Bidaiaren kostua eta bidaiaren ordainketa

Bidaiaren finantziazioak kostu oso desberdinak izan ditzake, eta batez ere migrazio-erakundeak lekualdaketa duen inplikazioaren eta adingabeak erabilitako garraioaren arabera da finantziazio hori.

Magrebeko adingabeen artean, *Marokoko adingabeak dira Espainiarako bidaiaren gutxien inbertitu behar izan dutenak*; izan ere, ia adingabe guztien kasuan, migrazio-bidaiaren plangintza eta antolamendua adingabeek berek kudeatzen dute, honako garraiobide hauek erabiliz batez ere: kamioiaren edo autobusaren azpiak edo itsasontzietan ezkutuko bidaiari gisa sartuta.

Mutil horietako askok eurek ordaintzen dute bidaiaria. Tangerkoek oso diru gutxi behar izaten dute, eta askotan esaten dute bidaiari ekiten dietenean ez dutela ezer izaten patriketan. Aitzitik, Marokoko erdialdeko eta hegoaldeko adingabeek dirua aurreztuta eduki

behar dute, bidaiatzeko diru-kopuru handiagoa behar dutelako; batzuek lanean jarduten dute beren jatorrizko herrialdean, normalean oso gutxi kualifikatutako postuetan (igeltse-roak edo zerbitzariak, esaterako) bidaiaren kostuak ordaintzeko, gorago ikusi denez.

Soilik Akran, Samir, Khaled eta Mariam marokoarrek (guztiak Marokoko erdialdetik eta hegoaldetik etorritakoak) behar izan dute migrazio-erakunde baten laguntza bidaia kudeatzeko: mutilak pateraz etorri dira, eta neska autoz. Ordaindutako guztizko diru-kopurua 500 eurotik 800 eurora bitartekoa da. Arestian esan dugunez, Mariam andre baten alaba izango balitz bezala iritsi zen eta Mariamen amak kreditu bat eskatu behar izan zuen bankuan gastuari aurre egiteko; hori guztia neskaren aitak horren berri izan gabe.

Marokoarrekin alderatuta, *Saharaz azpiko Afrikako* adingabeen artean, adingabe horiek Espainiara etortzeko bidaiaren alderdi berezietako bat migrazio-erakundeen erabilera da. Imajina dezakegun bezala, horrek ekarriko du gastua handiagoa izatea ibilbidearen finantziazioan. *Espainiara pateraz etorri direnek 1.000-1.800 euro ordaindu behar izan dituzte*, kontuan hartuta pateraren gastuei autobus-txartelen kostuak gehitu behar zaizkiela, itsasontzi horiek ateratzen diren kostaldeko hirietara iritsi arte, eskualde honetako adingabeen kasuan, bidaiak oso luzeak izaten dira.

Marokon bizi den Ghanako gizon hari ordaindu genion. Muga igaro nahi baduzu hari ordaindu behar diozu beti, bestela ezin zara hona etorri. Aitari eskatu nion eta bakoitzak 1.800 euro ordaindu genituen hona etortzeko. Aitak kakaoa landatzen zuen gizon batentzat, eta hari eskatu zion dirua uzteko. Aitak lau urtetan itzuliko dio kakaoaren produkzioarekin. (Joseph. Ghana.07/02/21).

Deigarria da pateraz iritsi diren Saharaz azpiko hiru adingabeen kasua; izan ere, adingabe horiek ez dute bidaia ordaindu beharrik izan pateren arduradunak jatorrizko gizarte-harremanen taldekoak direlako (anaiaren laguna, amaren ezaguna edo auzoko bizilaguna) eta mesede bat egin diete. Hiru adingabe horien artetik, Gambiako Beniren kasua esan-guratsua da oso grafikoki erakusten duelako jatorrizko herrialdeetan migrazio-bidaia aukera handitzat hartzen dutela, eta, ondorioz, horrek dakartzan arriskuak normaltzat hartzen dituztela. Kasu honetan, migrazio-bidaia borondatezko oparia da, adingabeari alde zurretik ezer esan gabe egindako oparia.

Ez, nik ez nuen sekula pentsatu Europara etortzea, ez dagoelako Europara etortzeko erraztasunik. (...) Nik ezagutzen dudak mutil bat dago, Senegaleko arrantzale bat. Hark furgoneta txiki eta zahar bat dauka. Etorri zenean galdetu zidan ea konponie-zaiokeen furgoneta. Nire irakasleak laguntzeko esan zidan. Honako hau esan zidan:

«zu mutil ona zara, ahal badut lagunduko dizut —bazekielako zein zen nire egoera, eta nire ama ezagutzen zuelako— autoa konpontzen laguntzen badidazu, nik opari bat egingo dizut». Mutilak nire irakaslearekin hitz egin zuen, ez dakit zer esan zion eta mutilak honako hau esan zidan: «zuk ikusi nahiko al zenuke itsasoa?», nik erantzun nion: «inoiz ez naiz itsasora joan», eta nirekin joan nahi zuela esan zidan. Bai, itsasora joan ginen, egun bat, bi egun, hiru egun, ez ginen iristen, eta hark esan zidan: Espainia, eta nik esan nion: Espainia?!, eta hark baietz esan zidan. Eta ni nire prakekin, nire zapatilekin eta elastiko honekin, ezer gehiago ez, ez dirurik, ez ezer. Bost egun eta ez dakit zenbat ordu eman genituen. Mendiak ematen zuten zerbait ikusi genuen, eta hark esan zidan: «hori da Espainia». (Beni. Gambia. 07/08/29).

Bidaia-kostuari dagokionez, gurasoek, Europan bizi diren ahaideek edo adingabeek har dezakete beren gain. Saharaz azpiko Afrikako adingabeen kasuetan, beste herrialde batzuetara joan behar dute nahitaez patera hartuta ateratzen diren lekura iristeko, askotan *oso kualifikazio txikiko aldi baterako lanak* (kamioiak kargatu eta deskargatu, etxeak garbitu edo kaleko saltzaile-lanak egin, esaterako) *egiten dituzte patera ordaintzeko behar adina diru lortzeko*. Esan behar da finantziazio-estrategia hori, dagoeneko ikusi dugunez, Marokoko erdialdeko eta hegoaldeko adingabeek ere erabiltzen dutela.

Hertsiki ekonomikoak ez diren arrazoiak direla medio Espainian dauden adingabeen kasuetan —Kamerungo bi mutilen eta Angolako Miguelen kasuak, adibidez— bidaia osoa gurasoek finantzatu dute. Zaidaren kasua da salbuespena, neska horrek Espainiara emigratu zuen gurasoen etxetik ihes egin zuelako Frantziatik; hortaz, bidaia neskak berak ordaindu zuen.

6.3.5. Dokumentazioa bidean

Adingabe askok ez digute eman bidaian zeramaten dokumentazioari buruko informaziorik (% 58), eta ehuneko horretatik, gehiengoa marokoarrak dira. Oro har, Espainian modu irregularrean, eta hortaz, modu klandestinoan (pateran, kamioi edo autobus baten azpian edo itsasontziko ezkutuko bidaiari gisa) sartu diren adingabeek ez daramate dokumentaziorik; aitzitik, modu erregularrean sartu direnek (hegazkineko edo itsasontziko bidaiari gisa) badaukate dokumentazioa, bidaiaren araudiak berak hala eskatzen duelako.

Datu hori eman duten adingabeen artean, % 26k *badarama dokumentazioa*, % 16k, *ordea*, ez. Alde batetik, *adingabeen % 20k bere benetako dokumentazioa erabiltzen du bidaia egiteko*; ia kasu guztietan pasaporteak da berekin ekartzen duten dokumentu bakarra,

nahiz eta horrekin batera bisa edo gurasoen baimena ere ekar dezaketen; horixe da, hain zuzen ere, Errumaniako Danielen kasua. Adingabe horiek bat datoz modu erregularrean bidaiatzen dutenekin (itsasontziz, hegazkinez edo autobusez) eta polizia-kontrolak igarotzeko dokumentazioa behar dutenekin.

Kasuetako batean, Agadir-eko mutil marokoar batek modu irregularrean egin du bidaiia, baina erroldako paperekin etorri da. Adingabeak dokumentu horrekin bidaiatu izanak pentsarazten digu jatorrizko herrialdetik ezagutzen duela harrera-zirkuitua, eta, are gehiago, aurrerago ikusiko dugunez, kontuan hartzen badugu adingabe horietako askok jatorrizko herrialdetik dakitela administrazioak adingabeak babesten dituela.

Dokumentazioarekin etorri diren mutilen artetik, % 6 dokumentazio faltsutua duela etorri da. Angolako Miguelen eta Mariamen kasuetan (haurdun dagoen Marokoko neska, amak bidali zuena Espainiara) familiak antolatu zuen dokumentuaren faltsifikazioa eta migrazio-erakunde bati enkargatu zion dokumentua faltsifikatzeko, betiere ordaindu ondoren, jakina; horretaz gain, erakunde horrek bere gain hartu zuen bi adingabe horiek beren jatorrizko herrialdetik ateratzea, bata Espainiara eta bestea Ingalaterrara. Hirugarren kasua Angolako beste mutil bat da, baina kasu honetan adingabeak berak, familiak ezer jakin gabe, negoziatu zituen baldintzak migrazio-erakunde bateko kide den pertsona batekin.

Dokumentaziorik gabe bidaiatu duten adingabeek askotan esan dute dokumentaziorik ez izatea ez dela eragozpena izaten, lurreko muga-pasabide gehienetan polizia-kidegoak ustelak izaten direlako, eta diru-kopuru txiki baten truke uzten dutela dokumentaziorik gabe sartzen.

Ez daramat ezer. Zuk dirua ordaindu poliziari eta utziko naute pasatzen. (Adel. Ghana. 07/02/22).

Kapitulua azalpena

- IKEDAMen ia erdiek beren familian bertan dituzte migrazio-erreferenteak, eta IKEDAM askoren erreferenteak adingabe horien berdin taldekoak dira, baita bizi-lagunak edo ezagunak ere. Magrebetik etorritako IKEDAMek xede-herrialdea hobeto ezagutzen dute, migrazio-tradizio txikiagoa duten beste ingurune batzuetatik etorritako adingabeen artean, ordea, xede-herrialdeari buruzko ezjakintasuna handiagoa da.
- IKEDAMek emigratzeko arrazoi nagusiak honako hauek dira:

- Arrazoi ekonomikoak
- Gizarte- eta kultura-arloko aukerak hobetzea
- Arrazoi politikoak
- Familia-arloko gatazka-egoeratik ihes egitea, neska batzuen kasuan.
- Emigratzeko ideia oso gaztetandik izan dezakete, eta alde zurretik planifika dezakete emigratzea, edo hainbeste planifikatu gabe sor daiteke zirkunstantzia edo egoera jakin batzuen aurrean. Irteteko eragileak honako hauek izan daitezke: ahaideren baten heriotza edo gaixotasuna, eskola nahita edo nahi gabe utzi izana, ustez arrakastatsua izan den migrazio-esperientzia bizi izan duten pertsonen kontaketa, edo hirugarren batek proposatu izana.
- Migrazio-proiektuari dagokionez oinarritzko bi jarrera daude: familiaren erabakia izatea edo norberaren erabakia izatea.
- Elkarrizketatutako IKEDAMen % 60k modu indibidualean hartu du emigratzeko erabakia, eta % 21en kasuan, emigrazioa familia-estrategia bat da, semea edo alaba babesteko familiako egoera ekonomikoa hobetzeko edo adingabearen etorkizunean inbertitzeko, batez ere adingabearen ikasketa-etorkizunarekin lotuta dagokionez.
- Migrazio-bidaian izandako lagunkideei dagokienez ez dago alde nabarmenik; izan ere, IKEDAMen % 42k bakarrik ekin zion bidaiari eta IKEDAMen % 40k norbaiten laguntzarekin; gehienek beren berdinen taldeak lagunduta, eta ehuneko oso txikiak aitak lagunduta (% 4).
- Elkarrizketatutako 50 adingabeen artean, % 66k ez zituen bitartekarien edo erakundearen zerbitzuak erabili Espainiako lurraldera iristeko; % 32k bai, ordea.
- Marokoarren artean, % 83k ez du migrazio-erakunderik behar izan ibilbidea egiteko; eta talde hori da ekonomikoki gutxien inbertitu behar izan duena Espainiarako bidaia egiteko.
- Saharaz azpiko Afrikako adingabeen artean, % 56 migrazio-erakunderen baten laguntzarekin etorri zen.
- Bidaia-kostua gurasoek, Europan dauden ahaideek edo adingabeek har dezakete beren gain; azken kasu horretan oso kualifikazio txikiko aldi baterako lanak egiten dituzte askotan, patera jatorrizko herrialdean edo ibilbidean ordaintzeko behar adina diru lortzeko.

7

Ibilbidea. Bideak eta bidaiako kondizioak

7.1. Jatorrizko herrialdetik Espainiako mugaraino

7.1.1. Saialdiak. «Ibili, ibili, heldu»

Oro har, «Europara jauzi egiteko» ideia praktikan jartzen den eguna hainbat modu desberdinetan aurkeztu ohi zaie Marokoko adingabeei eta gainerako nazionalitateak dituzten adingabeei.

Marokoko adingabeentzat, Europako ametsa egiazko bihurtzea lortzeak gaizki irten diren saialdi ugari egin izana esan nahi du gehienetan. Kamioi edota itsasontzi batera sartzea lortzen denbora asko eman zutela adierazi zuten gazte gehienek, Marrakech-eko Mohammed-en kasuan izan ezik, lehen aldian lortzeko zortea izan baitzuen hark, nahiz eta hori oso ezohikoa den. Saialdietan gazteek igaro behar duten denboraldia epe luzerako inbertsiotzat hartu behar da, gaizki irtendako saialdi bakoitzean hurrengorako kontuan izango duten ikaskuntza lortu ohi baitute. Denboraldi horiek adingabearen araberako iraupena dute, zehazki, hilabetetik lau urtera bitarte izan daiteke. Adingabeek «erabakia» hartzen duten unetik aurrera, eguneroko jarduera eta ekintza guztien ardatza emigrazioaren testuingurukoak izango dira erabat; horrela, emandako denbora guztiak eta ezarritako harreman denek herrialdetik ateratzeko edo ateratzea lortzeko ideiarekiko lotura zuzena izango dute. Zeharkatzea lortzeko, estrategia multzo batez baliatu ohi dira, eta ametsa egiazko bihurtzeko helburua lortzeko prozesu horretan, iraunkortasuna, pazientzia eta buru-argitasuna funtsezko gaitasunak dira.

Bai, pentsatzen aritu nintzen eta batzuetan, portura joaten nintzen kontua nola zihoan ikusteko; Tanger-era joaten nintzen, zortzi orduko distantziara bazegoen ere, etxean inor ez nuenez (...). Eta Tangerreko portuan hona etortzen saiatzen egoten nintzen. Kamioi edota autobus baten azpian, itsasontzian sartuz, edo beste edonon. Zorterik ez banuen, itzuli egiten nintzen. Eta horrela. (Mustafa. Maroko. 07/02/22).

Arratsaldeko 18:00etan jaisten nintzen, goizeko seiak arte, lo eta dena egiten nuen bertan. hiru edo lau egunez ez nintzen etxera joaten. (Rida. Maroko. 07/06/14).

Huts egindako saialdi horietako zenbaitzuetan Algeciras-eraino iristea lortzen dute, baina hiri horretako portuan daudela, detektatu eta Marokora itzultzen dituzte. Babesgabetasun-egoeran dauden adingabe atzerritarrek aberriratzeari dagokionez, irregularitasunak gertatzen direla eta legea betetzen ez dela salatu dute argitalpen eta erakunde askok (Arce, 1999; Jiménez, 2003; PRODEIN, 2001; Amnesty International; Save the Children). Elena Arce abokatuak (1999) nabarmentzen duenez, gobernua ez da bere eskumenak betetzen ari. Dokumenturik gabeko adingabe atzerritarren bat bere jatorrizko herrialdera itzultzen denean, «itzulketa» bat gertatzen ari da mugan, eta ez familia berriz elkartzeko izapide bat. Itzul-keta egiteko, adingabearen jatorrizko herrialdearen kontsulatura joan ohi da polizia, eta «laissez passer» deritzen dokumentu bat egin ondoren, adingabea Marokoko poliziaren eskuetan utzi ohi da. «Kanporatzeko eta itzultzeko» prozedura «herrialdean legez kanpo sartu nahi duten» eta adinez nagusiak diren atzerritarrekin egikaritu ohi da, eta 4/2000 Lege Organikoaren 53. artikuluan araututa dago, baina ezin zaie adingabeei aplikatu:

GALDERA: Baina zenbat aldiz saiatu zara?

ERANTZUNA: Askotan. Sei edo zazpi aldiz. Tangerren kamioiak dauden lekura joaten nintzen, eta hori, eta kamioi baten azpian jartzen nintzen. Algecirasera iristen nintzen eta berriz jipoitzen ninduten, bidali eta berriz itzuli, eta berriz harra-patzen ninduten. Bai, Marokon jipoitzen ninduten. Algecirasen, ez.

GAL: Zenbait egun eta hilabetez egoten zinen Tangerren?

ER: Tangerren luzaroan ez. Bi aste bakarrik, lortzen ez banuen, nire hirira itzultzen nintzen atseden hartzera. Berriz lan egin, berriz saiatu. Tangerren geratzen banintzen, droga kontuetan arituko nintzen berriz, hemen geratuko nintzen bost urtez, eta ez nuen Espainian edo nire hirian pentsatuko. Hobe hor bi astez egotea eta igotzea.

GAL: Azkenean, zenbat denboraz egon zinen?

ER: Sei hilabetez (...). Bai, ez nintzen Cádizera joa. Kamioia Algecirasen geratzen zen baina ni ez nintzen Cádizera joa. (Kasib. Maroko. 07/08/29).

Saialdi horien alderdi dramatikoenetako bat Marokoko poliziak duen eginkizuna da. Beren herrialdeko poliziak eman ohi dien tratu ankerra xehetasunez deskribatzen dute adingabeek: harapatzen badituzte, hainbat egunez irainak, kolpeak eta astinduak polizia-etxean. Izan ere, ezbehar horren aurrean, hainbat mito sortu dira; horrela, adingabeek duten supersitizio baten arabera, txakur polizia batek horzka egiten badizu, zeharkatzean arrakasta izango duzula ziurra da.

Hainbat aldiz saiatu naiz, baina jipoitu egiten gintuzten (...). Tangerreko poliziak autokar baten azpian aurkitzen bazaitu, batzuetan polizia-etxera eramaten zaitu eta hor ematen duzu egun bat edo bi, hortik atera baino lehen. Batzuek hiru hilabete ematen dituzte espetxean. (Munir. Maroko, 07/02/23).

Hiru aldiz igo naiz Algecirasera, poliziak hartu eta berriz bidali ninduen. Tangerren, aduana-poliziak bi aldiz jipoitu ninduen, behin batean, txakur bat kamioi barruan sartu zen, eta kanpoan jipoitu ninduten. Behin batean Tangerreko bulego batean sartu eta bi egunez utzi ninduten bertan, oherik eta beste ezer gabe. Espainiako poliziak bilurrak jartzen dizkit, bulegoan sartu eta hor, zenbaitzuk jipoitzen ninduten eta beste batzuek, ez. (Ali. Maroko. 07/07/06).

Nazioarteko erakunde ugari salatzen dute egoera hori, esaterako, Amnesty International, UNICEF eta Save the Children erakundeek. Jaume Bofill fundazioaren argitalpenerako (Quiroga, Comas, 2005) UNICEF-Maroko erakundeak emandako txostenean adierazten denez, Marokoko adingabeen aurkako tratu txarrak maiztasun handiz gertatzen dira, eta hori kezagarria da oso. Txosten horretan elkarriketatutako 33 kasuen artean, Marokoko poliziak tratu «txarra» edo «oso txarra» eman diela adierazi du adingabeen % 81ek, eta Espainiako poliziari dagokionez, ehuneko hori askoz ere txikiagoa da, zehazki, % 9. EAEen elkarriketatutako adingabeen kasuan, kasu batean adierazi da Espainiako polizia indarkeria-iturri gisa, eta oso indarkeria puntuala dela zehaztu da kasu horretan, Marokoko poliziak emandakoa baino ezkoz ere intentsitate baxuagokoa.

Saharaz azpiko Afrikako adingabeen kasuei dagokienez, berriz, saialdiei eta estrategiei buruz dugun informazioa oso eskasa da. Garraiorako paterak aukeratu dituzten adingabeek, bestalde, ez dute hain plangintza xehaturik behar, migrazio-erakundeak berak baitu horren ardura. Espainiara ezkutuko bidaiari gisa iristeko itsasontzia hautatu duten adingabeen kasuan, aldiz, kamioien eta autokarren azpian sartzen diren gazteenen oso antzeko estrategiak izan ohi dituzte.

Hiru hilabete eman nituen Abidjan-en. Batzuetan, dirurik ez nuenean, janaria eta beste hainbat gauza erosteko, kamioiak kargatzen egiten nuen lan merkatuan, adibidez, irin-zakuak edo arroz-zakuak (...). Eta dirua lortzen nuenean, Europara joateko bidea bilatzera joaten nintzen. Itsasontzi handi bat bilatzen nuen, uste nuen Europara joango zela, baina ez nekien Espainiara, Alemaniara, Frantziara edo nora. Portuan lan egiten zuen jendea zegoen, bazekiten itsasontziak nora zihoazen. Beti horiei galdetu behar nien, eta galdetzean, diru pixka bat eman behar nien. Ni gaez sartu nintzen, oso zaila. Ni azpian ezkutatuta, sotoetan. (Adel. Ghana. 07/02/22).

7.1.2. Erabilitako garraiobideak

Oro har, *Espainiara* iristeko aukerarik ohikoena *modu irregularrean da*. Ikerlan honetako IKEDAMen % 76 honela sartu ziren: % 32, *kamioi edo autokar baten azpian*, % 18, *itsasontzi bateko ezkutuko bidaiari gisa*, eta beste % 26, *pateraz*.

40. taula

Elkarriketatutako adingabeek Espainian sartzeko erabilitako garraiobidea, 2007

Tokiak	Herrialdeak	Guztira	Sarrera irregularra			Sarrera erregularra		
			Kamioi/ autokarren azpian	Itsasontzi/ ferryko ezkutuko bidaiari	Pateraz	Autoz	Hegaz- kinez	Itsason- tiziz
Magreb	Maroko	24	15	4	3	1	1	—
	Aljeria	2	—	—	1	—	—	1
	Sahara	3	1	—	1	—	1	—
Saharaz azpiko Afrika	Ghana	6	—	3	2	1	—	—
	Angola	2	—	—	—	—	1	1
	Kamerun	2	—	—	—	—	2	—
	Kongo	1	—	—	—	—	1	—
	Boli Kosta	1	—	1	—	—	—	—
	Ginea	2	—	—	2	—	—	—
	Gambia	2	—	—	2	—	—	—
	Mali	1	—	—	1	—	—	—
	Senegal	1	—	—	1	—	—	—
Beste batzuk	Ekvador	1	—	—	—	—	1	—
	Errumania	1	—	—	—	1	—	—
	India	1	—	1	—	—	—	—
Kop.		50	16	9	13	3	7	2
(%)		100	32	18	26	6	14	4

Iturria: Egileak egina, EAEn bizi diren IKEDAMei egindako 50 elkarriketa oinarri hartuta, 2008.

Eremu geografikoak kontuan hartzen baditugu, *Magreb-eko adingabeek* Espainiako muga iristeko erabilitako garraiobide nagusia modu irregularrean gauzatu ohi da; % 55, kamioi edota autokar baten azpian, % 13, itsasontziko ezkutuko bidaiari gisa, eta % 17, pateraz. Gainerako % 13k, azkenik, hegazkinez, autoz edota itsasontziz egin zuten bidaia. Espainiara iritsitako *marokoar* adingabeen % 63k, *bestalde, kamioi edota autokar baten azpian* egin zuen bidaia, % 17k, berriz, portuan ertzeratutako itsasontzi bateko ezkutuko bidaiari gisa, eta beste % 13k, azkenik, pateraz, batez ere herrialdeko hegoaldeko eskualdeetatik datozenenek.

Algeriako adingabeen kasuan, bestalde, horietako bat pateraz iritsi zen, eta beste bat, itsasontziz, bidaiari erregular gisa; Mendebaldeko Saharako hiru adingabeak hegazki-

nez, kamioi baten azpian eta pateraz iritsi ziren. Azkeneko hori, beraz, Espainiako kostaldeetara iristeko patera erabili zuen kasu bakarra dugu, baina logikak adierazten digunez, toki horretatik datozen adingabe gehiagok erabili dituzte paterak segur aski, paterak ateratzen diren hiri nagusietako bat baita Laâyoune.

Marokoarren artean garraiobide nagusia kamioien azpiko aldea bada, *Saharaz azpiko adingabeen artean patera da* garraiobide nagusia, zehazki, % 44. *Saharaz azpiko adingabeen* kasuan, Ghanako gazteetako hiru eta Boli Kostako mutila ere *itsasontzi bateko ezkutuko bidaiari gisa iritsi ziren Espainiara*, zehazki, % 22. Horiek guztiek Boli Kostako Abidjan-eko portutik egin zuten bidaia; Gineako Golkoko eskualdeko portu garrantzitsuenetakoa dugu adierazitakoa, batez ere kakaoa ekoizten duen munduko lehena delako.

Nabarmentzekoa da Espainian sartzeko garraiobide gisa *hegazkina erabili duten IKEDAMen* % 22 eskualde horretako adingabeak direla. Mutil eta neska horiek ditugu Espainiara modu erregularrean sartu diren bakarrak, eta gizarte-itxaropenen hobekuntza eta politika-arrazoiak motibazio gisa dituzten kasuekin bat datoz.

Azkenik, Inoren Kargura ez dauden hiru Emakumezko Adingabeen kasuan, horietako bi hegazkinez iritsi ziren, eta azkena, berriz, autoz; autoa modalitate berri bat dugu, Espainiako muga zeharkatzeko adingabearen nortasuna faltsutzen duen migrazio-erakunde baten eskuetan dagoena. Hurrengo azterlanetan, adi egon beharko dugu, neska adingabeek mutilek erabilitako garraiobide-modalitate berberak erabiltzen ote dituzten edo metodologia berriak erabiltzen ote dituzten jakiteko.

7.1.3. Igarotzeko herrialdeak eta hiriak

Magrebeko adingabeen eta Saharaz azpikoen arteko desberdintasunetako bat zera da, beren herrialdeek Espainiako mugarekin duten distantzia, hain zuzen ere.

Magrebeko adingabeek, marokoaurrek nahiz sahararrek edo algeriarrek, ez dute beste herrialde edo mugarik zeharkatu behar Espainiara iristeko.

Marokoko adingabeen kasuan, esate baterako, jatorrizko tokien arabera desberdintasunak daude. Normalean, erdialdeko eta hegoaldeko adingabeek beste hiriren batera joan behar dute hautatutako garraiobidea hartzeko. Marrakech eta Fez inguruetatik datozen adingabeek Tanger-etik egin ohi dute hori, Rachidia-tik datozenek, berriz, Nador-etik, eta Agadir edo Ouarzazate-tik datozenek, azkenik, Mendebaldeko Sahararen kostaldeko hi-

riren batetik, Dahla-tik edo Laâyoune-tik. Orokorrean, bidaia horiek lineako autobusez egin ohi dituzte baina horietako askok entrenamendua praktikan jartzen dute, eta autobusetako azpiko edo goiko aldean bidaiatu ohi dute, txartelik ordaindu gabe.

Saharaz azpiko adingabe elkarriketatuen hitzetan, aldiz, horietako asko beste herrialde batera joan ohi dira, Kanarietara edo Andaluziara eramango dituzten garraibidea erabiltzeko, eta hilabetetik zapi hilabetera bitarteko denbora-tartea eman ohi dute Espainiako kostaldeetara iristeko. Gambiako eta Gineako adingabeek Senegal hautatu ohi dute patera hartzeko herrialde gisa. Eta Ghanako eta Boli Kostako adingabeak Boli Kostako Abidjan hiriko porturaino joan ohi dira, eta ondoren, itsasontzi batean sartu ohi dira ezkutuko bidaiari gisa.

Adiskide batekin joan nintzen, hark ezagutzen zuen Boli Kosta. Hark ere baditu lagunak bertan, arrantzaleekin lan egiten du, eta beraz, patera du; Abidjan-eraino pateraz joan ginen. Pateran bost bat orduz bidaiatu ondoren, Abidjan-era iritsi ginen gauean. Bertan lana zegoela uste nuen nik, baina iritsi eta han ez zegoen lanik. Ezin nuen lan egin txikia nintzelako. Berehala itzuliko zela esan zidan nire adiskideak, eta kito, alde egin zuen (...). Hilabete baino gehiago eman nuen leku horretan, apur bat gehiago. Luzaroan egon nintzen bertan, baina kalean egiten nuen lo, autobus-geltoki batean. Gazte asko zeuden, baita Ghanako jendea ere; orduan, Boli Kostako portura joaten nintzen eta hor txikientzat lan pixka bat zegoenez, portura joaten nintzen lagunekin (...). Bai, bi astez geratu nintzen leku horretan, Ghanara itzuli nahi nuen baina ez nekien bidea. Gero, nirekin portura joaten ziren horiekin pozik nengoen, ezagutzen nuen jendearekin bainengoen. (...)Bi aste geroago, etxe txiki batera joan nintzen bizitzera, adiskide batzuen zen, eta 10 bat gazte zeuden bertan. Egunero joaten nintzen Abidjan-eko portura. Bertan, gizon zuri bat ezagutu zuen; gizon horren itsasontzia Europara zihoan, eta janaria eta edaria erosten lagundu zidan. Egun batean, gizon hark ikusi gabe, bere itsasontzian sartu nintzen; hiru edo lau egun igaro ondoren, ikusi egin zidan, eta janaria eta ura eman zizkidan. 16 egun geroago, Espainiako hiri batera iritsi nintzen, ez dakit zeinetara. (Ernest. Ghana. 07/02/22).

Ghanako beste bi adingabek, bestalde, askoz ere korapilatsuagoa den bidea hartu zuten: Ghanatik Nigerrera eta Nigerretik Libiara autobusez joan ziren, eta horietako batek patera bat hartu zuen; patera horretan Lampedusa-ra (Italia) joan zen. Bestea, berriz, beldur zen, eta azkenean atzera egin zuen, Algeria eta Mauritania zeharkatu zituen, eta azkenean, Laâyoune-ra (Mendebaldeko Sahara) iritsi eta patera batera igo zen. Ghanako beste mutil batek Burkina Faso, Niger, Algeria eta Nador (Maroko) zeharkatu zituen, eta patera batera igotzen ari zela, poliziak geldiarazi egin zuen. Kasu horietan, adingabeek zazpi hilabetetik gora eman ditzakete migrazio-bidaian.

Libiara joateko plana nuen. Galdetu egin nuen, nire herrian beti horretan lan egiten duten pertsonak daude, eta horra joan nintzen. 20 ginen, hiru edo lau adingabe. Ghanatik Nigerrera autobusa ordaindu genuen, 10 bat euro, hiru bat egunez, batzuetan gelditu egiten ginen apur bat jateko eta berriz jartzen ginen abian. Gero, Nigerran Libiarako autobusa hartu genuen, astebete eta egun batzuk eman genituen. Autobusa gelditzen zenean egiten genuen lo, gure herrialdeko janaria geneukan. Libiara iritsi ginenean, zenbait adiskide ikusi genituen, Libian egiten zuten lan, eraikuntzan, eta lan egin nahi bagenuen, lagundu egiten ziguten, zortea baduzu, Libian lan egin dezakezu. Ghanan, Italiaraino oso handia zen itsasontzi batean joango ginela esan zidaten, baina Libian geundenean, kasurik ez egitea erabaki nuen. Nik itzuli egin nahi nuen, «itzuli nahi baduzu, ordaindu egin beharko duzu». Libian pertsonak oso gize-nak dira, lan egiteko oso handiak, eta ni eta ni bezalako beste mutil bat ez ginen horrelakoak. Lanik ezin zigutela aurkitu esan ziguten. Eskolara deitu nuen aitarekin hitz egiteko. Aita sufritzen ari zen, ez baininduen aurkitzen. Aitari deitu nion egoera hori kontatzeko, eta Ghanara itzuli behar nuela esan zidan berak, baina nik ezetz esan nion, oraindik Espainia gustatzen zitzaidala. Dirua bidali zidan Libiara, dirua sartzeko balio duen banku horietako baten bitartez, eta gero zuk diru hori ateratzera joan behar duzu. Bankuan, mutil batek dirua atera zuen bere pasaportearekin, eta gero niri eman zidan. Ia 200 euro ziren, eta ni Mauritaniara itzuli nintzen. Bi eman genituen itzultzeko, Algerian ezin baita gurutzatu, joaten bagara, bertako polizia berriz ere Ghanara bidaltzen gaitu. Algeriaren ertzetik joan ginen Senegaleraino, gero, Mauritaniara eta Saharara, eta azkenik, itsasotik hurbil, Laâyoune-tik apur bat urrun. Gauean, itsasotik hurbil geundela, oso txikia zen itsasontzi bat ikus nuen hondartzan, patera bat. Nik ez nuen txalupan sartu nahi, baina igotzen ez banintzen, Marokokoek hilko nindutela esan zidan norbaitek. (Joseph. Ghana. 07/02/21).

Aurreko kapituluan adierazi dugunez, bidaiarako gastuak ordaintzeko, ohikoa da Saharaz azpiko Afrikako mutikoek denboraldi bat lan motaren bat egiten ematea, Espainiara iritsi baino lehen bidaia luzeak egitera behartuta baitaude. Horrelako lanak oso trebakuntza gutxikoak dira: etxeak garbitzea, portuan kamioietako zama-lanak egitea, edota kaleko saltzaile gisa aritzea.

Hain ohikoak ez diren *beste nazionalitateetako adingabeak* kontuan hartzen baditugu, Errumaniako mutilaren kasua nabarmendu behar dugu, Errumaniatik Almeriaraino joan baitzen autobusez. Indiako mutilaren kasua ere arreta berezia emateko modukoa da, hark egin zuen bidaia tipologia berri batekoa baita. Mutiko hori Bonbaiko herri batekoa da jatorriz, eta migrazio-erakunde baten bitartez, Bonbaitik Kanarietara joatea lortu zuen, itsasontzi baten sotoetan ezkutaturik.

Aitak itsasontziko kapitainari ordaindu zion. 40 pertsona geunden, behean ezkutaturik (...). Hilabete egon ginen. Arroza eta arraina ematen ziguten, pixka bat. Ondo

tratatzten gintuzten, ilunpetan geunden, geldi, ezin ginen mugitu. Ni geldi nengoen, gaixorik, botaka egiten nuen. (Mukesh. India. 2007/05/23).

Ondorio gisa, *migrazio-bidaia*ren arrisku-maila adingabearen jatorrizko herrialdeak Espainiarekin duen distantziarekiko eta egin behar dituen aldaketen eta hartu behar dituen garraioen kopuruarekiko paraleloa da. Bidaietan emandako denbora bizitzan izandako gogortasun handiko uneak izan zirela adierazi zuten gazte askok. *Ia kasu guztietan, adingabea kalean bizi zen denboraldi batez, egun batzuez edota hilabete batzuez.* Egoera bereko adingabe gehiagorekin eman ohi dute denboraldi hori kalean, hots, Europara jauzi egiteko prest dauden beste adingabe batzuekin, baina emigratu nahi duten gazteak igarotako herrialdeetako «kaleko hurrekin» nahastea ere ohikoa da; bizitza ateratzen ikasten dute horrelako hurrekin, baina beste zenbait jarduera gauzatzen ikasteko arriskua dute, esate baterako, drogak kontsumitzen edota lapurreta egiten.

Obran edo beste edonon egiten nuen lo, kalean. Mutil gehiago zeuden hor, lan egiten nuen. Gizon zahar batentzat zerbait hartzen nuen, eta berak 50 zentimo edo euro bat ematen zidan. (Samir, Maroko. 07/04/20).

Dakar-en ez zegoen lanik. Bertan, Senegaleko mutiko gazteak zeuden, beti plateak eta poltsak zeramatzen eta etxez etxe ibiltzen ziren janari eske. Beraiekin joaten nintzen, eta ni ere eskean ibiltzen nintzen, baina ez nien ulertzen, beste hizkuntza bat hitz egiten baitzuten, wolof hizkuntza. Batzuek familia zuten, baina kalean egiten zuten lo, eta egun oso ematen nuen beraiekin. Goizean hor geratzen ginen eta banatu egiten ginen, janari eta diru bila joateko. Beti mutil horiekin egiten nuen lo kalean, Dakar-eko itsasontzi-portuan. (Emmanuel. Ghana. 07/02/21).

7.2. Espainiatik EA Eraino

7.2.1. Erkidegoz erkidego eta lehen esperientziak zentroetan

7.2.1.1. Iritsitako lehen hiria

Batez ere, *Andaluziako Autonomia Erkidegotik* sartu ziren Espainiara: *sarbide hori erabili zuen IKEDAMen % 44k. % 26, Algecirasetik, % 14, Almeriatik, eta gainerakoak, Granada edo Sevillatik.* Bide horretatik sartu ziren ia gazte guztiak Marokokoak dira, eta zenbait kasutan, Algeriakoak edo Mendebaldeko Saharakoak.

Gazteen % 30 Kanariar uharteren batetik sartu ziren Espainiara; kasu horretan, gehienak Saharaz azpiko Afrikakoak dira, baina Marokoko hegoaldeko bi mutil eta Indiako beste mu-

til bat ere detektatu dira. Azken horren kasua oso berria da, eta beharbada, beste nazionalitate batzuk iritsiko direla eta beste migrazio-ibilbide batzuk erabiliko direla adierazten du.

IKEDAMen % 14 zuzenean Bilbotik sartzen badira ere (hegazkinez, batez ere), sarrera hori ustekabezkoa da erabat, eta ez dago adingabeek zehaztutako ezein estrategiaren barruan. Gainera, dokumentatutako zenbait kasutan, adingabea Bilbotik sartu zen, beste autonomia-erkidego batzuetara joan zen, eta azkenean, Bilbora itzuli zen, Bizkaiko foru-aldundiaren babespean behin betiko kokatuz.

7.2.1.2. Lehen esperientziak zentroetan

Espainiara iritsi ondoren, oso desberdinak diren bi ibilbide egin ditzakete adingabeek, autonomia-erkidegoetako baten babes-sarean harremanetan jartzearen arabera.

*Batetik, EAEra iritsi baino lehen babes-baliabiderik erabili ez zuten adingabeak ditugu lehen taldean; elkarriketatutako adingabe guztien % 68 daude talde horretan*⁹¹.

Magrebeko adingabeei dagokienez, batez ere marokoarren kasuan, babes-baliabiderik erabiltzen ez duten adingabeek normalean ez dute senitartekorik Espainian, eta helburu jakinik gabe noragabeen ibili ohi dira Espainian, une jakin batean EAEra iristea lortzen duten arte, normalean norbaitek EAEn laguntza emango diela esan ondoren. Normalean, horrelako adingabeak hainbat hiritan izan dira aldeztu aurretik, kalean bizi izandako denboraldiak herrikideen etxeetan, lagunaren etxeetan edota senitartekoen etxeetan bizi izandako denboraldiekin tartekatuz; hala eta guztiz ere, batzuetan Espainiako nazionalitatea duen jendeak eskaini ohi die laguntza motaren bat, aurrerago ikusiko dugun bezala.

*Saharaz azpiko adingabeen artean, EAEra iritsi baino lehen ezein zentroan ez egotea da ohikoena. Horietako asko Kanarietatik iritsi ondoren estatuko segurtasuneko kidegoek detektatu badituzte ere, detektatutako zenbait kasutan, inoren kargura ez dauden adingabeak «atzerritarrentzako barneratze-zentroetan (ABZ)» atxilotuta egon dira*⁹². Bost ka-

⁹¹ Ehuneko hori ez dator bat Bizkaiko foru-aldundiak bildutako kopuruekin; izan ere, Bizkaiko foru-aldundiak 2007rako bildutako datuen arabera, EAEra iritsi baino lehen babes-sareren bat erabili zuten adingabeen ehunekoa % 80 da, gutxi gorabehera.

⁹² Abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoak, irailaren 29ko 11/2003 Lege Organikoak eta azaroaren 20ko 14/2003 Lege Organikoak berritutako 4/2000 Lege Organikoak —urtarrilaren 11koa, Atzeritarrek Espainian dituzten eskubideei nahiz askatasunei eta horien gizarteratzeari buruzkoa— ezartzen duenez, prebentzio- edo kautela-neurri gisa, atzeritarrak honako kasu hauetan barneratze-zentroetan sartzea ju-

41. taula

Elkarrizketatutako adingabeek EAera iritsi baino lehen adingabeentzako babes-sareekin izandako harremanak, 2007

Tokiak	Herrialdeak	Guztira	Gutxienez zentro batean izan dira	Ez dira ezein zentroan izan	Atzerritarrentzako barneratze-zentro batean izan dira ⁹¹
Magreb	Maroko	24	12	12	—
	Aljeria	2	—	2	—
	Sahara	3	1	2	—
Saharaz azpiko Afrika	Ghana	6	—	3	3
	Angola	2	—	2	—
	Kamerun	2	—	2	—
	Kongo	1	—	1	—
	Boli Kosta	1	—	1	—
	Ginea	2	—	—	2
	Gambia	2	—	—	2
	Mali	1	1	—	—
	Senegal	1	1	—	—
Beste batzuk	Ekvador	1	—	1	—
	Errumania	1	—	1	—
	India	1	1	—	—
Kop.		50	16	27	7
(%)		100	32	54	14

Iturria: Egileak egina, EAEn bizi diren IKEDAMei egindako 50 elkarrizketa oinarri hartuta, 2008.

sutan gertatu dira horrelako egoerak, Ghanako hiru gazterekin, eta Gineako bi gazterekin. Harrera horren zirkunstantziak zeintzuk izan ziren ez dago argi. Batetik, dugun informazioaren arabera, dirudienez, adingabe horiek ez zekiten adingabeek balia ditzaketen eskubideak zeintzuk diren, eta beharbada, segurtasuneko kidegoei ez zieten benetako adina jakitera eman. Barneratze-zentro horietan sartzea bereziki larria dela dirudi, indarreko le-

dizialki erabaki daiteke: batetik, atzerritarrek kanporatze-kausa jakin batean sartuta badaude, dagokion espedientea substantziazten den bitartean, bestetik, atzerritarrei itzultze-erabakia eman bazale, eta erabaki hori ezin bada hirurogeita hamabi orduko epean egikaritu, edota mugan sarrera ukatu zaien atzerritarren itzulera-neurria benetan betetzen dela bermatzeko.

⁹³ ABZak kanporatze-kausa jakin batzuetan sartuta dauden atzerritarrentzako edota mugan sarrera ukatu zaien atzerritarrentzako barneratze-zentroak dira (azken horien kasuan, itzultze-neurriaren eraginkortasuna bermatzeko sartu ohi dira horrelako zentroetan).

gedian honako hau jasotzen baita: «Adingabe atzerritarrak ezin izango dira horrelako Zentroetan sartu, Adingabeen Babesean eskudunak diren zerbitzuen kargura jarri beharko dira, betiere Adingabeen Epaileak halakorik baimentzen ez badu, Fiskaltzak aldeko txostena eman ondoren, eta adingabe horren gurasoak edo tutoreak Zentro horretan bertan ez badaude». Horregatik, jardun-protokoloa honako hau litzateke: adingabea delako susmoa badugu (susmo hori txikia bada ere), adina zehazteko probak egin behar dira, pertsona horrek esandakoa alde batera utzita, hari ahalik eta mesede handiena egiteko.

Hainbat nazionalitateko adingabeez osatutako talde baten ezaugarrietako bat zera da, bidean daudela, aldi baterako lanen bat lortu ohi dutela, zenbait aste edo egunetakoa, eta askotan, oso trebakuntza gutxikoa: marokoarren kasuan, laguntzaile gisa frutadenda batean edota iturgintzan, eta Saharaz azpikoen kasuan, Almeriako negutegietan edota kaleko salmentan.

Bartzelonara iritsi nintzenean, CDak saltzen egin nuen lan, bi hilabetez baino ez. Kalean egiten nuen lo. (Naby. Ginea. 07/08/28).

Almerian lana dago, baina gutxi. Nik tomateekin egin nuen lan, negutegietan. Denbora gutxi, lehendabizi astebate, bi egun, hiru egun... Gutxi ordaintzen ziguten, egun bakoitzeko, zortzi orduren truke, 30 €, eta horrekin ezin duzu ezer ere egin. 50 edo 100 euroekin, bai. Ez nuen dirurik. Nik lantegi batean lan egin nahi nuen, eta ez mendian, oso gogorra baita. Bero handia. (Joe. Ghana. 07/02/21).

Adingabeen bigarren taldea, bestalde, EAEra iritsi baino lehen adingabeak babesteko baliabideren bat erabili dutenek osatzen dute, zehazki, % 32.

Talde horri dagokionez, Marokoko adingabeen eta Saharaz azpiko Afrikakoen arteko funtsezko desberdintasunetako bat zera da, EAEra iritsi baino lehen, haurrak babesteko sistemari buruz Marokokoek esperientzia handiagoa dutela, hain zuzen ere. EAEra iritsi baino lehen erkidegoko babes-sare baterako sarbidea izan duten adingabeen artean, % 75 *Marokoko adingabeak dira*, eta gainerako % 25a, berriz, Maliko kasu batek, Senegaleko beste kasu batek, Mendebaldeko Saharako beste batek eta Indiako beste batek osatzen dute.

Magrebeko adingabeen artean, batik bat marokoarrak egon dira beste autonomia-erki-degoren bateko babes-sareko zentroren batean. Lehenengo aldiz Algeciraseko zentroan izan diren adingabeak, normalean, beste hainbat autonomia-erkidegotako babes-sareetan sartzen dira gero (Suafine-ren kasuan izan ezik, Algeciraseko zentroan izan ondoren, Bartzelonara joan zen anaiarekin bizitzera), eta beraz, Kataluniara, Murtziara Valentziara edo Madrilera joan ohi dira. *Zentrotik zentro noragabe ibiltzen diren adingabeak dira*,

eta «aberriratzte-aginduen» arabera mugitzen dira, hots, aberriratzte-agindua ematen zaienean, edo laster neurri hori ezarriko zaielako susmoa dutenean, zentrotik irteten dira.

Algeciraseko eskolan bost egun eman nituen. Poliziak eraman ninduen bertara, txikia nintzelako eta gaztelera ez nekielako; horiekin joan nintzen fiskalarengana, edo hor ez dakit nola deitzen dioten. Bidali behar nindutenez, gau batean atera egin nintzen eta, «non nago?». Malagara joan nintzen autobusez, jendeak dirua ematen zidan. Malagan hilabete eta erdi eman nuen, zentro batean, eta hortik ere ihes egin nuen, bestela Marokora eraman behar baininduten. Bartzelonara ere autobusez. Hiru hilabetez egon nintzen aterpetxean. Eta hor, nire herrialdera jaitsi behar nuela esaten zidan jendeak. Pertsona horiek nire herrialdera jaistea nahi dute. Leku horretan, tutore batzuek honako hau esaten zidaten: «lan egin behar duzu, familia zaindu; jaitsi egingo zara, zure herrialdera itzuliko zara, eta kito». Eta nik zera esan nion neure buruari: «ez naiz sekula itzuliko!». Marokora bidaltzeko asmoa dutenean, Donostiara joango naiz. (Rida. Maroko. 07/06/14).

Deigarria da talde hori osatzen duten adingabeen profilak bat etortzea: Guztiak Tangerretik datoz, eta guztiek Gipuzkoako probintzia aukeratzen dute azken jomuga gisa. Beste autonomia-erkidegoren batetik datozen adingabeen profil horiek ere identifikatu dituzte Gipuzkoako Foru Aldundiaren Haurren Ataleko arduradunek⁹⁴.

Gero, estatuan hainbat aldiz zabuka ibili izanaren bizi-ibilbideak zituzten mutikoak iristen hasi zitzaizkigun, eta orain, Europan zehar ibili diren gazteak ere iristen hasi zaizkigu; «ni Alemanian izan naiz», «nik ez dakit non», eta antzekoak esaten dizkizute; azkenean, hona iristen zaizkizu. (Gipuzkoako Foru Aldundia. 08/04/19).

Horretaz gain, zenbait adingabe beste autonomia-erkidegoren bateko babes-sare bakar batean izan dira, EAEkora iritsi baino lehen. Farid, Munir eta Yasin, esaterako, Bartzelonakoan izan ziren, Rahim, berriz, Madrilgoan, Mohammed eta Mufid, aldiz, Zaragozakoan; guztiak penintsulako zentroetan izan ziren. Maliko Alpha, Senegaleko Babakar, Indiako Mukesh, Marokoko Akran eta Mendealdeko Saharako Hamza, oster, Kanarietako sarean izan ziren. Zirkuituan emandako denbora asko alda daiteke kasuaren arabera; Mufid-ek, esate baterako, Zaragozan bi egun eman zituen, Farid-ek, berriz, bost hilabete, eta Hamza-k, azkenik, bi urte.

Adingabeekin izandako elkarriketen ondoren, kontuan hartzea garrantzitsua den gertakari bat azaleratu zen. Adingabeek adierazi zutenez, arretaren alorreko profesionalek (he-

⁹⁴ Bizkaiaren eta Arabaren kasuan, ez dago horrelako informaziorik.

zitzaileak, gizarte-langileak eta abar) maiz gomendatzen diete adingabeei erkidegoz aldatzea aberriratuak izateko zuzeneko edo zeharkako arriskua badute. «Hain kaltegarriak ez diren» sistemen bila beste autonomia-erkidegoren batera aldatzean, adingabe horietako askok horrelako istorio ugari bizi ohi dituzte, Mufid-en kasuan bezala. Hori horrela izanik, *horrelako adingabeei arreta emateko bi modu* daudela argi dago: modu ofiziala, eta modu informala, hain zuzen ere; *horrek ez dio onik egiten adingabearen gorenko interesari, eta ezta babes-sistemari ere, barruko inkoherentzia ematen baitio*. Sistema ofizial hori osatzen duten langileek deslegitimatzen dute sistema ofiziala bera. Populazio horri arreta emateko sistema ofizialak huts egiten duenean —familia berriz elkartzeko espedienteren bat irekitzen denean, adingabea bere itxaropenetatik urrun dagoen baliabideren batean sartzen denean, edota «bidegabetzat» hartutako neurriren bat gauzatzen denean— sistema ofizialetik kanpo dagoen eta adingabeen benetako babes bermatzeko helburua duen arreta- eta babes-sistema informal bat abian jartzen da. Sistemen eta baliabideen bikoiztasun hori ikusirik, adingabeak labirinto horretan galdu ohi dira, eta prozedura eta mezu kontraesankorrak entzuten dituztenez, noranzkoa aurkitzea kostatzen zaie.

Kanariar Uharteetako babes-sarearen kasua, esate baterako, xehetasun handiagoz aztertu behar da. Kanarietako Gobernuaren Adingabea eta Familia Babesteko Zuzendaritza Nagusiaren arabera, 2006an 947 etorkin adingabe iritsi ziren Kanarietara, eta 2007an, berriz, 734 adingabe, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren datuen arabera. 2006koarekin alderatuz, kopuru hori murriztu egin zen.

2007aren amaieraz geroztik, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak IKEDAMak lekuz aldatzea adostu zuen autonomia-erkidegoekin, Kanariar Uharteetako gehiegizko saturazioa murrizten laguntzeko. 2006ko urritik 2007ra arte, horietako 323 Kanarietatik beste hainbat autonomia-erkidegotara eraman zituzten. EAEren kasuan, 2007aren amaieran 10 adingabe eraman zituzten Gipuzkoara.

Elkarriketatutako mutilen artean, Espainiara Kanarietatik sartu ziren eta EAEn dauden guttien —gobernu zentralarekin sinatutako birbanatze-akordioen ondorioz iritsi ziren 10 adingabeen zein besteen— hitzetan, zentroetan ez zen kudeaketarik egiten, atzeritar gisako dokumentazioari zegokionez. Mendebaldeko Saharako Hamza-ren kasua dugu horietako bat; «gaitasunik ezaren» seinale denez, deigarria da zentroan bi urte eman ondoren, adin-nagusitasuna bete eta oraindik ez hasi izana atzerritartasun-dokumentazioaren izapiderik.

Bi urte eman nituen Kanarietan baina ez zizkidaten paperak lortu. Zerbitzari-ikastaro bat egin nuen, amaitu nuen eta 18 urte bete nituen paperik hartu gabe, eta ezer ere ez. Oso zaila egin zitzaidan, oso korapilatsua. Ez dute nahi. Guztiak berdin,

gehienak dokumentaziorik gabe ateratzen dira. Las Palmas-en errazagoa da, dokumentazioarekin ateratzen den jendea, ateratzen ez den jendea. Baina, La Salud-en eta Fuerteventuran, alderdi horiek ezer ere ez. Pasaportea konpontzera bakarrik joan nintzen ni. (Hamza. Mendebaldeko Sahara. 07/02/22).

7.2.2. Laguntzak ibilbidean

IKEDAMek Espainiako ibilbidea egiten dutenean, erabat bakarrik ez daudela esan dezakegu, hurrengo taulan ikus dezakegun bezala.

42. taula
Elkarrizketatutako adingabeek Espainiako ibilbidean dituzten laguntza-sareak, 2007

Tokiak	Herrialdeak	Familia-laguntzak	Familiatik kanpoko laguntzak		Informaziorik gabe	Ez dagokio
			Jatorrizko herrialdeko ezagunak	Komunitateko ezezagunak		
Magreb	Maroko	10	5	7	1	1
	Aljeria	1	1	—	—	1
	Sahara	1	1	2	—	—
Saharaz azpiko Afrika	Ghana	1	4	1	—	—
	Angola	1	—	—	—	1
	Kamerun	—	—	—	—	2
	Kongo	1	—	—	—	—
	Boli Kosta	—	—	—	—	1
	Ginea	—	—	—	2	—
	Gambia	—	2	—	—	—
	Mali	1	—	—	—	—
	Senegal	—	—	—	—	1
Beste batzuk	Ekuador	1	—	—	—	—
	Errumania	1	—	—	—	—
	India	—	—	—	1	—
Kop.		18	13	10	4	7
(%)		36,0	26,0	20,0	8,0	14,0

Iturria: Egileak egina, EAEn bizi diren IKEDAMei egindako 50 elkarrizketa oinarri hartuta, 2008.
Oharra: Erantzun anitzekoa.

Adingabeen % 82k adierazi zuenez, Espainian sartu zirenetik EAEra iristea lortu zuten arte gutxienez pertsona baten sostengua eta laguntza izan zuten. Adingabe horien % 36ren kasuan, Espainian edo Europan bizi zen senitartekoren baten laguntza izan zuten, % 28ren kasuan, berriz, jatorrizko herrialdean nolabaiteko lotura zuen pertsona batena, eta % 16ren kasuan, ostera, Espainian bizi zen herrikideren batena.

Laguntza-sare horiek informazioa lortzeko eta premiak betetzeko bide informalak dira; zerbitzu horiek ez dira egitura ofizialen bitartez lortzen, etorkinei jaramon gutxi egiten baitaie, burokrazia bukaezina baita, denbora asko eman behar baitute, eta abar. Bide informalak, hala nola, laguntza-sare horiek, pertsona bakoitzaren premien arabera baliabideak esleitzeko oso eraginkorrak eta baliagarriak diren mekanismo bilakatu dira, eta «adiskidetasunerako, sostengurako eta laguntzarako oso iturri garrantzitsu gisa» hezur-mamitzen dira (Requena, 1990).

Laguntza horiek gaur egun EAEn bizi diren IKEDAMen nazionalitateak kontuan hartuz alderatzen baditugu, desberdintasunak begien bistakoak dira oso. Marokoko adingabeei dagokienez, kasuen % 43k *Espainian bizi den senitartekoren baten* nolabaiteko laguntza jaso du. *Saharaz azpiko Afrikatik datozen adingabeek, aldiz, mota horretako familia-laguntzarik ez dute ia;* izan ere, horrelako bi kasu baino ez ditugu, Maliko mutil batena eta Senegaleko beste batena, hots, % 8⁹⁵.

Bartzelonan anai bat nuen, eta Bilbon, beste bat; 22 urte ditu eta mekanikari-lanetan ari da. Algecirasera iritsi nintzenean, ez nituen gogaitu nahi. Baina geroago, Bilboko anaiari deitu nion, eta Algeciraseraino jaitsi zen, gizagaixoak lan egin behar zuen eta hori. Egun horretan ez nuen ikusi eta berriz ere itzuli zen. (...) Bilbora iritsi nintzen eta arazorik ez nuen izan. Geltokira iritsi nintzenean, anaiari deitu nion eta ordu-laurden geroago, hara iritsi zen. Haren etxean geratu nintzen hilabetez, gutxi gorabehera. Tira, bera jaiki eta lanera joaten zen, baina ni lotan geratzen nintzen. Anaiak pisukide bat zuen, pisukide hori bajaran zegoen, ez dakit, agian oporretan, eta biak janaria prestatzen aritzen ginen etxean. (...) Gero, jakina, dokumentuak eta abar egin behar nituen. Tira, zentrora joan behar nuen paperak egitera. (Rahim. Maroko. 07/02/21).

Almerian hiru edo lau hilabetez bizi nintzen lehengusuarekin, aitaren anaiaren semearekin; 20 urte zituen eta landan egiten zuen lan. Han ikus nuen eta berarekin egon nintzen. Geroago, Bilbora lan egitera etorri nahi zuela esan zidan. Bera izan zen hona etorri zen lehena. Ni bere lagunekin geratu nintzen, baina geroago, or-

⁹⁵ Horiekin batera, Europako beste herrialderen batean migrazio-aurrekariak dituzten beste bi kasu ditugu, zehazki, Alemanian eta Frantzian.

daindu egin behar nuela esan zidaten, eta lanik ez nuenez, lehengusuari deitu nion berriz ere; arazorik banuen, Bilbora joan behar nuela esan zidan hark. Lehengusua-
ren lagunek Bilbora etortzeko dirua eman zidaten, baina ez dakit diru hori lehengu-
suarentzat ote zen. Hona iritsi nintzenean, hainbat aldiz deitu nion, baina telefono
mugikorra itzalita zuen. (Joseph. Ghana. 07/02/21).

Laguntza hori adingabearen familia-egiturako kide ez den beste pertsonaren batek eman badio, *Espainian kokatutako jatorrizko herrialdeko komunitateak noizbait esku hartzen du eta «egonkortzeko» eginkizuna izan ohi du* elkarriketatutako ia adingabe guztien kasuan.

Marokoko adingabeen kasuan, kasuen % 51n, jatorrizko herrialdeko komunitateko kide anonimoenagandik etorri ohi da laguntza hori, eta ez hainbeste jatorrizko herrialdeko pertsona ezagunengandik; marokorak maiz biltzen diren tokietan eman ohi dira horre-lako laguntzak, hala nola, meskitetan edota jatetxeetan. Laguntza horiek askotarikoak izan daitezke, esate baterako, janaria eskaintzea, autobus- edo tren-txartelak ordaintzea, edota etxean hartzea.

Algecirasera iritsi nintzenean, tira, kaleetan paseatzen ibiltzen nintzen gauez. Alge-
cirasen bi egunez paseatzen ibili nintzen, bakarrik, galduta. Buelbaka eta bueltaka.
Zorionez, arabieraz idatzita zegoen plaka bat aurkitu nuen! Sartu egin nintzen, jate-
txe bat zen. Sartu eta zerbitzari arabiar bat zegoen. Iritsi berriak ziren hainbat eza-
gun ikusi nituen, eta agurtu ondoren, zera esan zidaten: «nola iritsi zara?» Alge-
cirasen senitartekoren bat ote nuen galdetzen zidaten. Tira, janaria eta guzti eman
zidaten, eta baita diru pixka bat ere; Madrilerako autokar-txartel bat erosi nuen.
(Rahim. Maroko. 07/02/21).

*Saharaz azpiko adingabeen kasuan, ostera, laguntza hori % 62koa da. Jatorri horretako adingabeek jasotzen duten laguntza jatorrizko herrialdean sortu duten gizarte-harreman-
en saretik etorri ohi da batik bat, hots, senitartekoen lagunengandik, lagunengandik,
edota lagunengandik.*

Gurutze Gorriak Almeriarako txartel bat erosi zidan. Gurutze Gorriak erabaki zuen,
baina nik bertan lagun bat nuen, eta pixka bat lagundu zidan hark. Ghanakoa da,
eta nire amak ezagutzen du. 17 urte ditu, duela hiru edo lau urtetik bizi da hemen,
eta lan egiteko paperak ditu. Etxean hartu ninduen baina ezin nuen lan egin. (Joe.
Ghana. 07/02/21).

Alde horrek badu zergati bat. Marokotik datozen etorkinen komunitateak gure herrial-
dean presentzia historikoa du, eta beraz, Espainian Saharaz azpiko Afrikako komunita-

tea baino askoz ere finkatuago eta hedatuago dago. Izan ere, Saharaz azpiko Afrikako komunitatearen presentzia askoz ere berriagoa da, eta askoz ere herrialde gehiagoz osatuta dago. 7.1 atalean adierazi dugun bezala, Magrebeko adingabeen % 80k senitartekoen migrazio-aurrekariak dituzte Espainian, eta Saharaz azpiko adingabeen kasuan, berriz, ehuneko hori % 22 da.

Bestalde, *beste nazionalitateetako adingabeek*, hots, Ekuadorreko Pablo-k eta Errumaniako Daniel-ek EAEn dituzten familia-sareak erabili ohi dituzte. Xede-herrialdean familia-sarea badute ere, «ernatzea» nahiago duten eta nolabait esateko, familiaren laguntzarik gabe beren kabuz aurrera ateratzeko gaitasuna frogatzea erabakitzen duten adingabeen adierazgarri da Errumaniako adingabearen kasua.

ELKARRIZKETARIA: Eta Espainiara iritsi zinenean, ez al zen errazagoa osabari deitzea edo zuzenean Bilbora joatea?

ADINGABEA: Tira, nahiago izan nuen bakarrik moldatzea eta kokatzea lortzea. (...) osabari ez deitzeko esan nien gurasoei. (Daniel. Errumania. 07/02/21).

Indiako Mukesh-en kasua, azkenik, inolako sarerik, hots, familia-sarerik edo komunitate-sarerik ez duen adingabearen profila irudikatzen duten kasu bakanetakoa dugu.

Etorkinen komunitatearen esku hartzetik datorren laguntzak lehen aste edo hilabeteetako egoerak konpondu ohi ditu, adingabeek bideren batetik adingabeen babeserako sistema bat dagoela jakiten duten arte, eta normalean, zirkuitu hori aukeratzen dute beren administrazio-egoera konpontzeko eta erregularizatzeko; askotan, egoera hori itopuntuan egon ohi da, nolabaiteko geldialdian. Adingabeek ez dute lanik, egun osoan ez dute zereginik, eta akidura-sentsazio handia izan ohi dute. Horretaz gain, adingabeei laguntza eskaintzen dieten pertsonak ere batzuetan egoera zailan daude, dokumentaziorik gabe, modu irregularrean lan eginez edota beren egoera hobetzeko beste nonbaitera joateko ideiarekin.

Gauetz iritsi ginen Bilbora, baina niri ez zait hau gustatzen, ez badut zer bait aurkitzen, kalean geratzen bainaiz. Almerian ezagutu nuen lagun batekin etorri nintzen, eta Errumaniako jendea ezagutzen zuen hark. Horiekin egon ginen hainbat egunez, janaria eman ziguten eta etxean hartu gintuzten. Dirua aurreratzen ziguten eta lana aurkitzen genuenean, itzuli egiten genien. Lan bila ibili ginen baina ez genuen ezer ere aurkitu. (Daniel. Errumania. 07/02/21).

Adingabeek jasotako laguntza gehienbat bere herrialdeko etorkinen komunitatetik bator ere, pertsona «autoktonoek» ere laguntza eta sostengua eskaini ohi diete horrelako

mutilei, kalean aurkitzen dituztenean, batez ere Espainiara iritsi eta lehen egunetan: auto-bus-txartelak ordainduz eta jatera gonbidatuz.

Gazte horien kontakizunetan, amets partikularren bila Espainiara etorri diren eta egoera berean dauden beste IKEDAMekin (ibilbidean noizbait elkarrekin topo egiten dute) iga-rotako uneen irudiak ere agertzen dira.

Madrilera iritsi nintzenean, autobusa gelditu egin zen, jendeak atsedean har zezan. Ma-drilera joan nahi zuten beste bi mutil igo ziren, eta horiek ere...ez zuten ezer, nik bezalaxe. Hiruok autobusean egin genuen elkarrekin topo, eta batera jaitsi ginen au-tobusetik. Jaitsi egin ginen, geltokitik atera eta bakoitzak bere bideari ekin genion, bakarrik, baita nik ere. (Rahim. Maroko. 07/02/21).

Ondorio gisa, Espainiako bidean noizbait *sareen bitartez laguntza informala* jasotzea ezinbestekoa dela esan daiteke, adingabe horietako askok *marjinazio- eta bazterkeria-egoera larriak* jasatea *galarazten* baitu, eta askotan, adingabeei *nolabaiteko «segurta-suna» ematen dien eta harrera-gizartean lehen aldiz kokatzen errazten duen* mekanismo garrantzitsuena baita. Era berean, adingabearen erreferentziazko heldu bihurtzen dira ho-rrelako pertsonak, eta beraz, familiaren ordezko gisa, euste-egitekoak izan ditzakete eta batzuetan IKEDAMak jasan ditzakeen «krisialdi» egoeretan mugak ezar ditzakete.

Amaitzeko, zenbait kasutan, adingabeek ez dute espresuki erabiltzen Espainian ezarritako familia-laguntzarako sarea. Kasu horietan, adingabeek bizi duten egoera «beren kabuz konpontzen» saiatu nahi dutela adierazten dute, aurrera egiteko gai ote diren frogatu nahi dutela, hain zuzen ere. Jokabide hori oso ohikoa da nerabezaroan, eta nork bere burua pro-ban jartzeko eta independentzia nahi izateko norberarentzako erronka bilakatzen da.

EL: Eta Espainiara iritsi zinenean, ez al zen errazagoa osabari deitzea edo zuzenean Bilbora joatea? AD: Tira, nahiago izan nuen bakarrik moldatzea eta kokatzea lor-tzea. Osabari ez deitzeko esan nien gurasoei. (Daniel. Errumania. 07/02/21).

7.3. Sentimenduak eta bizipenak ibilbidean

Atalaren amaiera gisa, ibilbide horiek adingabeengan psikologikoki izan ditzaketen on-dorio eta eraginak aipatu nahi genituzke. Bidaiaren kondizioak ezin txarragoak izan ohi dira une askotan. Egoera gogorretara eraman dezaketen faktoreen artean, honako hauek ditugu: migrazio-bidaiaren iraupena, aukeratutako garraiobidea edota Europako ametsa

betetzeko migrazio-erakunde bat erabili izana. Askotan, bizipenak eta sentimenduak oso biziak izan daitezke.

Normalean, bidaiatzeko adingabeak garraioak hartzen dituztenean gertatu ohi dira arrisku handienak. Adingabeen hitzetan, lurreko garraiobideetan —esate baterako, autoen edo autokarren azpian—, bero itogarria egiten zuen kaxen barruan, hainbat orduz mugitu gabe egon behar zuten, anputazioak izateko beldur ziren, gorputzean mina sentitzen zuten eta eskuak eta hankak zurruntzen zitzaizkien.

Hala eta guztiz ere, adingabeek adierazi zutenez, paterako bidaia esperientziarik gogorrenetakoa da. Kondizioak gogorrak dira: egun asko bidaian, estu-estu zihozten pertsona asko, hotz handia, desorientazioa, eta ziurgabetasuna; zenbait adingabek, gainera, urik eta janaririk ez zuten izan bidaian, eta beste batzuek, berriz, paterakide batzuk gaixotzen ikusi zituzten, eta baita hiltzen ere. Horretaz gain, adingabeek gutxi pisatzen dutenez, pateraren brankaren gainean jarri ohi dituzte, eta toki horretan segurtasunik eza handiagoa sentitzeaz gain, erortzeko arrisku handiagoa dute.

Beldurra? Bua! Egia esan, beldur handia nuen, eta gainera, mendian abandonatutako etxe batera iritsi ginenean, jende asko zegoen, 200 bat pertsona. Bi bat egunez egon ginen bertan, eta ura baino ez genuen edaten. Hor, mendian, benetan diotsut, etxetik irteten bazara, zureak egin du. Gainera, haxix-plantazioak daude, eta hurbiltzen bazara, hil zaitzakete. Gainera, 16 urteko mutikoa bazara, eta mendian galduta aurkitzen bazaituzte, zutaz aprobeitza daitezke edota hil zaitzakete. Egia esan, oso gaizki pasa nuen. Hirugarren egunean gauzez atera ginen, eta mendian ilunpetan ibiliz, hondartzaraino iritsi ginen eta bertatik, paterara igo ginen 61ok. Gazteena nintzenez, beti pateraren aurreko aldean joaten nintzen, patera joatean denean, horrela egiten baitu, gora altxatzen baitzaitu eta horrela ez baita hain arriskutsua (...). 36 ordu behar izan genituen iristeko (...) Oso janari eta edari gutxi zeuden, baina oso beldur nintzenez, nik ez nuen ezer ere jan. Goizeko ordu bata inguruan atera ginen eta goizeko sei eta erdiak inguruan eguzkia atera zen, eta nik neure buruari esan nion: «Non nago?» «Zertan ari naiz hemen?» «Nora noa?» Eta zera esaten hasi nintzen: «ez dago atzera-martxarik, heriotza edo...» (...) Guk arazoak izan genituen, klima-aldaketa izan genuelako, bi metrotik gorako olatuak, olatuek bizkarrean jotzen ninduten, eta ni, hogeita hamasei orduz, denbora guztian horrela, soka bati helduta, eta benetan diotsut, iritsi nintzenean, ezin nuen eskua ireki, ezin nuen! Beste batzuek, gizonezkoak, negarrez ari ziren, seme-alabak eta emazteak zituztelako eta beste batzuk, berriz, zorabiatuta zeuden. Otoitz egiten genuen, salbatzeko eskatzen genion Jainkoari, eta tira, horrelako momentuetan, guztiok honako hau pentsatzen genuen: «orain bost axola itzultzen bagara, bost axola, kito, dagoeneko ikusi dugu zer gertatzen den» (...) Gainera, motorea 15 bat kilometrotara gelditu zitzaigun, eta olatuek

itsaso barrura jaurtitzen gintuzten. Ontziak ikus genitzakeen, baina itsaso erdian hain txikiak ginenez, beraiek ez gintuzten ikusten (...) Tira, nik mugikorra atera nuen, txartela neukan eta gutxienez estalduraren laurdena nuenez, Murtzian zegoen osabari deitu nion «itsasoan nago, Espainia ikusten, eta mendiak, errepideak eta abar ikus ditzaket, baita hondartza bat ere». Osaba Guardia Zibilengana joan zen, horiek Granadako guardiekin harremanetan jarri ziren, eta bi ordu geroago, gugana zetozen itsas salbamenduko bi ontzi entzuten hasi ginen. (Khaled. Maroko. 07/02/23).

Adingabeen hitzetan, ibilbide osoan zehar izan zituzten sentimendu ohikoenak beldurra, bakardadea, goibeltasuna, ziurgabetasuna, hotza eta gosea izan ziren.

15 euroekin jan genuen bi egunetan, bi egunetan amaitu genuen. Bilboko parke batean egiten genuen lo. Beldur handia nuen, poliziari begiratzen genion, beldur ginen, horrelako gauzak. Kanean, marokoarrekin topo egiten genuen, horiek liskarrak baino ez zituzten nahi, eta nik esaten nien: «zer egin dut!» Garai hartan, dirua izango banu etxera itzuliko nintzatekeela pentsatzen nuen (...) Hilegin nahi nuen, nik garai hartan hil egin nahi nuen, garrantzirik ez bainion ikusten ezeri, bakarrik bainengoen munduan, lagun batekin bakarrik nengoen, gaizki sentitzen nintzen, ez genekien zer egin behar genuen. (Paul. Kamerun. 07/02/22).

Zenbait kasutan, etorri izanaz damu dira eta ez lukete esperientzia hori berriz izango, baina beste adingabe batzuek, berriz, kemena eta ausardia dutela erakutsi dute, eta egoera negatiboak bizi badituzte ere, migratzea erabaki izanari eusten diote.

GALDERA: Horrelako esperientziarik berriz izango al zenukete?

ERANTZUNA: Nik? Orain? Ezta pentsatu ere!

GAL: Pateran berriz sartuko al zinateke?

ER: Baita zera ere! (Khaled. Maroko. 07/02/23).

GAL: Nola sentitzen zinen?

ER: Beldurtuta eta hotzez.

GAL: Kanean emandako egun horietan, zer pentsatzen zenuen? Itzuli nahi al zenuen?

ER: Ghanara, ez. (Ernest. Ghana. 07/02/22).

Espainiara iritsi ondoren, etengabeko alerta-egoeran egon behar dutela adierazi zuten, poliziak «harrapa» ez ditzaten, eta horrek estutasun handia sortzen diela: taxiak eta polizia-autoak nahasten dituzte, edota segurtasun-guardiak eta poliziak. Atal honetan adierazi den bezala, adingabe asko denboraldi batez kanean bizi izan dira, zenbait egun, aste edota hilabete. Eta babesgabetasun handia ematen die egoera horrek.

Dimentsio psikologikoa eta hark adingabeengan dituen ondorioak nabarmendu nahi dira bereziki azterlan honetan. Horrelako adingabeek arreta psikologikoa behar dutela esaten dugunean, errefuxiatu politikoen profila duten adingabeak datozkigu burura, edota muturreko indarkeriako egoerak bizi dituzten adingabeak. Horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu ez ahaztea zenbait adingabek beharbada esperientzia «traumatikoak» izan dituztela eta hori kontuan hartu beharko litzatekeela adingabe horiei harrera egiterakoan eta laguntza psikologiko egokia bermatzerakoan.

Kapituluaren azalpena

- «Europara jauzi egiteko» ideia praktikan jartzea oso modu desberdinetan aurkeztu ohi zaie Marokoko adingabeei eta gainerako nazionalitateak dituzten adingabeei.
- Lurreko garraioan bidaiatzen duten edo itsasontzietan ezkutuko bidaiari gisa sartzaren adingabeek gaizki itrendako hainbat saialdi egiten dituzte muga-kontrol guztiak igaro baino lehen; pateraz bidaiatzen duten adingabeek, osteraz, ez dute hain plangintza xehaturik behar.
- Espainiara iristeko aukerarik ohikoena modu irregularrean da. Ikerlan honetako IKEDAMen % 76 honela sartu dira: % 32, kamioi edo autokar baten azpian, % 18, ezkutuko bidaiari gisa itsasontzi batean, eta gainerako % 26a, pateran.
- Magrebeko adingabeei dagokienez, kasuen % 55ek, kamioi edota autokar baten azpian bidaiatu dute, % 13k, itsasontziko ezkutuko bidaiari gisa, eta % 17k, berriz, pateraz, eta % 13k, azkenik, modu erregularrean hegazkinez, autoz edo itsasontziz.
- Saharaz azpiko adingabeen % 44,4k pateraz bidaiatu dute, % 22k, itsasontziko ezkutuko bidaiari gisa, eta % 22k, berriz, hegazkina erabili dute sartzeko garraio gisa.
- Inoren Kargura ez dauden Emakume Adingabe Migratzaileen kasuan, horietako bi hegazkinez iritsi ziren, eta hirugarrena, berriz, autoz; hurrengo azterlanetan, adi egon beharko dugu, neska adingabeek mutilek erabilitako garraiobide-modalitate berberak erabiltzen ote dituzten edo metodologia berriak erabiltzen ote dituzten jakiteko.
- Saharaz azpiko Afrikakoekin alderatuz, Magrebeko adingabeek egindako ibilbideak askoz ere sarbide errazagoak, motzagoak eta samurragoak dira, ez baitute beste herrialderik zeharkatu behar Espainiako mugara iristeko.

- Saharaz azpiko Afrikako adingabeek herrialde ugari zeharkatu behar dituzte, bidaiak hilabetetik zazpi hilabetera bitarte irauten du eta trebakuntza gutxiko lanen bat egiten ematen dituzte denboraldiak bidaiako gastuak ordaindu ahal izateko.
- Ibilbidean zeudela, ia kasu guztietan, adingabea kalean bizi zen denboraldi batez, egun batzuez edota hilabete batzuez.
- Migrazio-bidaiaren arrisku-maila adingabearen jatorrizko herrialdeak Espainiarekin duen distantziarekiko eta egin behar dituen aldaketen eta hartu behar dituen garrainen kopuruarekiko paraleloa da.
- Espainiara batez ere Andaluziako Erkidegotik sartu ziren; izan ere, IKEDAMen kasuen % 44k sarbide hori aukeratu zuen (gehienak, Marokokoak) eta gazteen % 30 Kanariar Uharteetakoren batetik sartu zen; % 14, berriz, Bilbotik sartu zen zuzenean (hegazkinez, batez ere).
- Adingabeen % 14 zuzenean Bilbotik sartu izana ustekabezkoa da erabat, eta ez dago adingabeek zehaztutako ezein estrategiaren barruan.
- Hainbat nazionalitateko adingabeek osatutako talde baten ezaugarrietako bat zera da, bidean daudela, oso trebakuntza gutxiko lan irregularren bat lortu ohi dutela, zenbait aste edo egunetakoa.
- Elkarrizketatutako adingabeen % 68k ez zuen sekula babes-baliabiderik erabili EAera iritsi baino lehen, eta adingabeen % 32k, berriz, bai.
- EAera iritsi baino lehen adingabeak babesteko erakunde-baliabideren bat erabili duten adingabeen % 32 horretatik, % 75 Marokokoak dira.
- Horietako zenbaitzuk zentrorik zentro noragabe ibiltzen diren adingabeak dira, eta «aberriratzeko-aginduen» arabera mugitzen dira, hots, aberriratzeko-agindua ematen zaienean, edo laster neurri hori ezarriko zaielako susmoa dutenean, zentrotik irteten dira.
- Horrelako adingabeei arreta emateko bi modu daude: modu ofiziala, eta modu informala, hain zuzen ere; horrek ez dio onik egiten adingabearen gorenko interesari, eta ezta babes-sistemari ere, barruko inkoherentzia ematen baitio. Adingabeek adierazi zutenek, arretaren alorreko profesionalek maiz gomendatzen diete adingabeei erkidegoz aldatzea aberriratuak izateko zuzeneko edo zeharkako arriskua badute.

- Adingabeen % 82k adierazi zuenez, Espainian sartu zirenetik EAera iristea lortu zuten arte gutxienez pertsona baten sostengua eta laguntza izan zuten: Adingabe horien % 36ren kasuan, Espainian edo Europan bizi zen senitartekoren baten laguntza izan zuten, % 28ren kasuan, berriz, jatorrizko herrialdean nolabaiteko lotura zuen pertsona batena, eta % 16ren kasuan, ostera, Espainian bizi zen aberkideren batena.
- Adingabearen jatorrizko herrialdeko komunitateak, Espainian finkatuta dagoela, «egonkortzeko» eginkizuna izan ohi du; sareen bitartez emandako laguntza informal hori ezinbestekoa da, adingabe horietako askok marjinazio- eta bazterkeria-egoera larriak jasatea galarazten baitu, eta askotan, adingabeei nolabaiteko «segurtasuna» ematen dien eta harrera-gizartean lehen aldiz kokatzea errazten dien mekanismo garrantzitsuena baita.
- Zenbait adingabek espresuki erabaki ohi dute Espainian finkatutako familia-sostengua ez erabiltzea, duten egoera «beren kabuz konpontzen» saiatu nahi baitute.

Bizitokitzat *Euskal Autonomia Erkidegoa* hautatzeko garaian, *eragin handia izaten du zurrumurru batek*; hain zuzen ere, erkidego honetan adingabeei «lagundu» egiten zaiela dioen zurrumurruak, dela erregularizazio administratiboaren aldetik, dela laneratzeko aukeren aldetik. *Informazio hori adingabekoek topatzen duten jendearen bidez zabaltzen da*: nazionalitate bereko beste adingabe batzuen edo helduen bidez, edo beste autonomia-erkidegoetako babes-zentroetako profesionalen bidez.

Elkarrizketatutako adingabeen artean⁹⁶, Euskal Autonomia Erkidegoan igarotako hasierako egunetarako hainbat aukera atzeman ditugu, adingabeen babes-sistemako zentzoren batean sartu aurretik:

- Zuzenean zentroan: % 32.
- Kalean: % 52.
- Senitartekoren baten etxean: % 8.
- Herrikide baten etxean: % 8.

Ikus dezakegunez, adingabeen erdia baino gehiago kalean bizi izan da, EAEko hiriren batean, babes-baliabideetan sartu aurretik —eta 7. kapituluari ikusi dugunez, adingabe gehienek egunak edo asteak igaro dituzte kalean beren herrialdetik abiatu zirenetik—. Kalean bizitako aldia oso aldakorra da, adingabearen arabera. Hori horrela izanik, bi eguneko aldia izan daiteke, baita asteak edo hilabeteak ere. Gainerako % 16a senideren baten edo herrikide baten etxean bizi izan da, eta batzuk egun asko igaro behar izan dituzte kalean.

⁹⁶ 50 IKEDAMeko laginetik, 26 kasutan soilik lortu dugu «hasierako egunei» buruzko informazioa: 11 makroarrak dira, 11 Saharaz azpiko afrikarrak eta hiru beste nazionalitate batzuetakoak.

Atzimateko moduari dagokionez⁹⁷, % 87,9 zuzenean *polizia-etxera joaten dira*. % 51,5ek babes-sistemaren eta sistema horren abantailen berri izaten du alde zuretik, eta % 36,3 lagun batekin, herrikide batekin edo EAEko pertsona batekin joaten da polizia-etxera. Beste % 3 bat atxilotuta atzematen da: Ekuadorreko adingabearen kasua da hori, kalean saltzeagatik atxilotu baitzuten. Eta gainerako % 9a Kanarietako gobernutik bideratuta iritsi da EAEko babes-sistemara, eta, gaur arte, Gipuzkoara soilik iristen dira.

Adingabe ugari joaten dira zuzenean polizia-etxera, eta horrek esan nahi du neska-mutil horiek oso ongi ezagutzen dutela zirkuitua. Hemen parentesi bat egin behar dugu; izan ere, adingabe horietako gehienak Marokokoak baitira (% 82). Hainbat autonomia-erkidegotako teknikariek ere izango dute zerikusirik horretan.

Aldiz, Saharaz azpiko Afrikako herrialdeetako adingabeek ez dute hain ongi ezagutzen babes-sistema, eta polizia-etxera iristen direnean, herrikide baten, EAEko pertsona baten edo erakunde baten (udaletxea edo hirugarren sektoreko erakundeak) laguntza izaten dute.

8.1. Erakunde-sarea⁹⁸

Esparru teorikoan ikusi dugunez, Autonomia Estatutuaren 10. artikulua eskumen eskusiboa ematen dio Euskal Autonomia Erkidegoari honako arlo hauetan: gizarte-laguntza; adingabeen babesarako eta tutoretzarako erakundeen antolaketa, erregimena eta funtzionamendua; haur eta gazteei dagokien gizarteratzea eta politika, betiere, oro har, etorkinen, eta, zehazki, haur eta gazteen ongizatea eta garapena sustatzeko baliabide, jarduera, prestazio edo ekipamenduak barnean hartuta. Eusko Jaurlaritzak, Gizarte Gaietako Sailaren bitartez, legegintzako ekimena eta erregelamendu ahalmena gauzatzen ditu, honako eginkizun hauek garatuta: haur eta nerabeekin loturiko jardun eta gizarte-zerbitzuen plangintza orokorra, edo administrazio publikoetako organoen eta gizarte zibilaren jardunen koordinazioa. *Foru Aldundiei dagokie babesgabetasun larriaren eta babesgabeziaren egoeran dauden haur eta nerabeak babestea, eta zuzenean edo zeharka, arreta emateko zerbitzu eta zentroak kudeatzen dituzte.*

⁹⁷ 50 kasuko laginetik, 33 adingaberi dagokien informazioa lortu dugu: 19 marokorak dira, 11 Saharaz azpiko afrikarrak eta hiru beste nazionalitate batzuetakoak.

⁹⁸ Kapitulu honetan deskribatuko dugun erakunde-sarea hiru foru-aldundiena da eta 2008. urteari dagokio; beraz, baliteke erakunde zirkuituko eta zirkuitu informaleko arreta, harrera eta babesa emateko errealitate, dinamika eta praktikak asko aldatu izana.

EAEn bizi diren edo EAEn dauden adingabeei onartzen zaizkie oinarrizko eskubide indibidual nahiz kolektiboak. 2005. urtean, otsailaren 18ko *3/2005 Legea* onartu zen, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko legea, alegia, eta bestelako *araudietan* —nazioartekoak, estatukoak edo autonomiakoak— *haur eta nerabeei ezagutzen zaizkien eskubide multzoa* biltzen du; horrekin batera, pertsona horien eskubideak sustatu eta babesteari dagokionez, EAEko administrazioaren jardunaren printzipioak ere ezartzen ditu, eskubide horiek egiaz baliatu ahal izateko.

Lege hori gehiago zehaztuko da 2008. urtean 131/2008 Dekretua onartuta, *gizarte-babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak arautuko dituen dekretua*. Dekretu horrek *aurrera egitea* ekarri du, esku-hartzeen aniztasuna eta egoitza-egiturak (egoitza-zentroak, harrera-etxebizitzak, emantzipaziorako prestatzeko zentroak eta emantzipazio-etxebizitzak) argitzeko behar diren jarraibideak eta irizpideak ematen dituelako. Baldintza materialak, funtzionalak eta langile-arlokoak arautzeko jarraibideak eta irizpideak ere finkatzen ditu. Xedapen horiek babeseko egoitza-harrerako baliabide guztietan aplikatuko dira, bai oinarrizko programetan nahiz espezializatueta, bai publikoetan nahiz pribatueta.

Jarraian, adingabe batek —babes-zirkuituan sartzen denetik 18 urterekin ateratzen den arte— eskura dituen harrera-baliabideak definituko ditugu. Ohiko moduan gizarteratzeko eta enpleguko gizarte-zerbitzuetatik, baita gizarte-bazterkeriaren aurkako zerbitzuetatik ere, adin-nagusitasunezko baliabideetara bideratzen dituztenez, jarraian, adin-nagusitasunezko baliabide horiek sakon aztertuko ditugu, zeren, gure ustez, IKEDAM baten integrazioa prozesu osoa baita (adingabea denetik adin-nagusitasuneko lehen urteetara bitarte).

a) Lehen harrera egiteko baliabideak

Kategoria honetan sartu ditugu urjentsiazko baliabideak eta harrerako baliabideak. Foru Aldundi batean zentro batek urjentsiazko eta harrerako eginkizuna betetzen duela ikusiko dugu, baina beste aldundi batean, gerta daiteke harrera-zentro batek urjentsiazko plazarik ez izatea ohiko moduan. Bizkaian beste mota bat ere badago: larrialdiko zentroak.

Urjentsiazko zentroak 12-18 urteko adingabeentzako baliabideak dira, eta adingabea atzematen den unean bertan premiazko lehen kontaktua ematen dute.

Harrera-zentroak 12-18 urte bitarteko adingabeentzako baliabideak dira, eta aldi baterakoak izaten dira, adingabea bere egoerari dagokion heziketa-neurri egokienaren proposamena egiteko zain egoten baita.

Larrialdiko zentroak 17 urtetik gorako adingabeentzako baliabideak dira; harrera-zentro batean denboraldi labur bat igaro ostean, larrialdiko zentroetara igarotzen dira. Zentro horietan, adingabeak 18 urte bete bitarte egoten dira eta asistentzia-estaldura eskaintzen zaie ordura arte. Adingabe horiek, ez daramatenez 12 hilabete Bizkaiko Foru Aldundiaren tutoretzapean, ezin dute adin-nagusitasunezko baliabideetan sartu, ezta zentrotik kanpoko prestakuntzarik jaso ere (adibidez, LHI), eta bi aukera horiek 18 urtetik aurrera haien egoera erregularizatzeko lagungarri izan litezke.

b) *Egoitza-baliabideak*

Oinarrizko Programa Orokorra: Gizarte-babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak arautuko dituen Dekretuaren (2008/08) arabera, oinarrizko programa orokorra hauxe izango da: «Egoitza-harrerako programa guztien oinarrizko nukleo nagusia izango da, eta lau-18 urte bitarteko haur eta nerabeen premiei erantzungo die, beren jatorria edozein izanik ere...».

Programa Espezifikoa: Gizarte-babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak arautuko dituen Dekretuaren (2008/08) arabera, programa espezializatua honako honetarako izango da: «Portaera-arazoak dituzten nerabeak zaintzeko programa espezializatua oinarrizko programa orokorraren esparruan zaintzea bideraezina egiten duten portaera partzialki disruptiboak dituzten 13-18 urteko nerabeentzat izango da, edozein izanik ere beren jatorria».

c) *Emantzipazio-baliabideak*⁹⁹

Gizarte-babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza-harrerako baliabideak arautuko dituen Dekretuaren (2008/08) arabera, emantzipazio-etxebizitzak honako hau dira: «etxebizitza arruntetan kokatutako egoitza-ekipamenduak; laguntza- eta hezkuntza-arloko zerbitzua eskaintzen dute 16 urtetik gorako adingabeentzat autonomia pertsonala, gizarte-arlokoa eta lan-arlokoa lortzeko prozesua erraztearren».

⁹⁹ Gipuzkoako Foru Aldundian, kategoria hau egoitza-zentroen barnean hartzen da, eta Emantzipazio Programa esaten zaio.

d) *Adin-nagusitasunezko baliabideak*

Gizarte-bazterkeriaren egoeran edo arriskuan dauden gazte etorkinen emantzipazio-prozesuan babesari emateko baliabideak dira. Ohiko moduan, hiru Foru Aldundietan, 18 urte betetzen dituzten IKEDAMak Gizarteratzeko eta Enpleguko gizarte-zerbitzuetara bideratzen dituzte, edo Gizarte Bazterkeriaren aurka borrokatzeko zerbitzuetara.

Jarraian, Foru Aldundi bakoitzeko erakunde-sare formala eta informala (dagoenean) azalduko ditugu, Euskal Autonomia Erkidego osoan dagoen aniztasuna eta heterogeneotasuna egiaztatzeko.

8.1.1. Arabako Lurralde Historikoa

8.1.1.2. Arabako Foru Aldundia

Azaroaren 5eko 469/1985 Dekretuaren arabera, *Arabako Adingabeen Kontseiluak* Euskal Autonomia Erkidegoko eskumenen transferentzia du Arabako Lurralde Historikoko adingabeen babesari dagokionez. Hori dela-eta, lurralde horretara iristen den inoren kargura ez dagoen adingabe migratzaile edozein, erakunde horren esku geratzen da eta babes-neurri egokiak hartzen ditu.

Babes-neurri horiek *Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen (GOFE)* bidez gauzatzen dira, *Adingabekoen eta Familiaren Arloaren* bitartez. Arlo horrek kudeatzen ditu lurraldean bizi diren edo iragaitzaz dauden adingabeak babesteko programa, zerbitzu eta zentroak (Arartekoa, 2005, 121).

Lehenago ere esan dugunez, adingabeak atzemateko hainbat modu daude. Ohiko moduan, IKEDAMak zuzenean joaten dira *Adingabekoen eta Familiaren Arloa*. *Adingabekoen eta Familiaren Arloa* Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari kudeatzailearen mende dago zuzenean, eta hiru unitatetan banatuta dago: 1. Harrera eta balorazio Unitatea; 2. Egoitza-harreraren Unitatea, eta 3. Familia-harreraren eta adopzioen Unitatea.

Adingabekoen eta Familiaren Arloaren arabera, a priori, IKEDAMak zuzenean bigarren unitatera bideratzen dira, egoitza-harreraren unitatera, alegia, IKEDAMen zentroak Egoitza Harreraren Unitatearen barruan baitaude, baina herritar guztiei irekitako zentroak, al-

diz, Harrera eta Balorazio Unitatean kokatuta daude, antolamenduari dagokionez. Unitate hori honela osatua dago: arduradun bat (goi-mailako teknikaria) eta bost laguneko teknikari taldea (bi psikologo, bi gizarte-langile eta gizarte-hezitzaile bat). Teknikari taldeak kudeatzen ditu pertsona bakoitzaren kasu-planak, babes-neurriak egokitzeko eta, bilakaera-unearen eta adingabearen premien arabera, beharrezko baliabideak emateko.

Egoitza Harreraren Unitatearen esku-hartzearen helburuak eta prozesua honako hauek dira: 1. Bideratzea eta urgentziazko babes-neurriak hartzea; 2. Kasua balioestea; 3. Kasu Plana diseinatu eta onartzea; 4. Kasu Plana gauzatzea; eta 5. Esku-hartzeko baliabideak.

Arabako Lurralde Historiko osoan, IKEDAMen arreta hiru dokumentu nagusiren araberrakoa izaten da:

1. Autonomia arteko eta Ministerio arteko Batzordeak *Inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarren protokoloa* osatu zuen 2004ko urtarrilaren 14an, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioak koordinatuta. Segurtasun Indar eta Kidegoek IKEDAMa atzematen duten unetik egin beharreko ekintzak zehaztu nahi ditu, prozesu osoko administrazio erantzuleak adierazita.
2. *Gizarte Zerbitzuetarako jokatzeko gidaren 8. eranskina* (inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrekin esku hartzea), Arabako Lurralde Historikoko haurrei zuzenduta.
3. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen¹⁰⁰ eta honako hauekin hitzartutako programen esparru-proiektuak: Ixuri, Kolore Guztiak eta salestarrekin.

2007. eta 2008. urteetan, IKEDAMen protokolo berri bat landu da Fiskaltzarekin, Gobernuaren Ordezkaritzarekin eta Adingabekoen eta Familiaren Arloarekin.

a) *Atzematea*

Ohiko moduan, IKEDAMak zuzenean joaten dira *Adingabekoen eta familiaren Arlora* (bulego-ordutegitik kanpora, larrialdi-zerbitzura). Larrialdi-zerbitzutik sartu badira, zerbitzu horrek adingabeen fiskaltzari baimena eskatzen dio sarrera emateko; izapide hori

¹⁰⁰ Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoak arreta-sare publikoa osatzen duten zerbitzuen zuzeneko jarduera garatu eta kudeatzen du, eta itundutako sarearen zeharkako kudeatzailea ere bada, lan-kidetza-akordioen bidez.

Adingabekoen eta familiaren Arloak egiten duen kasuetan, sarrera egin ostean jakinarazten zaio fiskaltzari. Txandako teknikariak berehala egiten du entzuteko izapidea. IKEDAMak itzultzailea behar badu, itzulpen-enpresa batera deitu eta hitzordua finkatzen da itzultzaile, adingabe eta teknikariaren artean. Egun horretan bertan, adingabeari lege-eta asistentzia-estaldura ematen zaio harrera-zentro batean.

Adingabea segurtasun-kidegoren batek zuzenean edo beste erakunde edo pertsonaren batek atzematen duenean, zuzenean autonomia-erkidegoko polizia-erengana bideratzen da, nortasuna egiaztatzeko. Orduan, fiskaltzari automatikoki jakinarazten zaio adingabea iritsi dela, eta fiskaltzak *Adingabekoen eta familiaren Arloari* agintzen dio haren kargu egin dadin.

Arabian elkarriketatutako profesionalen ustez, *atzemateko prozesuan koordinazioa falta da Polizia Nazionalaren eta Ertzaintzaren artean*. Egoera horren ondorioz, sarri, IKEDAMek bi espediente izaten dituzte, eta gerta daiteke espediente bakoitzean izen bat agertzea. Arabako segurtasun-kidegoek erregistro informatizatuak dituztenez, koordinazioa azkarra eta eraginkorra izan daiteke, betiere koordinazio egokia bermatzeko mekanismo eta protokoloak izanez gero.

Horretaz gain, landa-lana egin ostean, ikusi dugu atzemateko prozesuan *koordinaziorik eza dagoela Foru Aldundiaren, sexu-langileei arreta ematen dieten erakundeen eta segurtasun-kidegoen artean, IKEDAM nesken kasuak atzeman eta berehala jarduteko*¹⁰¹. Gizarte-errealitate hasiberri horren aurrean, indarrak batu eta batera lan egin behar da dauden kasuak atzeman eta jarduna nahiz zirkuitua adostasunez protokolizatzeko.

b) *Adinaren proba*

Zentrora iritsi eta biharamunean, hezitzaile batek lagunduta, adingabeak *adinaren proba* egin behar du. Pasaportea edo jaiotza-agiria (zigilu eta argazki eta guzti) aurkezten ez duten adingabe guztiei egiten zaie. Eskumuturraren erradiografia bat egiten da adina zehazteko, eta zalantzarik izanez gero, ez da kontraprobarik egiten; beti adin txikiena hartzen da.

¹⁰¹ Seme-alabadun adingabeko sexu-langileen kasu gutxi daude, baina kasu horietan koordinazioa ezinbestekoa da azkar jardun ahal izateko, bai seme-alabak harreran edo adopzioan uzten dituztenean, bai aldi baterako utzi nahi dituztenean. Bigarren kasuan, amarekin lan egiteko plan bati ekin behar zaio, bizi-baldintzak hobetzearen (dela prostituzioan jardunez berak erabakiz gero, baina aurreiritzirik eta estigmatizaziorik gabe, «nola izango da ama ona emagalduta izanik», dela jarduera hori utzi nahi duela erabakitzen badu).

c) *Tutoretza*

Lehen harrera egin ostean, adingabeak geratzea erabakitzen badu, Adingabearen Kontseiluaren bidez, eta zehazki, Adingabekoen eta familiaren arloaren bidez, Arloak aldi baterako zaintza eta tutoretza hartzen ditu bere gain. Hartara, izatezko egoera bat formalizatzen da. Bitarte horretan, harrera-zentroan artatuta, adingabearen nortasunari buruzko datu zehatzagoak biltzen dira, behin betiko tutoretza egiteko. Informazioa osatzeko, lurraldean, beste Autonomia Erkidego batean edo European adingabearen kargu egin daitekeen pertsona arduradunik ba ote dagoen ikertzen da. Kasua balioesteko bi-lau hilabeteko zuhurtziazko aldia uzten da (iturria: Zabaltzen zentroaren galdesorta, 2007) eta aldi hori igarotakoan, Adingabearen Kontseiluak behin betiko tutoretza hartzen du, sartu zen egunerako atzeraeraginarekin, eta betiere Adingabekoen eta familiaren Arloak proposatuta.

Adingabekoen eta Familiaren Arloan bada Orientazio eta Balioespen Batzorde bat eta batzorde horretan aztertzen dira udaleko unitateek eta gizarte-zerbitzuek egindako proposamenak, adingabeen kasuei dagokienez eta adingabearen premietara egokitutako babesneurri eta -baliabide egokienei dagokienez. Proposamenak balioetsitakoan, Adingabearen Kontseilura eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari kudeatzaileari igortzen dira, onartzeko. (Arartekoa, 2005)¹⁰².

Azken hiru urteotan, Adingabekoen eta familiaren Arloak bere gain hartutako behin betiko tutoretzak hauek izan dira:

43. taula

Inoren kargura ez dauden adingabe migratzaileen (IKEDAM) tutoretzak, Araban hartuak, 2005-07

	IKEDAMen sarrerak, guztira		Tutoretzak	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)
2005	27	22,1	16	38,1
2006	40	32,8	12	28,6
2007	55	45,1	14	33,3
Guztira	122	100	42	100

Iturria: Arartekoaren 2007ko txostena, Arabako Foru Aldundia , 2007. Egileak egina.

¹⁰² Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Arartekoa, 2005.

Tutoretza gehien 2005. urtean egin ziren; hain justu, adingabeen sarrera gutxien izan zen urtean. Urte hartan, iritsitako 27 adingabeetatik ia % 60 hartu ziren tutoretzapean. Aldiz, 2006. eta 2007. urteetan, hau da, adingabe gehien sartu ziren urteetan, soilik % 30 (2006an) eta % 25 (2007an) hartu ziren. Esan beharra dago bi urte horietako tutoretzen murrizketa % 50etik gorakoa dela 2005. urtearekin alderatuta.

2006an eta 2007an tutoretzak murriztearen arrazoi nagusiak bi dira:

- Adingabeen artean mugikortasun handia dago; ez dira bi hilabete jarraian toki berean egoten tutoretza izapidetu ahal izateko.
- Gainera, 2007. urtean, adingabe gehiago iritsi zirenez eta irailetik azarora bitarte zirkuitua gainezka egonenez, ez zen tutoretzarik izapidetu.

Adingabekoen eta Familiaren Arloaren arabera, 2008. urtean tutoretzen kopuruak gora egin du, zentroan gutxi gorabehera segidako bi hilabete egoten diren adingabe guztien tutoretza izapidetzen baita¹⁰³.

Tutoretzaren ostean, eta adingabe bakoitzarentzat Kasu Plan bat proposatu eta onartutakoan, adingabea egoitza-zentro batera edo egoitza-etxebizitza batera eraman beharko litzateke. Hala ere, zenbait kasutan zentro batera eramateak ez du esan nahi programa bat aplikatzen ari zaionik, programa zentroan bertan eman baitaiteke, edo ez. Aurrerago, erakundeen egungo erantzunari buruzko atalean ikusiko dugunez, hori ez da berehala gertatzen, baizik eta egoitza-babeseko zirkuituan eskuragarri dauden plazen arabera izaten da. Egoitza-zentro edo egoitza-etxebizitza batera eramateko igarotzen den denbora gorabehera, lege-prozesuak aurrera egiten du egoitza-baimena lortzeko¹⁰⁴.

¹⁰³ Adingabekoen eta Familiaren Arloari dagokionez, bi hilabeteko epe hori ezarri da, IKEDAMEi buruzko egiazko datuak biltzeko behar den epea delakoan. Epe horrek gobernuaren ordezkariordetzaren erantzunarekin baldintzatuta egon beharko luke, egokia ote den Espainiako Estatuan egotea atzeritarren arloan indarrean dagoen protokoloaren arabera, eta Foru Aldundi honek fiskaltzari eta gobernuaren ordezkariordetzari proposatutako protokoloan jasotakoari jarraiki.

¹⁰⁴ Gaur egun, emantzipazio-etxebizitzetara dagokienez, erantzuna azkarragoa izaten da, 2007ko abendutik 2008ko abuztura bitarte emantzipazioko beste hiru etxebizitza ireki direlako; portaera-arazoak dituzten nerabeentzako espezializatutako programan ere beste horrenbeste gertatzen da.

d) Egoitza-baimena

Jarraian, eskatutako eta lortutako egoitza-baimenak aurkeztuko ditugu, azken hiru urteotan (2005-2007) artatutako sarrerei dagokienez:

44. taula

Inoren Kargura Ez Dauden Adingabe Migratzaileek (IKEDAM)
eskatutako eta lortutako egoitza-baimenak Araban 2005-07

	IKEDAMen sarrerak, guztira		Egoitza-baimenak			
			Eskatutakoak		Lortutakoak	
	Zk.	(%)	Zk.	(%)	Zk.	(%)
2005	27	22,1	13	33,3	7	28,0
2006	40	32,8	12	30,8	11	44,0
2007	55	45,1	14	35,9	7	28,0
Guztira	122	100	39	100	25	100

Iturria: Arartekoaren txostena, Arabako Foru Aldundia, 2007. Egileak egina.

Eskatutako egoitza-baimenei dagokienez, 2005ean sartutako adingabeen % 48k eskatu zuten baimena eta % 25ek lortu zuten. 2006an % 30 eskatu ziren eta ia denak lortu ziren (% 28); eta 2007an % 25 eskatu ziren eta soilik erdia lortu ziren (% 12,7). Ikus dezakeguenez, *hiru urte horietan eskatutako kopurua antzekoa izan da, baina 2006an eta 2007an iritsitako adingabeen kopurua nabarmen handiagoa izan da.*

Eskaeren ehunekoa hain txikia izatearen arrazoi nagusia zera da, azken urteotan, iristen diren adingabe gehienek 17 urte beteak dituzte eta, beraz, zentro batean bederatzi hilabete igaro baino lehen adin nagusiko bihurtzen direnez, ezin da txostena aurkeztu Ordezkariordeztan. IKEDAM zaharrago horiek bereziki Saharaz azpitik datoz.

Datu horiek aztertzeko garaian, egoitza-baimena lortzeko prozesua berreraikitzea garrantzitsua da. Gobernuaren ordezkariordeztak ez dio uzten Arabako Foru Aldundiari egoitza-baimena izapidetzen hasten adingabeak lurraldean bederatzi hilabete igaro arte, eta hilabete horietan, adingabeak administrazio babeslearen tutoretzapean egon behar du, atzeritarrei buruzko legearen arabera.

Bederatzigarren hilabetera bitarte, txostena aurkezteko behar den dokumentazio guztia prestatzen da. Besteak beste, jatorriari buruzko dokumentazioa.

Marokoko adingabeen kasuan, kontsulatuak nahiko azkar lor ditzake Nortasun Agiri Nazionala eta pasaportea, hiru-sei hilabete bitarte (Zabaltzen zentroaren galdesorta, 2007). Alabaina, beste nazionalitateetako adingabeen kasuan, eta bereziki, Saharaz azpikoen kasuan, denbora askoz gehiago behar izaten da.

Esan dugunez, bederatzi hilabete igarotakoan, jatorriari buruzko dokumentazioa eta gurasoen baimena lortu badira, egoitza-baimena eskatzeko txostena aurkezten da gobernuaren ordezkariordetzan. Eskaera aurkezten denetik, egoitza-baimena lortzeko batez besteko denbora bi hilabete da, gutxi gorabehera, profesionalek diotenez. Horrela, bada, Araban, IKEDAMek *batez beste hamaika hilabete behar dituzte egoitza-baimena lortzeko*. Hala ere, praktikan, ez da beti horrela izan: 2005. urtean, batez besteko denbora zazpi hilabete izan zen; 2006. urtean, 12 hilabete (Arartekoa, Arabako Foru Aldundia, 2007).

e) *Lan-baimena*

Egoitza-baimena lortutakoan, eta betiere adingabeei lanbide-arloko prestakuntza eman ostean, teknikarien kezka lan-eskaintza lortzea izaten da, atzerritarrei buruzko legean xedatzen denari jarraiki, *lan-baimena* eskatzeko. Dena den, profesional guztiek diote oso zaila dela lan-eskaintzarik lortzea, eta, kasu gehienetan, adingabea praktikak egiten ari den enpresetan lortzen dituztela, enpresak adingabea kontratatzea erabakiz gero. Lan-eskaintza lortu ostean, gurasoen baimena eskatu behar da, eta orduan, lan-baimena eska dezakete.

Gainera, profesionalek ezin dute lan-baimena izapidetu adingabeak 16 urte bete arte. 16 urtetik gorako IKEDAMak *lan-baimena lortzeko betebeharra betetzeaz salbuetsita gera daitezke*, baldin eta 4/2000 Lege Organikoaren 41. artikuluan barne hartuta egonda, honako baldintza hauek betetzen dituzten *jarduerak betetzeko* bada:

- k) Lan egiteko adina duten adingabe atzerritarren jarduerak, baldin eta adingabe horiek adingabeak babesteko erakunde eskudunaren tutoretzapean badaude. Erakunde horiek proposatutakoaren arabera, jarduera horiek mesedegarri izan beharko dira, adingabeak egoera horretan dauden bitartean gizarteratzeko.

Jarraian, 2005-07 urteetan aurkeztu eta lortutako baimenak aurkeztuko ditugu:

45. taula

Inoren Kargura Ez Dauden Adingabe Migratzaileek (IKEDAM)
eskatutako eta lortutako lan-baimenak Araban

	IKEDAMen sarrerak, guztira		Lan-baimenak			
			Eskatutakoak		Lortutakoak	
	Zk.	(%)	Zk.	(%)	Zk.	(%)
2005	27	22,1	7	70,0	7	70,0
2006	40	32,8	2	20,0	2	20,0
2007	55	45,1	1	10,0	1	10,0
Guztira	122	100	10	100	10	100

Iturria: Arartekoaren txostena, Arabako Foru Aldundia, 2007. Egileak egina.

Hiru urteetan, eskatutako baimenen % 100 lortu da. Hala ere, 2005. urtean soilik % 26 eskatu ziren; eta 2006an eta 2007an, aurkeztutako eskaerak oso-oso gutxi izan ziren, urte horietan iritsitako adingabeekin alderatuz gero (hurrenez hurren, % 5 eta % 1,8). Eskatutako eta lortutako baimenen % 70 2005. urtekoak dira, hain zuzen ere, adingabe gutxien iritsi ziren urtekoak. Ziurrenik, lan-eskaintzak lortzeko zailtasunen ondorioz eskatzen dira baimen gutxi, baina, egoitza-baimenen kasuan bezalaxe, adingabeak adin nagusiko bihurtzen dira dokumentazioa izapidetu aurretik.

Adingabeek lan-baimena lortzeko igarotako batez besteko denbora 20 hilabete izan zen 2005. urtean; 2006an 28 hilabete, eta 2007an hilabete bat (Arartekoa, Arabako Foru Aldundia, 2007). Datu horiek egoki interpretatze aldera, aipatu behar da 2007. urtean irizpideak aldatu egin zirela eta urte horretako denbora honela kontabilizatu zen: eskaera egin zenetik erantzuna jaso bitarteko denbora; aldiz, 2005ean eta 2006an, adingabea babes-zirkuituan sartzen denetik baimena lortzen duen arteko denbora kontabilizatu zen.

Txosten honetan argi eta garbi utzi nahi dugu egoitza-baimena lortzeko itxaronaldi luzeen ondorioz eta lan-baimenak lortzeko zailtasunen ondorioz, asko eragozten dela profesionalek adingabeekin egiten dugun hezkuntza-proiektua, hezkuntza-proiektuari buzko atalean ikusiko dugun moduan. Adingabeen ustez, denbora hori «denbora alferrik

galtzea da», eta desmotibatu egiten dira prestakuntza-prozesu luzeetan jarraitzeko. Adingabe horietako asko adin nagusiko bihurtzen dira prozesu horren zain.

Laburbilduz, adingabe marokoar bat Araban erabat dokumentatzeko epeak hauek dira:

2006. urtean, Araban adingabe marokoar bat dokumentatzeko batez besteko epea lau hilabete zen, behin betiko tutoretza lortze aldera; hiru-sei hilabete nortasun-agiria eta pasaportearen lortzeko; 12 hilabete egoitza-baimena lortzeko; eta, gutxienez, 12 hilabete lan-baimena lortzeko. *Horrela, bada, Arabara iristen den adingabe marokoar bat dokumentatua egongo da 28 hilabeteren (bi urte eta lau hilabete) buruan, epe guztiak ezarritakoaren arabera betetzen badira.*

f) *Aberriratzeak*

Araban, oro har, adingabeak bere herrialdera itzultzeko aukerari uko egiten badio, automatikoki berriz elkartzeko aukera ixten zaio. Hala ere, familiak jaioterrian bizi duen egoeraren gaineko txostena eskatzen da, nahiz eta adingabea ez den berriz elkartuko. Dena dela, *Adingabekoen eta Familiaren Arloko* profesionalek diotenez, adingaberen baten edo haren familiak bere herrira itzultzea eskatu izan duenean (borondatez itzultzea), berriz elkartzeko prozesua oso konplikaturik izan da eta itxaronaldia, berriz, luzeegia. Hori dela-eta, *prozedura sinpleago bat protokolizatu beharko litzateke familiak adingabea itzultzea eskatzen duen kasuetarako.*

Jarraian, azken hiru urteetako (2005-07) aberriratzeak azalduko ditugu:

46. taula

Aberriratzeak Araban, 2005-07

	Urtea		
	2005	2006	2007
Sailak eskatuta	0	0	0
Familia zabalak Espainian eskatuta	0	3	0
Bertako gobernuaren ordezkariordetzak	1	1	0
Beste Autonomia Erkidego bateko gobernuaren ordezkariordetzak eskatuta	0	0	2
Guztira	1	4	2

Iturria: Arartekoaren txostena, 2007, Adingabekoen eta familiaren arloa, 2008. Egileak egina.

Datuak bat datoz profesionalen eta Administrazioaren diskurtsoarekin. 2005ean, bertako gobernuaren ordezkariordetzak eskatutako berri elkartzeko bat izan zen. 2006an, beste autonomia-erkidego batzuetan bizi ziren 1. eta 2. mailako senitartekoek hiru familia-harrera egin zituzten. Bertako gobernuaren ordezkariak aberriratze bat egin zuen. 2007an, bi egin ziren, Bartzelonako eta Logroñoako gobernuaren ordezkariordetzek eskatuta. Berriz elkartzeko adingabe guztiak Magrebekoak dira, bereziki, Marokokoak.

8.1.1.2. IKEDAMen harrera-sarearen bilakaera

Datu estatistikoaren kapituluaren aipatuenez, lehen IKEDAMak 1997. urtetik aurrera hasi ziren iristen. 1997-2002 aldian, guztira 81 adingabe erregistratu ziren eta horietatik zortzi neskak ziren (1999. urtetik aurrera hasi ziren etortzen neskak). 2002an iritsitako adingabeen kopurua 2001ekoaren bikoitza izan zen (29 adingabe eta 12 adingabe), baina batez ere 2003. urtetik aurrera, iritsitakoaren kopuruan inflexio-puntua gertatu zen: urte horretan 42 adingabe erregistratu ziren. 2002tik 2003ra bitarte, IKEDAMak bideratzeko balibideak gainezka egon ziren, babes-sare normalizatuko balibideak baitziren, hau da, lurraldeko adingabeentzako. Orduan hasi ziren sortzen kolektibo horrentzako zentro eta zerbitzu espezializatuak. IKEDAM neskak zirkuitu normalizatuaren txertatzen ziren oraindik ere, oso gutxi ziren-eta (2002an hiru eta 2003an lau).

a) 1. etapa (1997tik 2002ra): Babes-zirkuitu normalizatua

1997-2001 aldian iritsitako IKEDAMak Asaldi Balioespen eta Urjentzia Zentroa bideratzen ziren. Zentro hori 1986. urtean zabaldu zen Gasteizen, 0-18 urte bitarteko arabar adingabeak jasotzeko. Karitateko Ahizpek kudeatzen zuten.

2001. urtean, balioespen, urjentzia eta harrerako bigarren zentro bat ireki zen, nerabeentzako bereziki: *Bosco-Etxea zentroa*, lehen harrera egiteko etxebizitza bat, 12 plazakoa, Saletar Komunitateak kudeatua.

Han hasi ziren, eta iritsi ziren lehenengoak etxebizitzaren ohiko dinamikan txertatzen ziren, hein handiagoan edo txikiagoan. Baina gero eta gehiago iristen hasi zirenean, eta oraintxe lau edo bost ditut gogoan, estatus berezia hartzen hasi ziren; izan ere, ez zuten etxebizitzaren dinamikan parte hartzen eta aterpe edo ostatuan egongo balira bezala jokatzeko zuten. Gaur egun etortzen ziren eta etxebizitzan telebista ikusteko erabiltzen ziren gelan lo egiten zuten. (Zabaltzen Zentroa. 07/09/20).

Une horretatik aurrera, IKEDAM gehienak zentro honetara bideratzen dira. IKEDAMak, gehienbat marokoarrak (% 77, 2002. urtera arte¹⁰⁵), lehenengo hilabeteetan *Bosco-Etxea zentroan* hartzen ziren, aterpe-erregimenean. Bi hilabetez, Foru Aldundiak kale-hezitzaile bat kontratatatu zuen egunez adingabe horietaz ardura zedin.

Dinamika hauxe zen: gazteak goizean etxetik ateratzen ziren, hezitzailearekin egoten ziren, auzo-etxeetan egoten ziren, gestioak egiten zituzten egin behar izanez gero —medikuak...—, babesgabetuen jantokian bazkaldu, eta gauez, zentrora itzultzen ziren lotara. Egoera horrek ez zuen askorik iraun, arazo larri bat sortu zelako gazteekin; haiek diskriminatuta ikusten zuten beren burua bertakoekin alderatuz gero. Orduan gatazkak hasi ziren, ez zutela etxetik atera nahi eta besteak bai, zergatik lo egin behar zuten lastairak lurrean jarrita, eta besteek logelan. (Zabaltzen Zentroa. 07/09/20).

Hilabete horiek igarota, *Adingabekoen eta Familiaren Arloak* zerbitzu hori ordeztu zuen eta zentro horretan etengabe, 24 orduz, hartzen ditu IKEDAMak.

Urte hauetan, *Adingabekoen eta Familiaren Arloak* kudeatutako *Geroa Etxea* egoitza-zentroan artatu dira aurreko harrera-zentrotik ateratzen ziren IKEDAMetako batzuk (mutil nahiz neska).

b) 2. etapa (2003-2006): *Gauerako baliabide espezializatuak*

2002an eta 2003an adingabe gehiago iritsi zirenez (29 eta 42, hurrenez hurren) eta *Bosco-Etxea Zentroan* tokirik ez zegoenez (plazak gainokupatuta zeuden, modu egonkorrean), Foru Aldundiak beste baliabide berri bat sortzeko premia ikusi zuen, iristen ari ziren IKEDAMei behar bezalako erantzuna eman ahal izateko.

Une horietan, Foru Aldundiak hitzarmena sinatu zuen Gurutze Gorriarekin lokalak uzteko eta alfabetatzeko jarduerak, eguneroko bizitzako trebetasunak eta gizarte-trebetasunak garatzeko. 2003. urteko udan, *Zabaltzen harrera-zentroa* zabaldu zen eta komunitate salestarrak kudeatu zuen; 12 plaza zituen (bi urjentziazkoak eta 10 harrerakoak). Harrera-zentro berri hori IKEDAMentzako bereziki zabaldu zen, eta, hasieran, behintzat, gaueko zentro izatea pentsatu zen, adingabeek lo egin, gosalduta eta afaltzeko. Zentro hori berezia izan zen, Gurutze Gorriak hainbat jarduera gauzatzen zituen eraikin

¹⁰⁵ 1997-2002 aldiko 81 adingabeetatik 63 marokoarrak ziren, Arabako Foru Aldundiaren arabera.

berean kokatu baitzen harrera-zentro berria; esaterako, prestakuntzako eta eskola-laguntzako jarduerak, lanaren aurreko prestakuntzakoak, eta aisialdi eta denbora librekoak. Hala ere, bi jarduerak ongi bereizita zeuden. Pixkanaka, eguneko egonaldia luzatu zen, baita asteburutan ere.

IKEDAMak hartzeko *bi gela* zituen zentroak (2008ko ekainera bitarte): «*Zortzi plazako bat, ohatzeekin, eta lau plazako beste bat, ohatzerik gabe. Zentroan telebista-gela bat, erabilera anitzekoa, eta egongela zeuden, sukaldea, eta hezitzaileentzako bulego txiki bat. Geletako batek komuna ere bazuen, dutxa eta guzti*» (Zabaltzen Zentroa. 07/09/20). Dutxa hori bakarra zuten adingabeek. Beste bi komun ere baziren, dutxarik gabe, eraikinaren solairuan, baina eraikinean zegoen orok erabil zitzakeen. Arartekoaren txostenari jarraiki (2005, 128) aireztapena eskasa zen, eraikinaren diseinua zela-eta; adingabeak bizi ziren solairuan tenperatura oso handiak izaten ziren.

Zentroan gehiegizko okupazioa zegoenean (askotan gertatzen zen, ikusi dugunez), 12 lastaira prestatzen ziren IKEDAMek lo egiteko. Zentroa lepo egoteak eta gaueko zentroa izateak honako ondorio hauek zituen, garai hartako zuzendariaren ustez:

Zentroa lepo dagoenez, tirabira asko izaten dira. Zentroaren okupazioa gauekoa denez, oso zaila da lotura afektiboa ezartzea. Toki txiki batean okupazio-maila handia izateak gatazka pertsonalak areagotzen ditu. (Zabaltzen Zentroa. 07/09/20).

Gaueko zentro izatea aldi baterako gauza izatea aurreikusten zen, beste kokapen egoikiago bat aurkitu bitarte, baina 2008ko ekainera bitarte egon ziren horrela, aurrerago ikusiko dugun moduan.

Proiektuak ez du inolako zerikusirik Gurutze Gorriarekin. Gurutze Gorriarekin egindako hitzarmenaren arabera, erabilera gauekoa da. Goizeko zortzietan edo bederatzetan, gazteek alde egin behar dute eta ezin dute gaueko zortziak edo bederatziak arte itzuli. Hasieran aldi baterako izango zena lau urtez luzatzen ari da. Nahiz eta hamaika erreklamazio jarri ditugun, hainbat proiektu aurkeztu ... Le-kualdatzeko saiakerak ere izan dira, baina ez dira ongi atera. (Zabaltzen Zentroa. 07/09/20).

Urte hauetan, *Bosco-Etxea Zentroan* IKEDAM neskak hartzen jarraitu dute, eta *Zabaltzen Zentroan* gehiegizko okupazioa dagoenean, baita IKEDAM mutilak ere. Baina automatikoki, *Zabaltzen Zentroan* plaza libreak sortzen direnean IKEDAM mutilak hara eramaten dituzte.

Atzemandako IKEDAM neskak baliabide horretara bideratzen ziren eta 1997tik 2006ra bitarte batez beste % 7 baino ez dira izan; 2003an, iritsitakoen % 10 izatera iritsi ziren (urte batean lau). IKEDAM neskak ez dira inoiz Zabaltzen zentroa eraman, zeren, ikusi dugunez, instalazioak (bi gela soilik) ez baitira egokiak, eta gehiegizko okupazioa dela-eta, ezinezkoa izango litzateke adingabe neskei arreta egokia ematea.

2005. urtean, komunitate salestarrak eta Zabaltzen zentroa kudeatzen duen talde berak beste baliabide bat ireki zuen: *Zabaltzen programa*, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin hitzartuta. Orduan, sumatzen hasi ziren Saharaz azpiko Afrikatik zetozen adingabeak zaharragoak zirela (bost 2003an, bederatzi 2004an eta bost 2005ean), eta hortaz, ordura artekoak baino baliabide autonomoagoak behar zituztela.

Konturatzen hasi ginen hona iristen ziren gazteak beren pasaporteetan agertzen zen adina baino helduagoak zirela. Ziurrenik, helduagoak direnez, adingabeen dokumentazioa lortzen dute. Eta kasu horretan, zentroko adingabeekiko bizikidetzak oso mugatua zen haientzat. Beste baliabide bat bilatu genien autonomia handiagoa eskaini ahal izateko. (Zabaltzen Zentroa. 07/09/20).

Urte hartan bertan, GOFE erakundeak hitzarmena sinatu zuen «*Carlos Abaitua*» gazteriaren foru-aterpetxearekin eta bost plazako gela bat erreserbatu zuten gazte horientzat; gaueko plazak ziren. Egunez, adingabeak *Zabaltzen Zentroan* artatzen zituzten, eta gauez hezitzaile baten laguntza izaten zuten.

Autonomia handiagoa eskaintzeko baliabide bat bilatu genuen, Carlos Sarraico gazteriaren aterpetxean; Foru Aldundiaren mendekoa da. Gela hori gauerako zen, erabat. Hezitzailearekin gauez soilik izaten zuten harremana, eta egunez, hezkuntza-harreman guztia Zabaltzen zentroarekin izaten zuten. Egoera hori 2006. urtera bitarte luzatu zen. Orduan, etxebizitza moduan prestatuta dagoen eremu bat erabiltzen utzi ziguten, sukalde, egongela eta komunarekin. Gazteak etxebizitza horretara aldatu ziren eta afariak ere han egin zitzaizkien. Ordura arte, jatetxe batean afaltzen zuten. (Zabaltzen Zentroa. 07/09/20).

2005. urtean, programa espezializatuko egoitza-zentroan (*Zanduetza Zentroan*) toxikoekin loturiko arazoak dituzten zenbait IKEDAM hartu zituzten, *Adingabekoen eta Familiaren Arloarekin* hitzarmena sinatu ostean.

2006. urtean, *Carlos Sarraico* gazteriaren aterpetxeko plazak aldatu eta «*Carlos Abaitua*» emantzipazioko etxebizitzako plaza bihurtu ziren; sei plaza ziren, 16-18 urteko

IKEDAM mutilentzat. Emantzipazio-etxebizitza horretan hezkuntza-arloko profesionalen arreta dute 24 orduz; autonomia-maila handiagoko adingabeei zuzenduta dago, emantzipaziorako prestatzeko.

Urte horietan, *Geroa Etxean* ere hartu dira zenbait IKEDAM behar izan denean.

c) 3. etapa (2007-2008): *Baliabide espezializatuak dibertsifikatzea eta plaza berriak irekitzea*

2007. urtean iritsi dira adingabe gehien; hain justu, 55: horietatik 38 Saharaz azpikoak dira (guztirakoaren % 69). 2007ko otsailetik aurrera, *Zabaltzen* harrera-zentroa etengabe egon zen gainokupatuta, baina 2007ko irailetik azarora bitarte, are gehiago. Hori horrela, azaroan *Zabaltzen* zentroan 26 plaza okupatu zeuden (hitzartutako plazak 12 dira). Urte horretan, *Bosco-Etxea* harrera-zentroan IKEDAMak hartzen jarraitu zuten, *Zabaltzen* zentroan gehiegizko okupazioa zegoen unetan.

Adingabe eta gazteen arreta-baldintzak hobetu egin ziren *Zabaltzen* programaren barruan kudeatutako emantzipazio-etxebizitzan, baina oso plaza gutxi ziren. Horrela, bada, 2007ko abenduan *emantzipazioko bigarren etxebizitza* zabaldu zen Gasteizen (*Xabier*); sei plaza zituen eta aurrekoaren ezaugarri berdintsuak.

Zabaltzen Zentroaren zuzendaritzaren arabera, zentro hori etengabe gainokupatuta zegoenez, adingabeekin etengabe gatazkak sortzen zirenez, eta egoerarekin nekatuta, langileekin arazoak izan zituztenez, 2008ko ekainean komunitate salestarrak uko egin zion zentroa kudeatzeari. *Bosco-Etxea* harrera-zentroa eta *Zabaltzen* programako emantzipazioko bi etxebizitzak kudeatzen jarraitzea erabaki zuten.

Zenbait adingabek zentroan ordura arte pairatutako baldintzak salatu zituzten:

Arabako harrera-zentro bakarreko kide guztiek bezalaxe, Abdelssamadek egun osoa kanpoan eman behar du. «Goizeko bederatzietatik gaueko bederatziak arte kalean egon behar dugu. Ez digute esaten zergatik; horrela behar duela eta kitto», dio. As-teheneetik ostiralera, lanerako prestakuntzako lantegietako batean egoten da arotz izateko ikasten. Oporretan eta asteburutan, ahal duena egin behar du. «Horrela egon arazten bagaituzte luzaroan, azkenean kola esnifitzen amaituko dut, edo disolbatzailea, edo dena delakoa», kexu da.

Zentroko kideetako bat, Hussein, kaiuko batean iritsi zen Kanarietara duela hilabete eskas, eta Gasteizko kaleetan barrena noraezean ibiltzen da hamabi orduz, lanerako

prestakuntzako lantegiren bat esleitzen dioten bitartean. Ez du gaztelaniaz hitz egi-
ten eta egunero zentrotik kanpo bazkaltzera behartzen dutela dio. «Han nonbait da-
goen jantoki sozial batetik lortzen dut janaria. Atzo sardina-lata bat, bagette-erdia,
esne litro bat eta postrea eman zizkidaten». Ulertzen ez duen arau arraro hori
dela-eta, euria ari duenean zubi baten azpian esertzen da ematen diotena jateko.
([http://www.elpais.com/articulo/pais/vasco/Nos/tienen/calle/manana/noche/elpe-
piesppvs/20080330elpvas_9/Tes/](http://www.elpais.com/articulo/pais/vasco/Nos/tienen/calle/manana/noche/elpe-
piesppvs/20080330elpvas_9/Tes/))

2008ko ekainean, *Ixuri* elkarteak hartu zuen bere gain zentroaren kudeaketa. Elkar-
te hori orduan hasi zen *Adingabekoen eta Familiaren Arloarekin* lanean. Orduan, kudea-
keta-aldaketaekin bat etorrita, *Adingabekoen eta Familiaren Arloak Zabaltzen zentroko*
plaza kopurua handitu zuen; adingabeak etengabe iristen ari direnez, plaza-premia be-
tetzeko 30 plaza finkatu ziren. Adingabe gehiago hartu ahal izateko, zentroko espazioa
handitu egin zen eta beste bi gela antolatu; gaur egun solairu osoa hartzen dute. Une
horretan, halaber, zentroak gaueko izateari utzi eta adingabeei arreta 24 orduz ematera
igaro zen.

30 plaza horietatik, guztiak ez dira urjentsiazko eta harrerakoak; batzuetan, adingabeek
egoitza-plaza bat betetzen dute zentroan bertan, beste egoitza-baliabide batean edo eman-
tzipazioko etxebizitza batean beste plaza baten zain dauden bitartean.

2008ko ekainean, *Estibaliz* Behin-behineko Unitatea ere zabaldu zen; *Zabaltzen zentroko*
30 plazak gainditu eta gainokupazioarekin amaitzea lortu nahi zen, 2008ko lehen hilabe-
teetan adingabe gehiago iritsi baitziren. Zentro hori *Zabaltzen zentroa* kudeatzen duen el-
kar-teak kudeatzen du: *Ixuri*. 12-18 urteko IKEDAM neska-mutilentzako baliabide bere-
zia da.

Urte horretan, *Bosco Etxea Zentroan* ere IKEDAM neska-mutil bat edo bi hartzeko pla-
zak ezarri dituzte, plaza-premiaren arabera, baina harrerako beste bi zentroetan plazak li-
bre geratu ahala, hara eramaten dituzte.

Urte horietan, *Geroa Etxeak* egoitza-plazak hartzen jarraitu du. 2007. urtetik au-
rrera, *Paula Montal Etxean* IKEDAMentzako plaza bat erreserbatua dago, eta
2008an, *Hazibide Etxean* eta *Sandoa Etxean* plazetako bat IKEDAMentzat erreser-
batuta dago.

8.1.1.3. Erakundeen egungo erantzuna¹⁰⁶

Jarraian, Arabako harrera-plaza guztiak biltzen dituen taula bat aurkeztuko dugu (2008ko urria): plazen guztirakoa lortzeko, adingabe bat harrera-zentro batean sartzen denetik adin nagusiko bihurtzen den arte, baliabide mota guztietako plazak zenbatu ditugu.

Taulan honako datu hauek ere bildu ditugu: lurraldean zenbat plaza dauden baliabide motaren arabera, IKEDAMek okupatutako plaza kopurua, eta plaza horien ehunekoa adingabeei zuzendutako plaza guztiei dagokienez.

47. taula
Harrerako baliabideetako plazak (2008ko urria)

Baliabideen tipologia	Guztira	IKEDAM plazak	(%)
Larrialdikoa eta harrerakoa	80	48	60
Egoitzakoak: oinarritzko programa	29	5	17
Egoitzakoak: programa espezializatua	26	6	23
Emantzipazioa	23	19	82
Adin-nagusitasuna	—	12 ¹⁰⁷	—
Guztira	158	90	56

Iturria: Arabako Foru Aldundia, Zentroetako profesionalei egindako elkarrizketak, Espainian Inoren Kargura Ez Dauden Adingabeen Ezaugarriei buruzko galdesorta, 2007-08. Egileak egi-na.

2008ko urrian, IKEDAMek okupatutako 90 plaza zeuden Araban. Foru Aldundiak babes-gabezia-egoeran dauden adingabeak artatzeko dituen plaza guztien % 56 osatzen dute. Beraz, plaza guztien erdia baino gehiago IKEDAMak hartzeko dira.

¹⁰⁶ Atal honetan, beste Foru Aldundien kasuan ez bezala, ez ditugu aztertuko zentroei egindako galdesortaren galderak; izan ere, Araban bi galdesorta baino ez zirenez egin (*Zabaltzen harrera-zentroari eta Zabaltzen programari*), ezin dugu zentroen arteko konparaziorik egin. Dena dela, egoki suertatuz gero, jasotako bi galdesorta horietako zenbait atal aipatuko ditugu, bietako lehena IKEDAM gehien dituen zentroa baita.

¹⁰⁷ 2007ko uztailean.

Jarraian, babes-baliabideak zehaztuko ditugu, motaren arabera:

a) *Lehen harrerako baliabideak*

Hona hemen lehen harrerako baliabideak:

48. taula

IKEDAMei zuzendutako harrera-baliabideen sarea Araban, 2008

Izena	Irek. urtea	IKEDAM arret. urtea	Baliabideen tipologia	Herria	Titulartasuna	Kudeaketa	Plazak	IKEDAMek okupatutako plazak	Erabiltzaileen ezaugarriak Sexua/Adina
Hazaldi	1986	1996	Egoitza Zentroa	Vitoria-Gasteiz	Itundua	Karitatearen Ahizpak	22	1	neska/ mutilak 0-18
Bosco-etxea	2001	2001	Egoitza Zentroa	Vitoria-Gasteiz	Itundua	Salestarrak	12	1 ¹⁰⁸	neska/ mutilak 12-18
Zabaltzen	2003	2003	Egoitza Zentroa	Vitoria-Gasteiz	Itundua	Ixuri elk.	30	30	mutilak 12-18
Estibaliz (behin-behinekoa)	2008	2008	Egoitza Zentroa	Estibaliz	Itundua	Ixuri elk.	16	16	neska/ mutilak 12-18
Guztira							58	47	

Iturria: Arabako Foru Aldundia, 2008. Egileak egina.

2008ko urrian IKEDAMentzako 47 plaza zeuden harrera-zentroetan, Arabako Foru Aldundiaren harrera-plaza guztien % 60.

Ikusi dugunez, 2008ko urrian mota horretako lau zentro daude: horietako bi Arabako adingabeei arreta emateko sare normalizatuko harrera-zentroak dira, eta IKEDAMen zirkuitu espezializatuan gehiegizko okupazioa dagoen unetan, IKEDAM bat edo bi horietara bideratu dira; gainerako bi harrera-zentroak IKEDAMentzako zentro espezifikoak dira. Sare normalizatuko harrera-zentroak dira zaharrenak, eta bi espezializatuak berriki sortuak dira; hain justu, gehiegizko okupazioa muturrekoa izatera iritsi zen une-

¹⁰⁸ Guztirako okupazioaren arabera.

tan zabaldu ziren: 2003an *Zabaltzen* zentroa eta 2008an *Estibaliz* zentroa, behin-behinekoa.

Hiru zentro Gasteizen daude, eta laugarrena Gasteiztik zortzi kilometrora dagoen herri txiki batean (Estibaliz). Zabaltzen zentroak betetako galdesortaren arabera, zentroa herriaren erdialdean dago eta garraio publikoari dagokionez, ongi komunikatua dago. Dena dela, zentroa herriko alde zaharretik gertu dagoenez, «kaleko giroak eragina du adingabeen prozesu pertsonaletan» (Zabaltzen Zentroa. 07/09/20).

*Lau zentroak itunduak dira. Sare normalizatuko bi harrera-zentro erlijioso-elkarteek kudeatzen dituzte: lehena *Karitatearen Ahizpek* eta bigarrena *Salestarrek*. Gogoan izan 2008ko ekainera bitarte komunitate salestarrak *Zabaltzen* harrera-zentroa ere kudeatu zuela, sortu zenetik. Gaur egun, IKEDAMentzako bi zentro espezializatuak *Ixuri Elkar-teak* kudeatzen ditu; elkarte hori 2008ko ekainean hasi zen *Adingabekoen eta Familiaren Arloarekin* lan egiten.*

*Harrera-zentroetako plaza kopurua 12tik 30era bitartekoa da. Zentrorik txikiena *Bosco-Etxea* da, 12 plazarekin, eta ohiko moduan, ez da gainokupaziorik gertatzen. 2008ko ekainera bitarte, *Zabaltzen* zentroak ere 12 plaza itundu zituen (bi urjentziazkoak eta 10 harrerakoak), baina sortu zenetik, dauden plazen kopurua gainditu egin da okupazioan, kasu gehienetan (ikus 8.1.1.2 atala, zirkuituaren bilakaerari buruzkoa). Hala ere, zentroaren gehieneko okupazioaren mailarik handiena 2007ko otsailetik aurrera gertatu zen, zentroko aurreko zuzendari Jesús Ángel Fernándezen arabera, Saharaz azpiko adingabe gehiago iristen hasi baitziren.*

Saharaz azpiko adingabe gero eta gehiago iristen ari dira; ez dira taldeka iristen, baina modu kontrolatuan etortzen direla sumatu dugu; ez dakigu ez nork, ezta zergatik ere, baina egia da pixkanaka etortzen hasi direla: egun batean bat, egun batzuk barru beste bat. Gutxi gorabehera antzeko profila dute: itxuraz adin nagusikoak diren Saharaz azpikoak. Kanarietan guztiak adin nagusikotzat hartu zituzten. Baina bat-batean, adingabeen pasaporteak erakusten dute eta Gasteizen agertzen dira. (Zabaltzen Zentroa. 07/09/20).

Ildo beretik, 2007ko irailean, zuzendariak esan zigun 18 adingabe zeudela zentroan. Eta 2007ko azaroan gehiegizko okupazioa areagotzen ari zen: zentroan 26 plaza okupatu zeuden, zentroaren ahalmena baino % 53 gehiago. Galdesortan zuzendariak aipatzen zuenez, adingabeen bolumenak beti gainditzen zuen plaza kopurua. Aurrekari horiekin

eta egoera horrek eragiten zituen arazoak arazo, 2007an instalazioak handitzen hasi ziren eta 2008. urtera arte iraun zuten lanek; 2008an ere zentroko plaza kopurua handitu zuten, 30era iritsita.

Hazaldi zentroak 22 plaza ditu itunduak: Zabaltzen zentroa handitu arte, hori zen zentrorik handiena. Ez ahaztu Arabako 0-18 urteko adingabeak hartzen dituen zentro bakarra dela (plaza bat kenduta, IKEDAMentzat baita). Azkenik, *Estibaliz zentroa*, sortu berria, 2008an zabaldu zen IKEDAMentzako 16 plazarekin.

Esan dugun moduan, *zentro batek soilik hartzen ditu 0-18 urteko adingabeak (Hazaldi zentroak)*. Gainerako hiru *zentroetan 12-18 urteko adingabeak artatzen dira. Bosco-Etxea* harrera-etxea Arabako nerabeentzat eta IKEDAMentzat zabaldu zen, baina beste biak, soilik IKEDAMak hartzeko zirenez, nerabeentzako egokituta sortu ziren.

Generoari dagokionez, «*Zabaltzen harrera-zentroan*» mutilak bakarrik hartzen dituzte. Gainerako hiruretan neskak nahiz mutilak artatzen dituzte.

b) *Egoitza-baliabideak*

1. OINARRIZKO PROGRAMA

Adingabea tutoretzapean hartutakoan, 16 urtetik beherakoa baldin bada (IKEDAMen kasuan, emantzipazioko etxebizitza batera eramateko adina heldutasunik ez dutela balioesten da), adingabea Arabako Foru Aldundiaren Babes Sareko Etxeetan integratzen da, nongoa den kontuan izan gabe. Bai etxeak, bai emantzipazioko etxebizitzak Foru Aldundiaren sarean txertatuta daude, eta IKEDAM guztiak *Adingabekoen eta Familiaren Arlotik* bideratzen dituzte, haien premiei ongien erantzuten dien baliabidea kontuan izanik (libre baldin badago); IKEDAMen kasuan, emantzipaziorako prestatzeko baliabideetara bideratzen dira gehienetan, harrera-egoitzako zentroei buruzko dekretuan xedatzen denari jarraiki.

Jarraian, IKEDAMak hartzen dituzten etxeak bildu ditugu taulan:

49. taula

IKEDAMak hartu dituzten egoitza-baliabideen sarea Araban, 2008

Izena	Irek. urtea	IKEDAM arret. urtea	Baliabideen tipologia	Herria	Titulartasuna	Kudeaketa	Plazak	IKEDAMek okupatutako plazak	Erabiltzaileen ezaugarriak Sexua/Adina
Geroa Etxea	1988	1998	Egoitza Zentroa	Vitoria-Gasteiz	Publikoa	Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea	8	2	neska/ mutilak 3-18
Paula Montal Etxea	1979	2007	Egoitza Zentroa	Vitoria-Gasteiz	Itundua	Nuevo Futuro	7	1	neska/ mutilak 3-18
Hazibide Etxea	2003	2008	Egoitza Zentroa	Vitoria-Gasteiz	Itundua	Nuevo Futuro	7	1	neska/ mutilak 3-18
Sendoa Etxea	2005	2008	Egoitza Zentroa	Vitoria-Gasteiz	Itundua	Nuevo Futuro	7	1	neska/ mutilak 3-18
Guztira							29	5	

Iturria: Arabako Foru Aldundia, 2008. Egileak egina.

2008ko urrian, IKEDAMak hartu zituzten etxeetan bost plaza zeuden, hau da, Arabako Foru Aldundiaren Etxeetako plaza guztien % 17.

Oinarrizko programako lau egoitza-baliabide daude. Bi lehenak (Geroa eta Paula Montal Etxeak) zaharrenak dira, 80ko hamarkadan sortuak biak ere. Hori dela-eta, IKEDAMak artatzen lehenak ere izan ziren; hala ere, lehenengoan 1998. urtetik aurrera hartzen dituzte IKEDAMak, baina bigarreanean 2007an hasi ziren. 2003. urtean, birmoldaketa gertatu zen: Hazibide Etxea sortu zen eta 2005ean Sendo Etxea, nahiz eta, bi kasuetan, IKEDAMak hartzen 2008. urtean hasi ziren.

Lau zentroak Arabako babes-sare normalizatukoak dira; ez dago IKEDAMentzako zentro berezirik. Eta laurak Gasteizen daude.

Zentro bakar bat da publikoa, Geroa Etxea, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak kudeatzen du. Gainerako hiru zentroak administrazioarekin itunduak dira eta erakunde berak kudeatzen ditu: Nuevo Futuro; Gipuzkoako Foru Aldundiaren zentro asko ere kudeatzen ditu.

Egoitza-etxeetako plaza kopurua zazpitik zortzira bitartekoa da. Zortzi plazako etxea Geroa da, IKEDAMentzat bi plaza gordeta dituen bakarra; gainerako hiru etxeek zazpina plaza dituzte eta IKEDAMentzat plaza bana dute erreserbatuta.

*Lau etxeetan hiru-18 urteko adingabeei ematen diete arreta, eta neskak nahiz mutilak hartzen dituzte, mistoak baitira. Dena den, historiari erreparatuz gero, beti mutilak baka-
rrik izan dituzte.*

2. PROGRAMA ESPEZIFIKOA

Jarraian, IKEDAMak artatzen dituzten Arabako baliabide espezializatuak biltzen dituen taula aurkeztuko dugu:

50. taula
IKEDAMak hartu dituzten egoitza-baliabide espezifikoen sarea Araban, 2008

Izena	Irek. urtea	IKEDAM arret. urtea	Baliabideen tipologia	Herria	Titulartasuna	Kudeaketa	Plazak	IKEDAMek okupatutako plazak	Erabiltzaileen ezaugarriak Sexua/Adina
Sansoheta gizarte- eta hezkuntza-etxea	1998	1999	Portaera-nahasmenduak	Vitoria-Gasteiz	Itundua	Izan elk.	8	4	neska/ mutilak 12-18
Castillo de Portillo Zentroa	1993	2005	Haurdun dauden emakume eta nerabeentzako egoitza-zentroa	Vitoria-Gasteiz	Itundua	Beti Gizartea	8	1	beherako eta gorako neskak 18
Zandueta Zentroa	1998	2005	Toxikoekin loturiko portaera-nahasmenduak	Artzibar	Itundua	Dianova	10	1 ¹⁰⁹	neska/ mutilak 12-18
Guztira							26	6	

Iturria: Arabako Foru Aldundia, 2008. Egileak egina.

¹⁰⁹ Plaza-premiaren arabera. Azken urteotan, batzuetan hiru plaza okupatu dira IKEDAMentzat. 2008ko urrian ez dago plaza bat bera ere okupatuta.

2008ko urrian IKEDAMek egoitza-zentroetako sei plaza okupatzen zituzten, Arabako Foru Aldundiaren harrera-plaza guztien % 22.

Hiru egoitza-baliabide espezifiko daude. Horietako bi portaera-nahasmenduak dituzten adingabeei zuzendutakoak dira, hain justu, Zandueta zentroa, toxikoekin loturiko portaera-nahasmenduetan espezializatuta. Bi zentro horietan, adingabeak aldi baterako egoten dira, hobera egiten duten arte, eta gero berriz ere etxe batera eramaten dituzte. «Castillo de Portillo Zentroa» espezializatua da, haurdun dauden emakume eta nerabeei arreta ematen dien egoitza-zentro bakarra delako.

Gero, haurdun dauden emakumeen programan, badugu bat orain adin nagusia dena, baina iritsi zenean adingabea zen, eta haurdun zegoen. Horixe da gaur egungo proportzioa, eta inoiz ez da izan handiagoa. (Adingabekoen eta Familiaren Arloaren zuzendariordea, 07/07/13).

Azken zentro hori hiruretan zaharrena da. 1993. urtean zabaldu zuten, baina 2005ean iritsi zen haurdun zegoen lehen adingabea. Beste bi zentroak 1998an sortu ziren: *Sansoheta gizarte- eta hezkuntza-zentroa* sortu eta hurrengo urtean hasi zen IKEDAMak hartzen (1999an), baina *Zandueta Zentroa* 2005ean. Urte horretan, droga-mendetasunetan espezializatutako zentroren batekin plazak ituntzeko premia ikusi zen eta *Dianova* elkartearekin egin zen; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan arlo horretan espezializatua da, eta egoitzako erregimenean nahiz erregimen anbulatorioan toxikoen mendekotasuna gainditzeko programak garatzen ditu. Elkarte horrek kudeatzen ditu, baita ere, Gipuzkoako toxikoen mendekotasuna gainditzeko lehenengo faseko bi zentroak.

Hiru zentroak babes-sare normalizatukoak dira; ez dago IKEDAMentzako zentro berezirik. Horietako bi Arabako adingabeentzat dira eta Gasteizen daude. Aldiz, hirugarrena (Zandueta zentroa) Artzibarren dago.

Hiru zentroak Administrazioarekin itunduak dira, bakoitza elkarte batekin. Sansoheta gizarte- eta hezkuntza-zentroa Izan elkartearekin, Castillo de Portillo Zentroa Beti-Gizartea elkartearekin, eta Zandueta zentroa Dianova elkartearekin.

Egoitza-zentro espezializatuetakoko plaza kopurua zortzitik 10era bitartekoa da. Aurreneko biak Arabakoak dira eta zortzi plaza dituzte; hirugarrenean, aldiz, bi Foru Aldunditako adingabeak hartzen dituzte eta 10 plaza ditu.

Portaera-nahasmenduetan espezializatutako zentroetako bitan 12-18 urteko neska-mutilak hartzen dituzte (Sansoheta eta Zanduetza). Baina Castillo de Portillo Zentroan emakumeak soilik; nor hartu eta nor kanpoan utzi erabakitzeko garaian, adina ez da kontuan izaten, haurdun dagoen heldu edo adingabe ororentzat baita.

c) Emantzipazioko baliabideak

Jarraian, Arabako emantzipazioko baliabideak azalduko ditugu:

51. taula

Inoren Kargura Ez Dauden Adingabe Migratzaileak hartu dituzten emantzipazio-baliabideen sarea Araban, 2008

Izena	Irek. urtea	IKEDAM arret. urtea	Baliabideen tipologia	Herria	Titulartasuna	Kudeaketa	Plazak	IKEDAMek okupatutako plazak	Erabiltzaileen ezaugarriak Sexua/Adina
Carlos Abaitua	2006	2006	Emantzipazio-etxebizitza	Vitoria-Gasteiz	Itundua	Kom. salestarra	6	6	16 urtetik 18 urte baino gehiagora bitarteko mutilak
Xabier	2007	2007	Emantzipazio-etxebizitza	Vitoria-Gasteiz	Itundua	Kom. salestarra	6	6	neska/mutilak 16-18
Aukera	2008	2008	Emantzipazio-etxebizitza	Vitoria-Gasteiz	Itundua	Kolore Guztiak	6	6	neska/mutilak 16-18
Ori	2008	2008	Emantzipazio-etxebizitza	Vitoria-Gasteiz	Itundua	Kolore Guztiak	5	1	neska/mutilak 16-18
Guztira							23	19	

Iurria: Arabako Foru Aldundia, 2008. Egileak egina.

2008ko urrian IKEDAMentzako 19 plaza zeuden emantzipazio-baliabideetan, Arabako Foru Aldundiaren harrera-plaza guztien % 82.

Emantzipazioko lau baliabide daude. Lehena (Carlos Abaitua) 2006. urtean zabaldu zuen GOFek, eta sozietate salestarrarekiko lankidetzat-hitzarmenaren baitan kudeatzen da. Baliabide horri Zabaltzen Programa esaten zitzaion, harrera-zentroko adingabe au-

tonomoago eta zaharragoei irtenbidea emate aldera. Urtebete geroago, 2007. urtean, programa beraren barruan, bigarren etxebizitza (Xabier) zabaldu zen plaza gehiago behar zirelako. Bi etxebizitzak kanpoaldeko auzo batean daude, baina garraio publikoarekin ongi komunikatuta daude.

Beste bi baliabideak (*Aukera* eta *Ori*) 2008an ireki ziren.

Lau zentroetatik hiru (hiru lehenak) IKEDAMentzat espezializatuak dira. Bakarra da mis-toa (*Ori*), Arabako babes-sare normalizatuaren barruan. *Laurak Gasteizen daude.*

Lau zentroak Administrazioarekin itunduak dira. Lehen ere esan dugunez, aurreneko biak (*Carlos Abaitua* eta *Xabier*) salestar komunitateak kudeatzen ditu eta *Bosco-Etxea* harrera-zentroa eta *Zabaltzen* ere haiek kudeatzen dituzte (2001. urtetik eta 2003-2008 aldian, hurrenez hurren). Azken biak (*Aukera* eta *Ori*) 2008an ireki zituen *Kolore Guztiak* elkarteak.

Emantzipazio-etxebizitzetan bost-sei plaza izaten dira. Aurreneko hiru etxebizitzetan seina plaza dituzte IKEDAMentzat bereziki; *Ori* etxebizitzak bost plaza ditu eta bakar-rra okupatzen du IKEDAM batek. Hartara, 2008ko urrian ez zegoen plaza bat bera ere IKEDAMek okupatuta.

«*Carlos Abaitua*» zentroan soilik IKEDAM mutilak hartzen dituzte, eta gainerako hi-rurak neska-mutil adingabeei zuzenduta daude, baina orain arte, mutilak baino ez dira sartu.

Lau zentroetan 16-18 urteko adingabeak hartzen dituzte baina *Zabaltzen* programan sartutako bi zentroetan 18tik gorako mutilak ere egon dira, gazteek harrera ondoko programan sartzeko aukera izan duten arte. Berehala mintzatuko gara programa mota horretaz.

Zabaltzen programaren aurreko zuzendariaren arabera (Zabaltzen zentroa, 07/09/20), emantzipazio-etxebizitzetako instalazioak egokiak ziren, eta gustura zegoen emantzipa-zioko etxebizitzetako hezkuntza-proiektuaren aplikazioarekin.

d) 18 urtetik gorakoentzako baliabideak

Adin-nagusitasuna lortutakoan, IKEDAMek jasotzen duten babesa amaitu egiten da, ad-ministrazioek ez baitute, legez, 18 urte bete dituzten gazteei arreta eta zerbitzuak eskain-

tzeko inolako betebeharririk. Dena dela, gero eta argiago ikusten da adingabeek laguntza behar dutela 18 urte bete ondoren ere.

Arabako Foru Aldundian hasi dira premia horretaz jabetzen. Beraz, 2002. urtetik aurrera *harrera ondoko edo egoitza ondoko jarraipen-programa* abiarazi dute.

Jarraian, harrera ondoko programa horren ezaugarri nagusien taula aurkeztuko dugu:

52. taula
Harrera ondoko programa Araban, 2008

Izena	Irek. urtea	IKEDAM arret. urtea	Baliabideen tipologia	Herria	Titulartasuna	Kudeaketa	Plazak	IKEDAMek okupatutako plazak	Erabiltzaileen ezaugarriak Sexua/Adina
Harrera ondoko programa	2002	2002	Tutoretzako ohien jarraipena	Vitoria-Gasteiz	Itundua	Jatorrizko zentroa kudeatzen duen elkarte	Eskariaren arabera	Eskariaren arabera	18 urtetik gorako tutoretzapeko ohiak

Iturria: Arabako Foru Aldundia, 2008. Egileak egina.

2007ko uztailean, *IKEDAMentzako harrera ondoko programan 12 adingabe* zeuden, *Adingabekoen eta Familiaren Arloaren* arabera. 2008ko urrian ez dakigu zenbat plaza dauden; izan ere, administrazioetik esan digute ez dutela plaza kopuru finkorik, eskariaren arabera baizik.

Harrera ondoko edo egoitza ondoko jarraipen-programaren bidez adin nagusiko bihurtu berri diren adingabeen jarraipena egin nahi da, hasitako prestakuntza-prozesuarena (adingabe izanik ezin baitute prozesua amaitu), oraindik ere ezin dute-eta lan-munduan sartu. Orduan, gaztea hezkuntza-programa batean sartzen da eta bakarkako elkarrizketak eta bilerak finkatzen dizkiote prestakuntza-plan bat batera diseinatzeko; plan horren azken helburua laneratzea izango da, eta bien bitartean, diru-laguntzak lortzeko izapideak betetzen laguntzen zaio, etxebizitzaren alokairua eta mantenua ordaintzeko; laguntza horiek jasotzeko, programa bete egin behar du.

2002. urtetik aurrera hasi zen programa hori *IKEDAMak* ere barnean hartzen, plaza *batzuekin*; hala ere, 2006an *Zabaltzen* programarekin plaza gehiago ezarri ziren. Baina beraz, 2008tik aurrera handitu da programa horri atxikitako *IKEDAMen* kopurua.

18 urtetik gorako tutoretzapeko ohien jarraipena egitean datza programa. Jarraipen hori egitea adingabeen harreraz arduratzen ziren erakundeei dagokie.

Programa horretan, gazteak errespetatu beharreko konpromiso jakin batzuk daude. Etxebizitza bateko adingabe batek independentzia lortzeko egin beharreko lehen urratsa etxebizitza bat bilatzen laguntzea da.

Gizarte Ongizaterako erakundearekin hasi genuen jarraipen-programa. Etxebizitza aurkitu genuen eta bera hara joan zen bizitzera. Gero, berak nahi badu joango da beste batera... adin nagusikoa da. Orduan, guk hezkuntzaren eta prestakuntzaren jarraipena egiten dugu. Jarraipen-programaren barruan, gazteak bete behar dituen konpromiso batzuk daude. Aldaketa garrantzitsuren bat egiteko, hezitzailearekin ados jarri behar du. Hezitzaileak ez du erabakia hartu behar, baina proposamenak egin behar ditu, kontsultak, balioespena... Eta azkenean, erabakia adostasunez hartu. Kontua ez da nik erabakia hartzea eta gero nik zuri jakinarazten dizut. Hor ez du balio, adibidez, ikastaro bat besterik gabe uzteak. (Zabaltzen Zentroa. 07/09/20).

Programako hezitzaileek gaztearen jarraipenari buruzko txostena egiten dute sei hilean behin, eta GOFeren Adingabekoen eta Familiaren Arlora bidaltzen dute; aurrerago, gazteak laguntza-eskaera berri duenean, aldizka Adingabekoen eta Familiaren Arlora joan beharko du berritzeko eskaera sinatzera. Jarraipen-programa noiz amaituko den GOFeren Adingabekoen eta Familiaren Arloak erabakitzen du, zentroetako profesionalen txostenetan oinarrituta.

8.1.2. Gipuzkoako Lurralde Historikoa

8.1.2.1. Gipuzkoako Foru Aldundia

Azken bost urte hauetan (2003-2007), Gipuzkoako Lurralde Historikoan Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaile gehien dagoen garaian, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeari dagokionez eskumena duen administrazioan, hots, Gipuzkoako Foru Aldundian, hainbat aldaketa egin dira, hala nola sailetako eskumenen berrantolaketa, Euskal Autonomia Erkidegoko azken bi foru-hauteskundeen ondorioz (2004 eta 2007). 2004. urtean izandako aldaketak eta horien ondorioak aipatuko ditugu; izan ere, horiek, gure ustez, modu negatiboan eragin dute IKEDAMen zaintzan 2007. urtera arte, hots, prozesu horretako esku-menak berrantolatu ziren arte.

2004. urtean, hauteskundeak irabazi zituen gobernu berriarekin, aldatu egin zen Haurrak eta Nerabeak Zaintzeari buruzko organigrama. Ordura arte gai guztia sail bakar batean jorratzen zen, baina urte horretan bi Departamentu sortu ziren; Departamentu horiei lurraldeko adingabeak babestea dagokie, eta adingabe horien artean Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileak:

1. *Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentua*, maiatzaren 25eko 49/2004 Foru Dekretu bidez eratua. Haurren arloari dagokionez, honako hauek ziren departamentu horren eskumenak: «*babesgabezia-egoeran edo egoera horretan egoteko arriskuan dauden adingabe guztiak atzematea ahalbidetuko duen sistema bat arautzea, eta erabakiak ahalik eta berme handienekin hartzea. Adingabea bere ingurunean egon dadin sustatzea, babesgabetasun-egoera oro desagerrarazizko dela eta adingabeen premiak beteko direla bermatuz*». Lurraldean dauden adingabe babesgabe guztiak berehala artatzeko urgentziazko eta harrerako baliabide guztiak zeuden departamentu horren mende. Garai hartan egoitza Urnietan zegoen.
2. *Gizarte Politikarako Departamentua* 32/2004 Foru Dekretu bidez eratu zen. Departamentu horri babesgabezia-egoeran zeuden haur eta gazteentzako programak eta baliabideak diseinatzea eta ebaluatzea zegokion. Eta zehazki, beren familien-gandik banandutako adingabeak zaintzeko kudeaketaz arduratzea zegokion, familia-harreraren, egoitza-harreraren edo adopzioaren bitartez. *Departamentu honetako IKEDAMei dagokienez, egoitza-arreta guztia horren mende zegoen batez ere*. Departamentu horretan IKEDAMak lurralde horretako adingabeak zaintzeko zirkuitu normalizatuari zaintzen dira. 2004an *Villa Martutene* —Donostiako Martutene auzoan zegoen eta garai hartan zegoen zentro espezifiko bakarra da— itxi egin zuten IKEDAMak baliabideen sare normalizatuari sartzeko erabakia hartu zelako. 2007an ireki zituzten berriz ere IKEDAMentzako zentro espezifikoak.

IKEDAMen zaintzan inplikaturako bi departamentuak, nahiz eta Eusko Jaurlaritzaren mendekoak izan biak, Gobernua osatzen duten alderdietako bakoitzak kudeatu zituen: *Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentua* Eusko Alkartasuna (EA) alderdiaren babespean egon zen, eta *Gizarte Politikarako Departamentua* Euzko Alderdi Jeltzalearen (EAJ) babespean. Alde batetik, organigrama berri horrengatik, eta beste alde batetik, IKEDAMen etorrera handitu delako, urte hauetan hainbat gatazka sortu dira departamentuen artean kolektibo hori zaintzeko zein izango den politikarik egokiena erabakitzerakoan. Ondorioa izan zen bi departamentuen artean ez zegoela

baterako koordinaziorik, eta horregatik, IKEDAMak zaintzeko baterako politika norae-zean ibili zen, babes-zirkuituaren bilakaeran ikusiko dugunez.

Lehenengo departamentuaren barruan, hots, *Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentuaren* barruan, *Haurren, Gazteen eta Garapenerako Lankide-tzaren Zerbitzuari* zegokion Adingabe babesgabeak, eta horien artean IKEDAMak har-rrera-zentroetan zaintzea. Bigarren departamentuaren barruan, hots, *Gizarte Politikarako Departamentuaren* barruan *Gizarte Zerbitzu*etako *Laguntza eta Sarrera Zerbitzuari*, eta, zehazki *Haur eta Gazte Atalari* zegokion beren familiengandik banandutako adingabeen zaintza kudeatzea, familia-harreraren, egoitza-harreraren edo adopzioaren bitartez.

Ikusten ari garenez, garai hartan zatituta zegoen Haurrak eta Gazteak babesteko zain-tza integrala. Adingabe bat atzematen zenean lehenengo departamentura eta Haurrak zaintzeko zegokion departamentu horren zerbitzura bideratzen zen. Eskumenen ara-bera, adingabeak harrera-egoitzan egon behar zuen behin betiko tutoretza izan arte, eta tutoretza hori lortutakoan, adingabea egoitza-harrerako Unitate batek zaindu behar zuen, kasu gehienetan lurraldean bakarrik zeuden adingabeak zirelako. Horren ondo-rioz, adingabea bigarren departamentuak kudeatzen zuen egoitza-zentro batera era-maten zen. Baina babes-zirkuituaren bilakaeran azalduko dugunez, IKEDAM askok zailtasun handiak izan zituzten egoitza-zentro batean plazak lortzeko oso plaza gu-txi zegoelako eta plaza berriak sortzeko inbertsiorik egiten ez zelako; hori dela medio etengabeko gainokupazioa zegoen lehen departamentuko harrera-zentroetan, eta urte horietan Gipuzkoara iristen ziren IKEDAMentzako zirkuitu espezializatu bat sortu zen paraleloan.

Zehazki, 2007aren hasieran, bereziki IKEDAMentzat zen zirkuitu paralelo hori koordi-natzeko, *IKEDAMen Programa* sortu zen, 24 orduko larrialdi-zerbitzua. Zerbitzu hori *Horbel* enpresari (kooperatiba-sozietatea) azpikontratatu zitzaion. Programa horren egin-kizun nagusiak honako hauek ziren eta dira:

- Urgentziazko Harrera Zentro espezifikoak kudeatzen dituzten erakundeekin koor-dinatzea eta hitz egitea, Gizarte Politikarako Departamentuaren erreferente iza-nik.
- Urgentziazko Harrera Zentroetako zuzendaritzarekin eta heziketa-taldeekin bilerak, zentroetara bisitak eta abar egitea, honako gai hauei buruzko informazioa eduki-tzeko etengabe: adingabeen zaintzaren garapenari, heziketa-taldeen funtzionamen-

duari, instalazioen egoerari eta Departamentura bidera litezkeen eskaeren harrerari buruzkoa.

- Urgentziazko harrera-zentroak kudeatzen dituen erakundeak egindako txostenak jasotzea, ikuskatzea eta izapidetzea adingabeak legez arautzeko.
- Egoitza-harrerako zentroetan zaintzen diren adingabeei dagokienez: Kasu Plana egitea, Haurren eta Gazteen Batzorde Teknikoan onartzeko, kasu-sareko bilerak sustatzea eta horietan parte hartzea, egoitza-harrerako unitatearen bileretan parte hartzea, Egoitza Harrerako Ebaluazio eta Erregistro Sistema (SERAR) tutoretzan hartutako adingabeekin gauzatzen den heziketa-arloko esku-hartzean aplikatzen ote den ikuskatzea, kasuari jarraipena egiteko Egoitza-harrerako Laguntza Teknikoko Zerbitzuarekin (SAT) hilero egiten diren bileretan parte hartzea, eta gertakariei eta hezitzaileek egindako txostenei buruzko proposamenak egitea.
- Beste erakunde batzuekin hitz egitea eta koordinatzea: adingabeekin lan egiten duten erakundeek (udalaren gizarte-zerbitzuen sailak, Gazteen udal-sailak, Hezkuntza Ordezkaritza, Osakidetza, Ertzaintza, Epaitegiak, Gobernuaren Ordezkariordeztza, eta abar, esaterako) proposa litzaketen bileretan eta harremanetan parte hartzea eta erakunde horiekin harremanak izatea.
- Hartutako adingabeek dituzten kultura-aldeak ulertzeko behar diren irizpideei buruzko babes-baliabide guztiei aholku ematea: zentroei aholku ematea beren dinamiketan kultura-hurbilpenari buruzko ikuspegia txertatu ahal izateko behar diren estrategiei buruz. Esku hartzeko plan indibidualak aztertzea kultura arteko ikuspegia oinarri hartuta.
- Beste autonomia-erkidego batzuekin hitz egitea: izapideak egitea Foru Aldundia ordezkatuz, aurretik beste autonomia-erkidego batzuetan zaindutako adingabeei buruzko txostenak lortzeko, beste erkidego batzuetan tutoretzan hartutako adingabeak lekuz alda ditzaten eskatzeko eta abar.

Eta horren, gainokupazioa dela-eta harrera-zentroetan etengabe izandako gatazken eta IKEDAMen etengabeko hazkundearen ondorioz, 2007an izandako foru-hauteskunde berrikin Gipuzkoako Foru Aldundia berrantolatu zen berriro. Aldundi horren eskumenak berriz ere departamentu bakar batean elkartu ziren: *Gizarte Politikarako Departamentuan*. Departamentu horretan, eraikin berean (eraikin bera baina solairu desberdinetan) eta modu integralean honako hauek bildu ziren berriz ere: babesgabezia-egoeran dauden adingabeak zaintzeko baliabide guztien diseinua, sormena, kudeaketa, koordinazioa eta ebaluazioa.

2008. urtearen amaieran beste lehiaketa bat egin zen, eta horri esker, arestian aipatutako IKEDAM programan kontratatutako profesionalen kopurua handitu ahal izan zen.

a) Atzematea

Profesionalen arabera, Gipuzkoan, *giza baliabide eta baliabide tekniko gehiago eman behar zaio poliziari*, bestela adostu diren baterako protokoloak ezin izango dira errespetatu. Gaur egun, lehentasuna ematen zaio atzemandako adingabeari buruzko informazioa idazki bidez jakinarazten bada, telefonoz egindako komunikazioaren ondorioz akatsak izaten baitira.

Esate baterako, Arabaren kasuan askotan ez da *koordinaziorik izaten Polizia Nazionalaren eta Ertzaintzaren artean*, adingabeek batzuetan aipamen edo espediente bat baino gehiago (espedienteen bikoizketa) izaten baitute. Horretarako, *Gipuzkoako segurtasun-kidegoen erregistroen datu-basea informatizatu egin behar da*. Eta, azkenik, *itxultzaileak jarri behar dira IKEDAM gehienak atzematzen dituen eta IKEDAM horiek eramaten diren bi polizia-etxe nagusietan*, adingabearekiko komunikazioa arinagoa eta errazagoa izan dadin, eta, halaber, bere administrazio-egoera hobeto ulertarazteko. Zehazki, Donostiako polizia-etxean (hiriburua delako) eta Tolosakoan (herri horretan dagoelako adingabeen lehen harrerako urgentziazko zentroa).

b) Adin-proba

Adingabe bat atzematzen denean edo adingabea bera *Ertzaintzaren* ertzain-etxera joaten denean, eta dokumentaziorik ez badauka, polizia-agenteei Donostia Ospitalera (24 ordu-tan irekita egoten da) eramango dute zer adin duen erabakitzeko proba egitera. «*Eskumuturraren proba*» horri buruz medikuek egiten duten interpretazioak erabakiko du gaztea adingabea bada adingabeen zentrora bidaltzea berehala. *16 urtetik beherako eta 16 urtetik gorako adingabeen kasuan*, harrera-zentroan edo fiskaltzan zainduta badago ere, auzitegiko klinikari jakinarazi behar diote, eta klinika horrek hitzordua emango die auzitegi-proba osatu bat egiteko. Proba horretan honako hauek sartzen dira, besteak beste: barailaren erradiografia, adinaren pronostikoa egokitzeko. Kontraproba horiek 2007ko urtariletik aurrera egin ziren lege-dekretu bidez.

Profesionalek atzeman duten arazoetako bat da bigarren proba egiteko auzitegiko medikuari hitzordua eskatu ondoren prozesua asko luzatzen dela. Prozedura osoak hilabete eta erdi iraun lezake.

c) *Tutoretza*

2008an, IKEDAM bati arreta emateko prozedura eta benetako epeak honako hauek ziren:

1. *Babesgabeziaren eta Behin-behineko Tutoretzaren Behin-behineko Deklarazioari buruzko Foru Agindua*. Arestian esan dugunez, legeak adierazten du deklarazioa adingabea harrera-zentroan sartzen den egun berean egin behar dela, baina praktikan, sartu eta handik 24 egunera¹¹⁰ egiten da nahita. Epe hori igaro arte itxaroten da iragaitzaz dauden, edo geratzea erabakitzen ez duten adingabeen sarrerei eta irteerei buruzko administrazio-burokrazia gehiago ez handitzeko. Egiten denean atzeraeraginezko ondorioekin egiten da adingabea baliabideetan sartzen den egun beretik.
2. *Kasuaren diagnostikoa*. Babesgabeziaren Behin-behineko Deklarazioa eginda-koan, adingabearen kasua balioesten da; horretarako, heziketa-proiektu indibiduala egiten da, eta balioesten da beharrezkoa ote den Babesgabeziaren eta Tutoretzaren Behin Betiko Deklarazioa egitea.
3. *Babesgabeziaren eta Tutoretzaren Behin-behineko Deklarazioari buruzko Foru Agindua*. *Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko legearen* (3/2005 Legea) arabera, *kasuaren balioespena hiru hilabeteren buruan eman behar da*, eta gehienez ere sei hilabetera bitarte atzera daiteke luzatzea eskatzen bada eta behar bezala justifikatzen bada. 2006. urtera bitarte, deklarazio hori batez besteko sei hilabetean ematen zen¹¹¹. 2007an, behin betiko tutoretza batez besteko 33 egunetan gauzatu zen, eta prozesu osoa 58 egun luzatu zen (behin-behineko tutoretzako 15 egun, eta behin betiko tutoretzako 33 egun). 2008an¹¹², behin betiko tutoretza batez besteko 31,9 egunetan gauzatu zen eta prozesuak 55,9 egun iraun zuen (behin-behineko tutoretzako 24 egun eta behin betiko tutoretzako 31,9 egun) adingabea babes-zirkuituan sartu zenetik. Praktikan, epe horiek ez dira beti bete-tzen; elkarrizketa egin zaien hainbat profesionalen arabera, kasu batzuetan, epe horiek luzatzen ari dira. Adibide gisa, 2007an, adingabeak behin betiko tutore-

¹¹⁰ Batez besteko hori 2008ko urtarritetik 2008ko irailaren 9ra bitartekoa da.

¹¹¹ 2003. urtera bitarte, portaera-arazoak zituzten adingabeen kasuan, behin betiko tutoretzaren epea atzeratu egiten zen, adingabe hori lurraldean behar bezala integratzeko gauza izango ez zela argudiatuz. Muturreko modu gisa, 2003an 19 hilabetera bitarte luzatu zitzaion adingabe bati behin betiko tutoretza, «portaera gatazkatsua» zuelako.

¹¹² Batez besteko hori 2008ko urtarritetik 2008ko irailaren 9ra bitartekoa da.

tza lortzeko behar izan zuen gehieneko denbora 217 egun izan ziren, beste batek 158 egun behar izan zituen; gutxieneko denborari dagokionez, 11 egun izan ziren. 2008an (2008ko irailera bitarte), gehieneko epeak 104 egun izan ziren bi kasutan eta 97 egun kasu batean; eta gutxieneko denbora zazpi egun¹¹³.

Gizarte Politikarako departamentuak azken hiru urte hauetan honako behin betiko tutoretza hauek hartu ditu bere gain:

53. taula

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen (IKEDAM) onartutako tutoretzak Gipuzkoan, 2005., 2006. eta 2007. urteetan

	IKEDAMen sarrerak, guztira		Tutoretzak	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)
2005	134	30,2	27	15,3
2006	153	34,5	81	45,8
2007	156	35,2	69	39,0
Guztira	443	100	177	100

Iturria: Arartekoaren 2007ko txostena, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2007. Egileak egina.

2005ean, adingabeen laurden baten baino gutxiagoren behin betiko tutoretzak onartu ziren: zaindutako 134 adingaberen artetik, soilik % 20 gauzatu ziren. Ehunekoa hain txikia izateko kausa nagusia da behin betiko Tutoretza izapidetu ahal izateko soilik adingabe batzuk egoten zirelako behar zuten adina denbora zirkuituan. Garai hartan adingabeak asko mugitzen ziren Euskal Autonomia Erkidegoko beste lurralde batzuetara eta beste Autonomia Erkidego batzuetara. Kausetako bat adingabeek harrera-zentroetan denbora luzez egotea izan zen, eta horrek adingabeek motibazioa galtzea eragiten zuen. Zirkuitua-ren bilakaeran ikusiko dugunez, aurreko departamentuak Gizarte Politikarako Departamentuari agindu zion estrategia bat ere bazegoen; estrategia horren arabera, epeak luzatu egin behar ziren adingabeak babes-zirkuituan ez egoteko.

¹¹³ Azpimarratu nahi dugu *Babesgabeziaren eta Tutoretzaren behin betiko Deklarazioa* hain epe laburrean izapidetzen dela adingabe errepikatzailea delako, hau da, lehen ere zirkuituan egon zen adingabea delako, eta horregatik, bere espedienteia ia osatuta zegoelako Deklarazioa izapidetu ahal izateko. Zirkuituan berriak diren adingabeen kasuetan, gutxieneko epe horiek ezinezkoak dira.

2006an (hiru urteetatik urte horretan izan zen tutoretza kopuru handiena), iritsi ziren 153 adingaberen artetik, *ia erdiak tutoretzan hartu ziren, ia % 53*. Aurreko urtearekin alderatuta, tutoretzen erdia baino gehiago handitu zen. *2007an* (adingabe gehien sartu ziren urtea) tutoretza kopurua bederatzi puntu jaitsi zen: *% 44 gauzatu ziren. Gizarte Politika-rako Departamentu berriko* arduradunen arabera, ez dago jaitsiera izateko itxurazko kausarik. Arduradun horien ustez, 2006. eta 2007. urteetan behin betiko tutoretza kopurua ez zen hazi honako kausa hauengatik: bai adingabeak ez zirelako zentroan geratzen 56 eguneko gutxieneko epean, bai jatorrizko dokumenturen bat falta zelako espedientea osatzeko.

d) *Egoitza-baimena*

Aitzitik, gauza bat da Babesgabetasunaren eta Tutoretzaren Behin betiko Deklarazioa epe horietan ematen denean, eta beste bat urgentziazko eta lehen harrerako zentroa deklarazio hori legeak agintzen duen bezala eduki bezain laster uztea. Ondorengo ataletan ikusiko dugunez, binomio hori kasu gehienetan gertatzen da. Beste bi Aldundietan ikusi dugunez, egoitza-zentro batera edo egoitza-bizileku batera eraman arte igarotzen den denbora alde batera utzita, legezko prozesuak bere bidea jarraitzen du *egoitza-baimena* lortzeko.

Gipuzkoan, Bizkaian bezalaxe, dokumentazioa probintzia-eremuko Gobernuaren Ordezkariordeztza berean aurkezten denean, txostena handik sei hilabetera entregatzen da eta egoitza-baimena adingabea hartu eta handik bederatzi hilabetera lortzen da, atzeritarrei buruzko legeak agintzen duenari jarraiki. *2007an, egoitza-baimena lortzeko gutxi gora-beherako batez besteko denbora 2,83 hilabete zen, txostena Gobernuaren Ordezkariordeztzan aurkeztu ostean*. Bestalde, gogoratu behar da, fenomenoaren garrantziaren atalean ikusi dugunez, Gipuzkoan *adingabeen % 90etik gora marokoarrak direla, adingabearen jatorrizko dokumentazioa* (Nortasun Agiri Nazionala eta pasaporte) *Marokoko kontsuletxean lortzea* izapide bizkor samarra dela adingabe gehienentzat, *hilabete batetik hiru hilabetera* bitarte irauten baitu (elkarriketatutako harrera-zentro guztietako zuzendariak berretsi dute hori). Aitzitik, Aljeriako adingabeen jatorrizko dokumentazioa lortzeko denbora gehiago behar izan dute: kasu horietan, denbora urtebetetik gorakoa da, betiere lortzen badute.

2007ra bitarte izapide guztiak zentroetatik bertatik egiten ziren, baina 2007aren erdialdean, adingabeen etorrera nabarmen handitu zenez, *Horbel* enpresa (IKEDAM Programa kudeatzen du) arduratzen da IKEDAMen prestakuntzaz. Baina txostena osatuta dagoenean, zentroko hezitzaileak egiten ditu izapideak, hark ezagutzen du adingabea eta lagundu egiten dio dokumentazioa lortzen.

Eskatutako eta lortutako egoitza-baimenak 2007an artatutako sarrerekin alderatzen badi-tugu, honako hauek dira:

54. taula

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen egoitza-baimenak —eskatutakoak eta lortutakoak— Gipuzkoan, 2007

IKEDAMen sarrerak, guztira	Egoitza-baimenak	
	Eskatutako kopurua	Lortutako kopurua
156	42	42

Iturria: Arartekoaren 2007ko txostena, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2007. Egileak egina.

2007an, 42 egoitza-baimen eskatu ziren, eta % 100 lortu ziren. 2007. eta 2008. urteetako adingabeen sarreren batez bestekoa (154 adingabe) egiten badugu (urte horiek dira adingabeen sarrera-urteak), ikusiko dugu soilik adingabeen % 27k lortu zuela egoitza-baimena¹¹⁴. Gizarte Politikarako Departamentuko arduradunen arabera, behin betiko tutoretza zeukaten eta zentroetan geratzen ziren adingabeen % 100 izapidetu zen urte horretan. Ehuneko hori txikiagoa izateko kausa nagusiak honako hauek izan ziren:

1. Ez zutelako adingabe batzuen pasaporteak lortu kontsuletxetik;
2. Adingabe batzuk adin nagusiko bihurtzen zirelako txostena Gobernuaren Ordez-kariordetzan aurkezteko eskaera egiteko epeak bete aurretik;
3. Adingabe batzuen espedienteak oraindik ere izapidetzeko prozesuan zeudelako Gobernuaren Ordezkariordeztan, eta 2008an lortu zirelako.

2008ko irailean, egoitza-baimena izapidetzeko egunen batez bestekoa 85 zen (ia hiru hi-labete).

e) Lan-baimena

Beste bi Aldundietan gertatzen zen bezala, Gipuzkoako profesionalek zailtasun han-diak dituzte lan-eskaintza lortzeko, nahitaezkoa, bestalde, *lan-baimena lortzeko*. Horre-taz gain, lan-baimena ezin dute izapidetu adingabeak 16 urte bete arte. 16 urtetik gorako

¹¹⁴ Ez dago 2005. eta 2006. urteetako informaziorik Gizarte Politikarako Departamentuaren aurretik egon zen departamentutik informazioa lortzea zaila delako. Nolanahi ere, egiaztatu digute urte horietan oso adingabe gutxi lortu zuela egoitza-baimena.

IKEDAMak *salbuetsita gera daitezke lan-baimena lortzeko obligaziotik* 4/2000 Lege Organikoaren 41. artikuluan bilduta dauden eta ondoren azalduko diren baldintzak betetzen dituzten pertsonen salbuespena eragiten duten *jarduerak gauzatzeko*. Aipatutako baldintzak honako hauek dira:

- k) Lan egiteko adina duten adingabe atzerritarren jarduerak, baldin eta adingabe horiek adingabeak babesteko erakunde eskudunaren tutoretzapean badaude. Erakunde horiek proposatutakoaren arabera, jarduera horiek mesedegarri izan beharko dira, adingabeak egoera horretan dauden bitartean gizarteratzeko.

Horretaz gain, adingabea adin-nagusitasunetik hurbil badago, izapidetu ahal izango da salbuespenezko zirkunstantziengatik lan-baimena.

Jarraian, 2005.-2007. urteetan aurkeztutako eta lortutako baimenak aurkeztuko ditugu:

55. taula

Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen lan-baimenak —eskatutakoak eta lortutakoak— Gipuzkoan¹¹⁵, 2005., 2006. eta 2007. urteetan

	IKEDAMen sarrerak, guztira		Lan-baimenak			
			Eskatutakoak		Lortutakoak	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)	Kop.	(%)
2005	134	30,2	—	—	—	—
2006	153	34,5	—	—	—	—
2007	156	35,2	11	100,0	8	100,0
Guztira	443	100	11	100	8	100

Iturria: Arartekoaren 2007ko txostena, Gipuzkoako Foru Aldundia, 2007-08. Egileak egina.

2007an, 11 egoitza-baimen eskatu ziren, eta soilik zortzi lortu ziren, % 72. Bi eskabide ukatu ziren adingabeek zentroan denbora gutxi (lau hilabete) zeramatala argudiatuz, nahiz eta bederatzi hilabete baino gehiago zeramaten lurraldean. Balioetsi zuten adingabe horiek ez zutela behar adina denbora izan prestakuntza-prozesu egokia izateko, nahiz eta bi adingabe horiek oso portaera ona izan zuten zentroan eta prestakuntzan, eta adingabe horiei zegozkien zentroek bermatzen zituzten.

¹¹⁵ Ez dago 2005. eta 2006. urteetako informaziorik Gizarte Politikarako Departamentuaren aurretik egon zen departamentutik informazioa lortzea zaila delako.

2005.-2007. urteetan —2007ko lan-baimenei legozkiekeen etorrera-urteak— harrerazentroan sartu ziren adingabeen batez bestekoa egiten badugu (147 guztira), ikusiko dugu *adingabe horien lan-baimenen % 7 soilik lortu zela*.

Ehuneko horiek hain txikiak direnez gero, adingabeak nekez integra daitezke komunitatean, eta administrazioaren mende egon beharko dute 18 urte bete eta gero ere. Hortaz, gazte horiek legezkontrakotasunaren esparruetan bizi beharko dute kasu askotan, eta, beste kasu askotan, aldiz, marjinalitatean.

Lan-baimena Ordezkariordeztari eskaintzen zaionetik lan-baimena lortu arte 94 egun igaroko dira batez beste, hiru bat hilabete (2008ko iraila).

Egoitza-baimenen kasuan bezalaxe, 2005. eta 2006. urteetan, eskatutako lan-baimenak 2007an baino gutxiago dira, Gizarte Politikarako Departamentuko zerbitzuburuaren arabera.

Adingabe marokoar bat Gipuzkoan erabat dokumentatzeko epeak (2008):

2008an, adingabe marokoar bat Gipuzkoan dokumentatzeko epeak honako hauek izaten ziren normalean: bi hilabete (55,9) behin betiko tutoretza lortzeko; hiru hilabetetik sei hilabetera bitarte Nortasun Agiria eta pasaportea lortzeko; hiru hilabete (85 egun) egoitza-baimena lortzeko adingabeak babes-zentro batean zainduta zazpi hilabete daramanetik zenbatzen hasita; LHIKn urte eta erdi gutxienez praktikak egiteko eta lan-eskaintza lortzeko; eta hiru hilabete (94 egun) lan-baimena lortzeko. Hortaz, Gipuzkoako lurralde historikora iristen den adingabe marokoar bat bi urte eta hiru hilabeteen dokumentatuta egongo da, baldin eta epe guztiak batez beste-koaren arabera betetzen badira.

f) *Aberriratzeak*

2006. urtetik aurrera, atzerritarrei buruzko legeak agintzen duenari formalki jarraitzen zaio Gipuzkoan: espediente bat irekitzen denean, zirkular baten bitartez automatikoki eskatzen da familiarekin berriz elkartzea. Nolanahi ere, hori «izapide» bat da ez delako inoiz bakar bat ere gauzatu.

Lurralde horretan soilik bi aberriratze gauzatu ziren, eta biak 2004an egin ziren. Aberriratze bat Bartzelonako Gobernuaren Ordezkariordeztak eskatu zuen neska adingabe marokoar batentzat, eta beste aberriratzea Errumaniako neska adingabe baten eta bere familiaren borondatezko itzulera izan zen, sare batean atzeman zen, eta «prostituziora bul-

tzatzen» ote zuten susmoa zegoen (Gizarte Politikarako Departamentuko zerbitziburua, 2008). Bi kasuak modu berean izapidetu ziren, atzerritarrei buruzko legeak ezartzen duenaren arabera, eta alderik egon ezenez gero, familiarekin berriz elkartze bat behartua izan zen, eta bestea «itxuraz» boluntarioa¹¹⁶.

2008. urtetik aurrera Gobernuaren Ordezkariordeztzak, adingabe guztiak familiarekin berriz elkartzeko zirkularra jaso ondoren, familiarekin berriz elkartzearen berrespen positiboari buruzko dokumentu bat bidali zuen Gipuzkoako Foru Aldundira. Soilik kasu batean («oso zailtzat» hartzen dena) Aldundi horrek berretsi zuen dokumentu hura. Baina ez zen gauzatu. Horretaz gain, adingabe hori adin-nagusitasunera iritsi zen urte horretan.

8.1.2.2. IKEDAMen harrera-sarearen bilakaera

1993. urtetik aurrera atzeman ziren Gipuzkoako lurralde historikora iritsi ziren lehen IKEDAMak. Fenomenoaren bilakaeran, fenomenoaren garrantziari buruzko kapituluan ikusi dugunez, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeen artean, Gipuzkoa da adingabe gehien iristen den lurraldea: 1999an 138 iritsi ziren. Hala eta guztiz ere, urte horietan (1993-2002) adingabeen ezaugarri nagusia da iragaitzaz zeudenak zirela, adingabeek gehienegun bat edo bi ematen baitzituzten zentro batean. Horregatik, urte horietan fenomenoak ez da arazotzat hartzen, baizik eta Frantziara eta Europara igarotzeko lurralde baten alboko ondorioztat.

Nolanahi ere, 2003. urtetik aurrera aldatu egin ziren Gipuzkoara iristen ziren IKEDAMen migrazio-jarraibideak. Fenomenoaren ikuskera errotoz aldatu zuten bi kausa esanguratsu gertatu ziren urte hartan:

1. IKEDAM kopurua nabarmen hazi zen 2003an.
2. IKEDAMak ez zeuden iragaitzaz, baizik eta lurraldean geratzea erabaki zuten.

Horrek guztiak IKEDAMak bideratzen ziren baliabideen gainsaturazioa eragin zuen, baliabide guztiak lurraldeko adingabeentzako babes-sare normalizatukoak ziren. Horregatik, ondoren ikusiko dugunez, urte hartan kolektibo horretako gizonezko adingabeak zaintzeko zentro eta zerbitzu espezializatuak sortu ziren. Aitzitik, emakumezko

¹¹⁶ Espainiako gobernuaren eta Errumaniako gobernuaren arteko akordioaren arabera, Errumaniako nazionalitateko inoren kargura ez dauden adingabe guztiak beren herrialdera itzuli behar dira. Zalantza handiak daude itzulera horri «borondatezko itzulera» deitzea modurik egokiena ote den; adingabeen «borondatea» ez baita kontuan hartzen.

IKEDAMak zirkuitu normalizatuan hartzen jarraitu zen, emakumezko IKEDAM gutxi zegoela atzeman zelako (gogora dezagun: 2002an hiru eta 2003an lau).

Jarraian, IKEDAMentzako babes-zirkuituaren bilakaera berreraikiko dugu hasieratik, bere osotasunean ulertzeko hamarkada honetan adingabeei Gipuzkoan eman zaien arreta.

a) 1. etapa (1993tik 2001era): Lehen harrerako zirkuitu espezializatua, iragaitzaz dauden adingabeak

Arestian esan dugunez, Gipuzkoara iritsitako lehenengo IKEDAMak Frantziarekin mugaherrialdea izatearen ondorio dira. Lehenengo IKEDAMak mugan atzeman zituen Polizia Nazionalek edo Frantziako poliziak 1993an. Garai hartan hasi ziren atzematen aldizka IKEDAMen etorrera, eta arrazoi hori dela medio Gizarte Politikarako Departamentuak nahitaezkoz hartu zuen harrera-etxebizitza bat sortzea eremu horretan. Lehenengo urte horietan harrera-etxebizitza bat ireki zuten Irunen, soilik adingabe mota hori artatzeko. Etxebizitza hori Gurutze Gorriak kudeatu zuen. Harrera-zentro horren helburua adingabe horiek aldi baterako hartzea zen, adingabe horien ezaugarri nagusia zen Frantziara igarotzeko zeudela hemen.

Bi edo hiru egun egoten ziren, beren geldialdia egiten zuten eta ostatu hartzen zuten indarberritzeko... Poliziak atxilotzen zituen, garbitzen ziren, arropaz aldatzen ziren, atsedean hartzen zuten, eta berriz ere gora, beren migrazio-proiektua gora joatea baitzen, beren erreferentziak Pariseko eta Alemaniako inguruneak ziren, harantz zihoazen. Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentua. 07/04/19).

1999an —urte horretan iritsi ziren adingabe gehien urte haietan (138 adingabe)— hainbat gatazka sortzen hasi ziren harrera-etxebizitzan eta artatutako IKEDAMak Donostiako Martutene auzora eramatea erabaki zen, «*Martuteneko María Ángeles Villa*» deitutako harrera-zentrori, alegia. Bederatzi plaza zituen zentro hura titulartasun publikokoa zen, baina hura ere Gurutze Gorriak kudeatzen zuen. 1999. urtetik aurrera zentro hura soilik IKEDAMentzat izango da. Orduan itxi zen Irungo etxebizitza.

b) 2. etapa (2002-2004): Arreta espezializatua harreran, ez dago egoitza-harrerarik

2002. urtetik aurrera, adingabeak ez ziren Gipuzkoara joaten Europaranzko jauzia egiteko, IKEDAMen profila aldatu egin zen, adingabeak Espainiako Estatuko beste Autonomia Erkidego batzuetatik etortzen hasi ziren.

Europara joaten ziren garai hura aldatzen hasi zen eta Estatuan zehar ibiltzen ziren mutikoak iristen hasi ziren, hau da, lehen guregana ez zen inoiz iristen Kataluniatik edo Murtziazetik zetorren mutikorik, baizik eta zuzeneko linea Algeciras zen edo joan behar zuen lekua, Granada, eta ez ziren ezta Madriletik ere igarotzen, ez esan nola egiten zuten, baina hona iristen ziren hemendik joateko. Gero, Estatuan hainbat al-diz zabuka ibili izanaren bizi-ibilbideak zituzten mutikoak iristen hasi zitzaizkigun, eta orain, Europan zehar ibili diren gazteak ere iristen hasi zaizkigu, eta esaten di-zute: «ni Alemanian izan naiz...». (Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarte-ratzeko Departamentua. 07/04/19).

Arrazoi hori zela medio, 2003. urtean gertatu zen IKEDAMen fenomenoaren inflexio-pun-tua Gipuzkoan; alde batetik, etorrera kopurua handitu zelako, eta beste alde batetik, adin-gabe horiek babes-zirkuituan egoten zirelako. 2003. eta 2004. urteetan lehen harrerako zir-kuituaren etengabeko gainokupazioa mugatuko duten funtsezko hiru elementu daude:

1. *Adingabeen egonaldia.* «Garai honetan geratzen diren eta tutoretzara iristen di-ren adingabeak adingabe guztien % 70 izango dira» (Giza Eskubideetarako, En-plegurako eta Gizarteratzeko Departamentua. 07/04/19)
2. *Batez besteko adina jaitsi egin da.* «Batez besteko adina asko jaitsi da, guregana ez ziren iristen 14 edo 15 urteko adingabeak. Hori ezinezkoa zen! Orain, ordea, oso mutiko gazteak iristen ari dira, 11 urteko bat, 12ko bat, 13ko bat, 14ko bat eta abar ikusi ditugu. (Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Depar-tamentua. 07/04/19).
3. *Egoitza-plazen kopurua ez da nahikoa.* 2004. urtetik aurrera, Gizarte Politikarako Departamentuak kudeatu zituen egoitza-zentroetako plazak; nolanahi ere, *Giza Es-kubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentuak* kudeatzen zituen harrera-zentroak erabat gainokupatuta daude, batez ere adingabe gehiago iritsi zi-relako eta adingabe horiek bertan geratzen zirelako. Behin betiko tutoretza duten IKEDAMak, egoitza-zentro batera bideratu ahal izateko eta beren lekua beste adin-gabe bati utzi ahal izateko prest daudenak ezin dira beste leku batera bideratu egoi-tza-zentroetan ez dagoelako plazarik eta plaza berriak sortzen ez delako.

Garai hartan, *Villa Martutene* harrera-zentroa ez zen nahikoa, eta *Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentuak* 2000. urtean ikusi zuen zentro berri bat irekitzeko premia zegoela, «*Urnieta urgentziazko zentroa*». Zentro hori ere, aurrekoak bezalaxe, Gurutze Gorriak kudeatuko du, eta 10 plaza izango ditu. Zentro berri hori ireki zenez geroztik, *Urnieta zentroa* sarrerako lehen zentroa da Gipuzkoako babes-zirkuituan;

Villa Martutene zentroa, bestalde, egoitza-zentro bihurtu da berriz ere, behin betiko tutoretza zeukaten adingabeak hartzen jarraitu ahal izateko, bai zentro bereko adingabeentzat, bai Urnietako zentrokoentzat.

Urgentziatzeko zentroan, hau da, Urnietan jasotzen zituztenean, denbora pixka bat zeramatenean bigarren fasera bidaltzen ziren, hots, Martutenera. Izan ere, 2005. urtera bitarte, IKEDAMek ez zeukaten Aldundiaren baliabide-sarerako sarbiderik, ez ziren etxebizitza egonkorretan sartzen. Soilik Gurutze Gorriak egiten zuen lan IKEDAMekin. (Nuevo Futuro. 07/05/17).

Baina neurri horiek ez zuten IKEDAMekiko arreta hobetu. Bi zentroak berehala gainokupatu ziren, eta IKEDAMak ezin zituzten egoitza-zentroetara bideratu plazarik ez zegoelako. 2004ko maiatzean, *Villa Martutene* zentroan eta *Urniet*a zentroan gatazka ugari sortu ziren. Tentsio- eta presio-egoera horren ondorioz, krisi oso handia sortu zen zentroan, eta hezitzaile taldea ahalmenik gabe zegoenez gainditzen zituen egoeraren aurrean, guztiek batera greba egin zuten hobekuntzak eskatzeko sisteman eta IKEDAMen arretan.

Horrek guztiak ezinegon handia eragin du hezitzaile taldean, ez dago plazarik adingabeentzat, ez dago egoitza-plaza berririk, babes-sareko baliabide espezializatuak erabiltzea saihesten da, esate baterako, ez dira baliabide espezializatuak erabiltzen (portaera-arazoak dituzten adingabeentzako edo kontsumo-arazoak dituzten gazteentzako izan daitezkeen baliabideak, adibidez) eta horrek guztiak eragiten du greba egitea, baita arazo ekonomikoak daudelako ere... Horrek eragiten du sistema osoa hankaz gora jartzea». (Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentua. 07/04/19).

Krisi garrantzitsu bat izan zen Gurutze Gorrian hezitzaileen arloan. Krisi horrek ondorio mesedegarri batzuk izan zituen. Ezarri zen adingabe guztiek adin-proba egina zutela sartu behar zutela, zeren lehen adin-proba zentroan egon ostean egiten baitzen, eta probak adin nagusikoa zela ematen bazuen, gatazkak sortzen ziren. (Nuevo Futuro. 07/05/17).

Krisi horren aurrean, Gizarte Politikarako Departamentuaren erreakzioa *Villa Martuteneko* Gurutze Gorriarekiko kontratua etetea izan zen. Prozesu horren ondoren, Gurutze Gorriak uko egin zion *Urniet*a Zentroaren kudeaketari. Kudeaketa hori beste departamentuari zegokion, hots, *Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentuari*. Urte horietan Gurutze Gorriak estatu osoan IKEDAMen arretari buruzko gogoetaldi bat ireki zuen erakundean. Nolanahi ere, uko egiten zuen arren, nahikoa denbora eman zion departamentu horri *Urniet*a zentroaren eta zentro berri baten kudeaketarako lehiaketa deitzeko. 2005eko apirilaren 5ean agitaratu ziren zentro horien alde lehiatzeko oinarriak.

Martutene zentroa itxi zenetik, adingabe batzuk *aterpeetan* artatu zituzten behin-behineko gisa, eta batzuk egoitza-zentroetara bideratzen hasi ziren. Hala eta guztiz ere, aterpeak erabiltzen hasi baziren ere, hasieratik balioetsi zen hura ez zela arretarik egokiena adingabe horientzat.

c) *3. etapa (2005-2006): Lehen harrera espezializatua. Egoitza-zentroak eta babes-sare normalizatua*

2005eko irailean beste zentro bat ireki zuten, *Tolosako Harrerako eta Urgentziazko zentroa (HUZ)*. Zentro hori Hogares Nuevo Futuro elkarteak *kudeatu zuen*:

Tolosako zentroa ireki zen, edukiera handiagoa zuen, urgentziazko harrera Tolosara bideratu zen. Urnieta gazte gatazkatientzat utzi zen. Bestalde, 2005ean baimena eman zen IKEDAMak egoitza-sare estandarrean artatzeko. Zentro espezifiko batera iristen ziren, baina gero prozesua egoitza-arreta estandarreko etxebizitzetan jarraitzen zen. Horrek mesede egin zion adingabeen heziketa-prozesuari, baina kolapsoa ez zen konpondu; horregatik, ostatu bat ireki behar izan zen Irunen eta hotel bat Tolosan. (Tolosa zentroa. 07/05/17).

2005eko maiatzaren batean, Nuevo Futuro elkarteak bere gain hartu zituen adingabeentzako urgentziazko sistema eta Urnieta. Garai horretan izan zen arazoa, hau da, Gurutze Gorriko hezitzaileek planto egin zuten eta abar. Nik bakarrik dakit niri esan zidatela zentroa basakeria zela. Zentroaren egoera esan nahi dut; horregatik, etorri nintzanean ez nintzen ikaratu. Ni hona etorri nintzen eta Matogrossoko oihana zela ematen zuen, eskailerak ezin ziren igo, 20 gazte zeuden eta denak ez zeuden eskolatuta. Lehendabiziko egunetan hemengo funtzionamendua zein zen jakin behar nuen. Hainbat helburu jarri nituen, batzuk oso anbizio txikikoak ziren, eta banekien ez zirela beteko, baina berdin zen, ahaleginak egin behar nituen eta helburu horiek betetzeko lan egin behar nuen. Nire lehenengo helburua gazte guztien eskolatzearen funtzionamendua hemen, Tolosan, antolatzea zen, jende guztiak eduki behar zuen egiteko zer bait, nire ustez egokiak ez ziren arau batzuk aldatu behar nituen. Pixkanaka-pixkanaka eta ahalegin handia eginez lortu diren hainbat gauza. Argi eta garbi neukan Tolosako gizarte-agente guztiekin lan egin behar nuela. (Tolosa zentroa. 07/05/17).

Aipuan ikusi dugunez, zentro hori izan zen zirkuituan sartzen lehena, hau da, gizonezko IKEDAMen urgentziazko eta harrerako zentroa Gipuzkoan. *Zentroak hasieratik 15 plaza ditu; nolanahi ere*, zirkuituaren gainokupazioa ez zen konpondu, eta horrek eragin zuen premia zegoen heinean plaza gehiago jartzea, hainbat plaza ostatu-erregimenean jarrita «*Tolosako hotelean*». Garai horretan *Urnietako zentroan* portaera-arazoak zituzten gazteak artatzen zituen, baina zentro horrek arazo larriak izan zituen. Zentro horren kudeaketa ere Hogares Nuevo Futuro elkarteak hartu zuen bere gain, Gurutze Gorriak uko egin

ondoren. Horrek guztiak eragiten du kolektiboari ematen zaion arretari buruzko gogoeta berriz egitea.

Urnietako zentroa portaera-arazoak zituzten gazteentzat zen. Etengabe zeuden gorabeherak, kontsumo-mailak oso handiak ziren, eta hiru zinpeko zaintzaile zeuden. Pentsatu genuen lehenengo gauzetako bat honako hau izan zen: zinpeko zaintzaileak eta hezitzaileak daude, eta arazo hau dago. Zer da egin behar dugun lehenengo gauza? Ekipoa egin behar dugu. Asteburuko itxialdiak egin ziren hezitzaileekin. Nuevo Futuro elkartearen ezarpena oso zakarra izan baitzen. Guri, apirilaren amaieran, lehiaketa irabazi genuela esan ziguten, eta maiatzaren lehen lanean ari ginen. Bat-batekoa izan zen, lantaldeak ez zuen elkar ezagutzen (...). Urnietan egoera oso larriak izaten ziren: erasoak, borrokak gazteen artean, neurrigabeko kontsumoa, autolesioak, bizilagunei eragozteak... Pixkanaka-pixkanaka, lantalde bat eta lan-protokoloak sortuz, egoera aldatzea lortu genuen. Halaber, esan behar da gazte zailenak Adingabeen Epaitegiak artatu zituela. Gazteak atera ziren neurrian, Urnieta zentroak apustu garrantzitsu bat egin zuen, eta Tolosan geneukan saturazioa gorabehera, Urnietako zentroa hustu zen neurrian, arazoak zituzten mutikoak artatu ordez mutiko txikiagoak artatzen hasi ginen. 16 urtetik beherako gero eta mutiko gehiago zeuden. Plaza-premia handia zegoen; izan ere, 10 gazterentzako zentro bat eduki arren, bost laguntzako beste baliabide bat antolatu behar izan genuen, Bustintxulo zentroa, 16 urtetik beherakoentzat. Etxebizitza bat da. (Tolosa zentroa. 07/05/17).

Garai horretan, urgentziatzako eta harrerako zirkuituak 28 plaza zituen:

- Tolosa urgentziatzako eta harrerako zentroa, 16 urtetik 18 urtera bitarteko IKEDAMentzat, 15 plaza ditu.
- *Urnietako harrera-zentroa*, 12 urtetik 15 urtera bitarteko IKEDAMentzat, 10 plaza ditu.
- *Zikuñaga harrera-zentroa*, lurraldeko gazteentzako eta IKEDAMentzako zentro mistoa, 12 urtetik 18ra bitarteko IKEDAMentzako hiru plaza ditu.

2005. urtearen amaieran akordio bat lortu zen *Gizarte Politikarako Departamentuarekin eta adingabeekin*; adingabe horiek harrera-zentroetan tutoretzan hartu ostean, lurraldeko sare normalizatuko etxeen eta etxebizitzaren sarera igarotzen ziren. IKEDAMak bertako adingabeekin etxebizitzak partekatzen hasi ziren. Garai horretan, «*Zikuñaga harrera-zentroa*» (hori ere Nuevo Futuro elkarteak kudeatzen zuen) IKEDAMak hartzen hasi zen. Babes-zirkuituak zortzi plazako 11 egoitza-etxebizitza zituen; eta plaza horietatik bi edo hiru IKEDAMentzat erreserbatzen zituen. Nolanahi ere, egoitza-etxebizitzaren eta egoitza-etxeen

sareak ezin zituen plaza noiz edukiko zain zeuden tutoretzapeko adingabe guztiak bere gain hartu, eta, halaber, ez zuen apustu sendorik egin plaza berriak sortzeko.

Hortaz, 2006ko joera zen harrera-zirkuitua erabat gainokupatuta zegoela; horregatik akordioak lortu ziren hainbat ostaturekin, harrera-plazen kopuru hori handitzeko: «*Irun ostatua, Oiartzun ostatua, Eskoriatza ostatua eta Deba ostatua*», gehienez ere bost plaza bakoitzak. Plaza horiekin, *harrera-zirkuituak 55 plaza zeuzkan bermatuta 2006an eta 2007aren hasieran*.

Nahiz eta plaza gehiago sortu IKEDAMak artatzeko premiak betetzeko, zirkuitua gainokupatuta zegoen; hala eta guztiz ere, *Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentuko* eta Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradun politikoei, 2006ko azaroaren zazpiako *Diario Vasco* egunkarian ez zuten argi eta garbi onartu zirkuitua kolapsatuta zeukatenik, baina onartu zuten adingabe horien presentzia masiboa sistemaren funtzionamendu normalean eragiten ari zela.

Plaza horiek bete egiten dira, eta askotan hartutako adingabe gehiago dago plazak baino; horregatik, Giza Eskubideetarako Departamentuak, zerbitzu horretako arduraduna izaki, ostatuak eta hotelak erabiltzen ditu adingabe horiei aldi baterako ostatu emateko. Baina foru-iturriek atzo esan zutenaren arabera, sarea kolapsatuta dago, batzuek esaten dutenaren aurka, eta «joan den ostiralean plaza batzuk libre zeuden». Ez dago adingabe bakar bat ere zentro horietatik kanpo ostatu hartuta, esan zuten iturri berek. (...) Azken agerraldian, Aldundiak onartu zuen «atzerriko adingabe horien presentzia masiboa eragiten ari zela sistemaren funtzionamendu normalean», «gainezkatuta» baitago». (*Diario Vasco*. 06/11/07).

d) 4. etapa (2007. eta 2008. urteak): Zirkuitu osoa berregituratzea. Egoitza-plazak sortzea

2007. urtetik aurrera, *Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentuak* kudeatzen zuen harrera-zirkuituaren gainokupazio-egoera eutsiezina zen. Adingabeek ezin zuten egoitza-plazarik lortu itxaroten ari ziren adingabeen kopuruari erantzuteko behar adina plazarik ez zegoelako. 20 plaza ostatuetan erabiltzen zituzten oraindik, jasaten ari ziren etengabeko gainokupazio-egoerei erantzun ahal izateko.

Egoera horren ondorioz, barnean krisi handia sortu zen adingabeak artatzen zituzten bi departamentuen artean. Horren ondorioz, Diputatuen Kontseiluak bitartekotza-lanak egi-tea erabaki zuen, eta arazoa lehenbailehen konpontzeko erabakia hartu zuen. Hortaz, *Gi-*

zarte Politikarako Departamentuak, egoitza-harrera kudeatzen du, egoitza-zentro eta -etxebizitza berriak sortu behar zituen Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizartera-tzeko Departamentuak kudeatzen zuen harrera-zirkuitua arintzeko.

2007ko martxoan, IKEDAMentzako unitate espezifikoak sortu ziren. Hilabete horretan, *Gizarte Politikarako Departamentuak* oinarrizko programako bi etxebizitza ireki zituen: *Beasaingo etxebizitza eta Zizurkilgo etxebizitza*. Etxe bakoitzak zortzi plaza zituen 13 ur-tetik 18 urtera bitartekoentzat. Halaber, 2007ko martxoan, Gipuzkoako Aldundiak eta Gi-zarte Politikarako Departamentuak Kanarietatik etorritako Saharaz azpiko 10 gazte hartu zituzten. Baliabide berri bat sortu zen adingabe horientzat, «*Lezoko Uralde baserria*». Apirilaren erdialdean hiru emantzipazio-etxebizitza esleitu ziren «*Zaldibian, Idiazabalen eta Urretxun*» sei plazakoa bakoitza, 16 urtetik 18 urtera bitarteko gazteentzat, lurraldeko lau adingaberentzat eta bi IKEDAMentzat (*El País*. 07/02/22). *Idiazabal* ez zen azaroa-ren bata arte ireki. Etxebizitza horiek irekitzeak arindu zuen une batez harrera-zirkui-tua, baina berehala gainokupatu zen berriz ere. Sortutako plaza horiek guztiak ez ziren IKEDAMentzat izan, baizik eta beste baliabide batzuen barneko berregituraketaren on-dorioz, plaza batzuk lurraldeko adingabeentzat ziren.

Ikusi dugunez, aurreko etaparen, harrera-zentroak gainokupatuta zeudelako izaten ziren etengabeko gatazken eta IKEDAMen kopurua etengabe handitzearen ondorioz, 2007ko foru-hauteskunde berriekin berriz antolatu zen Gipuzkoako Foru Aldundia. Bi departa-mentuen eskumenak departamentu bakar batean, hots, *Gizarte Politikarako Departamen-tuan*, elkartu ziren berriro.

Aldaketa politikoeekin batera, orain ere badaude gatazkak zentroetan eta bizikidetza-ara-zoak daude bizilagunekin. 2007ko apirilean, Gipuzkoako Aldundiko bozemaile Koldo Azkoitiak adierazi zuen ezin direla «elkartu» «adingabe migratzaileen, polizia-aurreka-rien eta eragindako sutearen» ideiak, «gizarteratzeari eta bizikidetzari mesederik egiten ez dion» «arduragabetasuna» delako. Azkoitiak honako adierazpen hauek egin zituen Donostian eman zuen prentsaurreko batean:

Oraindik ez dira zehaztu zein diren Donostiako adingabeen harrera-etxebizitza ba-tean atzo izan zen sutea eragin zuten arrazoiak. (...) Aldundiak badaki higiezinako bizilagun batek «kexak» dituela etxebizitza horretan ostatu hartuta dauden adinga-been aurka, esan behar da «Aldundiak hitz egin du bizilagun horrekin»; nolanahi ere, Azkoitia jaunak esan zuen kexak ez datozela «etxepekoen erkidego osotik». «Etxepeko guztiek ez dute uste adingabe horiekiko bizikidetza negatiboa denik, oso zaila baizik». (*Deia*. Iruzk. 2007/04/04).

2007an, *Tolosako urgentziazko eta harrerako zentroan* izandako etengabeko gatazkak komunikabide guztietan azaldu ziren. Seguridad digital egunkariak honako egoera honen berri eman zigun: *Tolosako etorkinen zentroko langileek beste matxinada bat salatu dute. Adingabe batek labankada bat eman zion beste bati atzo gertatutako istilu batean.*

Zentroko langileek adierazi zutenez, milagarren «matxinada» larunbatean hasi zen, gaueko hamaikak inguruan. (...) Adingabe migratzaileen Tolosako harrera-zentroan bizikidetzatza «eustezina da oraindik». Zerbitzuko langileek beste matxinada bat salatu dute (...), eta matxinada horren ondorioz, hezitzaile batek eta zaintzaile batek zauri arinak izan zituzten, eta barneko «adin nagusiko bat atxilotu egin zuten». Arazoak ez ziren hor amaitu. Atzo arratsaldean, adingabe batek ihes egin zuen, barneko beste gazte bati labankada bat eman ondoren, eta beste gazte bat zentroan sartu zen Tolosako etxebizitza batean lapurtzen saiatzeagatik atxilotu ostean. Orain dela hamar bat egun, beste hiru zaintzaile zauritu zituzten Aldundiaren tutoretzapean dagoen eraikinean izandako beste istilu batengatik, istilua «adingabeek eragin zuten. (Seguridad digital egunkaria. 07/10/08).

Arazo horiek konpontzeko ahaleginak egiteko, Gipuzkoako Aldundiak kultura arteko bitartekariaren figura bultzatu zuen IKEDAMak artatzeko:

Inoren kargura ez dauden adingabe etorkinak Gipuzkoan artatzeko erronkak beste baliabide bat gehitzen du gazte horiek gizartera daitezen lortzeko eta delinkuentzian eror ez daitezen, edo istilurik sor ez dezaten. Gipuzkoa Aldundiak (adingabe horien tutoretza du) kultura arteko bitartekariaren figura sartu du; bitartekari horrek Tolosako urgentziazko harrera-zentroko egoiliarrei lagunduko die. Aipatutako zentroa laster birgaituko da. (*Diario Vasco*. 07/10/05).

2007an, *Tolosa* Ostatuarekiko eta arestian aipatutako ostatuekiko kontratuak deuseztatu egin ziren; horren arrazoia ez zen izan plazak betetzeko premiarik ez zegoela, baizik eta IKEDAMak artatzeko mota horrek dituen kritikengatik izan zen. Plaza libre gehiago edukitzeko, urte horretan «*Intxaurrondoko etxebizitza, sei plazakoa*», ireki zen Tolosako harrera-zentroa arintzeko. Soilik IKEDAMentzat zen Donostiako etxebizitza hori ere *Nuevo Futuro* elkarteak kudeatu zuen.

Urte horretan, Gizarte Politikarako Departamentua beste leku bat bilatzen jarraitu zuen urgentziazko eta harrerako zentro berri bat jartzeko eta *Tolosakoa* ixteko, bai zentroa gainokupatuta zegoelako etengabe, bai baldintzak ez zituelako betetzen, baita bizilagunen presioa zegoelako ere. Nolanahi ere, eta harrigarria dirudien arren, Maite Etxa-

niz ahaldunak, 2008ko urtarrilean, jendaurrean adierazi zuen zentroa irekita edukitzeko konpromisoa hartzen zuela. Adierazpen horiek Batzar Orokorretako Gizarte Politikarako Batzordearen aurrean egin ziren, hor agertu baitzen ahalduna Tolosako Urgentziazko eta Harrerako Zentroan zegoen egoerari eta bere departamentuak legealdi horretarako —Batzar Nagusietako PSE, PP, EB eta Aralar taldeek eskatuta— aurreikusita zituen inbertsioei buruzko informazioa emateko. Ahaldunak honako hau onartu zuen zentroari buruz:

«Ez ditu bizigarritasun- eta kokapen-baldintza hoberenak betetzen», nahiz eta 2007an 98.556 € euro xahutu diren instalazioetako «mantentze-lanak eta hobekuntza-lanak» egiteko. Ildo horretatik, Noticias de Gipuzkoa egunkariak aurreratu zue- nez, egiaztatu zuen datorren astean zentroa eraberritzen hasiko direla «lurrak, sa- baiak eta kanpoko burdin sarea aldatzea» barne, 120.000 €-ko aurrekontuarekin; horretaz gain, altzariak eta ekipamendua erabat berrituko dira.

Era berean, «segurtasunik eta baliabiderik eza» salatuz langileek egindako salaketen aurrean, (...) Etxanizek esan zuen istilua eragin zuten bost adingabe beste herri ba- tera bidali zituztela «berehala» eta erabaki zen harrera-sistema beste udalerrri batean beste zentro bat irekiz osatzea» (*Noticias de Gipuzkoa*, 08/01/17).

Obrak egin ahal izateko, adingabeak «*Segura Ostatura*» eraman ziren.

Agerraldi berean, ahaldunak esan zuen arazoak dituztela IKEDAmak artatzeko, eta zen- tro berriak irekitzeko premia dagoela.

«Gipuzkoara iristen diren adingabe guztiak artatzeko, ez dago behar adina baliabi- bide»; izan ere, etengabe ari da igotzen lurraldera iristen diren inoren kargura ez dauden adingabe kopurua. (...) Ahaldunaren departamentuak Gizarte Zerbitzuen mapa berri bat egingo du lurralderako. Mapa horretan aurreikusten da hamar eki- pamendu gehiago bultzatuko direla Gipuzkoan, eta ekipamendu horien artean adin- gabe etorkinak hartzeko zazpi zentro daude. (...) Gizarte Politikarako Departamen- tuak erosi ditu bi eraikin gehiago «adingabeak artatzeko ekipamendu-mapa osatzen jarraitzeko». Eraikin horretaz gain, beste bat erosiko da datorren urteko azaroan, eta aurreikusten da zazpi baliabide gehiago sartuko direla 2008ko aurrekontuetan. «Ha- laber, ahaleginak egingo ditugu kasu horietan hotelak eta ostatuak gizarte-baliabide gisa ez erabiltzeko». (*Noticias de Gipuzkoa*, 08/01/17).

Oinarrizko programa egoitza-zentroen artetik honako zentro hauek ere aipatu behar dira: «Zizurkil zentroa eta Frantzia pasealekuko zentroa». Bi zentro misto horiek (mutilak eta neskak) —zortzi plaza ditu bakoitzak— bi plaza dituzte erreserbatuta IKEDAMen-

tzat. Urte horretatik aurrera, nahaste psikiatrikoetarako eta erreforma-neurriak betetzeko programa espezializatuko «*Irisasi egoitza-zentroak*» bost plaza erreserbatu zituen IKEDAMentzat.

2008ko urtarrilean beste harrera-baliabide bat ireki zen, «*Lazkao zentroa*», 16 plazakoa. Baina lau hilabete geroago itxi egin zen, zentroan gatazkak izan zirelako: azkenean sute bat izan zen zentroan, arazoak izan ziren bizilagunekin eta alkatetzarekin istiluak izan ziren. Urte horretan bertan *Intxaurrondoko* etxebizitza (*sei plaza*) ere itxi egin zen; etxebizitza horrek *Tolosako* harrera-zentroa arintzen laguntzen zuen. Itxi egin ziren hitzarmenak ostatu gehienekin, eta soilik hiru ostatuko plazak jarraitu zuten hitzarmenpean, 18 plaza guztira, premia zegoenean erabiltzeko.

2008ko apirilean, *Urnieta harrera-zentroa* Errenteriara aldatu zen, «*Villa Mendixka zentrorra*». Kokapen berri hori behin-behinekoa izan zen: 2008aren amaieran behin betiko eraikinerako eraman zen zentroa. Zentroaren kokapen berria Debarrenako eskualdean kokatu zen.

Urte horretan hainbat baliabide ere ireki ziren: «*Intxaurrondo harrera-zentroa*», soilik IKEDAMentzat, sei plaza zituen; «*Iturriotz-Azpi*» egoitza-zentroa, soilik IKEDAMentzat den programa espezializatuarena, 16 plaza ditu toxikoekin lotutako portaera-nahasmenak dituztenentzat; Gabiria oinarritzako programako zentroa, 10 plaza ditu, denak Inoren Kargura ez dauden Adingabe Atzeritarrentzat; «*emantzipazio-baliabideak*»: Arrasate etxebizitza, sei plaza ditu IKEDAMentzat, eta «*13 ostatu*», plaza bat edo bi itundu ziren bakoitzean, guztira 18 plaza; «*adin nagusikoentzako etxebizitzak, Kolore Guztiak-ekoak*» (Billabonakoak eta Usurbilgoak), bost eta sei plaza dituzte, soilik IKEDAMentzat, «*Peñascal bi etxebizitzak*» (Alegiakoak eta Tolosakoak) biek bosna plaza dituzte, lau IKEDAMentzat, «*San Bartolomeko etxebizitza eta Easo etxebizitza*», biek seina plaza dituzte, soilik IKEDAMentzat. Tolosako zentroko baliabideak ere handitu ziren; izan ere 2008ko martxotik aurrera, 34 plaza zeuden.

8.1.2.3. Erakundeen egungo erantzuna

Jarraian, Gipuzkoako guztizko harrera-plazak azaltzen diren taula bat aurkeztuko dugu (2008ko iraila). Guztizko plazak adingabe bat harrera-zentro batean sartzen denetik adin nagusiko egin arte erabiltzen diren baliabide tipologien plazak zenbatuta lortzen dira.

Taula horretan, gainera, honako hauek ere azaltzen dira: lurralde horretan dagoen plazen kopurua, baliabide tipologiaren arabera, IKEDAMek hartzen dituzten plazen kopurua eta plaza horien ehunekoa adingabeentzat diren guztizko plazekin alderatuta.

56. taula
Harrera-baliabideetako plazen laburpena (2008ko iraila)

Baliabide tipologia	Plazak	IKEDAMen tzako plazak	Gutzizko plazen %
Urgentziakoa eta harrerakoa ¹¹⁷	59	53	90
Egoitzakoak: oinarrizko programa	92	38	41
Egoitzakoak: programa espezializatua	59	37	62
Emantzipazioa	42	40	95
Adin-nagusitasuna	72	37	51
Guztira	324	205	63

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia, zentroetako profesionalei egindako elkarrizketak, 2007. eta 2008. urteetan Espainiara etorritako Inoren kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen Ezaugarriei buruzko galdesorta, 2007-08. Egileak egina.

2008ko irailean IKEDAMek (IKEDAMak eta adin nagusikoak) betetako 205 plaza zeuden Gipuzkoan. Plaza horiek adingabe babesgabeak artatzeko Aldundiak dituen guztizko plazen % 63 dira¹¹⁸. Ehuneko hori handituz joan da urtetik urtera iristen ziren IKEDAM guztiak hartzeko.

Ondoren, babes-baliabideak zehaztuko ditugu, tipologiaren arabera.

a) *Lehen harrerako baliabideak*

Ondorengo taulan IKEDAMen harrera-zentroak eta harrera-zerbitzuak daude bilduta, 2008ko apirilera bitarte.

¹¹⁷ Zentro tipologia horretan alborapen bat dago, IKEDAMak artatzen zituzten zentroak (mistoak edo espezifikokoak) soilik hartu direlako kontuan, ez, ordea, lurraldeko gazteak artatzen zituztenak. Hortaz, Aldundiaren guztizko plazen kopurua handiagoa izango da, eta IKEDAMek betetako plazen ehunekoa % 63tik beherakoa izango da.

¹¹⁸ Gogoan izan harrera-plazetan alborapen bat dagoela (ikus aurreko oharra); hortaz, ehunekoa txikiagoa izan daiteke, baina ez askotaz ere txikiagoa, segur aski.

57. taula

Inoren kargura ez dauden adingabe migratzaileentzako harrera-baliabideen sarea Gipuzkoan, 2008ko iraila

Izena	Irek. urtea	IKEDAM arret. urtea	Baliabideen tipologia	Herria	Titulartasuna	Kudeaketa	Plazak	IKEDAMek okupatutako plazak	Erabiltzaileen ezaugarriak Sexua/Adina
Zikuñaga Zentroa	1999	2004	Urgentziazko eta harrerako zentroa	Hernani	Itundua	Nuevo Futuro	10	4	Lurraldeko neska/ mutilak eta 12 urtetik 18 urtera bitarteko IKEDA Mak
«Urniet» eta «Villa Mendixka» Zentroa	2003	2003	Harrera-Zentroa	Errenteria	Itundua	Nuevo Futuro	10	10	mutilak 12-15
Tolosa Zentroa	2005	2005	Urgentziazko eta harrerako zentroa	Tolosa	Itundua	Nuevo Futuro	15	15	mutilak 12-18
Eskoriatza ostatua	2006	2006	Harrera-plazak	Eskoriatza	Pribatua	Pribatua	6	6	mutilak 16-18
Deba ostatua			Harrera-plazak	Deba	Pribatua	Pribatua	6	6	mutilak 16-18
Zumaia ostatua			Harrera-plazak	Zumaya	Pribatua	Pribatua	6	6	mutilak 16-18
Intxaurren	2008	2008	Harrera-Zentroa	Intxaurren	Itundua	Nuevo Futuro	6	6	mutilak 12-18
Guztira							59	53	

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia, zentroetako profesionalei egindako elkarrizketak, 2007. eta 2008. urteetan Espainiara etorritako Inoren kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen Ezaugarriak buruzko galdesorta, 2007-08. Egileak egina.

2008ko irailean lehen harrerako 53 plaza zeuden IKEDAMentzat. IKEDAMentzako plazak Aldundiaren guztizko harrera-plazen % 90 baino gehiago ziren.

Taula horrekin egiaztatuko dugu harrera-baliabideak bereziki 2003-2005 alditik aurrera hasi zirela IKEDAMak artatzen, batez ere Aldundi horretara adingabe gehiago iritsi zirenean. *Sei baliabide bereziki IKEDAMak artatzeko ireki ziren.* Eta soilik bat zen lurraldeko babes-sare normalizatukoa.

Baliabide horien artean, bi zentrok hartu zituzten beren gain *urgentziazko eta harrerako zentroaren eginkizunak; hortaz, zentro horiek dira sartzeko atea ireki zutenak:*

1. *Zikuñaga Zentroa*, babes-sareko adingabeen zentroa (lurraldeko adingabeak eta IKEDAMak).
2. *Tolosako Zentroa*, soilik IKEDAMentzako zentroa.

Bi zentrok hartu zituzten beren gain *harrera-zentroaren* eginkizunak:

1. *Urnieta/Villa Mendixka* zentroa, soilik IKEDAMentzako zentroa.
2. *Intxaurrondo* zentroa, soilik IKEDAMentzako zentroa.

Zazpi harrera-baliabideen artetik, *lau itundutakoak ziren, eta Nuevo Futuro Elkar-teak kudeatzen zituen*; elkarte horrek biltzen zituen baliabide gehienak. Ikusi dugu-nez, erakunde horrek lehendik ere kudeatzen zituen lurraldeko bi harrera-zentroak, lehena 1999. urtetik aurrera, hau da, lurralde honetan geratzen ziren IKEDAM gutxi iristen ziren garaitik aurrera. *Azken hiru baliabideak, hots, ostatuak, denak pribatuak ziren.*

Atal honetan, dauden lau zentroei buruz hitz egingo dugu batez ere, ez ostatuei buruz.

Baliabide guztiak udalerri desberdinetan daude, IKEDAMak leku berean ez biltzeko helburuarekin. Herri horietako batzuk txikiak dira, eta horren ondorioz, istilu bat baino gehiago izan da bizilagunekin, ondoren ikusiko dugunez.

Lau zentroak udalerriaren erdialdean daude. Zikuñaga (Hernaniko udalerria), Tolosa (izen bereko udalerria), Urnieta/Villa Mendixka (Errenteriako udalerria), eta *Intxaurrondo* (izen bereko udalerria). *Zentro guztiak ondo komunikatuta daude garraio publikoari dagokionez. Hala eta guztiz ere, zentroko zuzendarien arabera, kokapenak modu desberdinean eragiten die adingabeei. Aipatutako lehenengo zentroan, kokapen horrek gutxi eragiten die adingabeei; bigarrenean, aldiz, modu negatibo samarrean eragiten die. Isidro Bouza zuzendariaren arabera «zentroa industrialde batean dago, errepedearen er-tzean, horrek dakarren arriskuarekin eta lantegiei eragiten zaien eragozpenarekin. Gaz-teek ez daukate jolaserako eremu egokirik» (07/05/17). Hirugarren kasuan, hots, *Urnieta zentroaren* kasuan ere eragina handi samarra da zentzu horretan. Zentroko arduradun Iziar Alzagarak esan zigun kokapen horrek modu negatiboan eta modu positiboan era-*

giten zuela; «Negatiboan: ez dagoelako prestakuntza-arloko nahiz aisiarako eta astialdirako zerbitzurik eta baliabiderik; eta gatazkak eta istiluak daudelako hainbat bizilagunekin. Positiboan: Landa-eremua delako, gazteak dibertitzeko eremu independenteak dituelako; herri txikia delako, denek elkar ezagutzen dutelako eta elkarrekin erlazioan izaten direlako, hainbat bizilagunekiko eta udal-zerbitzurenkiko (udaltzaingoa, udala eta ambulatorioa) lankidetzak eta horien laguntza dagoelako.

Hiru zentroren ustez, zentroaren baldintzak onak dira, zentro horietako zuzendariek esan dutenaren arabera (Zikuñaga, Urnieta/ Villa Mendixka eta Intxaurren). Soilik zentro baten ustez, hau da, Tolosako zentroaren ustez, dira txarrak. Balioespen hori ematen du zentroko instalazioak defizitarioak direlako eta gainokupatuta dagoelako, ondoren ikusiko dugunez. Zuzendariaren hitzek oso ondo erakusten dute zein den egoera: Etxebizitza erortzeko zorian dago. (...) Orain dagoen bezala dago. Gauza batzuk askoz hobeto daude eta beste batzuk okerrago. Gelak okerrago daude denbora igaro ahala hondatu egin direlako, gela batzuk gazteek hondatu dituzte, baina beste batzuk ez. Bi gela ezin ditut erabili, erabilgaitzak direlako. (Isidro Bouza. 07/05/17).

Zentroek sei-15 plaza dituzte. Zehazki, Tolosako zentroak 15 plaza ditu, eta gorago esan dugunez, zentro hori ireki zenetik gainokupatuta dago beti; IKEDAMak babes-zirkuituan sartzeko atea baita. Zentro hori zehaztasun handiagoz aztertuko dugu profesionalek eta adingabeek balioespen okerrenak egin dituzten zentroa baita.

Lan egiten hasterakoan egin genuen lehen planteamendua Tolosako herria arintzea izan zen, 2006ko maiatzaren lehen 30 gazte baitzeuden zentroan. Tolosan 30.000 biztanle baino gutxiago daude, eta hainbeste gazterekin mukurru beteta zegoen. (...) Alarma sozial handia sortzen ari zen. (Arantza Rodríguez. Nuevo Futuro. 07/05/17).

Ondoren ikusiko dugunez, gainokupazio horrek nabarmen eragin zion adingabeen arretari, zentroko profesionalen heziketa-lanari eta udalerriarekiko eta bizilagunekiko harremanei. 2007an betetako 20-26 plaza izan ziren (iturria: 2008ko galdesorta).

Egia esan, nik ez dut gogoan 15 plaza edo gutxiago beteta eduki izana, urte horretan ez dut gogoan. Gogoratzen naiz oporretara joan nintzenean, zenbait egunetan 15 edo zertxobait gutxiago izatera jaitsi zirela. Baina zaila da 25 baino gutxiago izatea, orain lortu da gutxiago izatea Aldundiak eta Nuevo Futuro elkarteak etxebizitza berri bat lortu digutelako, eta horren ondorioz, bost gaztetxo atera ditugu zentrotik... (Isidro Bouza. 07/05/17).

2006. eta 2007. urteetan Gipuzkoako prentsan hainbat artikulu azaldu dira herriko bizilagunen eta Tolosako zentroan bizi ziren IKEDAMen artean sortutako arazoei buruz. Esate baterako, 06/11/05eko *Diario Vasco* egunkariaren editorialak (*Un problema de todos*) agerian jarri zuen Tolosan bizi duten gatazka-egoerak, bertako herritarrek bizi dutenak, balio behar duela Gipuzkoako gizarte osoak berari zuzenean dagokion eta alde batera geratu behar ez duen arazoari buruzko kontzientzia kolektiboa hartzeko.

Tolosak bizi duen gatazka-egoera, Gipuzkoako udalerri horretako zentroan hartutako adingabe migratzaileen presentziak eragiten duena, (...) askoz ere garrantzi handiagoa eta ezin ukatuzkoa den arazoaren azalean azaltzen da. Ildo horretatik, ustez delituzkoak diren hainbat jardunetan sartuta dauden Tolosako adingabe egoiliarrek etorkinak izateak edo ez izateak oso garrantzi txikia du, zeren adingabeen gatazka-kortasuna handiagoa edo txikiagoa izatearen azpian dagoena ez baita etorkina edo bertakoa izatea, baizik eta batez ere adingabe horiek jasan dezaketzen gizarte-bazterkeria nahiz emozio-, gizarte- eta familia-arloko deserrotzea da. (*Diario Vasco*, 06/11/05).

Gatazka-arazo horiek konpontzeko ahaleginak egiteko, Gipuzkoako Aldundiak eta Tolosako Udalak lan-mahai bat antolatu zuten 2006an. Mahai horretan garai hartako Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentuaren IKEDAMen Programaren (azpikontrataturako enpresa batena) koordinatzailea, Nuevo Futuro elkartearen koordinatzailea, Tolosako zentroko zuzendaria, zentro bakoitzeko segurtasun-arduraduna, segurtasun-enpresako ordezkari bat eta *Mikeleteen* (*Ertzaintzaren kidego berezia, polizia forala*) ordezkari bat bildu ziren. Lan-mahai hori hilero biltzen zen, eta hortik jardun-protokolo komunak sortu ziren: zer egin egoera jakin batzuekin, zentroan zer objektu dauden baimenduta eta zein ez, eta abar.

Arestian esan dugunez, zentroko azpiegitura defizitarioek eta barruko gatazkek eta bizilagunekin izandako kanpoko gatazkek (2007an maiz gertatzen ziren) eragin zuten Gipuzkoako Aldundiak aintzat hartzea IKEDAMen premiei erantzuteko zentro egokiago bat irekitzeko beste leku bat bilatzeko ideia. Nolanahi ere, 2008ko urtarrilean, Maite Etxaniz ahalduak esan zuen hilabete horretan bertan hasiko zirela zentroa eraberritzen, «lurrak, sabaia eta kanpoko burdin sarea aldatzea» barne, 120.000 €-ko aurrekontuarekin; horretaz gain, altzariak eta ekipamendua erabat berrituko ziren. Nolanahi ere, elkarriketatutako agente guztiek berretsi ziguten Aldundiak zentroa ixteko asmoa zuela. Obrak egiten zituzten bitartean, adingabeak Segura Aterpera eraman ziren, eta han ere hainbat gatazka izan zituzten. 2008ko apirilean, Patxi Aguidianok (Gizarte Politikarako Departamentuko zerbitzuburua) esan zigun zentroa jartzeko beste leku bat bilatzen ari zirela, eta

urte horretako irailean, Aguidianok berak esan zigun Tolosako Zentroa itxi egingo zutela ondorengo hilabeteetan eta beste udalerrri batera joango zirela (zentro berriko obrak egingen ari dira gaur egun).

Bi zentrok (Zikuñaga eta Urnieta/Villa Mendixka) 10 plaza dituzte, hurrenez hurren. Lehenengo zentroak (lurraldeko adingabe-sarearen zentroa) lau edo hiru plaza ditu erreserbatuta IKEDAMentzat. Bigarrenak, hots, Urnieta/Villa Mendixka Zentroak ere 10 plaza ditu, eta *Intxaurrondo zentroak* soilik sei plaza ditu, guztiak IKEDAMentzat. Ostatu guztiek (*Eskoriatza, Deba, Zumaia*) sei plaza dituzte.

Zikuñaga zentroan, galdesortari erantzun ziotenean, betetako plaza kopurua guztizko plaza kopurua baino txikiagoa zen. Hala eta guztiz ere, zentroko zuzendarien arabera, adingabe kopurua plaza kopuruaren berdina izaten da normalean. *Urnieta/Villa Mendixka zentroan eta Intxaurrondo zentroan* (soilik IKEDAMentzako zentroak), adingabe kopurua plaza kopuruaren berdina izaten da. *Urnieta zentroaren (orain Villa Mendixka)* egoera nabarmen aldatu da; izan ere, gogora dezagun 2005. urtera bitarte zentro hori sartzeko atea zenean beti gainokupatuta egoten zela.

Zentro horietan *artatzen diren adingabeen adinari eta generoari dagokionez*, soilik zentro batean artatzen dira zazpi-18 urteko neska-mutilak (*Zikuñaga Zentroa*); zentro horretan artatzen dira emakumezko IKEDAM guztiak. Azken horiei dagokienez, zailtasun nagusia honako hau lortzea da: neska horiek eskeketza eta ebasketak utzi nahi izatea (atxilotzeko eta ondoren harrerari hartzeko arrazoi nagusia). Zentroak egin dituen proposamen nagusiak neska horien familia-harremanak hobetzea eta eskola batean sartzea, edo lan bat lortzea dira.

Soilik zentro batek (*Urnieta/Villa Mendixka*) artatzen ditu 12-15 urteko mutilak; eta bi zentrok (*Tolosa eta Intxaurrondo*) artatzen dituzte 12-18 urteko mutilak. Gau-erregimeneko baliabideetara (*Eskoriatza, Deba eta Zumaia ostatuak*) 16-18 urteko mutilak (adingabe zertxobait handiagoak eta autonomoagoak) soilik bidaltzen dituzte.

Zentroetako heziketa-taldearen giza baliabideak 10 plaza dituztenentzat dira, 10-11 profesional. *Zikuñaga zentroan* zuzendari bat, lau hezitzaile, lau monitore eta beste pertsona bat daude. 10 profesional horien artean, zortziak kontratu mugagabea dute eta biak aldi baterakoa. Zentro horretan ez dago bitartekariaren figura. *Urnieta/Villa Mendixka zentroan* (soilik IKEDAMentzako zentroa), heziketa-taldea zuzendari batek, sei hezitzailek eta lau monitorek osatzen dute. Aitzitik, aurreko zentroan ez bezala, zentro horre-

tan 10 lagunek aldi baterako kontratua dute, ehuneko handi batek (plantillaren % 90ek baino gehiagok) ez dauka lanbide-egonkortasunik¹¹⁹. *Intxaurrondo zentroan*, (soilik IKEDAMentzako zentroa, sei plaza dituen) zentroko arduraduna, lau hezitzaile eta hiru heziketa-auxiliar daude.

Tolosa zentroan (soilik IKEDAMentzako zentroa), heziketa-taldea 15 lagunez osatuta dago: zuzendari bat, bost hezitzaile, Marokoko lau hezitzaile/bitartekari, bitartekari bat eta lau monitore. 2007an guztiek zuten kontratu mugagabea.

Zentroko zuzendari guztien ustez, heziketa-taldearen txandakatzeak¹²⁰ asko samar edo asko eragiten dio adingabeen zaintzari (Zikuñaga eta Urnieta/Villa Mendixka zentroan asko samar, eta Tolosa zentroan asko). Lehenengo zentroan txandakatze hori handi samarra izan da estresagatiko bajak direla medio, eta kasu gutxitan depresioagatiko edo sufrimendu psikologikoagatiko, edo kontratua amaitzeagatiko bajengatik. Bigarren zentroan maiz samar gertatu da borondatezko bajagatik eta gutxitan estresagatik, depresioagatik edo sufrimendu psikologikoagatik edo kontratua amaitzeagatik. Aipatutako hirugarren zentroari dagokionez (Tolosako zentroa), gogora dezagun zentro guztien artetik problematikoena dela, egoera hori maiz gertatu da hezitzaileen borondatezko bajagatik, estresagatiko bajagatik edo depresioagatiko edo sufrimendu psikologikoagatik bajagatik. Nabarmendu nahi dugu borondatezko bajak estresaren, depresioaren edo sufrimendu psikologikoaren zenbait egoera ezkuta ditzakeela batzuetan, baina kasu horretan profesionalak ez diote zuzendaritzari azaldu zein den alde egiteko benetako arrazoia.

Azkenik, adierazi nahi dugu *zentroen balioespena taldearen heziketa-proiektua (zentrokoa edo antzekoa) aplikatzeari dagokionez*, eskala positiboan dagoela zuzendarien arabera. Hau da, soilik IKEDAMentzako ez den zentroak balioetsi du gustura daudela (eskalaren gradurik altuena), bereziki IKEDAMentzako diren hiru zentroetan balioetsi dute gustura samar daudela (baita *Tolosako zentroko* zuzendariak ere). Heziketa-proiektuaren atalean ikusiko dugunez, adingabeak ez daude beti ados balioespen horiekin.

¹¹⁹ Zentroko zuzendariak betetako galdesortan ez dio erantzun bitartekaririk izan ote duen galderari. Hortaz, ez daukagu informazio hori. Dena den, gure ustez badute figura hori, bereziki IKEDAMentzako zentroa delako.

¹²⁰ Heziketa-taldean izaten diren profesionalen sarrerak eta irteerak hartzen dira txandakatzetzat, ez, ordea, txandetan izan daitezkeen aldaketak.

b) *Egoitza-baliabideak*

1. OINARRIZKO PROGRAMA OROKORRA

Ondorengo taulan oinarrizko programako egoitza-babeseko zentroak eta zerbitzuak daude jasota.

58. taula

Inoren kargura ez dauden adingabe migratzaileentzako egoitza-baliabideen sarea
(oinarrizko programa) Gipuzkoan (2008ko apirila)¹²¹

Izena	Irek. urtea	IKEDAM arret. urtea	Herria	Titulartasuna	Kudeaketa	Plazak	IKEDAM-entzako plazak	Erabiltzaileen ezaugarriak Sexua/Adina
Bideberri	1995	1996	Donostia-San Sebastián	Itundua	Bideberri	8	2	neska/mutilak 12-18
Bideberri	1995	1996	Tolosa	Itundua	Bideberri	8	2	neska/mutilak 12-18
Hiru harrera-etxebizitza	1981	2005	Donostia-San Sebastián	Itundua	Gipuzkoako Hezitzaile Esp. Elk.	24	7	neska/mutilak 16-18
Hondarribia	1998	2005	Hondarribia	Itundua	Nuevo Futuro	8	2	neska/mutilak 16-18
Hogares Amara	1998	2005	Donostia-San Sebastián	Itundua	Nuevo Futuro	8	2- 3	neska/mutilak 16-18
Uralde Etxea	2007	2007	Lezo	Público	Clece, S.A.	10	10	mutilak 16-18
Gabiria	2007	2007	Gabiria	Itundua	Bideberri	10	10	mutilak 12-16
Zizurkil	2007	2007	Zizurkil	Itundua	Nuevo Futuro	8	2	neska/mutilak 12-18
Frantziako pasealekua	2007	2007	Donostia-San Sebastián	Itundua	Nuevo Futuro	8	2	neska/mutilak 16-18
Guztira						92	38	

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia, zentroetako profesionalei egindako elkarrizketak, 2007. eta 2008. urteetan Espainiara etorritako Inoren kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen Ezaugarriei buruzko galdesorta, 2007-08. Egileak egina.

¹²¹ Ikus eranskinetan 2008ko abenduaren 31n eguneratutako baliabideen sarea.

2008ko irailean oinarritzko programako egoitza-baliabideen 38 plaza zeuden IKEDAMentzat. IKEDAMentzako plazak Aldundiko egoitza-baliabideen guztizko plazen % 41 ziren.

Taulan azaltzen diren bederatzi baliabideetatik, lehenengo bostak IKEDAMak iritsi aurretik zeuden baliabideak dira. Bi baliabidek (*Donostiako eta Tolosako Bideberriko etxebizitzak*) 1996az geroztik lurraldera iritsi ziren lehenengo adingabe batzuk hartu zituzten beren gain. Gainerako hiruak, ordea, 2005. urtetik aurrera hasi ziren adingabeak artatzen, honako bi kausa hauengatik batez ere: lehenengoa *Villa Martutene* itxi zutenean eta *Gizarte Politikarako Departamentuak* egoitza-zentroetara bidali zituenean IKEDAMak, eta bigarrena, 2005. urtearen amaieran —gogora dezagun— *Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentuak eta Gizarte Politikarako Departamentuak* akordio bat lortu zutelako, eta akordio horren ondorioz, adingabeak harrera-zentroetan tutoretzapean hartu ostean, lurraldeko sare normalizatuko etxeen eta etxebizitzaren sarera igaro ziren. IKEDAMak bertako adingabeekin etxebizitzak partekatzen hasi ziren. Baliabide horiek guztiak lurraldeko babes-sare normalizatuko zentroak edo etxebizitzak dira, eta zentro edo etxebizitza horiek plaza batzuk erreserbatuta dauzkate IKEDAMentzat.

Gainerako lau baliabideak (*Uralde Etxea, Gabiria, Zizurkil eta Frantziako pasealekua*) 2007an baliabideak ireki zituztenean, hasi ziren IKEDAMak artatzen. Gogoan izan urte horretan berrantolatu zela berriro Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskal Autonomia Erkidegoko 2007ko foru-hauteskunde berrien ondorioz. Aldundiaren eskumenak departamentu bakar batean, hots, Gizarte Politikarako Departamentuan, bateratu ziren berriro, eta horregatik hasi ziren oinarritzko programako zentroak sortzen, eta ondoren ikusiko dugunez, programa espezializatukoak eta emantzipazio-programakoak, harrera-zirkuitua arintzearen.

Bederatzi zentroetatik, soilik bi dira bereziki IKEDAMentzat (*Uralde Etxea eta Gabiria*); zentro horiek 2007. urtetik aurrera ireki ziren.

Zentro horietatik soilik bat da titulartasun publikokoa, baina Aldundiak kudeatzen du (*Uralde Etxea*). Gainerako guztiak *administrazioarekin itundutako zentroak* dira. Lau zentro horietatik lau ere (harrera-zentroak bezalaxe) *Nuevo Futuro Elkarteak* kudeatzen ditu, irekitako bi zentroak IKEDAMak hartu aurretik, eta beste bi ireki zirenean; baliabideak kudeatzen laguntzen duen beste erakunde bat *Bide-Berri* da, 1995az geroztik, eta beste bat Gipuzkoako Hezitzaile Espezializatuen Elkartea 1981az geroztik, nahiz eta azken horretan 2005. urtera bitarte ez ziren hasi IKEDAMak artatzen. Bideberri erakundeak bereziki IKEDAMentzat den zentro berri bat ireki zuen 2007an (*Gabiria*), eta 2008an itxi zen. 2007an (baliabide gehien ireki zen urtea), IKEDAMak artatzeko erakunde berri bat sartu zen, *Clece, S.A.* enpresa-zerbitzua, hain zuzen ere.

Bederatzi baliabideetatik lau (% 44) Donostian daude: *Bideberriko etxebizitza*, *Gipuzkoako Hezitzaileen Elkarteko harrera-etxebizitza*, *Hogares Amara* eta *Frantziako pasealekua*. Lau baliabideak udalerriaren erdigunetik hurbil daude, eta denak ondo komunikatuta daude garraio publikoari dagokionez. Lau zentro horietako zuzendarien iritziz, kokapen hori oso positiboa da adingabeak behar bezala gizarteratzeko, gizarte-jarduere-tan parte hartzea, ikasketa-zentroetara joatea, komunitatearen baliabideetan sartzea eta abar errazten duelako.

Gainerako bost baliabideak beste udalerri batzuetan daude (*Tolosa*, *Hondarribia*, *Lezo*, *Gabiria* eta *Zizurkil*). Gogora dezagun, halaber, soilik IKEDAMentzat den urgentziazko eta harrerako zentroa ere Tolosako udalerrian dagoela. Bi baliabide udalerriaren erdigunetik hurbil daude (*Tolosa* eta *Hondarribia*) eta beste bi baliabide inguruko auzo batean daude, baina garraio publikoari dagokionez, ondo komunikatuta daude (*Uralde Etxea* eta *Zizurkil*). Azken baliabide horiei dagokienez, honako hau esan du *Uralde Etxea zentroko* zuzendari Mikel Malmiercak:

Herriaren erdigunetik urrun daudenez gero, lasaitasuna eta baretasuna dute aisiarako nahiz intimitaterako. Horren ordain gisa, hainbat garraio erabili behar ditugu aisiako eta astialdiko baliabideak erabiltzeko, baliabide horiek inguruko hiriguneetan baitaude. (*Uralde Etxea*. 08/01/31).

Soilik baliabide bat dago eremu isolatuan (*Gabiria*) eta bi modulu dituen zentro bat da: arestian aipatutako oinarritzko programakoa, eta bigarrena —horrek ere 10 plaza ditu— programa espezializatukoa. Zentro espezializatuen atalean ikusiko dugunez, zentro horiek askotan eremu isolatuetan egoten dira.

Bederatzi baliabideetatik, zortziren (% 88) zuzendarien ustez, zentroaren baldintzak onak dira, galdesortaren eskalarik handiena; soilik baliabide bateko —*Hogares Amara*— zuzendariaren ustez on samarrak dira. Hau da, denek modu positiboan balioesten dituzte kudeatzen duten baliabidearen baldintza egokiak.

Zentroetako plazak zortzi-10 dira gehienez. Zentro guztiek batek izan ezik plaza guztiak okupatuta zeuzkan galdesorta bete zenean, soilik *Hondarribia zentroak* zeuzkan okupatuta bere plazen erdia; nolanahi ere, adierazi zuen adingabe kopurua plaza kopuruaren berdina izaten dela. Zazpi zentrok ere adierazi zuten adingabe kopurua plaza kopuruaren berdina izaten dela, eta soilik *Hogares Amara* baliabideak adierazi zuen adingabe kopurua plaza kopurua baino txikiagoa izaten dela. Ikus dezakegunez, zentroak zentro txikiak dira plaza kopuruarekin alderatuta.

Arestian ikusi dugu soilik bi zentro direla IKEDAMentzat bereziki. Beste zentro guztiak, zortzi plazako zentroak normalean, *lurraldeko adingabeen eta IKEDAMen zentro mistoak dira*. Zazpi zentroetatik, seiak bi plaza dituzte okupatuta IKEDAMekin, eta batek, *Hogares Amara*, hiru plaza ditu.

Zentro horiek *artatzen dituzten adingabeen adinari dagokionez*, bostek (% 55) 12-18 urteko adingabeak hartzen dituzte. Zentroetako hiru zaharrenetakoak dira, eta, hortaz, lehenago hasi ziren adingabeak hartzen (Donostiako *Bideberri*, Tolosako *Bideberri*, Gipuzkoako *harrera-etxebizitzak*), eta bi sortu berriak dira (*Gabiria eta Zizurkil*). Pentsa dezagun haurrak artatzen hasi ziren lehenengo urteetan, zentroek adin-tarte zabalagoa hartzen zutela, lurraldera iristen ziren adingabeen adin desberdinak hartu ahal izateko.

Gainerako lau zentroei dagokienez, (gainerako % 45a) 16 urtetik 18 urtera bitarteko adingabeak hartzen dituzte. Zentro horietako bi 2005ean IKEDAMak artatzen hasi ziren baliabideak dira (*Hondarribia eta Hogares Amara*). Adin horiek zergatik artatzen dituzten justifikatzeko, gogora dezagun 2005ean, bi departamentuen arteko akordioaren ondorioz, adingabeak lekuz aldatu zirela harrera-zirkuitutik, eta batez besteko adin handiagoa duten, eta adin-nagusitasunetik hurbilago dauden adingabeak lekuz aldatu zirela. Eta gainerako bi baliabideak 2007. urtetik aurrera hasi ziren IKEDAMak artatzen; gogora dezagun, foru-hauteskundeak izan zirenean eta *Gizarte Politikarako Departamentua* bateratu zenean gertatu zela hori. Orduan ere bazegoen autonomoagoak eta adin-nagusitasunetik hurbil zeuden adingabe horiek adin horietan espezializatutako baliabide batera lekuz aldatzeko premia.

Hartutako adingabeen generoari dagokionez, bederatzi baliabideetatik zazpi mistoak dira, hots, mutilak nahiz neskak hartzen dituzte. Soilik bik (bereziki IKEDAMentzat diren zentroak: *Uralde Etxea eta Gabiria*) hartzen dituzte mutilak bakarrik. Esan behar da zentro misto guztiek nahiago dutela IKEDAMentzako plaza bat neska batekin bete (nahiz eta oso gutxi izan), zeren normalean neskek ez baitute istilurik sortzen, profesionalen arabera.

Gehienez zortzi plaza dituzten *zentroetako giza baliabideetan* zazpi-zortzi lagunek jarduten normalean heziketa-taldean (zortzi zentroetatik lautan): *Donostiako Bideberri, Tolosako Bideberri, Hondarribia, Frantziako pasealekua*. Langileen lanbide-kategoria askotarikoa da; izan ere, zentro batzuetan guztiak hezitzaileak dira (*Frantziako pasealekua eta Zizurkil*), beste batzuetan, aldiz, lau-bost hezitzaile eta bi-hiru monitore daude. Soilik baliabide batean daude hezitzaile eta monitore gehiago adingabeak baino, Gipuzkoako Hezitzaileen *harrera-etxebizitzak* dira, 24 adingabe artatzen dituzte, eta heziketa-taldeko 27 profesional dituzte plantillan: 20 hezitzaile eta zazpi monitore. Baliabide batean ere profesional kopurua eta plaza kopurua berdinak dira: *Frantziako pasealekua*, hor zortzi hezitzaile daude.

Bederatzi baliabideetatik, hirutan heziketa-taldea batez bestekotik behera dago. *Zizurkil zentroari* dagokionez, bost hezitzaile daude zortzi plazarako, *Hogares Amara* kasuari dagokionez, sei profesional daude (lau hezitzaile eta bi monitore) zortzi plazarako, eta *Uralde Etxea zentroan* zazpi profesional daude (lau hezitzaile eta hiru monitore) adingabeen 10 plazarako.

Gure ustez harrigarria da *baliabideetako bakar batek ere ez izatea adingabeen jatorriko kultura-bitartekaririk*, zazpi baliabidek soilik bi edo hiru IKEDAM artatzen dituzte, eta badirudi baliabide horietan beharrezkotzat ez hartzea figura hori izatea. Baina oraindik gehiago kezkatzen gaitu soilik IKEDAMentzat den baliabideetako batek ere (*Uralde Etxea*) ez izatea profesional hori. Soilik *Gabirian* dago bitartekariaren figura hori.

Heziketa-taldearen kontratazio motari dagokionez, hiru zentrotako heziketa-taldeko profesional guztiek kontratu mugagabea dute (*Frantziako pasealekua, Zizurkil eta Uralde Etxea*). Gainerako sei zentroetakoek kontratu mugagabeak eta aldi baterako kontratuak dituzte; nolanahi ere, bigarrenak lehenak baino gehiago dira beti. *Zentroetako ardura-dun guztiek balioesten dute heziketa-taldearen txandakatzeak asko samar edo asko eragiten diola heziketa-taldeari*, harrera-zentroen atalean ikusi genuenaren arabera. Hainbat arrazoi daude horretarako: lan egiteko oinarritzat hartuko diren lotura afektiboak sortzea eta horiei eustea eragozten duelako; adingabe baten historian errepikatu diren uzteen kasuetan aldaketa horiek mesfidantza eta galera gehiago sortzen dituztelako; adingabea desegonkortzen duelako, hezitzaileak erreferente eta atxikimendu-figura izan nahi duelako; zerbait izatearen edo norbaitena izatearen sentimenduari eragiten diolako, eta abar.

Zortzi zentrotan, txandakatze hori gertatu denean: askotan, edo maiz samar borondatezko bajagatik edo kontratua amaitu izanagatik gertatu da, eta gutxitan gertatu da estresagatik, depresioagatik edo sufrimendu psikologikoagatik bajagatik. Gogora ekarri nahi dugu, gorago esan dugunez, borondatezko baja horietako batzuk beste arrazoiengatik ere gerta daitezkeela. Aitzitik, Gipuzkoako Hezitzaile Espezializatuen Elkarteak adierazi du berak kudeatzen dituen etxebizitzetan, txandakatze hori maiz gertatu dela estresarengatik, depresioagatik bajarengatik edo sufrimendu psikologikoarengatik.

Azkenik, adierazi nahi dugu *zentroen balioespena taldearen heziketa-proiektua (zentrokoa edo antzekoa) aplikatzeari dagokionez*, betetako galdesortaren eskala positiboan dagoela zuzendarien arabera. Sei zentro gogobeteta daude (eskalaren goreneko maila), eta soilik hiru zentro daude gogobeteta hein batean (*Hogares Amara, Gabiria eta Zizurkil*). Adierazi behar dugu egoitza-baliabideei buruzko estimazio horiek neurri batean bat da-

tozela elkarriketatutako adingabeen estimazioekin, heziketa-proiektuari buruzko ondorengo atalean ikusiko dugunez.

2. PROGRAMA ESPEZIALIZATUA

Ondorengo taulan programa espezializatuko egoitza-babeseko zentroak eta zerbitzuak daude jasota.

59. taula

Inoren kargura ez dauden adingabe migratzaileentzako egoitza-baliabideen sarea
(programa espezializatua) Gipuzkoan, 2008ko irailean)

Izena	Irek. urtea	IKEDAM arret. urtea	Herria	Especialización	Titulartasuna	Kudeaketa	Plazak	IKEDAM-entzako plazak	Erabiltzaileen ezaugarriak Sexua/Adina
Azpilikueta Zentroa	2004	2005	Irun	Toxikoekin eta abarrekin lotutako portaera-nahasmendua	Publikoa	Dianova	11	3	neska/mutilak 12-18
Irisasi	2006	2007	Usurbil	Nahasmendu psikiatrikoak	Publikoa	Clece, S.A.	12	5	neska/mutilak 12-18
Gabiria	2007	2007	Gabiria	Erreformatzea. Neurri erdiirekiak betetzea	Itundua	Bideberri	10	10	mutilak 12-16
Zanduetza Zentroa	1998	2005	Valle de Arce	Toxikoekin loturiko portaera-nahasmenduak	Itundua	Dianova	10	3	neska/mutilak 12-18
Iturriotz-Azpi Zentroa	2008	2008	Iturriotz-Azpi	Toxikoekin loturiko portaera-nahasmenduak	Publikoa	Dianova	16	16	mutilak 14-18
Guztira							59	37	

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia, zentroetako profesionalei egindako elkarriketak, 2007. eta 2008. urteetan Espainiara etorritako Inoren kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen Ezaugarriak buruzko galdesorta, 2007-08. Egileak egina.

2008ko irailean programa espezializatuko egoitza-baliabideen 37 plaza zeuden IKEDAMentzat. IKEDAMentzako plazak Aldundiko egoitza-baliabide espezializatuen guztizko plazen % 62 ziren.

Bost zentro espezializatuetatik *hiru daude normalean toxikoen kontsumoarekin lotutako portaera-nahasmenduak artatzeko*. Horietatik bik lehen faseko eginkizunak betetzen dituzte, hau da, toxikoen kontsumoarekiko ohitura galtzea (*Zandueta eta Iturriotz-Azpi*); gehienez ere sei hilabetez egon daitezke zentro horietan. *Zandueta* egungo zentro espezializatu zaharrena da, 1998an ireki zen, baina 2005era arte ez zen IKEDAMak artatzen hasi Bigarren zentroa 2008an sortu zuten, soilik IKEDAMentzat. Hirugarren zentroa (*Azpilikueta*) bigarren faseko zentroa da, hau da, adingabeek aurreko bi zentroetako batean gehienez ere sei hilabete igaro ostean, zentro horretara igarotzen dira, eta han ekiten diote gizarte- eskolatz- eta prestakuntza-prozesuari. Zentro hori 2004an ireki zen, eta 2005ean hasi ziren IKEDAMak artatzen.

Gainerako bi zentro espezializatuak dagokienez, bata psikiatria-nahasmenduak artatzeko da (Irisasi), «eta bestea» (Gabiria) «erreforma-zentroetako adingabeak, neurri» erdiirekiak (astean behingo aldiakako irteerak eta asteburuetako irteerak) dituztenak hartzeko.

Ikusi dugunez, baliabide espezializatu horietan batez ere 2007. urtetik aurrera hasi ziren IKEDAMak artatzen. Urte hori baino lehen, kopurua oso txikia eta ohikoa ez dena da *Azpilikueta zentroan* 2005. urtetik aurrera. Bost zentroetatik hiru lurraldeko artatze-sare normalizatuak dira, horien artean zaharrenak (*Azpilikueta* eta *Irisasi*). 2007. 2008. urteetatik aurrera soilik IKEDAMentzat diren bi egoitza-zentro espezializatuak ireki ziren. Ikusi dugunez, 2007. urtetik aurrera berriz egin zen babes-zirkuitua eta zentro asko ireki ziren artatutako adingabeen premien arabera, horien artean bi zentro hauek.

Bost zentroetatik, *hiru titulartasun publikokoak dira*, baina erakundeek, elkarteek edo zerbitzu-enpresek kudeatzen dituzte, eta *bi zentro administrazioarekin itundutako zentroak dira*. Hiru zentro arestian aipatutako erakundeek kudeatzen dituzte, erakunde horiek babes-zirkuituko beste harrera- edo egoitza-zentro batzuk kudeatzen baitituzte: *Hogares Nuevo futuro*; *Bideberri*; *Clese, S.A.* Programa espezializatu honetan beste erakunde bat, *Dianova*, azaldu da. Erakunde horrek Toxikoekiko ohitura galtzeko lehen faseko bi zentroak kudeatzen ditu. *Dianova* erakundeak toxikoen errehabilitazio-programak egiten ditu egoitza-erregimenean eta erregimen anbulatorioan.

Zentro guztiak udalerrri desberdinetan daude. Aipatutako lehenengo hiru zentroak¹²² eremu isolatu batean daude, baina udalerritik hurbil. Zuzendarien arabera, iritzi desberdinak daude zentroen kokapenak adingabeengan eragina izan ote dezaketen galderari dagokionez. *Irisasi*

¹²² Beste bi zentroi buruz ez daukagu informaziorik, ez baitute galdesorta bete.

zentroko zuzendari Ainara Rubertek honako hau esan zigun: «*Eremu handiagoa dauka desinhibitzeko eta jarduerak egiteko, baina ez dio batere laguntzen gazteen autonomiari garraio publikoa erabiltzeko garaian; izan ere, ia ez baitago garraio publikorik eta hezitzaileek eraman behar dituzte zentroko furgoneta batean*». *AzpiliKueta* zentroko zuzendariak esan zuen zentroaren kokapen horrek eremu euslea eskaintzen duela, eta udalerritik hurbil dagoela; eta *Gabiria* zentrokoak esan zuen herriko gazteekiko harremana eragozten duela.

Zentro guztien ustez, zentroko baldintzak onak dira, galdesortaren goreneko eskala.

Zentroetako plaza kopurua 10-16 da (taulan azaltzen diren lehenengo lau zentroak). Bi zentrok ez dute araudi berria betetzen (Gizarte-babesgabetasuneko egoeran dauden haurren eta nerabeentzako egoitza-harrerarako baliabideak arautzen dituen Dekretua, 2008/08); gehienez ere 10 plaza. Zentroetako bat Gabiria da, 12 plaza dituen, eta bestea Iturriotz-Azpi, 2008. urtean ireki zen eta 16 plaza ditu.

Soilik zentro batean adingabe kopurua plaza kopurua baino txikiagoa izaten da normalean: *Irisasi*. Gainerako guztietan, normalean, adingabe kopurua eta plaza kopurua berdina izaten dira. Lurraldeko artatze-sare normalizatuko hiru zentroe (AzpiliKueta, *Irisasi* eta *Zandueta*) beren guztizko plazetatik hiru-bost IKEDAM (mutilak) hartzen dituzte.

Zentro horiek artatzen dituzten adingabeen adinari dagokionez, hiru zentrok (lurraldeko artatze-sare normalizatuko zentroak hirurak) 12 urtetik 18 urtera bitarteko gazteak hartzen dituzte. Bereziki IKEDAMentzat diren bi zentroetan soilik adina 12 urtetik 16 urtera bitartekoa da (Gabiria) eta 14 urtetik 18 urtera bitartekoa (Iturriotz-Azpi).

Hartutako adingabeen generoari dagokionez, bost baliabideetatik hiru mistoak dira, hots, mutilak nahiz neskak hartzen dituzte. Soilik bik (soilik IKEDAMentzat diren zentroak: Gabiria eta Iturriotz-Azpi) hartzen dituzte mutilak bakarrik.

Taulan azaltzen diren lehenengo hiru zentroetako giza baliabideei dagokien (informazioa eman diguten zentroetakoak), *heziketa-taldeko plantillan 12-16 lagun daude*. Gogora dezagun hiru zentroe 10-12 plaza dituztela. *Gabiria zentroak* (plaza gutxienez dituen baliabidea) du plantilla handiena, 16 lagun (10 hezitzaile, bost monitore eta hezitzaile/bi-tartekari bat); horretaz gain, soilik IKEDAMentzat den zentroetako bat da.

Soilik zentro batean, heziketa-taldea osatzen duten lagun guztiek daukate kontratu mugagabea (*Irisasi*). Besteetan gehienek kontratu mugagabea daukate, baina hainbat langilek aldi baterako kontratuak dituzte.

Zentro gehienetako zuzendaritzaren iritziz, heziketa-taldearen txandakatzeak adingabeari eragiten dio. Soilik *Irisasi* zentroan (zentro horretako langile guztiek kontratu mugagabea

dute) uste dute ez diola adingabeari eragiten, baja gutxi baitituzte. Aitzitik, *Gabiria* zentroaren kasuan, baja horiek honako kausa hauengatik gertatu dira batez ere: borondatezko bajagatik eta estresagatiko, depresioagatiko edo sufrimendu psikologikoagatiko bajagatik.

Azkenik, *zentroari eta heziketa-proiektuari dagokionez*, zuzendarien *gogobetetze-maila (informazioa eman diguten hiru zentroetakoena) gogobeteta da (Azpilikueta) edo gogobeteta neurri batean (Irisasi eta Gabiria)*, eskalako bi maila positiboenak. Zentro horietako adingabeen balioespenari dagokionez, oraindik goiz da balioespena egiteko; gogora dezagun zentro horiek gehienak sortu berriak direla. Egindako landa-lanean ez dugu elkarriketatutako zentro horietatik igaro den adingabe bakar bat ere.

c) *Emantzipazio-baliabideak*¹²³

Ondorengo taulak emantzipazio-baliabideak biltzen ditu:

60. taula

Inoren kargura ez dauden adingabe migratzaileentzako emantzipazio-baliabideen sarea Gipuzkoan (2008ko iraila)

Izena	Irek. urtea	IKEDAM arret. urtea	Herria	Titulartasuna	Kudeaketa	Plazak	Plazak Ocupadas Por MMNA	Erabiltzaileen ezaugarriak Sexua/Adina
Urretxu	2007	2007	Urretxu	Itundua	Bideberri	6	2	mutilak 16-18
Idiazabal	2007	2007	Idiazabal	Publikoa	Clece, S.A.	6	6	mutilak 16-18
Zaldibia	2007	2007	Zaldibia	Publikoa	Clece, S.A.	6	6	mutilak 16-18
Arrasate ¹²⁴	2008	2008	Arrasate	Itundua	Bideberri	6	6	mutilak 16-18
13 ostatu	2008	2008	13 udalerri	Pribatua	Bideberri	18	18	mutilak 16-18
Guztira						42	40	

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia, zentroetako profesionaleri egindako elkarrizketak, 2007-08. Egileak egina.

¹²³ Gipuzkoako Foru Aldundian, kategoria hori egoitza-zentroen barnean hartzen da, eta Emantzipazio Programa deritzo.

¹²⁴ Baliabide horri dagokionez, aldagai batzuk soilik aipatuko ditugu, Gizarte Politikarako Departamentuak eman dizkigun aldagaiak, hain zuzen ere. Zentro hori 2008aren hasieran ireki zen, eta galdesorta entregatzeko azken eguna 2007ko abenduaren amaiera izan zen. Hortaz, ez daukagu baliabideko arduradunaren balioespenik.

2008ko irailean emantzipazio-baliabideen 40 plaza zeuden IKEDAMentzat. IKEDAMentzako plazak Aldundiko egoitza-baliabide espezializatuen guztizko plazen % 95 ziren.

Aurreko taulan egiaztatu dugunez, *baliabide guztiak 2007an ireki ziren, eta azkena 2008an*; baliabide horiek guztiek ireki zirenetik IKEDAMak izan dituzte. Etxebizitza horiek 2007an plaza kopurua handitu izanaren eta zentroak sortu izanaren ondorio dira, arestian esan dugunez, harrera- eta egoitza-zirkuitua arintzeko.

Bi etxebizitza (Idiazabal eta Zaldibia) titulartasun publikokoak dira, eta biak Clese, S.A. enpresak kudeatzen ditu. Zerbitzu-enpresa hori 2007an hasi zen lanean Gipuzkoako adingabeen zentroetan, 2007an Aldundiak irekitzen zituen beharrezko zentroak kudeatuko zituzten erakunde gehiago behar zirelako. Gogora dezagun, halaber, 2007an oinarritzko programako egoitza-baliabide bat (Uralde Etxea) kudeatzen hasi zela.

Gainerako baliabideak administrazioarekin itundu ziren eta *Bideberri* erakundeak kudeatu zituen. Erakunde horrek oinarritzko programako beste bi egoitza-zentro kudeatzen ditu; 1995. urtean hasi zen adingabeen zentroetan lan egiten, eta 1996an IKEDAMen zentroekin. Erakunde horrek, gainera, 13 udalerritako ostatu 18 plazak kudeatzeko ardura du.

Baliabide guztiak udalerrri desberdinetan kokatuta daude. Horiek guztiak, halaber, udalerrriaren erdigunetik hurbil daude, eta ondo komunikatuta daude garraio publikoari dagokionez. Urretxu zentroko zuzendariak ondo samar laburbiltzen du baliabide hauetako gainerako arduradunen iritzia «zenbat eta erdigunetik hurbilago egon eta garraiobideekin hobeto komunikatuta egon, orduan eta mugitzeko eta hobeto gizarteratzeko erraztasun handiagoa».

Informazioa jaso dugun hiru baliabideetatik (aipatutako hiru lehenak), *zentroko instalazioak onak dira hiruren ustez*, betetako galdesortaren eskalarik handiena.

Etxebizitza guztiek sei plaza dituzte, eta horien artetik hiru bereziki IKEDAMentzako baliabideak dira: Idiazabal eta Zaldibia eta Arrasate. Normalean baliabide horretan adingabe kopurua eta plaza kopurua berdinak izaten dira. Urretxu baliabide mistoa da, sei plazatik bi IKEDAMek hartuta daude; halaber, baliabide horretan adingabe kopurua eta plaza kopurua berdinak izaten dira.

Ostatuetako 18 plazei dagokienez, *irizpidea da plaza bat izatea ostatu bakoitzeko*, nahiz eta bost ostatutan bi adingabe dauden.

Baliabide horietan artatzen diren adingabeen adinari eta generoari dagokionez, etxebizitza guztiak 16 urtetik 18 urtera bitarteko mutilentzat dira.

Idiazabal eta Zaldibia giza baliabideei dagokienez, hezitzaileen batez bestekoa, plazak kontuan hartuta, handiagoa da. Heziketa-taldeko giza baliabideak zazpi hezitzaile dira, eta horien artetik Marokoko hezitzaile/bitartekari bat; gogora dezagun bi baliabide eskuliboak direla. Hezitzaile horien artetik bostek kontratu mugagabea zuten eta bik aldi baterakoa.

Aitzitik, *Urretxu* baliabidean lau hezitzaile daude adingabeentzako sei plazentzat. Zentro misto horretan ez dago bitartekariaren figura. Galdesorta bete zenean, lau hezitzaileen artetik bik kontratu mugagabea zuten eta biak aldi baterakoa.

Informazioa eman diguten hiru baliabideei dagokienez, heziketa-taldean bajak izan direnean (ireki berriak direnez gero, oraindik oso goiz da gai hori balioesteko) asko borondatzeko bajak izan dira.

Azkenik, esan behar da informazioa eman diguten zentroetatik hirutan, *zentroari eta heziketa-proiektuari dagokionez zuzendariak duten gogobetetze-maila gogobeteta dela*. Esan behar da hori bat datorrela adingabeen hautematearekin, adingabe horiek baliabide autonomoenak eta behar bezala gizarteratzeko (prestakuntza-arloan eta lan-arloan) berehala prestatzera bideratuta dauden baliabideak estimatzen baitituzte batez ere.

d) 18 urtetik gorakoentzako baliabideak

Adin-nagusitasuna bete ondoren, amaiera ematen zaio IKEDAMek jasotzen duten babesari; izan ere, administrazioek ez daukate inolako legezko obligaziorik 18 urte bete dituzten neska-mutilei arreta eta zerbitzua emateko.

Adingabe horietako batzuk emantzipatu egiten dira egoitza-baimena eskatzeko epeak bete aurretik bete dituztelako 18 urte, eta berrespena eskatzen dute Gobernuaren Sailburuordetzara salbuespenezko bideen bitartez, Legeak agintzen duen bezala. Aldundiaren

aldeko txostena izan duten adingabeen kasuan, adingabe horiek eskatu ahal izango dute egoitza-baimena Nolanahi ere, salbuespenezko kasu horiek ez dira gertatzen 18 urte betetzean kalean geratzen den kolektiboaren zati handi batean.

Gipuzkoan, 2008. urtera bitarte, ez zen mutil horiek artatzeko programa ofizialik edo informalik izan (Bizkaia-aren kasuan ikusiko dugunez). 2008ko maiatzean *Lortuz* programa sortu zen —Gizarteratzeko eta Laneratzeko Zuzendaritza Nagusiak kudeatu zuen— kalteberatasun-egoera horri erantzuteko (helduen bizitzarako iraganbidean eta laneratzeko babesa eta/edo laguntza jasotzeko premia); horretarako, 18 urte edo gehiago bete ostean beren emantzipazio-prozesuari hasiera ematen dioten gazteei jarraipena egiteko prozesu bat sortu zen. Gipuzkoara iritsi zen eta adin-nagusitasunera iritsi zen IKEDAM kopurua asko hazteak azaltzen du programa hori abian jartzeko premia izatea. Programa hori beren prestakuntza- eta egokitze-etapa balioespen positiboarekin gainditu duten eta emantzipazioa eta erabateko autonomia ekonomikoa lortu arte beren prestakuntza-prozesuarekin jarraitzeko konpromisoa hartzen duten gazteentzat da; izan ere, gazte horiek desabantaila- eta kalteberatasun-egoeratik abiatzen dira.

Lortuz programa (gizarte-bazterkeriaren egoeran edo egoera horretan egoteko arriskuan dauden gazteak emantzipatzeko programa) gazte horien problematikari heltzeko eta gazte horiek dituzten premiei eta eskaerei erantzuna emateko proposamena da; horretarako, gizarte- eta hezkuntza-arloko alojamentu- eta bizikidetz-esparrua eskaintzen da, gazteari bere bizi-proiektua definitzen eta bideratzen lagunduko diona, epe ertainean bizitza sozialean modu independentean sartu ahal izateko, eta, era horretan, jasan lezakeen gizarte-bazterkeriaren prozesuari aurrea hartzen zaio.

Programan parte hartu zuten gazte gehienak Aldundiaren haur-babesaren sistematik eratorriak dira, nahiz eta 2008ko maiatzera bitarte, eskabideak udaletako Gizarte Zerbitzuen bitartez izapidetu ziren. Guztira, 77 gazte artatu ziren, 42 sarrera berri egin ziren, eta horietatik 37 *IKEDAMak izan ziren gazteentzat izan ziren*. Haur-babesaren sistematik 33 iritsi ziren, gainerako bederatziak, ordea, udalek bideratu zituzten. Urtean zehar 21 irteera gauzatu ziren, eta horietatik zortzi kaleratu zirelako izan ziren, behin eta berriz egindako hutsegite larriengatik. Gainerakoak ateratzeko arrazoiak honako hauek izan ziren: prozesua amaitu zutelako eta zentroa borondatez uzteagatik.

Jarraian, *Lortuz* Programak kudeatzen dituen gazteen pisu guztiak biltzen dituen taula dago:

61. taula

Lortuz Programako gazteen etxebizitzak, 2008ko iraila

Izena	Irek. urtea	IKEDAMak artatu zireneko urtea	Baliabide tipologia	Herria	Titulartasuna	Kudeaketa	Plazak	IKEDAMek betetako plazak	Erabiltzeen ezaugarriak
Jai-ALAI	2004	2004	Intentsitate-erdia	Donostia-San Sebastián	Itundua	Gurutze Gorria	6	6	18 urtetik gorakoa
Carlos I	2006	2006	Intentsitate-erdia	Donostia-San Sebastián	Itundua	Gurutze Gorria	6	6	18 urtetik gorakoa
Kolore guztiak (Billabona)	2008	2008	Intentsitate-erdia	Billabona	Itundua	Kolore Guztiak	5	5	18 urtetik gorakoa
Kolore guztiak (Usurbil)	2008	2008	Intentsitate-erdia	Usurbil	Itundua	Kolore Guztiak	6	6	18 urtetik gorakoa
Lau-haizeta	2005	2005	Intentsitate-erdia	Donostia-San Sebastián	Itundua	Gurutze Gorria	6	6	18 urtetik gorakoa
Peñascal (Alegi)	2008	2008	Intentsitate-erdia	Alegia	Itundua	Peñascal Fundazioa	5	4	18 urtetik gorakoa
Peñascal (Tolosa)	2008	2008	Intentsitate-erdia	Tolosa	Itundua	Peñascal Fundazioa	5	4	18 urtetik gorakoa
Secundino Esnaola	2006	2006	Intentsitate-erdia	Donostia-San Sebastián	Itundua	Gurutze Gorria	6	6	18 urtetik gorakoa
Sorabilla	2005	2005	Intentsitate-erdia	Andoain	Itundua	Caritas	10	10	18 urtetik gorakoa
San Bartolome	2008	2008	Intentsitate-erdia	Donostia-San Sebastián	Itundua	Gurutze Gorria	6	6	18 urtetik gorakoa
Easo	2008	2008	Intentsitate-erdia	Donostia-San Sebastián	Itundua	Gurutze Gorria	6	6	18 urtetik gorakoa
Gutzira							67	65	

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2008ko urria.

2008ko urrian gizarte-bazterkeriaren egoeran zeuden IKEDAMentzako 65 plaza zeuden, plaza horiek programa honetako gutzizko plazen % 97 dira.

Gipuzkoako Aldundiaren arabera, 2008. urtea eta 2009. urtea amaitu aurretik plaza berriak sortuko dira IKEDAMak izan ziren gazte gehiago hartzeko.

8.1.3. Bizkaiko Lurralde Historikoa

8.1.3.1. Bizkaiko Foru Aldundia¹²⁵

Euskal Autonomia Erkidegoan, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bitartez onartutako *Autonomia Estatutuaren* ondorioz (10. artikulua, 12., 14. eta 39. idatz-zatiak), haurrak babesteari dagokionez Euskal Autonomia Erkidegoari eskumen eskusiboak esleitu zitzaizkion; horrela, *Gizarte Gaietako Sailari* dagokio haurrak babesteari buruzko eskumenak garatzea, *Familiaren eta Haurren Zuzendaritza Nagusiaren* bitartez.

Abenduaren 31ko 152/1985 Foru Dekretuaren bitartez izandako eskumen-transferentzien ondorioz, *Bizkaiko Foru Aldundia* da Bizkaiko lurralde-eremuan Haurren Babesari buruzko eginkizunak gauzatzen dituen erakunde publikoa, *Gizarte Ekintza Sailaren* bitartez, nahiz eta inoren kargura ez dauden adingabeen ardura GUFÉ-Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak ere baduen; GUFÉ *Gizarte Ekintza Sailaren* erakunde autonomoa da, eta titulartasun publikoko egoitza-zentroen kudeaketaren ardura du. Organikoki, *Egoitza Harrerako Unitatea* GUFÉren mendekoa da¹²⁶.

Gizarte Ekintza Sailaren Haurren Zerbitzuak haurren babesaren alorreko kudeaketa- eta erantzukizun-eginkizunak gauzatzea du esleituta, eta *Haur, Emakume eta Pertsona Ezinduen Zuzendaritza Nagusiaren* mendekoa da (67/2004 Foru Dekretua, apirilaren 20koa). Haurrentzako Planaren ezarpenaren ondorioz, Zerbitzu hori hiru ataletan egituratuta geratu da, eta atal horietako bakoitzaren egitekoak 23., 24. eta 25. artikuluetan jaso dira: 1. Harrera, Balorazio eta Orientazio Atala; 2. Familia Harreraren eta Adopzioen Atala; 3. Egoitza Harreraren Atala.

Arartekoaren 2005eko txostenaren arabera, IKEDAMei arreta ematen zuzenean diharduten zerbitzu, atal eta batzorde ugari daude: *Harrera, balorazio eta Orientazio Atala* (egoitza-zentroei administrazio-txostenak kudeatzen dizkie, lehen babes-neurriak kudeatzen

¹²⁵ 2009an, txosten hau argitaratu zen urtean, urtean, probintzia horretan IKEDAMentzako arreta- eta harreraren-zirkuituaren errealitatea ez dator bat kapitulu honetan deskribatutako errealitatearekin; izan ere, kapitulu hau 2007. eta 2008. urteetan dago oinarrituta batez ere. Bizkaiko Foru Aldundiaren arabera, 2009an, libre dauden plazak zirkuituan sartu diren IKEDAMen kopuruarekin bat dator.

¹²⁶ Informazio gehiagorako, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren funtzionamenduaren organigramari lotzen gataizkio (www.bizkaia.net/Home2/temas/DetalleDepartamento.asp?Tem_Codigo=3&Idioma=CA - 21k) edota Arartekoaren 2005eko txostena kontsultatuz (136. orrialdea).

ditu, Bizkaiko Foru Aldundiko beste zerbitzuekin eta kasuetan sartutako zentro eta erakundeekin harremanetan jartzen da, eta Zabaloetxe egoitza-zentroarekin —GUFeri atxikitako berezko zentroa— sinatutako hitzarmena izapidetzen du); *Haurren Zerbitzuko Egoitza Harreraren Atalak*, bestalde, IKEDAMen egoitza-harrera kudeatzeko ardura du; horretaz gain, *Gizarte Ekintza Sailaren Bazterketaren aurkako Zerbitzuak*, pisu autonomoen bitartez, egoitza-arreta eskaintzen die garapen pertsonaleko prozesuren batean sartuta dauden gazteei; *Adin Txikikoen Balorazioko Batzorde Teknikoak*, berriz, koordinatzaileak kasu bakoitzerako proposatutako neurriak balioesten ditu, eta baita Haurren Zerbitzuan espediente irekirik duten adingabeei lotutako jardunak (1. eta 2. puntuak) eta adingabeek egindako proposamenak ere. Azkenik, Herri Administrazio Sailak eta Ogasun eta Finantza Sailak, Lege Aholkularitza Zerbitzuaren eta Ondare Zerbitzuaren bitartez, dagozkion jardun judizialak izapidetzen dituzte adingabeek delituren bat egiten badute, gehiegizko gasturen bat gertatzen bada, Ondare Zerbitzuak aseguru-konpainiarekin esku hartzen baitu.

Laburbilduz, IKEDAMak zirkuituan sartzen direnetik ateratzen direnera arte, horiekin esku hartzeko prozeduraren esparruan ezarritako irizpide, jarraibide eta protokoloak Gizarte Ekintza Sailean adierazten dira.

a) *Atzematea*

IKEDAM bat Bizkaira iristen denean eta Segurtasun Kidegoko agenteetako batek atzematen duenean, atzemate horrek dakarren egoitza-harrera zein izango den erabaki behar du erakunde publikoak, eta kasu gehienetan, baita esku hartze paralelo bat ere gizarte-eta familia-ingurunean. 2005ean Bizkaiko Adingabeen Fiskaltzarekin, Atzerriartasun Poliziarekin, Ertzaintzarekin eta adingabeen adina zehaztuko duen auzitegiko medikuarekin protokolo bat ezarri zen.

b) *Adinaren proba*

Horrelako probak egiteko, zerbitzu mediko espezializatu bat dago, baina zerbitzu horrek ordutegi murriztua du, erradiologo aditurik ez baitago, eta beraz, sarrerak goizez baino ez baitira onartzen, eta soilik Ertzaintzaren, udaltzaingoaren edota polizia nazionalaren bitartez; azken horrek, era berean, *adingabea fiskaltzan birkokatuko du, eta hark, azkenik, adingabeari adin-probarik egin behar ote zaion erabakiko du, dagoeneko deskribatuta ez badago*. Basurtoko Ospitalean geroago Auzitegiko Institutura igorriko diren probak egiten zaizkio. Horrekin batera, adingabea lehen harrerako zentrora 14:00ak baino lehen igortzen bada, segur aski ez du fiskaltzak adinari buruzko dekretua noiz emango

zain egon beharko, dagoeneko eginda egongo baita eta dagozkion babes-neurriak hartuko baitira. Adingabea 15:00etatik aurrera aurkitzen bada, oster, harrera-zentro batera eramango da zuzenean, fiskaltzari parte eman ondoren, eta Bizkaiko Foru Aldundiak (Adingabeen Zerbitzua) hurrengo egunean adingabea lekuz aldatuko du azpikontratutako enpresa baten bitartez, eta ondoren, adingabeari dagozkion hezur-probak egingo zaizkio. *Batez ere, «eskumuturreko» eta «barailako» probak egiten zaizkie adingabe guztiei, eta «klabikulakoak», berri, adinari buruzko zalantzak daudenean egiten zaizkie soilik.*

c) *Tutoretza*

Lehen harrera hori egin ondoren, adingabeak geratzeko erabakia hartzen badu, Giza Ekintzaren Haurren Zerbitzuaren bitartez adingabearen behin-behineko zaintza eta tutoretza hartuko da, eta izatezko egoera bat formalizatuta geratuko da. Zentroko zuzendariak gauzatuko du adingabearen zaintza, Adin txikikoen Balorazioko Batzorde Teknikoak adingabearen egoitza-sarrera erabaki ondoren. Aldi berean, Espainian adingabearen ardura har dezakeen pertsonarik ote dagoen jakiteko ikerketa bat egiten da, baita beste erkidegoren batean edota Europako beste edozein herrialdetan ere.

2007an, IKEDAM bati arreta emateko jarraitu beharreko prozedura eta benetan bete beharreko epeak honako hauek ziren:

- Berehalako Arretarako Foru Agindua. 2007an, adingabeak harrerako eta/edo larrialdiko zentroan sartu eta hilabete geroago egiaztatzen da agindu hori (*batez beste, 30 egun*). Gainerako Aldundien kasuan bezala, denbora-tarte hori pasatzen uzten da, joatea erabakitzen duten adingabeen sarrerari eta irteerari buruzko administrazio-burokrazia handi ez dadin.
- *Kasu-diagnostikoa*
- *Babesgabezia eta Tutoretzaren Behin Betiko Deklarazioari buruzko Foru Agindua.* Adierazi dugunez, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Legearen arabera (3/2005 Legea), kasuaren balioespena hiru hilabeteko epean eman behar da, eta epe hori soilik sei hilabetera artekoa izango da baldin eta luzapena eskatu eta behar bezala justifikatzen bada. 2007an, epe hori gaintu egin zen, zehazki, *batez bestekoa 4,01 hilabete ziren (90 egun)*. 90 egun horietan, Berehalako Arretarako Foru Aginduaren hilabetea ere zenbatuta dago.

Gizarte Ekintza Sailaren mendeko den Adin txikikoen Balorazioko Batzorde Teknikoak koordinatzailearen eta adingabearen beraren proposamenak aztertuko ditu, eta adingabeari loturako jardun guztiak eta Haurren Zerbitzuak irekitako espedienteak bideratuko ditu.

Ondorengo taulan Bizkaiko Foru Aldundiak gauzatutako tutoretzei buruzko datuak ikus ditzakegu:

62. taula

Bizkaian hartutako Inoren Kargura Ez Dauden Adingabe Migratzaileen (IKEDAM) tutoretzak, 2005-7

	IKEDAMen sarrerak, guztira		Tutoretzak	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)
2005	365	28.0	112	20.9
2006	474	36.3	203	37.9
2007	466	35.7	221	41.2
Guztira	1305	100	536	100

Iturria: Arartekoaren txostena, Bizkaiko Foru Aldundia, 2007. Egileak egina.

Tutoretzen kopurua apurka-apurka handitu zen. *Tutoretza gehien gauzatu ziren urtea 2007a izan zen*, aurreko urtean baino adingabe gutxiago sartu baitziren, eta hiru urte horietako IKEDAMen tutoretzen % 41,2 hartu baitziren urte horretan. Zehazki, *2007an sartu ziren adingabeen % 47ren tutoretzak gauzatu ziren urte horretan*. Iritsi ziren gainerako adingabeen artean, denboraldi horretan zenbaitzuk adin-nagusitasuna bete zuten eta beste batzuk, gehienak, zentrotik joan ziren. Aldundiko egungo zuzentarauaren arabera, *zirkuituan behar adina denboraz, geratzen den adingabe guztien tutoretza gauzatzen da*.

d) Egoitza-baimena

Gainerako Aldundietan ikusi dugunez, adingabearen tutoretza gauzatu denean, adingabe hori egoitza-zentro edo egoitza-pisu batera eraman behar da. Alabaina, hurrengo kapituluetan ikusiko dugun bezala, hori ez da berehala gertatzen; horren ordez, egoitza-babeserako zirkuituan plazaren bat libre geratu arte itxaroten da. Aldi berean, adingabea egoitza-zentro edo egoitza-unitate batera eraman baino lehen iragandako denbora-tarte berean, lege-prozesuak bere bideari jarraitzen dio, larrialdiko eta harrerako zentro guztietan egoitza-baimena lortu arte.

Adingabea zentroetan hartzen dutenean, jatorrizko herrialdeko dokumentazioa eskatzen zaio adingabe horri, egoitza-baimena eskatzeko dossierra betetzen hasi ahal izateko. *Ba-*

tez ere, adingabeen nazionalitatearen arabera da jatorrizko herrialdeko dokumentazio hori lortzeko behar den denbora. Marokoko adingabeek, esate baterako, pasaportea izapidetzeko beharrezkoa den CIN edo nortasun-agiria lortzeko arazo handirik ez dute izaten (hiru-sei hilabete). Jatorrizko herrialdeko dokumentazio guztia Burgoseko Kontsulatuan izapidetzen da. Baina Arabarekin gertatzen den antzeko moduan, Saharaz azpiko adingabeen dokumentazioak denbora asko behar du iristeko.

Bizkaian, Gobernuaren Ordezkariordezara dossierra igortzen da, dokumentazio guztia dagoenean egoitza-baimena eskatzeko. Dokumentazio hori tutoretza gauzatu eta berehala lortzen bada, berehala entregatu behar da. Baina kasu gehienetan ez da horrelakorik gertatzen. Hala eta guztiz ere, Gipuzkoan gertatzen den antzeko moduan, kasu askotan dossierra zazpigarren hiletik aurrera entregatzen da, adingabeak harrera-egoeran emandako bederatzigarren hilabetean egoitza-baimena lortzeko (kasurik hoberenean), atzeritarrei buruzko legeak ezartzen duen moduan. 2007an, egoitza-baimena lortzeko igarotako batez besteko denboraldiak honako hauek izan ziren gutxi gorabehera: 8,24 hilabete, adingabea zentrorra iritsi zen egunetik egoitza-baimena eskatu zuten arte, eta 4,28 hilabete gehiago, baimen hori lortu zuten arte. Horrela, 2007an, adingabea zentroan sartu zenetik *egoitza-baimena lortu zuen arte igarotako denboraldia 12,52 hilabetekoa izan zen batez beste*.

Arartekoaren 2007ko azken txosteneko datuen arabera, 2005ean eta 2006an 10,7 hilabetetan lortzen ziren batez beste. Beraz, 2007an denboraldi hori handiagotu egin da.

Ondoren, IKEDAMek eskatutako eta lortutako egoitza-baimenak ikusiko ditugu, azken urteotan Bizkaiko zentroetara iritsitako adingabeen kopuruari dagokionez.

63. taula
Inoren Kargura Ez Dauden Adingabeek (IKEDAM) Bizkaian eskatutako eta lortutako egoitza-baimenak

	Hartutako IKEDAMak guztira		Egoitza-baimenak			
			Eskatutakoak		Lortutakoak	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)	Kop.	(%)
2005	365	28,0	109	27,3	73	30,2
2006	474	36,3	89	22,3	68	28,1
2007	466	35,7	202	50,5	101	41,7
Guztira	1305	100	400	100	242	100

Iturria: Arartekoaren txostena, Bizkaiko Foru Aldundia, 2007. Egileak egina.

Baimen-eskabideek modu egonkorrean egin zuten gora. 2007an handia gotze garrantzitsua gertatu zen, eta eskabide horien % 50ek baiezkua jaso zuten. Aurreko urteetan ez zen gauza bera gertatu, aurkezpen kopurua txikiagoa bazen ere, ebazpen positibo gutxiago eman baitziren proportzionalki; horrela, izapide horretara aurkeztu ziren hartutako adingabeen kopurua horien oso antzekoa da. *2007an 202 egoitza-baimen eskatu ziren* (eskabide gehien izan zituen urtea), *baina erdia baino ez ziren lortu*. 2006an eta 2007an zentroetan sartu ziren adingabeen batezbestekoa egiten badugu (940) —urte horiek adingabeak iritsi ziren denboraldiarekin bat datoz beharbada—, *egoitza-baimena adingabeen % 11k baino ez zuela lortu* ikusiko dugu.

Hain ehuneko txikia lortu izanak badu zergati nagusi bat: adingabe talde batek epeak amaitu baino lehen alde egin zuen zentrotik, eta beste taldeak adin-nagusitasuna bete zuen epe horiek amaitu baino lehen (batez besteko 12,52 hilabete 2007an). Hori dela-eta, datu horiek ez dira Foru Aldundiaren estatistiketan agertzen, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Saileko Gizarte Bazterketaren aurka Borrokatzeko programan baizik, *Mundutik Mundura* programaren barruan, hain zuzen ere; Hirugarrendar Kaputxinoen erakundearen *Lagunetxe* programako memorietan ere agertzen dira, zehazki, Asociación Amigonianos elkarteak, eta baita duela gutxi *Hemen* deritzon emantzipazio-programan ere. Datu fidagarriak lortzeko, administrazioaren bi sail horiek eta adierazitako bi elkarteek lortutako egoitza-baimen guztiak gehitu beharko lirarteke.

e) *Lan-baimena*

Egoitza-baimena lortu ondoren, EAEko beste bi Aldundiekin gertatzen den bezala, profesionalek eta teknikariek zailtasun handiak izan ohi dituzte IKEDAMentzako lan-eskaintzak aurkitzeko, baita adingabeek prestakuntza duten kasuetan ere (horien gutxiengo batek baino ez du lortzen eskaintzaren bat praktikak egiten ari diren enpresa berean). Lan-eskaintza ezinbestekoa da *lan-baimena* izapidetzeko, eta lan-baimena lortzea da adingabeen azken xedea. Lan-baimena eskatzeko, adingabeak 16 urte izan behar ditu, eta horretaz gain, gurasoek lan egiteko baimena eman behar diote aldez aurretik. Lehen adierazi dugunez, 16 urte bete ondoren, IKEDAMak *bere jarduerak gauzatzeko lan-baimena izateko betebeharretik salbuetsita gera daiteke*.

Ondoren, 2005-2007an eskatutako eta lortutako lan-baimenak adieraziko ditugu:

64. taula

Inoren Kargura Ez Dauden Adingabe Migratzaileek (IKEDAM) Bizkaian eskatutako eta lortutako lan-baimenak

	IKEDAMen sarrerak, guztira		Lan-baimenak			
			Eskatutakoak		Lortutakoak	
	Kop.	(%)	Kop.	(%)	Kop.	(%)
2005	365	28,2	4	20,0	4	25,0
2006	474	36,6	4	20,0	4	25,0
2007	455	35,2	12	60,0	8	50,0
Guztira	1.294	100	20	100	16	100

Iturria: Arartekoaren txostena, Bizkaiko Foru Aldundia, 2007. Egileak egina.

Ikus dezakegunez, *lan-baimenen ehunekoak oso txikiak izan ziren* urte horietan guztietan. *2005-2007an 16 lan-baimen baino ez ziren lortu, hiru urte horietan iritsi ziren adingabe guztien* (1.294 adingabe) % 1, *hain zuzen ere*; Lanbide Hastapenerako Ikas-taroaren prestakuntza-prozesua amaitu eta lan-baimena eskatzeko lan-eskaintza lor daiteke urte horietan. Soilik 15 urterekin iritsitako adingabeek lor dezakete lan-baimenik adin-nagusitasuna bete baino lehen (12,52 hilabete egoitza-baimena lortzeko, bi urte LHIKn —aurreko hilabeteetan hasten bada—, eta eskaintza lortzeko behar den denbora).

Horren arrazoi nagusia zera da, adingabe gehienek, egoitza-baimenarekin gertatzen den antzera, normalean adin-nagusitasuna bete ohi dute lan-baimena lortu baino lehen. Hori dela-eta, datu fidagarriak lortzeko, bi administrazioek eta bi elkarteek lortutako lan-baimen guztiak gehitu beharko lirateke, lehen adierazi dugun bezala.

Lan-baimena lortzeko *gutxi gorabeherako denbora*, Arartekoaren 2007ko txostenaren arabera, *bi hilabetekoa (60 egun)* izan zen *azken bi urteetan (2006an eta 2007an)*, eskatu zen egunetik zenbatzen hasita, eta beraz, 2005arekin alderatuz, itxarondako denbora bi hilabete eta erdi motzagoa izan zen. Hala eta guztiz ere, adingabeak LHIKko bi prestakuntza-urteak amaitzen dituenetik lan-eskaintza lortzen duen arte, eskabideak 2,5 urte behar ditu batez beste (gutxienez).

f) *Laburbilduz, Marokoko nazionalitatea duten adingabeek Bizkaian dokumentazio guztia lortzeko epeak honako hauek dira*

2007an, Marokoko adingabe bat Bizkaian dokumentatzeko batez besteko epeak honako hauek izan ziren: lau hilabete behin betiko tutoretza lortzeko, hiru-sei hilabete Nortasun Agiria eta pasaportea lortzeko, 12,52 hilabete egoitza-baimena lortzeko (adingabea zentroan sartzen denetik egoitza-baimena eskatzen duen arte, 8,24 hilabete, eta egoitza-baimena lortzen duen arte, 4,28 hilabete gehiago), gutxienez urte eta erdi LHIK baitan praktikak egiteko eta lan-eskaintza lortzeko (18 hilabete), eta azkenik, bi hilabete lan-baimena lortzeko. Horrela, Bizkaiko lurralde historikora iritsitako Marokoko adingabea bi urte eta zortzi hilabetetan dokumentatuta egongo da baldin eta epe guztiak ezarritako batezbestekoen arabera betetzen badira (hots, hiru bat urtetan).

g) *Aberriratzeak*

Formaltasunei dagokienez, atzerritarrei buruzko legeak ezarritakoari jarraitu ohi zaio Bizkaian: txosten bat irekitzen denean, Gobernuaren Ordezkariordeztara zirkular bat igorri ohi da automatikoki; zirkular horren bitartez, familia lokalizatzeko premiatu ohi da Gobernuaren Ordezkariordeztara, familia berriz elkar dadin lortzeko. Halere, izapide hutsa da hori. Behin betiko tutoretza eskatzeko, Gobernuaren Ordezkariordeztak adingabearen dokumentazioa badu, igorri egiten du.

Behin betiko tutoretzarako Agindua ematean, adingabe guztiak familiarekin berriz elkartzeko eskatu ohi da (besterik adierazi ezean), baina prozesu hori normalean ez da gauzatzen. Adingabeen Fiskaltzara, Gobernuaren Ordezkariordeztara, Atzeritartasun Poli-ziaren Buruzagitza Nagusira, *Bizgarri* elkartera (adingabeei dokumentuak lortzen dizkie horrek), adingabea bizi den zentrori eta Marokoko Kontsuletxera igortzen da dokumentu hori. Azken horiek, duela urte era erdi baino gehiago, tutoretzaren jakinaren gainean ego-
tea eskatu zuten.

Gainerako Aldundietan gertatzen den bezala, adingabeak bere herrialdera ez itzultzea erabakitzen badu, era haren familiak ere itzulera hori baztertzen badu (adigabearen har-
rera-zentrokoek telefono bidez deituz lortu ohi dute informazio hori), familiarekin berriz elkartzeko prozesua itxita geratzen da automatikoki, adingabea familiarekin elkartzearen aldekoa ez den txosten bat ematen baitu Aldundiak .

2005ean eta 2006an, familiarekin elkartzeko lau prozesu baimendu ziren; horietako bat Gobernuaren Bizkaiko Ordezkariordeztak eman zuen, eta gainerako hiruak, berriz, Biz-
kaian bizi ziren adingabeen kasuak baziren ere, Gobernuaren Bartzelonako Ordezkarior-

detzak eman zituen. Bizkaian egindako bakarra baimen judizialeko prozedura izan zen, eta Adingabeen Epaitegian jakinarazi zen, eta ez Aldundian zuzenean; hala eta guztiz ere, fiskaltzaren eta aldundiaren arteko akordioa izan zen, Aldundiak jakinarazi zuenez, adingabea «ez baitzen babes-zirkuituan egokitzen, eta hainbat auzi baitzituen irekita». Iturri berberaren arabera, mutil hori Bizkaira itzuli zen geroago, adin-nagusitasuna bete ondoren.

Gobernuaren beste Ordezkaritzek emandako aginduei dagokienez, adingabearen egoitzabaimena eskatu zenean Gobernuaren Ordezkariordeztan familiarekin berriz elkartzeko agindua agertu zelako atzeman ziren horrelakoak. Orduan jakinarazi zitzaion adingabeari. Hiru agindu gauzatu ziren, baina beste batzuk, berriz, ez, familiarekin berriz elkartu baino lehen adingabeak zentrotik joan baitziren.

2007an adingaberik ez zen familiarekin berriz elkartu, ezta 2008ko abendura arte ere.

8.1.3.2. IKEDAMen harrera-sarearen bilakaera

EAEko hiru lurralde historikoetatik, Bizkaiak hartzen du IKEDAM kopuru handiena, fenomenoaren dimentsioari buruzko kapituluan ikusi dugun bezala; lurraldean dauden baliabide guztiei lotuta dago datu hori. IKEDAM kopurua batez ere 2001ean handiagotu bazen ere, lehen adingabeak 1996an iritsi zirela jasotzen duten datuak ditugu. *Zabaloe-txe* Zentroko datuen arabera, inoren kargura ez zeuden lehen adingabeak 1996an iritsi ziren; zehazki, bost adingabe zenbatu ziren, eta kopuru horrek gora egin du apurka-apurka; 2000. urtean 52 adingabe zeuden.

Horren ondoren, IKEDAMak agertu zirenetik gaur egunera arte IKEDAMEi arreta emateko babes-zirkuituak izan duen bilakaera berreraikiko dugu, adingabeek Bizkaian izandako arreta ulertzeko.

a) 1. etapa (1996-2000): Zirkuitu normalizatutik zirkuitu espezializatura

Lehen adierazi dugunez, 1996an iritsi ziren lehen adingabeak *Zabaloe-txe* zentroan hartu ziren (*Loiuko* zentro izenez ere ezagutzen da). Adierazitako zentro hori 1963an sortu zuen Probintziako *Congregación de los Religiosos Terciarios Capuchinos* izeneko Luis Amigó-ren kongregazioak, eta 1885era arte, *Adingabeak Babesteko Bizkaiko Probintziako Batzordearen* mendekoa zen; era berean, batzorde horrek *Adingabeak Babesteko Kontseilu Nagusiaren* finantzaketa jasotzen zuen. 1985ean, Eusko Jaurlaritzara transferitu ziren Gizarte Zerbitzuetako baliabide guztien eskumenak, eta Eusko Jaurlaritzak, era berean, eskumen horiek EAEko Aldundietara transferitu zituen. 1986ko urtarilaren 11n

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea sortu zen, eta zentro guztiak atxiki zitzaizkion erakunde horri, baita *Zabaloetxe* zentroa ere.

2000ko uztailaren 31ra arte, *Zabaloetxe* zentroak lurraldeko mutil eta neskak hartzen zituen. Adingabeak babesteko 100 plaza zituen, 25 adingabeentzako lau modulutan banatuak. Egun hori baino lehen, harrera-zentroen eta egoitza-zentroen eginkizunak zituen zentro horrek. Horrela, urte horietan lehen IKEDAMak leku horretara eraman zituzten (bost adingabe 1996an, 15 adingabe 1997an, 23 1998an, 48 1999an eta 52 2000n). Ikus dezakegunez, 2000. urtean 52 adingabe hartu zituen zentro horrek, eta une jakin batzuetan zentroak gainokupazio handia izan zuen, kontuan hartuz Lurraldeko adingabeei ere arretra ematen zuela.

1996an inoren kargura ez zeuden lehen adingabeak iristen hasi ziren, eta 99an gogeta zuhurra egin genuen, adingabeen kopuruak gora egin baitzuen eta erabakiren bat hartu behar baitzen, beste gai batekin batera, adingabe gatazkatiak gaiarekin, hain zuzen ere. Eta guri eskaini ziguten bi proiektu espezifiko horien ardura hartzeko, gainerakoak etxebizitza edo etxe funtzionalak edota oinarritzko babesa (eta ez babes espezifikoa) eskaintzen zuten zentroak baitziren. (*Zabaloetxe Zentroko zuzendaria*. 2008/04/18).

Horregatik, 2000ko abuztuaren 1ean beste hitzarmen bat sinatu zen Aldundiarekin, soilik mutilentzat ziren bi proiektu berriekin:

- *IKEDAMEi zuzendutako proiektu espezifiko bat*, 18 plazarekin; zentroan hartuta zituzten 18 IKEDAMek bete zituzten plaza horiek.
- *Eta sozializazio-arazoak zituzten lurraldeko adingabeentzako beste proiektu bat*, 16 plazatakoa.

2000ko irailetik abendura bitarteko hilabeteetan, iritsitako IKEDAMen kopuruak gora egiten jarraitu zuen, eta beraz, IKEDAMentzako proiektuan beste bi modulu ireki zituen *Zabaloetxe* zentroak. Hiru modulu horiek (harrera-modulu bat, egoitza-modulu bat eta autonomia-modulu bat) irekita zeudela, gehienez 54 IKEDAM har zitzakeen. Horrela, 2001eko urtarilean, Aldundiarekin lehen sinatutako hitzarmena aldatu zen, bigarren modulua eta jadanik abian zegoen hirugarren modulua hartzeko. 2001aren hasieran, *Zabaloetxe* zentroak ezin zituen bertara bidalitako adingabe guztiak hartu hitzartutako plazeekin. Horregatik, hilabete geroago, 2001eko otsailean, aurreko hitzarmenari Klausula bat erantsi zitzaion, zentroak plaza gehiago izan zitzan, zehazki, 25 IKEDAM gehiago har zitzan. Harrez gero, zentroak 18 adingaberentzako bi modulu (egoitza-modulu bat eta autonomia-modulu bat) eta 36 plazako harrera-modulu bat zituen, hots, 79 plaza guztira.

Nabarmendu beharrekoa da *Zabaloetxe* zentroak sortu izan zaizkion premietara egokitze gaitasuna izan duela beti. Erlijio-erakunde pribatua denez gero, nolabaiteko independentzia ekonomikoa izan du (gauza bera gertatzen da beste hainbat erlijio-erakundekin), eta askotan izan du gertatzen ari ziren aldaketei bizkor aurre egiteko gaitasuna, askotan administrazioari aurrea hartuz; era berean, aldundiak diruz laguntzeari utzitako IKEDAMentzako zenbait baliabideri jarraipena eman ahal izan die, 2008aren amaieran *Lagunetxe* Programarekin gertatu zen bezala.

Urte horietan, *Zabaloetxe* zentroak batez besteko hiru bat hilabeteko epean lortu zituzten dokumentuak iristen ziren adingabeei; adingabe ugari zituzten beste zenbait Autonomia Erkidegok, hala nola, Andaluziak, Valentziak, Kataluniak eta Madrilek, urtebete-tik gora behar zuten egoitza-baimena lortzeko. Ezohiko gertakari hori mugitzen hasi zen IKEDAMen sareko zurrumurru-sarean, eta horietako askok Autonomia Erkidegoz aldatzea erabaki zuten, aukera gehiago izateko.

2000. urtetik aurrera, neskei Bizkaiko *Argileku* harrera-zentroan arreta ematen hasi zitzaizen, zentro hori ere Hirugarrendar Kaputxinoen emakumeen erlijio-ordenan. Urte horretan hartu zuten Inoren Kargura ez zegoen Emakume Adingabe bat lehen aldiz. Zentro hori 1979an ireki zen lurraldeko neskak hartzeko; garai hartan «*Familia Santua*» zeritzon. Hainbat modulu zituen zentro handi bat zen, eta 40 plaza baino gehiago zituen. 1999an *Argileku* harrera-zentroa bilakatu zen, eta 12 plaza baino ez zituen (urgentziazko bi plaza eta 10 harrera-plaza).

b) 2. etapa (2001-2003): *Iritsitako adingabeen lehen booma. Gainokupatutako zirkuitu espezializatua, adin nagusiko pertsonentzako zirkuitu informal berria*

Fenomenoaren dimentsioari buruzko kapituluan ikusi dugunez, 2001. urtearen ezaugarri gisa, *IKEDAMek helduerak inflexio-puntua* izan zuela nabarmendu behar da. Lehen adierazi dugunez, 356 adingabe iritsi ziren urte horretan, aurreko urtean baino 303 gehiago. 2000. urtean *Zabaloetxe* zentroak zailtasunak zituen iristen zitzaizkion adingabe guztiak hartzeko, baina 2001ean, lan hori balentria bilakatu zen ia. Horrela, hitzartutako 79 plazekin eskaerari ezin zioten erantzun.

(...) 2001ean inoren kargura ez zeuden adingabeen booma izan genuen nolabait esateko, eta harrez geroztik, boom hori etengabe handiagotu da, hainbeste, non planifikatzea oso zaila den. (Bizkaiko Foru Aldundia. 07/04/20).

Horregatik, 2001eko ekainean, Aldundiak beste zentro bat ireki zuen, *Zabaloetxe* zentroan egoitza-harreran zeuden adingabeetako batzuei arreta emateko, eta horretaz gain,

beharrezkoa balitz, *Zabaloetxe* zentroak harrera-plazen kopurua handiagotzeko aukera izan zezan. Baliabide berri horri «*Orduña egoitza-zentroa*» zeritzon (*Gabriel M.^a de Ibarra Zentroa*), *30 plaza zituen* eta GUFek kudeatzen zuen zuzenean.

Aldundiak adierazi duenez, lehen urte horietan IKEDAMen arretan «jardunbide onak» egin ziren, eta horren ondorioz, beste Autonomia Erkidegoetan zeuden adingabeen »erakarpén-polo« bilakatu zen EAE. Garai hartan, historikoki IKEDAM asko jaso zituzten Autonomia Erkidegoak (Andaluzia, Katalunia, Valentzia eta Madril) gainsaturatuta zeuden eta iristen zitzaizkien IKEDAM guztiak nekez har zitzaketen. Horren ondorioz, urgentziazko eta harrerako baliabideetan hilabete asko ematen zituzten adingabeek, dokumentazioa lortu gabe eta irtenbide azkarrik aurkitu gabe. Eta horrek guztiak motibazioa kendu zien adingabeei, eta beste IKEDAMak, hezitzaileak eta horien aldeko pertsonak EAEn IKEDAM-ek aukera gehiago zituztela esaten hasi ziren. Horrela, urtebeteko denbora-tartean Bizkaiko babes-zirkuituak ere gainokupatuta amaitu zuen bizkortasun handiz.

Aldundiko politika beti ez da izan berdina. Nire ustez, Bizkaian gauzak ondo egin nahi izan dira. (...). Psikologiari, hezkuntzari, osasunari nahiz beste hainbat alderdiri dagokienez, betiere legaltasunari, legeak ezartzen duenari erantzuten saiatuz. Horren guztiaren eraginez, «erakarpén-polo» bilakatu gara. (Bizkaiko Foru Aldundia, 2007/04/20).

Horri dagokionez, Haurren Zerbitzuko buru Adoración de la Fuente andreak adierazi duenez, Autonomia Erkidegoen artean ez zegoen koordinaziorik, ezta baterako irizpiderik ere, eta horren eraginez, gainsaturazioa zegoen:

Euren artean harremanetan jartzen dira, eta berehala dakite autonomia-erkidego bakoitzaren funtzionamendua nolakoa den. Guk ez dakigu zer dela-eta... zer dela-eta Bizkaian, gaur egun, inoren kargura ez dauden adingabe kopuru handiena dagoen, biztanleen ehunekoa kontuan hartuz, eta Kanariar Uhartean atzetik (...) Benetan kritikoak diren egoerak ditugu, adingabeen kopuru handiekin; nire ustez, adingabe atzerritarrek oso ondo ezagutzen dute gure erkidegoko babes-sistema. Eta baita esparru horretan lan egiten dugun erakunde desberdinek behar bezalako koordinaziorik ez dugulako ere... Nire aburuz, funtsezkoa da autonomia-erkidego guztiek egiten dutena ezagutzea, adingabeak leku batetik bestera aldatzeko irizpideak ezartzea, adingabe horiek gizarteratzeko oso politika antzekoa izatea guztiok; izan ere, adingabeek, pikarokeria erabiliz, erkidegoz aldatzen dira, pisu batean biziko direla baitakite, baina hori, funtsean, kaltegarria da, erkidego horiek saturatzen baitituzte, eta beraz, erkidego horrek beharbada beste kopuru jakin batentzat planifikatuta dituen baliabide guztiak ezin baititu eman; adingabe atzerritar horiek modu antolatuan eta planifikatuan iritsiko balira, aldez, baliabide horiek hobeki planifikatuko lirateke. (Bizkaiko Foru Aldundia. 07/04/20).

Zirkuituaren gainokupazioko urte horien ondorioz, *Zabaloetxe* eta *Orduña* zentroetan hainbat gatazka gertatu ziren, eta adingabeei behar bezala arreta emateko eta harrera egiteko zailtasun handiak izan ziren.

Batez ere 2001etik aurrera¹²⁷, Asociación Amigoniana Elkartearen bitartez Loiuko Zabaloetxe Zentroan hartutako adingabeen gizarteratze-premiei hobekien erantzuteko, egokitzat jo zen autonomia-moduluko adingabeei gizarteratze-prozesuan laguntzea, tutoretzaren eta laguntza-harremanaren bitartez, bakoitzaren kasua kudeatuz, bakoitzaren premiak eta baliabideak ebaluatuz, planifikatuz, esku hartuz, koordinatuz, bakoitzaren prozesu eta emaitzak ebaluatuz, behin betiko irtenbidea faboratuz. *Lagunetxe* izenez ezagutzen zen programa hori. 18 urte betetzear zeuden adingabeentzat nahiz jadanik 18 urte zituztenentzat zen programa hori. 2001ean (18 plaza), 2002an (33) eta 2003an (47) lehen pisuak ireki zituen (Zabala, Asua, Aresti, Errekatzu, Loren, Karmele eta Abaro), guztiak lau plaza-takoak. Adingabeek jasotako finantzaketa pisuaren alokairurako, elikadurarako, ikastaroetarako edota garraiorako zen.

2001etik 2003ra, Argileku harrera-zentroak 15 neska hartu zituen, batez ere Errumaniakoak eta Marokokoak. Prostituzioan eta/edo lapurretan ari zirela atzemandako Errumaniako nesken joera zentroan gehienez egun bat edo bi egotea zen. Ikus dezakegunez, lehen urte horietan emakumezko IKEDAMek zirkuitu paralelo eta marjinalak erabiltzen zituztela atzeman zen. Hala eta guztiz ere, horrelako neskak pixkanaka iristea ez zen deigarria izan Aldundiarentzat, ez zuen horren gaineko hausnarketa garrantzitsurik egin, gizonetzko IKEDAMEi arreta emateko lanean murgilduta baitzegoen.

2001eko gorakadaren ondoren, hurrengo urteetan beherakada txiki bat gertatu zen, eta 2004an, bestalde, berriz ere gora egin zuen; halere, 2001ean gertatutakoa bezain gorakada ikusgarririk ez zen berriz ere gertatu.

c) 3. etapa. 2004-2005: Harrera- eta egoitza-plaza gehiago ireki ziren. Adinez nagusi diren gazteentzako programa ofizial bat agertu zen

2004an eta 2005ean berriz ere gorakada izan zuen iritsitako adingabeen kopuruak (232 adingabe 2004an eta 378 adingabe 2005ean). Adingabeen bolumen handi horrek etengabeko desegonkortzea eragiten zuen adingabeak hartzen dituzten zentroetan; horrela, Aldundiak ezin zuen jarduna epe luzera planifikatu.

¹²⁷ 2002an bi plaza ireki zituzten.

2004an *Orduña* zentroak gatazkak izaten jarraitu zuen. Zentroak sutea izan zuen urte horretako martxoaren 22an, horrek hainbat ondorio larri izan zituen, eta gainera, auzokoek ez zuten zentroa onartzen, eta beraz, 2004ko ekainean zentroa ixtea erabaki zuten.

Martxoaren 22ko gertaera horiek Orduña ixtea faboratu zuten, baina gorabeheren zerrenda luze bateko azkenak izan ziren. Acción Social alderdiko diputatu Juan María Aburto jaunak egunsenti horretan ikusitakoa «atsekabegarria» zela esan du. 18 urteko gazte batek harrera-zentrotik atera nahi ez izatea izan zen eztabaidaren aitzakia. «Egoera zakartu egin zen, eta hezitzaileak mehatxatu eta kristalak hautsi ondoren, altzariak atera eta txikitu zituzten, eta gero, eskailerako zulotik eta leihoetatik bota zuten guztia», esan du Aburtok, eta nabarmendu duenez, gertatutakoa gaitzes-ten zutela esan zioten zenbait gaztek. Hori gertatu zen unean, hiru zaintzaile eta hiru hezitzaile zeuden zentroan, eta istiluetan inplikaturak 10 baino ez baziren ere, Ertzaintzara deitu behar izan zuten. Epaileak sakabanatzea agindu zuen. Adinez nagusia zenari Orduña zentrori itzultzea debekatu zaio, eta Aburtoren hitzetan, beste hainbat aukera eskaini bazitzaizkion ere, ez dakite non dagoen. Adingabe bat Loiura eraman zuten, beste bost, Mendixolako eta Zumarragako erregimen itxiko zentroetara (hiru, eta bi, hurrenez hurren), eta beste bi, azkenik, Ortuellara. Eraikinak eta altzariak 200.000 euroko kalteak izan dituzte. (Isabel Camacho, 04-04-03, *El País* egunkaria, Euskadiko edizioa).

Gertakari horiek eta azken urteetan izandako esperientziek IKEDAMEi arreta emateko zirkuitua berriz pentsatzea eragin zuten. *Orduña* zentroko adingabeak birkokatzeko, *Bizikidetza Unitate* txikiak irekitzeko erabakia hartu zen, lurraldeko adingabeen ereduaren antzera. lau pisu ireki ziren, horietako hiru Bilbon, eta beste bat Basaurin: *San Ignacio Zentroa*, zortzi plazatakoa, *San Adrian BU*, sei plazatakoa¹²⁸, *Zurbaran BU*, 13 plazatakoa, eta *Basauri BU*, zazpi plazatakoa. *Guztira, 34 plaza*. Guztiak titulartasun publikokoak ziren, baina *San Ignacio*-ren kasuan, geroago *Landalan Elkarteak* kudeatuko zuen.

2005eko urrian, *Berrizen harrera-zentro* berri bat ireki zen, eta *Zabaloetxe* zentroan zeuden harrera-erregimeneko adingabeak bertara eraman ziren. Hainbat hilabeteko denbora-tartean adingabeak zentro horretara aldatu ziren. *30 plaza* izan zituen zentro horrek, eta *Landalan Elkarteak* kudeatu zuen, *Gizarte Ekintzako Sailarekin* sinatutako hitzarmen baten bitartez. Zentro hori behin-behineko zentro gisa ireki zen hasiera batean, egokiagoa zen eraikinen bat lortu arte. Alkatetzak ondo onartu zuen hori. Zentro hori gainokupatuta geratu zen laster, eta gatazka larriak izan zituen.

¹²⁸ Hasiera batean, zortzi plazarekin ireki zen, baina geroago, sei plazarekin geratu zen, adingabeak *Zurbaran* zentrori aldatu baitziren.

Lagatako eraikina zen Berriz zentroa, elkarte batek alokairuan utzi zigun aldi baterako, eta gainera, eraikina txikiegia geratu zitzaigun, adingabe atzerritar gehiago iritsi zirelako eta egurrezko eraikina zelako. (...) Tira, segurtasunaren kontuari beldurra genion, suteak izateko arriskua, eta abar, eta eraikina hondatzen ari zen, beterik baitzegoen. Orduan, asko narriatzen ari zen, eta gainera, konpromisoa ez zen egoe-raren arabera, Udalak baitzuen azken hitza; probidentzia-kontua zen, kokapen zehatzagorik aurkitu arte. Hala eta guztiz ere, urte horietan baserriak erosten, etxeak alokatzen, eta zera bilatzen saiatu ginen... (Bizkaiko Foru Aldundia. 07/04/20).

Harrera-zentro berri hori ireki zenean, *Zabaloetxe* zentroa *lau egoitza-modularekin* geratu zen (bakoitza 18 adingaberentzako lekuarekin), *guztira 72 plazarekin*, hain zuzen ere. Alabaina, zentro berri horrek ez zuen galarazi *Zabaloetxe* zentroak gainsaturatuta jarraitzea, ezta horrek eragindako gatazkak gertatzea ere. 2005eko amaieran, «*Orduña berria*» bilakatzeko arriskuan zegoela ohartarazi zuten zentro horretako hezitzaileek.

«Loiuko Zabaloetxe adingabeen zentroa eztanda egiteko zorian dagoen lehergai-lua dugu. Hori gauza jakina da. Egoera horrek hezitzaileak, zentroko arduradunak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Saila gaindikatzan ditu duela bi urtez geroztik hona, eta orain arte hartutako neurriek ez dute egoera bideratzeko balio izan; zentroari lotutako iturrien hitzetan (egunkari honek kontsultatutakoak), orain arteko neurriak «ezer ere konpontzen ez duten adabakiak baino ez dira». «Ezin dugu gehiago, baina alde egitea ere ez da konponbidea. Lana uzten badugu edota baja hartzen badugu, zentroa bertan behera eroriko da, eta zentroarekin batera, gu», iturri horiek adierazi dutenez. Oraingoz zentroko adingabe batek eragindako azken liskarrak, hots, azaroaren 22an gertatutakoak, zentroko hezitzaileen pazientzia agortu du, eta beraz, zentroko hezitzaileek Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Adingabeen Fiskaltzara jakinarazpen bat igorri zuten joan den ostiralean, erakunde-alorreko tratutxarreko kasu argia dela baiteritze». (Alain Laiseka, 05-12-02, deia.com egunkaria)

Egoera horren aldi berean, Bizkaiko Foru Aldundiak 2004an egindako ikerlan bat abiapuntutzat hartuz, eta Bizkaiko Foru Aldundiak *Zabaloetxe* zentroak *Lagunetxe* programaren bitartez abian jarritako zirkuitu informala (jardunbide onen eredu) aintzat hartu ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Saileko Gizarte Bazterkeriaren aurka Borroka egiteko Zerbitzuak «*Mundutik Mundura*» Programa abian jarri zuen. Programa horren xedea zera zen, *Lagunetxe* programaren antzera, gizarte-bazterkerian edota gizarte-bazterkeria izateko arriskuan zeuden gazteei emantzipazio-prozesuan laguntzea. Bost elkarte kudeatzen zuten programa hori: Agiantza elkarteak, Elkarbanatuz elkarteak, Lagun Artean elkarteak, Goiztiri elkarteak, eta Hirugarrendar Kaputxinoen elkarteak (Asociación Amigonianos elkartearen bitartez). 2005. urtean, 152 gazteri eman zitzairen arreta.

Horrela, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailaren *Gizarte Bazterkeriaren aurka Borroka Egiteko Zerbitzuarekin* eta *Lagunetxe* programa kudeatzen zuen Asociación Amigonianos elkartearekin sinatutako hitzarmena formalizatu zen 2005eko azaroaren 28an, emantzipazio-prozesuan zeuden 60 etorkin gazteri eta intentsitate arineko laguntza behar zuten 22 gaztez osatutako talde bati tutoretzapeko etxebizitzaren bitartez egoitza-zerbitzua emateko; horretaz gain, intentsitate ertain edo altuko laguntzarako beste 38 plaza zeuden. *Zehazki, 2004an programa horrek 47 plaza zituen* (guztiak hitzartu gabek) *eta 2005ean, berriz, jadanik 100 plaza zeuden* (horietako 60, hitzartuak). Aurreko etapan irekitako pisu gehienei eutsi zitzairen urte horietan, eta gainera, pisu gehiago ireki ziren: *Darío, Sotera, Xabarri, Zaho, Bidaurre, Libano, Carma, Mendi, Ganekoi, Nafarroa, Zubiak, Machado* eta *Gernika*.

2004an eta 2005ean, bestalde, adingabe batzuk lurraldeko adingabeen Etxe Funtzional-etara bidali ziren, zehazki, honako hauek: *Fueros EF, Murieta EF* eta *Mungia EF*.

d) 4. etapa. 2006-2007: *Iritsitako adingabeen bigarren booma. Larrialdiko eta harrerako zirkuitu espezializatua handiagotu zen*

2006ko urtarrilean, *Berriz* harrera-zentroa (behin-behinekoa) «*Amorebieta-Zornotza*» harrera-zentrora aldatu zen. Zentro berri horrek aurrekoak baino 15 plaza gehiago zituen, iristen ziren adingabeen premiaiari erantzuteko; horrela, *guztira 50 plaza izatera aldatu zen*. 2006an etengabe iritsi ziren adingabe gehiago: urtearen amaieran 476 iritsi ziren guztira. Hainbeste adingabe iritsi izanaren ondorio nagusia zera izan zen, *Amorebieta-Zornotza* beti gainokupatuta zegoela, eta horrek, gainera, hainbat gatazka eragin zituela. Une jakin batean, zentro horrek 90 adingabe baino gehiago hartu zituen (hitzartutako kopurua baino 40 gehiago).

90 izatera iritsi ginen (...). Orduan, premiazko erabaki bat hartu zen. Ezin genuen gehiago, larrialdietarako zentroren bat ireki behar zen Amorebieta-Zornotza zentroa husteko; tira, sare arruntean ere adingabeak bazeuden. Beraz, etxe funtzionaleko pisu guztiak, pribatuak zein publikoak, adingabe atzerritarrentzat ireki ziren. (Bizkaiko Foru Aldundia. 07/04/20).

Adoración de la Fuente zerbitzuko buruak adierazi zigunez, 2006an egoitzarako bizikidetza-unitate txiki gehiago sortu ziren. Maiatzean, 12 plazatako «*Aukera Heziketa Zentroa*» BU sortu zen Burtzeñan (Barakaldo), eta irailean 14 plaza izatera aldatu zen. *Berriztu Heziketa Elkartek* kudeatzen zuen BU hori. Irailean bi bizikidetza-unitate eratu ziren. Orduan, sei plazatako *San Adrian* BU *Mina del Morro* BUra aldatu zen, eta beraz, sei

plaza gehiago zituen azken horrek, hots, guztira, 12; GUFeren zuzendaritzapeko etxebizitzaren sareak ikuskatzen zituen BU horiek, eta Santurtziko 10 plazatako *Casa del Mar* BU, berriz, Zabaloetxe Zentroak.

Era berean, GUFeren mendeko funtsezko sareko etxe funtzional guztiei plaza bat gehiago erantsi zitzairen: «*Basauri EF, Txurdinaga EF, Portugalete EF, Santurtzi EF, San Adrian EF, Sarriena EF*». 2007an, garai hartan zirkuituan zeuden Etxe Funtzional guztiei bi plaza erantsi zitzaizkien. Era berean, urte horretan hiru Etxe Funtzional gehiago ireki ziren, eta horietako bi plaza IKEDAMentzat gorde ziren: «*Zabalburu EF, Amigó EF eta Iparragirre EF*».

Lehen adierazi dugun bezala, 2006an ere hainbat gatazka gertatu ziren «*Amorebieta-Zornotza*» harrera-zentroan. 2006ko urriaren bederatzian sutea gertatu zen zentroan; El Correo digital egunkariaren Bizkaiko edizioan honako hau jaso zen: «*Lau adingabe atxilotu dituzte Amorebieta-Zornotza harrera-zentroari su emateagatik; adingabeak bertan bizi ziren*».

Joan den ostegunean Ertzaintzak lau adingabe atxilotu zituen, Bizkaiko Amorebieta-Etxanoko udalerrian kokatutako harrera-zentro bateko pabilioi bati su ematen saiatzeagatik. Herrizaingo Sailak egiaztatu duenez, adingabeetako bat horrelako adingabeentzat prestatutako lokal baten barneko adingabe bat da. (El Correo digital, Bizkaiko edizioa, 06-10-09).

Derrigorrean Aldundiak etengabe plaza gehiago ezarri behar bazituen ere, ikusi dugun bezala, adingabe gehiago iristen ziren, eta behar adina plaza ez zeuden. Horrela, 2006ko urrian, *Amorebieta-Zornotza* harrera-zentroan eragindako sutearen ondoren, eta zentro horretara iristen ziren adingabeei arreta emateko behar adina plaza ez zeudela kontuan hartuz, «*El Vivero*» izeneko *larrialdi-zentroa* ireki zen Galdakaoko udalerrian; 50 plaza zituen zentro horrek, eta behar baten, *65 plazatan handi zitekeen*. Une jakin batzuetan, zentro berri horrek 74 plaza baino gehiago izan zituen. Oso leku isolatuan dago zentro hori, eta oso komunikazio txarra du, garraioari dagokionez.

Tira, 2006ko urrian, zentroetan zegoen gainsaturazioa ikusirik, «*El Vivero*»-ko Urgentziazko Zentroa ireki behar izan genuen, eta joan den hilean 72 edo 74 adingabe zeuden bertan. (Bizkaiko Foru Aldundia. 07/04/20).

Orduan, lehenik eta behin, *Amorebieta-Zornotza* harrera-zentrora eraman ziren IKEDAM guztiak; halere, 17 urtetik gorakoak *larrialdi-zentro* berri horretara eraman ziren berehala,

zeuden plazen arabera. Adin-nagusitasuna laster beteko zuten adingabe guztiak hartzen zituen baliabide berri horrek, adin-nagusitasuna bete baino lehen Aldundiak ezin baitzizkien dokumentu guztiak lortu. Horrela, adingabeen eta profesionalen hitzetan, adingabeen zirkuiturako «irtenbiderik gabeko baliabide» bilakatu zen zentro hori 2007an, eta 18 urte bete baino lehen adingabeen funtsezko premiei erantzuteko eta adin-nagusitasunera arte geratzen zitzaizkien hilabeteak aprobetxatzeko aukera emateko xedea zuen, zentrotik kanpo prestakuntza jasotzeko aukerarik ez baitzuten izango orduan.

Harrez geroztik, *Amorebieta-Zornotza* harrera-zentroan ez ziren hainbeste gatazka gertatu, baina *El Vivero* larrialdi-zentroan, berriz, gatazkak hasi ziren. Denbora guztian gainokupatuta ez egoteaz gain, harrera-zentroak berezko «Lanbide Hastapenerako Ikastaro» bat (LHIK) ireki zuen, adingabeei prestakuntza bizkorra emateko. Ekimen berri horrek oso balioespen ona izan zuen adingabeen artean, eta gizarteratze-prozesu ona izateko motibazioa erakutsi zuten zentroko adingabeek. Aurreko gatazka asko minimizatu zituen panorama berri horrek.

Baina larrialdiko eta harrerako zirkuituan ez zeuden behar adina plaza libre, 2007an 466 adingabe gehiago iritsi baitziren guztira, eta beraz, urte horretako apirilean 24 plaza-tako beste larrialdi-zentro bat ireki zen, «*El Garmu*» izenekoa. Zentro berri hori ere isolatuta zegoen, komunikazio txarra zuen garraioei zegokienez, eta bi moduluz osatuta zegoen; horietako batek larrialdi-zentroen eginkizuna zuen, 16 plazarekin, 17 urtetik gorako IKEDAMei zuzenduta zegoen, eta «irtenbiderik gabeko baliabidetza» hartzen zen; besteak oster, jokabide-arazoak zituzten adingabeentzako zortzi plaza zituen.

2007an, Basauriko bizikidetza-unitatea ere unitate erdi-autonomo bilakatu zen.

Aldi berean, babes-zirkuituan sartuta dauden eta adin-nagusitasuna betetzear dauden adingabeei irtenbide bat aurkitzeko (*El Vivero* eta *Garmu* zentroetako adingabeak ez dira horren barnean hartzen), 2006an «*Mundutik Mundura*» programaren bitartez 169 gazte hartu ziren pisuen sarean, eta 2007an, 151 gazte. Asociación Amigonianos elkartearen *Lagunetxe* programak ere (*Zabaloetxe* zentroak sortu zuen elkarte hori) pisu berriak ireki zituen 2007an: *Unbe*, *Baserisi* eta *Ikea*. 2006an 143 adingabe hartu zituen, eta 2007an, 118 adingabe. 2006an eta 2007an *Mundutik Mundura* programak plazak itxi zizkion *Lagunetxe* programari; horrela, 2007an horrek 32 plaza baino ez zituen *Mundutik Mundura* programaren barruan, eta 86 plaza *Lagunetxe* programaren barruko berezko *Lagun Amigó* proiektuan. Adin-nagusitasunaren baliabideei buruzko atalean ikusiko dugun bezala, zirkuitu ofizialetik kanpoko plaza horiek zirkuituaren eskasiak estaltzeko oso gi-

zarte-egiteko garrantzitsua dutela nabarmendu behar da, honako hauentzat: *Mundutik Mundura* programan sartzeko baldintzak betetzen ez dituzten adingabeentzat, adin-nagusitasuna bete duten eta plazarik gabe geratu diren gazteentzat, eta *El Vivero* zentroan harrera-egoeran zeuden eta adin-nagusitasuna bete duten gazteentzat (2008a baino lehen, *El Vivero* zentroak ez zien inolako irtenbiderik eskaintzen adingabeei).

e) 5. etapa. 2008tik aurrera (irailera arte): larrialdi-zentroak egoitza-zentro gisa birmoldatu ziren, egoitza-plaza gehiago sortzeaz gain

2008an, Bizkaiko Foru Aldundiak IKEDAMentzako larrialdiko eta harrerako zirkuituari buruz «gogoeta egin zuen berriz».

Hitzarmen berriari egokitzeko (lau urteko denbora-tartean) eta *El Vivero* Larrialdi Zentroan hartutako IKEDAMei irtenbideren bat aurkitzeko, Aldundiak zentro hori bi egoitza-zentroan banatu zuen 2008ko ekainean: *El Vivero* egoitza-zentroa —toki berean kokatua, 25 plazarekin— eta *Deusto* egoitza-zentroa, hori ere 25 plazatakoa (*El Vivero* zentrotik eramandako 25 adingabe). Lehen adierazi dugun bezala, *El Vivero* zentroa 17 urtetik gorako adingabeentzako «irtenbiderik gabeko baliabidetzat» hartzen zen. Zentroaren berregituraketa horretatik aurrera, hartutako adingabeak zirkuituan sartu ziren berriz ere, prestakuntza-ikastaroak eta beste hainbat baliabide osagarri egiteko aukera baitzuten.

Horretaz gain, 2008ko ekainean *El Garmu* larrialdi-zentroko plazak murriztu ziren: 16 larrialdi-plaza izatetik 10 izatera aldatu zen.

Aldundiak adierazi digunez, urtearen amaieran aldaketa gehiago sartuko dira zirkuituan, baina ez dugu horri buruzko informaziorik, oraindik ez baita publikoa.

8.1.3.3. Erakundeen egungo erantzuna

Ondorengo taulan, Bizkaiko harrera-plaza guztiak adierazten dira (2008ko iraila). Baliabide-tipologia desberdinetako plazak zenbatuz lortzen da guztizko kopurua (adingabe bat harrera-zentroan sartzen denetik adin-nagusitasunera iristen den arte).

Horretaz gain, lurralde horrek dituen plaza kopurua (baliabide-tipologien arabera), IKEDAMek okupatutako plaza kopurua eta adingabeei zuzendutako plaza guztien barruan plaza horiek duten ehunekoa ere jaso dira taula horretan.

65. taula

Harrera-baliabideen plazak, 2008ko iraila

Baliabide tipologia	Guztira	IKEDAM plazak	(%)
Larrialdikoa eta harrerakoa ¹²⁹	72	63	87
Egoitzakoak: oinarrizko programa	323	206	63
Egoitzakoak: programa espezializatua	8	8	100
Emantzipazioa	46	46	100
Adin-nagusitasuna	83		
Mundutik Mundura	101	83	100
Lagunetxe	76	101	
Hemen ¹³⁰		76	
Guztira	709	583	82

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia, elkarrizketak zentroetako profesionalekin, Espainian 2007an eta 2008an zeuden IKEDAMen ezaugarriak. Egileak egina.

2008ko irailean 583 plaza okupatzen zituzten Inoren Kargura ez Zeuden Adingabeak eta Adin Nagusiko Pertsonak Bizkaian. Babesgabezia-egoeran dauden adingabeei arreta emateko *Aldundiak guztira dituen plazen % 82 dira horiek*¹³¹. Ehuneko hori oso handia da, eta azken urteotan IKEDAMak masiboki iritsi izana kontuan hartuz eta lurraldera iristen ziren adingabe askori estaldura emateko babes-zirkuituak eduki behar izan duen bilakaera kontuan hartuz adieraz daiteke hori soilik.

Ondoren, babes-baliabideak zehaztuko ditugu, izan ditzaketen tipologiak kontuan hartuz.

a) Lehen harrerako baliabideak

Larrialdiko eta harrerako zentroak jasotzen ditu ondorengo taulak:

¹²⁹ Zentroen tipologia horretan joera bakar bat dago, IKEDAMEi arreta emateko zentro mistoak edo espezifikoak soilik hartu baitira kontuan, eta ez lurraldeko gazteenak. Beraz, Aldundiak guztira plaza gehiago ditu, era IKEDAMek hartutako plazen ehunekoia % 87tik beherakoa da.

¹³⁰ Plaza kopurua 2008ko ekainera arte.

¹³¹ Gogoan izan harrera-plazetan alborapen bat dagoela (ikus aurreko oin-oharra), eta beraz, ehuneko hori txikiagoa izan liteke, baina ez askoz ere txikiagoa.

66. taula

IKEDAMei zuzendutako harrera-baliabideen sarea Bizkaian, 2008ko iraila

Izena	Irek. urtea.	IKEDAM arret. urtea	Baliabideen tipologia	Herria	Titulartasuna	Kudeaketa	Plazak	IKEDAMek okupatutako plazak	Erabil-tzaileen ezaugarriak Sexua/edad
Zornotza	2005	2005	Urgentziazko eta harrerako zentroa	Amorebieta-Etxano	Itundua	Landalan Elk.	50	50	mutilak 12-18
Argileku	1999	1999	Urgentziazko eta harrerako zentroa	Barakaldo	Itundua	Hirugarrender Kaputxinoak	12	3	neskak 12-18
El Garmu	2007	2007	Larrialdi Zentroa	Artzentales	Itundua	Urgatzi Elk.	18	18	mutilak 16-18a
Guztira							80	71	

Iurria: Bizkaiko Foru Aldundia, elkarriketak zentroetako profesionalekin, Espainian 2007an eta 2008an zeuden IKEDAMen ezaugarriak. Egileak egina.

2008ko irailean, IKEDAMei zuzendutako lehen harrerako 71 plaza zeuden.

Aldundiaren harrera-plaza guztien % 88, hain zuzen ere.

Plaza horiek hiru zentrotan zeuden banatuta, ikusiko dugun bezala. Zentro horietako bik urgentziazko eta harrerako eginkizunak dituzte, eta beraz, babes-zirkuitura sartzeko baliabideak dira.

- *Zornotza* Zentroa, 50 plazatakoa. 12-18 urteko gizonezko IKEDAMei zuzendutako baliabidea.
- *Argileku* Zentroa, 12 plazatakoa (urgentziazko bi, eta harrerako 10). Harrera-sare normalizatuko baliabidea, 12-18 urteko lurraldeko neskentzat eta emakumezko IKEDAMentzat.

Azkena *larrialdi-zentro* deritzon baliabide bat dugu.

- *El Garmu* zentroa, 18 plazatakoa¹³². 16-18 urteko gizonezko IKEDAMei zuzendutako baliabidea.

¹³² Honako hau adierazi behar da: *El Garmu* zentroko plazetako 10 larrialdi-plazak dira, eta beste zortzi, berriz, egoitza-zentro espezifikoak. Etxe berean dauden bereizitako bi pisu dira.

IKEDAMak sartzeko bidea bi harrera-zentroak dira; gazteak, *Zornotza* harrera-zentroan daudela, *El Garmo* Larrialdi-zentroran eraman daitezke; 17 urte baino gehiago dituzten adingabeak bidaltzen dira *El Garmo* zentroran batez ere, harrera-egoeran urtebetetik gora egon ezin dutenez, ezin baitira gizarteratze-programetan sartu (programa horietan sartzeko ezinbestean egon behar dute urtebete harrera-egoeran). 2008ko irailean, «irtenbiderik gabeko baliabidetzat» hartzen zen zentro bakarra zen.

GUFerekin hitzartu ziren harrerako eta larrialdiako hiru zentro horiek. Zornotza zentroa, Landalan elkartearen bitartez, Argileku zentroa, Hirugarrendar Kaputxinoen emakumeen erlijio-ordenarekin, eta El Garmo zentroa, azkenik, Urgatzi elkartearekin. Lehenengo bi zentroei dagokienez, zentro horiek ireki baino lehen adingabeekin lan egiten hasi ziren erakundeek kudeatzen zituzten; lehenengoaren kasuan, 2005ean hasi ziren, eta Berriz harrera-zentroa ere kudeatzen zuten, eta neskontzako harrera-zentroa, berriz, 1973an hasi zen lan egiten, soilik Urgatzi zentroa hasi zen El Garmo zentroarekin 2007an.

IKEDAMentzako zentro espezializatuak dira horietako bi, soilik neskena (Argileku) da lurraldeko sare normalizatuaren barrukoa.

Zentro bakoitza udalerri desberdin batean dago. Horietako bi (*Zornotza* eta *El Garmo*) ez daude udalerriaren erdigunetik gertu; izan ere, lehena udalerriaren kanpoaldean dago, eta bigarrena, berriz, toki isolatu batean, eta zentroetako arduradunen ustetan, egoera horrek *badu eragina* adingabeengan, neurri handiagoan edo txikiagoan: kasu batean, komunikazio txarra duenez, jardueretan eragina du neurri txikiagoan (*Zornotza*) eta bestean, aldiz, adingabeen aisialdian eragin negatiboa du, baina batez ere, harrera-kulturarekiko harremanak eragozten ditu (*El Garmo*). Zentroa udalerritik urrun eta isolatuta egoitea modu positiboan balioesten da, gai psikoaktiboetatik urrun uzten baititu adingabeak (*El Garmo*). Udalerriaren erdigunetik hurbil dagoen eta garraio publikoari dagokionez komunikazio ona duen zentro bakarra neskena da (*Argileku*).

Hiru zentroetako arduradunen aburuz, instalazioak «on samarrak» dira. *Zornotza* zentroko arduradunen ustez, aldiz, zentroko gainokupazioak (horrelakorik dutenean) eragin handia du adingabeengan, eta beraz, kondizioak okerrera egin ohi dute; gainerako zentroetako arduradunek ez dute iritzi hori.

Ezinbestean adierazi behar da 2008ko ekainera arte *El Vivero* zentroak larrialdi-eginkizunak ere bazituela. 2007ko amaieran zentro horretako arduradunak galdesorta bete

zuenean, zentroaren kondizioak txarrak zirela adierazi zuen. Zorionez, hori konpon-
tzeko neurriak hartu dituzte, eta zentro hori 25 plazatako bi egoitza-zentrotan banatu
da.

*Zentroetako plaza kopuruak 10etik 50era bitartekoak dira. Gizarte-babesgabetasuneko
egoeran dauden haurren eta nerabeentzako egoitza-harrerarako baliabideak arau-
tzen dituen Dekretua (08/2008) betetzen ez duen harrera-zentro bakarra Zornotza da,
50 plaza baititu (2008ko ekainera arte, *El Vivero* zentroak ere ez zuen dekretu hori be-
tetzen). Horretaz gain, zentro horretako arduradunak galdesortan adierazi zigunez, adin-
gabeen bolumena normalean plaza kopurua baino handiagoa da. Aldundiko iturriek ere
zentro horretan gainokupazioa dagoela adierazi digute; izan ere, 2008an (irailera arte)
60 adingabe baino gutxiago zeuden batez beste. Batezbestekoa nabarmen jaitsi bada ere
(zenbait unetan, hartutako 90 adingabe izan zituzten), oraindik ere plaza kopurua gain-
ditzen du zentroak, ia hamar adingaberekin.*

Beste bi zentroek (*El Garmo* eta *Argileku*), aldiz, dekretua betetzen dute, zentroaren
plaza kopuruari dagokionez. Normalean, bi zentro horien kasuan, adingabeen bolumena
plaza kopuruaren berdina izan ohi da.

*Zentro horietan arreta jasotzen duten IKEDAMen adinari eta generoari dagokionez,
guztiak mutilen ematen die arreta, Argileku zentroak izan ezik, horrek soilik 12-18 urteko
neskei ematen baitie arreta. Zornotza zentroak 12-18 urteko mutilen ematen die arreta; eta
El Garmo zentroak, berriz, 16-18 urtekoei.*

*Zentro horietako giza baliabideak antzekoak dira, zentro bakoitzaren adingabe-ratioa
kontuan hartzen badugu. Horrela, Zornotza zentroak 14 hezitzaile eta adingabeen jato-
rrizko herrialdeetako sei hezitzaile/bitarteko ditu, hots, zuzendaria zenbatuz gero, guz-
tira 21 pertsona daude heziketa-taldean. Horietako 17k kontratu mugagabea dute, eta
gainerako lauek, berriz, aldi baterako kontratua. Era berean, El Garmo zentroak ho-
nako hauek ditu: zuzendari bat, lau hezitzaile, hiru begirale eta IKEDAMen jatorrizko
herrialdeetako zortzi hezitzaile/bitarteko, 14 kontratu mugagaberekin eta aldi baterako
kontratu batekin¹³³. Argileku zentroari buruzko informaziorik ez dugu horri dagokio-
nez.*

¹³³ Heziketa-taldearen zenbaketak zentro osoa hartzen du barnean (bi pisuak), eta beraz, zentro espezia-
lizatuko langileak ere zenbatuta daude. Ez ditugu datu bereziak.

Zuzendarien hitzetan, *txandaketa* —hots, heziketa-taldeko profesionalak sartzea eta irteea, eta ez gerta litezkeen txanda-aldaketak— modu desberdinean balioesten da: *Zornotza* zentroan ez dago horrelakorik, eta *El Garmu* zentroan, berriz, eragin txikia du, langile berriak taldean sartu behar dituztenean baino ez.

El Vivero zentroan adierazi zigutenez, ostera, (2008ko ekainera arte larrialdi-zentroa zen *El Vivero*), txandaketak taldearen finkapena eragozten zuen, eta horren eraginez, esku-hartze jarraitua ez zen oso koherentea. Hiru zentroetako bitan ez da inoiz estresa-gatikoko bazarik egon (*El Garmu* eta *El Vivero* zentroetan) eta *Zornotza* zentroan, berriz, maiztasun txikiz, eta depresioagatikoko edo sufrimendu psikologikoagatikoko bazarik ez da sekula gertatu. *El Vivero* zentroan borondatezko baja dezente egon dira, eta gainerako zentroetan, berriz, gutxi (horrelako baje estresa, depresioa edota sufrimendu psikologikoa ezkuta dezakete). Horri dagokionez ere ez dugu *Argileku* zentroari buruzko informazioirik.

Azkenik, *taldeko, zentroko edo antzeko heziketa-proiektua aplikatzeari dagokionez*, *El Garmu* zentroaren kasuan, eta 2008ko ekainera arte, baita *El Vivero* zentroaren kasuan ere, zuzendariak modu negatiboan balioetsi zituzten zentroak; *Zornotza* eta *Argileku* zentroen kasuan, aldiz, balioespena positiboa da. Bestalde, *Zornotza* zentroaren balioespena harrigarria iruditu zaigu, adingabearen gizarteratze ona faboratzen ez duen zentro handi eta gainokuopatu bakarra baita, baina hala eta guztiz ere, balioespen hori aztertzerakoan, kontuan hartu beharko dugu 2005ean eta 2006an izandako kondizioak txar gisa balioetsi zirela, eta gatazkaren une jakin batzuetan berriz, oso txar gisa. Gaur egun, egoera horiek hobeak dira, eta horretaz gain, adingabeen itxaropenetara egokitu dira; gogoan izan behar da 2007an Lanbide Hastapenerako Ikastaro (LHIK) aitortu bat ireki zela zentroan bertan.

b) *Egoitza-baliabideak (2008ko iraila)*

1. OINARRIZKO PROGRAMA¹³⁴

Ondorengo taulan oinarrizko programako egoitza-babeseko zentroak eta zerbitzuak daude jasota:

¹³⁴ Honako hau ohartarazi behar da: baliabideak zehazten dituen informazioaren zati handi bat ez ziguten eman galdesorta bete zuten zentroetako zuzendariak, GUFeko teknikariak baizik.

67. taula

IKEDAMei zuzendutako oinarrizko programako egoitza-baliabide sarea Bizkaian (2008ko iraila)

Izena	Irek. urtea	IKEDAM arret. urtea	Baliabideen tipologia	Herria	Titulartasuna	Kudeaketa	Plazak	IKEDAMek betetako plazak	Erabiltzaileen ezaugarriak Sexua/Adina
Basauri EF	1983	2006	Egoitza-pisuak	Basauri	Publikoa	Publikoa	12	2	neska/mutilak 12-18
Fueros EF	1983	2004	Egoitza-pisuak	Barakaldo	Publikoa	Publikoa	12	2	neska/mutilak 12-18
Txudinaga EF	1983	2006	Egoitza-pisuak	Bilbo	Publikoa	Publikoa	12	2	neska/mutilak 12-18
San Adrián EF	1983	2006	Egoitza-pisuak	Bilbo	Publikoa	Publikoa	12	2	neska/mutilak 12-18
Mungia EF	1983	2005	Egoitza-pisuak	Mungia	Publikoa	Publikoa	12	3	neska/mutilak 12-18
Santurtzi EF	1997	2006	Egoitza-pisuak	Santurtzi	Publikoa	Publikoa	12	2	neska/mutilak 12-18
Portugalete EF	2000	2006	Egoitza-pisuak	Portugalete	Publikoa	Publikoa	12	2	neska/mutilak 12-18
Murieta EF	2002	2004	Egoitza-pisuak	Barakaldo	Publikoa	Publikoa	12	2	neska/mutilak 12-18
Sarriena EF	2006	2006	Egoitza-pisuak	Leioa	Itundua	Bizgarri elkarte	12	2	neska/mutilak 12-18
Zabalburu EF	2007	2007	Egoitza-pisuak	Bilbo	Publikoa	Publikoa	12	2	neska/mutilak 12-18
Amigó EF	2007	2007	Egoitza-pisuak	Portugalete	Itundua	Amigó Fundazioa	12	2	neska/mutilak 12-18
Iparragirre EF	2007	2007	Egoitza-pisuak	Bilbo	Itundua	Urgatzi elkarte	10	2	neska/mutilak 12-18
Zurbaran BU	2004	2004	Egoitza-zentroa	Bilbo	Publikoa	GUFE	13	13	mutilak 12-18
Mina del Morro 1 BU	2006	2006	Egoitza-zentroa	Bilbo	Publikoa	GUFE	12	12	mutilak 12-18
Aukera BU	2006	2006	Egoitza-zentroa	Barakaldo	Pribatua	Berriztu Heziketa Elkarkea	14	14	mutilak 12-18
Zabalotxe EZ	1963	2000	Egoitza-zentroa	Loiu	Itundua	Hirugarrendar Kaputxinoak	72	72 ¹³⁵	mutilak 12-18

¹³⁵ 18 adingabe dituzten lau modulu dira.

Izena	Irek. urtea	IKEDAM arret. urtea	Baliabideen tipologia	Herria	Titulartasuna	Kudeaketa	Plazak	IKEDAMek betetako plazak	Erabiltzaileen ezaugarriak Sexua/Adina
Izurza EZ	2007	2007	Egoitza-zentroa	Izurza	Itundua	Landalan elkarte	20	20	mutilak 12-16
Deusto EZ	2008ko ekaina	2008	Egoitza Zentroa	Bilbo	Itundua	Urgatzi elkarte	25	25	14-18
El Vivero EZ	2006	2006	Egoitza-zentroa	Galdakao	Publikoa	Urgatzi elkarte	25	25	mutilak 16-18
Guztira							323	206	

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia, Zentroetako profesionalen egindako elkarrizketak, Espainian Inoren Kargura Ez Dauden Adingabeen Ezaugarriak buruzko galdesorta, 2007-08. Egileak egina.

2008ko irailean oinarritzko programako egoitza-baliabideen 206 plaza zeuden IKEDAMentzat. IKEDAMentzako plazak Aldundiko egoitza-baliabideen guztizko plazen % 63 ziren.

Hiru egoitza-baliabide mota ditugu: *etxe funtzionalak (EF)*, *bizikidetzak-unitateak (BU)* eta *egoitza-zentroak (EZ)*. Lehenengo bi tipologietan, *baliabide gehienak (16 zentroetatik, 12) titulartasun publikokoak dira eta GUFEn kudeatzen ditu*. Azken horrek *Etxe Funtzionalen Sarearen Programaren* eta *Bizikidetzak Unitateen* zuzendari bat du, eta zuzendari horrek zentro guztiak koordinatzen ditu. Horietako hiru baino ez dira itunduak, eta duela gutxi ireki dira hiru horiek (bat 2006an eta bi 2007an). Zenbait Etxe Funtzional kudeatzeko hitzarmenak dituzten erakundeak honako hauek dira: Bizgarri Elkartea, Amigó Fundazioa, Urgatzi Elkartea eta Berriztu Heziketa Elkartea.

16 baliabide horietatik *zazpi Bilbon daude*, hiru Barakaldon eta gainerako seiak beste hainbat udalerritan. Oro har, Etxe Funtzional guztiak hirigunetik hurbil daude, eta guztiek komunikazio ona dute, garraio publikoari dagokionez. Lau egoitza-zentro edo EZei dagokienez, guztiak udalerri desberdinetan daude. Horietako bi udalerriaren erdigunetik gertu daude (*Zabaloetxe* eta *Deusto*), eta komunikazio ona dute garraio publikoari dagokionez; beste biak, berriz, urruti daude. Izurza EZ ez dago udalerriaren erdigunean, baina herri txikia denez, zentroaren eta herriaren artean 500 metroko distantzia dago gutxi gorabehera. Behin herrian gaudela, zentroak komunikazio ona du garraio publikoari dagokionez. *El Vivero* EZ toki isolatu eta bereizi batean dagoen zentro bakarra dugu: zentroko zuzendariak argudiatu duenez, kokapen horrek oso eragin negatiboa du adingabeengan.

Etxe Funtzionaletako eta Bizikidetza Unitateetako plaza kopurua 10-14 da. Bakar batek ditu 10 plaza (*Iparagire* EF), bakar batek ditu 13 plaza (*Zurbaran* BU), eta bakar batek ditu 14 plaza (*Aukera*). Gainerako 13ak 12 plazatakoak dira. Etxe Funtzional guztiak (guztira, 13) mistoak dira, hots, lurraldeko mutilak eta neskak hartzen dituzte, baina lehentasunez, etxe bakoitzean bi IKEDAM daude batez beste.

Bizikidetza Unitateak (guztira, hiru), aldiz, Inoren Kargura Ez Dauden Mutil Adingabe Migratzaileentzako zentroak dira eskusiboki, duela gutxi ireki ziren (2006an eta 2007an), eta 12, 13 eta 14 plazatakoak dira. Normalean, Etxe Funtzionaletako zein Bizikidetza Unitateetako adingabeen bolumena eta plaza kopurua berdina izaten dira.

«Zabalotxe» dugu zentro handi bakarra, guztira 72 plaza baititu, erlijio-ordenek zentro handiak izateko duten usadioa dela-eta (heziketa-zentroak, babes-zentroak, edota justizia-zentroak). Horretaz gain, zentro hori zaharrena da, 1963an ireki baitzuten. Lehen ikusi dugunez, 2000. urtean zentro horrek misto izateari utzi zion, eta urte horretatik aurrera, Inoren Kargura Ez Dauden Mutilei ematen zien arreta eskusiboki. Gaur egun, erregelamendu berriaren araudia betetzeko (8/2008), aurreko plazak murrizteko modulu bat erantsi zaio zentroari. Gaur egun, 18 plazatako bost modulu independente daude¹³⁶: lehen egoitzako modulu bat (adingabeak iristen direnean, hor kokatu ohi dira lehenik eta behin, eta lau hilabete ematen dituzte bertan batez beste), nerabezaro-aurrekoentzako modulu bat, nerabeentzako beste bat, gazteentzako beste bat, eta autonomia-modulu bat. Adingabeak gutxi-ka-gutxika pasatzen dira modulu batetik bestera, helburuak bete ahala hurrengora aldatzen dira, betiere plaza kopuruak ahalbidetzen badu. Lehen adingabeen bolumena plaza kopurua baino handiagoa izan ohi bazen ere, 2008ko uztailetik aurrera horrelako desoreka desagertu zen, eta plaza kopurua bat zetorren adingabeen kopuruarekin.

Beste egoitza-zentroek 20 (Izurza) eta 25 plaza bitarte dituzte (Deusto eta El Vivero). Azken bi zentro horiek *El Vivero* larrialdi-zentroan zeuden adingabeak hartzen dituzte. *El Vivero* larrialdi-zentroa egoitza-zentro bilakatu zen 2008ko ekainean. Horrela, zentro horretako 50 plazak bi zentroan banatu ziren, zehazki, 25 adingabe zentro berri batera eraman zituzten (*Deusto* zentrori) eta beste 25ak lehengo *El Vivero* zentroan geratu ziren. Gaur egun, azken zentro horrek adingabeei dokumentuak lortzen dizkie eta prestakuntza ematen die.

Adinari eta generoari dagokionez, Etxe Funtzional (guztira, 13) eta Bizikidetza Unitate (guztira, hiru) guztiek 12-18 urteko adingabeak hartzen dituzte. Lehenak mistoak dira,

¹³⁶ Gehienak eraikin berean badaude ere, pisu guztiak independenteak dira, eta berezko heziketa-taldea dute. Aisialdian (patioan, futbol-zelaian, eta abar) erlazioanatu ohi dira adingabeak modulu desberdinen artean.

hots, mutilak zein neskak hartzen dituzte, eta bigarrenak, berriz, mutilentzat dira soilik. Beraz, Inoren Kargura Ez Dauden Neska Adingabe Migratzaile guztiak Etxe Funtzional-etara eraman ohi dira. Egoitza Zentroak ere 12-18 urteko mutilei ematen die arreta. Soilik 2007tik aurrera irekitako zentroek hatzen dituzte adingabe zaharrenak, zehazki, *Izurza* Egoitza Zentroak, 12-18 urteko adingabeak, *Deusto* EZak, 14-18 urtekoak, eta *El Vivero* zentroak, 16-18 urtekoak.

Titulartasun publikokoak diren, GUFEk kudeatzen dituen eta 12 adingabe hartzen dituzten *Etxe Funtzional-etako giza baliabide* guztiek zazpi hezitzaile eta bi «etxeko andre» dituzte¹³⁷. Heziketa-taldeak egonkorrak dira, ez dago txandaketarik. Itundutako Etxe Funtzional-etan, aldiz, hezitzaileen batezbestekoa txiki samarragoa da. Ez dago bitartekariaren figurarik. Galdesortaren arabera, etxeen sareko 72 hezitzaileetatik, 72k kontratu mugagabea dute, eta batek bakarrik du aldi baterako kontratua.

Titulartasun publikoko Bizikidetza Unitateei dagokienez, taldea bost hezitzailek, bi zain-tzailek eta «etxeko andre» batek osatzen dute. Kasu horretan ere ez dago bitartekariaren figurarik. *Berriztu Heziketa Elkartek* kudeatzen duen BU bakarra 14 plazatak da, eta sei hezitzaile (horien artean, bitartekari bat) eta «etxeko andre» bat ditu. Bizikidetza Unitateetako taldea egonkorra da eta ez dago langileen txandaketa esanguratsurik.

«*Zabaloetxe*» egoitza-zentroak zortzi hezitzaile ditu modulu bakoitzean. Lehen egoitzako moduluetan begirale/bitartekari bat eta bi bitartekari dituzte. Kontratututako 40 profesio-naletatik 38k kontratu mugagabea dute, eta gainerako biek, berriz, aldi baterako kontra-tua. Heziketa-taldearen txandaketaren bat gertatu denean, arrazoia gaixotasun arruta izan da normalean, baina zenbait kasutan, baja hori depresioa edo sufrimendu psikologikoaga-tik izan da, eta estresagatiko borondatezko baja edota kontratua amaitzeak eragindakoa, berriz, ez da esanguratsua.

Izurza egoitza-zentroa 20 plazatak da, eta 10 hezitzaile eta hezitzaile bitartekari bat ditu. Horietako zazpiak kontratu mugagabea dute, eta gainerako lauek, aldiz, aldi bate-rako kontratua. *Deusto* eta *El Vivero* zentroei dagokienez, bestalde, zentroetako giza ba-liabideei buruzko informaziorik ez dugu; gogoan izan behar da 2008ko ekainean ireki eta eginkizun horiekin berregituratu zirela.

Etxe Funtzional-etan eta Bizikidetza Unitateetan, zentroak eta haren azpiegiturek balioes-pen «ona» dute heziketa-proiektuari dagokionez (eskalako adierazle altuena); oro har,

¹³⁷ Figura horrek sukaldean aritzeko, garbitzeko, plantxatzeko eta antzeko eginkizunak ditu.

pozik daude. Egoitza Zentroek jakitera eman dutenez, ostera, zentroaren azpiegituren balioespena «nahiko ona» da heziketa-proiektuari dagokionez (adierazle neutroa eskala positiboan); *El vivero* da pozik ez dagoela adierazi duen zentro bakarra. Hala eta guztiz ere, galdesortako galdera horri *El Vivero* oraindik larrialdi-zentroa zenean (eta ez egoitza-zentroa) erantzun zitzaiola nabarmendu behar dugu.

2. PROGRAMA ESPEZIALIZATUA

Bizkaiko egoitza-zentroen artean, programa espezializatuan dagoen bakarra jasotzen du ondorengo taulak:

68. taula
IKEDAMei zuzendutako egoitza-baliabide espezializatuen sarea Bizkaian, 2008ko iraila

Izena	Irek. urtea	IKEDAM arret. urtea	Baliabideen tipologia	Herria	Titulartasuna	Kudeaketa	Plazak	IKEDAMek betetako plazak	Erabiltzaileen ezaugarriak Sexua/Adina
El Garmo	2007	2007	Portaera-nahasmenduetan espezializatutako zentroa	Artzentales	Itundua	Urgatzi elkartea	8	8	mutilak 16-18
Guztira							8	8	

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia, elkarriketak zentroetako profesionalekin, Espainian 2007an eta 2008an zeuden IKEDAMen ezaugarriak. Egileak egina.

Bizkaian programa espezializatuko zentro bakar bat dago, zehazki, *El Garmo* zentroko *modulu bat, zortzi plazatakoa*. Lehen esan dugunez, etxe batean kokatutako zentro horrek bi pisu ditu: larrialdi-pisu bat eta pisu espezializatu bat. Duela gutxi sortu zen, zehazki, 2007an.

Urgatzi elkartearekin itundutako zentroa dugu, *eta portaera-nahasmenduak dituzten 16-18 urteko IKEDAMentzat (mutilak) da bereziki*. Normalean zentro horretan adingabe kopurua eta plaza kopurua berdinak izaten dira.

Heziketa-taldea egonkorra da, eta aldi baterako kontratua duen hezitzaile bakar bat du. Ondorioz, heziketa-taldeak txandaketa gutxi du, eta horrelakorik gertatu denean (gutxitan), borondatezko baja edota ezintasun fisikoagatiko baja izan dira arrazoiak.

Azpiegituren eta zentroen balioespena, heziketa-proiektuari dagokionez, «nahiko ona» da (adierazle neutroa eskala positiboan).

c) Emantzipazio-baliabideak

Ondorengo taulak Emantzipazio-programako baliabideak biltzen ditu:

Izena	Irek. urtea	IKEDAM arret. urtea	Baliabideen tipologia	Herria	Titulartasuna	Kudeaketa	Plazak	IKEDAMek betetako plazak	Erabiltzaileen ezaugarriak Sexua/Adina
Basauri	2004	2004	Unitate erdi-autonomoa	Basauri	Publikoa	GUFE	6	6	mutilak 16-18
San Ignacio	2004	2004	Unitate erdi-autonomoa	Bilbo	Publikoa	GUFE	6	6	mutilak 16-18
Mina del Morro 2	2006	2006	Unitate erdi-autonomoa	Bilbo	Publikoa	GUFE	6	6	mutilak 16-18
Casa del Mar	2006	2006	Unitate erdi-autonomoa	Santurtzi	Itundua	Hirugarrendar Kaputxinoak	10	10	mutilak 16-18
San Adrián	2006	2006	Unitate erdi-autonomoa	Bilbo	Publikoa	GUFE	6	6	mutilak 16-18
Autonomia Kalea	2008	2008	Unitate erdi-autonomoa	Bilbo	Itundua	Urgatzi elkarte	6	6	mutilak
Aitapatxi	2008	2008	Unitate erdi-autonomoa	Bilbo	Itundua	Urgatzi elkarte	6	6	
Gutzira							46	46	

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia, elkarrizketak zentroetako profesionalekin, Espainian 2007an eta 2008an zeuden IKEDAMen ezaugarriak. Egileak egina.

2008ko irailean emantzipazio-baliabideen 46 plaza zeuden IKEDAMentzat. Baliabide horiek guztiak Inoren Kargura Ez Dauden Mutil Adingabe Migratzaileentzat espezializatuta daude.

2004an hasi ziren horrelako baliabideak irekitzen, zehazki, horietako bi (*Basauri* eta *San Ignacio*); horietako hiru, bestalde, 2006an ireki ziren, eta beste bi, berriz, 2008an. Baliabide horiek erdi-autonomoak dira, eta adingabeari emantzipaziorako bidea prestatzen diote (etxebizitza, prestakuntza, dokumentazioa, lana, eta abar).

Aldez aurretik, egoitza-baliabideetatik autonomia handiena duten adingabeak hautatzen ditu GUFek, baliabide-tipologia horretara hobekien egokituta dauden hautagaiak izateko. LHIKko lehen edo bigarren ikasturtean egon ohi dira adingabe horiek guztiak.

Zazpi baliabideetako lau titulartasun publikokoak dira eta GUFek berak kudeatzen ditu: baliabide horiek «onenen artean onenak» dira. Beste hiruak itunduak dira, bat Hiruga-

rrendar Kaputxinoekin (*Casa del Mar*) eta bi *Urgatzi Elkartearekin* (*Autonomia Kalea* eta *Aitapatxi*).

Baliabideetako bost Bilbon daude, beste bat Basaurin eta azkena, berriz, Santurtzin. Udal-erriaren erdigunetik hurbil daude baliabide guztiak, eta komunikazio ona dute garraio publikoari dagokionez.

Sei-10 plaza dituzte zentro horiek. Zehazki, baliabide guztiek sei plaza dituzte, *Casa del Mar* zentroak izan ezik, horrek 10 baititu. Ikus dezakegunez, pisu guztiak txikiak dira. *Casa del Mar*, berriz, ez. Baliabide hori hotel bat da, GUFeren jabetzakoa, eta marine-lak bertan geratu ohi dira portuan daudenean. Baliabide horrek libre zeuden plaza guztiak betetzen ez zituenenez, GUFek hegal bat Inoren Kargura Ez Dauden Adingabe Migrazai-leentzat (mutilak) prestatu zuen. Horrela, adingabeak bi laguntzako logeletan hartzen dira, eta sukalde eta egongela bihurtu den beste gela bat ere badute.

Adinari eta generoari dagokienez, 16-18 urteko mutilentzat dira pisu guztiak. Inoren Kargura Ez Dauden Neska Adingabeak Etxe Funtzionaletan geratu ohi dira 18 urte bete arte.

GUFek kudeatutako pisuetako giza baliabideei dagokienez, pisu bakoitzean hezitzaile bat dago, eta 37 orduko lanaldia dute hezitzaile horiek. (hezitzailea ez dago 24 orduz). Itundutako baliabideetan ere hezitzaile bat dago, baina haren lanaldia 40 ordukoa da. Bestalde, hezitzaileak telefono mugikorra 24 orduz piztuta izateko konpromisoa du baliabide guztietan, eta *Casa del Mar* zentroaren kasuan, *Zabaloetxe* zentroaren zuzendariak ere lan hori du. Oro har, guztiek kontratu mugagabea dute. Ez dago taldearen txandaketarik.

Zentroari eta heziketa-proiektuari dagokienez, *gogobetetze-maila behar bezalakoa* da baliabide guztietan (galdesortako eskala altuena). Adingabeen balioespen positiboekin bat dator hori.

d) *Adin-nagusitasuneko baliabideak*

2000. eta 2001. urteetan, Loiuko *Zabaloetxe* egoitza-zentroa kudeatzen duen Hirugarren-dar Kaputxinoak-Asociación Amigoniana elkarteak *Lagunetxe* izeneko zirkuitu informal bat abian jarri zuen, lehen adierazi dugun bezala. Zentroaren zuzendari Carlos Sagardoy jaunak 2008ko apirilaren 18an adierazi zuenez, 2001etik 2005aren amaierara arte, urteko batezbestekoa adin nagusiko 80 pertsona ziren; heziketa-laguntza eta laguntza ekonomikoa ematen zitzaizkien pertsona horiei.

Bizkaiko Foru Aldundiak 2004an egindako ikerlan bat kontuan hartuta, *Zabaloetxe* zentroak zirkuitu informalean jardunbide ona gauzatzen zuela aintzat hartu ondoren, eta

IKEDAMEi arreta ematen ziharduten hirugarren sektoreko zenbait erakunderen pre-sioak ikusita, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintzako Saileko Gizarte Bazter-keriaren aurka Borroka egiteko Zerbitzuak *Mundutik Mundura*¹³⁸ programa abian jarri zuen 2004an; programa horren bitartez, gizarte-bazterkeria egoeran edo gizarte-bazter-keria jasateko arriskuan dauden etorkin gazteei emantzipazio-prozesuan lagundu nahi zitzairen. Bost elkartek kudeatzen dute programa hori: *Agiantza* elkarteak, *Elkarbanatuz* elkarteak, *Lagun Artean* elkarteak, *Goiztiri* elkarteak eta *Asociación Amigoniana* elkar-teak. 2005ean 152 gazteri eman zitzairen arreta, 2006an, 196 gazteri, eta 2007an, azke-nik, guztira 151 gaztek izan zuten programa horren arreta. Hirugarrendar Kaputxinoak-Asociación Amigoniana elkartearen plaza asko programa horretan sartu baziren ere, adin-nagusitasuna betetzen duten gazteen emantzipazio-prozesuan laguntza eta finantzaketa emateko lanean dihardu elkarte horrek oraindik ere, hitzartutako plazekin batera.

Mundutik Mundura programa hiru fasetan dago banatuta, intentsitatearen arabera:

1. *Intentsitate handiko programa.* 24 orduko lanaldiko hezitzailearen figura duen pisu bat da, eta proiektu eta jarraipen sendoak ditu. 16-18 urteko gazteen egoitza-emantzipaziorako pisuen ezaugarri berberak ditu. Hizkuntza berria gutxi ezagu-tzen duten, LHIKren lehen ikasturtean dauden eta arazo pertsonalak dituzten adin-gabeak sartzen dira baliabide horietan. Geroago adieraziko dugunez, oso plaza gu-txi dituzte baliabide horiek, zehazki, zazpi plaza baino ez.
2. *Intentsitate ertaineko programa.* Pisu horrek ere hezitzailearen figura du, baina 24 orduz egon beharrean, hezitzailea egunero bertaratzen da jarraipena egitera. Hizkuntza ondo ezagutzen duten eta LHIKren bigarren ikasturtean dauden adin-gabeak sartu ohi dira baliabide horietan.
3. *Intentsitate txikiko programa.* Pisu horrek ere hezitzailearen figura du, baina he-zitzaile hori astean behin edo bitan bertaratzen da jarraipena egitera. LHIKren bi-garren ikasturtea amaitzen ari diren edo amaitu duten adingabeak sartu ohi dira baliabide horietan. Gehienak lan egiten duten gazteak dira. Baliabide horren ezau-garrietako bat zera da, alokairuagatik eta mantenu-gastuengatik dagozkien zatia ordaintzen dutela adingabeak.

Jarraian, *Mundutik-Mundura* Programak kudeatzen dituen gazteen pisu guztiak biltzen dituen taula dago:

¹³⁸ Ikus www.bizkaia.net/.../Adjuntos/C3%20Mundutik%20Mundura,%20emancipación%20de%20jo-venes%20inmigrantes.pdf,

70. taula

Mundutik-Mundura Programako gazteen pisuak, 2008ko iraila


Izena	Irek. urtea.	IKEDAM arret. urtea	Baliabideen tipologia	Herria	Titulartasuna	Kudeaketa	Plazak	IKEDAMek betetako plazak	Erabiltzaileen ezaugarriak Sexua/Adina
Ondoan	2002	2005	Intentsitate-altua	Bilbo	Itundua	Elkarbanatuz elkarte	7	7	Mutilak guztiek 18 urtetik gora
Alameda San Mamés	2005	2005	Intentsitate-erdia	Bilbo	Itundua	Agiantza elkarte	4	4	Mutilak guztiek 18 urtetik gora
Zabala	2008	2008	Media intensidad	Bilbo	Itundua	Agiantza elkarte	4	4	Mutilak guztiek 18 urtetik gora
Hegaz	2004	2004	Intentsitate-erdia	Bilbo	Itundua	Lagun Artean elkarte	4	4	Mutilak guztiek 18 urtetik gora
Goialde	2002	2002	Intentsitate-erdia	Barakaldo	Itundua	Goiztiri elkarte	4	4	Mutilak guztiek 18 urtetik gora
Babes	2004	2004	Intentsitate-erdia	Barakaldo	Itundua	Goiztiri elkarte	4	4	Mutilak guztiek 18 urtetik gora
Amets	2004	2004	Intentsitate-erdia	Barakaldo	Itundua	Goiztiri elkarte	4	4	Mutilak guztiek 18 urtetik gora
Geroa	2008	2008	Intentsitate-erdia	Barakaldo	Itundua	Goiztiri elkarte	4	4	Mutilak guztiek 18 urtetik gora
Haziak	2008	2008	Intentsitate-erdia	Barakaldo	Itundua	Goiztiri elkarte	4	4	Mutilak guztiek 18 urtetik gora
Gerizpe	2008	2008	Intentsitate-erdia	Barakaldo	Itundua	Elkarbanatuz elk.	4	4	Mutilak guztiek 18 urtetik gora
Bidean	2004	2004	Intentsitate-erdia	Bilbo	Itundua	Elkarbanatuz elk.	4	4	Mutilak guztiek 18 urtetik gora
Salces	2008	2008	Intentsitate-erdia	Bilbo	Itundua	Agiantza elkarte	4	4	Mutilak guztiek 18 urtetik gora
Baraka	2004	2004	Intentsitate-txikia	Bizkaia	Itundua	Goiztiri elkarte	32	32	Mutilak guztiek 18 urtetik gora
Guztira							83	83	

Iurria: Bizkaiko Foru Aldundia, 2008. Egileak egina.

2008an zazpi plaza gehiago sortu ziren, eta beraz, gaur egunean 83 plaza ditu Programak, horietako zazpi intentsitate handikoak, beste 44 intentsitate ertainekoak eta gainetako 32ak, intentsitate txikikoak.

Aldi berean, 18 urtetik gorako gazteentzako Programa horretan gazte askori arreta ematen hasi zitzaenez, arazoak hasi ziren, eta Aldundiak, dei-efektuaren beldur zenez, pro-

29. grafikoa
Mundutik-Mundura Programako Plaza Kopuru (2005-2008)



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia, 2008. Egileak egina.

grama horretan sartzeko irizpidea aldatu zuen disuasio-neurri gisa; horrela, aldez aurretik gazteek ezinbestean «egon behar zuten adingabeak babesteko zentzoren batean (Bizkaiko Foru Aldundiaren mendekoa), 18 urte bete zituzten egunaren aurreko sei hilabetez gutxienez, eta baita zentro horretan jarraitu ere»¹³⁹ eta Aldundiak, lehen adierazitako arrazoiengatik, sei hilabeteko denboraldi hori 12 hilabetera luzatu zuen. Ondorioz, foruzentzoren batean 17 urtetik gorako adinarekin sartu ziren gazte guzteei programa horretan sartzeko aukera ukatzen die baldintza horrek. Horrenbestez, gazte asko 18 urterekin ka-lean geratzea eragin zuen baldintza horrek, horrek dakartzan bazterkeria-arriskuekin.

2007an, Foru Aldundiak intentsitate txikiko programarekin pisuak kudeatzeko lehentasuna eman zion Hirugarrendar Kaputxinoak-Asociación Amigoniana elkarteari, *Lagunetxe* Programaren bitartez. Apurka-apurka, hitzartutako plazak diruz laguntzeari utzi zitzaion, eta azkenean, 2008ko irailean erakunde horrek jadanik ez zuen plazarik, eta *Mundutik Mundura* Programaren hitzarmeneko partaidetza ez zitzaion berritu.

18 urtetik gorako gazteentzako plazarik ez zegoenez, adin-nagusitasuna bete duten IKEDAMei laguntzeko zirkuitu ez-ofiziala agertu zen berriz ere. Lehenik eta behin, *Zabalotxe* zentroan adin-nagusitasuna bete zuten eta Foru Aldundiaren *Mundutik-Mundura* Programan sartzeko aukerarik ez zuten gazteei laguntza eta mantenua ematen jarraitu

¹³⁹ Bizkaiko Foru Aldundia (2007). *Gizarte Zerbitzu Espezializatuak eta Gizarteratzeak buruzko koadernoak*. 6. alea.

zuen Hirugarrendar Kaputxinoak-Asociación Amigoniana elkarteak. Eta baita *El Vivero* eta *El Garmo* larrialdi-zentroetan izan ziren eta 2006an eta 2007an *Mundutik-Mundura* Programako plazetan sartzeko inolako aukerarik ez zuten adingabeei ere. 17 urtetik gora-koak ziren horiek guztiak.

Lagunetxe programaren barruan adin nagusikoak diren gazteentzat dauden baliabide guz-
tiak ditugu honako taula honetan:

71. taula
Lagunetxe Programa (itundu gabea), 2008

Izena	Irek. urtea	IKEDAM arret. urtea	Baliabideen tipologia	Herria	Titulartasuna	Kudeaketa	Plazak	IKEDAMek betetako plazak	Erabiltzaileen ezaugarriak Sexua/Adina
Zabala	2001	2001	Intentsitate-txikia	Bilbo	Pribatua	Amigoniana elkarte	4	4	Mutilak 18 urtetik gora
Errekatxu	2002	2002	Intentsitate-txikia	Barakaldo	Pribatua	Amigoniana elkarte	4	4	Mutilak 18 urtetik gora
Aresti	2003	2003	Intentsitate-txikia	Barakaldo	Pribatua	Amigoniana elkarte	4	4	Mutilak 18 urtetik gora
Loren	2003	2003	Intentsitate-txikia	Erandio	Pribatua	Amigoniana elkarte	4	4	Mutilak 18 urtetik gora
Karmele	2003	2003	Intentsitate-txikia	Sestao	Pribatua	Amigoniana elkarte	4	4	Mutilak 18 urtetik gora
Abaro	2004	2004	Intentsitate-txikia	Portugalete	Pribatua	Amigoniana elkarte	4	4	Mutilak 18 urtetik gora
Dario	2004	2004	Intentsitate-txikia	Barakaldo	Pribatua	Amigoniana elkarte	4	4	Mutilak 18 urtetik gora
Sotera	2005	2005	Intentsitate-txikia	Sestao	Pribatua	Amigoniana elkarte	4	4	Mutilak 18 urtetik gora
Asua	2004	2004	Intentsitate-txikia	Erandio	Pribatua	Amigoniana elkarte	4	4	Mutilak 18 urtetik gora
Txabarri	2005	2005	Intentsitate-txikia	Sestao	Pribatua	Amigoniana elkarte	4	4	Mutilak 18 urtetik gora
Maiatza	2005	2005	Intentsitate-txikia	Leioa	Pribatua	Amigoniana elkarte	5	5	Mutilak 18 urtetik gora
Xaho	2004	2004	Intentsitate-txikia	Leioa	Pribatua	Amigoniana elkarte	5	5	Mutilak 18 urtetik gora
Bidaurre	2005	2005	Intentsitate-txikia	Leioa	Pribatua	Amigoniana elkarte	4	4	Mutilak 18 urtetik gora

.../...

.../...

Izena	Irek. urtea	IKEDAM arret. urtea	Baliabideen tipologia	Herria	Titulartasuna	Kudeaketa	Plazak	IKEDAMek betetako plazak	Erabiltzaileen ezaugarriak Sexua/Adina
Libano	2004	2004	Intentsitate-txikia	Leioa	Pribatua	Amigoniana elkarte	4	4	Mutilak 18 urtetik gora
Gernika	2005	2005	Intentsitate-txikia	Barakaldo	Pribatua	Amigoniana elkarte	4	4	Mutilak 18 urtetik gora
Marx	2005	2005	Intentsitate-txikia	Erandio	Pribatua	Amigoniana elkarte	5	5	Mutilak 18 urtetik gora
Mendi	2005	2005	Intentsitate-txikia	Leioa	Pribatua	Amigoniana elkarte	5	5	Mutilak 18 urtetik gora
Ikea	2005	2005	Intentsitate-txikia	Leioa	Pribatua	Amigoniana elkarte	4	4	Mutilak 18 urtetik gora
Machado	2006	2006	Intentsitate-txikia	Sestao	Pribatua	Amigoniana elkarte	4	4	Mutilak 18 urtetik gora
Ganeko	2006	2006	Intentsitate-txikia	Bilbo	Pribatua	Amigoniana elkarte	5	5	Mutilak 18 urtetik gora
Nafarroa	2006	2006	Intentsitate-txikia	Leioa	Pribatua	Amigoniana elkarte	5	5	Mutilak 18 urtetik gora
Zubiak	2006	2006	Intentsitate-txikia	Leioa	Pribatua	Amigoniana elkarte	6	6	Mutilak 18 urtetik gora
Unbe	2007	2007	Intentsitate-txikia	Erandio	Pribatua	Amigoniana elkarte	4	4	Mutilak 18 urtetik gora
Baserri	2007	2007	Intentsitate-txikia	Erandio	Pribatua	Amigoniana elkarte	4	4	Mutilak 18 urtetik gora
Gutzira							130	130	

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundia, 2008. Egileak egina.

2008ko irailean, GUFek finantzatzen ez zuen *Lagunetxe* programak 130 plaza zituen adin nagusiko pertsonentzat. Azken urteotan, elkarren segidako bi urtetan Eusko Jaurlaritzaren Inmigratioko Zuzendaritzaren finantzaketa jaso dute (2006-2007), baita Hirugarrendar Kaputxinoak elkartearen berezko funtsetakoa ere.

Aldi berean, eta bigarrenaz, zenbait gizarte-erakunde¹⁴⁰ partzuergo bat osatzea eta «*Hemen Emantzipazio Programa*» abian jartzea erabaki zuten; programa horren bitartez,

¹⁴⁰ Ellacuría Fundazioa, Izangai Elkartea, Bizkaiko Cáritas, Elkarbanatuz Elkartea, Goiztiri Elkartea eta CEAR Euskadi.

inoren kargura ez zeuden gazte atzerritar horiei (*Mundutik Mundura* programan ezin ziren sartu) «gizarteratzeko ibilbideetan» lagundu nahi zitzaien, horien gizarte-bazterkeria ekiditeko. *Programa hori 2008an jarri zen martxan eta horrelako 76 gazteri eman die arreta (2008ko ekainera arte).*

Emakumezko IKEDAMEi dagokienez, Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumearen eta Familiaren Zerbitzuaren zentroetara eraman ohi dira; zentro horiek *Adoratrices* deritzonen ordenak (talde batek), *Trinitarias* deritzonen ordenak eta *Oblatas* deritzonen ordenak kudeatzen dituzte.

8.2. Heziketa-proiektua

EAEko baliabide-aukeratik garatzen diren heziketa-proiektuak foru-aldundiek zehaztutako ildo eta jardunen arabera dira hein batean, eta lehen adierazi dugunez, baita inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarrei dagokienez Atzerritarrei buruzko Legeak ezarritako muga arabera ere.

EAEen IKEDAMEi arreta ematen dien baliabide gehienek beren heziketa-programak aldatu dituzte iritsitako adingabeen profilak aldatu diren heinean. Horrela, zentro bat edo biren kasuan izan ezik¹⁴¹, IKEDAMEi arreta ematen dien baliabide guztiek zentroko heziketa-proiektuak dituzte. Bizkaiaren kasuan, adingabeen profil berriak jaso dituzten baliabide guztiek egokitu dituzte ZHPk¹⁴², Gipuzkoan, berriz, baliabideen % 61ek¹⁴³ eta Araban, ostera, soilik bi baliabideren informazioa lortu ahal izan da (*Zabaltzen* Zentroa eta *Zabaltzen* Programa); Arabako zentro horiek ez dute euren ZHP aldatu.

¹⁴¹ Gipuzkoako *Irisasi* zentroak ez du ZHP espezifikorik, baina taldeko eta banako heziketa-proiektu bat sortu dute bertan.

¹⁴² Gogoan izan Bizkaian zortzi baliabideren informazioa dugula.

¹⁴³ ZHP aldatu duten zentroak honako hauek dira: Urnieta, Zikuñaga, Azpilikueta, Frantzia Pasealekua, Hogares Amara, Bideberri eta harrera-pisuen sarea.

8.2.1. Urgentziazko Zentroak, Larrialdi Zentroak eta Harrera Zentroak

Heziketa-proiektuaren emaitzei dagokienez, gogobetetze-mailak oso desberdinak dira. Soilik Gipuzkoaren kasuan atzeman da gogobetetze-maila ona¹⁴⁴. Alabaina, Arabako *Zabaltzen* zentroan eta Bizkaiko urgentziazko bi zentroetan, heziketa-proiektuari buruzko balioespena «asegabetasunezkoa» da. Desberdintasun horien arrazoia erraza dela dirudi. Lehenik eta behin, Bizkaia da, hain zuzen ere, IKEDAMen bolumen handiena duen probintzia, eta bigarrenik, bi larrialdi-zentro horiek (2008ko ekainera arte) plaza kopuru handienak kudeatzen zituzten baliabide handiak ziren: *El Vivero* zentroak 65 plaza eta *El Garmo* zentroak 24 plaza, hain zuzen ere; bestalde, *Tolosa* zentroak 15 plaza zituen, *Zabaltzen* zentroak, 12, eta *Zikuñaga* zentroak, berriz, 10. Horrela, *dirudienez, datuek honako hau adierazten dute: urgentziazko zentroa zenbat eta handiagoa izan, heziketa-proiektuari buruko asegabetasun-maila ere orduan eta handiagoa da.*

Elkarrizketatutako adingabeek ere zentro horiekin pozik ez daudela adierazi dute. Amorebieta-Etxanoko *Zornotza* zentroa¹⁴⁵ edota Tolosako zentroa modu negatiboan balioetsi dituzte zentro horietan bizi diren gazteek. Horietako askoren hitzetan, zentro horiek gainokupatuta egon ohi ziren, eta gainokupazio horrek hainbat eragozpen eragiten zituen. Bestalde, adingabe asko bat datoz beste gauza batean, zentro horietan gatazkak maiztasun handiz gertatzen direla, adingabeen artean edota adingabeen eta hezitzaileen artean, hain zuzen ere. Eta azkenik, elkarrizketatutako adingabe batzuek kexatu direnez, zentro horietan «ez zuten ezer ere egiten, jateaz eta lo egiteaz aparte».

Amorebieta-Etxanoko udalerrian kokatutako *Zornotza* zentroari balioespen txarrenetakoa eman diote adingabeek. Gainokupazio egoerarik gertatzen bada, adingabeek argi atzema-ten dute, zentroko egoerak gabeziak dituela deritze, lurrean ipinitako koltxoietan lo egin behar dutela, logela bakoitzean adingabe ugari egon ohi direla eta behar adina janari ez dutela diote, eta horretaz gain, ohikoenetako kexa batek «ezer ere ez egitearekin » zeri-kusia du. «Ezer ere ez egitea» oso modu negatiboan balioetsi da; izan ere, adingabeen hitzetan, Espainiara emigratu izana lan-proiektu batekin lotuta dago kasu gehienetan, eta zentroan «denbora galtzen egoteak» ziurgabetasun eta ulertezintasun handia sortzen die, babes-zirkuituari dagokionez.

¹⁴⁴ Balioespen hori harrigarria da, Tolosako Zentroak gainokupazio garrantzitsu eta jarraitua izan baitu denboran, 9.1.3 idatz-zatian adierazi dugun bezala.

¹⁴⁵ Gogoan izan behar da adingabeen elkarrizketak 2007an egin zirela, hots, *El Garmo* eta *El Vivero* zen- troak oraindik ireki gabe zeudenean eta *Zornotza* zentroa urgentziazko baliabide bakarra zenean.

Zentro-tipologia horretan hobekien dabilzan alderdiak aztertzen baditugu, egia esan, ia ez dago kointzidentziarik probintzia desberdinetako urgentziazko zentroetan. *Hobekien dabilzan alderdiei* dagokienez, honako hauek aipatu dira:

- Baliabidera iristean adingabeei egiten zaien harrera.
- Oinarrizko premiei emandako erantzuna.
- Portaera-aldaketa.
- Prozesu pertsonalizatuari egindako jarraipena eta tutoretzak.
- Adingabeari gizarteratze-prozesuan emandako laguntza (dokumentazioa, etorkizunerako planak, eta abar).
- Prestakuntza-baliabideak bilatzea.
- Osasun-laguntza.
- Taldeen arteko harremanak.
- Heziketa-taldearen koordinazioa eta kohesioa.

Urgentziazko zentroetan *okerren dabilzan* alderdiei dagokienez:

- Baliabidean emandako denbora-tarte laburra.
- Banako heziketa-prozedura.
- Zentroan giro egokia sortzea: giro «sasifamiliar» eskasa, eta abar.
- Kalean bizitzeari alternatiba ematen dion toki bat eskaintzeko aukera.
- Adingabeak emantzipazio-aurreko baliabideetara bidaltzea eta komunitate-baliabideetan parte hartzea: gaztelerazko baliabideak lortzea, tailerretan eta eskoletan sartzea.
- IKEDAMak komunitatean gizarteratzea.
- Adingabeen tipologiari buruzko prestakuntza.

Ikus dezakegunez, urgentziazkoa —hots, aldi baterakoa— den baliabide baten tipologia-ren ondoriozko muga eta gabezietaik datoz adingabeek adierazitako alderdi positiboak zein negatiboak. Gipuzkoako *Tolosa* zentroaren kasuan, zentroko gatazkak murrizteko

inplikaturako agente eta erakundeekin egindako lan-mahaiaren bitartez barnean zein kanpoan hobetu diren harrera-protokoloekin, epeetarako eta dokumentazioa lortzeko prozesurako ezarritako protokoloekin, eta adingabeekin egindako banako barne-lanarekin zerikusia dute hobekien dabiltzan hiru alderdiak, eta alderdi negatiboek, berriz, kanpo-alderdiekin zerikusia dute; kanpo-alderdi horiek adingabearen benetako gizarteratzea asko zailtzen dute, batetik, bizkorra den eta modu egokituan gauzatzen den prestakuntza akademiko eta profesionalari dagokionez, eta bestetik, harrera-zentroetako plazarik ezari dagokionez, adingabeari zentrotik ateratzeko eta bere prozesua jarraitzeko aukera emateko.

Orobat, *harrera-zentro* guztietan gogobetetasun-pertzepzioa dago, horietan gauzatzen ari den heziketa-proiektuari dagokionez. Aurreko atalean aipaturako Bizkaiko zentroak, hots, *El Vivero* eta *El Garmo*, zenbait kasutan harrera-plaza gisa ere erabil zitezkeela nabarmendu behar da.

Hiru lurralde historikoetan 93 harrera-plaza daude guztira, eta honela banatuta daude: Araban, 12, Gipuzkoan, 31, eta Bizkaian, 50. Orobat, harrera-zentro guztietan gogobetetasun-pertzepzioa dago, horietan gauzatzen ari den heziketa-proiektuari dagokionez. Aurreko atalean aipaturako Bizkaiko zentroak, hots, *El Vivero* eta *El Garmo*, zenbait kasutan harrera-plaza gisa ere erabil daitezkeela nabarmendu behar da.

Hobekien dabiltzan alderdiei dagokienez, honako hauek aipatu dituzte zentroetako arduradunek:

- Adingabearen harrera eta taldearekiko lotura.
- Tutoretzak.
- Arauen eta balioen integrazioa.
- Gizarte- eta prestakuntza-prozesua.
- Hezitzaileen arteko koordinazioa

Okerren dabiltzan alderdiei dagokienez, berriz, honako hauek aipatu dituzte:

- Adingabeak irteten diren denbora.
- Esleitutako baliabidearen eta behin betiko baliabidearen arteko aurreikuspenik eza.
- Higiene-ohiturak transmititzeko zailtasuna.

- Ingurunearekiko harremana.

8.2.2. Egoitza-zentroak

Egoitza-baliabidearen eredia honelakoa izaten da: etxebizitza edo zentro txiki bat, zortzi-15 plazakoa, hiri handietan kokatua. Eredua horren salbuespen bakarra Bizkaiko *Zabalotxe* zentroa da; izan ere, 88 plaza ditu eta herri txiki-txiki batean dago. *Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko 16 baliabide sar daitezke eredu horretan, eta zentro horietako guztietako zuzendariak, hezkuntza-proiektuaren aplikazioa balioesteko garaian, gogobetetze-maila ertaina edo handia dutela esan dute.*

Baliabideetako zuzendaritzetatik *gizartearen eta hezkuntzaren arloko arretan emaitza onak lortzeko lagungarri den faktore* multzo bat aipatu dute; zentroetako eguneroko jardunean aplikatzen direnak. Alderdi zehatz horiek zehaztuz gero, honako hauek aipatu dira:

- Prestakuntzaren eta laneratzearen alderdiari dagokionez:
 - Arreta akademikoa.
 - Lanbide-orientazioa.
 - Enplegu-bilaketa eraginkorra.
- Gizarteratzearen alderdiari dagokionez:
 - Dokumentazioa arintzea.
 - Gizarte-trebetasunetako jarduerak.
 - Gizarte hartzaileko zirkuituak, ohiturak eta usadioak ezagutzea eta kulturarteko jarduerak egitea.
 - Taldeen arteko harremanak (aisialdian eta denbora librean irteerak elkarrekin).
 - Erakundetik ateratzeko prestatzea, autonomiaren eta autoerantzukizunaren bidez.
- Alderdi psikologikoari eta emozionalari dagokionez:
 - Eguneroko arretan gaztearen egoera afektibo-emozionala ona izan dadin lehenestea.

- Hezkuntza-langileek adingabeekiko gertutasun afektiboa izatea.
- Entzute aktiboa.
- Premiak eta interesak atzementzea.
- Oinarrizko premiak betetzea.
- Zentroaren barne-alderdiari dagokionez:
 - Kasuak indibidualizatzea eta tratamendu pertsonalizatua ematea.
 - Profesionalen ratio handia.
 - Hezkuntza-taldearen inplikazioa.
 - Koherentzia eta kohesioa hezkuntza-irizpideak aplikatzeko garaian.
 - Hezitzaileek erabiltzaileekiko bete beharreko araudia.
 - Zentroko araudia betetzea (ordutegiak, zentroaren txukuntasuna eta garbiketa).

Okerren funtzionatzaren duten alderdiei dagokienez, honako hauek aipatuko ditugu:

- Prestakuntzaren eta laneratzaren alderdiari dagokionez.
- Gizarteratzearen alderdiari dagokionez:
 - Helduak direnean gizarteratzearekin jarraitzeko programarik eza.
 - Jatorrizko familiarekiko kontaktua eta lankidetzak.
 - Dokumentazioa eguneratua izateko zailtasunak.
- Alderdi psikologikoari eta emozionalari dagokionez:
 - Adingabearen lankidetzarik eza.
 - Taldetik at, arreta indibiduala emateko zailtasuna.
 - «Mundura ateratzea», eguneroko bizitzako trebetasunak ikastea, alegia.
- Zentroaren barne-alderdiari dagokionez:
 - Langileen joan-etorria.
 - Zentroko araudia eta funtzionamendua bete eta onartzea (ordutegiak, jarraibide dietetikoak, eguneroko bizitzako lanak betetzea, batzarraren eginkizuna zentroaren antolamenduan parte hartzeko tresnatzat eta abar).

- Irmotasuna gutxieneakoak lantzeko garaian.
- Gatazkak konpontzea.
- Adingabeen profilak: heterogeneotasuna adinari eta biztanleria hartzailearen problematikari dagokienez, adingabe oso gatazkatiak, eta abar.
- Diagnostikoa egiteko zailtasuna.
- Banakako esku-hartzeak ez datoz bat hezkuntza-proiektuarekin (batzuetan).

Adingabeek ez dituzte oso modu positiboan balioetsi aldi baterako zentroak (urjentziazkoak, larrialdikoak eta harrerakoak), baina gizartearen eta hezkuntzaren arloko helburu argiak dituzten eta epe luzerako egoitza-arloko baliabideen balioespen oso ona egiten dute. Gehienetan, adingabeek oso modu positiboan balioesten dituzte honako jarduerak: adingabea bera gizarteratu eta laneratzea helburu dituztenak, eta, bereziki, lanau-rreko prestakuntzako baliabideak, hala nola, lanbide-ikastaroak.

Etxebizitza edo zentro izan, egoitza-baliabide batean bizitzeak aisialdiko jarduerak ere hartzen ditu barnean. Oro har, *datuen arabera, adingabeen gizarte-harremanak eta aisialdiko harremanak nazionalitate bereko eta zentro bereko jendearekin izaten dira.* Marokoarren kasuan, zentro bereko edo beste zentro bateko beste marokoarrekin harremanak izatea ohikoa da. Aldiz, Saharaz azpiko Afrikako adingabeen kasuan, herrialde bereko adingabe oso gutxi izaten direnez, nazionalitate bereko edo gertuko herrialdeetako adingabeekin erlazionatzen dira, gehienbat eremu geografiko berekoekin.

Egoitza-baliabideen gizartearen eta hezkuntzaren arloko helburuetako bat adingabeak gizarteratzen laguntzea da. *Zenbait adingabek prestakuntza-jarduerak egiten dituzte, baina ez bereziki IKEDAMentzat prestatutako jarduerak, eta kasu horietan, prestakuntza akademikoa edo lanaurrekoa jasotzen dutenek joera handiagoa dute EAEko gazteak ezagutu eta beren gizarte-sarean integratzeko.* Zenbait etxebizitzatan, hain zuzen, horrelako estrategiak erabiltzen dituzte adingabeak bertako neska-mutilekin kontaktuan egon daitezzen: hau da, hirian lehendik ere badiren baliabideak (prestakuntzakoak, asistentzialak...) erabiltzea, lehendik badiren jarduerak ludikoetan, eta hiriko aisialdiko eta kirol-arloko taldeetan parte-hartzerak bultzatzea.

Gazte gehienen aisialdiko jarduerak asteburuetan garatzen dira. Adingabeak EAEko hiriburuetara joaten dira paseatzera, edo lokutorio edo mintzategietara joaten dira Interneten konektatzeko; gazte horietako askok dioenez, jatorrizko herrialdeko lagunekin etengabe kontaktuan daude, telematikoki. Kirola egitea ere (futbola eta saski-baloia) aipatu izan dute.

Zenbait zuzendariren arabera, bertako jendearekiko harremanak egiten laguntzea errazagoa izaten da IKEDAMak babes-sare normalizatuko baliabide mistoetan daudenean, zentro nahiz etxebizitza izan.

8.3. Adingabe ikusezinak

Egokitzeko prozesu guztietan, bada beste alde ilunago bat: sistematik kanpo daudenak. Adingabe horiei harrera eta arreta emateko prozeduran, gutxi batzuk ez dira sisteman sartzen beraiek ez dutelako nahi, edo sistemak berak bota egiten dituelako, edo sistemak ez dituelako atzematzen.

«Beren kabuz» alde egiten duten adingabeek honako arrazoi hauek aipatu dituzte: haserre, desplazatuta, triste, bidegabeki tratatuta, desmotibatuta edo interes gabe daudelako babes-sistemak eskaini diezaiekeenaren aurrean. Beste batzuek ez dute erabat ulertzen babes-sarea zertan datzan, eta zalantzak eta ulertu ezinak dituztenez, alde egitea erabakitzen dute.

Sistemak atzematzen ez dituen edo sistematik kanporatuak izaten diren adingabeen kasuan, sistemak ezin die eskaini haien berezitasun eta itxaropenekin bat datorren erantzunik, eta premia oso espezifikoak dituzten adingabeen profilekin bat datoz gehienetan, bazterkeriarekin eta testuinguru marjinalagoekin loturiko ibilbideak izanik; esate baterako, sexu-langile diren neskak, adikzio-jokabideak dituzten adingabeak, gaixotasun mentalak dituztenak edo helduen kontrol-maila oso handiko ustiapen-zirkuituetan sartuta dauden adingabeak.

Atal honetan, atzeman ahal izan diren «adingabe ikusezinen» bi adibide aipatuko ditugu, sexuaren arloan lan egiten duten adingabeei dagokienez: Arabako IKEDAM sexu-langile neskak, eta Bizkaiko IKEDAM sexu-langile mutilak. Bi adibide horiek aipatuko ditugu, baina horrek ez du esan nahi beste lurraldeetan ez dagoela beste motaren bateko adingabe ikusezinik; bi kasu horiek gaur egun gertatzen ari den egoera larri baten adierazgarri dira.

8.3.1. Araban sexu-arloan lan egiten duten neska adingabeak

Lehen ere esan dugunez, IKEDAM neska oso gutxi atzematzen dira; EAEko hiru lurraldeetako babes-sistemetan sartzen diren nesken kopurua mutilena baino askoz ere txikiagoa da.

Horren adierazgarri dira Araban sexu-arloan aritzen diren IKEDAM neskak. Probintzia horretan elkarriketatutako zenbait profesionalek susmoak dituztela aipatu dute, IKEDAM neska horien presentziari dagokionez:

Guztiok gutxi gorabehera gauza berdina pentsatzen dugu, zerbait izango da, eta ziu-renik, prostituzioarekin loturiko mundu horren feminizazioa dela-eta. Gure ustez horrekin loturik egongo da. Baina horretan aritzen garenon sententzioa da, begi klinikoak. Ez dute argi eta garbi esaten. Beldur dira. Neska batzuek, denboraren poderioz, konfiantza hartzen dute hezitzaileekin eta zerbait kontatzen dute. Baina guk ere ez dugu hori baieztatzen duen daturik. Ez dago polizia-txostenik. Badirudi harreman handiagoa dutela mundu horrekin, baina ezin dugu baieztatuz, ez baitugu kanpo-txostenik, eta neskek eman dezaketen datuen eta konfiantza-mailaren arabera izaten da. (Adingabekoen eta Familiaren Arloa. 2007/07/13).

Hirugarren sektoreko erakundeek ere berretsi egin dituzte susmo horiek. 1986. urtean *Gizarterako* elkarteak sortu zen, Gasteizko emakumezko sexu-langileen egoera gero eta txarragoa zelako kezkatuta baitzeuden kolektibo sekular bat eta zenbait erlijioso. Elkarte horren helburuak hauek dira: prostituzioan aritzen diren edo aritu izan diren pertsonen bizi-kalitatea hobetzea, eta prostitutei, prostituitutakoei eta/edo prostituta ohiei informazioa, orientazioa eta aholkularitza ematea, kaleko, alfabetatzeko edo osasunaren mesederako programen bidez; izan ere, herritar izaki, haiek ere eskubidea baitute zerbitzu eta gizarte-prestazioak jasotzeko.

Lehenengo hamarkadan bereziki emakume nazionalak artatzen zituzten, baina urteak joan, urteak etorri, profila aldatzen ari da eta gaur egun, artatzen dituzten emakumeen % 90 atzerriarrak eta gero eta gazteagoak dira¹⁴⁶, Espainiako Estatuko beste hainbat herrian bezalaxe.

Oso zaila da datu estatistiko fidagarriak ematea, jarduera legez kanpokoa delako, dokumentaziorik ez dagoelako eta prostituzioan aritzen direnak estigmatizatu egiten direlako. Industria horren inguruko datuak emateko saiakera gutxi egin dira, baina horietako bat da TAMPEP (Transnational AID/STD Prevention Among Migrant Prostitutes in Europe Project)¹⁴⁷, 2004rako datu berriak landu dituen ekimen europarra. Espainian, emakumezko sexu-langileen % 82 etorkinak direla kalkulatzen da, eta horietatik % 54

¹⁴⁶ 2006. urteko Memoriaren arabera.

¹⁴⁷ TAMPEP Europako ekimena da eta hainbat herrialde biltzen ditu barnean.

Afrikakoak, % 33 Latinoamerikakoak eta % 9 Europa Ekialdekoak dira. Horietatik, % 26k Europako beste herrialderen batean lan egin du lehenago, eta % 85ek Espainiako beste hiriren batean, bereziki, Madrilén, Bartzelonan eta Bilbon. Polizia-kidego batzuek 2007rako jasotako datuek ere antzeko errealitatea erakusten dute. Polizia Nazionalaren arabera, 300.000 emakume aritzen da prostituzioan Espainian eta Guardia Zibilaren datuei jarraiki, horietatik % 98 atzerritarrak dira¹⁴⁸.

Gizarterako erakundearen 2006ko memoriaren arabera, kolektibo garrantzitsuena emakume nigeriarrek osatzen dute (% 53,9), eta emakume gazteenak (20-24 urtekoak) ere talde horretakoak dira. Latinoamerikarrek klubetan eta modu ibiltarian lan egiten dute, baina nigeriarrak errepideetan egoten dira. Hizkuntza gutxien ulertzen duen kolektiboa da, eta laguntza eta baliabideen premia handiena duena, baldintza txarrenetan lan egiten baitute.

Gero eta gazteagoak dira, askoz ere gazteagoak. Behin, emakume bat etorri zen hona, eta urtebetetze-eguna zuenean, 14 urte betetzen zituela esan zigun. Aho bete hortz utzi gintuen. Isilik egotea erabaki genuen; taldeko emakumerik argiena zen. Hain gaztea izanik, zaharragoak menderatzen zituen. Mediku batek esan zigun susmoa zuela adingabea ote zen. Baina salatzen bazuen, emakume hori harrapatu egingo zuten eta talde osoak joateari utziko zion; beraz, ezin izango genituen lagundu. Bada beste arazo bat, errumaniarrak eta nigeriarrak (kulturalki) adinez nagusi bihurtzen dira hilerokoa etortzen zaienean; bikotea osatu dezakete dagoeneko, baina gure kulturari 18 urte bete behar dira. (*Gizarterako*. 2007/10/01).

Halaber, memoria horretan jasotzen denez, urte hartan hiru adingabe atzeman ziren sexu-arloan lanean Gasteiz inguruan. Izan ere, elkartetik diotenez, ziurrenik adingabe gehiago ere izango dira sexuaren lan-eremuan:

Emakume atzerritar adingabeak lanean ari al dira? Bai, ia ziur. Nola identifikatu? Ez dute paperik eta izango balituzte ere, gezurrezkoak izango lirateke. Zenbat urte dituzten galdetzen badiezu, 18 erantzungo dizute; zenbaki hori esateko esan diete. (*Gizarterako*. 2007/10/01).

Adierazpen horiek bat datoz sexu-langileak artatzen dituzten erakundeek eta Kataluniako eta Madrilgo polizia-kidegoek emandako informazioarekin. Kataluniako eta Madrilgo

¹⁴⁸ ALONSO, A. (2008). En terra de ningú. Una aproximació a la prostitució en els projectes migratoris de menors no acompanyades de l'Europa de l'Est a Catalunya. Tesina, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa.

errepideetan eta alterneko klubetan landa-lana egin genuen, eta emakume horiei buruzko gure susmoak baieztatu genituen. Eremu horretako bibliografia ez da oso esanguratsua gure herrialdean, baina hainbat argitalpenetan jasotzen da sexuan lan egiten duten IKEDAMak badirela¹⁴⁹ Espainiako Estatuan.

Arabako Foru Aldundiaren beraren esanetan, sexu-lanean aritu diren susmoa duten IKEDAM nesken jatorri nagusia Saharaz azpiko Afrika da, eta, bereziki, Nigeria.

Saharaz azpikoak dira. Behin bakarrik iritsi zen Afrikakoa ez zen neska bat; Hego Amerikakoa zen. Poliziak alterneko klub batean atzeman zuen eta guri ekarri ziguten. Eta neska bere herrialdera itzuli zen, familiarengana. Etorri zenean gezurra esan ziotela esan zuen. Beste zer baitetan lan egitera zetorrela esan zioten... (Adingabe-koen eta Familiaren Arloa. Araba. 07/07/13).

Adingabeen arloan eskumena duten administrazioek erne egon behar dute errealitate horren aurrean eta gizarte-bazterkeriaren arriskuan dauden neska horiek errazago atzemateko mekanismoak aktibatzen hasi beharko dute.

8.3.2. Sexu-langileak diren adingabe mutilak Bizkaian¹⁵⁰

Kasu gehienetan, prostituzioan aritzen diren adingabeak ezkutuan egoten dira atzemateko eta arreta emateko zirkuituei dagokienez. Atal honetan, prostituzioan aritzen diren adingabe marokorarrak izango ditugu mintzagai.

Sexu-langileei arreta ematen lan egiten duten elkarteek (T4 elkarteak, esaterako) diote-nez, adingabe atzerritarrek prostituzioan aritzea errealitatea da eta, gainera, gorakada sumatu da.

¹⁴⁹ Katalunian: *Nenes i adolescents invisibles a Catalunya. Les menors migrants no acompanyades des d'una perspectiva de gènere* Ramon Llull unibertsitateko IFAM ikerketa-taldearena, eta A. Alonso-ren *En terra de ningú. Una aproximació a la prostitució en els projectes migratoris de menors no acompanyades de l'Europa de l'Est a Catalunya*, biak ere 2008. urtekoak. Andaluzian, Granadako Unibertsitateko Morante eta Trujillok 2007. urtean «La Migración de Menores Extranjeros No Acompañado en Europa» Poitiers-eko Nazioarteko Mahai-inguruan aurkeztutako ponentzia: *Las niñas adolescentes que emigran solas a España*.

¹⁵⁰ 2007/06/11n Hiesaren aurkako borroka T4 elkarteari egindako elkarrizketatik ateratako informazioa.

Prostituzioan aritzen diren adingabeen kopuruak, bereziki, magrebtarrenak, gora egin du (...) Eskaintzak eta eskariak ere gora egin dute, eta nire ustez, exotikoa delako gertatzen da, desberdina delako, eta harremanaren azkartasunagatik. (Hiesaren aurkako borroka T4 elkarte. 2007/06/11).

Sexu-langile den adingabea kalteberagoa da eta zailagoa izaten da harengana iristea; gainera, aipatu behar da IKEDAM horrek ez duela izaten erreferentziako senitarteko heldu bat, eta inork ez dio jarraipenik eta kontrolik egiten, eta ez dizkio mugak jartzen.

Adingabearen profila hauxe da: bereziki, Magreb ingurukoa, heterosexuala baina gizonekin jarduten du dirua lortzea errazagoa delako, eta erlazio eta praktika homosexualen gaineko ezjakintasun handiarekin.

Espazio publikoan egiten dute prostituzioa, batik bat, Bilboko Abandoko geltokiaren inguruan. Sexu-arloko lana substantzia toxikoen kontsumoarekin loturik dago: inhalatzailerak, kokaina edo speeda, besteak beste. Ohiko moduan, adingabeekiko harremanak oso laburrak izaten dira, kontaktu txikiak toki publikoetan: komun batean edo bezeroaren autotan.

Bestalde, iruzur ere egin diezaiekete; esate baterako, «grooming»-a, hau da, bezeroak argazkiak ateratzen dizkio adingabeari sakelako telefonoarekin, adingabea konturatu gabe, zerbitzuaren zati bat izango balitz bezala, eta gero, bezeroak erabilera pertsonalerako erabiliko ditu argazkiak. Beste kasu batzuetan, zerbitzuaren truke opariak jasotzen dituzte, eta adingabeak, horrelakoetan, ez du lan sexual moduan ikusten, baizik eta mesede sexual moduan.

Elkarteak adingabeak atzematen hasi ziren garaian, oso ohikoa zen taberna «gay»-etako jabeek adingabeak erakartzea amu gisa, edaria doan eskainita.

Kapituluaaren azalpena

Detección

- Euskal Autonomia Erkidegoan igarotako hasierako egunetarako hainbat aukera atzeman ditugu, zentzoren batean sartu aurretik: zuzenean zentzora: % 32; kalean: % 52; senitartekoren baten etxean: % 8; herrikide baten etxean: % 8.

- Adingabeen hainbat modutara atzematen dira: % 87,9 zuzenean polizia-etxera joaten dira (% 51,5ek babes-sistemaren eta sistema horren abantailen berri badu alde zurretik eta % 36,3 lagun batekin, herrikide batekin edo EAEko norbaitekin batera joaten da polizia-etxera). Beste % 3 bat atxilotuta atzematen da. Eta gainerako % 9a Kanarietako gobernutik bideratuta iritsi da EAEko babes-sistemara.

Araba

- 2006an, Araban adingabe marokoar bat dokumentatzeko batez besteko epea lau hilabete zen, behin betiko tutoretza lortze aldera; hiru-sei hilabete nortasun-agiria eta pasaporte lortzeko; 12 hilabete egoitza-baimena lortzeko; eta, gutxienez, 12 hilabete lan-baimena lortzeko. Horrela, bada, Arabara iristen den adingabe marokoar bat dokumentatua egongo da, ezarritako epeak betez, 28 hilabeteren buruan.
- 2005ean, bertako gobernuaren ordezkariordetzak eskatuta, familia bat berriz elkartu zen; aldiz, 2006an lau elkartzek gertatu ziren: hiru familiak eskatuta jatorrian, eta bat bertako Gobernuaren Ordezkaritzak eskatuta. 2007an, bi egin ziren, Bartzelonako eta Logroñoko gobernuaren ordezkariordetzek eskatuta. Berriz elkartutako adingabe guztiak Magrebekoak dira, bereziki, Marokokoak.
- Herrera-sarearen bilakaera hiru etapatan zehazten da: 1997tik 2002ra adingabeak babes-zirkuitu normalizatuan hartu ziren; 2003tik 2006ra gaueko baliabide espezializatuak sortu ziren eta 2007tik 2008ra baliabide espezializatuak dibertsifikatu eta plaza berriak ireki ziren harreran eta emantzipazio-etxebizitzetan.
- 2008ko irailean IKEDAMek (IKEDAMak eta adinez nagusiak) okupatutako 90 plaza zeuden Araban: Foru Aldundiak babesgabezia-egoeran dauden adingabeak artatzeko dituen plaza guztien (158) % 56 osatzen dute; 158 plaza horietatik 80 lehen harrerako baliabideak dira, 29 oinarritzko egoitza-plazak, 26 egoitza-plaza espezializatuak, 23 emantzipaziokoak eta ez dago plazarik adin-nagusikoentzat.

Bizkaia

- 2007an, adingabe bat Bizkaian dokumentatzeko batez besteko epeak honako hauek izan ziren: lau hilabete behin betiko tutoretza lortzeko, hiru-sei hilabete Nortasun Agiria eta pasaporte lortzeko, 12,52 hilabete egoitza-baimena lortzeko (adingabea zentroan sartzen denetik egoitza-baimena eskatzen duen arte, 8,24 hilabete, eta egoitza-baimena lortzen duen arte, 4,28 hilabete gehiago), gutxienez urte eta erdi

LHIK batean praktikak egiteko eta lan-eskaintza lortzeko (18 hilabete), eta azkenik, bi hilabete lan-baimena lortzeko. Horrela, bada, Bizkaira iristen den adingabe marokoar bat dokumentatua egongo da, ezarritako epeak betez, 32 hilabeteren buruan.

- 2005-2006 urteetan, familiarekin elkartzeko lau prozesu baimendu ziren; horietako bat Gobernuaren Bizkaiko Ordezkariordeztzak eman zuen, eta gainerako hirurak, berriaz, Bizkaian bizi ziren adingabeen kasuak baziren ere, Gobernuaren Bartzelonako Ordezkariordeztzak eman zituen.
- Harrera-sarearen bilakaera bost etapatan zehazten da: 1996tik 2000ra adingabeak zirkuitu normalizatuan artatzen hasi ziren, baina 2000. urte amaieran espezializatzen hasi zen; 2001etik 2003ra, iritsitako kopuruaren «boom»-a izan zenez eta zirkuitua gainokupatuta zegoenez, harrera-baliabideak are gehiago espezializatu ziren eta adin-nagusikoentzako zirkuitu informala sortu zen. 2004tik 2005era harrerako eta egoitzako plaza berriak ireki ziren eta adinez nagusi diren gazteentzako programa ofizial bat sortu zen. 2006tik 2007ra, zirkuitu espezializatu zabaldu egin zen larrialdiko eta harrerako zentroekin, iristen ziren IKEDAMen kopuruan beste gorakada bat gertatu baitzen. Azkenik, 2008tik aurrera, larrialdi-plazak egoitza-plaza bihurtu dira eta horrelako plaza gehiago ere sortu dira.
- 2008ko irailean, IKEDAMek (IKEDAMak eta adinez nagusiak) 583 plaza okupatzen zituzten Bizkaian. Foru Aldundiak babesgabezia-egoeran dauden adingabeak artatzeko dituen plaza guztien (709) % 82 osatzen dute; 709 plaza horietatik 72 lehen harrerako baliabideak dira, 323 oinarritzko egoitza-plazak, zortzi egoitza-plaza espezializatuak, 46 emantzipaziokoak, eta 260 adin-nagusikoentzat, lau programa formal eta informaletan banatuta.

Gipuzkoa

- 2008an, adingabe marokoar bat Gipuzkoan dokumentatzeko batez besteko epeak honako hauek izaten ziren: bi hilabete (55,9 egun) behin betiko tutoretza lortzeko; hiru-sei hilabete Nortasun Agiria eta pasaporte lortzeko; hiru hilabete (85 egun) egoitza-baimena lortzeko, adingabeak babes-zentro batean zazpi hilabete daramanetik zenbatzen hasita; urte eta erdi gutxienez LHIK batean praktikak egiteko eta lan-eskaintza lortzeko; eta hiru hilabete (94 egun) lan-baimena lortzeko. Hortaz, Gipuzkoako lurralde historikora iristen den adingabe marokoar bat 27 hilabetetan dokumentatuta egongo da, baldin eta epe guztiak aurreikusitakoaren arabera betetzen badira.

- 2004an, bi aberriratzeko gauzatu ziren lurralde honetan: aberriratzeko bat Bartzelonako Gobernuaren Ordezkariordeztatik eskatu zuen adingabe marokoar batentzat, eta beste neska adingabe baten «borondatezko itzulera» izan zen.
- Harrera-sarearen bilakaera lau etapatan zehazten da: 1993tik 2001era lehen harrerako zirkuitu espezializatua sortu zen, iragaitzak dauden adingabeentzat; 2002tik 2004ra, harrerako zerbitzu espezializatua eskaini zen, ez egoitzakoa. 2005etik 2006ra, harrerako eta babeseko lehen sare espezializatua sortu zen. 2007tik 2008ra, zirkuitua berreraiki zen, eta egoitzako plaza berriak eta emantzipazio-etxebizitzak sortu ziren.
- 2008ko irailean IKEDAMek (IKEDAMak eta adinez nagusiak) 205 plaza okupatzen zituzten Gipuzkoan. Foru Aldundiak babesgabezia-egoeran dauden adingabeak artatzeko dituen plaza guztien (324) % 63 osatzen dute; 324 plaza horietatik 59 lehen harrerako baliabideak dira, 92 oinarritzko egoitza-plazak, 59 egoitza-plaza espezializatuak, 42 emantzipaziokoak eta 72 adin-nagusikoentzat.

9.1. Ondorioak

Txosten osoan, informaziorik azpimarragarriena kapitulu bakoitzaren amaieran laburbildu da, *Kapituluaren azalpena* izenburupean. Hori dela-eta, ondorioei buruzko kapituluaren funtsezko ondorioak labur-labur azalduko dira, eta arreta handiagoa eskainiko zaie Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileei laguntzeko prozedurak eta zirkuituak hobetzeko gomendioei eta proposamenei.

Euskadiko migrazioaren historiak eta Estatu espainoleko gainerako lurraldeetako migrazioaren historiak bide paraleloak izan dituzte. *2006an, Euskadi hamaikagarren erkidegoa zen* (helduak kontuan hartuta) oro har, eta atzeritarren etorrerak ez du beste erkidego batzuetan izan den hazkundera eragin, hiru foru-aldundietan etorkinen kopuruak gora egin badu ere.

Familia-erreferentziarik gabeko adingabeen migrazioaren fenomeno 90eko hamarkadan hasi zen Europan, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioa berretsi zenean (1989). Konbentzio horren bidez, planteamenduak aldatu eta ikuspegi protekzionista bat aplikatu zen. Azken batean, *fenomeno horren berritasuna* ez da adingabeak lekuz aldatzea edo adingabeen zirkulazioa, kolektibo hori bistaratzea eta erakundeek kolektibo hori tratatzeko modua baizik, adingabeak babesteko legeak agertu zirenez geroztik.

Immigrazioaren abenturari bakarrik edota «konpainia txarrarekin» ekiten dioten adingabeak gure herrialdera iristea *immigrazio-estrategia berri gisa* finkatu da, eta *helduen fenomenotik bananduta* heldu behar zaio adingabeen fenomeno horri. Horrela, beraz, bakarrik emigratzen duten adingabeak *migrazio-eragile berritza* hartzen has gaitezke, migrazio-fluxuetan esku hartzen duten gainerako eragileetatik bereizten dituen migrazio-eredu espezifiko bat baitute: adingabeak direla eta migrazioa familia-erreferentziarik gabe gauzatzen dela.

Espanian, *erregistratutako lehen kasuak* 1994an agertu ziren. Era berean, Euskadin Inoren Kargura ez dauden Adingabe Migratzaileen *lehen kasua* 1994an erregistratu

zen Gipuzkoan (hasieran, Gipuzkoak Frantziarekin muga egiten duela-eta, pasaerako leku izan zen adingabe horientzat, baina denborarekin bizitzeko probintzia bihurtu zen). Araban, berriz, zortzi kasu erregistratu ziren 1996an, eta Bizkaira, 1996tik 2000ra bitarte, Inoren Kargura ez dauden 25 Adingabe Migratzaile iritsi ziren urtean batez beste.

Adingabe horien presentzia arautzen duen *erregelamendu juridikoak*, atzerritarrek direla kontuan hartuta, Atzerritarrei buruzko 8/2000 Legea du oinarri, eta adingabeak direla kontuan hartuta, berriz, Harrak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Euskal Legea eta 8/2008 *Euskal Legea, Gizarte Babesik gabeko Haur eta Nerabeentzako Egoitza Harrerako Baliabideak Arautuko dituen Dekretuaren* bitartez. Izaera juridiko bikoitz hori problematikoa da, eta zenbaitetan kontraesanak sortu ditu. Izan ere, adingabearen estatua etorkinaren statusaren gainetik egon behar luke, baina babes hori murrizten duten neurriak hartu dira, Estatuan zein Autonomia Erkidegoan.

9.1.1. Estatistika-oharrak

Euskadi ez dago IKEDAMen harreratik kanpo. Espainian dauden IKEDAMen kopuruari dagokionez, *Euskadi hirugarren tokian zegoen 2006an* (Andaluziaren eta Kanarien atzetik). *2007an*, berriz, *laugarren tokian* zegoen, Andaluziaren, Valentziako Erkidegoaren eta Kanarien atzetik, eta historikoki garrantzitsuak izan diren erkidegoen aurretik (hala nola Kataluniaren eta Madrilén aurretik).

Azpimarratu beharra dago harrera-sisteman IKEDAMen kopuruak gora egin duela eten-gabe. Urteak igaro ahala, 1994tik aurrera igotzeko joera dagoela ikus daiteke, erregular-tasun handiagoarekin edo txikiagoarekin.

2007an, guztira 677 *adingabe* izan dira Euskadiko harrera-zentroren batean. *2006an* eta *2007an*, *Bizkaia* da hartutako IKEDAM gehien izan dituen Foru Aldundia. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko harrera guztien % 72 izan zuen 2006an, eta % 74 2007an. *Gipuzkoak* hartutako guztien % 21 izan zuen 2006an, eta % 20 2007an. *Arabak*, berriz, % 6 izan zuen 2006an zein 2007an.

Bestalde, harrera-zentroetan hartu diren *gizonezko IKEDAMen sarrera kopurua* 649 izan da. Harrera berrien kopururik handiena Bizkaian bildu da 2007an (sarreraren % 70). Atzetik, Gipuzkoa eta Araba izan ditugu (% 22 eta % 9, hurrenez hurren).

Emakumezko IKEDAMen kopurua datuetan agertzen dena baino handiagoa izango da ziur aski, baina, nolanahi ere, *emakumezko IKEDAMen sarrera kopurua* gizonezko IKEDAMena baino askoz txikiagoa da. 667 IKEDAMetatik, 14 baino ez dira *neskak*. 2007an, Bizkaiko Foru Aldundiak izan ditu emakumezko IKEDAM gehien. Euskal Autonomia Erkidegoko emakumezko IKEDAMen sarreraren % 79 Bizkaiak hartu du, eta % 21 Gipuzkoak. Araban ez da kasurik izan. Emakumezko IKEDAMen lehen kasuak Araban agertu ziren 1999an. Bizkaian, 2000. urtean hasi ziren agertzen, eta Gipuzkoan, berriz, 2003an.

Oro har, *nesken migrazio-proiektuen* ezaugarri nagusiak aniztasuna eta ikusezintasuna dira, eta ezaugarri horiek ezkutuko ibilbideetan eta erregularizatu gabeko zirkuituetan hirugarrenentzat egindako lanei¹⁵¹ (pertsonen zaintza, etxeko lanak, ebasketa, sexu-lana eta abar) lotutako gizarteratze motarekin dute zerikusia. Gainera, neska horiek babes-sistemarako duten sarbidea oso mugatua eta ezohikoa da.

Iristen diren adingabeen adina gero eta txikiagoa da. 2007. urtean, IKEDAMen % 73k 17 urte zituen, eta % 27k 15 urte. Araban, hartutako IKEDAMen % 51k 17 urte zituen, % 19k 16 urte, eta gainerako % 19ren adina ezezaguna zen. Gipuzkoan, IKEDAMen adinak askotarikoagoak dira: % 30ek 17 urte zituen, % 22k 15 urte, eta % 21ek 16. Bizkaian, berriz, hartutako gizonezko IKEDAMen % 33k 17 urte zituen, % 36k 16 urte, eta % 19k 15.

Nazionalitateari dagokionez, EAEko mutil etorkinei buruzko datuak baino ez ditugu eskuragarri: *IKEDAMen % 83 Marokokoa da, eta gainerako % 17 beste herrialde batzuetakoa*. Jatorrien dibertsifikazioari dagokionez, Araban hartutako IKEDAMen % 52 Saharaz azpiko Afrikakoa da (% 32 Ginea Conakrykoa), % 46 Magrebkoa (% 30 Marokokoa), eta gainerako % 2 Errumaniakoa. Gipuzkoan, IKEDAMen Lehen Harrera Zentroan hartutakoen % 91 Marokokoa da, eta gainerako % 9 beste herrialde batzuetakoa (Aljeriakoa, Frantziakoa eta Palestinakoa nagusiki). Era berean, Bizkaiko Lehen Harrera Zentroan hartutakoen % 88 Marokokoa da, eta gainerako % 12 beste herrialde batzuetakoa (Errumaniakoa, Aljeriakoa, Ghanakoa eta Senegalgoa nagusiki).

Tamalez, hartutako emakumezko IKEDAMen sarreraren kasuan, Bizkaiko datuak baino ez ditugu. Horien arabera, guztien % 55 Errumaniakoa da, % 19 Marokokoa, eta % 9 beste herrialde batzuetakoa.

¹⁵¹ Emakumeek emigratzen dutenean, Espainiako emakumeek utzitako lan-nitxoak hartu eta emakumeek izan diren jarduerak egin ohi dituzte.

Hona hemen *EAEk duen berezitasunetako bat, beste autonomia-erkidego batzuetan agertzen ez dena*: IKEDAMek Euskal Autonomia Erkidegoa bizitzeko leku aukeratzeko arrazoia ez da aldez aurretik etorkin helduak iritsi izana. *Euskal Autonomia Erkidegoa bederatzigarren erkidegoa da atzerritarren kopuruari dagokionez, baina hirugarrena IKEDAMen kopuruari dagokionez*. Izan ere, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan dauden adingabe asko beste autonomia-erkidego batzuetako babes-sistemetan jaso duten etsaitasunetik eta arbuioetik ihes eginez iritsi dira. Arbuio hori Atzerriarrei buruzko 8/2000 Legearen 35. artikuluan familiarekin berriz elkartzeko agertzen den neurriaren aplikazio aktiboaren eta erakundeen tratatu txarren (dokumentaziorik eza, tutoretzaren atzerapena eta abar) bidez jaso dute. Euskal Autonomia Erkidegoa ez dago hirugarren tokian migrazio-aurrekaria izateagatik, adingabeen ustez beste autonomia-erkidego batzuetakoa baino eraginkorragoa eta abegitsuagoa den harrera- eta arreta-zirkuitu bat edukitzeagatik baizik. Azken batean, adingabe horietako batzuentzat (konforme ez daudenentzat) erresistentzia-estrategia hori izan da migrazio-proiektua gauzatzeko bidea.

9.1.2. Jatorrizko testuinguruak

Euskal Autonomia Erkidegora iristen diren IKEDAM gehienak, Espainia osoan bezalaxe, Marokokoak dira. 2003. urtetik aurrera, aldiz, adingabeen profilak dibertsifikatzen hasi ziren. Marokoko iparraldekoek zein hegoaldekoek gain, Sahara azpiko Afrikakoak eta Europako ekialdekoak daude. Beste aldaketa nabarmen bat emakumezko IKEDAMen erregistroan gertatu da.

IKEDAM gehienak *hiriguneetatik* datoz, baina landa-eremuetatik datozen adingabeen profila ere ikusi dugu, Marokotik datozen adingabeen kasuan bereziki. IKEDAMen *familia-eredu* nagusia *nuklearra* da, baina guraso bakarreko familietatik datozenak ere asko dira, gurasoak bananduta edo dibortziatuta dituztela, edo gurasoetako bat hil dela. *Familia bakoitzeko anai-arreben batez besteko kopurua lau-zazpi da*, eta adingabe gehienek erantzukizun handiko zereginak betetzen dituzte anai-arreben artean. IKEDAMen familia gehienek zailtasun ekonomikoak dituzte. Ia IKEDAM guztiak eskolatu egin dira noizbait, eta badakite irakurtzen eta idazten. Adingabe gehienek lan-esperientziaren bat izan dute jatorrizko herrialdean.

9.1.3. Migrazio-proiektua

*Emigrazioaren arrazoi nagusiak ekonomikoak, gizarte- eta kultura-aurreikuspenak hobetzeko asmoa (kirola, ikasketak eta abar), politikoak eta familiaren gatazka-egoeratik ihes egiteko asmoa dira (azken arrazoi hori emakumezko adingabeen kasuan agertzen da). Migrazio-aurrekariak (familia, berdinen taldea, auzokoak edo ezagunak) erabakigarriak dira Europara irteteko erabakian, baita jomugako herrialdeko babes-sareari dagokionez ere. Migrazio-proiektuan, oinarritzko bi jarrera daude: *erabaki indibiduala izatea* (elkarriketatutako IKEDAMen % 60ren kasuan), edota *familiaren erabakia* izatea (% 21en kasuan), semea edo alaba babesteko, familiaren egoera ekonomikoa hobetzeko edo adingabearen etorkizunean inbertitzeko (ikasketa-etorkizunari dagokionez batez ere) estrategia gisa. Bidaia *kostua* badu (zenbaitetan ez da kostu ekonomikorik izaten), gurasoek, Europan dau den ahaideek edo adingabeek berek har dezakete beren gain. Azken kasu horretan, oso kualifikazio txikiko aldi baterako lanak egiten dituzte askotan, patera jatorrizko herrialdean edo ibilbidean ordaintzeko behar adina diru lortzeko. Elkarriketatutako *Marokoko* IKEDAMen artean, % 83k *ez du migrazio-erakunderik behar izan* ibilbidea egiteko (hegoaldeko adingabe batzuek behar izan dute erakunderen bat). Talde hori da ekonomikoki gutxien inbertitu behar izan duena Espainiarako bidaia egiteko. *Saharaz azpiko Afrikako* adingabeen artean, berriz, % 55,5 *migrazio-erakunderen baten laguntzarekin etorri zen*.*

Espainiara iristeko aukerarik ohikoena *modu irregularrean* etortzea da. Ikerlan honetako IKEDAMen % 76 honela sartu da: % 32 kamioi edo autokar batean azpian, % 18 ezkutuko bidaiari gisa itsasontzi batean, eta gainerako % 26a pateran. Magrebeko adingabeei dagokienez, % 55ek kamioi edota autokar baten azpian bidaiatu dute, % 13k itsasontziko ezkutuko bidaiari gisa, % 17k pateraz, eta % 13k, azkenik, modu erregularrean (hegazkinez, autoz edo itsasontziz). Saharaz azpiko adingabeen % 44,4k pateraz bidaiatu dute, % 22k itsasontziko ezkutuko bidaiari gisa, eta % 22k, berriz, hegazkina erabili dute sartzeko garraibide gisa. Emakumezko IKEDAMei dagokienez, kasu gutxi ezagutzen ditugu, eta hegazkinez edo autoz iritsi dira.

Migrazio-bidaiaren arrisku-maila adingabearen jatorrizko herrialdeak Espainiarekin duen distantziarekiko eta egin behar dituen aldaketen eta hartu behar dituen garraibideen kopuruarekiko paraleloa da. *Ibilbidean zeudela*, ia kasu guztietan, adingabea *kalean bizi izan da denboraldi batez* (egunak edota hilabeteak). Nazionalitatea edozein izanik ere, adingabe batzuek *oso kualifikazio txikiko lan mota* irregularren bat —aste edo egun gutxitakoa— lortzen dute.

Espainiara batez ere Andaluziako Erkidegotik sartu ziren; izan ere, IKEDAMen % 44k sarbide hori aukeratu zuen (gehienak Marokokoak ziren). Adingabeen % 30 Kanariar Uharteetatik sartu zen, eta % 14, berriz, Bilbotik zuzenean (hegazkinez batez ere). Adingabeen % 81,8k adierazi duenez, gutxienez pertsona baten *babesa eta laguntza* jaso du Espainian sartu zenetik *Euskal Autonomia Erkidegora iristea lortu zuen arte* (senide batena, herrikide batena edo espainiar batena). Espainian finkatuta dagoen jatorrizko herrialdeko komunitateak «egonkortzeko» zeregina betetzen du, eta nolabaiteko «segurtasuna» eta harrera-gizartean finkatzeko hasierako laguntza ematen die adingabeei. Zenbait adingabek ez dute erabili nahi Espainian finkatutako familia-babeserako sarea, beren egoera beren kabuz konpontzen saiatu nahi baitute. Adingabeen % 68k ez du sekula babes-baliabiderik erabili EAera iritsi baino lehen, eta adingabeen % 32k, berriz, bai. Horien artean, % 75 Marokokoa da.

9.1.4. Arreta eta harrera

Adingabeei eskaintzen zaien harrerak eta arretak dimentsio bikoitza dute. Alde batetik, atzeritarrei buruzko legearen eta autonomia-erkidegoetan haurrei laguntzeko indarrean dauden legeen arabera erakunde-zirkuitua dago. Eta, bestetik, zirkuitu ofizialaz kanpoko zirkuitu informala dugu. Zirkuitu informal hori ez dago ados zenbait neurriekin, eta adingabeei eskaintako arretaren irregulartasuntzat eta gabeziatzat (zenbait kasutan haurren eskubideen urratzetzat) hartzen dituztenei aurre egiten saiatzen da. Adibiderik garbiena arretaren arloko profesionalak berriz elkartzeko egindako zuzeneko edo zeharkako mehatxuaren aurrean beste autonomia-erkidego batera joateko ohiko gomendioa da (adingabeek kontatutakoaren arabera). Zenbait adingabe zentro batetik bestera eta autonomia-erkidego batetik bestera ibiltzen dira. Berriz elkartzeko neurria aplikatuko zaien susmoa dutenean edo neurri hori bideratzen ari denean, adingabeek zentroa uzten dute. Zirkuitu informal horretan aktibatu den beste neurri bat sistematik kanporatu dituzten eta kalean bizi diren IKEDAMEi, babes-zirkuituak onartzen ez dituztenei edota adin-nagusitasunera iritsi direnei arreta eskaintzea da.

Autonomia-erkidego guztietan irizpide komunak falta dira IKEDAMen arretari dagokionez, eta adingabeak berme gehien eskaintzen dizkieten erkidegoetara joaten dira. Hori dela-eta, arestian aipatutako bikoiztasuna areagotu egiten da. Euskal Autonomia Erkidegoko profesionalak eta administrazioak kezkatuta daude egoera hori dela-eta, «dei-efektua» eragin baitu.

Horrek guztiak zalantza eta ulertezintasun handia sortzen du adingabeengan, eta kontraesan uzten du agerian. Kontraesan hori adingabearen interes gorenaren eta babes-siste-

maren beraren kalterako baino ez da. Izan ere, erkidegoen arteko desberdintasuna sortu, eta adingabeen maltzurkeria bultzatzen du.

EAEko IKEDAMentzako arreta- eta harrera-zirkuituaren oso alderdi positibo bat adingabeak etortzean erakutsitako erreakzio-ahalmen handia izan da, bai adingabe kopuru handia iritsi denean (zentroak zabalduz), bai gatazkek zentroak «lehertu» dituztenean. Horrek guztiak oso izaera bizia eta dinamikoa ematen dio EAEko sistemari, inguruabar berrietara egokitzeko borondatearekin aldaketak oso bizkor gertatzen baitira. Hala ere, dinamismo horrek ez ditu oso praktika egokiak ekarri adingabe asko iritsi direnean.

Detekzioari dagokionez, erakundeen artean lankidetzarik ez dagoela eta erakunde bakoitzak dagozkion eskumenak bere gain hartzen ez dituela ikus daiteke, oro har, hiru probintzietan. Alde batetik, Polizia Nazionalearen eta Ertzaintzaren artean. Egoera horren ondorioz, IKEDAMek bi espediente izaten dituzte maiz. Eta, bestetik, emakumezko adingabeen berriarazko detekzioari dagokionez, Aldundiaren, zirkuitutik kanpoko IKEDAMei arreta eman diezaieketen erakundeen (hala nola sexu-langileei arreta emateko erakundeen eta etorkinen erakundeen) eta segurtasun-kidegoen artean ez dago koordinaziorik emakumezko IKEDAMak detektatzeko eta bizkor jarduteko.

Administrazio-prozeduran, zailtasun ugari daude jatorrizko herrialdeko dokumentazioaren (pasaportearen eta jaiotza-agiriaren) eta hezur-probaren inguruan, garrantziaren araberako ordenan. Hiru aldundietan, adingabeak adierazitako bi dokumentuetako bat aurkezten badu, ez dago hezur-proba egin beharrik.

Adina zehazteko probak hiru probintzietan egiten dira. Hala ere, probak egiteko epeak ez dira berdinak.

Aldundi guztietan, *irizpide-desberdintasun nabarmena dago IKEDAMen arretarako eta erakundeen arteko ordenamenduari lotutako ekimenak babesteko protokoloari dagokionez*. Horren ondorioz, Fiskaltzak bere zereginik burokratikoena bere gain hartu (legez kanpoko dokumentazioa) eta benetako babesaren emateko zeregina bertan behera utzi du. Horren ordez, kasuen jarraipena egin, eta haurren arretan eskumena duten administrazioen praktika egokia zaintzen du.

Babesgabeziaren eta Babesaren behin betiko Deklarazioari dagokionez, EAEko legeak bi hilabeteko aldia ezartzen du berresteko (eta sei hilabetera luza daiteke salbuespen gisa). Aldi horretan, behin betiko babesaren berretsi behar da, sarreraren datarako atzeraeraginezko ondorioarekin. Hala ere, praktikan epe horiek ezin dira beti bete.

Gizarteratzeko edozein prozesu lortzeko oinarrizko baldintza den dokumentazio-prozesuari dagokionez, antzeko zailtasunak agertzen dira hiru aldundietan. *Jatorrizko herrialdeko dokumentazioaren* kasuan, zailtasun-maila adingabearen nazionalitatearen arabekoa da nagusiki: Marokoko adingabeen kasuan, zailtasunak ez dira oso handiak, bai, ordea, Saharaz azpiko Afrikako herrialdeetako adingabeen kasuan, herrialde horietako kontsulatuak ez baitute pasaporterik ematen herrialdetik kanpo. Beraz, Espainiatik ezin da dokumentu hori lortu. *Egoitza-baimenaren* kasuan, bederatzi hilabete baino gehiago behar dira dokumentu hori lortzeko, Gobernuaren ordezkariordetzek zorrotz aplikatzen baitute atzerritarrei buruzko legea. Dokumentazioa lortzeko aldia 10-14 hilabete da batez beste. *Lan-baimenari* dagokionez, profesional guztiek diote oso zaila dela lan-eskaintza hori lortzea, eta, kasu gehienetan, adingabeak ikastaro bati lotutako praktikak egiten ari diren enpresetan lortzen dituztela. Atzerritarrei buruzko 8/2000 Legeak ezarritakoari jarraiki, hiru foru-aldundiek *adingabe guztiak familiarekin elkartzea* eskatzen diote Gobernuaren ordezkariordetzei, baina, praktikan, jatorrizko familiak eta Gobernuaren ordezkariordetzek egindako eskaerei baino ez zaie erantzun.

Baliabideen tipologiari dagokionez, gizarte-eragile guztiak bat datoz baliabide horiek mistoak izateko (eta, beraz, bertako adingabeak atzerriko adingabeekin bizitzeko) irizpidearekin, gizarteratze-maila handiagoa bermatzeko. Hala ere, errealitateak agintzen du, eta bertako adingabeen kopurua txikiagoa denez gero, zaila da nahasketa hori. Nesken kasuan, aldiz, ez da gauza bera gertatzen. Emakumezko IKEDAMen kopurua txikiagoa denez gero, urgentziazko eta harrerako zentro mistoetan hartzen dituzte.

Guztira *IKEDAMentzako* 769 plaza daude eskuragarri 2008rako babes-baliabideetan.

72. taula

Euskal Autonomia Erkidegoko IKEDAMentzako plazak guztira

Baliabide tipologia	Plazak Araba	Plazak Bizkaia	Plazak Gipuzkoa
Baliabideen tipologia	80	63	53
Egoitzakoak: oinarrizko programa	29	206	38
Egoitzakoak: programa espezializatua	26	8	37
Emantzipazioa	23	46	40
Adin-nagusitasuna	—	83	37
Guztira	158	406	205

Iturria: Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Hemen Programa eta Lagunetxe Programa, 2008. Geuk landutakoa.

*IKEDAMek oso ehuneko esanguratsua dute babesgabetasun larriko edo babesgabeziako egoeran dauden eta foru-aldundien arreta jasotzen duten adingabeen artean: % 56 Araban, % 82 Bizkaian eta % 63 Gipuzkoan. Babesgabetasun larriko edo babesgabeziako egoeran dauden haurren eta nerabeen ezaugarrietan izandako aldaketak Espainiako adingabeen kasuan egin izan direnez bestelako jardunak eskatzen ditu. Beraz, *profil berriak agertzearekin batera, aldaketa sakonak egin behar dira babes-zirkuituen diseinuan eta inplementazioan.**

Urgentziazko eta harrerako baliabideei dagokienez, instalazioak desagokiak dira oro har, zentroaren kokapenagatik, zentroaren baldintza fisikoengatik eta gehiegizko okupazioagatik. Urgentziazko eta harrerako programak 196 plaza ditu guztira. Adingabeen eta hezitzaileen ratioa ezarritakoa baino handiagoa izaten da beti. Datuek erakusten dutenez, urgentziazko zentroa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta txikiagoa da hezkuntza-proiektuarekiko gogobetetzea. Araban zein Gipuzkoan, zentro asko udalerriaren erdigunetik hurbil daude, eta ongi komunikatuta daude garraio publikoari dagokionez. Bizkaian, aldiz, mutilen zentro guztiak inguruetan eta eremu bakartuetan kokatuta daude, eta handiagoak izan ohi dira. Kudeaketa delegatuko zentroen eta administrazioak berak kudeatzen dituen zentroen artean, alde handiak daude adingabe eta egun bakoitzeko prezioei dagokienez. Adingabeek baztertu egiten dituzte hezkuntza-proiektuak «ezer egiten ez dutenean» eta «denbora galtzen dutenean» (arazo hori oso lotuta dago dokumentazio-prozesuekin), eta dinamika horiek zalantza eta ulertezintasun handia sortzen diete arretazirkuituaren inguruan. Faktore horiek guztiak direla-eta, egoera are okerrago bihurtzen da, eta sarritan gatazka larriak sortzen dira zentroetan. Laburbilduz, adierazitako baldintza horiek direla-eta, hezkuntza-proiektua zaila da zehazten eta betetzen.

*Egoitza-baliabideei dagokienez, oinarrizko programa orokorra eta espezializazio-programa ditugu, eta, oro har, zuzendarien gogobetetze-maila handia izan da. Oinarrizko egoitza-programak 273 plaza eskaintzen ditu guztira. Azpiegitura eta antolamendua egoikiak dira, baina 2005. urtetik aurrera, iritsitako adingabeen kopuruak gora egitean, zentroak presaka zabaldu dira, zentro berri bat kudeatzeko eta antolatzeko gutxieneko epeak kontuan hartu gabe (amaitu gabeko obrak, proiekturik eza, profesionalen plantila osatugabea eta abar). Baliabide gehienak udalerriaren erdigunetik hurbil kokatuta daude, eta ongi komunikatuta daude garraio publikoari dagokionez. Urgentziazko eta harrerako baliabideen kasuan bezala, *baliabide ekonomikoak urriak dira*, eta kudeaketa delegatuko zentroen eta administrazioak berak kudeatzen dituen zentroen artean alde handiak daude adingabe eta egun bakoitzeko prezioei dagokienez. *Banakako hezkuntza-proiektua* urgentziazko edo harrerako baliabideekin baino baldintza hobetan gauzatu daiteke. Izan ere,*

zenbait dokumentazio-prozedura amaituta daude edo amaitzen ari dira, eta gizarteratzeko eta laneratzeko kanpoko baliabideetan gizarteratzea ahalbidetzen dute.

Azken urteotan sortutako *emantzipazio-baliabideei* dagokienez, nahaste-borraste handia dago plaza errealean eta dagoen eskariaren artean. Programa espezializatuak 71 plaza eskaintzen ditu guztira. Oro har, baliabide mota hori IKEDAMen profiletarako oso egokia dela eta IKEDAMei gizartean eta lan-munduan txertatzen eta erkidegoan eta, oro har, gizartean beren tokia hartzen laguntzen diela ikus daiteke.

Horrela, beraz, adingabeek oso balioespen ona egin dute gizarte- eta hezkuntza-helburu garbiak dituzten eta adingabeak gizartean eta lan-munduan txerta daitezen lortu nahi duten epe luzerako egoitza-baliabideen inguruan.

IKEDAMen gaia oso zabala da, eta gizarte-gaien arlotik ez ezik, beste arlo batzuetatik ere landu behar da. Gaur egun, Hezkuntza Sailak koordinatzen du atzerriko adingabeei esleitu beharreko zentroak aukeratzeko zeregina, baina bi hilabete inguru behar ditu horretarako. Hori dela-eta, zentroetan jardun behar duten pertsonen adingabeen heziketaz arduratu behar dute aldi horretan. Adingabea eskolatu artean hizkuntza-gaitasunak bul-tzatzeke, gaztelaniazko eskolak ematen zaizkio, gutxieneko oinarri bat izan dezan.

Lanbide Heziketarako Ikastetxeen (LHI) bidezko laneratzeta funtsezkoa da hezkuntza-proiektuan. Eta enplegu-eskaintzak kudeatzeta oso korapilatsua ez bada ere, eskaintza horiek lortzea oso zaila da.

Behin eta berriz planteatu den alderdi bat *adin-nagusitasunera iristen diren IKEDAMak* inoren kargura ez egotea da. Adin-nagusitasunerako baliabideak lortzeko, 120 plaza daude guztira.

Programa horiek gorabehera, hainbat arrazoi direla-eta adingabe asko kanpoan geratzen dira. Bizkaian, adin-nagusitasunera iristen diren eta administrazioaren emantzipazio-baliabideen barruan arretarik jasotzen ez duten adingabeen talde horrek GKE batzuek aktibatzen duten zirkuitu «informal» baten barruan lor dezakete arreta.

Azkenik, adierazi beharra dago adingabe gutxi batzuei ez doakiela ongi harrera- eta arreta-prozedura, borondaterik ez dutelako, sistemak berak kanporatzen dituelako, edota sistemak detektatzen ez dituelako. «*Adingabe ikusezin*» horien adibide bat Araban eta Bizkaian sexuan diharduten emakumezko IKEDAMek eskaintzen digute.

9.2. Gomendioak

Atal honetan deskribatuko ditugun gomendioak oso garrantzitsutzat hartu ditugunak dira. Edonola ere, txostenaren barruan beste gomendio batzuk ere aurki daitezke.

Gomendio horien azpian dagoen premisetako bat migrazio-fluxuak globalizazioaren egiturazko faktore gisa, eta inoren kargura ez dauden adingabe migratzaileen etorrera gertakari geldiezin gisa ulertu behar direlako ideia da.

a) *Estatuaren eremutik:*

- Atzeritarrei buruzko 8/2000 Legearen 35. artikulua (inoren kargura ez dauden adingabe migratzaileei buruzkoa) hobeto zehaztea, adingabeen eskubideei, jarduteko prozedurei, detekzioarekin zerikusia duten neurriei eta epeei, adinaren zehaztapenari, aberriratzeei, jatorrizko herrialdeko dokumentazioari, egoitza-baimenari, lan-baimenari eta abarri dagokienez.

Honako proposamen zehatz hauek aurkeztu dira:

- *Aberriratzeak:* Aberriratzeak ez dira automatikoki egin behar, azterlan xehaturik gabe. Aitzitik, adingabearen interes gorena, neurriaren hezkuntza-helburua eta adingabearen borondatea hartu behar dira kontuan. Aberriratzea erabakitzen den kasuetan, gehienez ere 120 eguneko epea egongo da adingabea babes-zirkuituan sartzen denetik aberriratzea gauzatu arte (azterlana eta diagnostiko-proposamena egiteko denbora). Aberriratzea onartu ondoren, nahitaezkoa izango da adingabeari neurri horren berri ematea eta prozedura berme guztiekin aplikatzea. Adingabea babes-zirkuituan sartzen denetik hezkuntza-neurria ebatzi eta gauzatu arte doako asistentzia juridikoa izateko aukera hartu beharko litzateke kontuan.
- *Jatorrizko herrialdeko dokumentazioa:* Zailtasun-maila adingabearen nazionalitatearen arabera da nagusiki, Saharaz azpiko Afrikako herrialde batzuen kasuan batez ere. Proposamen bat Gobernuaren Ordezkaritzarekin ituna egitea izango litzateke, horrelako kasuetan malguagoa izan zedin eta beste dokumentazio motaren bat erabiltzeko aukera eman zezan (hala nola kontsulatuak dokumenturik eman nahi ez duela frogatzen duen notario-akta, zinpeko aitortpena eta abar).
- *Egoitza-baimena:* Neurria ebatzi ondoren, egoitza-baimena emateko epea bederatziratsi hilabetetik lau hilabetera murriztea (aberriratzearen egokitasuna aztertzeko

aldia batez beste hiru hilabete dela kontuan hartuta), eta Gobernu Ordezkaritza guztietan epe berdinak betetzea. Egoitza-baimenak lortzeko eskaeren izapideak arintzeko giza baliabide gehiago jartzea, adingabe horiek adin-nagusitasunera iristean dokumentaziorik gabe gera ez daitezen.

— *Lan-baimena*: Lanerako adinean dauden atzerriko adingabe babestuei lan-baimena lortzeko nahitaezkotasunari dagokionez aplikatzen zaien salbuespena (Atzerriarrei buruzko 4/2000 Legearen 41. artikulua) 21 urteko adinera luzatzea.

— Adin-nagusitasunera iristen diren *IKEDAMen kontratazioa sustatzea eta bultzatzea*, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonentzako Enplegua Sustatzeko Programaren hobarien bidez. Izan ere, egoera horretan daude «adingabeak babesteko erakundeetatik datozen 18 urtetik 30era bitarteko gazteak» (43/2006 Legea).

- Espainiako erkidego guztietan jarduteko irizpide komunak adostea eta erkidegoen arteko koordinazioa bultzatzea, Estatuaren gidaritzapean. Halaber, erkidegoetako administrazio babesleeta teknikaen arteko koordinazioa hobetzea eta, era horretan, izapide asko arintzea, hala nola beste erkidego batzuetan dauden babesen detekzioa, kontsulatueta eta ordezkariordetzetan egin beharreko dokumentazio-izapideak, prestakuntza-ikastaroak eta abar.

b) *Autonomia Erkidegoaren eremutik*:

- Eusko Jaurlaritzak IKEDAMen etorrera eta gizarteratzea kudeatzeko ezarri beharreko jardun-ildoak gutxienez bi urteko aldirako diseinatzea, planifikatzea eta aktibatzea, urgentziazko jardunak ohiko bihur ez daitezen.
- Urtean behin bilduko den sailen arteko¹⁵² eta diziplinararte (administrazioak, hirugarren sektoreko erakundeak, polizia-kidegoak eta abar) batzorde bat sortzea eta antolatzea, IKEDAMen kudeaketarako eta arretarako. Lan-batzorde horrek indarrean dauden jardun-ildoak berrikustea eta arreta-zirkuituaren funtzionamendua eta prozedurak ebaluatzea izango luke helburu. Era horretan, bidezko aldagetak sartuko lirake (plaza kopurua, zentroen tipologia, arazo nagusiak, gainsaturazioa, adingabeen profil berriak eta abar).

¹⁵² Justizia eta Gizarte Segurantzza Saila, Herrizaingo Saila eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

- Eusko Jaurlaritzaren gidaritzapean adingabeei buruzko datuak lortzeko modua sistematizatzeko premia, *Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legean* ezarritakoari jarraiki eta honako irizpide hauek kontuan hartuta:
 - Erregistro bakarra eta informatizatua detekzioan inplikaturako erakunde guztientzat (administrazioarentzat, polizia-kidegoentzat eta hirugarren sektoreko erakundeentzat).
 - Datuetarako (adina, sexua eta nazionalitatea dira funtsezkoak) berariazko eremuak, homogeneoak, neurgarriak eta adostuak lantzea.
 - Erregistratzeko unean, atzerriko adingabeen artean norbaiten kargura daudenak eta inoren kargura ez daudenak bereizteko beharra.
- Adingabeen eskubideak zehaztuko dituen lege-dekretu bat bultzatzea. Eskubide horien bermeetan gabeziak dituzten aldundietan, gainera, «ziurgabetasun administratibo» bat edo, fiskaltzaren zirkular baten arabera, «heriotza administratibo» bat dago gai horri dagokionez. Adingabeari bere eskubideen, egoeraren eta eskuragarri dituen baliabideen berri eman behar zaio. Halaber, doako asistentzia juridikoa eskaini behar da adingabea aldundien babes-zirkuitura iristen denetik.

c) *Adingabeentzako babes-zirkuitua:*

- Polizia-kidego guztien erregistro-irizpideak bateratzea, eta esku har dezaketen segurtasun-kidegoen eta administrazio babeslearen artean *erregistro-protokolo komun* bat sortzea. Protokolo horretan, *harrera-txosten bat* sartu beharko da eta, bertan, *polizia-kidegoek* adingabea detektatzen denetik baliabidera eramaten den arte adingabe horri buruz lortutako informazio guztia aurkeztuko dute, adingabearentzako harrera egokia prestatzeko (adingabea polizia-etxean sartzen den eguna eta ordua, irteten den eguna eta ordua, detekzioan eta polizia-etxean eskainitako arretan inplikaturako agenteak, detekzioaren arrazoiak eta adingabearen egoera une horretan, egindako kudeaketak eta beste datu garrantzitsu batzuk, hala nola itzulpena, osasuna eta abar).
- Komenigarritzat hartzen diren adin-proba guztiak egun berean egitea, adinaren berrespina lortzeko gehieneko epea astebete izatea, eta, adin-nagusitasunaren kasuan, zentroari berehala eta zuzenean jakinaraztea.
- Organo eskudunek babes-ardurak burokratikoki ez ezik oso-osorik ere betetzera behartu behar dute fiskaltza. Behartzeko modu bat abokatuen elkargoen bitartez presioa egitea izan liteke.

- Babesgabeziaren eta Babesaren behin betiko Deklarazioa emateko legeak ezarritako epeak betetzea (lau hilabete), *Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legean* ezarritakoaren arabera.
- Ahal den heinean eta IKEDAMen eta lurraldeko adingabeen kopuru erreala kontuan hartuta, baliabide mistoak (% 50 IKEDAMak eta % 50 lurraldeko adingabeak) eskainiko dituen zirkuitu bat oinarritzko irizpide gisa ezartzea, eta berariazko baliabideak pixkanaka aldatzea, desagertu arte.
- Gehienez ere 15 adingaberentzako edukiera izango duten urgentziazko eta harrerako baliabideak, eta gehienez ere 10 adingaberentzako edukiera izango duten egoitza-baliabideak edo emantzipazio-baliabideak diseinatzea. Zentro berriak zabaldu nahi direnean, udalerriaren erdigunetik hurbil kokatuta eta ongi komunikatuta egon daitezen, eta obrak amaitu eta plantila osoa kontratatatu ondoren zabal daitezen zaintzea.
- Zentroen batez besteko gainokupazioa urgentziazko hiru plazara iritsiko da gehienez. Hori gertatuz gero, Aldundiak beste egoitza-baliabide edo emantzipazio-baliabide batzuetara eraman beharko lituzke adingaberik zaharrenak.
- Urgentziazko eta harrerako zentroetako egonaldia murriztea, legea betez («*ahal bada, 60 egun baino gutxiago*»), IKEDAMak egoitza-zentro edo emantzipazio-zentro mistoetan bizkorrago txertatzeko.
- Zentroei buruzko araudia betetzea eraikinari eta beharrezkoak diren azpiegiturei dagokienez. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak ikuskarpenak egin behar ditu, Aldundiak egoitza-harrerarako baliabideak arautzen dituen dekretua (2008) betetzera behartzeko.
- Zentro guztietako zuzkidura ekonomikoak parekatu egin behar dira. Gainera, urgentziazko eta harrerako zentroetan, baliabide mota dela-eta, partida ekonomikoak handitu egin beharko lirateke. Baliabide ekonomikoak gehitzeak zentro horietako hezitzaileen ratioa automatikoki gehitzea ekarri behar du.
- Gizarte- eta kultura-bitartekotzako funtzioa betetzen duten profesionalak izateko premia, eguneroko bizitzan sortzen diren ulertezintasunak, zalantzak edo gatazkak arintzeko eta banakako hezkuntza-proiektua (zentroek berek edota Foru Aldundiek koordinatua) hobeto inplementatzeko eta ikuskatzeko.
- Migrazioari lotutako prozesuaren eta bidaiaren ondoriozko trauma-ondoko estresaren edota «doluaren» detekzioan espezializatutako profesionalen kopurua gehitzea. Premia hori detektatu ondoren, adingabeak babes psikosozial egokia jasotzeko

aukera izan behar du, eta berariazko arreta-elementuak eskaini behar zaizkio, hala nola adingabearen ama hezkuntzan mintzatzen diren psikologoak, haurren psikologoak eta abar.

- Kasuen zailtasunagatik eta hezkuntza-taldeak osasun emozional ona izateko, kanpoko gainbegiralearen figura txertatzea. Gainbegirale horrek egoitza-programa espezializatuaren zentroetan babes teknikoaren eta psikologikoaren bidez hezkuntza-taldeari laguntzeko eta aholkuak emateko funtzioak beteko ditu.

d) *Gizarteratzea eta laneratzea:*

- Prestakuntza: Lanbide Heziketarako Ikastetxeen (LHI) bidezko laneratzea funtsezkoa da hezkuntza-proiektuan. Lehenik eta behin, LHietako eta lanerako ikastaroetako plaza kopurua gehitzea. Eta, bigarrenik, zentro horietan onartzeko irizpideak malgutzea eta prozedurak arintzea (gaztelania gutxieneko maila batean menderatzea, hasitako ikastaroarekin txertatzea eta abar).
- Lan-baimena: giza baliabide gehiago behar dira enpresa konbentzionalekiko akordioak errazteko eta, era horretan, lan-eskaintzak lortzeko. Hala ere, lan-eskaintzak lortzeko zailtasunak handiak diren bitartean, laneratze-enpresak sortu behar dituzte Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiek, egoitza-baimena lortzeko. Horretarako, arriskuan dauden biztanleak kontratatatzeko eskaintzen diren zerga-abantailak bultzatu behar dira (43/2006 Legea).
- Laguntza emozionala: jatorrizko familiek adingabearen gizarte- eta hezkuntza-prozesuan eta gizarteratzeko baliozko erreferentzia gisa bete dezaketen zeregina bultzatzea.
- Erakunde-euskarria: babesa 21 urteko adinera luzatzea, adingabeentzat dauden plazak adindunentzat daudenekin parekatu arte. Horretarako, adingabearen hezkuntza-jarraiaren aldia luzatuko duen emantzipaziorako babes-sare bat sortu behar da. Sare horretan, autonomiara bideratutako gizarte-trebetasunak eta eguneroko bizitzarako trebetasunak eskuratzeko laguntza eta ikuskapena eskainiko zaizkio adingabeari.

e) *Prestakuntza eta sentsibilizazioa:*

- Profesionalen etengabeko prestakuntzaren beharra adingabeen jatorrizko testuinguruei, migrazio-fluxuei, kulturarteko harremanei, balioetan oinarritutako hezkuntzari eta abarri lotutako alderdietan.

- Kontuan hartu behar da bertako biztanleen iritzia, askotan prentsa eta komunikabideak etorkinen egoera estigmatizatzen saiatzen baitira. Ildo horretan, gizarte osoari zuzendutako informazioko eta sentsibilizazioko kanpainak egin behar dira, kolektibo hori eta haren premiak ikuspegi positibo batetik ezagutarazteko.
- Atzerriko haurren eta nerabeen migrazio-prozesuei buruzko ikerketa sustatzea, honako hauek kontuan hartuta, besteak beste: profilen aniztasuna, sexua, adina, nazionalitatea, migratzeko arrazoiak, administrazioek harrera-agente gisa betetzen duten zeregina, adingabe horien gizarte-arriskuaren faktoreak eta babes-faktoreak, familiaren figura eta zeregina, eta gizartean eta lan-munduan egokitze eta txertatzeko dinamikak.

10 Bibliografia

- ZENBAITEN ARTEAN (2006). *Menores tras la frontera: otra inmigración que aguarda*. Icaria, Bartzelona.
- ACNUR (2006). *Refugiados en cifras 2005*, ACNUR.
- Alberich, N. (1999). *Juventut a l'exili. El cas del poble sahraui*. Masterreko tesina, Bartzelonako Universitat Autònoma.
- Alonso, A. (2008). *En terra de ningú. Una aproximació a la prostitució en els projectes migratoris de menors no acompanyades de l'Europa de l'Est a Catalunya*. Masterreko tesina, Bartzelonako Universitat Autònoma.
- Arartekoa (2005). *Bakarrik dauden Adin Txikiko Atzerritarren Egoera EAEn*.
- Arce, E. (1999). «Menores extranjeros en situación de desamparo», in *LEX NOVA*, 5, Madril.
- Berga, A. (2007). «Adolescència femenina i risc social», in *Col·lecció Estudis Bilduma*, 21. Bartzelona.
- Capdevila, M. eta Ferrer, M. (2003). *Estudi sobre els menors estrangers que arriben sols a Catalunya*. Direcció General d'Atenció a la Infància i l'Adolescència (DGAIA) de la Generalitat de Catalunya, Bartzelona.
- COLECTIVO IOE (1994) *Marroquins a Catalunya*. Institut Català d'Estudis Mediterranis. Bartzelona.
- Comas, M. eta Quiroga, V. (2005). *Una investigació transnacional. Menors que emigren de Marroc a Barcelona*. Mediterrànea-Fundació Jaume Bofill; Bartzelona.
- Defensor del Menor Andaluz (2004). *Informe Especial sobre los Menores Inmigrantes*.
- Eusko Jaurlaritz (2007). *Immigrazioari buruzko II. Euskal Plana 2007-2009*.
- Jiménez, M. (2003). *Buscarse la vida*. Fundación Sta. Maria Fundazioa, Madril.
- Jiménez, M. (2004). «Análisis de los procesos migratorios transnacionales de los menores de origen marroquí», in *Gironako Immigrazioari buruzko IV. Kongresua*.

Giménez, C. eta Suárez, L. (2000). *Menores extranjeros no acompañados*, Gizarte Ekin-tzaren, Adingabearen eta Familiaren Zuzendaritza Nagusia, Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa, Madril.

Juliano, D. (2004). *Excluidas y marginadas*. Cátedra- Ediciones Feminismos, Bartzelona.

López García, B.; Ramírea, A.; Planet, A. (2004). *Atlas de la Inmigración Marroquí en España*. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa. Taller de Estudios Internacionales Medi-terráneos, Madril.

Monteros, S. (2007). *La construcción social de un nuevo sujeto migratorio: los menores migrantes marroquíes no acompañados*. Doktore Tesia, Madrilgo Unibertsitate Auto-nomoa, Madril.

Morante, M.^aL. eta Trujillo, M.^aA. (2007). «Las niñas adolescentes que emigran solas a España», in *Actas del Coloquio Internacional La Migración de Menores Extranjeros No Acompañados*, Poitiers

GAZTE JUSTIZIAREN NAZIOARTEKO BEHATOKIA (2007)

PNUD (2008). *Giza Garapenari buruzko Txostena 2007/2008*.

Quiroga, V.; Alonso, A.; Armengol, C. (2005). *Rutas de pequeños sueños*. Fundació Pere Tarrés Fundazioa, Bartzelona.

Quiroga, V. (2003). *Los pequeños harraga. Menores inmigrantes irregulares no acom-pañados de origen marroquí en Cataluña*. Doktore Tesia, Universitat Rovira i Virgili, Tarragona

Quiroga, V.; Alonso, A.; Berga, A.; Soria, M. (2007). *Nenes i adolescents invisibles a Catalunya. Les menors migrants no acompanyades des d'una perspectiva de gènere*. Institut Català de les Dones, Bartzelona.

Ramírez, E. (1996): *Inmigrantes en España: vidas y experiencias*. Siglo XI, Madril.

Smith, S. (2005). *Atlas de l'Afrique*. Éditions Autremont, Paris.

Suárez, L. (2006). «Un Nuevo actor migratorio: jóvenes, rutas y ritos juveniles transna-cionales», in ZENBAITEN ARTEAN, *Menores tras la frontera. Otra emigración que aguarda* (17-50). Icaria. Bartzelona.

UNICEF (2008). Ekintza Humanitarioa UNICEF. 2008ko txostena. Haurren Laguntza-rako Nazio Batuen Funtsa.

UNITED NATIONS (2007). «Populations and Vital Statistics Report». Statistical Papers. Series A, LIX liburukia, 1 zk., Department of Economic and Social Affairs.

Web-loturak

- ACNUR (Errefuxiatuentzako Nazio Batuen goi-komisarioa) <http://www.acnur.org/>
- Migrazioen urtekaria: www.mtas.es/migraciones/anumigra/default.htm
- CEAR (Errefuxiatuari Laguntzeko Espainiako Batzordea): <http://www.cear.es>
- Giza eskubideen Deklarazio Unibertsala: www.unhchr.ch/udhr/lang/cln.htm
- Estatistikako Institutu Nazionala: <http://www.ine.es>
- OIM (Migrazioetarako Nazioarteko Erakundea): <http://www.iom.int>
- ONU (Nazio Batuen Erakundea): <http://www.un.org/spanish>
- Save The Children: <http://www.savethechildren.es>
- Immigrazio eta Emigrazioko Estatu Idazkaritza: <http://www.mtas.es/migraciones/>
- UNICEF: <http://www.unicef.org>
- Europar Batasuna: <http://www.ue.eu.int>

Prentsa

- «Nos tienen en la calle de nueve de la mañana a nueve de la noche». *El País*, 2008/03/30 www.elpais.com/articulo/pais/vasco/Nos/tienen/calle/manana/noche/el-pepiesppv/20080330elpvas_9/Tes/).
- Juanma Velasco, «La diputación impulsa la figura del mediador intercultural para atender a menores inmigrantes». *Diario Vasco*, 2007/10/05 (www.diariovasco.com).
- Efe, «Azkoitia denuncia que es irresponsable unir menores extranjeros, antecedentes e incendio». *Deia*. Com, 2007/04/04 (www.deia.com/es/digital).
- Juanma Velasco, «Trabajadores del centro de inmigrantes de Tolosa denuncian un nuevo motín. Un menor asestó un navajazo a otro en otro altercado ocurrido ayer». *Diario Vasco*, 2007/10/01 (www.diariovasco.com).
- Arantxa Aldanz, «Guipúzcoa cuenta con 25 plazas para la acogida urgente de menores extranjeros». *Diario Vasco*, 2006/11/07 (www.diariovasco.com).
- Editorial «Un problema de todos». *Diario Vasco*, 2006/11/05 (www.diariovasco.com).

- «Detenidos, cuatro menores por incendiar el centro de acogida de Amorrebieta donde vivían». *El Correo Digital*. Bizkaia, 2006/10/09 (www.elcorreodigital.com/vizcaya).
- Alain Laiseka, «Los educadores de Loiu alertan de que el centro de menores puede convertirse en un «nuevo Orduña»». *Deia.com*, 2005/12/02 (www.deia.com).
- Isabel Camacho, «Menores en el ojo del huracán», *El País* EAEko edizioa, 2004/04/03 (www.elpais.com).

11 Eranskinak

I. Elkarrizketatutako funtsezko informatzaileak

	Izen-abizenak	Kargua	Erakundea
1	Adoración de la Fuente	Umeen Zerbitzuko burua	Bizkaiko Foru Aldundia
2	Álvaro Ortiz de Zarate	Elkarteko presidentea	T4 Elkartea
3	Arantxa Rodríguez	Harrerako eta Urjentziazko zentroko zuzendaria	Nuevo Futuro Elkartea
4	Carlos Sagardoy	Zuzendaria	Zabaloetxe Zentroa
5	Chelo Ordejón	Presidentea	Gizarterako Elkartea
6	Isabel Gros	Haurren eta Familiaren arlo teknikoaren zuzendariordea	Arabako Foru Aldundia
7	Isidro Pouzas	Tolosako harrera-zentroko zuzendaria	Nuevo Futuro Elkartea
8	Itziar Alzugaray	Urnieta zentroko zuzendaria	Gipuzkoako Foru Aldundia
9	Jesús Ángel Fernández	Zabaltzen zentroko zuzendaria	Salestarrak
10	Juan José Susundegui y Mikel Uriá	Donostiako eta Irungo polizia-etxeetako buruzagitza	Ertzaintza
11	María Pestaña	IKEDAMen egoitza-koordinatzailea	Gipuzkoako Foru Aldundia
12	Marian Arias	Presidentea	Askabide Elkartea
13	Maria Elsa Martín	Zuzendaria	Argileku Etxea
14	Pablo Amézaga	Harrera Zentroko zuzendaria Amorebieta	Landalan Elkartea
15	Patxi Aquidiano	Haurren Zerbitzuko burua	Gipuzkoako Foru Aldundia
16	Rafael San Pedro y Txema Biloría	IKEDAMen koordinatzaile eta egoitza-harreraren buru	Bizkaiko Foru Aldundia
17	Rosa Gutiérrez	IKEDAMen eta Etxebizitza Funtzionalen Sareko zuzendaria	Bizkaiko Foru Aldundia
18	Santiago Pascual	Vivero Urgentziazko Zentroko zuzendaria	Urgatz Elkartea
19	Txema Gaona	Segurtasun Saileko teknikaria	Herrizaingo Saila. Eusko Jaurlaritza
20	Juan Carlos González	Adingabeen batzordeko kidea	Izangai Elkartea

II. Egoitza-baliabideen (OP) sarea Gipuzkoan

**RInoren kargura ez dauden adingabe migratzaileentzako egoitza-baliabideen
(oinarrizko programa) sarea Gipuzkoan (2008ko abenduaren 31)¹⁵³**

Izena	Irek. urtea	IKEDAM arret. urtea	Herria	Titulartasuna	Kudeaketa	Plazak	Plazak MMNA	Erabiltzaileen ezaugarriak Sexua/Adina
Ategorrieta	2008	2008	Donostia-San Sebastián	Itundua	AEEG	8	2	13-17 urteko mutilak
Gros	2008	2008	Donostia-San Sebastián	Itundua	AEEG	8	2	13-17 urteko mutilak
Bera-Bera	2008	2008	Donostia-San Sebastián	Itundua	AEEG	8	2	13-17 urteko mutilak
Beasain	2008	2008	Beasain	Publikoa	Nuevo Futuro	8	2	13-17 urteko mutilak
Donostia erdialdea	2008	2008	Donostia-San Sebastián	Itundua	Bide Berri	8	2	13-17 urteko mutilak
Tolosa	2008	2008	Tolosa	Itundua	Bide Berri	8	2	13-17 urteko mutilak
Bergara	2008	2008	Tolosa	Itundua	Bide Berri	8	2	13-17 urteko mutilak
Urretxu	2008	2008	Urretxu	Publikoa	Urgatzi	10	10	13-17 urteko mutilak
Azpeitia	2008	2008	Azpeitia	Publikoa	Urgatzi	10	10	13-17 urteko mutilak
Legorreta	2008	2008	Legorreta	Publikoa	Urgatzi	10	10	13-17 urteko mutilak
Arrasate	2008	2008	Urretxu	Publikoa	Urgatzi	8	8	13-17 urteko mutilak
Hondarribia	1998	2005	Hondarribia	Itundua	Nuevo Futuro	8	2	neska/mutilak 13-17
Hogares Amara	1998	2005	Donostia-San Sebastián	Publikoa	Nuevo Futuro	8	2	neska/mutilak 13-17
Uralde	2007	2007	Lezo	Publikoa	Clece, S.A.	10	10	16-18 urteko mutilak

¹⁵³ Ikus eranskinetan 2008ko abenduaren 31n eguneratutako baliabideen sarea.

Izena	Irek. urtea	IKEDAM arret. urtea	Herria	Titulartasuna	Kudeaketa	Plazak	Plazak MMNA	Erabiltzaileen ezaugarriak Sexua/Adina
Gabiria	2007	2007	Gabiria	Itundua	Bideberri	10	10	12-16 urteko mutilak
Zizurkil	2007	2007	Zizurkil	Publikoa	Nuevo Futuro	8	2	12-18 urteko neska/mutilak
Frantzia	2007	2007	Donostia-San Sebastián	Itundua	Nuevo Futuro	8	2	13-17 urteko neska/mutilak
Guztira						146	80	

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2007-8. Egileak egina.

